

BERANGOKO HIZTEGIA

1. GIZA-GORPUTZA

Atal honetan giza gorputzari dagokion lexikoa biltzen dugu. Informazioa hobeto emateko atal hau ondoko era honetara banatuta aurkezten dugu: burua, ahoa, begia, belarria, sudurra, ilea, gorputza, besoak, hankak, errainak, azala eta gurariak-loa.

1.1. BURUA

arpegi, aurpegi: aurpegia

"Arpegi pintta itteuren" - (Aurpegia pintatu egiten zuten)

"Ene otzatxu dekosu aurpegi" - (Ene hoztxo daukazu aurpegia)

"Aittu selau abi daun goyen, sera yausten badatzu aurpegire edo sentalle sera sertxe yeuren" - (Aditu zelako habia dagoen goian, zera jausten bazaizu aurpegira edo zentaila zera zertzen zuten)

"Bai bueno ote siren batzuk, buru baltza, aurpegi baltza, buru baño auprgi baltza, ta beno gero aurpegi gorri bet, bere bai, eta, oritxe klase esetu dot nik, baya nik estot asko esetu" - (Bai beno egoten ziren batzuk, buru beltza, aurpegi beltza, burua baino aurpegi beltza, eta beno gero aurpegi gorri bat, ere bai, eta, mota horixe ezagutu dut nik, baina nik ez dut asko ezagutu)

bekoki: bekokia, kopeta

buru: burua

"Ak koittedek eyaun auki ondo buru" - (Koitadu hark ez zuen eduki ondo burua)

idune: iduna, sama; iduna eta sama bereiztu egiten dira; iduna kanpokoia da eta sama barrukoa da edo eztarria.

kasku: burua; burua adierazteko erabiltzen den berba

kokota: kokotea, garondoa

"Sorburu kokote da" - (Sorburua kokotea da)

konosiminttu, konoseminttu: 1. zentzua, sena. 2. gogoia, oroimena

"Ene! diño, Gasteluatxen, berak konosiminttun dekon sera, esteule ikusi, urte gustittan, Bermiokok eta emekok

agarradan beti" - (Ene! dino, Gaztelugatxen, berak gogoan daukan zera, ez duela ikus, urte guztietan, Bermeokoak eta hemengoak borrokan beti)

"Matza ya yausi, nire konosemintturako ya yausitte on san" - (Mahatsa ja jausi, nire gogorako ja jausita egon zen)

matralle, matrille: matraila, masaila

okospe: okozpea, okotz-azpia

okotza: okotza, kokotsa

papu: masaila, papoa

same: sama, eztarria

"Gure amak esateun ori, nik estot esetu nire aisteri, seratxu in sala, eserestxu, eserestxu ixen sala, eta samatxu alan daula ta amarra, pañelu amarra, pañueltxu amarraten sala, ori bai entzunte nau, amari" - (Gure amak esaten zuen hori, nik ez dut ezagutu nire ahiztari, zertxoa egin zela, ezereztxoa, ezereztxoa izan zela, eta samatxoa hala dagoela eta lotu, zapia lotu, zapitxoa lotzen zela, hori bai entzunda nago, amari)

sena: 1. sena, zentzua. 2. konortea

sentzune: zentzua, sena

1.2. AHOA

adurre: adurra, lerdea

agiñe: hagina, hortza; haginak eta hortzak ez dira bereizten.

"Onek aurreko agin biek yausten dakes" - (Aurreko hagin bi hauek jausten zaizkie)

ago: ahoa

"Ogi tiratxu, eskiñetxu kendute, agoan ibil deyen" - (Ogi tiratxoa, izkinatxoa kenduta, ahoan erabil dezaten)

babe: adurra, lerdea

"Nik, e, neskatori otabost urte dekos, ta bai alau txupatus, olau polotxu antzeko batzuk oten siren farmasin, areas, asten danen botaten babatzuk eta bakixu asikerako, lelengo agiñe, aik txupa eta kalma itte otzen" - (Nik, neskatoari, hogeita bost urte dauzka, eta bai halako txupatus, holako polotxo antzeko batzuk egoten ziren botikan, harekin, hasten denean botatzen adurtxoak eta badakizu hasierako, lehenengo hagina, haiek miazkatu eta baretu egiten zion)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Babe les itxitteun gausatan, eta ya, a ya esin san yan" - (Adurra legez uzten zuen gauzetan, eta ja, hura ja ezin zen jan)

barre: barrea

"Maye auki eun, esne, indabak, arrutzek, piper siku danatariko, eta barreka asi san" - (Mahaia eduki zuen, esnea, indabak, arrautzak, piper sikua denetarikoa, eta barreka hasi zen)

"Asikeran, a, lelengo urten barre les i yeusten, a, llobek" - (Hasieran, lehenengo urtean barre legez egin zidan, lobak)

barre faltzo: barre faltsua, derrigor egiten den barrea

barre santzo: barre zantzoa, barre algara

beko agiñe: beheko hagina

bosa: ahotsa

erribarre: irribarrea

esne agiñe, esneko agiñe: esneko hagina, lehen hortz-haginak

espana: ezpaina

"Toneliko, emen dekusena tires, toneliko tire, geyen gustaten datenak, se atxikok apur bet espanak erre intten deus" - (Tonelikoa hemen dauzkagunak dira, tonelikoak dira, gehien gustatzen zaizkidanak, ze atxikoak apur bat ezpainak erre egiten ditu)

goiko agiñe: goiko hagina

gustu: gustua

"Sure amak imintteun makallo eta oiñ iminte deittuesenak, gusturi pere estauke oingok" - (Zure amak ipintzen zuen makailoa eta orain ipintzen dituztenak, gusturik ere ez daukate oraingoek)

"Beyena bere siketu lei, baya esteko ardiñe lau gustu ona" - (Behiarena ere sika daiteke, baina ez dauka ardiarena lako gustu ona)

juisioko agiñe: juisioko hagina

"Baiñ atara yosten juisioko agiñe, Krusesen ganera, baya osten agiñetako miñe, estot iños etzen esetu" - (Behin atara zidaten juisioko hagina, Gurutzetan gainera, baina ostean hagineta mina, ez dut inoiz etxean ezagutu)

karkasade: algara, zantzoa

kolmillo: letagina

matrillagiñe: matrail hagina

miñe: mihia

"Ai! miñen puntan dekot" - (Ai! mihiaren puntan daukat)

mostratxe: musturra, ezpainak; berba honek esangura peioratiboa dauka

"Sauk edango seunke, eskatute, botilla bat, a, kita barik mostratxeti, edango seunke oiñ" - (Zeuk edango zenuke, eskatuta, botila bat, kendu barik musturretik, edango zenuke orain)

mosu: musua

"Emo neutzesan mosu batzuk" - (Eman nizkion musu batzuk)

musturre: muturra, ezpainak

santzo: zantzoa, irrintzi, algara

tragu: zurrutada

"Len edaten sendun tragu bet eta, ostra! atzerantza botateun" - (Lehen edaten zenuen zurrutada bat eta, ño! atzerantz botatzen zuen)

txistu: txistua, txua

"Esaten deure txistu traga, entzun dosu iños? txistu traga, txistu traga" - (Esaten dute txistua irentsi, entzun duzu inoiz? txistua irentsi, txistua irentsi)

"Egun dustin txistuke ta kantaka dabill" - (Egun guztian txistuka eta kantaka dabil)

1.3. BEGIA

adikune: adikunea, begirakunea

adikune txarra: adikune txarra, adikune motza

"Orrek adikune txarra ein deust" - (Horrek adikune txarra egin dit)

anpullu: negarra, negar anpulua

begi: begia

"Nik ikusi dotes nire begikes kasureko" - (Nik ikusi ditut nire begiekin kasurako)

begi argi: begi argia; urdinak, berdeak, e. a. izaten dira

begi asule: begi urdina, begi zuria

begi bellegi: begi gaztaintara, marroia

begi epela: begi epela, begirakune tristekoari esaten zaio

"Or begi epela taus" - (Hor begi epelak daude)

begi ondo: begi ondoa

"Begi ondo triste dekosu" - (Begi ondoa tristea daukazu)

begi pardo: begi nabarra, begi gaztaintara

BERANGOKO HIZTEGIA

begi suri: begi zuria, begi argia
"Asulek dekusenak begi suri" - (Urdinak dauzkagunak begi zuri)

betule: betilea, bekaina

bisde: ikusmena
"Bisdek apur bet fallaten dost baya osten osasun itzela dekot" - (Ikusmenak apur bat huts egiten dit baina ostean osasun itzela daukat)

negar anpulu, negar anpullu: negarra, negar anpulua

negarra: negarra, negar anpulua
"Eta esa neutzen nire laguneri nik, eta nire neberri tte, negar baten, esin saldu, etor dakus beste batzuk eta estu saldu" - (Eta esan nion nire lagunari, nik, eta nire nebari eta, negar baten, ezin saldu, etorri zaizkigu beste batzuk eta ez dugu saldu)

pestañe: betilea
"Bueno, se i nun? ogi, a, seraas, imiñi masa masa bat eta begittan imiñi, eta gogortu in san, pestaña dusti pere altzata" - (Benoa, zer egin nuen? ogi, zerarekin, ipini amasa-amasa bat eta begietan ipini, eta gogortu egin zen, betile guztiak ere altxatuta)

piste: pizta
"Pistakas altza da" - (Piztekin altxatu da)
"Nire umek estoas esetu pistakas" - (Nire umeak ez ditut ezagutu piztekin)

1.4. BELARRIA

belarri: belarría
"Oriotxu epela, kipulla satitxu beteas, orio epeltxu bota belarrire, kollaratxues, belarrikoas, se ikutu igual belarriten ta negarres igual, ene! belarriko miñe deko onek" - (Oliotxo epela, kipula zatitxo batekin, olio epeltxoa bota belarrira, koilaratxoarekin, belarrikoarekin, ze ikutu beharbada belarrietan eta negarrez beharbada, ene! belarriko mina dauka honek)

belarritteko sulo: belarrietako zuloa, arrakada zuloa

girrintze: girrintza, intziria

sarate: zarata, hotsa
"Emen amarratza, amarratza, gure aitte difuntuk, a, etzen egote gintzen, esate

aun, solon igual ibilli, eta egun batzuten ta, olan adi parate san, eta sarate, eta karo yakiñ itteun, a, selan dan, marea gora edo marea bera selan diren, eta e! bakixu ser ingo dun? bagos itxosora, eta gu alan txikerrak eta beran atzen, kosteusen amarratzak!" - (Hemen amarratza, amarratza, gure aita zenak, etxean egoten ginen, esaten zuen, soroan beharbada ibili, eta egun batzuetan eta, hola adi paratzen zen, eta zarata, eta jakina jakin egiten zuen, zelan den, marea gora edo marea behera zelan diren, eta e! badakizu zer egingo dugun? bagoaz itsasora, eta gu hala txikerrak eta beraren atzean, hartzen zituen hamarratzak!)

"Emen dau sarate! emen elei aguanta!" - (Hemen dago zarata! hemen ez liteke iraun!)

sokorru: sokorrua, alarua, garrasia, oihua
"An iteutesen sokorru betzuk" - (Han egiten zizkieten sokorru batzuk)

1.5. SUDURRA

albañe: albaina, arnasestua; gehienetan ganaduaren arnasoskari buruz esaten den arren, pertsonena ere izan daiteke

arnase: arnasa
"Asko korriten baosu, arnasa artu esiñik saus" - (Asko korritzen baduzu, arnasa hartu ezinik zaude)

atza: hatsa, kiratsa

erre sunde: erre sunda

kaski sunde: kaski sunda, usain txarra, hatsa
"Ba sunde txarra, es txarriñe edosein jenerona, amen dau kaski sunde!" - (Bai sunda txarra, ez txerriena edozein gauzarena, hamen dago kaski sunda!)

"Edosein sunderi diñotzesu, selau kaski sunde" - (Edozein sundari dinotsazu, zelako kaski sunda)

sunde: sunda

"Igual yoten sintzen mesara, ta, igual sunde bat, ta ene selau kaski sunde!" - (Beharbada joaten zinen mezara, eta, beharbada sunda bat, eta ene zelako kaski sunda!)

surpe: surpea, sudurpea, sudur-azpia

surre: surra, sudurra

BERANGOKO HIZTEGIA

"Guapo, alkondara surikes etorte siren ta, odolas beterik, edo belarri arrankata edo, surrondon golpe" - (Polito, alkondara zuriekin etortzen ziren eta, odolez beterik, edo belarria erautsita edo, sudur ondoan kolpea)

surtzillo: sudurzuloa

txixe sunde: txiza sunda

"Arra, gero iltteko, kapa bari padau, gero ak, a, txixe sunde eukitten dau" - (Arra, gero hiltzeko, irendu barik badago, gero hark, txiza sunda edukitzen du)

usiñe: usaina

"Eta olan iñ, eta usiñe bota ber deu" - (Eta hola egin, eta usaina bota behar du)

1.6. ILEA

bigote: bibotea

bixerra: bizarra; burukoa ez den ilea

"Aik ote sien sorrotz, norberan bixerra kentzeko modun, e?" - (Haiek egoten ziren zorrotz, norberaren bizarra kentzeko moduan, e?)

erremolino: kaska-gaina

errisu: kirrua

kalbe: uldunea, soilgunea

kane: ile zuria

moño: moinoa, motoa

"Oin bere erretratun, a, moñoas dau" - (Orain ere argazkian, moinoarekin dago)

orras: orrazia

peinete: orrazka

sape: sapa, txima

"Selau itxure dekosun orrek sapakas!" - (Zelako itxura daukazu sapa horiekin!)

trentze: ile txorta, ile mototsa, txirikorda

txorte: txorta, txirikorda

ule, ulle: ilea

"Ulle orrastu te osten nire amamak iños eyeusen botaten ullek, erre" - (Ilea orraztu eta ostein nire amamak inoiz ez zituen botatzen ileak, erre)

"Esate yen ullek estirela ustelduten eta estala itxi ber mundun norberan ullerik, batu, eta erre" - (Esaten zuen ileak ez direla usteltzen eta ez dela utzi behar munduan norberaren ilerik, batu, eta erre)

"Yantzi tte pentza beres eta, ullerik ebai tte beres, ori buruko pañuelu" - (Jantzia eta pentsatu ere ez eta, ilerik ebaki eta ere ez, hori buruko zapia)

ule errubio: ilegorria

ulle mengela: ile mengela

ule moreno: ile beltza

ule suri: ile zuria, ile urdina

ule urdiñe: ile zuria, ile urdina

1.7. GORPUTZA

albo: alboa, gorputzaren alboa

altzo: altzoa

"Altzon ekarri eusten ollo suri bet bixirik" - (Altzoan ekarri zidan oilo zuri bat bizirik)

biskerra: bizkarra

bulerra, bularra: 1. bularra, 2. bularra, titia

"Seoser, a, saye, saye esan ixen? saye ixen salako dekot, sayeas, ureas, ureas intte, a, gero trapotxu beten sabaldu, trapotxu beten sabaldu te gero imiñi bularran, bularran imiñi gero soldu dekion a" - (Zer edo zer, zahia, zahia ez zen izan? zahia izan zelakoa daukat, zahiarekin, urarekin, urarekin eginda, gero trapotxu baten zabaldu, trapotxu baten zabaldu eta gero ipini bularrean, bularrean ipini gero zoldu dakion hura)

eperdi: ipurdia

"Leku eskutun badau, igual dau aputxu bet ona adi, ona adi, aputxu bet olan, baya ostantzen eperdi emonta" - (Leku ezkutuan badago, beharbada dago apurtxo bat hona adi, hona adi, apurtxo bat hola, baina osterantzean ipurdia emanda)

epertxuntxurre: ipurdi tunturra, ipurdi masaila

espalde: bizkarra

"Gero espalda dustin ataraten deutze alaseko suldarra" - (Gero bizkar osoan ateratzen diote halaseko zuldarra)

garri: gerria

gorputze: gorputza

"Batzuten persone tenple txarra edo tenple onaas, eta begitten igerri inten da, se gorputze dekon" - (Batzuetan pertsona gorputzaldi txarrarekin edo gorputzaldi onarekin, eta begietan igarri egiten da, ze gorputz daukan)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Aurek eitteuen gero auren gorputzeas sulo eta an" - (Eurek egiten zuten gero euren gorputzarekin zuloa eta han)

jibu, jibe: konkorra

"Klaro itxi euren, a itxi euren olan, a, ertzan, lepoko jibu ikusi estaiñ, asurre auki eun urtenta ta" - (Jakina utzi zuten, hura utzi zuten hola, ertzean, lepoko konkorra ikusi ez dezan, hezurra eduki zuen irtenda eta)

lepo: lepoa

"Nik lepon esiñ ibil dot" - (Nik lepoan ezin erabili dut)

"Askotan ekar dot lepon" - (Askotan ekarri dut lepoan)

"Eta lepon erote yeuren, gorpu lepon" - (Eta lepoan eroaten zuten, gorpua lepoan)

paparra: paparra

"Ori paparra bustitte deko señek" - (Papar hori bustita dauka seinak)

sille: zila, tripa zila

titi: titia

tripe: tripa, sabela

"Orrek tripe betatu eskeronen, a, eguski suri artxen daure" - (Horiek tripa betez gero, eguzki zuria hartzen dute)

txepe: konkorra

txiko: txikoa, kokote-azpiko gunea

"Txikoti agarrata muñekotxu et imin atzen, ta iñusentekerik" - (Txikotik oratuta panpinatxo bat ipini atzean, eta inuzentekeriak)

1.8. BESOAK

atzamarra: atzamarra

"Oñaspin bere para litte ta, osten bere, atzamarran puntan bere igual ba inkonaten badatzu odolbatu" - (Oinazpian ere para liteke eta, ostean ere, atzamarren puntan ere beharbada ba zoltzen bazaizu odol batua)

atzasala: atzazala

"Atzasalak esin siren ebagi" - (Atzazal ezin ziren ebaki) [Gure informatzaile baten amamaren arabera, atzazalak martitzen, eguazten eta barikuetan ezin ebakitzen dira]

"Ba gaixo pentzaten dot se, atzasalak eitten dakosan modun, a, pensoneri, ba

aureri, batzuri lelau, ta beste batzuk, baya askotan etzen bere ikus dot ori itten" - (Ba gaixoa pentsatzen dut ze, atzazalak egiten zaizkion moduan, pertsonari, ba eurei, batzuei lehenago, eta beste batzuk, baina askotan etxean ere ikusi dut hori egiten)

besape: besapea

basarte: besarte

beso: besoa

eskerra: ezkerra

"Eskoya ta eskerra ixen ber de" - (Eskoia eta ezkerra izan behar dute)

"Yon Mungirantza ta eskerratar" - (Joan Mungirantz eta ezkerretara)

eskoya: eskoia

"Subi au Berangoko subi pasa ta, a eskoyatara, lelango daun aldean etzen biste san ori ni tiñotzutena" - (Zubi hau Berangoko zubia pasatu eta, hura eskoitara, lehenengo dagoen baserrian bizitzen zen hori nik dinotsudana)

esku: eskua

"Len itte san dana eskus" - (Lehen egiten zen dena eskuz)

"Esku luse ote san ordun" - (Esku luzea egoten zen orduan)

eskuarte: esku-arte

esku barru: esku barrua, ahurra

esku gane: esku gaina

eskuturre: eskuturra, eskubiterra

sorbalde: sorbalda

ukondo: ukondoa

ukubille: ukabila

"Ukubilleas emon tzete golpe" - (Ukabilarekin eman diet kolpea)

1.9. HANKAK

anke: hanka, zangoa; pertsonena ez eze animaliena eta gauzena ere izan daiteke

beatza: behatza

belaune, beleune, belune: belauna

"Belunek estaure laguntzen" - (Belaunek ez dute laguntzen)

berne: berna

"Berne da au, txanke da au ta berne da au" - (Berna da hau, txanka da hau eta berna da hau)

isterra, istarra: 1. izterra. 2. hanka, oina

"Suk isterra bota ber dosu artes" - (Zuk izterra bota behar duzu artetz)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Olau, a, burni betzun ganen, isterrak imiñi emen, eta, ibiltte san" - (Holako, burdina batzuen gainean, oinak ipini hemen, eta, ibiltzen zen)

"Etorri isterren ganera saldi modun ingo tzut eta" - (Etorri izterraren gainera zaldi moduan egingo dizut eta)

kadere: 1. oina, animaliena eta gauzena ere izan daiteke. 2. mokorra

"Ein kosu, a, seran, eta olan, kaderatati eta olan, a, lepoti eiñ agarra" - (Egin hartu, zerean, eta hola, oinetatik eta hola, lepotik egin oratu)

karradere: lasterka, korrikaldia

oñaspi: oinazpia

"Oñaspin bere para litte ta, osten bere, atzamarran puntan bere igual ba inkonaten badatzu odolbatu" - (Oinazpian ere para liteke eta, ostean ere, atzamarren puntan ere beharbada ba zoltzen bazaizu odol batua)

oñe: oina

"Sapaldu itten gendun dusti, ordun oñekas sapaltxe san dusti, gaur estau olaurik, baya atxiñe, oñekas sapaldu dusti" - (Zapaldu egiten genuen guztia, orduan oinekin zapaltzen zen guztia, gaur ez dago holakorik, baina antzina, oinekin zapaldu guztia)

orkatille: orkatila

orpo: orpoa

pausu: pausua, urratsa

salto: saltoa, jauzia

txanke: txanka, bernaren atzea

"Selau txanka tekosen orrek!" - (Zelako txankak dauzkan horrek!)

"Txankatan emongo tzut" - (Txanketan emango dizut)

1.10. ERRAINAK

asurre: hezurra

"Esteko yatekorik, e? dusti da asurre" - (Ez dauka jatekorik, e? guztia da hezurra)

"Asurretan bere ondo imintteuna, Laukisen egon san ona bat, asurrek, a, okertute edo dusti, ondo imintteusena, orretan egon da jente" - (Hezurretan ere ondo ipintzen zuena, Laukizen egon zen ona bat, hezurak, okertuta edo

guztia, ondo ipintzen zituena, horretan egon da jendea)

beastune: behaztuna, behazuna

biotza: bihotza

"An urteteun edo txarra dan edo ona dan, arik eta biotzan formek urten arten" - (Han irteten zuen edo txarra den edo ona den, harik eta bihotzaren formak irten artean)

biriki: birikia

biskar asurre, bisker asurre: bizkar hezurra

bisturi: bihozturia

este: hestea

"Iru egun edo bi intten badu giau ya estau emen ser sarturik estetan" - (Hiru egun edo bi egiten badugu gehiago ja ez dago hemen zer sarturik hesteetan)

estomangu, estomagu: urdaila

"Ba seoser deko barrun, edo larregi yan dau edo estabill ondo estomaguti" - (Ba zer edo zer dauka barruan, edo larregi jan du edo ez dabil ondo estomagotik)

garnu: gernua

"Eta botaten dun, sera, ote, eta, an, a, garnues ta satza intten san, satza alik geyen intte san se solo asko okitten gendun, esta?" - (Eta botatzen genuen, zera, otea, eta, han, gernuarekin eta satsa egiten zen, satsa ahalik gehien egiten zen ze soro asko edukitzen genuen, ezta?)

garunek: garunak, muinak

gibela: gibela

"Gibela da gogorra" - (Gibela da gogorra)

ixerdi: izerdia

"Gero itxi baken ia, ese ixerdi botaten dau orrek" - (Gero utzi bakean ea, eze izerdia botatzen du horrek)

kaka: kaka

"Orrek eitteuren kakaas, abono ta, lantzerrerako, abono bota berren, orreas" - (Horiek egiten zuten kakarekin, ongarria eta, lantzarrerako, ongarria bota beharrean, horrekin)

kuntzurruna: guntzurruna, kuntzurruna

mokordo: mokordoa

odola: odola

"Orrek odola dauke, eta odola kitate akon an, eta koste aun gatza, eta gero piperra emon, eta eskei" - (Horiek odola daukate, eta odola kentzen zitzaion han, eta hartzen zuen gatza, eta gero piperra eman, eta eskegi)

BERANGOKO HIZTEGIA

"*Odolan daro, eta in dille*" - (*Odolean daroa, eta egin dezala*)

odol lodia: odol lodia

odol mea: odol mehea

pulmoya: biria, birikia

puxike: puxika

"*Ori puxike itte san siketu*" - (*Hori puxika egiten zen sikatu*)

sana: zaina

sayetza: saihetsa

"*Gero kentxen dire, ba, sayetzak*" - (*Gero kentzen dira, ba, saihetsak*)

takade: taupada

txixe: txiza

"*Gure beste-aldekok intteun bai eroteusen serak, txixek eroteusen*" - (*Gure beste-aldekoak egiten zuen bai eroaten zituen zerak, txizak eroaten zituen*)

"*Orrek batxen badosus, txixe naye gauen oyan*" - (*Horiek batzen badituzu, txiza nahia gauean ohean*)

urdille: urdaila

uskerra: uzkerra

1.11. AZALA

andittu: handitua, koskorra

anpolle: ur batua

aragi: haragia

"*Aragitti sartute lotu san eskeitte*" - (*Haragitik sartuta lotu zen eskegita*)

asala: azala

"*Egunetan sera itten sales, ganeko bada, asalan ganeko bada beres yauste san*" - (*Egunetan zera egiten zenez, gainekoa bada, azalaren gainekoa bada berez jausten zen*)

askordiñe: azkordina

baltzune: beltzunea

begitxindorra: begi txindorra

"*Baya geldi dau, begitxindorra orio epela iñeskon sera itten da*" - (*Baina geldi dago, begi txindorra olio epela eginez gero zera egiten da*)

bultu: handitua, koskorra

"*Seran aspiñ, aukiun alau bultu bet*" - (*Zeraren azpian, eduki zuen halako handitu bat*)

eride: zauria

"*Eride itten dake emen*" - (*Zauria egiten zaie hemen*)

garau, garo: garaua

"*Ba aste san garotxu bete les, esta? puntatxu suries, eta gero geldi geldi yote san andi inten, eta gero ba, soldu arte, eta solduten danen atara ber dotzesu sera*" - (*Ba hasten zen garotxo baten legez, ezta? puntatxo zuriarekin, eta gero geldi-geldi joaten zen handi egiten, eta gero ba, zoldu arte, eta zoltzen denean atera behar diozu zera*)

gari: garia, garatxoa

"*Ai, bai! gari pere bai, badaus gari pere, amen auki ot neu pere garitxu et, kendu yeusten*" - (*Ai, bai! gariak ere bai, badaude gariak ere, hamen eduki dut neuk ere garitxo bat, kendu zidaten*)

"*Gitxi, len gari erette san baya ganaduri emote akon, soldu baño lelau*" - (*Gutxi, lehen garia ereiten zen baina ganaduari ematen zitzaion, zoldu baino lehenago*)

gorriune: gorriunea

itzebagi: intzebagia, eskuetan egiten diren zauri txikerrak

kallo: kailua, eskuetan eta oinazpian egiten diren gogorguneak dira

marke: orbaina

materi: materia, zornea

"*Loye klaro dana loye! se a materi moduko da*" - (*Lohia jakina dena lohia! ze hura materia modukoa da*)

odolbatu: odol batua

"*Bai, odolbatu txarra da*" - (*Bai, odol batua txarra da*)

"*Odolbatu, a, odola baltzittu, baltzittute para*" - (*Odol batua, odola belztu, belztuta paratu*)

peke: orezta

pustille: pustila, orbaina

saldarra: zaldarra

txantximerka: piltxikada, zimikoa

tximurre: tximurra

1.12. GURARIAK-LOA

amesa, amesete: ameseta, ametsa

arrosi: aharrausia

askure: hazkura

baskalosteko: bazkalostekoa, biaoa

egarri: egarria

gose: gosea

"*Goserik eskendun pasaten*" - (*Goserik ez genuen pasatzen*)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Len gose kentxe yeun, ese estostesu esango, indabak oingo les inte sirela" - (Lehen gosea kentzen zuen, eze ez didazu esango, indabak oraingo legez egiten zirela)

"Areatan, a, ataraixu kontu se urtetan, gose seratan, gose urtetan" - (Areatan, atera ezazu kontua ze urtetan, gose zeretan, gose urteetan)

lo: lo

"Au seña dau lo oiñ or" - (Sein hau dago lo orain hor)

loa: loa

"Loak dana darotzu" - (Loak dena daroakizu)

logure: logurea

"Logure deko eta badaru kumara" - (Logura dauka eta badaroagu kumara)

lo oste: lo ostea, lo haserrea

sieste: biao

"Au sieste botaten egon san, etor nitten karraderan" - (Hau biao egiten egon zen, etorri nintzen karraderan)

surrustede, surruspede: zurruna

"Selau surruspedak eintten dosusen!" - (Zelako zurrinak egiten dituzun!)

2. OSASUNA

Atal honetan osasunarekin erlazionatuko berbak aurkezten ditugu. Atala lau azpi-ataletan banatu dugu, gaixoak, sintomak, erremedioak eta kolpeak.

2.1. GAIXOAK

begiskiña: begi txarra, begizkoa

begi txarra: begi txarra, begizkoa

beta txarra: zoroaldia

berasko: beherazkoa, beherakoa

"Berasko itteurenen, arrosatxun ure ta, arrosatxu egosi tte aiñ ure emon" - (Beherazko egiten zutenean, arroztxoaren ura eta, arroztxoa egosi eta haren ura eman)

biotzeko: bihotzekoa

bisio, bixio: bizioa

"Bixion antzeko da beste" - (Bizioen antzekoa da bestea)

depresiño: depresioa

elgorri: elgorria

"Elgorri bai, baya elgorri beste jenero ba ta" - (Elgorria bai, baina elgorria beste gauza bat da)

"Elgorri bere txarra da, bero, berotan auki" - (Elgorria ere txarra da, beroa, berotan eduki)

"Elgorrik bero ber daule esateuren" - (Elgorriak beroa behar duela esaten zuten)

geixo, gaixo: gaixoa

"Bataren batek topaten bayeun kosite yeun gaixo" - (Baten batek topatzen bazuen hartzen zuen gaixoa)

gibeleko: gibelekoa, gibeleko gaixoa

"Gibeleko ixen ber san, segoser gibeleko ixen ber san" - (Gibelekoa izan behar zen, zer edo zer gibelekoa izan behar zen)

gorra: gorria, gorra

gripe: gripea

"Gripeas ego nitzen etzen" - (Gripearekin egon nintzen etxean)

kanserra: biziena, minbizia

katarro: katarroa

"Soldu gero katarro, astuletxu ein deiñ, atxiñe alau jenerok" - (Zoldu gero katarroa, eztultxoa egin dezan, antzina halako gauzak)

"Len esateuren, a, kentzeko katarro edo gripe edo, imiñi ardau, iko pasak, bota ardaues, irikiñ, eta artu, esateuren" - (Lehen esaten zuten, kentzeko katarroa edo gripea edo, ipini ardaua, iko pasak, bota ardauearekin, irakin, eta hartu, esaten zuten)

kostipedu: kostipadua, marranta

kukurruku astule: kukurruku eztula

nafarreri: nafarrerria

"Sulos betarik, bai, nafarrerikes, ill atxiñe! tifusen antzeko ori bere, nafarreri" - (Zuloz betarik, bai, nafarreriekin, hil antzina! tifusaren antzekoa hori ere, nafarrerria)

osasune: osasuna

"Eta kontentu osasuneas oiñ arten on garelakon" - (Eta pozik osasunarekin orain arte egon garelako)

pulmoni: alborengoa, pulmonia

sarne: sarna

tifuse: tifusa

"Gure aguelari tifuseas bi ill akosen, nire tia ta tio, tifuseas egun bien" - (Gure amamari tifusarekin bi hil zitzaizkion, nire izekoa eta osaba, tifusarekin egun bian)

tirisi: ikterizia, larumina

BERANGOKO HIZTEGIA

"Gibeleko ixen ber san, segoser gibealeko ixen ber san, tirisi geittuteutzen" - (Gibelekoa izan behar zen, zer edo zer gibealekoa izan behar zen, ikterizia deitzen zioten)

umore: unorea, erreuma

2.2. SINTOMAK

alboko miñe: alboko mina

antoju: antojua, nazka

arnasestu: arnasestua

astule: eztula

"Soldu gero katarro, astuletxu ein deiñ, atxiñe alau jenerok" - (Zoldu gero katarroa, eztultxoa egin dezan, antzina halako gauzak)

begi erre: begi errea, katarroaren eraginez begien inguruan egiten diren gorriuneak

bisturiko miñe: bihozturiko mina, urdailaren sarreran egiten den mina

biosganeko: bihozgainekoa

biotzerre: bihotzerrea

"Emen dekun larrittasune, edo dekosunen, ai biotzerre dekot" - (Hemen daukagun larrittasuna, edo daukazunean, ai bihotzerrea daukat)

damistiku: doministikua

dardakade: dardakada

dolore: mina, pena

gorputzaldi: gorputzaldia, gorputzaren egoera

gorasko: gorazkoa, korrokada

gorro: gorroa

inderra: indarra

"Onek inder andi dauke" - (Hauek indar handia daukate)

"Inderra emoten dotzo" - (Indarra ematen dio)

"En jeneral inder asko daunena, emon eiten dau, estau emoten inderrik estaun lekun" - (Gehienetan indar asko dagoenean, eman egiten du, ez du ematen indarririk ez dagoen lekuan)

infesiño: infekzioa, zoldura

kalenture: sukarra, kalentura

"Ardau, bai emon dake emen asko baya, nire aitte defuntuk emoteutzen beti, arda da txarrena, se, arda, ganadu ordun daunena kalenture deko, eta arda da giau emoten tzo oniño"(Ardaua,

bai eman zaie hemen asko baina, nire aita defuntuak ematen zien beti, arda da txarrena, ze, arda, ganadu ordun dagoenean kalentura dauka, eta arda da gehiago ematen dio oraíndino)

"Emen makiña bat yan deittues, se kalenture deke, kalenture dekeles" - (Hemen makiña bat jan dituzte, ze kalentura daukate, kalentura daukaten lez)

kalte: kaltea

kirri korro: kirri-korroa, zirri-parra; katarroaren ondorioz bularrean egiten den zarata

korrokade: gorazkoa, korrokada

larri: larria, larritasuna

"Larri da emen dekosunen seoser, nik naure diñot beste batzuk estaitt, eta es bota es esebere, sause larri larri sauselakon baya" - (Larria da hemen daukazunean zer edo zer, nik neurea dinot beste batzuek ez dakit, eta ez bota ez ezer ere, zaudete larri-larri zaudetelako baina)

"Gomittate esta larri, e? larri da parate sau, nerbioso edo sauk gure estosule, gomittate da bat eta larri da beste bat" - (Botatzea ez da larria, e? larria da paratzea zeu, urduri edo zeuk gura ez duzula, botatzea da bat eta larria da beste bat)

larrikuntze: larrikuntza

"Nire lagunak esaten dau, ai selau larrikuntze sartu dasten" - (Nire lagunak esaten du, ai zelako larrikuntza sartu zaidan)

larrittasune: larrittasuna

miñe: mina

"Se mingotz agiñetan eitten dosku miñ" - (Ze mingots hagineta egiten digu min)

moko: moko, mukia

nagi: nagia

otzikere: hotzikara

"Otzikerak sartxen dastes" - (Hotzikarak sartzen zaizkit)

pene: mina

tenple: tenplea, egokera, gorputzaldia

tenple ona: gorputzaldi ona

tenple txarra: gorputzaldi txarra

"Batzuten persone tenple txarra edo tenple onaas, eta begitten igerri inten da, se gorputze dekon" - (Batuetan pertsona gorputzaldi txarrarekin edo gorputzaldi onarekin, eta begietan igarri egiten da, ze gorputz daukan)

tentziño: tentsioa

BERANGOKO HIZTEGIA

"Odola lodittu tentziño badekosu" - (Odola loditu tentsioa badaukazu)

txakurrastule: txakur eztula

txokiñe: zotina

2.3. ERREMEDIQAK

agiñetako miñe: haginetao mina

"Seoser emote yakoen bero, seoser bero, agiñetako miñe auki dauenen, ba kafekoletxe bero edo seosertxu bero, ta aspirina sati bet, besterik nik estot esetu, e?" - (Zer edo zer ematen zitzaïen bero, zer edo zer bero, haginetao mina eduki dutenean, ba kafesne beroa edo zer edo zertxo bero, eta aspirina zati bat, besterik nik ez dut ezagutu, e?)

alkola: alkohola

"Pikaten dauenen, es ibil, alkolas ta orreas, artu bedarra, or kanpon, ra! ra! artu olan, emon, eta a esta andittuten" - (Pikatzen duenean, ez ibili, alkoholarekin eta horrekin, hartu belarra, hor kanpoan, ra! ra! hartu hola, eman, eta hura ez da handitzen)

anise: anisa

"Mansanillatxu ona da tripetako miñetarako ta, baya umeri anisek en jeneral, e?" - (Kamamilatxoa ona da tripetako minetarako eta, baina umei anisak gehienetan, e?)

asto esne: asto esnea

"Ba, txarto oten sirenen aston esne, asto ume in parriñ esnetxues, bixi itten siela, txarto, txarto, eta esne aman esnek txarto, ta aston esneas, asto ume in parri topaten ibiltte siren" - (Ba, txarto egoten zirenean astoaren esnea, asto ume egin berriaren esnetxoarekin, bizi egiten zirela, txarto, txarto, eta esnea amaren esneak txarto, eta astoaren esnearekin, asto ume egin berria topatzen ibiltzen ziren)

"Aman esnen faltan, aiñ esnetxu emon ta, txarto dauna bere bixi itte sala esateuren" - (Amaren esnearen faltan, haren esnetxoa eman eta, txarto dagoena ere bizi egiten zela esaten zuten)

begiskones, begiskoanes: begizkoa

"Oritxe begiskones baño giaurik estakitt, oritxe baño, eitteun, sera, plomo urtu, eta geixorik edo sera egote sanen imiñi, e, ure ain seran ondon, ta ia sek urteten deun" - (Horixe begizkoa baino gehiagorik ez dakit, horixe baino, egiten zuen, zera, beruna urtu, eta gaixorik edo zera egoten zenean ipini, ura zer haren ondoan, eta ea zerk irteten duen)

"Amamak ak senbeste! Juana eiñ ein ber dostesu ba, eta aak, bereinketu eitteusen, a, sera dustik, eta botateun kas! botateun ara, eta kra! saltateun serak, eta an urteteun edo txarra dan edo ona dan, arik eta biotzan formek urten arten" - (Amamak hark hainbeste! Juana egin egin behar didazu ba, eta hark, bedeinkatu egiten zituen, zer guztiak, eta botatzen zuen kas! botatzen zuen hara, eta kra! saltatzen zuen zerak, eta han irteten zuen edo txarra den edo ona den, harik eta bihotzaren formak irten artean)

"Begiskoanas serak eitte yeun ayes, orren amak" - (Begizkoa zerak egiten zuen antza, horren amak)

bende: benda

"Gero ba ondo amarra, trapu beteas, baya, trapu bende, a, eskuko bende modun amarrateuren an" - (Gero ba ondo lotu, trapu batekin, baina trapua benda, eskuko benda moduan lotzen zuten han)

botike: botika, medikamendua, medizina

erremedio: erremedioa

"Erremedio ordun ixete san, ba, asunekas" - (Erremedioa orduan izaten zen, ba, asunekin)

fregasiño: fregazioa

gangallena: gangailena

"Gangallena da, garos beterik paraten direnen, a, au ingeru dusti" - (Gangailena da, garauz beterik paratzen direnean, inguru hau guztia)

indisiño, indesioño: injekzioa

"Eroteusen gure amak, tranbin, Olabeagan bajata ospittelera, berrogei egunen artxen indisiño" - (Eroaten zituen gure amak, tranbian, Olabeagan baxatuta erietxera, berrogei egunean hartzen injekzioa)

kataplasme: kataplasma

kure: osaketa

"Emotzon kura bat eta diñost, a, kosta ingo dau au kurate, e?" - (Eman zion osaketa

BERANGOKO HIZTEGIA

bat eta dinost, kostatu egingo du hau osatzea, e?)

lurrune: lurruna

mostrase: mostaza

onture: ukendua

"Atxiñe, atxiñe, sera, seoser onture farmasiñ edo emon, atxiñe, edo atxiñe, a, firutxu beteas engantxa, firutxu beteas, a, sera iñ, eta arranka bere atxiñe itteuren" - (Antzina, antzina, zera, zer edo zer ukendua botikan edo eman, antzina, edo antzina, firutxo batekin engantxatu, firutxo batekin, zera egin, eta erauzi ere antzina egiten zuten) [Gariak edo garatxoak kentzeko era baten gainean dabil]

palatillena: palatilena, eraso baten ondorioz lepoko mina sortzen denean, hezurren bat lokatu delako edo giharraren bat handitu delako egiten den erremedioa

"Palatillena bakixu nok eitte yeun? nire osabek" - (Palatilena badakizu nork egiten zuen? nire osabak)

sanatenes: zaintiratua

"San beratu, san urretu, sana bere lekun gelditxu" - (Zain beratu, zain urratu, zaina bere lekuan gelditu)

"San beratu, san urretu, sana bere lekun gelditxu, iru bider eta gero eitteun orrotza pasa andi serati" - (Zain beratu, zain urratu, zaina bere lekuan gelditu, hiru bider eta gero egiten zuen orratza pasatu handik zeretik) [Testu biotan zaintiratua egikeran erabiltzen den formula agertzen da]

urdillena: urdailarena, urdailaren larritasuna kentzeko egiten den erremedioa

2.4. KOLPEAK

albokade: bultzakada

"Albokade in dot sera baya, osten botaka" - (Bultzakada egin dut zera baina, ostean botaka)

botakade: bultzakada

eperdiko: ipurdikoa

epertxuntxurreko: ipurdi tunturrekoa

garrotade: garrotada, makilakada

garrote: garrotea, kolpea

golpe: kolpea

"Edosein kontran golperan bat artu te baltzittu" - (Edozeinen kontra kolperen bat hartu eta belztu)

ostikede: ostikada

"Bakarrik eitte neutzenen, dana ostikede" - (Bakarrik egiten nionean dena ostikada)

plastade: zaplada

saplastade: zaplada

txalo: txalao

txankatako: txanketako

3. FAMILIARTEKOAK

Atal honetan familia eta familia hartuemonei dagozkien berbak biltzen ditugu. Berbak hobeto sailkatzeko, atal honen azpi-atalak familia bera, senideak, familia erlazioak eta adin erlazioak izango dira.

3.1. FAMILIA

aguela: amama

"Gure aguelari tifuseas bi ill akosen, nire tia ta tio, tifuseas egun bien, kalenturek etorritte, biek ill, ume biek ill, bata lau urteko ta beste urte biko" - (Gure amamari tifusarekin bi hil zitzaizkion, nire izekoa eta osaba, tifusarekin egun bian, kalenturak etorrira, biak hil, ume biak hil, bata lau urtekoa eta bestea urte biko)

aguelo, abuelo: aitatea

"Gure aguelok kantate otzen, a, nire aiste txikerrari, a ixen san txikitxuena ta" - (Gure aitaik kantatzen zion, nire ahizta txikerrari, hura izan zen txikitxoena eta)

aiste: ahizta, ahizpa

"Au da aman aiste" - (Hau da amaren ahizta)

"Nik lagundu intte neutzen tranbire eroten nire aiste, a, sarrenari" - (Nik lagundu egiten nion tranbiara eroaten nire ahizta, zaharrenari)

aitte, aite: aita

"Aitte marinu ixen san" - (Aita marinela izan zen)

aitteamak: aita-amak, gurasoak

aittite, aitxitxe: aitatea

"Nire aittittek eta ixen dires baserrikok" - (Nire aitaik eta izan dira baserrikoak)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Txikerra ixen san ayes amama, aittitte es, aittitte sera, andi ixen san, nik estot esetu baya, esaneko" - (Txikerra izan zen antza amama, aitaita ez, aitaita zera, handia izan zen, nik ez dut ezagutu baina, esanekoa)

alabe: alaba

"Posik parako sara, e? ser ba? alaba batek erosi deu bere umentzako" - (Pozik paratuko zara, e? zer ba? alaba batek erosi du bere umeentzat)

"Ori Mari da Goikoerrotako alabe" - (Mari hori da Goikoerrotako alaba)

ama: ama

"Amak eitten dau Bilbon bear eta iruretararten estau urteten" - (Amak egiten du Bilbon behar eta hiruretara artean ez du irtetzen)

amama, amoma: amama

"Amamak emoeutzen auntze bat" - (Amamak emon zion ahuntz bat)

"Amomak estaki auskerarik" - (Amamak ez daki euskararik)

anaje: anaia

"Anajeri esautzen onek, eixu kargu nire alabe ta nire andrena" - (Anaiari esan zion honek, egizu kargu nire alaba eta nire andrearena)

andragixonak: andre-gizonak

andre: andrea, emaztea

"Andreas basoas bere arantza soas" - (Andrearekin bazoaz ere harantz zoaz)

"Etzera eldu barik, e? etzera eldu barik andrekarri bokadillu, e, tabernara, eta ostabe Nabalera bearren" - (Etxera heldu barik, e? etxera heldu barik andrekarri bokadilloa, tabernara, eta osterara ere Nabalera beharrean)

arrabe: arreba

"Yonek esan dau ori dala beran arrabe" - (Jonek esan du hori dela beraren arreba)

"Arrabe bere serara yon san, a, orra Erandiorantza edo orrantza yon san" - (Arreba ere zerera joan zen, horra Erandiorantz edo horrantz joan zen)

"Eta auki deittus ba iru arraba" - (Eta eduki ditu ba hiru arreba)

birlobe: birloba

birraititte: birraitaita

birramama: birramama

famili, fameli: 1. familia, senide-artekoak. 2. seme-alabak

"Guk auki gendusen Plentziko batzuk, famili bi eta Mugin, beste famili bi" - (Guk eduki genituen Plentziako batzuk, familia bi eta Mungian, beste familia bi)

"Batzuk igual bai, a, auren arten, familiñ arten igual anaje bi edo sertute olan" - (Batzuk beharbada bai, euren artean, familiaren artean beharbada anaia bi edo zertuta hola)

"Ni ixen nas famelin gastenataringo" - (Ni izan naiz familian gazteenetarikoa)

gixona: gizona, senarra

"Gixona eukieules bearren, emon bear deutzela, bearrik itten estaunari edo" - (Gizona eduki zuen legez beharrean, eman behar diotela, beharrik egiten ez duenari edo)

"Lagun andik dire aurok, lagun andik, gixonak bere lagun andik ixen siren eta" - (Lagun handiak dira eurok, lagun handiak, gizonak bere lagun handiak izan ziren eta)

guresok: gurasoak

"Umek belu etorko balistikos guresok ingo listikos asarratu" - (Umeak belu etorriko balira gurasoak egingo lirake haserretu)

"Guresok eta esateuren ori" - (Gurasoek eta esaten zuten hori)

"Ori baya, estaitt euren gureson akordu ixengo san, danak estiren ixeko se, Gatiken esta egon olaurik" - (Hori baina, ez dakit euren gurasoen bururapena izango zen, denak ez ziren izango ze, Gatikan ez da egon holakorik)

llobe, lobe: loba, iloba

"Emen ibil dire, llobak bakoas aor ta" - (Hemen ibili dira, lobak badauzkat haor eta)

"Gaure lobak saure edadekok edo ixengo dire" - (Geure lobak zeure edadekoak edo izango dira)

matrimonio: andre-gizonak

"Matrimonio gaste bera Mugiko eta neskato Erandioko" - (Andre-gizon gazteak bera Mungiakoa eta neskatoa Erandiakoa)

"Neskak egoten basiren, neskari, eta matrimonio egoten basan andreri eta gixonari" - (Neskak egoten baziren, neskei, eta andre-gizonak egoten baziren andreri eta gizonari)

nebarrebak: neba-arrebak

BERANGOKO HIZTEGIA

"Gero asi giñen gu eskolara, se nik au nebe yayo sanen, auki neusen amar urte, amaka aitte il sanen, nik, a, eskolara enitzen yon ya, se goberna in ber neun seña, eta gaur esin yon sara, bier esin yon sara, ta ortxe eskole ta esin yon ta negarres beti, eta gero bear ein ber, se ya lotu giñen sortzi nebarra" - (Gero hasi ginen gu eskolara, ze nik neba hau jaio zenean, eduki nituen hamar urte, hamaika aita hil zenean, nik, eskolara ez nintzen joan ja, ze gobernatu egin behar nuen seina, eta gaur ezin joan zara, bihar ezin joan zara, eta hortxe eskola eta ezin joan eta negarrez beti, eta gero behar egin behar, ze ja lotu ginen zortzi nebarra)

nebe: neba

"Nire aman nebe gastena san" - (Nire amaren neba gazteena zen)

"Orrena enas akordaten, ori nire nebek yakingo dau baya nik, a" - (Horrena ez naiz gomutatzen, hori nire nebak jakingo du baina nik)

"Gero aiste txikitxuu ixen sales, a yon san eskolara giau, baya nebak, gaueko eskolara" - (Gero ahizta txikitxoagoa izan zenez, hura joan zen eskolara gehiago, baina nebak, gaueko eskolara)

seme: semea

"Bost seme dekes" - (Bost seme dauzkate)

"Aitte ixen san orko, a, seme" - (Aita izan zen horko, semea)

semealabak: seme-alabak

"Semealabak an ieuden bere" - (Semealabak han egin zuten ere)

3.2. SENIDEAK

bigarren lengusu: bigarren lehengusua

familiarteko: familiartekoa, senidea

ixeko: izekoa

"Bai an ikus doas, a, indaba gorriri bere, ixekok botateusen txakur asa pere bai" - (Bai han ikusi ditut, indaba gorri ere, izekoak botatzen zituen txakur azak ere bai)

lengusiña karnala: lehengusina

lengusiñe: lehengusina

"Ni tekot Portualten lengusiña bat" - (Nik daukat Portualten lehengusina bat)

"Naure lengusiñek auki daure or" - (Neure lehengusinek eduki dute hor)

lengusu: lehengusua

"Ori on san eskondute nire aman lengusu beteas" - (Hori egon zen ezkondata nire amaren lehengusu batekin)

lengusu karnala: lehengusua

lengusu lengusiñek: lehengusu-lehengusinak

llobe, lobe: loba

"Gorlisen oki gendusen aman llobak, erduse Santiagotan, eta yon gintzesen, agertu gintzesen gu biok etzera yaten beskari" - (Gorlizen eduki genituen amaren lobak, erduze Santiagotan, eta joan ginen, agertu ginen gu biok etxera jaten bazkaria)

"Nik ein doasenak etzen eta gero loberi ein dotzeasena pere danak olan ein doas" - (Nik egin ditudanak etxean eta gero loberi egin dizkiodanak ere denak hola egin ditut)

osabe: osaba

"Gurera etorte siren ori sekordune esan dotena osabe, tio Manu, eta beste aldeko san matarife bere anaje" - (Gurera etortzen ziren zekordun hori esan dudana osaba, Manu osaba, eta beste-aldekoa zen matarifea bere anaia)

pariente: senidea, ahaidea

"Nire, a, parientek bixi diren lekun, lengusiñek bixi dire oiñ" - (Nire, senideak bizi diren lekuan, lehengusinak bizi dira orain)

tia: izekoa

"Plentzire astillerora yote san yoten ta gure tia an esetu eun" - (Plentziara ontzidira joaten zen jotzen eta gure izekoa ezagutu zuen)

"Nau bere askotan ibil nas, askotan, ameko tia bateas yote nitzen ta nau bere sartute an" - (Neu ere askotan ibili naiz, askotan, hamengo izeko batekin joaten nintzen eta neu ere sartuta han)

tio: osaba

"Tiok berak ei eun a etze" - (Osabak berak egin zuen etxe hura)

"Bai naure aitte ixen da bat, eta, naure aitte ixen da bat, eta gero, a, esaten dana, tio, bueno tio esaten dana bere bai, biek" - (Bai neure aita izan da bat, eta, neure aita izan da bat, eta gero, esaten dena osaba, beno osaba esaten dena ere bai biak)

BERANGOKO HIZTEGIA

3.3. FAMILIA ERLAZIOAK

aittebitxi: aitabitxi

amabitxi: amabitxi

anajeordeko: anaiordea

"Gure aittek ote en jeneral, ote yon, goixen, orreas tioas, anajeordekoas, ta ebaitteuden gurtadatxu, ta gero baja esiñik bayekas, a, aspittarako ta" - (Gure aitak otea gehienetan, otea joan, goizean, horrekin osabarekin, anaiordearekin, eta ebakitzen zuten gurtadaxoa, eta gero baxatu ezinik behiekin, azpitarako eta)

aube, aue: aubea, amaginarreba

besotako: besoetakoa

errana, errena: erraina

"Errena da gureko, Butroiko, errena" - (Erraina da gurekoa, Butroekoa, erraina)

giñarrabe: aitaginarreba

"Giñarraba tire, beran aitte, eta, gixonan aitte ta andren aitte" - (Aitaginarrebak dira, beraren aita, eta, gizonaren aita eta andrearen aita)

koñate: koinata

"A pai esetu, a, onen koñate bere, il sana bere" - (Hark bai ezagutu, honen koinata ere hil zena ere)

"Nire koñate armarion sartxen da" - (Nire koinata armairuan sartzan da)

koñatu, koñetu: koinatua

"Beiñ, a, agartu siren etzen koñatu biek" - (Behin, agertu ziren etxean koinatu biak)

"Aguelo Berangoko, orko, Agarreko, ta koñetu bet euki eun eskondute emen" - (Aitaita Berangokoa, horkoa, Agarrekoa, eta koinatu bat eduki zuen ezkondata hemen)

suegre: amaginarreba

"Nire suegre bixi basan ba ak yakingo eusen" - (Nire amaginarreba bizi bazen ba hark jakingo zituen)

suegro: aitaginarreba

suñe: suhia

"Bere suñe, da ango etzeko, errotako" - (Bere suhia, da hango etxekoa, errotakoa)

"Nire suñe bere bai, egon san, e?" - (Nire suhia ere bai, egon zen, e?)

"Ori diño suñek, auro takie auskera ba, beste modu betera" - (Hori dino suhiak, eurok dakite euskara ba, beste modu batera)

umesurtze: umezurtza

uriko: hirikoa, hiritik hartzen den ume umezurtza

uriko ume: hiriko umea, hiritik hartzen den ume umezurtza

"Klaro urikok, estakixu nongo tiren ser diren, eta orre tire uriko ume" - (Jakina hirikoak, ez dakizu nongoak diren zer diren, eta horiek dira hiriko umeak)

3.4. ADIN ERLAZIOAK

agure: agurea

"Agure bat egote san an" - (Agure bat egoten zen han)

"Agure etor da" - (Agurea etorri da)

agure sarra: agurea zaharra

andre: andrea, andrazkoa, emakumea

"Onek, a, goiko andrek, neuk esetu ot eta" - (Honek, goiko andreak, neuk ezagutu dut eta)

"Andrak bere esetu doas Getxon giau Berangon baño" - (Andreak ere ezagutu ditut Getxon gehiago Berangon baino)

"Esetu dot, gixonantzako batzuk, andrantzako beste batzuk eta umentzako beste batzuk" - (Ezagutu dut, gizonentzat batzuk, andreentzat beste batzuk eta umeentzat beste batzuk)

angeru: ume txikia, lehen jaunartzea egin artekoa

"Ori angerutxu be ta, baya es, bautisa nai bautisa barik, e?" - (Hori aingerutxoa ere eta, baina ez, bataiatu nahi bataiatu barik, e?)

atzo: atsoa

atzo sarra: atso zaharra

bikotxak: bikoitzak, bikiak

"Or daus bikotxakas lepon, andre ta gixona" - (Hor daude bikoitzak lepoan, andrea eta gizona)

enbre: andrea, andrazkoa

"Aulau enbrarik esta egon!" - (Haolako andrazkorik ez da egon!)

"Ni akordate nas, yon giñenen au grupo, estrena gintzenen, yon gintzen San Pedro

BERANGOKO HIZTEGIA

egunen, Sopolara, eta an in gendunen yantzan, ordun karo, semek galdu yeusenak eta sentalle! enbrak negarres eta seran, gaste gaste" - (Ni gomutatzen naiz, joan ginenean talde hau, estreinatu ginenean, joan ginen San Pedro egunean, Sopolara, eta han egin genuenean dantzian, orduan jakina, semeak galdu zituztenak eta zentaila! andrazkoak negarrez eta zerean, gazte-gaztea)

gixona: gizona

"Il danen enbre bada yoteusen ainbeste gixona bada beste, eta yakitte sendun, nor il da? ba nonor il da se, enbre da edo gixona da" - (Hil denean andrazkoa bada jotzen zituen hainbeste gizona bada bestea, eta jakiten zenuen, nor hil da? ba nor edo nor hil da ze, andrazkoa da edo gizona da)

morroya: morroia, gizonetzkoa

"Aguelak neba bat eskondute or, Getxon, ta gure agueloas lagun andi se kaseru ixen san, gure aguelo kaseru te ori morroya bere, aguelan nebe kaseru" - (Amamak neba bat ezkondu hor, Getxon, eta gure aitaitarekin lagun handia ze ehiztaria izan zen, gure aitaita ehiztaria eta morroi hori ere, amamaren neba ehiztaria)

mutiko: mutikoa

mutil bardingoa: mutil berdingoa

mutil koskorra: mutil berdingoa

mutille: mutila

"Iru mutil auki doas nik, iru mutil, parto baten, iru!" - (Hiru mutil eduki ditut, hiru mutil, erditze baten, hiru!)

mutil makarra: mutil txikerra

neska bardingoa: neska berdingoa

neskamutillek: neska-mutilak

neskatille: neskatila

neskato: neskatoa

"Gure amari ill akon neskatotxu bet" - (Gure amari hil zitzaion neskatotxo bat)

"Eta ero yeuren a neskato erakutzitten, au ba, mutille" - (Eta eroan zuten neskato hura erakusten, mutil hau)

"An egote siren mutillentzako, eta neskatonzako oin daun lekun" - (Han egoten ziren mutillentzat, eta neskatoentzat orain dagoen lekuan)

"Neskato lotuten da señas" - (Neskatoa lotzen da seinarekin)

neske: neska

"Neskak estaude ikisten esaeutzen, a, onek" - (Neskek ez dute ikasten esan zion, honek)

saspiki: zazpikia

señe, sañe: seiná

"Señe non dau?" - (Seina non dago?)

"Señe porejenplo berantza esaosten pediatrek, oiñ es, oiñ, e, diñoure peligroso dala" - (Seina esate baterako beherantza esan zidan pediátrak, orain ez, orain, dinote arriskutsua dela)

"Kosisu sañe estaitten yausi" - (Har ezazu seiná ez dadin jausi)

ume: umea

"Esta etorri umerik ona?" - (Ez da etorri umerik hona?)

"Nik neutzako erongoas neure umentzako" - (Ni neuretzat eroango ditut neure umeentzat)

"Oin bere gustaten dake umeri tiritak imintte" - (Orain ere gustatzen zaie umei tiritak ipintzea)

ume erre: ume gorria

"Ume erreak sose orti!" - (Ume gorriak zoazte hortik!)

ume moko: ume mokoa

ume mokordo: ume mokordoa

4. ELIKADURA

Atal honetan giza elikaduraren gainean jasotako berbak biltzen ditugu. Berbok azpi-ataletan banatzea erraza ez den arren, azpi-atal batzuk egiten ahalegindu gara, irakurketa erraztekoan. Azpi-atalok, jatorduak, hastekoak, okela-txerriak, arraina, arrautzak, ogia, esnea-gaztaia, gozokiak-postreak eta edariak dira.

4.1. JATORDUAK

afari: afaria

"Aferi erote akon" - (Aferia eroaten zitzaion)

afari kopu: afari kopua, afari mokadua

"Besino dustik txarri iltten ta laguntxen ta, gero aferi, gauen aferi kopu yate san ta, garrafoi bet arda te" - (Auzo guztiak txerria hiltzen eta laguntzen eta, gero

BERANGOKO HIZTEGIA

afaria, gauean afari kopaua jaten zen eta, garrafoi bat arda eta)

amakatako: hamaiketako

amarretako: hamarretako

armosu, armusu: armozua, gosaria

"Ogi tte dana preparata ta an yaten gendun armosu" - (Ogia eta dena prestatuta eta han jaten genuen armozua)

barau: baraua

"Ori baraurik artxen da" - (Hori baraurik hartzen da)

barausteko: baraustekoa, barausgarria

beskari, baskari: bazkaria

"A il sala ta, gure ama yon san beskari intten eta yon gintzesen ara yaten bai" - (Hura hil zela eta, gure ama joan zen bazkaria egiten eta joan ginen hara jaten bai)

kopu: kopaua, mokadua

meriende: askaria

"Etorri meriende imintteko" - (Etorri askaria ipintzeko)

"Ta gero a olgataldi in tte osten ba, yaten gendun, a, gaure meriende" - (Eta gero olgataldi hura egin eta ostein ba, jaten genuen, geure askaria)

"Bai askok, bai, ordun esiren egoten oingo meriendak" - (Bai askok, bai, orduan ez ziren egoten oraingo askariak)

yana: jana

yanari: janaria

yateko: jatekoa

"Len atxiñe, ba, garbitte sieles basok, eta an topaten yateko" - (Lehen antzina, ba, garbitzen ziren lez basoak, eta han topatzen jateko)

yatordu: jatordua

"Nire amak, a, ondo baño obeto yaki eun sera eitten, yatordu eitten, e?" - (Nire amak, ondo baino hobeto jakin zuen zera egiten, jatordu egiten, e?)

"Ein dosu yatordu?" - (Egin duzu jatordua?)

"Yatordu intte dau?" - (Jatordua eginda dago)

"Arto niri beti gusta dat, eta yaten dot, baya arto beti yaten badosu, lau yatorduk edo iru yatorduk, ba kantza iten dau, te gustaten dat apur bet ogi" - (Artoa niri beti gustatu zait, eta jaten dut, baina artoa beti jaten baduzu, lau

jatorduak edo hiru jatorduak, ba nekatu egiten du, eta gustatzen zait apur bat ogia)

4.2. HASTEKOAK

arrosa: arroza

"Besperan bai, besperan, eintte san arrosa egosi, eta otzittute egon ber aun, a, serak arrosak, eta gero kinpulle, eta porru eta perejille ta dusti bere, iñ, es asko eiñ, aputxu bet, seraas eiñ, grasaas eiñ" - (Bezperan bai, bezperan, egiten zen arroza egosi, eta hotzittuta egon behar zuen, zerak arrozak, eta gero kipula, eta porrua eta perrexila eta guztia ere, egin, ez asko egin, apurtxo bat, zerarekin egin, koipearekin egin)

babasalde: baba salda

basi: bazia, bustikoa, plateretan jaki batzuekin egiten den saltsa

berakas sope: berakatz zopa

berdure: berdura

"Portaltera yote siren, burun bendeje, berdure ta serak, esta?" - (Portaltera joaten ziren, buruan bendeja, berdura eta zerak, ezta?)

binagre: ozpina

"Lelau seraas, solta, a, eta gero txorron garbittu, eta gero binagreas ta bu!" - (Lehenago zerarekin, askatu, eta gero txorroan garbitu, eta gero ozpinarekin eta bu!)

bitze: bitsa

"Bitze andi dau emen" - (Bits handia dago hemen)

ensalade: entsalada

fideo sope: fideo zopa

garbantzu, karabantzu, karbantzu: garbantzua

"Garbantzuk intte siren seraas, txorisoas, etzeko txorisokas, eta imintte siren, gero, gisedu" - (Garbantzuak egiten ziren zerarekin, txorizoarekin, etzeko txorizoarekin, eta ipintzen ziren, gero, gisatua)

gastaña lapikoko: gaztaina lapikokoa

"Bai nire ama pe iteun, bueno gastañak etxa pataten modun, pataten modun etxa, bueno gastañak emen aste siren, e, otubren asten direnen gastañak, ordun au dusti, batxeun asko ta gustate akon, txapen ganen,

BERANGOKO HIZTEGIA

bueltatxu bet emon asala kentzeko, se gastañe teko, asal bi dekos, ta aputxu bet bueltakeron fasill urteten de, gero etxaten dosu eskutada bi ero indabarera" - (Bai nire amak ere egiten zuen, beno gaztainak bota patataren moduan, patataren moduan bota, beno gaztainak hemen hasten ziren, urrian hasten direnean gaztainak, orduan hau guztia, batzen zuen asko eta gustatzen zitzaion, txaparen gainean, bueltatxo bat eman azala kentzeko, ze gaztainak dauka, azal bi dauzka, eta apurtxo bat bueltatuz gero erraz irteten dute, gero botatzen duzu eskutada bi edo indaba artera)

gatza: gatza

"Ori intten gendun uretan sartu, gatzas asko, se urdaye pere beti deko odola" - (Hori egiten genuen uretan sartu, gatzarekin asko, ze urdaiak ere dauka odola)

gatzure: gatz ura

"Atxiñe garbittu, gatzuretxues ta garbittu edo" - (Antzina garbitu, gatz urarekin eta garbitu edo)

gisedu, gixedu: gisatua, sukalkia

"Gisedu piper askoas t'ori, goso bere goso!" - (Gisatua piper askorekin, eta hori gozoa ere gozoa!)

"Gibelaas ta iñ, e, gisedue, eta makallo ta imintte siren bisperan" - (Gibelarekin eta egin, gisatua, eta makailoa eta ipintzen ziren bezperan)

"Bai yakitteuen eurek, amamak eta orrek yakitteuen selan imiñi ber dan, eta gero ba, bier indabak, edo gixedu edo seoser ein ber sanean, ba atarate yeuen okele gatzatati eta gero arik eta gatza kendu arten, se gero a gasi egote san espabere" - (Ba jakiten zuten eurek, amamak eta horiek jakiten zuten zelan ipini behar den, eta gero ba, bihar indabak, edo gisatua edo zer edo zer egin behar zenean, ba ateratzen zuten okela gatzetatik eta gero harik eta gatza kendu arte, ze gero hura gazi egoten zen ezpabere)

grase: koipea

"Grasarik estu gure oin tte" - (Koiperik ez dugu gura orain eta)

koipe: koipea

"A bai ingo yeuden, klaro, baya ori seas? koipeas eta eintte" - (A bai, egingo zuten, jakina, baina hori zerekin? koipearekin eta eginda)

konserbe: kontserba

"Ba nik estot esetu konserbak etzen eitten, ori geroratuau etor da, ori barriau da" - (Ba nik ez dut ezagutu kontserbak etxean egiten, hori geroagotxo etorri da, hori berriagoa da)

kosiñe: sukaldaritza

lapikoko: lapikokoa

lapiko salde: lapiko salda

"Ba lapiko saldatxu, patatatxu aplastata, leleko yaten asten sirenen, patatatxu, lapikotxu, porrusaldatxu igual aplastata, saldatxu bere, eta gero igual, arrotza gorringotxu bere ara bota, osten koplari pes, ta arrotza gorringotxu ara bota, bost sei illebetetxu, edo lau dekosenen, asten direnen, seratxuk puretxuk yaten, eta biberoya, esne, esne biberoya" - (Ba lapiko saldatxoa, patatatxo zapatuta, lehenengo jaten hasten zirenenean, patatatxoa, lapikotxoa, porru saldatxoa beharbada zapatuta, saldatxoa ere, eta gero beharbada, arrautza gorringotxoa ere hara bota, ostean koplari ere ez, eta arrautza gorringotxoa hara bota, bost sei hilabetetxo, edo lau dauzkanean, hasten direnean, zertxoak puretxoak jaten, eta biberioia, esnea, esne biberioia)

lenteje: dilista

ollo salde: oilo salda

ondakiñe: hondakina, hondarra

"Akabuko ondakiñek, bera bota, ta garbi garbi alan lotxe san" - (Azken hondakinak, behera bota, eta garbi-garbi hala lotzen zen)

ondugarri: ondugarria, lapikoa ontzeko egiten zaion txerrikia

"Ondugarri bai, bai, urdi, txoriso edo urdi bai, prijidute ta gero an ganeti bota" - (Ondugarria bai, bai, urdaia, txorizoa edo urdaia bai, frijituta eta gero haren gainetik bota)

orio: olio

"Oriotxu bota kipulla aputxu beteas, puntatxu beteas, irikiñ erain tte otzittuten itxi, eta gero a oriotxu bota" - (Oliotxoa bota kipula apurtxo batekin, puntatxo batekin,

BERANGOKO HIZTEGIA

irakin eragin eta hozten utzi, eta gero oliotxo hura bota)

orio ase: olio aza

"Orio asak egosi, lelau ondo, ta gero imiñi, ta gero bota, orio eta berakatzta ondo frijidute" - (Olio azak egosi, lehenago ondo, eta gero ipini, eta gero bota, olio eta berakatzta ondo frijituta)

pistola sope: pistola zopa

porrusalde, purrusalde: porru salda

"Purrualde, oten sanen, gauen bere patatak eta purrusalde, oiñ estot inten, eta indabak igurdiñ, domekatan ixete san karbantzta edo paille, bueno es paille oingo lau" - (Porru salda, egoten zenean, gauean ere patatak eta porru salda, orain ez dut egiten, eta indabak eguerdian, domeketan izaten zen garbantzu edo arroza, beno ez arroza oraingo lakoa)

prijiduri: frijidura

"Askok, a, kipulleas prijiduri iñ, gero osten, osten bere prijiduri, atxiñe urditxu urtu, eta gero prijiduri iñ, gure suñeri gustaten dako" - (Askok, kipularekin frijidura egin, gero ostean, ostean ere frijidura, antzina urdaitxo urtu, eta gero frijidura egin, gure suhiari gustatzen zaio)

salde: salda

"Ba lapiko saldatxu, patatatxu aplastata, leleko yaten asten sirenen" - (Ba lapiko saldatxo, patatatxo zapatuta, lehenengo jaten hasten zirenenean)

saltza berde: saltsa berdea

"Yateuen, e, patatak saltza berden, makallon seraas, bustenaas, ta sagar errek" - (Jaten zuten, patatak saltsa berdean, makailoaren zerarekin, buztanarekin, eta sagar erreak)

saltza gorri: saltsa gorria

saltze: saltsa

"Yan intte aun ak, armostan yate aun ak, se goso dala piperrakas preparate aun saltze" - (Jan egiten zuen hark, gosarian jaten zuen hark, ze gozoa dela piperrekin prestatzen zuen saltsa)

sebo: bilgorra

"Yaboya pere sebo deko" - (Xaboiak ere bilgorra dauka)

sope: zopa

4.3. OKELA-TXERRIKIA

amase: buzkantzak eta txorizoak egiteko prestatzen den ore edo saltsagarria

aragi: haragia; jatekoari buruz ere esaten da; berba hau ganadu txikertukeran zati handiak adierazteko agertu zaigu gehienetan. Bestalde, esangura berberarekin jasota daukagu Sopelan eta Barrikan.

"Bai gasun tiñe egote san, olau, e, tiñe, ta an imintteuen gatzta, ta gero an imintteuen aragi, gero ganen ostabe ladrillu batzuk" - (Bai gatzun aska egoten zen, holako, tina, eta han ipintzen zuten gatzta, eta gero han ipintzen zuten haragia, gero gainean osterera ere adreilu batzuk)

aume: urdina

buskantzta: buzkantzta

"Gero odola kentxe aunen, ba, bakixu otzittu in ber da odola se, bero badau intten da, a, gogortu" - (Gero odola kentzen zuten, ba, badakizu hotzitu egin behar da odola ze, bero badago egiten da, gogortu)

"Gero buskantzak eitteko, koipe da ori" - (Gero buzkantzak egiteko, koipea da hori)

buskantzta saltze: saltsagarria, buzkantzak egiteko prestatzen den ore

falde: falda, okela mota bat

giarre: giharra

kallu, kallo: tripakia

"Gure aitte defuntu te orko defuntuk eta, gaur defuntu tires, esta? yo siren afaritten, kallo batzuk yaten, orren etzera" - (Gure aita defuntuak eta horko defuntuak eta, gaur defuntuak dira, ezta? joan ziren afaltzen, tripaki batzuk jaten, horren etxera)

katu: buzkantzta mota bat

"Gero lope itxitte san ta beste katu esateutzen beste txikerrau? arek etzen yaten gendusen" - (Gero lopea uzten zen eta bestea katua esaten zioten bestea txikerragoa? haiek etxean jaten genituen)

korde: korda

lope: lopea, buzkantzik lodiena

"Usena batena esa neitzu lope, lope, a da seraas eitten dana, estomagues eitten dana" - (Izena batena esan niezazuke lopea, lopea, hura da zerarekin egiten dena, urdailarekin egiten dena)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Opille da andi, eta lope da aputxu bet txikerrau" - (Opila da handia, eta lopea da apurtxo bat txikerragoa)

mami: mamia

"Mami eukitte aun ak ondo garbittute gero, egosi ondo eta gero labara sartu" - (Mamia edukitzen zuen hark ondo garbituta gero, egosi ondo eta gero labera sartu)

odoleste: odolostea, buzkantzik meheena

"Odolestek intten gendusén, txorison estekas, odolostek bai" - (Odolostek egiten genituen, txorizoaren hesteekin, odolostek bai)

okele: okela

"Indabak eta, iltten gendules txarri, ba, intte san, a, urte dustireko, urdaye ta, txorisok eta serak iñ, eta gero olloran bat, ese, karneserire t'olan etorteko pentza beres, okela bille pentza beres" - (Indabak eta, hiltzen genuenez txerria, ba, egiten zen, urte osorako, urdaia eta, txorizoak eta zerak egin, eta gero oiloren bat, eze, harategira eta hola etortzeko pentsatu ere ez, okela bila pentsatu ere ez)

"Igual aukiko esan brimille edo iru mille kilo okela" - (Beharbada edukiko zituzten bimila edo hiru mila kilo okela)

opille: opila, buzkantzik lodienaren izena; txerriaren urdailarekin egiten dena

"Opille da buskentza, buskentza tire, buskentzak, opille, eta, opille da andiena, ta lope" - (Opila da buzkantza, buzkantzak dira, buzkantzak, opila, eta, opila da handiena, eta lopea)

palete: okela zati bat

patak: txerri hankak; jateko direnak

pernille: pernila, urdaiazpikoa

"Igual pernil bet itxitte beste danak txikertu" - (Beharbada pernil bat utzita beste denak txikertu)

piper gorri: piper gorria

"Ai! ori ixete san, sayetzak estaiñ oki odola, egun beten oki gatzaas, gatz askoas uretan sartu, ta gero atara eta piper gorri emon" - (Ai! hori izaten zen, saihetsak ez dezan eduki odola, egun baten eduki gatzarekin, gatz askorekin uretan sartu, eta gero atera eta piper gorria eman)

salmuere: salmuera

"Imiñi ure, gatzaas, eta salmuere egoteko ondo, ya gatzaas, bota arrotza bat, eta ak arrotzek ieten daunen gora, ya salmuere intte dau" - (Ipini ura, gatzarekin, eta salmuera egoteko ondo, ja gatzarekin, bota arrautza bat, eta arrautza hark igaten duenean gora, ja salmuera eginda dago)

saltzagarri: saltsagarria, buzkantzak egiteko prestatzen den oreá

saltze: txorizo masa

"Saltze niri estast gusta iños saltze, sera, txorison ixen esik" - (Saltsa niri ez zait gustatu inoiz saltsa, zera, txorizoan izan ezik)

"Yan intte aun ak, armostan yate aun ak, se goso dala piperrakas preparate aun saltze" - (Jan egiten zuen hark, gosarian jaten zuen hark, ze gozoa dela piperrekin prestatzen zuen saltsa)

sankarroya: zankarroia

sartaneko, sarteneko: zartaginekoa, txerriki frijitua

sayeski: saiheskia

sesiñe: zezina

"Sesiñe saltxe san" - (Zezina saltzen zen)

"Ba sesiñe, ba gisata edo, ostantzen eleitte yan" - (Ba zezina, ba gisatuta edo, osterantzean ez liteke jan)

"Sesiñe itteuren, gatzatan sartu" - (Zezina egiten zuten, gatzetan sartu)

solomillo: solomotxoa

"Ganadun okelak txikerten dusenen, txulete, solomillo, sayetza" - (Ganaduaren okelak txikertzen ditugunean, txuleta, solomotxoa, saihetsa)

solomo: solomoa

suringeko: zuringakoa, heste zuringarekin egiten den buzkantza

"Suringeko a da gosoena" - (Zuringakoa hura da gozoena)

tajade: xerra

txarriki: txerrikiá

txarri belarrik: txerri belarriak

txarri kaderak: txerri hankak; jateko direnak

txarri patak: txerri hankak; jateko direnak

txintxorte: txintxorta

"Txintxortak intte siren, txintxortak, asalaas eiñ, eta gero etxa gatza, gatzaas, eta gosok ixen siren, e?" - (Txintxortak egiten ziren, txintxortak, azalarekin egin, eta gero bota gatza, gatzarekin, eta gozoak izaten ziren, e?)

BERANGOKO HIZTEGIA

txoriso: txorizoa

"Mendire yoten gintzesen txorisokas ta, urdaye ta, talo eroteuren, olau jenero pai" - (Mendirra joaten ginen txorizoeekin eta, urdaia eta, taloa eroaten zuten, holako gauzak bai)

"Ori da guri txoriso erosten doskune" - (Hori da guri txorizoa erosten diguna)

"Txarri iltten dunen txorisok saltxen dus, eta, aurten lau dosena artu ittu, lau ela bost edo" - (Txerria hiltzen dugunean txorizoak saltzen ditugu, eta, aurten lau dozena hartu ditu, lau ala bost edo)

txoriso este: txorizo hestea

txoriso korde: txorizo korda

txulete: txuleta

urdaye, urdi: urdaia

"Ori intten gendun uretan sartu, gatzas asko, se urdaye pere beti deko odola" - (Hori egiten genuen uretan sartu, gatzarekin asko, ze urdaiak ere dauka odola)

urdille: urdaila

"Ba ta lope, eta beste ba ta urdille, urdille da bat eta, lope da beste bat" - (Bat da lopea, eta beste bat da urdaila, urdaila da bat eta, lopea da beste bat)

4.4. ARRAINA

angule: angula

antxobe, antxoe: antxoa

"Gero antxoba pere etor siren" - (Gero antxoak ere etorri ziren)

arrañe: arraina

asurre: hezurra

atune: atuna

berdela: berdela

besegu: bisigua

"Besegu be bai asko ote san ya sanantonetan ta olan" - (Bisigua ere bai asko egoten zen ja sanantonetan eta hola)

lebatza: legatza

makallo: makailoa, bakailoa

"Ai! sure amak imintteun makallo, goso, oingo makallok, a, edo makallo tire txarrak edo kosiñera tire txarrak, alandase no taki ori ser dan?" - (Ai! zure amak ipintzen zuen makailoa, gozoa, oraingo makailoek, edo

makailoak dira txarrak edo sukaldariak dira txarrak, halandaze nork daki hori zer den?)

peske: arraina

sardiña sarra: sardina zaharra

sardiñe: sardina

txitxarro: txitxarroa

4.5. ARRAUTZAK

abixeri: abizaria, galduko arrautza

arrotza gorringo: arrautza gorringoa

arrotza suringo: arrautza zuringoa

arrutze, arrotze: arrautza

"Ba indabak eta makallo bere bai batzuten, arrutze bere naye eukitten gendun, e?" -

(Ba indabak eta makailoa ere bai batzuetan arrautza ere nahia edukitzen genuen, e?)

"Etzen al bada pasa arrotza bateas bi gasta berren, bateas pasa" - (Etxean ahal bada pasatu arrautza batekin bi gastatu beharrean, batekin pasatu)

"Askotan igual, a, yan eitteusean, a, serak, arrotzak" - (Askotan beharbada, jan egiten zituzten, zerak, arrautzak)

"Onek, ausoko lelangok, dosena bi arrotza ekarristen, ta nik otzarakadak arrotzak etzen" - (Honek, auzoko lehenengoak, dozena bi arrautza ekarri zidan, eta nik otzarakadak arrautzak etxean)

asala: azala

asalbako: azal bakoa

gorringo: gorringoa

kaskare: azala

"Kaskarabako bai, kaskarabako asalaas bakarrik, a, kaskara barik urteteuen" - (Azal bakoa bai, azal bakoa mintzarekin bakarrik, azal barik irteten zuten)

kaskarabako: azal bakoa

mintze, mintzu: mintza, arrautzaren barrukoa

suringo: zuringoa

tortille: tortilla, arrautzopila

4.6. OGIA

amase: oreka, masa

arto: arto irinez egiten den ogia

"Arto da goso in tte yan" - (Artoa da gozoa egin eta jan)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Artori botaten tzo askok, alegrearrrik nik estot bota iños" - (Artoari botatzen dio askok, alaiarren nik ez dut bota inoiz)

"Igual, a, iñ, a, arto eta batzuten ba, justo eta beste batzuten sobra, eta sobraten sana, eiñ eitte san esne, eta katxarro baten, eta botate san arto otza, eta irikiñ iñ, a, sera, esnen arto, eta ordun goso iste san, ese, talo otza esta orren goso yateko" - (Beharbada, egin, artoa eta batzuetan ba, justu eta beste batzuetan sobratu, eta sobratzen zena, egin egiten zen esnea, eta tresna baten, eta botatzen zen arto hotza, eta irakin egin, zera, esnean artoa, eta orduan gozoa izaten zen, eze talo hotza ez da horren gozoa jateko)

"Artok kantza iten dau, aunke gustaten dast niri asko" - (Artoak nekatu egiten du, gustatzen zaidan arren niri asko)

arto ese: arto hezea, labetik pasatu bakoa
"Labati pasabako da arto ese" - (Labetik pasatu bakoa da arto hezea)

arto ierra: arto igerra, labetik pasatukoa
"Bai arto ese geittute tzun guk labati, a, pasaten esan arto, ese t'ierra" - (Bai arto hezea deitzen genion guk labetik, pasatzen ez zen artoa, hezea eta igerra)

arto ogi: artoa, arto ogia
"Arto ogi intteuen laban" - (Arto ogia egiten zuten labean)

arto urune: arto irina
"Igual arto urune edo gari urune edo, nastate akon ta a emon ganaduri" - (Beharbada arto irina edo gari irina edo, nahasten zitzaion eta hura eman ganaduari)

"Gure ama defuntek eitteun ba, birsayeas, e, ogik, ogik imiñi igual uretan, ur beroas edo imiñi, ogi satik edo a edo ori, eta gero birsaye edo espabere arto uruneas" - (Gure ama defuntuak egiten zuen ba, birzahiarekin, ogiak, ogiak ipini esate baterako uretan, ur beroarekin edo ipini, ogi zatiak edo hura edo hori, eta gero birzahia edo ezpabere arto irinarekin)

auspeko arto: hauspeko artoa; beheko-suan txingarren azpian egiten den ogia

"Nik ukus dot iten, auspeko arto esate otzena, ta ori iten da, iten da seran, talon modun, baño lodiau iten da,

iminten da lurreko kasuela baten, tapata, ta gero iten da braseas tapa" - (Nik ikusi dut egiten, hauspeko artoa esaten ziotena, eta hori egiten da, egiten da zerean, taloaren moduan, baino lodiago egiten da, ipintzen da lurrezko kazola baten, tapatuta, eta gero egiten da txingarrarekin tapatu)

drungulu: drungulua, umeentzako egiten den papila

"Auson bere osabek eta olan ori drungulu eintteuen" - (Auzoan ere osabak eta hola drungulu hori egiten zuten)

gari urune: gari irina

"Igual arto urune edo gari urune edo, nastate akon" - (Beharbada arto irina edo gari irina edo, nahasten zitzaion)

kurrusku: kurruskua

kuskurre: kurruskua

"Ta mantelan aspiñ imintte san, ogi satitxu bet kuskurre" - (Eta zamauaren azpian ipintzen zen, ogi zatitxo bat kurruskua)

labadure, lebadure: legamia

"Labadure ekarte san panaderitteti, labasu itten sanen, labasu, labe garbittuteuden, piparrak eitten espagendusen, sera itten gendun" - (Legamia ekartzen zen okindegietatik, labasua egiten zenean, labasua, labea garbitzen zuten, piperrak egiten ez bagenituen, zera egiten genuen)

"Ogik ber dau lebadure, eta txapan eiteun, etzeko txapan eiteun ogi" - (Ogiak behar du legamia, eta txapan egiten zuen, etzeko txapan egiten zuen ogia)

mami: mamia

mase: oreka

"Ogi, a, seraas, imiñi masa masa bat eta begittan imiñi" - (Ogi, zerarekin, ipini masa-masa bat eta begietan ipini)

morokille: morokila

"Morokille bere itteuen uruneas, esneas" - (Morokila ere egiten zuten irinarekin, esnearekin)

"Drungulu da morokille, drungulu te morokille ba tire" - (Drungulua da morokila, drungulua eta morokila bat dira)

ogi: ogia

"Emen sera in daana da ogi, baya emen ogi gitxi ein da" - (Hemen zer egin dena da ogia, baina hemen ogi gutxi egin da)

ogi baltza: ogi beltza

"Ogi baltza, txarrau barrabasa baño!" - (Ogi beltza, txarragoa barrabasa baino!)

BERANGOKO HIZTEGIA

ogi kurrusku: ogi kurruskua

ogi mami: ogi mamia

ogi suri: ogi zuria

otzuerre: beheko-suan txingarren azpian egiten den ogia

"An aspiñ auki yaun ori otzuerre" - (Han azpian eduki zuen otzuerre hori)

pistole: ogi mota bat mehea eta luzanga

ritxi: erritxe, ogi mota bat

talo: taloa

"Eta antxoak eta kinpulleas imiñi tte talo beroas, uf!" - (Eta antxoak eta kipularekin ipini eta talo beroarekin, uf!)

"Etzen bere auki gendun talo intteko, alau sera bateas" - (Etxean ere eduki genuen taloa egiteko, halako zer batekin)

urune: irina

"Talo itteko lekun, uruntxu bota ara, aputxu eta loditxu aputxu et, ta gero aliminttu itzela, aliminttu andi" - (Taloa egiteko lekuan, irintxo bota hara, apurtxo eta loditxo apurtxo bat, eta gero alimentu itzela, alimentu handia)

"Trigeru beste indabantzako ta, andiaubai, ori urunentzako da" - (Galbahea bestea indabentzat eta, handiagoa bai, hori irinentzat da)

"Urune bere ba, errotara erote san" - (Irina ere, ba, errotara eroaten zen)

urun ese: irin hezea, labetik pasatu bakoa

urun ierra: irin igertua, labetik pasatukoa

urun suri: irin zuria, gari irina

"Urun suri esate akon ordun, gariñ urun suri, baya esta ain goso, guri giau gustaten daku talo dana, arto" - (Irin zuria esaten zitzaion orduan, gariaren irin zuria, baina ez da han gozoa, guri gehiago gustatzen zaigu taloa dena, artoa)

"Emen arto egon da giau, eta orti Laukiseti, ta orti, egon da, urun suri bere, asko egote san" - (Hemen artoa egon da gehiago, eta hortik Laukizetik, eta hortik, egon da, irin zuria ere, asko egoten zen)

"Akaburengo Algortan, bei esnek, a, errepertitten dausela" - (Azkena Algortan, behi esneak, banatzen daudela)

bitze: kipurra, bitsa

esne: esnea

"Gure amak esaten dau auntzen esneas, a, asi sala" - (Gure amak esaten du ahuntzaren esnearekin, hazi zela)

"Ba esne, sikeran bere guk olan intteun, eneitzu esan, esne aputxu bet epeldu" - (Ba esnea, guk hola egiten genuen behintzat, ez niezazuke esan, esne apurtxo bat epeldu)

"Errepartidora bat aukitte neun ordun, eta emeti ero yeun, bueno emeko esne erdik, eta ganera Karrantzati botate yoskun" - (Banatzaile bat edukitzen nuen orduan, eta hemendik eroan zuen, beno hemengo esne erdiak, eta gainera Karrantzatik botatzen zigun)

"Ixengo da se ni akordate nas orreas, igual or, len ori portale ixete san bai? eta or egote siren gantxok, ta eskeitte siren, a, seran, gantxotan, eta or eskei baño lelau, olau bañera anditten sartute yeusean baldek, ondo otzittu daitten, ta aittek esateun, gaur troboya dau, e? ta esnek goberna ber dire, osten denpora ona egote sanean, koxu te eskei tte listo!" - (Izango da ze ni gomutatzen naiz horrekin, beharbada hor, lehen hori ataria izaten zen bai? eta hor egoten ziren gantxoak, eta eskegitzen ziren, zerean, gantxoetan, eta hor eskegi baino lehenago, holako bainuontzi handietan sartzen zituzten baldeak, ondo hoztu dadin, eta aitak esaten zuen, gaur trumoia dago, e? eta esneak gobernatu behar dira, ostean eguraldi ona egoten zenean, hartu eta eskegi eta kitto!)

"Etzen on dire untzurarten, se nire ama il dana da saspri urte, eta oiñ akabuko urtetan beti ite ixen dau gastaye baya beyenaas, beyen esneas" - (Etxean egon dira oraintsura arte, ze nire ama hil dena zazpi urte, eta orain amaierako urteetan beti egiten izan du gaztaia baina behiarenarekin, behiaren esnearekin)

esne biberoya: esne biberioia

gastai, gastaye: gaztaia, gazta

"Gero gastai batzuk emote yeutzesen" - (Gero gastai batzuk ematen zizkien)

"Bai esetu doas, etzen es, e? etzen es, guren gastai gitxi in da" - (Bai ezagutu ditut,

4.7. ESNEA-GAZTA

bei esne: behi esnea

BERANGOKO HIZTEGIA

etxean ez, e? etxean ez, gurean gaztai gutxi egin da)

"Learra ixen berren, da learra, oin farmasiko etxaten da, baya len etxate san, korderori kentxe tzen barruti, eta satitxu bet etxaten da ataringo esnera, ta esne iten da ebai, ta gero kosteen, olau, a, ixera antzeko, trapu suri bateas, pasten de esne andi, ta lotxen da gastaye batute, ta gero moldera etxa, moldera etxa ta aputxu bet sapaldu, ta siketan itxi, gero parrillan imiñi, ta siketu" - (Legarra izan beharrean, da legarra, orain botikakoa botatzen da, baina lehen botatzen zen, artxoari kentzen zioten barrutik, eta zatitxo bat botatzen da haietariko esnera, eta esnea egiten da ebaki, eta gero hartzen zuten, holako, izara antzekoa, trapu zuri batekin, pasatzen dute esnea handik, eta lotzen da gaztaia batuta, eta gero moldera bota, moldera bota eta apurtxo bat zapaldu, eta sikatzen utzi, gero parrilan ipini, eta sikatu)

gastai ure: gaztai ura, gaztaiak egikeran galtzen duen ura

"Txarriri emote yakon a esne gero, gastai ure, erdi ure" - (Txerriari ematen zitzaion esne hura gero, gaztai ura, erdia ura)

"Gastai kosu baño lelau iten da ori" - (Gaztaia hartu baino lehenago egiten da hori)

kuajade: gatzatua

"Ori da kuajaden antzeko" - (Hori da gatzatuaren antzekoa)

learra: legarra

"Gastaye itteko ba, katxarro baten, segun senbet, a, litro dekosusan, eta atan botate san ori, learra, eta an eitte san kuaja, eta gero botate san serara, pasadora batera, eta an, istutu te istutu te istutu, eta botaten dau ure dana, ure dana botaten dau" - (Gazta egiteko ba, katxarro baten, segun zenbat, litro dauzkazun, eta hartan botatzen zen hori, legarra, eta han egiten zen gatzatu, eta gero botatzen zen zerera, iragaztontzi batera, eta han, estutu eta estutu eta estutu, eta botatzen du ur dena, ur dena botatzen du)

4.8. GOZOKIAK-POSTREAK

almimere, almibere: almimera, ardautan egosiko frutak

"Almimere bai itteun, almimere sagarrakas, aolaseko fuentek, almimere" - (Almimera bai egiten zuen, almimera sagarrekin, haolaseko erretailuak, almimera)

asukere: azukrea

"Drungulu uruneas eta seraas, esneas asukera barik, e? drungulu asukera barik" - (Drungulua irinarekin eta zerarekin, esnearekin azukre barik, e? drungulua azukre barik)

"Ogin ganen imiñi, ta asukere bota, goso!" - (Ogiaren gainean ipini, eta azukrea bota, gozoa!)

asukere baltza: azukre beltza

atxikori, txikori: txikoria

"Ba gustu obe emoteko, txikori botate les orain, baltzittu giau" - (Ba gustu hobea emateko, txikoria botatzea legez orain, belztu gehiago)

batxi sopak: aurreko egunean sobratuko taloa esnetan irakin eraginda, egiten diren zopak; Sopelan eta Urdulizen "potokade" esaten zaio.

"Batxi sopak estait eiten diren orreas ala arto otzaas diren" - (Batxi zopak ez dakit egiten diren horrekin ala arto hotzarekin diren)

esne sopak: esne zopak

esti: eztia

gallete: gaileta

"Ba nire eran ya, akordate nas, txokolate bai selan emote yeuen ta, imintte yeuen, ba galleta batzuk edo, gero asi siren pintxo batzuk imintten ta olan, baya asikeran galleta batzuk eta txokolate" - (Ba nire eran ja, gomutatzen naiz, txokolatea bai zelan ematen zuten eta, ipintzen zuten, ba gaileta batzuk edo, gero hasi ziren pintxo batzuk ipintzen eta hola, baina hasieran gaileta batzuk eta txokolatea)

iko pase: iko pasa

"Len esateuren, a, kentzeko katarro edo gripe edo, imiñi ardau, iko pasak, bota ardaues, irikiñ, eta artu, esateuren" - (Lehen esaten zuten, kentzeko katarroa edo gripea edo, ipini ardaua, iko pasak, bota ardauarekin, irakin, eta hartu, esaten zuten)

intxor saltze: intxaur saltsa

BERANGOKO HIZTEGIA

"Atxiñe intxor saltze asko yate san eta aurreti ase edo koniflora, ori ixete san afari" - (Antzina intxaur saltsa asko jaten zen eta aurretik aza edo azalorea, hori izaten zen afaria)

"Intxor saltze bain baño estot iñ" - (Intxaur saltsa behin baino ez dut egin)

kanele: kanela

karamelo: karamelua

"Esta eintten, e, gause andirik oiñ, se ba, umekas edo eiñ olau, eiñ eskegi, ba, lapiko batzuk, batzuk ureas beste batzuk, a, serriñeas, eta beste karameloas eta" - (Ez da egiten, gauza handirik orain, ze, ba, umeekin edo egin holako, egin eskegi ba, lapiko batzuk, batzuk urarekin beste batzuk, zerrautsarekin, eta bestea karameluarekin eta)

mas pase: mahats pasa

pastela: pastela

postre: postrea

sagar erre: sagar errea

"Yateuen, e, patatak saltza berden, makallon seraas, bustenaas, ta sagar errek" - (Jaten zuten, patatak saltsa berdean, makailoaren zerarekin, buztanarekin, eta sagar erreak)

sopak: esne zopak, talo zopak

tostade: tostada

"Asukerarik eta esebere, neu pere asukere dekot, esin yan, domekan yan doas tostadak eta fastidiata o nas gero" - (Azukrerik eta ezer ere ez, neuk ere azukrea daukat, ezin jan, domekan jan ditut tostadak eta larrituta egon naiz gero)

turroya: turroia

"Nik gabonatan esetu dot besegu, turroya esetu dot eguno beti" - (Nik gabonetan ezagutu dut bisigua, turroia ezagutu dut egundo beti)

txokolate: txokolatea

"Lengo aldiñ or lotute, apa, apa! itte osten, apa! se txokolate gustate ako" - (Lehenago aldian hor lotuta, apa, apa! egiten zidan, apa! ze txokolatea gustatzen zaio)

4.9. EDARIAK

anise: anisa

"Koñaka ta anise ta galleta batzuk eta imintteusen" - (Koinaka eta anisa eta galleta batzuk eta ipintzen zituen)

ardau: ardaua

"Bedarretako bai, bedarrak eta ibiltte sirenen ta gari yoten sanen ta alau jenerotan bai, botateuren, a, ardau, eta gero ure eta gero asukere" - (Belarretarako bai, belarrak eta ibiltzen zirenean eta garia jotzen zenean eta holako gauzetan bai, botatzen zuten, ardaua, eta gero ura eta gero azukrea)

edari: edaria

kafe: kafea

"Ori txingerra koisteko? txingerra sartuteuen olau, artesi moduko alikatek edo orrek, tenasak, artu txingerra, suk estosu esetu ori? kafe itten sanean? ta txas! sartu txurruuu! eitteun" - (Txingar hori hartzeko? txingarra sartzen zuten holako, artazi moduko aliketak edo horiek, tenazak, hartu txingarra, zuk ez duzu ezagutu hori? kafea egiten zenean? eta txas! sartu txurruuu! egiten zuen)

kafekoletxe: kafesnea

"Ba kafekoletxe bero edo seosertxu bero, ta aspirina sati bet, besterik nik estot esetu, e?" - (Ba kafesne beroa edo zer edo zertxo bero, eta aspirina zati bat, besterik nik ez dut ezagutu, e?)

kañe: kaina, ronaren izena

koñaka: kafea

kope: kopa

limonade: limonada

moskorra: mozkorra

mosto: mostoa

pitipiñe, pitikiñe: pitikina, pitipina, mahats hondarrekin egiten den edaria

"Ure bota eta areas pitikiñe, txakoliñe ixen berren, inder gitxiaoas, eta a edateko batzuk ori itteuren, beste batzuk eseuiren eitten" - (Ura bota eta harekin pitikina, txakolina izan beharrean, indar gutxiagorekin, eta hura edateko batzuek hori egiten zuten, beste batzuek ez zuten egiten)

sagardau: sagardoa

sangri: sangria

"Sangri esate san ori, emen sikan bere" - (Sangria esaten zen hori, hemen behintzat)

txakolin baltza: txakolin beltza

BERANGOKO HIZTEGIA

txakolin gorri: txakolin gorria

txakolin suri: txakolin zuria

txakoliñe: txakolina

"Txakoliñe guren, guk es, baya lelau bai, lelau bai, an dau masti" - (Txakolina gurean, guk ez, baina lehenago bai, lehenago bai, han dago mahastia)

"Emen, o, oiñ asi da txakoliñe itten" - (Hemen, orain hasi da txakolina egiten)

"Au bai, etzen bere oki du aitte difuntuk txakoliñe itteko" - (Hau bai, etxean ere eduki dugu aita defuntuak txakolina egiteko)

"Ak ardaun gitxi edateun, txakoliñe gustate akon" - (Hark ardaun gutxi edaten zuen, txakolina gustatzen zitzaion)

"Emen txakoliñ asko in da beti, eta barrika asko, baya saldu, estaure iñ iños bere" - (Hemen txakolin asko egin da, eta barrika asko, baina saldu ez dute egin inoiz ere)

txikito: txikitoa, tabernetako ardaun basokadaxoa

"Bakarrik, ba yo nitzen, ta an taberna baten sartu nitzen txikito batzuk artu neusen" - (Bakarrik, ba joan nintzen, eta han taberna baten sartu nintzen txikito batzuk hartu nituen)

ure: ura

"Eintten du, ein txorkea, siku badaun lurre, arrastin, ya iguski sartxen daunen, txorkea eta ure bota, ure apur bet" - (Egiten dugu, egin txorkatu, siku badago lurra, arrastegian, ja eguzkia sartzen dagoenean, txorkatu eta ura bota, ur apur bat)

5. JANTZIAK

Jantzieraren gaineko berbak banatzeko egin ditugun azpi-atalak arropak, oinetakoak, osagarriak eta, azkenik, jostigintza beharrari dagokiona izango dira.

5.1. ARROPAK

alkondare, arkondare: alkondara

"Suk yosi dosu alkondare" - (Zuk josi duzu alkondara)

aspiko gone: azpiko gona

barruko errope: barruko arropa

boltze: 1. poltsikoa. 2. poltsa

"Diru boltzan badekosu, diru okiko su" - (Dirua poltsikoan badaukazu, dirua edukiko duzu)

"Ba! yongo nas bille, ta ekarri yeun olau, a, boltza bat" - (Ba! joango naiz bila, eta ekarri zuen holako, poltsa bat)

"Atxiñeko tratante pere kordela beti boltzan, eroste yeren ganadu, se ganadu ba begire erosten da ba, ta, kasu beterako mataderotara ta, begire" - (Antzinako tratulariak ere kordela beti poltsikoan, erosten zuten ganadua, ze ganadua ba begira erosten da ba, eta, kasu baterako hiltegiatara eta, begira)

bruse: brusa, hau lehen nagusiek jantzen zutena da

"Brusakas ta ibiltte siren ordun" - (Brusekin eta ibiltzen ziren orduan)

bufande: lepokoa

errope: arropa

"Errope garbituteutzen gure amak etzen" - (Arropa garbitzen zion gure amak etxean)

"Estakixu estotena etzen esetu, orrek erropak eta orrek gausak, eneitzu esan" - (Ez dakizu ez dudana etxean ezagutu, arropa horiek eta gauza horiek, ez niezazuke esan)

faldoya: faldoia

"Ene! badekot nik faldoitxu be pere or" - (Ene! badaukat nik faldoitxo bat ere hor)

fraka laburre: prakak laburra

frakak: prakak

"Frakak soltata o nitzen eskiña baten" - (Prakak soltatuta egon nintzen izkina baten)

gonantza: gonantza, gorantza

gone: gona

"Gone olan frunsidute, eta ganeti beste frunsidute bat, eta gero mantille derditxedu bet baltza ganeti" - (Gona hola izurtsua, eta gainetik beste izurtsua bat, eta gero mantila handi bat beltza gainetik)

"Ba, amari asko gure, a, an gonan aspiñ egote les" - (Ba, amari asko gura, han gonon azpian egotea legez)

jerse: jertsea

"Erakutzi itteko moduko auki dot nik or erropatxu, umenak, lengo umenak jersetxuk eta faldoitxuk eta, lengok" - (Erakutsi egiteko modukoa eduki dut nik)

BERANGOKO HIZTEGIA

hor arropatxoa, umeenak, lehenengo umeenak jertsetxoa eta faldoitxoak eta, lehengoak)

"Eta jersey pere bai entzun dot eitesela andrak" - (Eta jertseak ere bai entzun dut egiten zituztela andreek)

jugoya: jugoia

kaltzardi, kaltzerdi: galtzerdia

"Nik estot esetu baya atxiñe, amak, entzunte dekot, a ite san garbitu, ta serak iteko, kaltzertdik eiteko" - (Nik ez dut ezagutu baina antzina, amak, entzunda daukat, hura egiten zen garbitu, eta zerak egiteko, galtzerdiak egiteko)

kaltzetiñe: galtzerdia

"Oin bere intten doas nik kaltzetiñek nire sementzako ta danantzako, oin bere baya Bilbora yoten gare lanen bille, se emeti estau" - (Orain ere egiten ditut nik galtzerdiak nire semeentzat eta denentzat, orain ere baina Bilbora joaten gara artileen bila, ze hemendik ez dago)

"Kaltzetiñek itten doas etzen" - (Galtzerdiak egiten ditut etxean)

kamise: kamisa, mahuka bako goitik beherako azpiko gona antzekoa

"Erropak selauk ixengo siren? oingo antzen, ordun, a, kamise" - (Arropak zelakoak izango ziren? oraingo antzean, orduan, kamisa)

kamisete: kamiseta

kamisoya: kamisoia

kantzontzillo: galtzontziloa

mantarra: mantarra

"Mantarrak eta gero su intte siketan, mantarrak, mantarrak, atxiñe mantarrak eta toallak, mantarrak, bai esetu doas, bai" - (Mantarrak eta gero su eginda sikatzen, mantarrak, mantarrak, antzina mantarrak eta oihalak, mantarrak, bai ezagutu ditut, bai)

mariñere: marinera, andrazkoen brusa edo alkondara

paxe: paixa

pikesko faldoya: faldoi mota bat

soñeko: soinekoa

txakete: jaka

txapiñe: txapina, artilezko galtzerdia eta baita umeen galtzerdi txikerrei ere esaten zaie

yake: jaka

yantzi: jantzia

"Yantzi tte pentza beres eta, ullerik ebai tte beres, ori buruko pañuelu" - (Jantzia eta pentsatu ere ez eta, ilerik ebaki eta ere ez, hori buruko zapia)

yasteko: jantzia

"Yastekon dobladillu arregla ber dot" - (Jantziaren barrena konpondu behar dut)

5.2. OINETAKOAK

abarka mante: abarka mantak

"Abarkak? bai, orre pai, abarkak eta abarka mantak, ese akordaten dat, uriolak, auri golpe itzela ei eun, eta abarka mantak gure amak auki siketuten imintte ta urek eron" - (Abarkak? bai, horiek bai, abarkak eta abarka mantak, eze gomutatzen zait, uriolak, euri kolpe itzela egin zuen, eta abarka mantak gure amak eduki sikatzen ipinita eta urak eroan)

abarke: abarka

"Abarkakas ta etor san" - (Abarkekin eta etorri zen)

abarkete: abarketa

"Niri ein deust semek, ekarri ona ogei pare abarketa, erosi Bilbon, sintxa barik" - (Niri egin dit semeak, ekarri hona hogeia pare abarketa, erosi Bilbon, kordel barik)

borsegi: bortzegia

"Txispegi bai, mutillek intteuren borsegik erosteusen ta non dau txispegi? igual katuk yan dau" - (Txizpegia bai, mutilek egiten zuten bortzegiak eroaten zituzten eta non dago txizpegia? beharbada katuak jan du)

bote: bota

kordela: kordela, lokarria

"Kordelaas bai, beti on da kordela, e?" - (Kordelarekin bai, beti egon da kordela, e?)

"Ori kordela, gaure etzen bere egon da ori" - (Kordel hori, geure etxean ere egon da hori)

kordoya: kordioa

lasade: kibila, mingila

lustre: lustrea, betuna

oñetakok: oinetakoak

sapata aspi: zapata zorua, zapata azpia

BERANGOKO HIZTEGIA

sapata gane: zapata goia

sapate: zapata

"Sartu ordureko esaten dau aittek, an oten da, semeri esaten dotzo, orrek orrek sapatak ber dittu" - (Sartu ordurako esaten du aitak, han egoten da, semeari esaten dio, horrek horrek zapatak behar ditu)

"Sapatakas, a, etorri nas ni" - (Zapatekin, etorri naiz ni)

sapatille: zapatila

sintxe: zinta, abarketak lotzeko erabiltzen direnak

soru: zorua

txanklo: txankloa

5.3. OSAGARRIAK

amentala, amantala: amantala

"Gero amentala baltza erote yeuen ganera, ondo yantzitako amentala mesara ta olan yoteko" - (Gero amantala beltza eroaten zuten ganera, ondo jantzteko amantala mezatara eta hola joateko)

arrakade: arrakada, belarrietakoa

"Arrakadak, batzuk perlaskok eta beste batzuk normalak, baya es, arrakadak" - (Arrakadak, batzuk perlazkoak eta beste batzuk arruntak, baina ez, arrakadak)

bastoya: makulua

"Yon siren eta topauden gixontxu bet alan, a, bastoitxu beteas" - (Joan ziren eta topatu zuten gizontxo bat hala, makulutxo batekin)

boltze: poltsa

"Boltzak! dirus beterik atara gendusuk" - (Poltsak! diruz beterik atera genituen guk)

"An daus eta boltze beterik etzen eintte" - (Han daude eta poltsa beterik etxean eginda)

buruko orrotza: buruko orratza, orratz buru beltzak, buruko zapia lotzeko erabiltzen direnak

buruko pañelu, buruko pañuelu: buruko zapia

"Aan dau, aa da gure ama, aa, buruko pañuelues, aan dauna" - (Haan dago, haa da gure ama, haa, buruko zapiarekin, haan dagoena)

elastune: eraztuna

erleju, erloju: erlojua

esku pañelu: esku zapia

gafak: betaurrekoak

garriko: gerrikoa

gorbete: gorbata

"Garriko edo gorbetaren bat nonok itxi deuna edo" - (Gerrikoa edo gorbataren bat nor edo nork utzi duena edo)

gordosola: guardasola, aterkia

"One takar gordosola" - (Honek dakar guardasola)

"Gordosola imiñi, seran, erreka eskiñen, igiritte, ta pikate aunen, txak! tak! gordosolara angile" - (Guardasola ipini, zerean, erreka bazterrean, irekita, eta irensten zuenean, txak! tak! guardasolera aingira)

guante: eskularrua

kartere: kartera, diru-zorroa

mantille: mantila

"Gone olan frunsidute, eta ganeti beste frunsidute bat, eta gero mantille derditxedu bet baltza ganeti" - (Gona hola izurtsua, eta gainetik beste izurtsu bat, eta gero mantila handi bat beltza gainetik)

"Mantille esan ixen baltza" - (Mantila ez zen izan beltza)

mantoya: mantoia

pañelu, pañuelu: zapia

"Iños entzun tzet nik amamari edo, nire buruko pañelu non dau? edo, neu pere bai solora yoteko imintten dot eta, non itxi dot pañelu?" - (Inoiz entzun diot nik amamari edo, nire buruko zapia non dago? edo, neuk ere bai sorora joateko ipintzen dut eta, non utzi dut zapia?)

partikere, fartikere: patrika

sinturoya: garriko uhala

sonbreru: kapela

"Ordun tapata yon ber ixete san, a, sonbreru imiñi, eta olan, mantille les imiñi aurreti" - (Orduan tapatuta joan behar izaten zen, kapela ipini, eta hola, mantila legez ipini aurretik)

tokille: tokila

txapela: txapela

"Bai, amabik yoteusen bai, aittek kitateun txapela ta lotu aputxu beten" - (Bai, hamabiak jotzen zituenean bai, aitak kentzen zuen txapela eta lotu apurtxo baten)

BERANGOKO HIZTEGIA

txori: txoria, biztea, umeei iletan eta egiten
zaizkien bizteak edo lazoak

urre: urregorria, urrea

urregorri: urregorria, urrea

urresuri: urrezuria, zilarra

5.4. JOSKIGINTZA

adabu: adabua, ipinkia

"Ba einteuen, ba amentalak, einteuen
ixerak, a, pasa, eta adabuk ber badosus,
frakari edo sera, ak einte yeun" - (Ba
egiten zuen, ba amantalak, egiten zuen
izarak, pasatu, eta adabuak behar
badituzu, prakari edo zera, hark egiten
zuen)

ardi lane: artilea

artesik, artisik: artaziak

"Kentxen dake, atxiñeko olau artesi,
muelledun batzukes, ebaite aken" -
(Kentzen zaie, antzinako holako artazi,
malgudun batzuekin, ebakitzen zitzaien)

aspildure: aspildura

"Kosi otzesu aspildure?" - (Hartu diozu
aspildura)

aurkere: aurrekera

barrena: barrena, aspildura

belorrotza: belorrotza, orratz handia
koltxoiak eta jostekoa

"Belorrotza, alaseko sera iste san" -
(Belorrotza, halaseko zera izaten zen)

"Belorrotza, baya ongok txikerra tires,
baya alaseko, koltxoya intteko andik" -
(Belorrotza, baina oraingoak txikerrak
dira, baina halasekoa, koltxoa egiteko
handiak)

botoya: botoia

buru baltzak: orratz buru beltzak

buruko orrotza: buruko orratza

dobladillu: barrena

"Yastekon dobladillu arregla ber dot" -
(Jantziaren barrena konpondu behar
dut)

ere: era

firu: firua, haria

"Alan firutxu beteas amarra, egun batzuten
eiñ eta beraas yausi itte san" - (Hala
firutxo batekin lotu, egun batzuetan egin
eta berarekin jausi egiten zen)

fraka barrena: praka barrena

fruntze: izurra

ilobale, ilobala: firubala

"Onek, a, gorrittu arten solon, gero batu eta
amarra, sera, ilobalaas, ta onek besterik
esteke" - (Hauek, gorritu arte soroan, gero
batu eta lotu, zera, firubalarekin, eta hauek
besterik ez daukate)

isurre: izurra

kolko: kolkoa

kortxeta: kortxeta

lane: artilea

"Oin bere baya Bilbora yoten gare lanen
bille, se emeti estau" - (Orain ere baina
Bilbora joaten gara artileen bila, ze
hemendik ez dago)

mange: mahuka

ojala: botoi zuloa

orrotza: orratza

"Eta kosteun sera bateas, eta orrotza
pasateun" - (Eta hartzten zuen zer batekin,
eta orratza pasatzen zuen)

"Batzuk orrotza barik eitten daure, onek
orrotzaas eintte daus" - (Batzuek orratz
barik egiten dute, hauek orratzarekin
eginda daude)

pañu: oihala, ehuna

puntille: puntila

"Len elixan bere imintte san trapu bet, alan
puntilla bateas ta gure amak, an deko
amak" - (Lehen elizan ere ipintzen zen
trapu bat, hala puntila batekin eta gure
amak, han dauka amak)

puntu: puntua

"Nik eskolan ikisiko puntuk eta dusti takides
itten" - (Nik eskolan ikasiko puntuak eta
guzti dakizkit egiten)

serrapollere: zerrapoilera

"A, engantxaten dire orrek, orre tire
serrapollerak" - (A, engantxatzen dira
horiek, horiek dira zerrapoilera)

tele: oihala, ehuna

"Ya desiñ eitte san dusti, usteldu edo nik
estaitt ser eitte akon ori, gero kanbia in ber
ixete san ori, solta, sera, tele ta, gero barri
yosi ber eta olan ibilte siren orrek
enbrak" - (Ja desegin egiten zen guztia,
usteldu edo nik ez dakit zer egiten zitzaion
hori, gero aldatu egin behar izaten zen
hori, askatu, oihala eta, gero berria josi
behar eta hola ibiltzen ziren andre horiek)

terlise: ehun mota bat

titere: titarea

trabe: traba-orratza

BERANGOKO HIZTEGIA

"Baya trabe da, amarrate les seoseas, a, sera ta trabe bai" - (Baina traba-orratz, lotzea legez zer edo zerekin, zera eta traba-orratz bai)

troñu: troinua, korapiloa

"Troñu bako esteu balio, troñu barik ixen ber deu, se troñu bauko ak, apurtu eitten da" - (Troinua badauka ez du balio, troinu barik izan behar du, ze troinua badauka hark, apurtu egiten da)

"Troñu daun lekuti apurtzen da" - (Troinua dagoen lekutik apurtzen da)

yosteko makiñe: josteko makina

yosture: jostura

6. BIZILEKUA

Bizilekuari emango diogun atal honetan etxearen inguruan batu ditugun berbak aurkeztuko dira. Azpi-atalak etxea egiteko materialak, etxearen egitura, etxearen banaketa, atea-leihoak-eskailera, sua, argia, ura, sueteko tresnak, altzariak, etxeko arropak, bogada eta garbikuzia dira.

6.1. ETXEA EGITEKO MATERIALAK

amase: masa, hormak egiteko erabiltzen dena

area: harea

"Nik areas eitten dot, onena neutzako playako area baya es salitre dekona" - (Nik harearekin egiten dut, onena neuretzat hondartzako harea baina ez kresala daukana)

"Area itxen dau orrek, kayuelak" - (Harea egiten du horrek, kaiuelak)

are arri: hare-harria

"Are arri ixete san gayena" - (Hare-harria izaten zen gehiena)

"Emen dau au, kalisena, ori bere bai, ta gero an beste mendin da are arri" - (Hemen dago hau, karatxarena, hori ere bai, eta gero han beste mendian da hare-harria)

arri: harria

"A etze, arrisko etze? an bixi da" - (Etxe hura, harrizko etxea? han bizi da)

"Ori da arri bigune" - (Hori da harri biguna)

burni: burdina

"Olau, a, burni betzun ganen, isterrak imiñi emen, eta, ibiltte san" - (Holako, burdina batzuen gainean, oinak ipini hemen, eta, ibiltzen zen)

erreka arri: erreka harria

igeltzo: igeltsua

kare: karea

"An eitteun kare ak" - (Han egiten zuen karea hark)

"Karabiganen ego san labe or, kare itteko, orko arries" - (Karabiganen egon zen labea hor, karea egiteko horko harriarekin)

klabile: kabila, teilatuko zurajea, iltze barik, josteko egurra

kristela: kristala

ladrillu: adreilua

"Ori dusti intte dau, ta gero, a, ladrillues ta serakas armasoya" - (Hori guztia eginda dago, eta gero, adreiluarekin eta zerekin armazoia)

listoya: listoia

lose: harlauza

morteru: mortairua, porlanaren ordez erabiltzen zen masa

"Atxiñe kareas eitte san dusti, areas eta kare, nastata, morteru geittuteutzen" - (Antzina karearekin egiten zen guztia, harearekin eta karea, nahastuta, mortairua deitzen zioten)

ola: ohola

"An, a, Olatxitetxun ola egon san" - (Han, Olatxitetxun ohola egon zen)

"Len olak eitteko ba, asko ber san" - (Lehen oholak egiteko ba, asko behar zen)

"Orrek agarrateko olaas eitte siren" - (Horiek oratzeko oholarekin egiten ziren)

ormigoya: hormigoia

"Gero ya ni asi nitzenen, ormigoya ta ladrillues ya itte san" - (Gero ja ni hasi nitzenen, hormigoia eta adreiluarekin ja egiten zen)

semento: zementua, porlana

"Oin dau dusti semento ta dusti dau imiñitte garbi ba len ixete san, sera, lurre" - (Orain dago guztia zementu eta guzti dago ipinita garbi ba lehen izaten zen, zera, lurra)

talle: teila

BERANGOKO HIZTEGIA

"Talleas markateuren" - (Teilarekin markatzen zuten)

"Aittittek itte otzon, ba olau, a, talla bat, talle, olau da talle, eta an imintte otzen, a, ganadun, a, satza, bekorotza, baya siketute, aukitte auren ya preparata, emon sue ta, ak esaun eitten, olan, a, kea bakarrik" - (Aitaitak egiten zion, ba holako, teila bat, teila, holakoa da teila, eta han ipintzen zioten, ganaduaren, satsa, bekorotza, baina sikatuta, edukitzen zuten ja prestatuta, eman sua eta, hark ez zuen egiten, hola, kea bakarrik)

6.2. ETXEAREN EGITURA

age: habea

arku: arkua

armasoya: armazoaia

"Atxiñe, ba, olasko dusti, armasoya olasko eitte san dusti" - (Antzina, ba, oholezkoa guztia, armazoaia, oholezkoa egiten zen guztia)

astille: arrakala, arraildura, pitzadura

bastarra, basterra: bazterra

"Puntak gora adi dala, eta gero mimenaas, a, ein kordela an, ta amarraten dusen bastarreti" - (Puntak gora adi dela, eta gero mimenarekin, egin kordela han, eta lotzen genituen bazterretik)

bea: behea, zola

"Bea surittu, eitte san bea" - (Behea zuritu, egiten zen behea)

erretalle: erretailea

"Erretalle esaten dako, guk esaten dun modun emen, e? talletu sarra kendu te barri imiñi" - (Erretailea esaten zaio, guk esaten dugun moduan hemen, e? teilatu zaharra kendu eta berria ipini)

ertza: ertza

"Emen ertzan, erdiñ, albotan dustitten deko, are arri deko dusti" - (Hemen ertzean, erdian, alboetan guztietan dauka, hare-harria dauka guztia)

eskiñe: izkina, kantoia, hegala

eskutu: ezkutunea, gordelekua, afrontuaren kontrako aldea

"Leku eskutun badau, igual dau aputxu bet ona adi" - (Leku ezkutuan badago,

behabada dago apurtxo bat hona adi, hona adi)

etzatze: etxe atzea

etzaurre: etxaurrea

"Imintten espadotzesu etzaurren, a, batute, eron beres" - (Ipintzen ez badiozu etxaurrean, batuta eroan ere ez)

etze albo: etxe albo

"Bai etze albon egote san, a, sas pillo andi bet" - (Bai etxe alboan egoten zen, sats pilo handi bat)

etze ondo: etxe ondo, etxe ingurua

"Gero san juan egunen, nik ori ure koyu, erramu satitxu bateas, ta, bereinketuten ostabere etze ondo dana" - (Gero san juan egunean, nik ur hori hartu, erramu zatitxo batekin, eta, bedeinkatzen ostera ere etxe ondo dena)

gallurre: gailurra

"Atxiñe talletu olasko dana ixete san, gallurre da, goiko sera, gallurre geittuten da" - (Antzina teilatua oholezkoa dena izaten zen, gailurra da, goiko zera, gailurra deitzen da)

"Ori itte san, eta oin bere itten da, gallurreti" - (Hori egiten zen, eta orain ere egiten da, gailurretik)

gotere: itogina, itesurea

"Bakixu goterak koste siren, ta tiñeku et imiñi an goteran, eta, e, komunerako eta gausatarako ba, a usaten gendun" - (Badakizu itesureak hartzen ziren, eta tinako bat ipini han itesurean, eta, komunerako eta gauzetarako ba, erabiltzen genuen)

goye: goia, sabaia

late: lata

okollu: okoilua

ola: ohola

orma sulo: horma zuloa

orme: horma

"Trange bere bai, ondiño or Agarren dau, orretaringo, a, sera, portalen baterik bestera, orman sulo itxitte" - (Tranga ere bai, oraindino hor Agarren dago, horietariko, zera, atarian batetik bestera, horman zuloa utzita)

poste: postea, zutabea

solibe: soliba

"Aor dau bat, soliba bat" - (Haor dago bat, soliba bat)

simindu: oinarria

BERANGOKO HIZTEGIA

talletu: teilatua

"Auri itte aunen, emen talleturik auki esaules, jente yote san Sopelara, baya auri iñ esik, emen Berangon, baya espabere Areatan, espabere Portalten" - (Eurria egiten zuenean, hemen teilatuturik eduki ez zuenez, jendea joaten zen Sopelara, baina eurria egin ezik, hemen Berangon, baina ezpabere Areetan, ezpabere Portalten)

txixe poso: txiza-putzua

"Txixe poso da, ganadu deku emen, eta ondiño dau olau txikitxu bet, ganaduk eitten dau txixe, ara yoten da, eta andik errekarra" - (Txiza-putzua da, ganadua daukagu hemen, eta oraindino dago holako txikitxo bat, ganaduak egiten du txiza, hara joaten da, eta handik errekarra)

ur biko talletu: ur biko teilatua

6.3. ETXEAREN BANAKETA

beste alde, bestalde: beste aldea, etxeari deusola dagoen alboko bizitza

"Ume umetan onen osabe, beste alden, eta bakixu, len atek sabalik beti etzen, edo ixitte egoten basan bere soñu yoten an, etzera etorte san beste, a, il sana bere gixajo" - (Ume umetan honen osaba, beste aldean, eta badakizu, lehen atek zabalik beti etxean, edo itxita egoten bazen ere soinu jotzen han, etxera etortzen zen bestea, hil zena ere gizajoa)

bixileku: bizilekua

bixitze: bizitza

"A ixen san, bueno! lurren, lengo bixitze, bentana txikerrak" - (Hura izan zen, beno! lurrean, lehengo bizitza, leiho txikerrak)

bixitze bateko etze: bizitza bateko etxea

bixitze biko etze: bizitza biko etxea

bodege: sotoa

"Au ixen san bodega andi bet" - (Hau izan zen soto handi bat)

dutxe: dutxa

entrade: sarrera, ataria

"Guk botaten gendun kare, entradan" - (Guk botatzen genuen karea, sarreran)

eskusau: komuna

etze: etxea

"Orrena da a etze" - (Horrena da etxe hura)

"Amak eta aittek etze erosi euren, erosi euren etze" - (Amak eta aitak etxea erosi zuten, erosi zuten etxea)

kamare: kamara, ganbara

"Igual, a, indaba orrikes ta, bai kamarara yon ta, imintte dun sigarro estrasako paperaas ta sigarro, bakixu umen kontuk" - (Beharbada, indaba orriekin eta, bai kamarara joan eta, ipintzen genuen zigarroa estrazako paperarekin eta zigarroa, badakizu umeen kontuak)

"Kamaran dekus orretaringok, erreta yateko, goso dires orrek erreta" - (Kamaran daukagu horietarikoak, erreta jateko, gozoak dira horiek erreta)

"Nauk es, etzen okin doas, e? etzen on siren, e? etzen bai, etzen, a, kamaran on siren" - (Neuk ez, etxean eduki ditut, e? etxean egon ziren, e? etxean bai, etxean, kamaran egon ziren)

"Bueno eskillere, guk auki du, barruti kamarara yoteko" - (Beno eskailera, guk eduki dugu, barrutik kamarara joateko)

karrajua: karrajua

"Etze barrun kasik on san gorte, eta karrajuti yoten gintzen gortara" - (Etxe barruan kasik egon zen korta, eta karrajutik joaten ginen kortara)

komune: komuna

"Komune ote san asao" - (Komuna egoten zen asago)

kuartu: logela

"Aman kuartun auki gendun olau oya andi bet" - (Amaren gelan eduki genuen holako ohe handi bat)

"Kuartuten eser bere esan egoten" - (Logeletan ezer ere ez zen egoten)

lastotegi, lastegi: lastategia

"Onen neba bat gure aittek auki un lastotegin ostute" - (Honen neba bat gure aitak eduki zuen lastategian ostuta)

pasillu, pasillo: iraganbidea, karrajua

"Emen labe, labe, labasuk eta intteko, or intteuen, a, sera ta, pasillun danak serakas, koltxoyakas lo ta" - (Hemen labea, labea, labasuak eta egiteko, hor egiten zuten, zera eta, iraganbidean denak zerekin, koltxoiekin lo eta)

portala, portale: ataria

BERANGOKO HIZTEGIA

"Sarri yo dus portalen, portalen se indaba asko kosten dun te sarri yo du" - (Sarri jo ditugu atarian, atarian ze indaba asko hartzen genuen eta sarri jo dugu)

"An portalen dau sera, bodega bat, ta an imintte san, ta dana umedade beti, egunetan an dana yon arten" - (Han atarian dago zera, soto bat, eta han ipintzen zen, eta dena hezetasuna beti, egunetan han dena joan arte)

sale: egongela

suete, sute: suetea, sukaldea

"Olan lotxe san suete andiau" - (Hala lotzen zen suete handiagoa)

surteko autze: surteko hautsa

"Ba, nik estot esetu baya entzunte dekot, a, amari, gure amamak eta onek, surteko autzeas eitteurela errope yabona" - (Ba, nik ez dut ezagutu baina entzunda daukat, amari, gure amamak eta hauek, surteko hautsarekin egiten zutela arropa xaboiztatu)

6.4. ATEA-LEIHOAK-ESKAILERA

ate: atea

"Estat astu bere ingo, selan, atek iriteittu se konfiantza emon ta" - (Ez zait ahaztu ere egingo, zelan, atek irekitzen ditu ze konfiantza eman eta)

"Errope eskeitten naula orrek atek toum! ieun, ene!" - (Arropa eskegitzen nagoela ate horrek toum! egin zuen, ene!)

balkoya: balkoia

"Portalen dau eta intte eskudo bat arries balkoyan" - (Atarian dago eta eginda armari bat harriarekin balkoian)

balustre: balustra, leihoen kanpoko aldean egoten diren burdinazko hesiak

"Errementari ixen san orren usaba, ta berak etze erosi aunen orrek imiñi eusen orrek burnisko balustrek" - (Errementaria izan zen horren ugazaba, eta berak etxea erosi zuenean horiek ipini zituen burdinazko balustra horiek)

bentane: leihoa

"Umek apurtu doskue bentane" - (Umek apurtu digute leihoa)

"Nauri bere bentane amentxe yo eusten" - (Neuri ere leihoa hamentxe jo zidaten)

eskillere: eskailera

"Ien banendun kamarara gora, eskillere deku emen ta, nik esetuko neusen aik nortzuk ixen siren" - (Igan banuen kamarara gora, eskailera daukagu hemen eta, nik ezagutuko nituen haiek nortzuk izan ziren)

"Barruko eskillerana baya nik, a, orretarikorik estot eiñ, gure denporan ya esan usaten ori" - (Barruko eskailerarena baina nik, horietarikorik ez dut egin, gure sasoian ja ez zen erabiltzen hori)

giltze: giltza

"Giltzek yausi ates" - (Giltzak jausi zaizkit)

"Amen dekot giltze" - (Hamen daukat giltza)

kisketa: kisketa

kontrabentane: kontraleiho

"Aittu an, burnitxu bet estosu ukusten? areas burnies, a berarten burni andi bet, trabil beteas intte san eta an batute, eta goyen aukitteusen kontrabentana bi" - (Aditu han, burdinatxo bat ez duzu ikusten? burdina harekin, hura beheraino burdina handi bat, trabil batekin egiten zen eta han batuta, eta goian edukitzen zituen kontraleiho bi)

malle: maila, eskailera maila

manille: maratila

marku: markoa

trabille: trabila, ate-leihoak ixteko egurrezko pasadortxo

"Entradako orretariko trabilleas usate san" - (Sarrerakoa horietariko trabilarekin erabiltzen zen)

trange: tranga

"Trange bere bai, ondiño or Agarren dau, orretarigo, a, sera, portalen baterik bestera, orman sulo itxite" - (Tranga ere bai, oraindino hor Agarren dago, horietariko, zera, atarian batetik bestera, horman zuloa eginda)

"An aukitteun burnisko, trange burnisko" - (Han edukitzen zuen burdinazkoa, tranga burdinazkoa)

6.5. SUA

auspo: hauspoa

autze: hautsa, errautsa

"Orture botaten gendusen autzek" - (Ortura botatzen genituen hautsak)

BERANGOKO HIZTEGIA

bartxune: bartzuna, errautsa kentzeko erabiltzen den burdinazko tresna

"Bartxune ixen san, bai, sera, ixen san sertxu bet, eta mangu beteas, eta areas garbittuten gendun, a, sera" - (Bartzuna izan zen, bai, zera, izan zen zertxo bat, eta kirten batekin, eta harekin garbitzen genuen, zera)

beko sue, beko suete, beko surte: beheko sua

"Nik esetu dot gaste nasela beko suete" - (Nik ezagutu dut gaztea naizela beheko sua)

"An ya txape imin gendun baya ostantzen beko sue" - (Han ja txapa ipini genuen baina osterantzean beheko sua)

"Ori ixete san, a, beko suetek egoten sirenen" - (Hori izaten zen, beheko sueteak egoten zirenean)

brase, prase: txingarra

"Piperra pere bai, baya piperrak aparte artoas nasten es, piperrak aparte, piperra pere itten gendusere, baya piperrak brasan, e?" - (Piperrak ere bai, baina piperrak aparte artoarekin nahastean ez, piperrak aparte, piperrak ere egiten genituen erre, baina piperrak txingarrean, e?)

burruntzi: burruntzia

egurriketza: egur ikatza

"Egurriketza bai, gurbixe ixengo da orretako onena" - (Egur ikatza bai, gurbitza izango da horretarako onena)

fogoya: sutondoa

"Ba bekosue egon san ortxe suten, ortxe alderdien, eta beste dana ixen san ba, fogoya esaten gendun guk, estai pa selan dan ori, e?" - (Ba beheko sua egoten zen hortxe sueteetan, hortxe alderdian, eta beste dena izan zen ba, sutondoa esaten genuen guk, ez dakit ba zelan den hori, e?)

gantxo: gantxoa

garra: garra, sugarra

"Estau urten ber garrak kanpora" - (Ez du irten behar garrak kanpora)

gedarra: kedarra

iketza: ikatza

"Jente yote san iketza bille, ta ein boltzak eta gero astoas bille, baya jente asko" - (Jendea joaten zen ikatza bila, eta egin

poltsak eta gero astoarekin bila, baina jende asko)

"Orrek asko aguantateun, iketza bere eroste san, baya iketzaas, orretarango palakadatxu bet bota eskonen asko giau aguantateun eta bero giau emon" - (Horrek asko irauten zuen, iketza ere erosten zen, baina ikatzarekin, horietariko parakadatxo bat botaz gero asko gehiago irauten zuen eta bero gehiago eman)

"Iketza bere bai, baya iketza, diru kostate san ta, gero yote siren serara, itxosora yote siren gero, itten koka" - (Iketza ere bai, baina iketza, dirua kostatzen zen eta, gero joaten ziren zerera, itsasora joaten ziren gero, egiten koka)

"Ementxe solotan bere ien iketza" - (Hementxe soroetan ere egin zuten iketza)

illenti: ilintia; ilintia tenazekin hartu eta kafe irakinari sartzen zitzaion

kate: katea, tximinia garbitzeko erabiltzen zen katea bat

kea: kea

"Keak urteteko? batzuten tximiñieti eta beste batzuten sutera" - (Keak irteteko? batzuetan tximiniatik eta beste batzuetan suetera)

"Es, nik kea estot esetu" - (Ez, nik kea ez dut ezagutu)

laratzu: laratzua

metxe: 1. metxa. 2. metxa, txakolin barrikari egiten zitzaiona garbitzeko

misto: mistoa

"Gero sera bat imintte san, misto bat bistute" - (Gero puxatzen zen, eta gero zer bat ipintzen zen, misto bat biztuta)

misto kaje: misto kutxa

olliñe: kedarraren hautsa

parrille: parrila

prase: txingarra

sue, sube: sua

"Siketute ote sanen, a, ak sue itteun" - (Sikatuta egoten zenean, hark sua egiten zuen)

"Lelau, asikeran sube bistuten danen, ba labe egoten da illun illun, kasik baltz, eta selan sube iñ alan, selan berotu alan, doa ba surittuten surittuten surittuten, kanpoko arrik" - (Lehenago, hasieran sua bizten denean, ba labea egoten da ilun-ilun, kasik beltz, eta zelan egin hala, zelan berotu

BERANGOKO HIZTEGIA

hala, doa ba zuritzen-zuritzen-zuritzen, kanpoko harriak)

surte: surtea

surteko autze: surteko hautsa

"Ondo garbittuteun orrek surteko autzek" - (Ondo garbitzen zuen surteko hauts horrek)

sutondo: sutondoa

talo burni: talaburdina

tenasak, tenesak: tenazak, txingarrak eta ilintiak hartzeko erabiltzen ziren

"Ori txingerra koisteko? txingerra sartuteuen olau, artesi moduko alikatek edo orrek, tenasak, artu txingerra, suk estosu esetu ori?" - (Txingar hori hartzeko? txingarra sartzen zuten holako, artazi moduko aliketak edo horiek, tenazak, hartu txingarra, zuk ez duzu ezagutu hori?)

trebere: trebera

"Treberak eta orretaringok auki dus" - (Treberak eta horietarikoak eduki ditugu)

txape: txapa

"Ordun bekosue eukitten gendun, ordun, txape bere imin san gero" - (Orduan beheko sua edukitzen genuen, orduan, txapa ere ipini zen gero)

"Bilbon bere ote sien txapak eta, atxiñe ongo sien leku askotan" - (Bilbon ere egoten ziren txapak eta, antzina egongo ziren leku askotan)

"Nik txape beti esetu dot etzen, ointxe daun lekun, gora beran edo" - (Nik txapa beti ezagutu dut etxean, oraintxe dagoen lekuan, gora-behera edo)

tximiñe: tximinia

"Bakixu se akorda yakon baiñ? ie yeun talleture, ta ullasko at bota tximiñieti bera" - (Badakizu zer gomutatu zitzaion behin? igan zuen teilatura, eta oilasko bat bota tximiniatik behera)

"Pasa dan asten edo, nos in dau gure mutillek? baya beste tximiñie estot esetu iños, enas akordaten" - (Pasatu den astean edo, noiz egin du gure mutilak? baina beste tximinia ez dut ezagutu inoiz, ez naiz gomutatzen)

txingerra: txingarra

"Txingerra ba, a, atara ber da benakies" - (Txingarra ba, atera behar da belakiarekin)

txiskeru: txiskeroa

txisparri: txisparria, sua bizteko erabiltzen zen harria, era berean erremintak zorrozteko ere erabiltzen zen

"Sigarrok fumateusen atxiñe txisparries, txisparries sigarro bistu" - (Zigarroak erretzen zituzten antzina txisparriarekin, txisparriarekin zigarroa biztu)

txispe: txinparta

6.6. ARGIA

argi: argia

"Segun bearra selan oten san, baya guren uden, a, biek ibiltte siren se, gero uden sarritten igual, a, argi be kendu itteuren" - (Segun beharra zelan egoten zen, baina gurean udan, biak ibiltzen ziren ze, gero udan sarritan beharbada, argia ere kendu egiten zuten)

"Nik urte bete ta erdiñ ein dotzet amari ori argi" - (Nik urte bete eta erdian egin diot amari argi hori)

epertargi: argiak indarra galtzen zuenean epertargia esaten zitzaion

eletresidade: elektraindarra

farola: farola

"Baya kandealeas, kandealeas, farola kristaleko, ese gortara yoteko, bakixu atxiñe, a, bedarra ta sera, ta, yote siren kandealeas, baya farolan barrun" - (Baina kandelarekin, kandelarekin, farola kristalezkoa, eze kortara joateko, badakizu antzina, belarra eta zera, eta, joaten ziren kandelarekin, baina farolaren barruan)

kandela argi: kandela argia

kandela negarra: kandela negarra

kandele: kandela

"Igual faltaten da, aunke oiñ linterna taus bere ba, baya emen aukittekera sera imintten dot, kandeale imintten dot" - (Beharbada faltatzen da, orain linternak dauden arren ba, baina hemen edukitzeko zera ipintzen dut, kandela ipintzen dut)

"Nik ointxe bere kandelak beti aukitten doas, e?" - (Nik oraintxe ere kandelak beti edukitzen ditut, e?)

kandeleru: kandeleroa

"Bat ixen san atxeru, eta beste kandeleru" - (Bat izan zen atxeroa, eta bestea kandeleroa)

BERANGOKO HIZTEGIA

kandille: kinkina, kriseilua

"Gau bere ixen gare gero afesiñeduk gauen yoteko, kandillekas ta" - (Geu ere izan gara gero zaleak gauean joateko, kriseiluekin eta)

karburo: karburoa

"Karburo faltatarako ta, ori bere bai, kandille ta onek gausak, e, argirik esanen egoten igual egun bet edo faltaten basan ba orreas arreglaten gintzesen" - (Karburoa faltatarako eta, hori ere bai, kinkina eta gauza hauek, argirik ez zenean egoten beharbada egun bat edo faltatzen bazen ba horrekin konpontzen ginen)

"Karburo bere bai, emen eskaitte, kamaran ongo da, nonon" - (Karburoa ere bai, hemen eskegita, kamaran egongo da, non edo non)

metxe: olio argia bizteko erabiltzen zen metxa

"Metxatxu beteas emote akon argi, orio apur bet seran auki yeun" - (Metxatxo batekin ematen zitzaion argia, olio apur bat zerean edukitzen zuen)

orio argi: olio argia

petrolio: petrolioa

"Petrolioas edo seoseas imintte argi, ikus dot" - (Petrolioarekin edo zer edo zerekin ipinita argia, ikusi dut)

petrolio argi: petrolio argia

birekin, antzina arropa, arropa eta antzina, iturrietara eta, antzina joaten ziren)

"Goyen badau guren ondiño, desge" - (Goian badago gurean oraindino, desga)

gotere: itogina

gotereko ure: itogineko ura

kantaru: kantarua, gubila, ura garraiatzeko erabiltzen zen ontzia

potijo: potixea

"Atxiñeko potijo, ta andi, traguk eiñ, se aguanta itten dau giau fresko, potijo aukitten gendun guk" - (Antzinako potixea, eta handik, zurrutadak egin, ze iraun egiten du gehiago fresko, potixea edukitzen genuen guk)

txorro: 1. txorrota, giltza. 2. txorroa, txorrota

"Lelau seraas, solta, a, eta gero txorron garbittu, eta gero binagreas ta bu!" - (Lehenago zerarekin, askatu, eta gero txorroan garbitu, eta gero ozpinarekin eta bu!)

ure: ura

ur palu, ure palu: ur makila, esne makila, ura eta esnea garraiatzeko erabiltzen zen makila, mutur bietan gantxo bina edukitzen zituen baldeak edo kantinak eskegitzeko

"Ur palu, ur palu, emen bere on da nik estot ekarri iños baya, balde bies" - (Ur makila, ur makila, hemen ere egon da nik ez dut ekarri inoiz baina, balde birekin)

6.7. URA

arri: harria, sukaltarria

deposittu: depositua, biltegia

desge: desga, balde zabala; txerria hiltzen denean tripak biltzeko eta gero buzkantzak egiteko erabiltzen den ontzia

"Desga andi bet imiñi ureas an, ta an garbittu, a, autze, an garbittu autze, arik eta ondo garbittu arten, txingerra dustik bera bota" - (Desga handi bat ipini urarekin han, eta har garbitu, hautsa, han garbitu hautsa, harik eta ondo garbitu arte, txingar guztiak behera bota)

"Desge, asta bies, asta bies, atxiñe errope, errope ta atxiñe, iturrittara ta, atxiñe yote siren" - (Desga, asta birekin, asta

6.8. SUETEKO TRESNAK

aro: barrikaren uztaia

"Arok amarrateko, onen, a, onen lodierako bai, kamaran, nauk, a, txatarreruri saldu neutzesen nauk eta, au baño lodiauk arok, a, itzelak" - (Uztaiak lotzeko, honen, honen lodierakoa bai, kamaran, neuk, txatarreroari saldu nizkion neuk eta, hau baino lodiagoak uztaiak, itzelak)

aste: asta

"Desge, asta bies, asta bies, atxiñe errope, errope ta atxiñe, iturrittara ta, atxiñe yote siren" - (Desga, asta birekin, asta birekin, antzina arropa, arropa eta antzina, iturrietara eta, antzina joaten ziren)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Asta bies, desge emen areri geittute akon"
- (Asta birekin, desga hemen hari deitzen zitzaien)

balde: baldea

"Bestek etorte sirenak burun balde dauela etorte siren ara errekarra dustik" - (Besteak etortzen zirenak buruan baldea dutela etortzen ziren hara errekarra guztiak)

"Baldeti artxen badau obeto baya, baldeti artxen espadau botillan sartu" - (Baldetik hartzen badu hobeto baina, baldetik hartzen ez badu botilan sartu)

"Baldekas erotetzean" - (Baldekin eroaten zieten)

balde sabala: balde zabala

"Desge da, ba ori, a, selan esango tzu pa? desge da, a beko balde sabala, a da desge" - (Desga da, ba hori, zelan esango dizut ba? desga da, hura beheko balde zabala, hura da desga)

barreñu: barreinoa

barrike: barrika, upela

"Barrike garbittute sanen Juaneri beti" - (Barrika garbitzen zenean Juani beti)

barrille: upela

"Kamaran on siren barrillek, betatute, arik bosteun litroko barrillek iste siren" - (Kamaran egon ziren upelak, beteta, haiek bostehun litroko upelak izaten ziren)

basu: basoa, edalontzia

"Basu bete ur edan dot eurokas" - (Baso bete ur edan dut eurokin)

"Ekarri basu bete ure" - (Ekarri baso bete ura)

"Gure neskatok esaten dau para olan eta basu bete ureas iru bider, imiñi olan, ta, ibiltten da bera dekonen eta pasa itten dala esaten dau" - (Gure neskatoak esaten du paratu hola eta baso bete urarekin hiru bider, ipini hola, eta, ibiltzen da bera daukanean eta pasatu egiten dela esaten du)

biberoya: biberioia

"Pasa dan asten il dot bat, amentxe bertan asitte, berak ademas asiko, berak nire alaba txikerrak biberoyas" - (Pasatu den astean hil dut bat, hamentxe bertan hazita, berak gainera hazikoa, berak nire alaba txikerrak biberoiarekin)

bote: zahatoa

botille: botila

"Botilla barik es eser barik, ese salta in ber nendun" - (Botila barik ez ezer barik, eze saltatu egin behar nuen)

"Imiñi botilla bat, onek plastikure sartu or, emeti amarra eskapa esteñ areak, ta areas betatu a ta or esteu fallaten kasik iños bere" - (Ipini botila bat, hauek plastikura sartu hor, hemendik lotu eskapa ez dezan hareak, eta harearekin bete hura eta hor ez du huts egiten kasik inoiz ere)

"Ori esetu dot etzen bai, asko, eta piperra bere bai, piperra bere botilletan" - (Hori ezagutu dut etxean bai, asko, eta piperra ere bai, piperra ere botilletan)

enbudo: inbutua, onila

"Alau enbudo batelau txikerra ixen san" - (Halako onila bat lakoa txikerra izan zen)

enkortxadore: enkortxadorea, kortxoak botiletan sartzeko erabiltzen zen tresna

"Kortxon, a, medide, eta, justo justo kortxon medide, eta sartu kortxo, egosi kortxo, eta sartu enkortxadoreas ta, gero arik sartute siren, ba, barril andi beten, imiñi egosten, ta alantxe" - (Kortxoaren, neurrian, eta, ozta-ozta kortxoaren neurria, eta sartu kortxoa, egosi kortxoa, eta sartu enkortxadorearekin eta, gero haiek sartzen ziren, ba, upel handi baten, ipini egosten, eta halantxe)

eperdi: ontzien eperdia, ipurdia

fuate: erretilua

"Ser eitte san ba? lapiko atara ta lapikoti igual, a, lau edo bost, a, danak yaten lapikoti, edo fuate bat esate akona, kasuela andi bet, ta ara bota ta an dusti yan, ordun serak, platerak gitxi usate siren" - (Zer egiten zen ba? lapikoa atera eta lapikotik beharbada, lau edo bost, denak jaten lapikotik, edo erretilu bat esaten zitzaiena, kazola handi bat, eta hara bota eta han guztia jan, orduan zerak, platerak gutxi erabiltzen ziren)

"Fuenten atarate san" - (Erretiluan ateratzen zen)

galdare: galdara

"Galdare ta, ser giau? bai, orretarigo gantxok eta eskeitteko ote siren" - (Galdara eta, zer gehiago? bai, horietariko gantxoak eta eskegitzeko egoten ziren)

galdarille: galdarila

garrafoya: garrafoia, bolingoia

BERANGOKO HIZTEGIA

kaferrote: kafe errota, kafea ehotzeko erabiltzen zen eskuzko errota

kafetere: kafegailua

kankarru: kankarroa

kantinplore: tankina, kantina

kasu: kazua

kasuele: kazola

"Nik in dot askotan, a, eron kasuele, perejille, eta berakatza ta dusti, a, preparata katxarro baten, eta yon Armintzara, eta bertan kosi lapak, ein sue, beste batek, a, prepara sue ta bertan yan" - (Nik egin dut askotan, eroan kazola, perrexila, eta berakatza eta guzti, prestatuta katxarro baten, eta joan Armintzara, eta bertan hartu lapak, egin sua, beste batek, prestatu sua eta bertan jan)

"Kasuelati edo lapikoti yate san" - (Kazolatik edo lapikotik jaten zen)

kasuela gorri: kazola gorria, kobrezkoa zena

katillu: katilua

"Lapiko andi bete txokolate, txokolate, eta atara katillutara ta a artu" - (Lapiko handi bete txokolate, txokolatea, eta atera katiluetara eta hura hartu)

katxarrerri: tresneria

katxarro: tresna, ontzia

"Selan da talo inten dan katxarro, nik estot esetu" - (Zelan da taloa egiten den tresna, nik ez dut ezagutu)

kikere: kikara, txikara

koladore: iragaztontzia

kollare: koilara

"Onek yaten dau eskukes nik kollareas baño giau" - (Honek jaten du eskuekin nik koilararekin baino gehiago)

"Kollareri intte akon, a, berde" - (Koilarari egiten zitzaion, berdea)

kortxo: kortxoa

"Kortxo aprobetxa nendun" - (Kortxoa aprobetxatu nuen)

"Orrek kortxok andiau tire, barriketarako andiau tire" - (Kortxo horiek handiagoak dira, barriketarako handiagoak dira)

kutxillu, kutxillo: ganibeta, kutxiloa

"Palu bet kutxillo antzera kosi neun eta kendu neutzen" - (Makila bat kutxilo antzera hartu nuen eta kendu nion)

labañe: labaina

labadore: ikuzgailua

lapiko: lapikoa

"Amak imin dau lapiko, surten" - (Amak ipini du lapikoa, surtan)

"Kosi aun same ebai eutzen, sartu aun lapiko baten" - (Hartu zuen sama ebaki zion, sartu zuen lapiko baten)

"An eskeitten san lapiko esate sana" - (Han eskegitzen zen lapikoa esaten zena)

"Kortxo fasillau sartxeko egosi, egosi, lapiko andi beten ba, egoste siren, aundek" - (Kortxoa errazago sartzeko egosi, egosi, lapiko handi baten ba, egosten ziren, ehunka)

lurreko kasuele: lurrezko kazola

lurreko lapiko: lurrezko lapikoa

marmite: marmita

morteru: morteroa, almaiza

palangane: palankana

"Asko asko itteunen bai, baya imintte san seoser, aspiñ, balde bat edo palangana bat, seoser, asko itteunean, osten es, or bere badeku bat, baya or bere asko asko in ber dau, aor deku bat" - (Asko-asko egiten zuenean bai, baina ipintzen zen zer edo zer, azpian, balde bat edo palankana bat, zer edo zer, asko egiten zuenean, ostean ez, hor ere badaukagu bat, baina hor ere asko-asko egin behar du, haor daukagu bat)

pasadora: iragaztontzia

platera: platera

"Aukitteuren alan, a, sera bat, listoi bete lau, platera sartxeko ara eta, platera sujetateko seran, antxe egote san" - (Edukitzen zuten hala, zer bat, listoi baten lakoa, platera sartzeko hara eta, platerari eusteko zerean, hantxe egoten zen)

plater asala: plater azala

plater sakona: plater sakona

sagi: zahagia

"Algortako binoteruk ekarri eun sagi bet ardau" - (Algortako ardaudunak ekarri zuen zahagi bat ardau)

sapotza: zapotza; barrika ixtekoa

"Nik eitte neusen sapotzak" - (Nik egiten nituen zapotzak)

sartana, sartena: zartagina

"Ba en jeneral, e, sera, urdaye frijidu, sera imiñi sartana, edo imiñi sera ta arrutze bat etxa, gure deunak ta" - (Ba gehienetan, zera, urdaia frijitu, zera ipini zartagina,

BERANGOKO HIZTEGIA

edo ipini zera eta arrautza bat bota gura duenak eta)

"Onek eitten dau, baya tape imintte sartenari, espabere dana tos kanpora" - (Honek egiten du, baina tapa ipinita zartaginari, ezpabere denak doaz kanpora)

siñe: zina

tanke: tanka, tanga

"Baya botaten badosus an, a, eta bota yateko apur bet, eta bota tankek eta, tanke barrure, eta gero yon, eta kosu tanke ta kangrejo etzera" - (Baina botatzen badituzu han, eta bota jateko apur bat, eta bota tankak eta, tanka barrura, eta gero joan, eta hartu tanka eta karramarroa etxera)

tape: tapa

"Gero tape imin ber dako espabere asten direnen, a, tratadaka eta lotxen danen, ya tra tra tra! ba ya daus eintte" - (Gero tapa ipini behar zaio ezpabere hasten direnean, tratadaka eta lotzen denan, ja tra-tra-tra! ba ja daude eginda)

tartere: tartera

tase: kikara baino handiagoa denaren gainean esaten da

tenedora: tenedorea, sardexka

trapaseri: traste, trapazeria

yarre: pitxerra

"Aor yarra baten dekot" - (Haor pitxer baten daukat)

6.9. ALTZARIAK

anke: hanka

"Aurreko anak, aputxu bet, es asko, e? gitxi, aputxu bet altuau, se gau pere aukitten dun, etzen aukitten gendun, sillak, baya bakotxak noperan sille" - (Aurreko hanka, apurtxo bat, ez asko, e? gutxi, apurtxo bat altuago, ze geuk ere edukitzen genuen, etxean edukitzen genuen, aulkiak, baina bakoitzak norberaren aulkia)

arke: arka

"Arkak eukitten dusen, onek, a, gastañasko arkak, eta arkara" - (Arkak edukitzen genituen, hauek, gaztainazko arkak, eta arkara)

"Kamarian egote san arka txikitxu et eta ara botateun" - (Kamarian egoten zen arka txikitxo bat eta hara botatzen zuen)

"Urune, ta orrek arkatan sartxe siren" - (Irina, eta horiek arketan sartzen ziren)

"Eta gero egote san beste sera ba pere, arkan, an sartuteuen, istutu, ondo istutu, betatu arke goraino, eta auki an" - (Eta gero egoten zen beste zer bat ere, arkan, han sartzen zuten, estutu, ondo estutu, bete arka goraino, eta eduki han)

armario: armairua, arasa

"Ordun etze sarretan ta esan oten armariarik eta" - (Orduan etxe zaharretan eta ez zen egoten armairurik eta)

"Suten, sera, armario sar bat eta olau arkak, arkak usate yeuren ordun asko" - (Sutan, zera, armairu zahar bat eta holako arkak, arkak erabiltzen zituzten orduan asko)

aspire: azpira, oramahaia

"An ote san, a, aspire, aspire ixete san, an arto eta aukitte san lekun an eintte san talo" - (Han egoten zen, azpira, azpira izaten zen, han artoa eta edukitzen zen lekuan han egiten zen taloa)

"Ori aspire gaittute san" - (Hori azpira deitzen zen)

"Arto itte san aspiran" - (Artoa egiten zen aspiran)

aurki: aulkia, hau errespaldobakoa da, baita kortarako ganadua eraisteko erabiltzen dena ere

balde: 1. apalategia. 2. apala. 3. sukaldeko armairua

"Ordun balda batzuk eitte siren, ta an aukitte siren" - (Orduan apal batzuk egiten ziren, eta han edukitzen ziren)

"Ortxe egote siren baldak, eta platerak sartxe siren an baldan" - (Hortxe egoten ziren apalak, eta platerak sartzen ziren han apalean)

"Baldak be esetu doas nik" - (Apalategiak ere ezagutu ditut nik)

banku: jesarlekua, lanka

"Orrek ori banku okitteuren an, negun edo olan otza itteunen ta auri itteunen ba an, berba itten alkarreas, an" - (Horiek lanka hori edukitzen zuten han, neguan edo hola hotza egiten zuenean eta euri egiten zuenean ba han, berba egiten elkarrekin, han)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Emen, a, guk, a, olauk esetu dus bankuk onetaringok eta, banku lusek, a, bakixu tabernan egote sirenak, a, lelau" - (Hemen, guk, holakoak ezagutu ditugu jesarlekuak hauetarikoak eta, jesarleku luzeak, badakizu tabernan egoten zirenak, lehenago)

bañere: bainuontzia

"Eta ekarte nun aona kanpora, or artxe yeun ure, or bañeratan, eta garbi garbiñ, e? botate nuntzen eta beye mejoraten asi san" - (Eta ekartzen nuen haona kanpora, hor hartzen zuen ura, hor bainuontzietan, eta garbi-garbian, e? botatzen nion eta behia hobetzen hasi zen)

espillu: ispilua

gasun aske, gasun tiñe: gatzun aska, honetan pernilak, urdaia eta orohar txerriak gordetzen zen gatzatan kontserbatzeko; bertan gatzatu ere egiten zen

"Gasun aske en jeneral gortan, gortan barrurau yon barik, lelengo aste san sera" - (Gatzun aska gehienetan kortan, kortan barrurago joan barik, lehengo hasten zen zera)

"Bai gasun tiñe egote san, olau, e, tiñe, ta an imintteuen gatzu, ta gero an imintteuen aragi, gero ganen ostabe ladrillu batzuk" - (Bai gatzun aska egoten zen, holako, tina, eta han ipintzen zuten gatzu, eta gero han ipintzen zuten haragia, gero gainean ostera ere adreilu batzuk)

kaje: kaxa

"Gero utzittute sirenen, ostabere garbitu botella eta kamaran imintte siren, barrikatan edo al dan lekun, kajatan sartute" - (Gero husten zirenean, ostera ere garbitu botila eta kamaran ipintzen ziren, barriketean edo ahal den lekuan, kaxetan sartuta)

kajoya: kajoia, tiradera

"Armario es andi, baya alaseko bai, kajoi bateas goyen eta bean ate bies, baya orrek, lodik, nauk oki dot etzen" - (Armairua ez handia, baina halasekoa bai, tiradera batekin goian eta behean ate birekin, baina horiek, lodiak, neuk eduki dut etxean)

kapasasko koltxoya: lastamarraga, arto sapa egiten zen koltxoia

"Bai nau pe esetu ot, kapasasko, a, koltxoitxu umeri sera intte" - (Bai neuk ere ezagutu dut, kapaxazko, koltxoitxo umeei zera eginda)

koltxoya: koltxoia

"Bai, bai, auki gendun ori koltxoya arto kapasakas" - (Bai, bai, eduki genuen koltxoi hori arto kapaxekin)

"Orrek lusek iste siren serak eintteko, koltxoyak eintteko" - (Luze horiek izaten ziren zerak egiteko, koltxoiak egiteko)

komode: komoda

"Komode ixen san ori" - (Komoda izan zen hori)

kume: kuma, sehaska

"Kumatxuk eukitteusena, trin tan, trin tan, olan eitteuna, kumatxuk, a, olaskok, olaskok" - (Kumatxoak edukitzen zituen, trin-tran, trin-tran, hola egiten zuena kumatxoak, oholazkoak, oholazkoak)

"Logure deko eta badaru kumara" - (Logura dauka eta badaroagu kumara)

kuxe: kuxa, ohearen armadizuan ohea eta hanken alderdiak dira kuxak

largeru: ohearen aldamera

maye: mahaia

"Maye auki eun, esne, indabak, arrutzek, piper siku danatariko, eta barreka asi san" - (Mahaia eduki zuen, esnea, indabak, arrautzak, piper sikua denetarikoa, eta barreka hasi zen)

"Ori maye gero imi auren barri" - (Mahai hori gero ipini zuten berria)

mayertza: mahai ertza

mesanotxe: mesanotxea, gau-mahaia

mueble: errediza, altzaria

muelle: malgua; koltxoiaren azpian jartzen dena

"Muellen ganen ote san koltxoya, lanasko" - (Malguen gainean egoten zen koltxoia, artilezkoa)

nebere: hozkailua

"Ordun esiren egon neberak eta olau gausak" - (Orduan ez ziren egon hozkailuak eta holako gauzak)

ogaseru, oyaseru: ohe-zerua, antzinako oheek zeukaten estalkia, lau zutaberen gaineko zerua

"Ogaseru esateutzen orreri oyari, atxiñe olau oyak oten siren" - (Ohe-zerua esaten zioten

BERANGOKO HIZTEGIA

horri oheari, antzina holako oheak egoten ziren)

oliñere, oriñala: orinala, txizontzia

“Ordun ote san, oliñerak, oyan aspiñ” - (Orduan egoten zen, orinalak, ohearen azpian)

oya: ohea

“Gero au bixi san pisun, ya oyan on sanen gure ama” - (Gero hau bizi zen pisuan, ja ohean egon zenean gure ama)

“Berrogei egunen oyan egon ber dosu, kalenturek itzelak!” - (Berrogei egunean ohean egon behar duzu, kalenturak itzelak!)

“Oya altu pai, nire guresok auki auren” - (Ohe altuak bai, nire gurasoek eduki zuten)

radio: irratia

sille: aulkia, hau errespaldoduna izaten da *“Surok yesarritte egon saren sille eron du arreglaren” - (Zuok jesarrita egon zareten aulkia eroan dugu konpontzen)*

“Onen amak sera auki yeun, e, akaburengo urtetan, lelau silla txiker bat baya gero klaro beluneko imintteko ta serarako ba txarto daule, eta ekarri yotzen silla bat beluneko imintteko, eta gero altza itte san, beluneko imintteko ta yarrितteko bajate san tapa bat” - (Honen amak zera eduki zuen, azkenengo urteetan, lehenago aulki txiker bat baina gero jakina belauniko ipintzeko eta zererako ba txarto dagoela, eta ekarri zioten aulki bat belauniko ipintzeko, eta gero altxatu egiten zen, belauniko ipintzeko eta jartzeko baxatzen zen tapa bat)

telebisiño: telebista

tiñe: gatzun aska, honetan pernilak, urdaia eta oro har txerriak gordetzen zen gatzatan kontserbatzeko; bertan gatzatu ere egiten zen

tiradora: tiradera, kajoia

traste: trastea

“An daus gantxo eta traste dustik” - (Han daude gantxoa eta traste guztiak)

6.10. ETXEKO ARROPAK

almude, almuede: burukoa, burkoa

“Es almude lumana, ollo lumana almude” - (Ez burukoa lumazkoa, oilo lumazkoa burukoa)

almude asala: buruko azala

esku pañu: esku oihala

“Ba danataringo, errope ta, orretaringo, ixerak eta, esku pañuk eta orretaringo gausak, es, a, noperan errope, etzeko, etzeko, arreo, gero serak, katxarrok eta danataringo, askok esate yeun se, orrek arreo andi ero yeun ara etzera, esakere ori egote san” - (Ba denetarikoa, arropa eta, horietarikoa, izarak eta, esku oihalak eta horietariko gauzak, ez, norberaren arropa, etxekoa, etxekoa, arreo, gero zerak, katxarroak eta denetarikoa, askok esaten zuen ze, horrek arreo handia eroan zuen hara etxera, esaera hori egoten zen)

ixere, isere: izara

“Kosi or lantzarren, imiñi isera batzuk edo erdi iserak, yo an, egun beteti bestera, yo palu andi beteas, alan solta gero, eta imiñi, eta yosi gero” - (Hartu hor lantzarrean, ipini izara batzuk edo erdi izarak, jo han, egun batetik bestera, jo makila handi batekin, hala askatu gero, eta ipini, eta josi gero)

koltxe: koltxa

koltxille: koltxila, izaren gainean jartzen zen edredoi antzekoa

“Koltxille da inte sana manta sarrakas eta, sera” - (Koltxila da egiten zena manta zaharrekin eta, zera)

kortiñe: gortina

“Kortiñek esteko serikusirik” - (Gortinak ez dauka zer ikusirik)

mante: manta, tapa

mantela: zamaua, mahai-estalkia

“Gabonatan imiñi mayan, a, mantelan aspiñ, gure aittek, gabon egunen, imintte san ogi sati bet mantelan aspiñ, eta urte oson ote san, beti, gure aittek eta amak beti imin daude ori” - (Gabonetan ipini mahaietan, zamauaren azpian, gure aitak, gabon egunean, ipintzen zen ogi zati bat zamauaren azpian, eta urte osoan egoten zen, beti, gure aitak eta amak beti ipini dute hori)

“Bakixu, gabonatan bere, mantela imintte sana, a, osten igual, a, urte dustiñ, esan imintten baya, mantela an, ta mantelan aspiñ imintte san, ogi satitxu bet kuskurre,

BERANGOKO HIZTEGIA

eta a imintte san gero, armariotan" - (Badakizu, gabonetan ere, zamaua ipintzen zenea, ostein beharbada, urte guztian, ez zen ipintzen baina, zamaua han, eta zamauaren azpian ipintzen zen, ogi zatitxo bat kurruskua, eta hura ipintzen zen gero, armairuetan)

sorki: 1. sorkia, sukaldeko trapua. 2. zamak garraiatzeko buruan ipintzen zena

"Sorki intte eukitteun ta imiñi ese Santurtzitti etorte siren gurera" - (Sorkia eginda edukitzen zuen eta ipini eze Santurtzitik etortzen ziren gurera)

tape: manta, tapa

toalle: oihala

trapu: trapua, sorkia

"Ebai puntatxu, a, sera, sorrostu, sartxe aun an, eta gero imiñi, a, seosertxu, tapa seoser, edosein gauseas tapateun korte ta ondo ixi, a, seraas, trapues edo bendeas, ondo, e? a bai" - (Ebaki puntatxoa, zera, zorroztu, sartzen zuen han, eta gero ipini, zer edo zertxo, tapatu zer edo zer, edozein gauzarekin tapatzen zuen ebakia eta ondo itxi, zerarekin, trapuarekin edo bendarekin, ondo, e? hura bai)

6.11. BOGADA-GARBIKUZIA

anille: anila

arriko: harrikoa

autze: hautsa

basure: zaborra, zarama

bogade: bogada

"Bogade, ai ene! bogade, artu, a, erropak, eta erre kara, yagoya, eta, antxe yagona, makiña bat karga! losa itzel bat imiñi an ta antxe, yagona, ta eguskitten imiñi sabaldute gero erropak" - (Bogada, ai ene! bogada, hartu, arropak, eta erre kara, xaboia, eta, hantxe xaboiztatu, makina bat karga! harlauza bat ipini han eta hantxe, xaboiztatu, eta eguzkitan ipini zabaldua gero arropak)

"Bogade? estot esetuko ba! eta burun eroten" - (Bogada? ez dut ezagutuko ba! eta buruan eroaten)

erropa arri: bogada-harria, arropa-harria

eskobe: erratza

"Etzeko bateran bat ikusi gurosu? aan eskobeas dauna da orko etzeko" - (Etxeko baten bat ikusi gura duzu? han erratzarekin dagoena da horko etxekoa)

garbikusi: garbikuzia

giñarrako eskobe: ginarrazko erratza

"Es giñarrako eskobe isten san, giñarre bason kosten san, eta, se ordun esan egoten dirurik erosteko, ta alanbreas an mango bateas alanbreas eitten san giñarrako eskobe" - (Ez ginarrazko erratza izaten zen, ginarra basoan hartzen zen, eta, ze orduan ez zen egoten dirurik erosteko, eta alanbrearekin han kirten batekin alanbrearekin egiten zen ginarrazko erratza)

labadero: ikuztegia, ikuzlekua

"Aor egote san labadero, oiñ ixi in daure baya or, eron burun errope, garbittu, yabona an, eta itxi an, lejiatan itxi, a goixen, eta gero arratzalden burun" - (Han egoten zen ikuztegia, orain itxi egin dute baina hor, eroan buruan arropa, garbitu, xaboiztatu han, eta utzi han, lixibatan utzi, hura goizean, eta gero arratsaldean buruan)

lejie, lejia: lixiba

"Entzunte dekot aren baya askorik eneitzu esan, ba segun trasetan, lelau itteren yabona, eta gero surteko autzeas, lejia imintten deuren modun orain ba, imintteren" - (Entzunda daukat arean baina askorik ez niezazuke esan, ba antza denez, lehenago egiten zuten xaboiztatu, eta gero surteko hautsarekin, lixiba ipintzen duten moduan orain ba, ipintzen zuten)

"Datorren astean asi ber dako lejie botaten" - (Datorren astean hasi behar zaio lixiba botatzen)

plantxe: plantxa

saborra: zaborra, zarama

"Karo! karo! ese estotzo emoten denporarik altzateko, ese saborra badau, gero goitti agur!" - (Jakina! jakina! eze ez dio ematen denborarik altxatzeko, eze zaborra badago, gero goitik agur!)

saborreri: zaborreria

sarame: zarama

saskilleri: zaborra, zaborreria

BERANGOKO HIZTEGIA

"Etzeko saskillerikes beti aputxu bet, ona dala ta, urterako" - (Etxeko zaborrekin beti apurtxo bat, ona dela eta, urterako)

sastarra: zaborra, zarama

sepillo, sepillu: eskubila

sepillu garratza: eskubila garratza

sose: sosa

tiñe: tina

"Ba sartu tiñan, tiñan errope, eta auki an, a, yaboyaas ta, ta gero yoten gintzen erre kara" - (Ba sartu tinan, tinan arropa, eta eduki han, xaboiarekin eta, eta gero joaten ginen erre kara)

tiñeku, tiñaku: tinakoa, arropak garbitzeko erabiltzen zen egurrezko ontzia

"Erroparik es, ta domekarako siketu, ta erre kara yon ber, tiñeku, portalen, tiñeku lelau, ta gero aor" - (Arroparik ez, eta domekarako sikatu, eta erre kara joan behar, tinakoa, atarian, tinako lehenago, eta gero haor)

"Tiñaku bet bean, eta ara tiñakure, eta gero tiñakutik botate san, barrikera" - (Tinako bat behean, eta hara tinakora, eta gero tinakotik botatzen zen, barrikera)

ugerra: ugerra

yagoya, yaboya: xaboia

"Yagoya, guk txinbo moduko olau eroten gendun" - (Xaboia, guk txinbo moduko holakoa eroaten genuen)

"Nik neure etzen estot esetu, baya entzunte dekot, ama ta amamari tte orreri, neure bixikeran ya esta egon ori, yagoya egon da" - (Nik neure etxean ez dut ezagutu, baina entzunda daukat, ama eta amamari eta horiei, neure bizikeran ja ez da egon hori, xaboia egon da)

7. SINESKERAK

Atal honetan sineskerai buruzko berbak batzen ditugu; sineskera horietariko gehienak elizari dagozkio; beste batzuk, ostera, garaiteko sines-esparruetan koka ditzakegu. Gaia aurkezteko honako azpi-atalok egin ditugu: eliza, erlijioa, elizkizunak, kleroa eta gainerako sineskerak.

7.1. ELIZA

altare: aldarea

angeru kanpe: aingeru kanpaia, ume txikien enterrua iragartzeko jotzen zena

arrisko maye: harrizko mahia, elizpean egoten zena bertan mezak apuntatzeko

atxeru: 1. atxak edo kandela handiak edukitzeko erabiltzen ziren kandeleroak. 2. sepulturaren armadizoaren izena

"Bat ixen san atxeru, eta beste kandelero" - (Bat izan zen atxeroa, eta bestea kandeleroa)

banku: lanka, jesarlekua

"Ordun elixeko bankuk danak kentxe siren bakotxak, imin deixen sepulturak" - (Orduan elizako lankak denak kentzen ziren, bakoitzak, ipin ditzan sepulturak)

elixe, eleixe: eliza

"Len elixan bere imintte san trapu bet, alan puntilla bateas ta gure amak, an deko amak" - (Lehen elizan ere ipintzen zen trapu bat, hala puntilla batekin eta gure amak, han dauka amak)

"Orain ayuntaminttu daun lekun, or egon san eskole, eta, ori eleixen kontran daun etze, sine ta egon san gero, orain estaitt ser daun or, or egote siren monjak, ta orra yoten gintzen" - (Orain udaletxea dagoen lekuan, hor egon zen eskola, eta, elizaren kontra dagoen etxe hori, zinema eta egon zen gero, orain ez dakit zer dagoen hor, hor egoten ziren mojak, eta horra joaten ginen)

ermitte: baseliza

"Ermittle egon da satittute" - (Baseliza egon da zatituta)

"Sorgiñek ademas, orti eta Santa Anako ermittera yoten sirela, sorgiñek" - (Sorginak gainera, hortik eta Santa Anako baselizara joaten zirela, sorginak)

kanpe: kanpaia

kandelabru: kandeleroa

kandelero: kandeleroa

"Gero iltte sanen bat, domekan domekan mesara, eta erote siren mantela, eta kandelero bi" - (Gero hiltzen zenean bat, domekan-domekan mezarara, eta eroaten ziren zamaua, eta kandelero bi)

koru: korua

kurtze: gurutzea

BERANGOKO HIZTEGIA

"Ori ixete san gixon bat, kurtze bateas, andies, aurreti, edo monagillu, eta gero abade" - (Hori izaten zen gizon bat, gurutze batekin, handiarekin, aurretik, edo meza-laguna, eta gero abadea)

mantela: zamaua, sepulturaren gainean ipintzen dena da

"Ondiño igual dekot mantela, ondiño! eta atxeru igual dau kamaran ondiño" - (Oraindino beharbada daukat zamaua, oraindino! eta atxeroa beharbada dago kamaran oraindino)

parroki: parrokia

portiku: elizpea

"Kandeleas yote siren eleixako portikure, eleixako aten" - (Kandelarekin joaten ziren elizako elizpera, elizako atean)

"Maya ba tau aori itteko, portikun egon san ori" - (Mahai bat dago haori egiteko, elizpean egon zen hori)

txilliñe, txiliñe: txilina

"Txiliñeas eta tan-tan, eta biden ukusten basendun, igual yote saitten, etorte san abade orreas, txiliñe yoten, eta seraas, a, monangilloas etorte san, a laguntxe yotzena, biden parate saitten beluneko, pasa arten" - (Txilinarekin eta tan-tan, eta bidean ikusten bazenuen, beharbada joaten zinen, etortzen zen abadea horrekin, txilina joaten, eta zerarekin, meza-lagunarekin etortzen zen, hura laguntzen ziona, bidean paratzen zinen belauniko, pasatu arte)

ure bereinkitu, ure bereinketu: ur bedeinkatua

"Elixako seratan ekarte san, ure bireinkitu, eta aste sirenen, a, truboyak eta yusturik, aste sirenen, portalen botate san ure" - (Elizako zeretan ekartzen zen, ur bedeinkatua, eta hasten zirenean, trumoiak eta justuriak, hasten zirenean, atarian botatzen zen ura)

"Baya oin, ure bereinketu bere, imin daure orio baño karuau, se esteue imintten, a, entradan bere urerik eta" - (Baina orain, ur bedeinkatua ere, ipini dute olioia baino garestiago, ze ez dute ipintzen, sarreran ere urik eta)

7.2. ERLIJIOA-ELIZKIZUNAK

aittearen: aitaren

aittegure: aita gurea

amabirjiñe: amabirjina

angeru: aingerua

"Ume il da? angeru bet yon da serure, len alan esate san, il da umetxu bet? bai angeru bet serureko" - (Umea hil da? aingeru bat joan da zerura, lehen hala esaten zen, hil da umetxo bat? bai aingeru bat zerurako)

arime: arima

"Arimek yo eutzesela atek, txarto on san" - (Arimek jo zizkiotela atek, txarto egon zen)

"Basu beten ure, eta gero orio apur bet ganen, eta gero imintte auren, kartoi sati bet, eta, misto bat edo seoser imintte, estaitt selan ixete san, enas akordaten ondo, a imiñi bistute an, arimek yoten diresela orti" - (Baso baten ura, eta gero olio apur bat gainean, eta gero ipintzen zuten, kartoi zati bat, eta, misto bat edo zer edo zer ipinita, ez dakit zelan izaten zen, ez naiz gomutatzen ondo, hura ipini biztuta han, arimak joaten direla hortik)

bautiso: bataioa

bijili: bijilia

"Orti gora ya garixumen beti itten gendun ba, bijili, barikuten" - (Hortik gora ja garizuman beti egiten genuen ba, bijilia, barikuetan)

demoniño: demonioa

dotriñe: doktrina

"Dotriñe beti egon da emen, komuniño intteko" - (Doktrina beti egon da hemen, komunioa egiteko)

difuntun mese: hileta meza

elixante: elizazalea

"Gure agueta ixete san siñestorra itzela, atxiñekok bakixu, atxiñeko ta, elixante, elixako, siñestuten daune ta sera, es oingo modun, e? eta yon sirela errosario batera, yon sirela goixeko iruretan, eta atxiñe, a, gaue paste san iltten sanen da, eta kanposantu ondotati, neskak aurok ba, neskak, eta iru lau neska, aurok kuadrille aurok ba ta, gixon txikitxu betek urteutzela, ene! gixontxu bet eta txakurtxu bet! eta niri es eiñ, a, burlerik, e? se egunes ibiltten estienak ibiltten dire gauen, kontesta eutzela, asten direla diño orrek karra,

BERANGOKO HIZTEGIA

asustata karra aurok, neska gastek aurok" - (Gure amama izaten zen sineskorra itzela, antzinakoak badakizu, antzinakoa eta, elizazalea, elizakoa, sinesten duena eta zera, ez oraingo moduan, e? eta joan zirela erroasario batera, joan zirela goizeko hiruretan, eta antzina, gaua pasatzen zen hiltzen zenean eta, eta kanposantu ondoetatik, neskak eurok, ba, neskak, eta hiru-lau neska, eurok taldea eurok ba eta, gizon txikitxo batek irten ziela, ene! gizontxo bat eta txakurtxo bat! eta niri ez egin, burlarik, e? ze egunez ibiltzen ez direnak ibiltzen dira gauean, erantzun ziela, hasten direla dino horiek karraka, ikaratuta karraka eurok, neska gazteak eurok)

erresu: otoitza

errosario: errosarioa

"Gu yoten giñen errosariora, elixara, arrastiko lauretan domekatan" - (Gu joaten ginen errosariora, elizara, arrastegiko lauretan domeketan)

"Ni lotxe nitzen bakarrik, ta ama aste san indabak garantxen ta erresaten errosario" - (Ni lotzen nintzen bakarrik, eta ama hasten zen indabak garantzen eta erreztatzen errosarioa)

erresponso: erresponstua

eskapulario: eskapularioa

funerala: hileta

funtziño: funtzioa

gure jaune: gure jauna

jangoiko, jainko: jaungoikoa

"Nik ondiñokarren, jangoikori grasik, ondiñokarren badekot" - (Nik oraindinokarren, Jaungoikoari eskerrak, oraindinokarren badaukat)

komuniño: komunioa

"Dotriñe beti egon da emen, komuniño intteko" - (Doktrina beti egon da hemen, komunioa egiteko)

konfirmasiño: konfirmazioa

limosne: limosna

"Berak limosne emoteutzen" - (Berak limosna ematen zion)

memoriala: memoriala

mesa barri: abadeak egin berritan ematen duen lehen meza

mese: meza

"Batzuk, a, mesara etorten dires andik" - (Batzuk, mezara etortzen dira handik)

"Gero mesak ataraten bertan, portikun, mesak atarateusen an" - (Gero mezak ateratzen bertan, elizpean, mezak ateratzen zituzten han)

"Sortzi egun ixete siren, edo bederatzi, mesak, gero irure imiñi eusen, eta oin baperes" - (Zortzi egun izaten ziren, edo bederatzi, mezak, gero hirura ipini zituzten, eta orain bat ere ez)

pekatu: bekatua

"Len ademas pekatu san, a, txindorra iltte" - (Lehen gainera bekatua zen, txindorra hiltzea)

promese: agindua

prosesiño: prozesioa

purgatorio: purgatorioa

salide: eliza sartzea, eliza hartzea

santu: santua, saindua

"Eleixako santuk neuk kendu neusen" - (Elizako santuak neuk kendu nituen)

"Barrun egon siren ba, imintte dana, santu naye imintte, ta kendu i auren dana" - (Barruan egon ziren ba, ipinita dena, santu nahia ipinita, eta kendu egin zuten dena)

seru: zerua

siñeste: sinestea

"Oñ ya siñeste be yonta dau baya ordun gure ama ba, siñeskor andi ixete san" - (Orain ja sinestea ere joanda dago baina orduan gure ama ba, sineskor handia izaten zen)

"Seierrin, batzuk esaten de or bean, sorgiñek urteten dela, gaueko ordu batetati aurrera yoneskeron ta, orrek jenerok atxiñekok, siñeste asko aukiteen" - (Seierrin, batzuek esaten dute hor behean, sorginek irteten dutela, gaueko ordu batetatik aurrera joanez gero eta, gauza horiek antzinakoek, sineste handia edukitzen zuten)

urteko mese: urteko meza

7.3. KLEROA

abade: abadea

"Ordun, kanpon, eleixako aten, itxeroten, arik eta abade etorri arten ote siren" - (Orduan, kanpoan, elizako atean, itxaroten, harik eta abadea etorri artean egoten ziren)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Abade ikisi eun ak" - (Abade ikasi zuen hark)

"Estaitt nik abadeas ser intteaun orrek" - (Ez dakit nik abadearekin zer egiten zuen horrek)

"Emen auskeldunek on dire beti abadek, a, Berangon, e?" - (Hemen euskaldunak egon dira beti abadeak, Berangon, e?)

fraile: fraidea

monagillu, monangillo: meza-laguna

"Monagillues etorte san" - (Meza-lagunarekin etortzen zen)

"Aurreti kurtzeas, sera, yote san monangillo, eta gero yote san abade, eta gero yote san gorpu, laues, eta gorpun atzen, ba fameli" - (Aurretik gurutzearekin, zera, joaten zen meza-laguna, eta gero joaten zen abadea, eta gero joaten zen gorpua, laurekin, eta gorpuaren atzean, ba familia)

monje: moja

"Baya nik umek sarrak dekoas, nire umek, a, monjakas yon siren eta gero kanpora estudianten" - (Baina nik umeak zaharrak dauzkat, nire umeak, mojekin joan ziren eta gero kanpora estudiantzen)

"Monjak egote siren" - (Mojak egoten ziren)

parroko: parrokoa

sakristane: sakristaua (f.)

sakristau: sakristaua

7.4. GAINERAKO SINESKERAK

beste mundukok: beste mundukoak

"Sorgiñek edo beste munduko pere esate en" - (Sorginak edo beste mundukoak ere esaten zuten)

katea sarate: kate zarata

orio usiñe: olio usaina, olio sunda; arimen usaina dela esaten da

"Leku batzuten esate en ba, ademas martitzenak eta dire orren sorgiñen egune ta orio usiñe dau" - (Leku batzuetan esaten zuten ba, gainera martitzenak eta dira sorgin horien eguna eta olio usaina dago)

sakamanteka: sakamanteka, umeak bahitu eta gantzagiak atera egiten zizkion ikaratzeko pertsonaia bildurgarria

"Gero ikeratuteko, gero igual, a, bakixu, amabost amasei urte ingerukok, sakamanteka karela, ta imintteuren igual bruse andi bet, ta urtete yauren igual, a, bideti, bakixu lelau estartak eta, bueno ta urtete yotzun igual asustaten, eta karraderan" - (Gero ikaratzeko, gero beharbada, badakizu, hamabost hamasei urte ingurukoak, sakamantekak garela, eta ipintzen zuten beharbada brusa handi bat, eta irteten zuten beharbada, bidetik, badakizu lehenago estratak eta, beno eta irteten zizun beharbada ikaratzeko, eta karraderan)

sorgiñe: sorgina

"Gero artu eta surten erre, esateuren se, ba, sorgiñek etorri estittesen" - (Gero hartu eta surtan erre, esaten zuten ze, ba, sorginak etorri ez daitezeko)

"Ba olau jenerok imiñieskeronen erramuk eta olau jenerok, sorgiñek eta estirela sartzen etzen" - (Ba holako gauzak ipiniz gero erramuak eta holako gauzak, sorginak eta ez direla sartzen etxean)

"Okerra basara ba, Txarmiñeko sorgiñek urtengo tzu" - (Okerra bazara ba, Txarmineko sorginak irtengo dizu)

"Atxiñe, sorgiñek yantzan eitten deurela landatan, Seierrin atxiñe, Seierriko landan, Munarriko landan bere bai" - (Antzina, sorginek dantzan egiten dutela landetan, Seierrin antzina, Seierriko landan, Munarriko landan ere bai)

"Ure bere, a, eleixara eron ure bere, ta bendesidu etzerako, sorgiñekaittearrik eta ekarteuren ure, a, eleixara eron ta bendesidu abadek eta etzen aukitteko" - (Ura ere, elizara eroan ura ere, eta bedeinkatu etzerako, sorginengatik eta ekartzen zuten ura, elizara eroan eta bedeinkatu abadeak eta etxean edukitzeko)

"Sorgiñek leku dustitten ikuste yeusen koittedek" - (Sorginak leku guztietan ikusten zituen koitaduak)

"Estaitt nik baya, nik, a, pentzaten dot, esate yeurela yon estearren, a, arantza, eskaittesan yon, sorgiñe tausela edo sera" - (Ez dakit nik baina, nik, pentsatzen dut, esaten zutela ez joatearren, harantz, ez gaitzen joan, sorginak daudela edo zera)

"Ba urten eitteuela, ta an bere Torrekolandan an goyen bere egote sirela sorgiñek, ta an

BERANGOKO HIZTEGIA

eitteuela yantzan, gauen, ta orrek, baya estoas sekule ikusi" - (Ba irten egiten zutela, eta han ere Torrekolandan han goian ere egoten zirela sorginak, eta han egiten zutela dantzan, gauean, eta horiek, baina ez ditut sekula ikusi)

8. HERIOTZA

Atal honetan gizakiaren heriotzarekin lotuko lexikoa batzen dugu.

andabide: andabidea, gorpua etxetik elizara eroateko bidea

"Nik, e, nik esetu dot bai, lepon eroteuen lau gixonan arten, gixonak eroteuen en jeneral, nik esetu dot or Goiko Artzubin, or dau, a, bason beste alderdin, Goiko Artzubi eta atxiñe, gorpuk, beste erri betera esiren pasten, auron erritti pasa ber euen, auron terrenotati, eta, or, a, ese ba, Getxoko errire es pasatearren, a, orti andabide, andabide geittute san, orti gorpua neuk, gaste nasela esetu dot ori" - (Nik, nik ezagutu dut, lepoan eroaten zuten lau gizonen artean, gizonek eroaten zuten gehienetan, nik ezagutu dut hor Goiko Artzubin, hor dago, basoaren beste alderdian, Goiko Artzubi eta antzina, gorpuk, beste herri batera ez ziren pasatzen, euron herritik pasa behar zuten, euron terrenoetatik, eta, hor, eze bada, Getxoko herrira ez pasatzearren, hortik andabidea, andabidea deitzen zen, hortik gorpua neuk, gaztea nazela ezagutu dut hori)

"Andabideti eroteuden, txikon bajateuden" - (Andabidetik eroaten zuten, txikoan baxatzen zuten)

anderole: anda eroalea

bixi: bizitza

bixitze: bizitza

enterru: enterrua, lurpetzea

"Gixona yon da iños, a, enterrun batera" - (Gizona joan da inoiz, enterruren batera)

"Es, esan deuste yoteko baya eno, ta il sanen, klaro! enterrure yon in ber" - (Ez, esan didate joateko baina ez noa,

eta hil zenean, jakina! enterrura joan egin behar)

"Enterru oñes ixete san" - (Enterrua oinez izaten zen)

gaubele: gaubeila

gorpu: gorpua

"Gorpu etzekok, etzekok, familik edo bestealdekok, eroteuen" - (Gorpua etzekoek, etzekoek, familiak edo bestealdekoek, eroaten zuten)

"Eta etorri setako? gorpu an, eta emen karkasadaka, karo! bete bete sute, kafe ta koñaka" - (Eta etorri zertarako? gorpua han, eta hemen barre zantzoka, jakina! bete-bete suetea, kafea eta koinaka)

"Andabidek, baya esate yeuren ese, gorpu eta pasa eskeronen eleittela sarratu" - (Andabideak, baina esaten zuten eze, gorpu eta pasatuz gero ez litekeela itxi)

"Atxiñe, atarate san ba, bera, eskoyatako edo eskerratako, baya portalen imintte san, a, gorpu" - (Antzina, ateratzen zen ba, bera, eskoatakoa edo ezkerretakoa, baina atarian ipintzen zen, gorpua)

"Gorpu imintte san portalen, portalen, bardin da batena sein bestena, erdiñ erdiñ" - (Gorpua ipintzen zen atarian, atarian, berdin da batena zein bestearena, erdian-erdian)

ille: hila, hilotza

kaje: atautea, zerraldoa

"Bueno esetu doas, iltten sanen, kajan ondón bi bistute" - (Beno ezagutu ditut, hiltzen zenean, atautearen ondoan bi biztuta)

"Etzen bere bai, emen kuartuten egote san oyan, a, gorpu, eta gero etorte siren aurok eta sartxe yeuren, a, kajara edo serara, eta imintteusen kandelak, a, olau sera batzuk, andik, e? eta altuk, kandela lodi lodikes eta gaue dustiñ argies" - (Etxean ere bai, hemen geletan egoten zen ohean, gorpua, eta gero etortzen ziren eurok eta sartzen zuten, atautera edo zerera, eta ipintzen zituen kandelak, holako zer batzuk, handiak, e? eta altuak, kandela lodi-lodiekien eta gau guztian argiarekin)

kanposantu: kanposantua, ortu-santua, hilerria

"Au bixi san kanposantun ondón, ta umerik es auki ondiñokarren" - (Hau bizi zen kanposantuaren ondoan, eta umerik ez eduki oraindikokarren)

BERANGOKO HIZTEGIA

"An kanposantu aurreko, a, etzen bixitte siren" - (Han kanposantu aurreko, etxean bizitzen ziren)

"Nire ama eron san lepon, eron san eleixara, eta eleixati kanposanture" - (Nire ama eroan zen lepoan, eroan zen elizara, eta elizatik kanposantura)

sepulture: sepultura, elizan familiaren hilekoen oroimenez jartzen zen petrila eta beronen gainean sorki beltz bat zamau zuri batek estalia, beronetan kandelak biztuta egoten ziren

"Onen amak eta aitek eta danak, bakotxak bere, a, sepulture aukitteuren eta beti, leku beten" - (Honen amak eta aitek eta denek, bakoitzak bere, sepultura edukitzen zuten eta beti, leku baten)

9. UMEZAROA

Atal honetan umezaroaren gaineko berbak batzen ditugu; azpi-atalak olgetak, umeakaz erabiltzen den lexikoa eta, azkenik, eskolari dagokiona batzen dugu.

9.1. UMEEN OLGETAK

arretxikotan: arretxikotan, txikoan

bale: kuikan lo dagoena bila has daitekeela adierazteko erabiltzen den berba

billete: txartela

"Billetekas selan eitte san? ni akordate nas ondo, eitte san erraya bat olan bean, e? eta billetek eskun, trenako billetek, ordun olau billetek, kartoiskok ixete siren, txikerrauk, eta yo orman kontran, eta, ara errayara eldute sirenak arek sauretzako" - (Txartelekkin zelan egiten zen? ni gomutatzen naiz ondo, egiten zen marra bat hola behean, e? eta txartelak eskuan, treneko txartelak, orduan holako txartelak, kartoizkoak izaten ziren, txikerragoak, eta jo hormaren kontra, eta, hara marrara heltzen zirenak haiek zeuretzat)

billetetara: txarteletara

"Ba, olgetan bai, kordelan, ta billetetara ta guitotara" - (Ba, olatzen bai, kordelean, eta txarteletara eta guitoetara)

bolatiñe: txirinbuelta

"Etorri se bolatiñe emongo tzut" - (Etorri ze txirinbuelta emango dizut)

botxo: botxoa, lurrean egiten den zuloa kanikak edo intxaurrak sartzeko

"Botxo bat eintte, ta ara bota, botxo esaten geuntzen guk" - (Botxo bat eginda, eta hara bota, botxoa esaten genion guk)

diabolo: diaboloa

goittibere: goitibehera

guito: olgatzeko erabiltzen ziren fruituen haziak

"Sulo bat eiñ, eta bota guito, sulon ondora, ta gero atzamarras tas! eta ara barrure sartute sirenak, ba sauretzako" - (Zulo bat egin, eta bota guitoa, zuloaren ondora, eta gero atzamarrarekin tas! eta hara barrura sartzen zirenak, ba zeuretzat)

guitotara: fruitu haziak botxora sartzen egiten zen olgeta

inke: inkea

kanikatara: kaniketara

kanike: kanika

"Imiñi sei taba, gero kanika bateas bota gora kanike eta tabari bueltatxu emon ber ixeten dake ta alan" - (Ipini sei taba, gero kanika batekin bota gora kanika eta tabei bueltatxo eman behar izaten zaie eta hala)

"Kanike kosu klaro! se kanike kosten espasendun galdu" - (Kanika hartu jakina! ze kanika hartzen ez bazenuen galdu)

katxarritotara: etxe-etxeka

klomo, kromo: kromoa

"Klomo pere, klomok, loratxudunek, oin bere badaus klomok" - (Kromoak ere, kromoak loretxodunak, orain ere badaude kromoak)

kordelan: soka, soka dantzan

"Olan kordela altza olan gorantza, oneas esin dotzut eiñ, ta eskerraas ein berko dot, ba olan kanta itten gendun, nik oin kantaten dotzet señeri bere" - (Hola soka altxatu hola gorantz, honekin ezin dizut egin, eta ezkerrarekin egin beharko dut, ba hola kantatu egiten genuen, nik orain kantatzen diot seinari ere)

korro: korrua

"Su para makurtute ta bestek salta, eta itte san korro, bata bean para ta ba, danak, a, ari saltaten danak" - (Zu paratu makurtuta eta besteak saltatu, eta egiten zen korrua, bata behean paratu eta ba, denak, hari saltatzen denak)

BERANGOKO HIZTEGIA

kromoka: kromoka

kuike: kuika, ostu-ostuka

lo kante: lo kanta

muñeke: andrakila

"Oin muñekak dabilde, gure neskatxu teko, beste alabek? deko txikitxu, txikitxu, saspi urte dekos baya muñekatzues ibiltten da emen" - (Orain andrakilek darabiltzate, gure neskatxoak dauka, beste alabak? dauka txikitxoa, txikitxoa, zazpi urte dauzka baina andrakilatxoarekin ibiltzen da hemen)

ostu ostuke: ostu-ostuka, kuika

olgete: olgeta

pañelune: zapiaren jokoa

"Kosu pañelu bet eta, lau eskiñatan para, emen bat esta?, ni noa, bost, kasu beterako, eta bota pañelu oneri berak ikus barik eta karra, eta konturotu itten basintzen kosu pañelu eta yon karra ta bota besteri, espabere galdu itten sendun" - (Hartu zapi bat eta, lau izkinetan paratu, hemen bat ezta? ni noa, bost, kasu baterako, eta bota zapia honi berak ikusi barik eta karraka, eta konturatu egiten bazinen hartu zapia eta joan karraka eta bota besteari, ezpabere galdu egiten zenuen)

pelote: pilota

sokan: soka dantza

soka yantze: soka dantza

"Oin bere intten daude ori, ori betiko da soka yantze" - (Orain ere egiten dute hori, hori betikoa da soka dantza)

tabatara: tabatara

"Olan eitten gendun tabatara ta buelte emote otzonak, ak irebasteun" - (Hola egiten genuen tabatara eta buelta ematen zionak, hark irabazten zuen)

tabe: taba

"Sei taba iste sien, sei taba ta beste bat andiao, eta imiñi seran, eta yesarritte para, yesarritte atxiñe, ume pakixu yesarritte, oin bere itten deure, e? gure txikerrak eta itten deurela diño" - (Sei taba izaten ziren, sei taba eta beste bat handiagoo, eta ipini zerean, eta jesarrita paratu, jesarrita antzina, umeak badakizu jesarrita, orain ere egiten dute, e? gure txikerrak eta egiten dutela dino)

"Ondiño bere gure kamaran badaus tabak" - (Oraindino ere gure kamaran badaude tabak)

tankera: ezkutatzeko egiten den olgeta

"Tanke yaurta eta bat lotxe san, eta emeti gortatati tte lastotegitti tte orti ba ostuten gintzesen, ta bat lotxe san, ta ak, e, topa ber ixeteusen ba, librate san" - (Tanka jaurti eta bat lotzen zen, eta hemendik kortetatik eta lastategitik eta hortik ba osten ginen, eta bat lotzen zen, eta hark, topa behar izaten zituen ba, libratzen zen)

tiragome: tiragoma

"Beste txio, yateko koste san tiragomeas" - (Bestea txioa, jateko harrapatzen zen tiragomarekin)

tronpaka: zibaka, tronpaka

tronpan: ziban, tronpan

"Tronpan, oin, a, tapata daus, baya eleixako an, a, portikun, a, sulok eintte, tronpakas" - (Tronpan, orain, tapatuta daude, baina elizakoa han, elizpean, zuloak eginda, tronpekin)

tronpe: ziba, tronpa

trukume: trukameraka

txape: txapa

txibo: txinboa, ziboa

txibora: txinbora, zibora

txikon, txikotan: txikoan

txiribuelte, txirinbuelte: txirinbuelta

txirrindole: txirritxola, txirrinkola

txori abi kosten: txori habia topatzen

txorro morro, txorro morrora: txorro morro

txorro morro piko tallo ke: txorro, morro, piko, tailo, ke

9.2. UMEEN LEXIKOA

andi andi: handi-handi, paseoan joateko esaten da

"Andi andi yongo gare" - (Handi-handi joango gara)

ap: hotza adierazteko erabiltzen den berba

"Otza dau, ap!" - (Hotza dago, ap!)

apa: aupa, altxatzeko esaten da

"Lengo aldiñ or lotute, apa, apa! itte osten, apa! se txokolate gustate ako" - (Lehengo aldian hor lotuta, apa, apa! egiten zidan, apa! ze txokolatea gustatzen zaio)

apa iñ: aupa egin, altxatzeko esaten da

apatxe: apatxe, jesartzeko esaten da

BERANGOKO HIZTEGIA

apatxe iñ: apatxe, jesartzeko esaten da
atatan: atatan, paseoa joateko esaten da
"Atatan oñes asten direnen" - (Atatan oinez hasten direnean)
barrabasa: barrabasa, okerra
"Ordun errematak iste siren, gaur esta orduko beste ganadu iltxen, ta ordun ganaduk ba, gaur dala, bier dala, bateri besteri, edo pustu in dala, edo alfafe yan deule, edo sekule bedarra yan deule edo barrabas yan deule, ta ordun on siren ermandadak" - (Orduan errematak izaten ziren, gaur ez da orduko beste ganadu hiltzen, eta orduan ganaduak ba, gaur dela, bihar dela, bati besteari, edo puztu egin dela, edo alfalfa jan duela, edo sekulabelarra jan duela edo barrabas jan duela, eta orduan egon ziren ermandadeak)
biotza: deikari amultsua, umeei esateko erabiltzen da
et: ez
etetet: ez-ez
"Seoser kosten estaurenen kosi ber, noperak esan, etetet" - (Zer edo zer hartzen ez dutenean hartu behar, norberak esan, etetet)
kakela: kaka
koko: koko, txokolatea, gozokia
kople: kopla, kontua
lastana: lastana, deikari amultsua
"Ogeta urtekas dekoas garikok, esta lastan?" - (Hogeita urteekin dauzkat garaikoak, ezta lastan?)
lau txakur: lau txakur, katamar
"Lau txakur ibil san" - (Lau txakur ibilizen)
lau txakurren: lau txakur, katanar
lolo: lo
lolo iñ: lo egin
papa: ogia
papau: papaoa, umeak ikartzeko papaoa etorriko dela esaten zaie
"Etorko da papau, e!" - (Etorriko da papaoa, e!)
pispirriñe: deikari amultsua
pispolito: pispolito; neskatoei egiten zaien deikari amultsua
pitxin: pitxin; deikari amultsua
punba iñ: jausi
"Punba ingo su" - (Punba egingo duzu)
pupu: mina

pupu iñ: min egin
"Astiro ixi ate, pupu in barik" - (Astiro itxi atea, min egin barik)
tardantze eskatu: tardantza eskatu
"Tardantze eskatu ixi" - (Tardantza eska ezazu)
toto: txakurra
"An toto, txikitxu danen" - (Han totoa, txikitxoa denean)
trete: treta, maina
"Trete artu dau" - (Treta hartu du)
txanka mea: txanka mehea, txankak argal dauzkanari esaten zaio
txanka pistola: txanka mehea, txankak argal dauzkanari esaten zaio
"Ori txanka pistola ba ta" - (Hori txanka pistola bat da)
txantxurre: lehen haginaren irteeerak
"An urten tze txantxurrek!" - (Han irten diote txantxurrek!)
txatxa: fruitua
"Txatxa, bai madari edo sagarra dala, txatxa" - (Txatxa, bai madaria edo sagarra dela txatxa)
txetxe: umea
txi: erre
txirpillote: txirpilota, tximeleta, deikaria
txitxi: okela
"Ume txikitxuri txitxi, gorosu txitxi?" - (Ume txikitxoari txitxi, gura duzu txitxi?)
txupete: txupetea
"Kendu txupete ta agoati berba itteko" - (Kendu txupetea eta ahotik berba egiteko)
txut: beroa adierazteko berba
"Txut! selau bero!" - (Txut! zelako beroa!)
txut iñ: erre
"Txut ingo tzu" - (Txut egingo duzu)
yaurtakade: jaurtakada

9.3. ESKOLA

errekreo: olgetaldia, atsedenaldea, errekreoa
"Etorri in ber eskolati errekreon etzera, seoser eintten errekreon etzen, paraje egon gintzeles, ba, seoser intten etzera etor ber" - (Etorri egin behar eskolatik errekreoan etxera, zer edo zer egiten errekreoan etxean, paraje egon ginenez, ba, zer edo zer egiten etxera etorri behar)
eskole: eskola

BERANGOKO HIZTEGIA

"Gure dot seña yon daitten eskolara" -
(Gure dut seina joan dadin eskolara)

"Nik oiñ esaten dotzet oneri, nik, a, goxen eskolara yoten giñen, esta? baya arrastin, oiñ estau ori, yosten ikisi ordu bete" - (Nik orain esaten diet hauei, nik, goizean eskolara joaten ginen, ezta? baina arrastegian, orain ez dago hori, josten ikasi ordu bete)

"Eskolara bere egun dustireko yote siren beskaries" - (Eskolara ere egun guztirako joaten ziren bazkariarekin)

"Ni eskolara bederatzi egunen, eskolara, se ganadu euki gendun asko" - (Ni eskolara bederatzi egunean, eskolara, ze ganadu eduki genuen asko)

"Gero eskolara yoteko afesiño, iños bestot auki" - (Gero eskolara joateko zaletasuna, inoiz ere ez dut eduki)

"Eskolak aik ixen siren, ayuntaminttu or daun lekun, mutillek eskoyatara ta neskak eskerretara" - (Eskolak haiek izan ziren, udaletxea hor dagoen lekuan, mutilak eskoatara eta neskak ezkerretara)

"Eskolan? ba gausa askorik es se, askorik eseuen irekatzitten bere, gausa askorik es, bordaten ta yoten gintzesen gero gora, arratzaldetan, bordaten yoten gintzen, bean aukitten gendun eskole, ta gero abitasiniotan goyen, ba kuartu bet, eta ara yoten gintzesen, baya neskak bakarrik, mutillek esiren yoten ara, mutillek yote siren orra, eskolatara" - (Eskolan? ba gauza askorik ez ze, askorik ez zuten irakasten ere, gauza askorik ez, bordatzen eta joaten ginen gero gora, arratsaldeetan, bordatzen joaten ginen, behean edukitzen genuen eskola, eta gero geletan goian, ba gela bat, eta hara joaten ginen, baina neskak bakarrik, mutilak ez ziren joaten hara, mutilak joaten ziren horra, eskoletara)

gaueko eskole: gaueko eskola

"Gero txikerra pai, bost ixen gintzen, gero txikerrak gaueko eskolatara txikerrak, ta txikerrak osten bere bai, baya gu ni tte, a, neba sarra, ganadu asko euki gendun te ama esnekas, eta aitteri, a, ganadu asko ta, onek elittes yon se bayek yagon bear deittue" - (Gero txikerrak bai, bost izan ginen, gero

txikerrak gaueko eskoletara txikerrak, eta txikerrak ostan ere bai, baina gu ni eta, neba zaharra, ganadu asko eduki genuen eta ama esneekin, eta aitari, ganadu asko eta, hauek ez litezke joan ze behiak jagon behar dituzte)

grede: klariona

"Or ibiltten dire, sera intte, letra suries intte, grede suries" - (Hor ibiltzen dira, zera eginda, letra zuriarekin eginda, klariona zuriarekin)

kastigu: zigorra

katoya: katoia, letrak ikasteko erabiltzen zena eskolan

lapse: lapitza

lesiño: ikasgaia

"Guk eitten gendune, geuri lesiño artxe yoskun lelengo, ordu erdi, edo ordu bat ingeru, segun, artxe otzun lesiño, eta gero geuk, txikerrari geuk artu ber gero" - (Guk egiten genuena, geuri ikasgaia hartzen zigun lehenengo, ordu erdia, edo ordu bat inguru, segun, hartzen zizun ikasgaia, eta gero geuk, txikerrei geuk hartu behar gero)

letre: letra

liburu: liburua

maestre: maistra

maixu, maestro: maisua

"Maixu ixen san au" - (Maisua izan zen hau)

"Maistrok on siren gauen, ote san ta nire nebak ara yote siren" - (Maisuak egon ziren gauean, egoten zen eta nire nebak hara joaten ziren)

"Jenaro Urrutia ixen san gure maestro, ya sartxu, aun de piku auki eusen, eskola baten dustik or, mutillek" - (Jenaro Urrutia izan zen gure maisua, ja zahartxoa, ehundazak eduki zituen, eskola baten guztiak hor, mutilak)

numeru: zenbakia

papera: papera

"Ni papel barik eskondu nitzen" - (Ni paper barik ezkondu nintzen)

pisarre: arbela

"Pisarra bat eta katoia, ta onek esaten dau se, ojalatasko suk? nik es, nik beste pisarre, yausten basan apurtu itte san" - (Arbel bat eta katoia, eta honek esaten du ze, latorrizkoa zuk? nik ez, nik beste arbela, jausten bazen apurtu egiten zen)

BERANGOKO HIZTEGIA

10. DENBORA

Denborari buruzko berbak hobeto aurkezteko atal hau ondoko azpiataletan banatuta emango dugu: urtaroak, hilak, astegunak, denboraren banaketa, egunaren banaketa eta egunen arteko erlazioak

10.1. URTAROAK

negu: negua

“Negun oten dire onek emeti” - (Neguan egoten dira hauek hemendik)

“Neguko bendeje bakixu, oiñ urte dustin dau baya, neguko, len, lengo bendeje sera iste san, porru, ase, koniflora” - (Neguko bendeja badakizu, orain urte guztian dago baina, negukoa, lehen, lehengo bendeja zera izaten zen, porrua, aza, aza-lora)

“Gero sagarra pere negurakok, ordun naye aukitten gendun emen guk” - (Gero sagarrak ere negurakoak, orduan nahia edukitzen genuen hemen guk)

“Orrek lengo neguten egote ixen dire emen, baya oiñ” - (Horiek lehengo neguetan egoten izan dira hemen, baina orain)

ude: uda

“Goxeti se udek ixen siren berok” - (Goizetik ze udak izan ziren beroak)

“Nosonos, es askotan, e, udan igual jente yote sanen beraneon ta esne sobra, aren bai in du, asko es, gitxi e?” - (Noiz edo noiz, ez askotan, udan beharbada jendea joaten zenean uda pasatzen eta esnea sobratu, arean bai egin dugu, asko ez, gutxi, e?)

udabarri, udabarri: udaberria

“Baya in ber da udabarrin, udabarrin ein ber da, piperra tomate t’orrek dustik udabarrin, patate bere bai, martin, or, a, sanjoseti ingirun” - (Baina egin behar da udaberrian, udaberrian egin behar da, piperra tomatea eta horiek guztiak udaberrian, patata ere bai, martxoan, hor, san josetik inguruan)

“Udabarrin emoten dau asko, bola gorries” - (Udaberrian ematen du asko, bola gorriarekin)

udegoyena: udagoiena, udazkena

10.2. HILAK

agostu, agustu, abostu:abuztua

“Larogai ein doas agustun” - (Larogei egin ditut abuztuan)

“San Pedro ta Santo Domingo da abostun” - (San Pedro eta Santo Domingo da abuztuan)

april: apirila

“Aprillen akabun ixen san Gernikeko” - (Apirilaren amaieran izan zen Gernikakoa)

disienbre: abendua

enero: urtarrila

febrero: zezeila, otsaila

“Bueno, o, esatu, nik amen etzen in dot, es dana kentxen, serakoa, axe nagosik, nos ixen san? febrero baten ieun axe andi bet, e, mobidu ieusen talletuk, talletuk mobidu in siren ba, ta ordun esatu dot nik or erreformatxu bet eitxen” - (Beno, ezagutu, nik hamen etxean egin dut, ez dena kentzen, zerekoa, haize nagusiak, noiz izan zen? otsail baten egin zuen haize handi bat, mugitu egin zituen teilatuak, teilatuak muguti egin ziren ba, eta orduan ezagutu dut nik hor erreformatxo bat egiten)

julio: garagarrila; uztaila

junio: bagila; ekaina

“Lane ebaiten dake, lane ebaiten dake oiñ, e, ba ointxe, mayatzen edo, junion asikeran ebaiten dake” - (Artilea ebakitzen zaie, artilea ebakitzen zaie orain, ba oraintxe, maiatzean edo, bagilean hasieran ebakitzen zaie)

marti: martia, martxoa

“Udabarrin ein ber da, piperra tomate t’orrek dustik udabarrin, patate bere bai, martin” - (Udaberrian egin behar da, piperra tomatea eta horiek guztiak udaberrian, patata ere bai, martxoan)

mayetza: maiatza

“Beiñ, mayetzan, e, bai otabederatziñ itten ittu urtek” - (Behin, maiatzean, bai hogeita bederatzian egiten ditu urteak)

nobienbre: zemendia

“Otubre nobienbre, orrek sasoi ona ixete san ordun ebaitteko” - (Urria zemendia, horiek sasoi ona izaten zen orduan ebakitzeke)

otubre: urria

BERANGOKO HIZTEGIA

"*Otubre, ille bi lelau gabona paño*" -
(*Urria, hil bi lehenago gabonak baino*)

sesille: zezeila, otsaila

"*Or, a, sesillen bere ebaitte san apur bet, urtarrillen ta sesillen, orrek bastante onak siren*" - (*Hor, zezeilean ere ebakitzen zen apur bat, urtarrilean eta zezeilean, horiek nahiko onak ziren*)

setienbre: iraila

"*Setienbren il da ori*" - (*Irailean hil da hori*)

urrieta: urria

"*Imiñi, ba, urrietan bai, babe ta iderra, babe ta iderra ta olan, neuk estot aukitten askorik*" - (*Ipini, ba, urrian bai, baba eta ilarra, baba eta ilarra eta hola, neuk ez dut edukitzen askorik*)

urtarrille: urtarrila

10.3. ASTEGUNAK

astelena: astelehena

"*Badakitt dana astelena*" - (*Badakit dena astelehena*)

bariku: barikua, ostirala

"*Barikuten yote nas pelukerire, eta gero yokon nire koñatakas ta olaukas*" - (*Barikuetan joaten naiz ile-apaindegira, eta gero jokoan nire koinatekin eta holakoekin*)

domeke: domeka

"*Ondiño domekan yon da lagun bet ikusten Krusesera*" - (*Oraindino domekan joan da lagun bat ikusten Gurutzetara*)

"*Domekatan egoten da mese an*" - (*Domeketan egoten da meza han*)

"*Domekan ixen san orrek aurik, esta? es sapatun erein gendun*" - (*Domekan izan zen auri horiek, ezta? ez zapatuan erein genuen*)

eguen: eguena, osteguna

"*Eguena ta sapatu, martitzena bere bai, baya oin kendu in gure ixen daudeles oraintzu, ondiñokarren estire denpora andik*" - (*Eguena eta zapatua, martitzena ere bai, baina orain kendu egin gura izan dutenez oraintsu, oraindinarren ez dira denbora handiak*)

egustena: eguaztena, asteazkena

illena: astelehena

"*Eta yote giñen trapu sar bateas belaunbiko parateko eta gero a ekarri, siketu, eta prepara in ber illenan eroteko*" - (*Eta joaten ginen trapu zahar batekin belaunbiko paratzeko eta gero hura ekarri, sikatu, eta prestatu egin behar astelehenean eroateko*)

martitzena: martitzena, astearta

"*Leku batzuten esate en ba, ademas martitzenak eta dire orren sorgiñen egune ta orio usiñe dau*" - (*Leku batzuetan esaten zuten ba, gainera martitzenak eta dira sorgin horien eguna eta olio usaina dago*)

sapatu: zapatua, larunbata

"*Neu akordate nas, e, neuk kanpon eitte neun bear, eta gero, sapatuten ta domeka goxeran, a, aitte defuntuk osti lau palise emote yoskun, bedarrak sertu, te ara goyen ta*" - (*Neu gomutatzen naiz, neuk kanpoan egiten nuen behar, eta gero zapatuetan eta domeka goizetik, aita zenak ostia lako jipoia ematen zigun, belarrak zertu, eta hara goian eta*)

"*Nire amari sapatun egurdiñ ei otzon*" - (*Nire amari zapatuaren eguerdian egin zion*)

10.4. DENBORAREN BANAKETA

aldi: aldia

"*Lengo aldi beten estaitt espaneun ikusi*" - (*Lehengo aldi batean ez dakit ez banuen ikusi*)

aldikade: aldikada, denboraldia

amabosta: hamabosta, hamabostaldia

aste: astea

"*Emen ego nas lau asten*" - (*Hemen egon naiz lau asten*)

"*Oin esin dot eta igual datorren asten etorko nas*" - (*Orain ezin dut eta beharbada datorren astean etorriko naiz*)

astegune: asteguna

asti: astia

"*Guk estu auki astirik olgetako bere*" - (*Guk ez dugu eduki astirik olgetzeko ere*)

"*Aputxu beten in bort estekot astirik eta*" - (*Aputxo bat egin behar dut ez daukat astirik eta*)

baskal ordu: bazkal ordua

"*Gero baskal ordun ekarri, emote akon aputxu bet yan dein, ori kostunbre egon san urte askotan*" - (*Gero bazkal orduan*)

BERANGOKO HIZTEGIA

ekarri, ematen zitzaion apurtxo bat jan dezan, ekandu hori egon zen urte askotan)

bespere, bispere: bezpera

"Errosario erresate san besperan baya gero enterrate sanen gero beskaritten"
- *(Errosarioa errezatzen zen bezperan baina gero lurpetzen zenean gero bazkaltzen)*

denpore: denbora

"Baku denpore" - (Badaukagu denbora)

"Guk eskendun auki denporarik, a, neskakas eitteko" - (Guk ez genuen eduki denborarik, neskekin egiteko)

"Gure denporan ya galdu san ori" - (Gure sasoiaren ja galdu zen hori)

"Ori esta ondiño denpora andiko" - (Hori ez da oraindino denbora handikoa)

egune: eguna

"Egun onetan kanpon o nas" - (Egun hauetan kanpoan egon naiz)

egun erdi: egun erdia

epoke: sasoi

"Aurek ebaiten bade, eta epoka onen ebaiten bade, beti ixengo da obeau" - (Eurek ebakitzen badute, eta sasoi onean ebakitzen badute, beti izango da hobe)

gerra denpore: gerra denbora

gerra oste, gerroste: gerraostea

"Gerra osten faltate san diru" - (Gerra ostean faltatzen zen dirua)

gerraurre, gerra aurre: gerraurrea

"Ni asko enas yon eskolara, ese gerra aurren ixen nitzen txikerra eta gerra osten, ba estaitt senbet urte, eskola barik on gintzesen, eta gero etzeko bearrak ein ber gendusen" - (Ni asko ez naiz joan eskolara, eze gerra aurrean izan nintzen txikerra eta gerra ostean, ba ez dakit zenbat urte, eskola barik egon ginen, eta gero etzeko beharrak egin behar genituen)

gose denpore: gose denbora

gose urte: gose urtea

"Areatan, a, ataraixu kontu se urtetan, gose seratan, gose urtetan" - (Areatan, atera ezazu kontua ze urtetan, gose zeretan, gose urteetan)

ille: hila

"Seme il dako ontxe ille bi edo iru" - (Semea hil zaio oraintxe hil bi edo hiru)

"Ori, e, agiñek, kanbiaten dakes, ba, ogetabi, ogetalau illeas, ya asten dires, esneko agiñe teukes ta gero asten dires ya palak etxaten" - (Hori, haginak, aldatzen zaizkie, ba, hogeita bi, hogeita lau hilerekin, ja hasten dira, esneko haginak dauzkate eta gero hasten dira ja palak botatzen)

illebete: hilabete

"Iru illebeterako edo olan aguantaten dotzu, auri asko itten badau edo olan, birriten in ber tzesu, esta? baya ostantzen bateas" - (Hiru hilabeterako edo hola irauten dizu, euri asko egiten badu edo hola, birritan egin behar diozu, ezta? baina osterantzean batekin)

"Illebetetan auki neun or, benenoso da ori" - (Hilabeteetan eduki nuen hor, pozoitsua da hori)

"Ekarri, tte ortxe, lau bost illebeten, beyek, ederto yan, txala asten, emon itte nutzen yaten ba se oki nun pentzaminttu biek iltteko" - (Ekarri, eta hortxe, lau bost hilabeteen, behiak ederto jan, txahala hazten, eman egiten nien jaten ba ze eduki nuen pentsamendua biak hiltzeko)

miñutu: minutua

momentu: momentua

ordu: ordua

"Ordu erdigarrenean etor da" - (Ordu erdigarrenean etorri da)

ordu erdi: ordu erdia

"Salbideti ara asautxu itten da ta, ordu erdi" - (Zalbidetik hara asagotxo egiten da eta, ordu erdi)

ordu laurena: ordu laurena, ordu laurdena

ordu t'erdia: ordu eta erdia

"Guk goxeko seiretan eta bostatan urtetan gendun, emeti etze sarreti, ordu t'erdiko bije Unbera egurre billen" - (Guk goizeko seiretan eta bostetan irteten genuen, hemendik etxe zaharretik, ordu eta erdiko bidaia Unbera egurra bila)

sasoya: sasoi

"Oin bada sasoya an oteko" - (Orain bada sasoi han egoteko)

segundu: segundoa

unekade, unikade: unekada

"Unekada baten, a, eskastu in san" - (Unekada baten, eskastu egin zen)

"Unekada baten, ni gaste ixen nitzenen, a, ikus nun ori" - (Unekada baten, ni gazte izan nintzenean, ikusi nuen hori)

BERANGOKO HIZTEGIA

urte: urtea

"Gausa asko emen kusteuren, baya dakienak, se ni yo nas, a, orra Larrabasterrako, a, mutil betzukes, a, gauen, gauen, e! ni gaste, ni gastetxu, nik se edade okiko neun ordun ba? ogei urte, ta aurok ba igual berrogei, otamar edo" - (Gauza asko hemen hartzen zuten, baina dakitenek, ze ni joan naiz, horra, Larrabazterreko, mutil batzuekin, gauean, gauean, e! ni gaztea, ni gaztetxoa, nik ze edade edukiko nuen orduan ba? hogeia urte, eta eurok ba beharbada berrogei, hogeita hamar edo)

10.5. EGUNAREN BANAKETA

arrasti, arrastegi: arrastia

"Eintten du, ein txorkea, siku badau lurre, arrastin, ya iguski sartxen daunen, txorkea eta ure bota, ure apur bet" - (Egiten dugu, egin txorkatu, siku badago lurra, arrastegian, ja eguzkia sartzen dagoenean, txorkatu eta ura bota, ur apur bat)

"Nik beti etzen bere entzun dot, egurdiko amabitten, ta arrastiko seiretan, sur, ta atxurreas an, baya surre da gero!" - (Nik beti etxean ere entzun dut, egurdiko hamabietan, eta arrastiko seietan, zuhur, eta aitzurrarekin han, baina zuhurra da gero!)

arrasti erdi: arrasti erdia

"Gauerako buskantzak eintte ote siren, arrasti erdireko normalmente" - (Gauerako buzkantzak eginda egoten ziren, arrasti erdirako gehienetan)

atzalde, arratzalde: arratsaldea

"Aor egote san labadero, oiñ ixi in daure baya or, eron burun errope, garbittu, yabona an, eta itxi an, lejiatan itxi, a goixen, eta gero arratzalden burun" - (Han egoten zen ikuztegia, orain itxi egin dute baina hor, eroan buruan arropa, garbitu, xaboiztatu han, eta utzi han, lixibatan utzi, hura goizean, eta gero arratsaldean buruan)

bart: bart

"Bart estot ein lorik" - (Bart ez dut egin lorik)

egurdarte: eguerdi-artea

egurdi, igurdi: eguerdia

"Egurdin emoten daude yatordu" - (Eguerdian ematen dute jatordua)

"Bai, bai, seran, egurdin txarra da, goixen goixeti edo illunde, illunde kasik obeto" - (Bai, bai, zerean, eguerdian txarra da, goizean goizetik edo ilundea, ilundea kasik hobeto)

"Ni yote nitzen esnekas Bilbora goixean, ta etorte nitzen igurdin" - (Ni joaten nintzen esneekin Bilbora goizean, eta etortzen nintzen eguerdian)

gaue: gaua

"Amairu urten goberna dot, goberna ber dan modun, yon, egunen egunen egunen ta lo, igual gauetan lotu" - (Hamahiru urtean gobernatu dut, gobernatu behar den moduan, joan, egunean-egunean-egunean eta lo, beharbada gauetan lotu)

"Segidu segidu segidun len, goxen asi eta arik eta gauerarten" - (Segitu segitu segituan lehen, goizean hasi eta harik eta gauera arte)

"Aitte do gauen etzera se estau leku giaurik eta" - (Aita doa gauean etxera ze ez dago leku gehiagorik eta)

"Orrek ganaduk esiren egoten gau te egun, es" - (Ganadu horiek ez ziren egoten gau eta egun, ez)

gauerdi: gauerdia

goxe, goixe, goxera: goiza

"Ekarten dau goxen bederatzik eta erdik, gaur bere etor da, etorten da ibiltten da emeti dustitti" - (Ekartzen du goizean bederatzia eta erdiak, gaur ere etorri da, etortzen da ibiltzen da hemendik guztitik)

"Guren, a, ill, eta eskaitten da, sikan bere, goxerik gauera" - (Gurean, hil, eta eskegitzen da, gutxienez, goizetik gauera)

"Sapatuten ta domeka goxeran, a, aitte defuntuk osti lau palise emote yoskun, bedarrak sertu, te ara goyen ta" - (Zapatuetan eta domeka goizetik, aita zenak ostia lako jipoia ematen zigun, belarrak zertu, eta hara goian eta)

goxalde: goizaldea

"Goxalde da ori, len esan dune, egune asten danen eitten" - (Goizaldea da hori, lehen esan duguna, eguna hasten denean egiten)

illunde, illundi: ilundea

BERANGOKO HIZTEGIA

“Onek, e, ekarteun ona goxerik eta illunden eron” - (Honek, ekartzen zuen hona goizetik eta ilundean eroan)

“Illundeko mesak gero in siren” - (Illundeko mezak gero egin ziren)

illunde nabarra: ilunabarra

“Illunde nabarran imiñi ber dire” - (Ilunabarrean ipini behar dira)

10.6. EGUNEN ARTEKO ERLAZIOAK

ariñegun, arenegun: herenegun

atzo: atzo

“Ori da trugoi esaten da ori, trugoi, atzo in dau les” - (Hori da trumoia esaten da hori, trumoia, atzo egin duen lez)

bier: bihar

“Gaur esin yon sara, bier esin yon sara” - (Gaur ezin joan zara, bihar ezin joan zara)

etzi: etzi

“Bier etorri ber dosu, etzi bere bai” - (Bihar etorri behar duzu, etzi ere bai)

“Etzi doa, ia ataraten badau” - (Etzi doa, ea ateratzen duen)

etziluma: etzilimo

gaur: gaur

“Kantzata on da gaur” - (Nekatuta egon da gaur)

“Gaur enei iñ” - (Gaur ez nezake egin)

11. METERELOGIA

Metereologiari buruzko atal hau honako azpi-ataletan banatuta aurkezten dugu: eguraldia, euria, ekaitza, elurra-leia, haizea, lainoa-hedoia eta tenperatura.

11.1. EGURALDIA

aro: aroa, eguraldia

bero: beroa

“Bero andi badator, epel epel lotxen dire” - (Bero handia badator, epel-epel lotzen dira)

bero larri: bero larria

denpora argi: eguraldi argia

denpora illune: eguraldi iluna

denporak: karta-tenporak

denpore: eguraldia

“Aor Seranteseko sera daunen, a, laño daunen, esaten du, bier auri da, e? illunden, egoten da ori laño, Serantes esta ikusten, eta erdiraño, eta esaten du, Serantes illun dau, e?” - (Haor Seranteseko zera dagoenean, lainoa dagoenean, esaten dugu, bihar euria da, e? ilundean, egoten da laino hori, Serantes ez da ikusten, eta erdiraino, eta esaten dugu, Serantes ilun dago, e?)

“Atxiñe, oiñ estot nik adittuten, baya atxiñe, Gorrondatxe asarratu da” - (Antzina, orain ez dut nik aditzen, baina antzina, Gorrondatxe haserretu da)

“Denpora sano ixate san a” - (Eguraldi sanoa izaten zen hura)

fresko: freskoa, hoztxoa

“Atxiñeko potijo, ta andi, traguk eiñ, se aguanta itten dau giau fresko, potijo aukitten gendun guk” - (Antzinako potixea, eta handik, zurrutadak egin, ze iraun egiten du gehiago fresko, potixea edukitzen genuen guk)

otza: hotza

“Otza datorrenen desaparesidu intten da ori eta lurre berotuten danen dator, ostabere” - (Hotza datorrenean desagertu egiten da hori eta lurra botatzen denean dator, ostera ere)

sargori: sargoria

“Sargori dau” - (Sargoria dago)

sikete: sikatea

“Sikete badator, ogeto abantaten dau emen dekun emen beko lurre paño” - (Sikatea badator, hobeto irauten du hemen daukagun hemen beheko lurra baino)

“Bear iteko dire gogorrauk, baya gero sikete obeto aguantaten deu, lur obe tire orretako” - (Behar egiteko dira gogorrakoak, baina gero sikateari hobeto eusten dio, lur hobeak dira horretarako)

“Bai, akordate nas, a, sikete egon san ta goxeko seiretan” - (Bai, gomutatzen naiz, sikatea egon zen eta goizeko seietan)

umedade: hezetasuna

“Bero andi badator, esta? espadotzesu ure aputxu bet botaten, espadeko umedaderik, arik eta agarra arten aputxu bet” - (Bero handia badator, ezta? ez badiozu ur apurtxo bat botatzen, ez badauka

BERANGOKO HIZTEGIA

hezetasunik, harik eta oratu artean
apurtxo bat)

11.2. EURIA

asaro: azaroa

"Asaro ona kasu beterako, ba, yorratuteko arto edo sera, auri oste, auri oste, baserik esteitten ondiño egon" - (Azaro ona kasu baterako, ba, jorratzeko artoa edo zera, euri ostea, euri ostea, basarik ez dadin oraindino egon)

"Asaro da auri inten daunen, ber dosunen, diñu oi! selau asaro!" - (Azaroa da euria egiten duenean, behar duzunean, dinogu oi! zelako azaroa!)

aterri: aterri

aterrune: aterrunea

"Aterrune baten yongo gares" - (Aterrune baten joango gara)

auri: euria

"Estau itten oiñ, a, lengo modun auririk" - (Ez du egiten orain, lehengo moduan euririk)

"Lenau auri bere askos giau eintteun emen" - (Lehenago euri ere askoz gehiago egiten zuen)

"Errekak, a, badatos, a, betatute, auri andi on da" - (Errekak, badatoz, beteta, euri handia egon da)

auri edurre: euri elurra

auri garo: euri garoa, euri garaua

auri golpe: euri kolpea

"Auri golpe itteunen, ure loittu ber, ure loittu, ure argies es, ure loitxen sanen, yon ta imiñi gordosola an, a, erreka eskiñen, txak!" - (Euri kolpea egiten zuenean, ura lohitu behar, ura lohitu, ur argiarekin ez, ura lohitzzen zenean, joan eta ipini guardasola han, erreka bazterrean, txak!)

auri gote: euri tanta, euri txiztila

auri lanbri: euri lanbroa

"Ori bere auri lanbri, guk esaten dotzu emen, a, asten danen aputxu bet eta baperes ta oritxe" - (Hori ere euri lanbroa, guk esaten diogu hemen, hasten denean apurtxo bat eta bat ere ez eta horixe)

"Guk ori beti esan du, auri lanbri eitten dau, olan baño giau in ber da, olau

jenerok" - (Guk hori beti esan dugu, euri lanbroa egiten du, hola baino gehiago egin behar da, holako gauzak)

auri oste: euri ostea

auri saparrade: euri zaparrada

"Ordun auri saparrade itte aunen ensegida orra yote siren" - (Orduan euri zaparrada egiten zuenean behingoan horra joaten ziren)

auri ugerra: euri ugerra

"Auri ugerra gaur goxen ein daune, auri ugerra ori, a, ori txikitxu" - (Euri ugerra gaur goizean egin duena, euri ugerra hori, hori txikitxo)

"Auri ugerra da, ori sirimiri" - (Euri ugerra da, hori zirimiria)

base: basa

"Ango etzek eta emeko buelta gayena arries deko iste, arries eta baseas ite siren ormak" - (Hango etxeak eta hemengo buelta gehiena harriarekin dauka itxita, harriarekin eta basarekin egiten ziren hormak)

edoi montorra: hedoi montorra, hodei beltzak, euria iragartzen dutenak

"Edoi montorra ba, itxoso aldeti urteten daunen, a, edoyatu da ta andi torpe" - (Hedoi montorra ba, itsaso aldetik irteten duenean, hedoitu da eta handia dorpea)

edoya: hedoia

"Emen guk beti aittuten dotzu ari Getxoko Galeari, a paraten danen illun, ta edoyak bajaten diresen, auri in ber dau ba, gitxi edo asko auri da" - (Hemen guk beti aditzen diogu hari Getxoko Galeari, hura paratzen denean ilun, eta hedoiak baxatzen direnean, euri egin behar du ba, gutxi edo asko euria da)

edoyatu: hedoitua

"Aittu edoyatu deko puntan, bier seoser kanbio badeko denporek" - (Aittu hedoitua dauka puntan, bihar zer edo zer aldaketa badauka eguraldiak)

enbata: enbata

"Enbata itxosoko da" - (Enbata itsasokoa da)

galerne: galarrena

"Ba ikusi itten denen, kasu beterako, atzoko lau galerna bat datorrela, se atzo bere selau galerna etor san, ganadu amen bean badau, amen daus igual pasteaten, esta? ba ara gora dos, ara gora! ta an goyen, an ixitte deke ba, an eukaliton ondon, an

BERANGOKO HIZTEGIA

daus, goyen beti, alture kosten dau" - (Ba ikusi egiten denean, kasu baterako, atzoko lako galarrena bat datorrela, ze atzo ere zelako galerna etorri zen, ganadua hemen behean badago, hamen daude beharbada pasteatzen, ezta? ba hara gora doaz, hara gora! eta han goian, han itxita daukate ba, han eukaliptoaren ondoan, han daude, goian beti, altuera hartzen du)

garo: euriaren osteko garaua

"Es yon se garo dau" - (Ez joan ze garaua dago)

"Gero, auri itten daunena, a, bedarran lotxen dana, a, a da garo" - (Gero, euri egiten duenean, belarrean lotzen dena, hura da garoa)

garriko: ostarkua

"Aspalditten, a, len sarriau ikuste san ori garriko, oiñ aspalditten, aspaldiko urtetan esta ikusten orrenbeste" - (Aspalditan, lehen sarriago ikusten zen ostarku hori, orain aspalditan, aspaldiko urteetan ez da ikusten horrenbeste)

globo: puspuluua, purpuila

gote: txiztila

lanbri: lanbroa

laño: lainoa

saparrade: zaparrada

sarrasoya: sarrasoaia, itsasoko lainoa

sirimiri: zirimiria

"Es ori esta auri ugerra, auri ugerra isten da, sirimiri, auri ugerra ori da sirimiri esaten dakona" - (Ez hori ez da euri ugerra, euri ugerra izaten da, zirimiria, euri ugerra hori da zirimiria esaten zaiona)

tenporala, denporala: denborala

"Atxiñe Gorrondatxe asarratu da ta badator denporala" - (Antzina Gorrondatxe haserretu da eta badator denborala)

"Tenporala datorrenen, amen daus yaten, ta bados" - (Denborala datorrenean, hamen daude jaten, eta badoaz)

trugoya, truboya: trumoia

"Yusturi edo truboya ibiltte sanen, a, ensegida itxitte siren erremintte dustik" - (Justuria edo trumoia ibiltzen zenean, behingoan uzten ziren erreminta guztiak)

"Baya truboya aurek yakitteuen nos dauen bere" - (Baina trumoia eurek jakiten zuten noiz dagoen ere)

"Mogiminttu segun trase dan, truboyak eitteutzena arrotzeri, eta urtetako dausenak il eitte siren" - (Mugimendua antza denez, trumoiak egiten ziena arrautzei, eta irteteko daudenak hil egiten ziren)

"Ori da trugoi esaten da ori, trugoi, atzo in dau les" - (Hori da trumoia esaten da hori, trumoia, atzo egin duen lez)

trubunade: trumonada, ekaitza

trubunade denpore: trumonada sasoia

"Eta beste baten pasa yaten, trubunade denpore ixen san bero andi auki yun eta, nik an nonori eron ber nun errekaduren baten edo seuser, eta onek auki yaun or goyen, lantzarran bedarra ebaitte, pillon imintte, bueno dana itxi barik ba, ya ke ebaitte daun, karretillaas yo nitten eta sardeas kargateko, grasik yo nittena sardeas, batzutan eskues kargate san ta, baya atan egunen sardeas yo nitten, asi nitten kargaten, ukus nun, a, seran, baya pillo bat einte subek, baya ainbest egon siren" - (Eta beste baten pasatu zitzaidan, trumonada sasoia izan zen bero handia eduki zuen eta, nik han nor edo nori eroan behar nuen errekaduren baten edo zer edo zer, eta honek eduki zuen hor goian, lantzarrean belarra ebakita, piloan ipinita, beno dena utzi barik ba, ebakita dagoenez gero, karretilarekin joan nintzen eta sardarekin kargatzeko, eskerrak joan nintzena sardarekin, batzuetan eskuarekin kargatzen zen eta, baina egun hartan sardarekin joan nintzen, hasi nintzen kargatzen, ikusi nuen, zerean, baina pilo bat eginda sugeak, baina hainbeste egon ziren)

ure andi: ur handia, uriola

uriola: uriola

"Orre pai, orrek angillek asko, or bertan, seran, uriolatan, uriolatan, seran, gero kalmate sanen, ordun imiñi orretarango arrak" - (Horiek bai, horiek angirak asko, hor bertan, zerean, urioletan, urioletan, zerean, gero baretzen zenean, orduan ipini horietariko arrak)

yusturi: justuria, tximista

BERANGOKO HIZTEGIA

"Bueno ta okitteko da, yusturi bildurre" -
(Beno eta edukitzeko da, justuria bildurra)

"Nauk ikus doas, a, birriten edo, nauk ikus dot yusturi yausi, eta, piñu ebaitte, ebai e! piñu" - (Neuk ikusi ditut, birritan edo, neuk ikusi dut justuria jausi, eta, pinua ebakita, ebaki e! pinua)

"Elixako seratan ekarte san, ure bireinkitu, eta aste sirenen, a, truboyak eta yusturik, aste sirenen, portalen botate san ure" - (Elizako zeretan ekartzen zen, ur bedeinkatua, eta hasten zirenean, trumoiak eta justuriak, hasten zirenean, atarian botatzen zen ura)

11.3. ELURRA-LEIA

abasuse: abazuza, txingorra

"Abasuse ta arri ba, bardiñe tire" -
(Abazuza eta harria ba, berdinak dira)

arri: harria

edurre: elurra

"Urte ties edurrik estauna" - (Urteak dira elurrik ez dagoena)

"Ara yote gintzen negun, a, edurre ta olan eitteurenen, se ordun edurre bere asko eitteun, ta an yarritte, an egoten gintzen, lau edo bost an" - (Hara joaten ginen neguan, elurra eta hola egiten zuenean, ze orduan elurra ere asko egiten zuen, eta han jarrita, han egoten ginen, lau edo bost han)

edur metxe: elur metxa, elur maluta

edurtze: elurtza

"Len, a, edurre bere emen, a, edur barik esan pasaten, a, edurtze bi edo iru negu dustitten" - (Lehen, elurra ere hemen, elur barik ez zen pasatzen, elurtza bi edo hiru negu guztietan)

edur ure: elur ura

errusio: ihintza

errusio nagosi: ihintz nagusia, freskura

"Freskure ba, illundetan, a, errusio nagosi daunen, selau freskure dau!" -
(Freskura ba, ilundetan, ihintz nagusia dagoenean, zelako freskura dago!)

freskure: ilundeko hotza, ihintza

"Gaueko freskureas aguantaten dau giau" -
(Gaueko ihintzarekin irauten du gehiago)

kaskaragarra: kazkaragarra

"Kaskaragarra, kaskaragarra beste ba ta, kaskaragarra gaur bere yausiko litte, baya txotorra elite yausi" - (Kazkaragarra, kazkaragarra beste bat da, kazkaragarra gaur ere jausiko litzateke, baina txotorra ez liteke jausi)

kristela: kristala, ur-potxingoetan izozten den ura

lei baltza: lei beltza, ikusten ez den leia izaten da, baina ikusi ez arren lurra gogortu egiten du

"Esta ikusten suri baya gogortu otzaas, lai baltza" - (Ez da ikusten zuri baina gogortu hotzarekin, lei beltza)

lei suri: lei zuria

"Ori lurre ite san atxiñe, labra goxeti, neguko, serak, yausten diren onek, a, leye, lei baltza ta lei suri, lei baltza da gogorrena, lei baltza yausten danen, eiten ditu, orrek lurrek eiten dire erre, aunke ixeten dire gogorrek" - (Lur hori egiten zen antzina, landu goizetik, neguko, zerak, jausten diren hauek, leia, lei beltza eta lei zuri, lei beltza da gogorrena, lei beltza jausten denean, egiten ditu, lur horiek egiten dira erre, nahi eta izaten diren gogorrek)

leye, laye: leia

"Layek erreusen danak" - (Leiak erre zituen denak)

"Orrek gero ba, layeas ta axeas, ta eguskies ixete san, gero garandu intten dires" -
(Horiek gero ba, leiarekin eta haizearekin, eta eguzkiarekin izaten zen, gero garandu egiten dira)

txotorra: txingor txiki, elur maluta txikia baina gogorra

"Abasuse da bat, ta txotorra da edurre" -
(Abazuza da bat, eta txotorra da elurra)

txurru: txurrua, izotz kandela

"Oñ estires ikusten ba atxiñe negu gogorrauk intteusen ta, txurruk, txurru tire orrek" -
(Orain ez dira ikusten ba antzina negu gogorrakoak egiten zituen eta, txurruak, txurruak dira horiek)

11.4. HAIZEA

afrontu: afrontua

axe: haizea

BERANGOKO HIZTEGIA

"Gariñe txarrena da, txorik, osten garik bapes, gari ereiñ itten dosu, ta sortxen da emen, a batxen dosu, yoten dosu, eta gero a, axeas edo makiñe, len esan oten makiñe, axeas, ba autze kentzeko" - (Gariarena txarrena da, txoriak, ostean gariak bat ere ez, garia erein egiten duzu, eta sortzen da bertan, hura batzen duzu, jotzen duzu, eta gero hura, haizearekin edo makina, lehen ez zen egoten makina, haizearekin, ba hautsa kentzeko)

"Espabere axek artxen badau, badoa, galtzen da" - (Ezpabere haizeak hartzen badu, badoa, galtzen da)

"Eseun ainbeste iguskik erreten, a, axe freskotxues" - (Ez zuen hainbeste eguzkiak erretzen, haize freskotxoarekin)

axe ierra: haize igerra

axe nagosi: haize nagusia, haize indartsua

enbraxe, enbran axe: hego haizea

"Enbran axe dabil gaur" - (Herriko haizea dabil gaur)

erriko axe: herriko haizea, hego haizea

"Erriko axeas gitxitten intten dau auri" - (Herriko haizearekin gutxitan egiten du euri)

"Erriko axe ori da bai" - (Herriko haizea hori da bai)

gallegu: mendebaldeko haizea

"Gallegu geitxen dotzu orko, Santurtzi aldeti datorrenari" - (Mendebala deitzen diogu horkoa, Santurtzi aldetik datorrenari)

itxosoko axe: itsas haizea, iparraldeko haizea

"Orti en jeneral emen auri intten daunen dator axeas, itxosoko axeas" - (Hortik gehienetan hemen euri egiten duenean dator haizearekin, itsasoko haizearekin)

norte: iparra

norteko axe: iparraldeko haizea

surre: hegoa

urrietako axe, urri axe: urrietako haizea, herriko haizea

"Urri axek falta dire, askotan esan dere gure sarrak, ba indabak siketuteko ta" - (Urrietako haizeak falta dira, askotan esan dute gure zaharrek, ba indabak sikatzeko eta)

12. ZERUA-ASTROAK

Atal honetan zerua eta astroei buruzko berbak batzen ditugu.

eguski, iguski: eguzkia

"Imiñi bere urreo egunen, illundin, a, nabarran, ya iguskik inderrik estekonen, espabere sentidu intten dau" - (Ipini ere hurrengo egunean, ilundean, nabarrean, ja eguzkiak indarrik ez daukanean, ezpabere sentitu egiten du)

"Guk intten gendun yaboya emon, eta gero eguskitten imiñi" - (Guk egiten genuen xaboia eman, eta gero eguzkitan ipini)

"Gero imintteula eguskin, a, seran, olan, a, alanbretan beres, orrek, a, selan dire orrek? oraiñ esinas akorda" - (Gero ipintzen zutela eguzkitan, zerean, hola, alanbreetan ere ez, horiek, zelan dira horiek? orain ezin naiz gomutatu)

eguski begire: eguzkita begira

eguski suri: eguzki zuria

"Orrek tripe betatu eskeronen, a, eguski suri artxen daure" - (Horiek tripa betez gero, eguzki zuria hartzen dute)

gerispe, gerespe: gerizpea

gerixe: geriza

goxeko ixerra: goizeko izarra

igertargi bete: iretargi betea

igetargi txikerra: iretargi txikerra

ilberan: ilbeheran

"Niri ilberan gustaten dat imintte" - (Niri ilbeheran gustatzen zait ipintzea)

"Erein bere, asi bere ilberan eitten du" - (Erein ere, hazia ere ilbeheran egiten dugu)

ilbere: ilbehera

"Gaur da ilbere igual, bariku te ilbere" - (Gaur da ilbehera beharbada, barikua eta ilbehera)

iretargi, igetargi: iretargia

"Ori, adittute auren se egunetan kosi eta se egunetan eiñ, iretargies edo gaur yon ber da ara, ebaitteko, berak yakitte aun, a, serati, a, iretargiñ, a, serati" - (Hori, aditzen zuten ze egunetan hartu eta ze egunetan egin, iretargiarekin edo gaur joan behar da hara, ebakitzeko, berak jakiten zuen, zeretik, iretargiaren, zeretik)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Estosu ikusten an, aittu an dau igetargi, aittu selaseko gixona daun an!" - (Ez duzu ikusten han, aditu han dago iretargia, aditu zelaseko gizona dagoen han!)

ixerra: izarra

ixerratu: izarratua

"Ixerratu ondo dau" - (Izarratua ondo dago)

karro nagosi: gurdi nagusia

karro txikerra: gurdi txikerra

seru: zerua

seru garbi: zeru garbia

seru gorri: zeru gorria, oskorria

ur bixik: ur biziak

ure bera: uren behera, ilbehera

ure gora: uren gora, ilgora

ur illek: ur hilak, ilbehera

13. INGURUNEA

Inguruneari buruzko berbak aurkezten dira atal honetan. Azpi-atalak herria, eraikinak, mendia, lurra-soroa, bideak, errekek eta itsasoa izango dira.

13.1. HERRIA-ERAIKINAK

abadetze: abadetxea

aldea: baserria

"Aldea andi euki gendun guk, baya saspian arten, saspi nebarreban arten erreparti gendun te, ba, kanpora bearren, nik ferrokarrillen ein doas, a, berrota lau urte" - (Baserri handia eduki genuen guk, baina zazpiren artean, zazpi nebarrebaren artean banatu genuen eta, ba, kanpora beharrean, nik trenean egin ditut, berrogeita lau urte)

"Amama esetu dot aldeako erropakas" - (Amama ezagutu dut baserriko arrokekin)

aldea etze, aldietze: baserria

"Aldea etzek egon dire an, nire tia an bixi san" - (Baserriak egon dira han, nire izekoa han bizi zen)

alkate: alkatea

"Alkate ixen san a, urte asko dire" - (Alkatea izan zen hura, urte asko dira)

almasena: biltegia

auso: auzotegia

ayuntaminttu: udala, udaletxea

"Gure aitte ixen san ayuntaminttuko munisipala" - (Gure aita izan zen udaletxeko udaltzaina)

"Gero seiaittik esaun ayuntaminttuk edo serak esin paga dala monitora" - (Gero seirengatik esan zuen udalak edo zerak ezin ordain dela monitorea)

barberi: bizartegia

barra: taberna

"An aukitteuren, a, olau bartxu bet, ba politto, e?" - (Han edukitzen zuten, holako tabernatxo bat, ba polito, e?)

barriade: auzunea

"Ori barriade da Karabigane" - (Auzune hori da Karabigane)

barrio: auzotegia, auzunea

"Gero beste dau, beste, erriko erriko da beste Santana bere, baya beste barrio bat da, baya antzekok" - (Gero bestea dago, bestea, herriko-herrikoa da bestea Santa Ana ere, baina beste auzune bat da, baina antzekoak)

baserri: baserria

"Baserri giau da an, an dau baserri giau bai Santanalden" - (Baserri gehiago dago han, han dago baserri gehiago bai Santa Ana aldean)

"Ni asi nitzen ni len, nire aitte, ba, baserri dustitteti, txarrik ilten ibiltte san" - (Ni hasi nintzen ni lehen, nire aita, ba, baserri guztietatik, txerriak hiltzen ibiltzen zen)

baserri etze: baserria

batzoki: batzokia

"Ori barri se or, o, barrio bat ei euden barri, ori ixen san, ori selan imintten daun Porroi edo ori, ori ixen san Batzoki, betiko Batzoki" - (Hori berria ze hor, auzotegi bat egin zuten berria, hori izan zen, hori zelan ipintzen duen Porroi edo hori, hori izan zen Batzokia, betiko Batzokia)

botike: botika

dende: denda

"Dende imiñi eun gero" - (Denda ipini zuen gero)

"Orre tire otzarak, dendara eroteko" - (Horiek dira otzarak, dendara eroateko)

drogeri: drogeria

erresidentzi: erresidentzia

erri: herria

BERANGOKO HIZTEGIA

"Bai diferentzi erri beterik bestera egote san" - (Bai desberdintasuna herri batetik bestera egoten zen)

"Ori itte san bertan, a, erriko etzen" - (Hori egiten zen bertan, herriko etxean)

"Emeti Berango da Pososabaleraño" - (Hemendik Berango da Pozozabaleraino)

"Nik entzute dekot beti, se ori, Gorrondatxe dana, Berangora sertxe sana beti, baya afari beten, a, jefalto batzuk, erriko jefalto batzuk eta Sopelakok, karta yokon olga yaudela, a nok irebasten daun lotxen dala, Getxo edo Berango eta ordun Getxo lotu sala, se Berango doa ara bertaraño" - (Nik entzutea daukat beti, ze hori, Gorrondatxe dena, Berangora zertzen zena beti, baina afari baten, nagusi batzuk, herriko nagusi batzuk eta Sopelakoak, karta jokoan egin zutela, nork irabazten duen lotzen dela, Getxo edo Berango eta ordun Getxo lotu zela, ze Berango doa hara bertaraino)

"Emen Berangon, a, Santana bera esateuren estala erriko, Berango" - (Hemen Berangon, Santa Ana bera esaten zuten ez dela herrikoa, Berango)

"Berango Pososabalen akabaten da" - (Berango Pozosabalen amaitzen da)

"Erri pasa baño lelau, alan dau eskerretara bidetxu bet" - (Herria pasatu baino lehenago, hala dago ezkerretara bidetxu bat)

erriko taberne: herriko taberna

"Gero egon san erriko taberne, erriko, ixen san ermandade pagaten yote sana" - (Gero egon zen herriko taberna, herrikoa, izan zen ermandadea ordaintzen joaten zena)

"Oñ erriko tabernarik ya estau" - (Orain herriko tabernarik ja ez dago)

"Bai ori itteuren, lelau ixen san emen, eta gero, denpora giau pasa sanen, eitteuen orra, oraiñ, e, frontoi daun lekun, ori ixen da erriko taberne, ori ixen da ta or itteuen, erremate esate yeuren" - (Bai hori egiten zuten, lehenago izan zen hemen, eta gero, denbora gehiago pasatu zenean, egiten zuten horra, orain, frontoia dagoen lekuan, hori izan

da herriko taberna, hori izan da eta hor egiten zuten, erremata esaten zuten)

eskola ondo: eskola ondo

"Or eskola ondon etze sar bat eon san, oin bota ein daude" - (Hor eskola ondoan etxe zahar bat egon zen, orain bota egin dute)

estanku: estankoa

estasiño: geltokia

"Bertan egon da estasiño" - (Bertan egon da geltokia)

"Emen aor Berangon estasiñon goikalden bixi da, an dau etze sar bat ontxe botateko dau antza" - (Hemen haor Berangon geltokiaren goialdean bizi da, han dago etxe zahar bat oraintxe botatzeko dago antza)

etzalde, etzealde: baserria

"Ordun ba etzealde sobra egote siren, gaur etzealderik estau" - (Orduan ba baserri sobra egoten ziren, gaur baserririk ez dago)

fabrike: fabrika, lantokia

"Emen fabrike batzuk para siren, asi san jente etorten kanpoti eta etorte san bat eta gero bearra eukitteun, a, fabriken eta ain lagune edo lengusu edo beran anaje edo beste edo beste edo" - (Hemen fabrika batzuk paratu ziren, hasi zen jendea etortzen kanpotik eta etortzen zen bat eta gero beharra edukitzen zuen, fabrikari eta haren laguna edo lehengusua edo beraren anaia edo bestea edo bestea edo)

farmasi: botika

"Or bean egote san, ortxe, a, oñ farmasi daon lekun? aputxu aputxu bet beratxuau" - (Hor behean egoten zen, hortxe, orain botika dagoen lekuan? apurtxo-apurtxo bat beheratxoago)

frontoya: frontoia

"Ara yon siren yantzan, frontoyan" - (Hara joan ziren dantzari, frontoian)

gasolinere: gasolindegia

"Gasolinere bakixu non daun, esta? ba orren paren dau" - (Gasolindegia badakizu non dagoen, ezta? ba horren parean dago)

jardiñe: lorategia

kalle: kalea

karneseri, karniseri: harategia

"Niri, a, ollasko oin bere estata gustaten ba an karneserin txikertute ekarte, niri gustaten dat ollasko, osorik ekarri, eta gero erre itten dot apur bet" - (Niri,

BERANGOKO HIZTEGIA

oilaskoa orain ere ez zait gustatzen ba han harategian txikertuta ekartzea, niri gustatzen zait oilaskoa, osorik ekarri, eta gero erre egiten dut apur bat)

"Karniserin dekot" - (Harategian daukat)

kontzejala: zinegotzia

labadero: garbitokia, ikuztegia

matadero: hiltegia

"Mataderon eitten dau bear, mataderon urte asko, okelak errepartitten" - (Hiltegian egiten du behar, hiltegian urte asko, okelak banatzen)

"Algortan, a, Getxon or Alangosen egon san matadero" - (Algortan, Getxon hor Alangosen egon zen hiltegia)

"Ni asi nitzen amalau urteas mataderon bearren, se ara yote nitzen gastetarik, e, mataderora ganaduk eroten" - (Ni hasi nintzen hamalau urterekin hiltegian beharrean, ze hara joaten nintzen gaztetatik, hiltegira ganaduak eroaten)

panaderi: okindegia

"Es, es, guk io ta gero emon eitten gendun, oiñ, a, guk, panaderitten emoten gendun, a, urune, edo a sera, guk pasten gendun, e? ori bai" - (Ez, ez, guk eho eta gero eman egiten genuen, orain, guk, okindegietan ematen genuen, irina, edo zer hura, geuk pasatzen genuen, e? hori bai)

parke: parkea

pasteleri: pasteleria

pelukeri: ile apaindegia

"Gure ama pelukerire yote san aste dustitten" - (Gure ama ile apaindegira joaten zen aste guztietan)

pentzu almasena: pentsu biltegia

"Gero gerra osten, ba gero ote san or almasena bat, pentzu almasena bat" - (Gero gerra ostean, ba gero egoten zen hor biltegi bat, pentsu biltegi bat)

peskaderi: arrandegia

pisu: solairua

plase: plaza

sapateri: zapata denda

"An dau bat ondiñokarren, sapateri, portale andi be teko barrun ni beti yote nas" - (Han dago bat oraindikarren, zapata denda, atari handi bat dauka barruan ni beti joaten naiz)

serbesere: garagardotegia

silu: siloa, tegia, bihitegia

taberne: taberna

"Oin dana da tabernatan" - (Orain dena da tabernetan)

"Sopelako ikastolan kosiun taberne" - (Sopelako ikastolan hartu zuen taberna)

"Aitteas egon garen taberne ixi deue" - (Aitarekin egon garen taberna itxi dute)

"Or atxiñe taberne egon san, eta orrek erositteuen" - (Hor antzina taberna egon zen, eta horiek erosi egiten zuten)

tallerra: tailerra

"Nik tallerren bere gitxi, ni kanpoti giau ibil nas" - (Nik tailerrean ere gutxi, ni kanpotik gehiago ibili naiz)

tejabana: tejabana

torre: dorrea

torretze: dorretxea

"Torretze da sera, Basagoiti" - (Dorretxea da zera, Basagoiti)

trenbide: trenbidea

"Etze bi egote siren an ondon, trenbiden ondon" - (Etxe bi egoten ziren han ondoan, trenbidearen ondoan)

"Bai baya oin, emoten dau alan aparteko dala, ese len trenbide egon san, oin sarratute daun lekutik" - (Bai baina orain, ematen du hala apartekoa dela, eze lehen trenbidea egon zen, orain itxita dagoen lekutik)

txabole: txabola

"Ondikarren txabolan dekot" - (Oraindikarren txabolan daukat)

"Eskeitte itxi auren an, a, kanpoko txabolan" - (Eskegita utzi zuten han, kanpoko txabolan)

"Nik euki nusen txakur bi or, txabola baten" - (Nik eduki nituen txakur bi hor, txabola baten)

txaleta: txaleta

"Berangon errebueltan orrek txaletak eintte dausenak, a, elixati berantzakoan, or egon san etzalde, eta bota i yauren" - (Berangon bihurreen txalet horiek eginda daudenak, elizatik beherantzakoan, hor egon zen baserria, eta bota egin zuten)

txoriseri: txorizeria

uri: hiria

13.2. MENDIA

abaro: abaro, baso zarratu, lohia

BERANGOKO HIZTEGIA

"Ondiño baku or abaron, gurbixe" -
(Oraindino badaukagu abaroan,
gurbitza)

"Orbela or abaron dau" - (Orbela hor
abaroan dago)

aldasbere: aldats behera

"Ori aldasbera dusti burus aurrera, gixajo,
dana markata yote san etzera" - (Aldats
behera guzti hori buruz aurrera,
gizajoa, dena markatuta joaten zen
etxera)

aldatza: aldatsa

"Gero aldatzati olan, aiden yoten da andi
bera" - (Gero aldatsetik hola, airean
joaten da handik behera)

altakurre: altakurra, aldraka, muinoa

arri: harria

atxa: haitza

"Bean badeko atxa, esa lei lur mea, bai" -
(Behean badauka haitza, esan daiteke
lur mehea, bai)

atxarte: haitz-arte

aurbere: aurbehera

"Orti etorri eta aurbere dana pasa, eta orti
searren bixi nas ni eskerretara, andi
datorrena eskoatara" - (Hortik etorri
eta aurbehera dena pasatu, eta hortik
zeharreen bizi naiz ni ezkerretara,
handik datorrena eskoatara)

barranko: troka

baso: basoa, mendia

"Erretan dau baso" - (Erretzen dago
basoa)

"Len atxiñe, ba, garbitte sieles basok, eta
an topaten yateko, baya oin daules, ote
ta sarratu, loyen estau topaten yateko
ta, emen dabiltes" - (Lehen antzina,
ba, garbitzen ziren lez basoak, eta han
topatzen jateko, baina orain dagoen lez,
otea eta zarratu, lohian ez du topatzen
jateko eta, hemen dabilta)

"Ori kanposantu goiko bere, ori baso
dusti, ori Agarrekok iruen arten, ori
dana, dana sertu san, se ori baso bat
ixen san" - (Hori kanposantu goikoa
ere, hori baso guztia, hori Agarrekoek
hiruen artean, hori dena, dena zertu
zen, ze hori baso bat izan zen)

"Baso asko deko Berangok, au dana da,
sera, baso" - (Baso asko dauka
Berangok, hau dena da, zera, basoa)

"Ordun basok kurioso ote siren" - (Ordun
basoak ondotxo egoten ziren)

"Onek danak ixen siren basok" - (Hauek
denak izan ziren basoak)

baso ertza: baso ertza

baso eskiñe: baso bazterra

begade: begada, ibarra

"Len, a, ikusten gendun baya emeti, olau
begadatan ta seran baya oiñ ya, e, agertu
estire itten" - (Lehen, ikusten genuen baina
hemendik, holako ibarretan eta zeretan
baina orain ja, agertu ez dira egiten)

bege: begada, ibarra

"Ori bege san t'ureas betatute san negun ori"
- (Hori ibarra zen eta urarekin betetzen
zen neguan hori)

"Emen bere, bai began bere egote siren iru
edo lau gustate akenak" - (Hemen ere, bai
ibarrean ere egoten ziren hiru edo lau
gustatzen zitzaienak)

espalde: malda

gana: gaina, gailurra, tontorra

"Ontxe urte bi, a, egunen egunen egunen
yoten gintzesen, a, emen Arrigunen asi tte
arik eta Plentziko ganerarten" - (Oraintxe
urte bi, egunean-egunean-egunean joaten
ginen, hemen Arrigunen hasi eta harik eta
Plentziako gaineraino)

itze: zitza

kantere: harrobia

"Arri ordun, a, gure kanteran eitte san" -
(Harria ordun, gure harrobian egiten
zen)

karabi: karobia

leku: lekua

"Orrek gure baye tabiltzesen lekun ori aspiñ?
olau asko dau" - (Horiek gure behiak
dabilta lekuan hori azpian?)

lexe: leizea

mendi: mendia

"Gero yongo gare mendire surok egon saren
lekure" - (Gero joango gara mendira zuek
egon zareten lekura)

"Len ganadu emen mendiñ ibiltte san, eta
yakitete nondi dabillen" - (Lehen
ganadua hemen mendian ibiltzen zen, eta
jakitete nondik dabilen)

"Berangok mendi tekos asko baya osten esta
andi Berango" - (Berangok mendiak
dauzka asko baina ostean ez da handia
Berango)

mendi gane: mendi gaina

BERANGOKO HIZTEGIA

"Emeti alde mendi ganeti da Berango onantza eta a arantza, Sopela" - (Hemendiko alde mendi gainetik da Berango honantz eta hura harantz, Sopela)

paraje: ingurunea

"Emen, emen, paraje onetan esta ikusi ori" - (Hemen, hemen, paraje honetan ez da ikusi hori)

sakoste: sakosta

"Sakostan dekosu" - (Sakostan daukazu)

sasiarte: sasi-arte

sasi ondo: sasi ondo

"Etzerantza etor sirenen tenporala, eskuk alkarrerri oratu, ta makurtute ta sasi ondotatik, etor siren etzera, ordun ba talletuk eta mogidu eusen" - (Etzerantz etorri zirenean denborala, eskuak elkarri oratu, eta makurtuta eta sasi ondoetatik, etorri ziren etxera, orduan ba teilatuak eta mugitu zituen)

searra: zeharra, zeharrunea

searrune: zeharrunea, leuna den lur saila, aldats bakoa

sulo: zuloa

troke: troka

"Beko parten errekek yoten dosku beko parte, troke, troke" - (Beheko partean errekek jotzen digu beheko partea, troka, troka)

"Troke da baso biñ, baso altu bin sera, troke esaten dako" - (Troka da baso biren, baso altu biren zera, troka esaten zaio)

tunturre: tontorra, gailurra

13.3. LURRA-SOROA

are: harea

are baltza: harea beltza

"Neguten yoten gintzen arreglaten, geuk arreglaten gendun bide, arrik apurtu, betatu sulok, eta are baltzaas tapa" - (Neguetan joaten ginen konpontzen, geuk konpontzen genuen bidea, harriak apurtu, bete zuloak, eta harea beltzarekin tapatu)

are lurre: harea-lurra

"Ba emen daus, emen dau por ejemplo, oneri esaten dotzu, are lurrek, dire, lurrek fasillauk bear eiteko" - (Ba

hemen daude, hemen dago esate baterako, honi esaten diogu, harea-lurra, dira, lurra errazagoak behar egiteko)

"Are lurre bai, dana aretu, ori baso dusti da are lurre" - (Harea-lurra bai, dena hareatu, baso hori guztia da harea-lurra)

arri mune: harri-muna

barrena: barrena

basa bustiñe: basa buztina

bedarleku: belarlekua

"Lantzarra da bedarleku" - (Lantzarra da belarlekua)

bustiñe: buztina

"Bustiñe, ori gogorra, uf! enei! orrek artesaten, orrek bear dere satza naye, orrek, orrek!" - (Buztina, hori gogorra, uf! enei! horiek artezatzen, horiek behar dute satsa nahia, horiek, horiek!)

eguski begi: eguzki begia

"Eguski begiñ askos obeto!" - (Eguzki begian askoz hobeto!)

ertza: ertza

estakade: taketaz egineko hesia

estake: taketa

"Estakarik onena arkasi da" - (Taketik onena arkazia da)

"Emen, emen estakakas ixi da kasi beti, nik esetu dotena emen, oin Berangon badaus ukusten dires selan daun ixite arries" - (Hemen, hemen taketekin itxi da kasik beti, nik ezagutu dudana hemen, orain Berangon badaude ikusten dira zelan dagoen itxita harriarekin)

ixi: itxia, hesia

karkabe: karkaba

"Ordun ba karkabatan ta, edo errefujiok intte ta, ostuten gintzesen abiasio, a, arik eta martxa arten" - (Orduan ba karkabetan eta, edo aterpeak eginda eta, ezkututzen ginen abiazioa, harik eta alde egin arte)

karraske: karraska, lur mota bat

"Emeti estau orretariko asko, dekenak, a, arri sati asko, orreri esaten dotze karraske" - (Hemendik ez dago horietariko asko, daukatenak, harri zati asko, horri esaten diote karraska)

kayuele, kayuela: kaiuela

"Bai badakit selau lurre dan kayuele" - (Bai badakit zelako lurra den kaiuela)

"Emen urte yoskun guri, atara yeunen, a, posok ei yeusen emen, sondea eusen ure atarateko, ta urte yoskun aspiti kayuelek,

BERANGOKO HIZTEGIA

da olau, lur klaru bet" - (Hemen irten zigun guri, atera zuenean, putzuak egin zituen hemen, sondeatu zituen ura ateratzeko, eta irten zigun azpitik kaiuelak, da holako, lur argi bat)

"Ta esaten de, ure atateko ta, kayuele teko, ur asko dekola" - (Eta esaten dute, ura ateratzeko eta, kaiuelak dauka, ur asko daukala)

"Kayuele aukiko dau nastata" - (Kaiuela edukiko du nahastuta)

"Kayuela bai, amen, ointxe gaus kayuelan ganen gu, onek dusti tires kayuelak" - (Kaiuela bai, hamen, oraintxe gaude kaiuelaren gainean gu, hauek guztiak dira kaiuelak)

"Ementxe gaus kayuelan ganen, gure terreno dustik kayuela tires" - (Hementxe gaude kaiuelaren gainean, gure lur sail guztiak kaiuelak dira)

kontrasola: ainubea

kontraterreno: kontraterrenoa

"Eta olau tronkok altzateko lurreas, a, albo betatu, emen, a, esan olan eiñ, baya orrek etzealde dustik deke kontraterrenon eintte etzek, muna andi, eta an albon etze itten, eta gero andi munatik, altza orrek tronkok" - (Eta holako enborrak altxatzeko lurrarekin, alboa bete, hemen, ez zen hola egin, baina horiek baserri guztiek daukate kontraterrenoan eginda etxeak, muna handia, eta han alboan etxea egiten, eta gero handik munatik, altxatu enbor horiek)

landa miñe: landa mina

"Lantzarra ta landamiñe dana da bat" - (Lantzarra eta landa mina dena da bat)

lande: landa

lantzarra: lantzarra

"Senbest bider yon igual, a, lantzarran ibilli pasteaten ta, yon artaburuk yaten, artora ta, Linda! Txata! edo, usenati esan ta ra! buelta erdi emon ta, bai itxi yateri" - (Zenbat bider joan beharbada, lantzarrean ibili bazkatzen eta, joan artaburuak jaten, artora eta, Linda! Txata! edo, izenetatik esan eta ra! buelta erdi eman eta, bai utzi jateari)

"Au dusti ixen san lantzarra" - (Hau guztia izan zen lantzarra)

"Eta gosea aor lantzarratan, e? sarri egon gares emeti, eskopetaas ego littike ba, surittu lantzarra pere bea, surittu, e! ori da gose" - (Eta gosea haor lantzarretan, e? sarri egon gara hemendik, eskopetarekin egon liteke ba, zuritu lantzarrek ere behea, zuritu, e! hori da gosea)

larrena, larrene: 1. larraina, satsa egiteko etxaurrean egiten zen sakonunearen izena.
2. etxe aurreko soro zatia

"Atxiñe sera ote san larrenan, labasuk eitteko, labasuk eitteko terrenotxu olau labasu eitteko, amen aurren on san" - (Antzina zera egoten zen larrainean, labasuak egiteko, labasuak egiteko terrenotxu holako labasua egiteko, hamen aurrean egon zen)

"Larrena ori da, esta? aurrekaldea?" - (Larraina hori da, ezta? aurreko aldea?)

latziñe: latzina, belarlekua

"Latziñe ba, dires, a, bason ixeneko leku bedarleku imintten dosu" - (Latzina ba, dira, basoan izaneko lekua belarleku ipintzen duzu)

luame: luama, lur mota bat

"Lurre eta diferentek daus, one tie luame, onek beak, t'or goyen deku beste, a, solo bat, eta a da lur biorra" - (Lurra eta desberdinak daude, hauek dira luama, behe hauek, eta hor goian daukagu, bestea, soro bat, eta hura da lur bihurra)

"Bueno emen geitxuten tzu guk luama, auntxe baja saren lekuti, e? orrek solok luama ties, fasillek maneiateko, baya kosetxarako, emen ikusi dune da, lur biorrak esaten dake, esta? lur biorrak, gatxak, makiñetan bere enei! idi pere miñek atarata, gatxaok, ta areri bota satza naye, ta ingeruk, kosetxa obak, kosetxa obak, asko obak" - (Beno hemen deitzen diogu guk luama, oraintxe baxatu zaretan lekutik, e? soro horiek luamak dira, errazak erabiltzeko, baina uztarako, hemen ikusi duguna da, lur bihurrak esaten zaie, ezta? lur bihurrak, gaitzak, makinatzen ere enei! idiak ere mihia aterata, gaitzagoak, eta haiei bota satsa nahia, eta inguruak, uzta hobeak, uzta hobeak, asko hobeak)

lur baltza: lur beltza

"Orre tire lur baltzak" - (Horiek dira lur baltzak)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Lur baltzak an goyen daus, orrek lurre tire onak patatarako, ta garireko" - (Lur beltzak han goian daude, lur horiek dira onak patatarako, eta garirako)

"Lur baltza tires, kasu baterako, aor dausenak, aor, goiko etzen ondoren, orre tires lur baltzak, bigunek, baya orrek satza ber dere asko, bota in ber dake jenero, gero urten diñ, a, kosetxek" - (Lur beltzak dira, kasu baterako, haor daudenak, haor, goiko etxearen ondoan, horiek dira lur beltzak, bigunak, bigunak, baina horiek satsa behar dute asko, bota egin behar zaie gauza, gero irten dezan, uztak)

lurbarri: lur berri

"Lurbarri esate akon" - (Lur berria esaten zitzaion)

lur biorra: lur bihurra, lur gogorra

lur mea: lur mehea

lurre: lurra

"Orrek, a, goiko lurrek, patatarako onek estires ese intten diren gero, a gogortu sano, esta? artorako bai, eta satza gitxiaues, kosten da, onetan beatan baño, a, kosetxe ona" - (Horiek, goiko lurrak, patatatarako hauek ez dira eze egiten dira gero, hura gogortu sano, ezta? artorako bai, eta sats gutxiagorekin, hartzen da, behe hauetan baino, uzta ona)

"Bueno estaki se lurre dekon bere!, estaki ak" - (Beno ez daki ze lur daukan ere! ez daki hark)

"Estau lurrik, eta siketerako da gogorra, ariñau siketan dala esaten de" - (Ez dago lurrik, eta siketerako da gogorragoa, arinago sikatzen dela esaten dute)

munarri: munarria

"Gero munarrik imintteusen, baya asikera talleas eitteuren dusti ori" - (Gero munarriak ipintzen zituen, baina hasieran teilarekin egiten zuten hori guztia)

mune: muna

"Bai se artok ya erneta egote siren, eta sarri askotan munera, munetan botate san, a, erreka, a, saskillari botate san" - (Bai ze artoak ja erneta egoten ziren, eta sarri askotan munera,

munetan botatzen zen, erreka, saskillari botatzen zen)

musturre: musturra, txantela

ortu: ortua

"Orture botaten gendusen autzek" - (Ortura botatzen genituen hautsak)

palatu: palatua

"Bai palatuk atate siren basotan, or bason daus palatu asko atata" - (Bai palatuak ateratzen ziren basoetan, hor basoan daude palatu asko aterata)

pastu: barrutia, larrea, belarra jateko lekua

"Aiba! baya murruseka, selan da ori ba? pasture botata, etor san ori sube, baya luse, e? eta ie yotzon olan ankati, bueltan bueltan bueltan, edan esne dusti!" - (Aiba! behia murrusaka, zelan da hori ba? barrutira botata, etorri zen suge hori, baina luzea, e? eta igan zion hola hankatik, bueltan-bueltan-bueltan, edan esne guztia!)

pradu: belarlekua

"Bayek pradutera ta makiñetan ta ori ber sanen ittaurren, ittaurren" - (Behiak belarlekuetara eta makinatzen eta hori behar zenean itaurrean, itaurrean)

"Eta auki du pradu intte, bedarra, bota abonok eta bedarra" - (Eta eduki dugu belarleku eginda, belarra, bota ongarriak eta belarra)

salle: saila, lur saila

sarratu, serratu: barrutia

"Aste beten euki neun beraas alan, e, serratu beten" - (Aste baten eduki nuen berarekin hala, barruti baten)

solo: soroa

"Gitxiau koste san baya solo askon intte sales, ba arto ta indaba gayena san" - (Gutxiago hartzen zen baina soro askotan egiten zen lez, ba artoa eta indaba gehiena zen)

"A solori solo ibiltte san, Katiken auki auren olau makiña bat" - (Hura sororik soro ibiltzen zen, Gatikan eduki zuten holako makina bat)

soloarte: soro-arte

solo barrena: soro barrena

solo barri: soro berria, lur berria; lehen basoa izanekoa soro eginda

"Ba estaitx, guk baso auki du, gero, labra, garbitxu, ta labra ta solo barri" - (Ba ez

BERANGOKO HIZTEGIA

dakit, guk basoa eduki dugu, gero, landu, garbitu, eta landu eta soro berria)

"Solo barri in du" - (Soro berria egin dugu)

solo buru: soro burua, soro goiena

solo ertza: soro ertza

solo goyena: soro goiena

"Guk solo goyena bai, solo goyena eta mune esaten tzu guk" - (Guk soro goiena bai, soro goiena eta muna esaten diogu guk)

solo musturre: soro musturra

terreno: terrenoa, lur saila

"Terreno asko aukitten dun labrateko dusti" - (Terreno asko edukitzen genuen lantzeko guztia)

"Areri emoetzean aittek eta amak onek esan dauna, oiñ akordate nas, terreno sati bet, etze bat ein deiñ" - (Hari ematen zioten aitek eta amak honek esan duena, orain gomutatzen naiz, terreno zati bat, etxe bat egin dezan)

txantela: txantela, solo txikia

"A! txikitxu tirenak txantela, alau, a, sera, metro bi edo olan deukesenak" - (A! txikitxoak direnak txantela, halako, zera, metro bi edo hola dauzkatenak)

"Eskiñeri, esaten dako, bai, gu pere, a txantela, soas, lastana, an daus babak, ereinte, ta batusus baba batzuk" - (Izkinari, esaten zaio, bai, guk ere, hura txantela, zoaz, lastana, han daude babak, ereinda, eta batu itzazu baba batzuk)

13.4. BIDEAK

arrate: erromada, egurren bidez egiten den barrera bideetan ganadua ez pasatzeko

"Emen esaten da arrate, olan daunen ixi bet, ixite" - (Hemen esaten da arratea, hola dagoenean itxi bat, itxita)

bide: bidea

"Ama ba, Portaltera yote siren, burun bendeje, berdure ta serak, esta? ta bueltan ogi ekarteun, eta ama begire, ia nos datorren andi ogies, bidera urteteko" - (Ama ba, Portaltera joaten ziren, buruan bendeja, berdura eta zerak, ezta? eta bueltan ogia ekartzen

zuen, eta ama begira, ea noiz datorren handik ogiarekin, bidera irteteko)

"Artzubikok Iturgitxire esiren bajaten, Artzubiko bide auki euden aurek" - (Artzubikoak Iturgitxira ez ziren baxatzen, Artzubiko bidea eduki zuten eurek)

"Len esan biderik on orrarte bere" - (Lehen ez zen biderik egon horraino ere)

"Ori bide in dana da, amabos bat urte ingeru, arten esta egon biderik" - (Bide hori egin dena da, hamabost bat urte inguru, artean ez da egon biderik)

bide ertza: bide ertza

erramade, erramare: erromada, egurren bidez egiten den barrera bideetan ganadua ez pasatzeko

"Batzuk esaten de arrate, beste batzuk esaten de erramare" - (Batzuek esaten dute arratea, beste batzuek esaten dute erromada)

errebuelte: errebuelta, bihurtzea

"Berangon errebueltan orrek txaletak eintte dausenak, a, elixati berantzakoan, or egon san etzalde, eta bota i yauren" - (Berangon bihurtzean txalet horiek eginda daudenak, elizatik beharantzakoan, hor egon zen baserria, eta bota egin zuten)

erribide: herri-bidea

estarte: estrata

"Emeti estarte egote san ordun" - (Hemendik estrata egoten zen orduan)

"Aitte yon san basora, gurdin ganen, ba estartati, e? eta eguskik kosi otzon buru, eta ill in san" - (Aita joan zen basora, gurdiaren gainean, ba estratetik, e? eta eguzkiak hartu zion burua, eta hil egin zen)

galipota: galipota

gurpide, gurdibide: gurdibidea

kamiño: kaminoa

"Or kamiñon eintten de ori" - (Hor kaminoan egiten dute hori)

"Oin pasten da autobuse kamiñoti, baya ordun pentza beres" - (Orain pasatzen da autobusa kaminotik, baina orduan pentsatu ere ez)

kamiño ertza: kamino ertza

"A ganeko sera, etzetxu, an kamiño ertza ertzan daune, Lagun Beti pasau, eta an ertza ertzan daune da, a da Sustetxa, Sustetxa Barri tte barruko beste sarra" - (Gaineko zer hura, etxetxoa, han kamino ertz-ertzean dagoena, Lagun Beti pasatu,

BERANGOKO HIZTEGIA

eta han ertz-ertzean dagoena da, hura da Sustatxa, Sustatxa berria eta barruko bestea zaharra)

kamiño eskiñe: kamino ertza

"Beste etze ba tau kamiño eskiñan" - (Beste etxe bat dago kamino ertzean)

kurbe: bihurtzea

kurtzio, kurtze: bidegurutzea

lur bide: lur bidea

"Ararte egote san bide, andi gora ona lur bide egote san" - (Haraino egoten zen bidea, handik gora hona lur bidea egoten zen)

oinbide: oinbidea, soroen artean batetik bestera pasatzeko egiten den bidea

"Oinbide da pasteko nopera" - (Oinbidea da pasatzeko norbera)

paso: pasabidea

13.5. ERREKAK-ITSASOA

area, are: harea

bajamara: marea beheara

barku: ontzia

bitze: bitsa, aparra

"Imiñi alau, a, puntan olau sera bat, eta, atara dille bitze, lar bota barik, orratxe sulora bota ber dako" - (Ipini halako, puntan holako zer bat, eta, atera dezala bitsa, lar bota barik, horraxa zulora bota behar zaio)

bote: botea

erreka ertza: erreka ertza

"Bai, bai, esetu doas orretaringok, erreka ertzatan" - (Bai, bai, ezagutu ditut horietarikoak, erreka ertzetan)

erreka eskiñe: erreka ertza

"Ori erreka eskiñetan dau, umedade daun lekun" - (Hori erreka ertzetan dago, hezetasuna dagoen lekuan)

erreke: erreka

"Errekara yoten giñen gu errope garbittuten, errekkara, orra bera" - (Errekara joaten ginen gu arropa garbitzen, errekkara, horra beheara)

"Guren on siren, e, erreke etorte san eta gero ote san, a, pasillotxu et, ubetu te erreke apartateko norbera pasateko baya eser beres" - (Gurean egon ziren, erreka etortzen zen eta gero egoten zen, pasabidetxo bat, ubetua eta erreka

banatzeko norbera pasatzeko baina ezer ere ez)

"Errekak oin bere badaus emeti, baya len baño ur gitxiau topaten dot nik, asko ure gitxiau" - (Errekak orain ere badaude hemendik, baina lehen baino ur gutxiago topatzen dut nik, asko ur gutxiago)

"Imiñi, a, beskari bet edo seran ta, topateusen, a, gixon batzuk eta benga! kodañakas eta atxurrekas ta garbittu itteusen errekkak, oiñ olauri pestau" - (Ipini, bazkari bat edo zerean eta, topatzen zituen, gizon batzuk eta tira! kodainekin eta aitzurrekin eta garbitu egiten zituen errekkak, orain holakorik ere ez dago)

gabarre: gabarra

"Ori iketza bai, baya ori ixte san, a, emen len estaitt ser gabarrak eta botate auren, emeko fabrika danak, Bilboti asitte fabrika asko egote san, eta gabarra bat egote san" - (Ikatz, hori bai, baina hori izan zen, hemen lehen ez dakit zer gabarrak eta botatzen zuten hemengo fabrika denek, Bilbotik hasita fabrika asko egoten zen, eta gabarra bat egoten zen)

itturri, iturri: iturria

"Arantza sosenen ori, kurbe, an, a, iturri bet egote san aurren aurreko daun etze? a da Agarre, ori da etze andiena Berangoko" - (Harantz zoazenean hori, errebuelta, han, iturri bat egoten zen aurrean aurrekoa dagoen etzea? hura da Agarre, hori da etxe handiena Berangokoa)

itxoso: itsasoa

"Atxiñe uden bere etorte san denpore bero igual, denpora ona, esta? eta or amarrak amar t'erdik amakak ingirun itxosoko brisetxu" - (Antzina udan ere etortzen zen eguraldi beroa beharbada, eguraldi ona, ezta? eta hor hamarrak hamar eta erdiak hamaikak inguruan itsasoko hozkirritxo)

"Itxoso esta txarra, e? ese otza esta itxoso" - (Itsasoa ez da txarra, e? eze hotza ez da itsasoa)

"Ordun jente asko yote san, orrek itxosok makiña bat diru emon dau" - (Orduan jente asko joaten zen, itsaso horrek makina bat diru eman du)

itxoso ertze: itsas ertza

itxoso eskiñe: itsas bazterra

koste: kostaldea

manantiala, manentia: iturburua

BERANGOKO HIZTEGIA

"Etzen eskendun auki ure, oin deku ure baya osten, len yoten gintzen orra, or bean auki gendun manantial bat eta ara manantialera yoten gintzen ure bille, eta Olatxixun bere, oiñ estaitt badeuke barrun, baya an aurren deuke manantiala ure kosteko" - (Etxean ez genuen eduki ura, orain daukagu ura baina ostean, lehen joaten ginen horra, hor behean eduki genuen iturburu bat eta hara iturburura joaten ginen ura bila, eta Olatxixun ere, orain ez dakit daukaten barruan, baina han aurrean daukate iturburua ura hartzeko)

marea, mare: marea

"Mare bajaten danen ordun" - (Marea baxatzen denean orduan)

"Mare? altzate sanen andi errekatari sartxe san, eta beti ure, emen es" - (Marea? altzaten zenean handik errekatari sartzen zen, eta beti ura, hemen ez)

marea bera: marea behera

"Karo yakiñ itteun, a, selan dan, marea gora edo marea bera selan diren" - (Jakina, jakin egiten zuen, zelan den, marea gora edo marea behera zelan diren)

marea gora: marea gora

motorra: motorra, ontzi txikia

oleatu: olatua

patiñe: patina

"Guk estu auki baya patiñek bai esetu doas" - (Guk ez dugu eduki baina patinak bai ezagutu ditut)

"Ya estire usaten, baya patiñe, txiker bat aor bere badau ondiarren" - (Ja ez dira erabiltzen, baina patina, txiker bat haor ere badago oraindik)

"Esta egon patiñik emen, nik estot esetu sekule, ta estot entzun bere, nire ama ta aitteri bere esaten se patiñe daula emen" - (Ez da egon patinik hemen, nik ez dut ezagutu sekula, eta ez dut entzun ere, nire ama eta aitari ere esaten ze patina dagoela hemen)

playe: hondartza

"Arik esetuteuren playe" - (Haiek ezagutzen zuten hondartza)

portu: portua

"Emeti es botarik, emeti Plentziara ta Algorta ta portura" - (Hemendik ez

botarik, hemendik Plentziara eta Algorta eta portura)

poso: putzua

"Kristela intte dau posotan" - (Kristala eginda dago putzuetan)

prese: presa, uharka

singere: zingira; itsasaldeko haitz-artean egiten diren ur potxingoak

subi: zubia

"Senbest bider pasa dot, e, au subi eta esa neutzen ni pere bai makiña bat bider, astoas, pasate san an" - (Zenbat bider pasatu dut, zubi hau eta esan nion nik ere bai makina bat bider, astoarekin, pasatzen zen han)

ure: ura

"Imin gendun se urerik esan oten uden, uden urerik egon esaleas, imin gendusen guk orrek, guren bi on dire" - (Imini genuen ze urik ez zen egoten udan, udan urik egon ez zenez, ipini genituen guk horiek, gurean bi egon dira)

14. LANDARERIA

Landareria alorreko berbak ondoko azpi-ataletan banatuta aurkezten ditugu: arbolak, basa-landareak, ortuariak, fruituak, zekaleak, belarra, landareen atalak, eta azkenik, jaso ditugun berba konposatuakaz, gainerakoak.

14.1. ARBOLAK

almandro: almendroa

altza: haltza

ametza: ametza

arbole: arbola

"Igual badatos igual aun batera ta olau, ra! paraten dire olau arbola baten, ta arbola dana tapaten daure" - (Beharbada badatoz beharbada ehun batera eta holako, ra! paratzen dira holako arbola baten, eta arbola dena tapatzen dute)

"Eta ak soltate yaun beye, orra bakixu, arbolak eta, eta yote san, eta esne barik beye" - (Eta hark jaregiten zuen behia, horra badakizu, arbolak eta, eta joaten zen, eta esne barik behia)

aretxa: haritza

BERANGOKO HIZTEGIA

"Aretxa ta gastañe, baya aretxa giau usate san ordun, se ordun onek mendik dustik aretxa siren" - (Haritza eta gaztaina, baina haritza gehiago erabiltzen zen orduan, ze orduan mendi hauek guztiak haritza ziren)

"Ori baso ixen san gastañe ta aretxa, oiñ, a, piñu te sera dau, ukalittu, baya ordun aretxa ta gastañe ixete san or" - (Baso hori izan zen gaztaina eta haritza orain, pinua eta zera dago, eukalipto, baina orduan haritza eta gaztaina izaten zen hor)

"Akabuko solo olan ei en, eiten dere lelau, ba aretxak eta gastañak, lelau etxa" - (Azken soroa hola egin zuten, egiten dute lehenago, ba haritzak eta gaztainak, lehenago bota)

arkasi: arkazia

"Arkasi bai, arkasi naye egoten da emen" - (Arkazia bai, arkazia nahia egoten da hemen)

"Arkasi da ona, material ona" - (Arkazia da ona, material ona)

arte: artea

"Gero artebi esateuren, artek, artebi" - (Gero artadia esaten zuten, arteak, artadia)

"Nik esetu dot an etzen, ba, emen bere, baya asko aukitten gendun, a, seran, eta egon siren, a, artek, baya itzelak artek!" - (Nik ezagutu dut han etxean, ba, hemen ere, baina asko edukitzen genuen, zerean, eta egon ziren, arteak, baina itzelak arteak!)

"Igual esango tze arte asko daulakon" - (Beharbada esango diote arte asko dagoelako)

eukalitu, ukalitu, okalittu: eukalipto

"Erreturek ixen dire onak, edo piñu edo ukalitu, ukalitutzeko onak, ukalitu sartzeko, da erreture" - (Erraturak izan dira onak, edo pinua edo eukalipto, eukaliptoarentzat onak, eukalipto sartzeko, da erratura)

"Gero okalittu sartu yeuren, a, ori okalittu oingo da, e? ori barri da" - (Gero eukalipto sartu zuten, eukalipto hori oraingoa da, e? hori berria da)

"Emen ikusten diren okalittu dustin sulok, a, gauk ein gendus" - (Hemen ikusten

diren eukalipto guztien zuloak, geuk egin genituen)

gastañe: gaztaina

"Nik amari entzunte dekotzet gastañe, t'olan, gastaña pere eukitten dusen orko bason, gastañak itzelak! se esangot? a gixon bien arten kosteko tronko san, ta yoten gintzesen beyekas, gurtolak imintte, eta, orrek intten dires, a, orrek, a, kirikiok, sabaldu, sabaldu axe ierrakas, setienbren, eta orrekas, paluk, laban, a, labasu intten dun palukes yo ta yo ta botaten dusen, eta ekarten dusen gastañak" - (Nik amari entzunda daukakiot gaztaina, eta hola, gaztaina ere edukitzen genituen horko basoan, gaztainak itzelak! ze esango dut? hura gizon bien artean hartzeko enborra zen, eta joaten ginen behiekin, gurtolak ipinita, eta horiek egiten dira, horiek, kirikiok, zabaldu, zabaldu haize igerrekin, irailan, eta horiekin, makilak, labean, labasu egiten genuen makilekin jo eta jo eta botatzen genituen, eta ekartzen genituen gaztainak)

"Gastañak orrek egosi bai, kendu satitxu bet, olan kentxen dako satitxu bet, sano dausenak eta gatza bota, eta gastañak bakarrik egosi, ure loi loi intten daue illun, baya gosok! erreta baño gosoa" - (Gaztainak horiek egosi bai, kendu zatitxo bat, hola kentzen zaio zatitxo bat, sano daudenak eta gatza bota, eta gaztainak bakarrik egosi, ura lohi-lohi egiten dute ilun, baina gozoak! erreta baino gozoagoak)

"Oin bere badaus, e? es asko, oin asko kita da, gastañe bere, orrek mendi dustik, gastañadik ixen dire orrek" - (Orain ere badaude, e? ez asko, orain asko kendu da, gaztaina ere, horiek mendi guztiak, gaztainadiak izan dira horiek)

gorosti: gorostia

"Gorosti arbole asko dau gorosti, bueno asko, arbola ona da ademas gorosti" - (Gorosti arbola asko dago gorostia, beno asko, arbola ona da gainera gorostia)

gurguxe, gurbixe: gurbizta

"Au goye gerra denporan kendu san ori gurbixe, ta arte ixete san ori baso dusti" - (Goi hau gerra sasoiaren kendu zen gurbizta hori, eta artea izaten zen baso hori guztia)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Ba esayotzean, egon siren bakixu basok, a, egurrek botaten ta or gurbixe iste san, gurbixe ona, eta gurbixe ona da sube intteko" - (Ba esan zioten, egon ziren badakizu basoak, egurrak botatzen eta hor gurbitza izaten zen, gurbitza ona, eta gurbitza ona da sua egiteko)

"Gurbixek bolatxu batzuk aukitten deittus, lelau bellegi, berde, bellegi eta gero gorri" - (Gurbitzak bolatxo batzuk edukitzen ditu, lehenago beilegia, berdea, beilegia eta gero gorria)

"Gurbixe da fasillau, baya aretxa da gogorra, aretxa ta gastañak!" - (Gurbitza da errazagoa, baina haritza da gogorra, haritza eta gaztainak!)

intxorra: intxaurrea

"Intxorra pai naye, se intxorrak au baño andiauk euki gendusen bi edo iru etzen" - (Intxaurreak bai nahia, ze intxaurreak hau baino handiagoak eduki genituen bi edo hiru etxean)

lexarra, lesarra: lizarra

menbrilleru: menbrilola

"Menbrillo aor dau, orre teko, ni ume, gaste nitzenen, eitte san arbola andi, lau sepa auki eusen, eta eskondu nitzenen aitteri ori menbrilleru ori tte bota in ber dot se, ese asko okupaten dau te, ordun terreno gitxi auki nendun te, esausten ese, semea! ba, sarrak esteke bisteko deretxorik, sarra ixen san, orrek oki ber dau urtetan! eta esa neutzen ba aitte ni bixi nasen arten or ongo da" - (Menbrilola haor dago, horrek dauka, ni umea, gaztea nintzenez, egiten zen arbola handi, lau ondo eduki zituen, eta ezkondu nintzenez aitari menbrilo hori eta bota egin behar dut ze, eze asko betetzen du eta, ordun terreno gutxi eduki nuen eta, esan zidan eze, semea! ba, zaharrek ez daukate bizitzeko eskubiderik, zaharra izan zen, horrek eduki behar du urtetan! eta esan nion ba aita ni bizi naizen artean hor egongo da)

piñu: pinua

"Gero pasa siren urtek eta, piñu sartu" - (Gero pasatu ziren urteak eta, pinua sartu)

san jua aretxa: san jua haritza, lizarra

"Ondikarren an dau mangu elegante inte, san jua aretxaas einte" - (Oraindikarren han dago asta dotorea eginda, san jua haritzarekin eginda)

saretza: sahasa

"Amarrate san egurreas, egurreri ematen dakos olau bueltatxu batzuk, ta iten da, biortu iten da egurre, ta gero emoten dako kargerri buelte, emoten dako buelta, ta sartxen dire puntak eta lotxen da amarrata egurreas, esta ber katearik, saretzaas eiten da ori" - (Lotzen zen egurrarekin, egurreri ematen zaizkio holako bueltatxo batzuk, eta egiten da, bihurtu egiten da egurra, eta gero ematen zaio kargari buelta, ematen zaio buelta, eta sartzen dira puntan eta lotzen da lotuta egurrarekin, ez da behar katearik, sahasarekin egiten da hori)

"Saretzaas eiten da ori, sartxen dire lau estaka ontara" - (Sahasarekin egiten da hori, sartzen dira lau taket honetara)

sipresa: zipresa

txopo: txopoa

urrutxe: hurritza, hurra

14.2. BASA LANDAREAK

angeru lore: aingeru lorea

arkasatza: arkasatsa

asune: asuna

"Erremedio ordun ixete san, ba, asunekas" - (Erremedioa ordun izaten zen, ba, asunekin)

"Asunekas, lepon ta bularran ori bai, baya asunek, ordun ba asune pere gitxi topate siren" - (Asunekin, lepoan eta bularrean hori bai, baina asunak, ordun ba asunak ere gutxi topatzen ziren)

baso porru: basa porrua

"Aor dau kenpule, baso porru bere bai" - (Haor dago kipula, baso porrua ere bai)

batana: batana

berretxiko: perretxikoa

berro: berroa

"Emen, a, berro pere on dire emeti" - (Hemen, berroak ere egon dira hemendik)

elorrantza: elorrantza

"Elorrantza da okerra, pintxos beteri tau" - (Elorrantza da okerra, arantzaz betetik dago)

erramu: erramua

BERANGOKO HIZTEGIA

"Guk erramuk solotan beti auki dus" -
(Guk erramuak soroetan beti eduki ditugu)

"Mutillek yote siren, neskak egote siren, a, lekure, erramuk imintten" - (Mutilak joaten ziren, neskak egoten ziren, lekura, erramuak ipintzen)

giñarre: ginarra

grillu lore: txirri-txirri lorea

intzurri: huntz-orria

"Arbola sarratan eitten da ori intzurri" -
(Arbola zaharretan egiten da huntz-orri hori)

ire, ide: ira

"Besta bat garbittuteko gero brase atara ta osten ba, idakas eintten dun eskobe moduko, esta? eta atara, ta, gero uretan sartu" - (Beste bat garbitzeko gero txingarra atera eta ostean ba, irakin egiten genuen erratza modukoa, ezta? eta atera, eta, gero uretan sartu)

itxoso bedarra: itsas belarra

kañabere, kañubere: kanabera

"Kañuberakas imiñi parrilla bat eta eskei, bai" - (Kanaberekin ipini parrila bat eta eskegi, bai)

"Oñ, a, dana dau kañubera, emen Berangon, a, kañubera asko dau" -
(Orain, dena dago kanabera, hemen Berangon, kanabera asko dago)

kardu: kardua

karraskille: karraskila

larrose: arrosa

luki bustena: luki buztana, azeri buztana

mamukio: mamukioa

"Mamukio ona da enpatxureko, eta kenpulle egosi oba" - (Mamukioa ona da, enpatxurako, eta kipula egosia hobea)

mantzanille, mansanille: kamamila

"Bai basotan batu, basotan, naye ote san atxiñe, emeko oba dala esaten dere, emeko basotako, ortiko baño, siketu gero, siketu, siketu gero, mansanillatxu ona da tripetako miñetarako ta, baya umeri anisek en jeneral, e?" - (Ba basoetan batu, basoetan, nahia egoten zen antzina, hemengoa hobea dela esaten dute, hemengo basoetakoa, hortikoa baino, sikatu gero, sikatu, sikatu gero, kamamilatxoia ona da

tripetako minetarako eta, baina umeei anisak gehienetan, e?)

mimena: mimena

"Eta konserbaten da ondo, esta bustitten, e? puntak gora adi dala, eta gero mimenaas, a, ein kordela an, ta amarraten dusen bastarreti, negun yateko, negun emoteko ganaduri" - (Eta kontserbatzen da ondo, ez da bustitzen, e? puntak gora adi dela, eta gero mimenarekin, egin kordela han, eta lotzen genituen bazterretik, neguan jateko, neguan emateko ganaduari)

"Mimena da ona orretako, mimena" -
(Mimena da ona horretarako, mimena)

misperu, misperu: mizpira

otakarra: ote latza

ote: otea

"Bai oteas, ote ebai bason, eta gero ote ekarri, eta oteas ta egurreas, eitten gendun sue barrun, ta gero garbittu" - (Bai otearekin, otea ebaki basoan, eta gero otea ekarri, eta otearekin eta egurrearekin, egiten genuen sua barruan, eta gero garbitu)

pinotxa bedarra: luki buztana

sanbedarra: zain belarra

"Sanbedarrak badakitt sertzu tiresen" - (Zain belarrak badakit zertzuk diren)

sasi: sasia

"Sasi antzeko da, lora batzuk emoten daus" -
(Sasi antzekoa da, lore batzuk ematen ditu)

sauku: saukua

sete: perretxikoa, ziza

"Seta pere batxeutzesen" - (Zizak ere batzen zizkion)

"Or biste san bertan, albon, bat ulertuteune setakas, ta areri eroteutzesen onek setak" -
(Hor bizitzen zen bertan, alboan, bat ulertzen zuena zizekin, eta hari eroaten zizkion honek zizak)

suge bedarra: suge belarra

txanpiñoia: txanpinoia

txiribite: txiribita

yungu, yunku: zihia, ihia

"Ondikarren be topaten dosu, edosein lekun, topaten dosu yunku" - (Oraindikarren ere topatzen duzu, edozein lekutan, topatzen duzu zihia)

"Yungudi bere esaten dako, yungu asko daun lekuri, yungudi bere bai" - (Zihitza ere esaten zaio, zihi asko dagoen lekuari, zihitza ere bai)

BERANGOKO HIZTEGIA

"*Bai, autxe, ointxe inbernadero tausent lekun, or yunkuk eta orrek danak urteten dere or*" - (*Bai, hauxe, oraintxe berotegiak dauden lekuan, hor zihitzak eta horiek denek irteten dute hor*)

14.3. ORTUARIAK

aranbarre: aranbarre, patata mota bat

ase: aza

"*Ase ta orrek beranduau, patate ataraten danen, ba, imintteko, or euki du guk, a, orrek koniflorak eta asak*" - (*Aza eta horiek beranduago, patata ateratzen denean, ba, ipintzeko, hor eduki dugu guk, horiek azaloreak eta azak*)

"*Bai ase bere bai, ase bere baku*" - (*Bai aza ere bai, aza ere badaukagu*)

aselge: azelga, zerba

"*Kasu beteko aselge, ereintten da bastante, goixeti antzen, eta gero emoten dotzu, ba, uda dustiñ*" - (*Kasu baterako azelga, ereiten da nahiko, goizetik antzean, eta gero ematen dizu, ba, uda osoan*)

"*Ai! emongo tzues aselgak, baya dire, ona pere onak!*" - (*Ai! emango dizkizut azelgak, baina dira, onak ere onak!*)

babe: baba

"*Eskiñeri, esaten dako, bai, gu pere, a txantela, soas, lastana, an daus babak, ereinte, ta batusus baba batzuk*" - (*Izkinari, esaten zaio, bai, guk ere, hura txantela, zoaz, lastana, han daude babak, ereinda, eta batu itzazu baba batzuk*)

bañe: leka

beko, berako: beherako indaba

berakatzak: berakatzak

"*Berakatzak itten o nintzen ta atze emonta or*" - (*Berakatzak egiten egon nintzen eta atzea emanda hor*)

berako indabe, beko indabe: beherako indaba

biribille: biribila, indaba mota bat, indaba mota bat

biribille beko: biribila behekoa, indaba mota bat

biribille goiko: biribila goikoa, indaba mota bat

"*Eta biribille goiko, biribille bakixu selau dan? da goiko, dau txikerra eta andi, eta indaba suri bere dau, ba esaten dana suri, fiñe, seran ereitteko*" - (*Eta biribila goikoa, biribila badakizu zelakoa den? da goikoa, dago txikerra eta handia, eta indaba zuria ere dago, ba esaten dena zuria, fina, zerean ereiteko*)

erremolatxe: erremolatxa

"*Emen erremintte aukitte san erremolatxak ebaitteko*" - (*Hemen erreminta edukitzen zen erremolatxak ebakitzeke*)

erretako piperra: erretzeko piperra

"*Piperrak eta erreten dusen, erretako piperrak braseas, bai imiñitte, an ensegida erreten dusen*" - (*Piperrak eta erretzen genituen, erretzeko piperrak txingarrarekin, bai ipinita, han behingoan erretzen genituen*)

eskarole: eskarola

esparragu: zainzuria

goiko, gorako: gorako indaba

goiko andi: gorako indaba handia

goiko txikerra: gorako indaba txikerra

gorako indabe, goiko indabe: gorako indaba

iderra: ilarra

"*Babe ta iderra ta olan, neuk estot aukitten askorik*" - (*Baba eta ilarra eta hola, neuk ez dut edukitzen askorik*)

indaba gorri: indaba gorria

"*Bai an ikus doas, a, indaba gorri bere, ixekok botateusen txakur asa pere bai*" - (*Bai han ikusi ditut, indaba gorriei ere, izekoak botatzen zituen txakur azak ere bai*)

indaba suri: indaba zuria

indabe: indaba

"*Baya indabe gitxi koste san ese artok tapa intteun*" - (*Baina indaba gutxi hartzen zen eze artoak tapatu egiten zuen*)

"*Atxiñe alan ixen siren batzuk, e, gastañak indabakas*" - (*Antzina hala izan ziren batzuk, gaztainak indabekin*)

kalabase: kalabaza

kenpule, kinpulle, kipulle: kipula

"*Oriotxu epela, kipulla satitxu beteas, orio epeltxu bota belarrire*" - (*Oliotxu epela, kipula zatitxo batekin, olio epeltxo bota belarrira*)

kenpule gorri: kipula gorria

"*Ba dau kenpule gorri, oin bere bai*" - (*Ba dago kipula gorria, orain ere bai*)

BERANGOKO HIZTEGIA

kenpule suri: kipula zuria

koniflora: azalorea

“Ereñ, esta? eta sartz ona ganeti bota, guk estu landararik erosten koniflora bere deku itxitte, ba ertza baten” - (Eren, ezta? eta sats ona gainetik bota, guk ez dugu landararik erosten azalorea ere daukagu itxita, ba ertz baten)

letxuge: letxuga

“Letxugek, e, emen, a, inbernaderotan, nire lloba bate teko inbernadero, or atakaten dotze geixo askok, a, letxugeri te” - (Letxugak, hemen, berotegietan, nire loba batek dauka berotegia, hor erasotzen diote gaixo askok, letxugari eta)

“Letxuge siketuten! beti yanta, gero, a, sartu te atara, mugidu lurre, eta ar motro an” - (Letxuga sikatzen! behetik janda, gero, sartu eta atera, mubitu lurra, eta har motroa han)

nabo: arbia

naboarte: arbi-arte

“Amen askotan egote san, olau sosok eta, naboarten iltteko, beran txakurreas” - (Hamen askotan egoten zen, holako zozoak eta, arbi-artearen hiltzeko, beraren txakurrarekin)

nabo suri: arbi zuria

“Batzuk ote siren nabo surik, eta aik personantzako siren eta bestek ganaduntzeko” - (Batzuk egoten ziren arbi zuriak, eta haiek pertsonentzat ziren eta besteak ganaduentzat)

ortuari: ortuarria

“Solo at aukitte gendun, ba, ortuarireko, piperra, tomate ta olau jenerorako san” - (Soro bat edukitzen genuen, ba, ortuarirako, piperra, tomatea eta holako jenerorako zen)

patata arte: patata artea

patata bellegi: patata beilegia

patata gorri: patata gorria

patata suri: patata zuria

patata txikerra: patata txikerra

patate: patata

“Patate beti ereitten du kanpoko” - (Patata beti ereiten dugu kanpoko)

“En jeneral beko, a, dusti, goyen kamare, an sartxe siren indabak eta patatak eta artaburuk, eta olau jenerok sartxe siren” - (Gehienetan behekoa, guztia,

goian kamara, han sartzen ziren indabak eta patatak eta artaburuak, eta holako gauzak sartzen ziren)

“Batzuk eiten de patate osorik, beste batzuk iru sati” - (Batzuek egiten dute patata osorik, beste batzuek hiru zati)

perejille: perrexila

“Perejille beti bai, perejille, porru bere bai, eta kinpulle asko, arrosa” - (Perrexila beti bai, perrexila, porrua ere bai, eta kipula asko, arroza)

piperra, piparra: piperra

piper lodi: piper lodia, erretzeko piperra

“Braseas eitten dire piperrak, piper lodik” - (Txingarrarekin egiten dira piperrak, piper lodiak)

piper siku: piper sikua

porru: porrua

“Porru pere bai, kenpule, etzen kosten du beti, ba ereintteko asi, se erosten dosu asi, esta? ta igual emoten dotzue asi sarra ta esta ernetan, ese estosules, a, konosten sarra ala dan, ala arteko urteko ba, engaña” - (Porruak ere bai, kipula, etxean hartzen dugu beti, ba ereiteko hazia, ze erosten duzu hazia, ezta? eta beharbada ematen dizute hazi zaharra eta ez da ernetzen, eze ez duzun lez, ezagutzen zaharra ala den, ala arteragoko urtekoa ba, engainatu)

senaori: azenarioa

tolosana andi: tolosar handia

tolosana bardingo: tolosar berdingoa

tolosana txikerra: tolosar txikerra

tolosane, tolosa: tolosarra

“Iru klase daus tolosanak, guk andi ereitten dun palure, bai se andik palure ieten dau” - (Hiru mota daude tolosarrak, guk handia ereiten genuen makilara, bai ze handik makilara igaten du)

“Beste da, beko, baya da, tolosa esaten dune, biribille” - (Bestea da, badauka, baina da, tolosa esaten duguna, biribila)

tomate: tomatea

“Nau yo nas bere Deusture tomate bille” - (Neu joan naiz ere Deustura tomate bila)

“Bueno tomate bai botilletan imintteuen” - (Beno tomate bai botiletan ipintzen zuten)

txakur ase: txakur aza

“Onek, egon sien emen, solok, a, ortuk, ortuk, solok istuk eta lusek, esta? eta arbolak, e, frutak onek ba, madarik eta sagarrak eta

BERANGOKO HIZTEGIA

orrek arbolak, ba, ertzatati, esta? ta gerispetan txakur asak imintte dusen” - (Hauek egon ziren hemen, soroak, hortik, ortuak, soroak estuak eta luzeak, ezta? eta arbolak, frutak hauek ba, madariak eta sagarrak eta arbola horiek, ba, ertzetatik, ezta? eta gerizpetan txakur azak ipintzen genituen)

txoriseru: piper txorizeroa

ugerra: ugerra, landareen gaixoa

”Indaberi bere edo baineri bere urteten dotzo, eta tomateri, ugerra” - (Indabari ere edo lekari ere irteten dio, eta tomateari, ugerra)

14.4. FRUITUAK

abellane: kakahuetea

amerikanu: amerikarra, mahats mota bat

”Aitte difuntuk ekarri eun amerikanu” -

(Aita defuntuak ekarri zuen amerikarra)

”Ordun amerikanu geittuteutzen baltzari”

- (Orduan amerikarra deitzen zioten baltzari)

anita madari: anita madaria, madari mota bat

”A tekos anita madarik, a tekos” - (Hark dauzka anita madariak, hark dauzka)

atxiko: atxikoa, iko mota bat

”Atxikok or egon dire, oin bota deittues” -

(Atxikoak hor egon dira, orain bota dituzte)

bos kantoi sagarra: bost kantoia, sagar mota bat

brebe: iko mota bat

”Brebak andik, orretaringo pere auki dus, oki dus orretaringok, orrek andik ixeten dires” - (Brebak handiak, horietarikoak ere eduki ditugu, eduki ditugu horietarikoak, horiek handiak izaten dira)

erreñeta baltza: erreineta baltza

erreñeta sagarra, erreinete: erreineta

frute: fruitua

”Au dusti aukitten gendun, a, frute ta sepak, a, matzana” - (Hau guztia edukitzen genuen, fruitua eta ondoak, mahatsarena)

gabon madari: gabon madaria

gasa sagarra: gaza sagarra

gastañe: gaztaina

ginde: gerezi mota bat

iko: ikoa

”Solora piper bat kosten estire yoten, iko pere neuk batxen dotzeas se aurok eteure iko ba pe kosten” - (Sorora piper bat hartzen ez dira joaten, ikoak ere neuk batzen dizkiet ze eurok ez dute iko bat ere hartzen)

iko latza: iko latza

”Iko latza gorri da, olaseko, guk auki dus or naye” - (Iko latza gorria da, holasekoa, guk eduki ditugu hor nahia)

iko suri: iko zuria

intxaurre, intxorra: intxaurrea

inurri madari: inurri madaria, madari mota bat

”Inurri goixetiko da, ta esta madari andi, oiñ esta ikusten, e?” - (Inurria goizetikoa da, eta ez da madari handia, orain ez da ikusten, e?)

kanpanilla madari: madari mota bat

kerixe: gerezia

”Kerixak, badekoas ondiño neuk” - (Gereziak, badauzkat oraindik ere neuk)

klaudia: klaudia, okaran mota

”Kludia tekos andi eta txikerra, dau andi eta txikerra bai” - (Kludiak dauzka handia eta txikerra, dago handia eta txikerra bai)

kludia andi: okaran mota

kludia txikerra: okaran mota

konferentzi madari: konferentzi madaria, madari mota bat

kutxillo madari: kutxilo madaria

limoi sagarra: limoi sagarra

limoya: limoia

lorentzo okarana: okaran mota

”Lorentzo okarana geittuten tzun bat baltza” - (Lorentzo okarana deitzen genion bat baltza)

madari: madaria

”Bai sagarrak erre itten gendusen laban bertan, ta madari pere” - (Bai sagarrak erre egiten genituen labeen bertan, eta madariak ere)

”Egosi inte san ardaues, oin madarik udan inten diren modun, madarik serak, inte san” - (Egosi egiten zen ardaurekin, orain madariak udan egiten diren moduan, madariak zerak, egiten zen)

malluki: mailukia, marrubia

matza: mahatsa

BERANGOKO HIZTEGIA

"Gure etze dau kamiñon ondon eta gorañoko dekus guk terrenok, eta an eskiñetan ondikarren, urteten deue matzan serak" - (Gure etxea dago kaminoaren ondoan eta goraino dauzkagu guk terrenoak, eta han izkinetan oraindikarren, irteten dute mahatsaren zerek)

menbrillu: menbriloa

millikote, milikote: milikota, freskoa

"Dana auki eun millikote ta dana beterik ori" - (Dena eduki zuen milikota eta dena beterik hori)

"Millikote bigune da" - (Milikota biguna da)

"Ori beste es, ori beste atzoko ixen da, emeko axe egon san, egun dustin atzo, eta bero, ta ras! kanbia yun illunderantza ona itxosora, pentza euken eron ber dittusela emen dausen millikota dusti pere" - (Beste hori ez, beste hori atzokoa izan da, hemengo haizea egon zen, egun osoan atzo, eta bero, eta ras! aldatu zuen ilunderantz hona itsasora, pentsa zitekeen eroan behar dituela hemen dauden milikota guztiak ere)

naranje: laranja

"Batek emoeusten intxor bi, beste batek naranja bat" - (Batek eman zidan intxaur bi, beste batek laranja bat)

negu madari: madari mota bat

okerana, okarana: okarana

"Okaranak ainbet dekoas okaranak, klaudiak, bestek gorrik, japonesa bere auki gendun" - (Okaranak hainbat dauzkat okaranak, klaudiak, besteak gorriak, japoniarra ere eduki genuen)

okeran bellegi: okaran mota

okeran gorri: okaran mota

okeran klaudia: okaran klaudia

orandille: orandila

"Orandille bai, gauk oki dus emen, jo! au etze baño altuaok" - (Orandila bai, geuk, eduki ditugu hemen, jo! etxe hau baino altuagoak)

platanu: banana

reñete sagarra: sagar mota bat

sagarra: sagarra

"Beti egote san sagarran bat edo seoser, arbolan" - (Beti egoten zen sagarren bat edo zer edo zer, arbolan)

"Sagarrak emoteusen, lau tipo sagar emoteusen, a, batera" - (Sagarrak ematen zituen, lau mota sagar ematen zituen, batera)

san juan madari: san juan madaria

"San juan madari on san etze albon" - (San juan madaria egon zen etxe alboan)

san juan sagarra: san juan sagarra

san pedro sagarra: san pedro sagarra

"San pedro sagarrak intten dau gorri" - (San pedro sagarrak egiten du gorria)

"Emen daus, aor daus, san pedro sagarrak, emen iru edo lau or daus, baya ingeruten bes, alaurik, ingeruten beres, e!" - (Hemen daude, haor daude, san pedro sagarrak, hemen hiru edo lau hor daude, baina ingurutan ere ez, halakorik, ingurutan ere ez, e!)

santiago madari: santiago madaria

"Len, e, santiago madarik, anita madarik, kanpanilla madarik, orrek, e, egote siren, kutxillo madari pere bai" - (Lehen, santiago madariak, anita madariak, kanpanila madariak, horiek, egoten ziren, kutxilo madariak ere bai)

sidiri madari, sidiri: sidiri madaria

"Sidiri madarik gauk oki dus emen, eta an atzen bere bai" - (Sidiri madariak geuk eduki ditugu hemen, eta han atzean ere bai)

sidiri siku: sidiri madari mota bat

sidiri urtzu: sidiri madari mota bat

"Sidiri bere bai, sidiri urtzu te siku klase bi" - (Sidiria ere bai, sidiri urtsua eta sikua mota bi)

toneliko: tonelikoa, iko mota bat

"Toneliko, emen dekusena tires, toneliko tire, geyen gustaten datenak, se atxikok apur bet espanak erre intten deus" - (Tonelikoa hemen dauzkagunak dira, tonelikoak dira, gehien gustatzen zaizkidanak, ze atxikoak apur bat ezpainak erre egiten ditu)

"Orrek beti usa dire emen toneliko geittuteutzen andiri, ta besteri atxiko, atxiko estekot nik" - (Horiek beti erabili dira hemen tonelikoa deitzen zioten handiari, eta besteari atxikoa, atxikoa ez daukat nik)

urdin sagarra: urdin sagarra

"Urdin sagarra ona da" - (Urdin sagarra ona da)

urrutxe: hurritza, hurra

BERANGOKO HIZTEGIA

"Sulo in tte intxaurrek ara botata bai, esetu dot ori, intxaurtxukes ta serakas urrutxakas ta, urrutxakas, sulotxu in tte gero ara botatera" - (Zuloa egin eta intxaurrek hara botata bai, ezagutu dut hori, intxaurrekin eta zerekin hurritzekin eta, hurritzekin, zulotxo egin eta gero hara botatzera)

urte bete sagarra, urte bete: urte betea, sagar mota bat

14.5. ZEKALEAK

abe: oloa

"Emen bertan es, kanpoti ekarritte, guren io ba nauk esango tzut, garie, garagarra, abea, yero, allurbe, torta de koko, iderra, bueno dustireko, dustireko, garbi esanta dustireko" - (Hemen bertan ez, kanpotik ekarrita, gurean eho ba neuk esango dizut, garia, garagarra, oloa, jeroa, ailorba, koko torta, ilarra, beno guztirako, guztirako, garbi esanda guztirako)

ardatza: arto lastoekin egiten den pilota

artaburu: artaburua

"Bai goxen eitte san labasu te urrengo goxesarten lotxe siren artaburuk, a, laban" - (Bai goizean egiten zen labasua eta hurrengo goizera artean lotzen ziren artaburuak, labean)

"Artaburu bille, ia artabururik bota badau axek" - (Artaburu bila, ea artabururik bota duen haizeak)

"Etzen ba, artabururik elegantena, edo edarrena esaten dan modun ba, a koste san" - (Etxean ba, artabururik dotoreena, edo ederrena esaten den moduan ba, hura hartzen zen)

artagaro, artagarau: artagaraua

"Artagaro pere bai labati pasata, labasuk eiñ, a, labatan" - (Artagarauak ere bai labetik pasatuta, labasuak egin, labetan)

"Guk emen kanpon dauenak artagarau, botaten dotzu orra etzaurrera eta gero aurok yaten daure" - (Guk hemen kanpoan dagoenak artagaraua, botatzen diegu horra etxe aurrera eta gero eurok jaten dute)

arto: artoa

"Oin klasek, a, kanpokok daus, baya emen, a, atxiñe, bai klase taus, e? arto fiñe ote san, oiñ esta ikusten emeko klase, ointzu ointzurarten auki du guk arto orretarango klase" - (Orain motak, kanpokoak daude, baina hemen, antzina, bai motak daude, e? arto fina egoten zen, orain ez da ikusten hemengo mota, oraintsu, oraintsura artean eduki dugu guk arto horietariko mota)

"Emeko arto fiñe ixete san" - (Hemengo artoa fina izaten zen)

"Guk, a, gitxi okitten gendun, arto gitxi, baya orrek, a, arto asko itteuren orrek, eta or labe oki auren" - (Guk, gutxi edukitzen genuen, arto gutxi, baina horiek, arto asko egiten zuten horiek, eta hor labea eduki zuten)

artoarte: arto-arte

"Frantsesa ereintten da artoartera" - (Frantsesa ereiten da arto-artera)

arto berde: artaberdea

"Paste in dau esaten gendun guk, paste in dau, eta ori ixete san, arto berde ote sanean, ak eitteun pasta bat eta ya esaun ioten" - (Orea egin du esaten genuen guk, orea egin du, eta hori izaten zen, artaberdea egoten zenean, hark egiten zuen ore bat eta ja ez zuen ehotzen)

arto pike: arto pika, artoa erastea

"Lelengo ixete san, arto pike, eta gero ixete san betatuteko arto yorra" - (Lehenengo izaten zen, arto pika, eta gero izaten zen betetzeko arto jorra)

arto kapasa: arto kapaxa

arto solo: arto soroa

arto yorra: arto jorra

birsaye: birzahia

"Birsaye, baya birsaye emen estako ataten, ori, a, panaderitten bai, baya emen, es, emen saye ataten dako bakarrik" - (Birazhia, baina birzahia hemen ez zaio ateratzen, hori, okindegietan bai, baina hemen, ez, hemen zahia ateratzen zaio bakarrik)

bixerbako gari: bizarbako garia

bixer gari: bizar garia

"Bai, bata, usena enas akordaten oin ba, baya bi on siren bai, bat ixen san, a, bixer gari eta beste bixerbako" - (Bai, bata, izena ez naiz gomutatzen orain ba, baina bi egon ziren, bat izan zen, bizar garia eta bestea bizarbakoa)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Bixer gari daula fiñau beste baño esate auren" - (Bizar garia dagoela finago bestea baino esaten zuten)

bixerra: arto bizarra

galautze: galautsa

galikio: gariaren gaixoa

"Guren on san gero, ori, a, galikio esate otzena, e? ori baltza su tiñosune, eta guk euki, oniño, etzen dau oniño ikusteko modun, makiña at ekarri gendun ori apartateko" - (Gurean egon zen gero, hori, galikioa esaten diotena, e? beltz hori zuk dinozuna, eta guk eduki, oraindino, etxean dago oraindino ikusteko moduan, makina bat ekarri genuen hori banatzeko)

"Eta gero ori kendu itten geuntzen guk, galikio, esaten geuntzen orri, eta ori kendu itten geuntzen eta guk gari, arto beti, arto diñot, gari, suri suri urtete aun beti, se kendu itte akon dana" - (Eta gero hori kendu egiten genion guk, galikioa, esaten genion horri, eta hori kendu egiten genion eta guk garia, artoa beti, artoa dinot, garia, zuri-zuri irteten zuen beti, ze kendu egiten zitzaion dena)

galtzu: galtzua

"Galtzu etorte san kanpoti" - (Galtzua etortzen zen kanpotik)

garagarra: garagarra

garbe: garba

"Leleko kentxen dako garbe, punten daune garbe, eta gero lasto" - (Lehenengo kentzen zaio garba, puntan dagoena garba, eta gero lastoa)

gare: gara, artoaren lorea

"Gare da, gare da, u, urteten dotzona, puntan, alan, a, lumatxuk eta dekosena" - (Gara da, gara da, irteten diona, puntan, hala, lumatxoak eta dauzkana)

gari: garia

"An goyen bai, one pai, onek, a, gari asko kosteu" - (Han goian bai, hauek bai, hauek, gari asko hartzen zuten)

"Gero ni eskonduteko onitzenen urte bien edo iruen eiñ ein gendun, a, ogi itten dana, sera gari, baya emen gari gitxi in da, e? arto, arto" - (Gero ni ezkontzeko egon nintzenez urte bian edo hiruan egin egin genuen, ogia egiten dena, zera

garia, baina hemen gari gutxi egin da, e?)

"Guk urte askotan erein du gari" - (Guk urte askotan erein dugu garia)

gariarte: gari-arte

gari solo: gari soroa

garo: garaua

"Makiña bat garo eron dot nik errotara" - (Makina bat garau eroan dut nik errotara)

kanpo arto: kanpo artoa

kapasa, kapatxa: kapaxa

"Andi etxaten deure arto siketuten bertan, solon, eta gero eskegi eintten deure, fija sitted, orti orti eskegi eintten deures artok, beran, beran kapaseas, eta a da arto esea eta emen labati pasata" - (Handik botatzen dute artoa sikatzen bertan, sorooan, eta gero eskegi egiten dute, fija zaitez, hortik hortik eskegi egiten dituzte artoak, beraren, beraren kapaxarekin, eta hura da arto hezea eta hemen labetik pasatuta)

lasto: lastoa

"Baya lasto danak on siren yanta" - (Baina lasto denak egon ziren janda)

lodoi: gariaren gaixoa

lupu: artoaren gaixoa

"Lupu, olau bola baltza, artaburun, a, seran kapasan urteten deure bai, sarritten ibil gares umek eta, lupu kentxen" - (Lupua, holako bola beltza, artaburuaren, zerean kapaxan irteten dute bai, sarritan ibili gara umeak eta, lupua kentzen)

muskutxe, muskitxe: burutxa

"Kanpo arto da muskutxe, lodiau eta luseau" - (Kanpo artoa da burutxa, lodiagoa eta luzeagoa)

sape: sapa

seye, saye: zahia

suskille: suskila, tronbila

"Gero garandu in ber da, atara andik, garandu in ber da, kendu in ber dako, a, suskille dekona, muskitxe, eta gero errotara eroten du" - (Gero garandu egin behar da, atera handik, garandu egin behar da, kendu egin behar zaio, suskila daukana, burutxa, eta gero errotara eroaten dugu)

trongo: enborra, lastoa

txole: txola

"Kosten gendun gari bere, solo ereitten gendun gari bere, arik gero, a, bayentzat, a, sera, galtzu, txolak, txolak gero, ta yo txolak, io, ta gero pasa bayati, bayati pasa,

BERANGOKO HIZTEGIA

ta itteuren, gure aguelo defuntuk sera, ogi" - (Hartzen genuen garia ere, soroa ereiten genuen garia ere, haiek gero, behientzat, zera, galtzua, txolak, txolak gero, eta jo txolak, eho, eta gero pasatu bahetik, bahetik pasatu, eta egiten zuten, gure aitaita defuntuak zera, ogia)

14.6. BELARRA

alfafe: alfalfa

"Alfafeas bere pasate san olau" - (Alfalfarekin ere pasatzen zen holakoa)

"Alfafa ixeten da txarra, alfafa ebaitten badosu berden, ta itxitten badosu montoi baten, aren fermentasiño emoten badotzesu, a yaten badau, ori da txarra" - (Alfalfa izaten da txarra, alfalfa ebakitzen baduzu berdean, eta uzten baduzu pilo baten, haren fermentazioa ematen badiozu, hura jaten badu, hori da txarra)

allorbe, allurbe: ailorba

"Bedarrak asko daus, a, allorbe" - (Belarrak asko daude, ailorba)

asi bedarra: uzta belarra

"Asibedarra, asko dau, asko daus txarrak, orrek atara in ber dire" - (Uzta belarra, asko dago, asko daude txarrak, horiek atera egin behar dira)

ayen eskerra: aihen azkarra

balluko: ereiteko belar mota

bedarra: belarra

"Senbeste eta bedar giau, obeauk labarako" - (Zenbat eta belar gehiago, hobeak laberako)

bedar siku: belar sikua

"Es aspiñ imiñi, a, orduko frutak estiren ixen oraingo modukok, aspiñ imintteuen bedar siku, eta gero, nik kamaran ikus dot frute, Jesus Maria ta Jose! asko frute auki du guk, eta gero imiñi, a, frute an, madarik eta, onek kutxillo madarik eta onek, bueno! eta gero tapa ostabere bedar sikues, bedar fiñeas, sikues" - (Ez azpian ipini, orduko frutak ez ziren izan oraingo mudukoak, azpian ipintzen zuten belar sikua, eta gero, nik kamaran ikusi dut fruta, Jesus Maria eta Jose! asko fruta eduki dugu guk, eta gero ipini, fruta han, madariak eta,

hauek kutxilo madariak eta hauek, beno! eta gero tapatu ostera ere belar sikuarekin, belar finarekin, sikuarekin)

errosario bedarra: errosario belarra, soroetako belar parasitua

frantzesa: frantsesa, frantses-belarra

"Frantzesa ereintten da artoartera" - (Frantsesa ereiten da arto-artera)

"Eta serreas bere ebaitten bedarra edo, a, frantzesa ta atxiñe, eta serreas atxiñe igual, eta umek eskolara yon barik, bederatzi egunen yo nitzen ni" - (Eta zerrarekin ere ebakitzen belarra edo, frantsesa eta antzina, eta zerrarekin antzina beharbada, eta umeak eskolara joan barik, bederatzi egunean joan nintzen ni)

ider baltza: ilar beltza

"Ider baltza, ori da, ori san, ori asi da yero yeron iguala, berebille" - (Ilar beltza, hori da, hori zen, hori hazia da jero jeroaren berdina, biribila)

kabra bedarra: tabako belarra, soroetako belar parasitua

sekule bedarra: sekula belarra

"Ba gero emen bastante alfafe, eta sekule bedarra, alfafe ta sekule bedarra, sekule bedarra gitxiao se, emen badakixu bastante umedade ta sera, bayek, a, parate siren, a, pustute" - (Ba gero hemen nahiko alfalfa, eta sekula belarra, alfalfa eta sekula belarra, sekula belarra gutxiago ze, hemen badakizu nahiko hezea eta zera, behiak, paratzen ziren, puztuta)

"Sekule bedarrak emoten ditu igual, lau korte, alfafe pere emote dau korte asko" - (Sekula belarrak ematen ditu beharbada lau ebaketa, alfalfak ere ematen du ebaketa asko)

suri bedarra: soroetako belar parasitua

trebole: trebola

txomin bedarra: txomin belarra

"Txomin bedarra, kabra bedarra, ta ayen eskerra ta orrek, orre tires txarrak" - (Txomin belarra, tabako belarra, eta aihen azkarra eta horiek, horiek dira txarrak)

yero: belar mota bat

"Yero san, ganadu berotute aune" - (Jeroa zen, ganadua berotzen zuena)

BERANGOKO HIZTEGIA

14.7. LANDAREEN ATALAK

arbi gare: arbigara

“Arbigare geittuten tzu lorara datorrenen” - (Arbigara deitzen diogu lorera datorrenean)

asala: azala

“A aputxu bet kendu asala espabere errementa eingo eun gastañek beroas” - (Hura apurtxo bat kendu azala ezpabere lehertu egingo zuen gaztainak beroarekin)

“Nik ori, selan esango tzut? por ejemplo, au da tronko, ebai, noperak gure daun alturen, iregi au, tronko iregi, ta gero noperak gure daune eskojidu, sera, erosi berren orti, noperak gustaten dakon frute, a eiñ, ta kutxillotxu beteas, iñ, eta, au asala emetiko es ondo kendu, ori itxi barik, ta barruko apur bet kendu, eta or sartxe san ebaitten dana, or sartu, kanpoko loditxuena itxi, asalak, emeko sartxen dosune ta beran asala, kontato ein diela or, pegata lotu deittela or” - (Nik hori, zelan esango dizut? esate baterako, hau da enborra, ebaki, norberak gura duen altueran, ireki hau, enborra ireki, eta gero norberak gura duena aukeratu, zera, erosi beharrean hortik, norberak gustatzen zaion fruta, hura egin, eta aiztotxo batekin, egin, eta, azal hau hemendikoa ez ondo kendu, hori utzi barik, eta barrukoa apur bat kendu, eta hor sartzen zen ebakitzen dena, hor sartu, kanpoko loditxoena utzi, asalak, hemengoa sartzen duzuna eta beraren azala, kontaktu egin dezala hor, itsatsita lotu dadila hor)

asorri: azorria

“Eta or imintte siren asorrik, asorrik, a, kankarrun edo lapiko edo, iste san, a, lekun, eta asorrik ausi estaittesan, a, buskantzak” - (Eta hor ipintzen ziren azorriak, azorriak, kankarroan edo lapikoa edo, izaten zen, lekuan, eta azorriak hautsi ez daitezzen, buzkantzak)

asi: hazia

“Gero orrek emoten daue asi, asi emoten daue” - (Gero horiek ematen dute hazia, hazia ematen dute)

aste: piper edo fruituen asta

“Badires, orrek bedarrak, orrek sabalak batzuk olan asta lusetxu daukenak” - (Badira, belar horiek, zabal horiek batzuk hola asta luzetxo daukatenak)

astille: ezpala

begi: 1. begia, lekarietan garau lekari lotuta dagoen lotunea. 2. begia, ernekaitza

“Aittu semest begi dekosen” - (Aditu zenbat begi dauzkan)

brote: ernekaitza

buru: burua

eperdi: ipurdia, landareen ipurdia

ernekatza: pataten gara, zila, ernekaitza

errame: errama, abarra

“Kosi arri bet eta ra! para san aolau arbola bastante txikitxu beten, eta kosi neun arri bota neun, eta yo olau tronko antzera errama baten ta poun! eta dosena ba paño giau yausi san bera” - (Hartu harri bat eta ra! paratu zen haolako arbola nahiko txikitxo baten, eta hartu nuen harria bota nuen, eta jo holako enbor antzera errama baten eta poun! eta dozena bat baino gehiago jausi zen behera)

“Ori neu pere intten dot emen, aor dekoas erretako, e, poda doasen erramak eta serak, eta ori lurrentzako ona da, sabaldu gero” - (Hori neuk ere egiten dut hemen, haor dauzkat erretzeko, inausi ditudan abarrak eta zerak, eta hori lurrarentzat ona da, zabaldu gero)

“Lau errama oki eusen ta sera garobako sagarra ixen san” - (Lau bar eduki zituen eta zera garaubako sagarra izan zen)

errepollo: burua

“Orrek esteu errepollorik eintten, ien ta ien gora” - (Horrek ez du bururik egiten, igan eta igan gora)

erretxiñe: erretxina

“Gero eitten du, erretxiñeas eta kandleas, urtu, eta ara bota, axe esteyon sartu” - (Gero egiten dugu, erretxinarekin eta kandelarekin, urtu, eta hara bota, haizea ez diezaion sartu)

frute: fruitua

garau: garaua

garraste: artearen abarren puntak, jatekoa eskas egoten zenean ganaduari ematen zitzaion

“Garraste ni neutzako sera da, arte” - (Garrastea ni neuretzat zera da, artea)

kime: kima

BERANGOKO HIZTEGIA

"Artesikes gure badau, eta beste batzuk eskues, kimak kendu" - (Artaziekin gura badu, eta beste batzuek eskuarekin, kimak kendu)

kirikio: gaztainen kanporengo eskola, arantzaz beterikoa

landare: landarea

"Landarak imintten auki eun afesiño itzela" - (Landareak ipintzen eduki zuen zaletasun itzela)

"Gero landare itten da, landare asi itten da, kasu eterako ba, onen tamañu ingerun daunen landare, ba ordun dau" - (Gero landarea egiten da, landarea hazi egiten da, kasu baterako ba, honen tamaina inguruan dagoenean landarea, ba orduan dago)

lore: lorea

"Mille errel kobrate neun orduko, a, lorak sartzeko" - (Mila erreak kobratzen nuen orduko, loreak sartzeko)

mardo: morda

"Bengotzen eukitten gendun parre, itzela! eta olaseko mardok!" - (Bengoetxen edukitzen genuen parra, itzela! eta holaseko mardak!)

masuste: masusta

mukurre: mukurra

"Mukurre esaten dako sustreiri" - (Mukurra esaten zaio sustraiari)

"Mukurre asko usate san ortarako, beko suerako, orrek ona tire" - (Mukurra asko erabiltzen zen horretarako, beheko surako, horiek onak dira)

muskille: muskila

orbela: orbela

"Orbela baño esteko onek" - (Orbela baino ez dauka honek)

"Orbela or abaron dau" - (Orbela hor abaroan dago)

"Orbela da, arbolen orri, yausten direnen orbela" - (Orbela da, arbolaren orria, jausten direnean orbela)

orri: orria

"Orrek ieten deu metro baño giau, orrik emoten, orrik emoten, esteu errepollorik emoten" - (Horrek igaten du metro baino gehiago, orriak ematen, orriak ematen, ez du bururik ematen)

otabarra: otabarra

"Ba emen eitte san, satza bota selan esan, naye, se ganadu asko egote san, eta

siminttere betatuteko, lelau botaten gendun, ori, otabarra" - (Ba hemen egiten zen, satsa bota zelan esan, nahia, ze ganadu asko egoten zen, eta mintegia betetzeko, lehenago botatzen genuen, hori, otabarra)

ota bedarra: ote-belarra

"Satza aukitteuen, aspik satzaas, len esan doana esi nas akorda, ota bedarra" - (Satsa edukitzen zuten, azpiak satsarekin, lehen esan dudana ezin naiz gomutatu, ote-belarra)

"Orreas yote siren mendire, ara mendire yote san gure aitte, ta aittitte ta, ta ekarteuen orretarango ota bedarra" - (Horrekin joaten ziren mendira, hara mendira joaten zen gure aita, eta aitaita eta, eta ekartzen zuten horietariko ote-belarra)

palu: makila

"Asko koste aun, eta gero etorte san an biden, eta alau palu bet imiñi, baya gero emoteusen, a, biden, a, erdi paño giau emoteusen" - (Asko hartzen zuen, eta gero etortzen zen han bidean, eta halako makila bat ipini, baina gero ematen zituen, bidean, erdiak baino gehiago ematen zituen)

"Imiñi palu andi bet, eta saku beteas eta areas garbittuten sendun" - (Ipini makila handi bat, eta zaku batekin eta harekin garbitzen zenuen)

pintxo: erbatza, arantza

"Elorrontza da okerra, pintxos beteri tau" - (Elorrantza da okerra, arantzaz beterik dago)

piñotxe: pinutxa, pinu orbela

"Piñotxe, piñuk botaten daune, aspiko, esaten dotzu guk, orri, orri, sikaten danen" - (Pinutxa, pinuak botatzen duena, azpikoa, esaten diogu guk, orria, orria, sikatzen denean)

piñe, piñu artaburu: pinu burua

pipille: pipila

sagar muskille: sagar muskila

sepe: ondoa

"Ondiñokarren solo taus or, urteten daude sepak sarrak, nosepeñ urten eitten daude" - (Oraindikarren soroak daude hor, irteten dute ondoek zaharrek, noizean behin irten egiten dute)

seruke: indaba, ilarra eta abarren azala

sospela: zozpala, ezpala

BERANGOKO HIZTEGIA

sustraye, sustraya, sustreya: sustraia

"Eitten du orren erramak, brotek, ebagi, orra, otamar sentimetro ingirun, eta sartu, ta, sustrayek emoten deus orrek, injerta gero madaries" - (Egiten dugu horren abarrak, kimak, ebaki, horra, hogeita hamar zentimetro inguruan, eta sartu, eta, sustraiak ematen ditu horrek, mendatu gero madariarekin)

"Gero itten da ori, ebai itten da, sustrei tte dusti atara" - (Gero egiten da hori, ebaki egiten da, sustrai eta guzti atara)

tronbille: tronbila

tronko, trongo: enborra

"Egon siren piñuk, tronko paño es an" - (Egon ziren pinuak, enborrak baino ez han)

"Orretan kondesiñotan estokure arik, a, tronkok ataraten yon" - (Baldintza horietan ez dut gura haiek, enborrak ateratzen joan)

"Tronkok ebaitteko aor esetu neun, il san atxiñe, il san a, aonek tronkok ebaitten, bata goyen ta beste bean" - (Enborrak ebakitzeko haor ezagutu nuen, hil zen antzina, hil zen hura, enbor hauek ebakitzen, bata goian eta bestea behean)

trontxo: trontxoa

ugerra: fruitu eta ortuarien gaixoa

14.8. GAINERAKOAK

arto garau: arto garaua

"Arto garau, au nei au nei au lurre daune, lurrek estaki se garau botaten dan ara, ona bada ona ta txarra bada txarra" - (Arto garaua, hau nahi hau nahi hau lurra dagoena, lurrak ez daki ze garau botatzen den hara, ona bada ona eta txarra bada txarra)

asa trontxo: aza trontxoa

indaba orri: indaba orria

"Igual, a, indaba orrikes ta, bai kamarara yon ta, imintte dun sigarro estrasako paperaas ta sigarro" - (Beharbada, indaba orriekin eta, bai kamarara joan eta, ipintzen genuen zigarroa estrazako paperarekin eta zigarroa)

patata orbela: patata orbela

piñu errame: pinu abarra

piñu orri: pinu orria

"Ote, ote, guk ote, se piñu orrik txupa estittun txixe, ganadun txixe" - (Otea, otea, guk otea, ze pinu orriak xurgatu ez zuen txiza, ganaduaren txixa)

piper landare: piper landarea

"Ori da usaba piper landare koisten" - (Hori da ugazaba piper landarea hartzen)

porru landare: porru landarea

15. ANIMALIAK

Atal honetako animaliei buruzko hiztegia aurkezteko honako azpi-atalak egin ditugu: ugaztunak, txoriak, narrastiak eta anfibioak, arrainak-itsaskiak eta intsektuak.

15.1. UGAZTUNAK

ardille: katamixarra, katagorria

arratoya, erratoya: arratoia

"Ak es, tripe betatuaittik, a, ia ser adi, estau emen sagurik, es erratorik, es suberik, eser beres, ak kusten doittus danak" - (Hark ez, tripa beteagatik, ea zer adi, ez dago hemen sagurik, ez arratoirik, ez sugerik, ezer ere ez, hark ikusten ditu denak)

askunarra: azkonarra

basakatu: basakatua

erbi: erbia

"Nik auki dot emen txakurre, listo, ona erbitten baya aginke itteun" - (Nik eduki dut hemen txakurra, bizkorra, ona erbitan baina haginka egiten zuen)

errekatarri: erreka txerria, hudoa

"Errekatarri erratoi andi da" - (Erreka txerria arratoi handia da)

kirikolatza: kirikolatza

komandreje, komadreje: ogigaztaia, erbinudea

"Orrek, a, estaitt seaittik ixen dan, baya mundu dustik errespeta, entzun dot nik emen, komadreje dau gero! errespeta!" - (Horrek, ez dakit zergatik izan den, baina mundu guztiak errespeta, entzun dut nik hemen, ogigaztaia dago gero! errespeta!)

"Gure aitek eta amak ori esan dosku beti, kontus e! kontus! komadreje dabill or eta" - (Gure aitak eta amak hori esan digute)

BERANGOKO HIZTEGIA

beti, kontuz e! kontuz! ogigaztaia dabil hor eta)

"Nik, a, sekule estot entzun komadreja batek aginke in dotzola gixon bateri, sekule estot entzun" - (Nik, sekula ez dut entzun ogigaztai batek haginka egin diola gizon bati, sekula ez dut entzun)

koneju: konexua, untxia

"Konejuri gustaten dako asko" - (Konexuei gustatzen zaio asko)

lobo: otsoa

luki: lukia, azeria

otzo: hartza

"Estaitt nik otzo edo ser ixen san" - (Ez dakit nik hartza edo zer izan zen)

sagu: sagua

sagusarra: saguzarra

"Goyen egote siren orrek sagusarrak, oatu goyen ta, eskeitte" - (Goian egoten ziren horiek saguzarrak, oratu goian eta, eskegita)

satorra: satorra

"Es, emen, nik esatu dotena da, batzuk, batzuk, gasoil botateutzen, eta satorrak yoteunen, palu sartu, alau, e, palu bet sartu an, an estau yoten, albon, bakixu satorra ser dan, satz asko badau barres, bueno!" - (Ez, hemen, nik ezagutu dudana da, batzuek, batzuek, gasoila botatzen zioten, eta satorrak jotzen zuenean, makila sartu, halako, makila bat sartu han, han ez du jotzen, alboan, badakizu satorra zer den, sats asko badago berriz, beno!)

15.2. TXORIAK

algaragoya: algaragoia

"Algaragoyak, olaseko begikes" - (Algaragoiak holaseko begiekin)

amilotxe: amilotxa

antzarra: antzarra

artatxori: artatxoria

"Emen geyen ibil dana? ontxe esango tzut berba baten, artatxori, geyen!" - (Hemen gehien ibili dena? oraintxe esango dizut berba baten, artatxoria, gehien!)

bando, bandade: txori aldra

basollarra: basoilarra

berderoya: berdeloia

biregarro, bidagarro, biragarro: birigarroa

"Segun emeko biragarrok eta kanpoti datorrenak beste kolore bat deuke" - (Segun hemengo birigarroak eta kanpotik datorrenak beste kolore bat daukate)

"Or dekot nik bidagarro bat, a, umetarik kosite kantaten dau udabarriñ, a, elegante" - (Hor daukat nik birigarro bat, umetatik hartuta kantatzen du udaberrian, dotore)

"An imintteun tranpe, eta yoten sanen soso edo bidagarro, plast! yo, ak koste yeun" - (Han ipintzen zuen tranpa, eta joaten zenean zozoa edo birigarroa, plast! jo, hark harrapatzen zuen)

"Ori da bidagarron antzeko" - (Hori da birigarroaren antzekoa)

durdule: durdura

"Es, ori esta emeko txori, durdule, soso baño aputxu bet anditxuao, ta bustena lusetxuaoas da ori, durdule" - (Ez, hori ez da hemengo txoria, durdura, zozoa baino apurtxo bat handitxoagoa, eta buztana luzetxoagoarekin da hori, durdura)

elea: elaia

eperra: eperra

epertikere: epertikara, buztanikara

"Epertikerek kolore asko deko" - (Epertikarak kolore asko dauka)

"Epertikera pere emeti dabilztes bi edo iru klase, se etorten dire epertikera antzekok, andiaok direnak" - (Epertikarak ere hemendik dabilza bi edo hiru mota, ze etortzen dira epertikara antzekoak, handiagoak direnak)

"A ori saltuke dabillena, epertikere" - (A hori saltoka dabilena, epertikera)

epetxa: epetxa

erroya: erroia

eskilaso: eskilaso

gabilloya, gabiloya: gabraia

"Gabilloyak askotan, a, kasik estire esetuten paloman arten bere" - (Gabiraiak askotan, kasik ez dira ezagutzen usoen artean ere)

galeperra: galeperra

"Aitte yon san galeperretan" - (Aita joan zen galeperretan)

gaumotza: gautxoria, hontza

gautxori: gautxoria

indi eperra: indi-eperra

"Aspaldiko neguten esta, orrek ikusi bere estire itten, indi eperrak, olasekok! selau

BERANGOKO HIZTEGIA

bitxok!" - (Aspaldiko neguetan ez da, horiek ikusi ere ez dira egiten, indi-eperrak, holasekoak! zelako piztiak!)

"Indi eperra, bai, nauk il doas orrek emen, baya oin estaus, orre tire indi eperra pa, ollon antzekok" - (Indi-eperra, bai, neuk hil ditut horiek hemen, baina orain ez daude, horiek dira indi-eperrak ba, oiloen antzekoak)

itxostxori: itsastxoria

"Aona, etorten dire, aor baye tausent lekun, orrek ogi botaten dau naye ta orra askotan etorri dire, igual aun edo giau egoten dire, askotan itxostxorik" - (Haona, etortzen dira, haor behiak dauden lekuan, horrek ogia botatzen du nahia eta horra askotan etorri dira, beharbada ehun edo gehiago egoten dira, askotan itsastxoriak)

jaule: kaiola

"Bengotzen euki gendusen guk, txorik, sosok eta bidagarrok, olau jaulek, kañaberaskok eintte" - (Bengoetxean eduki genituen guk, txoriak, zozoak eta birigarroak, holako kaiolak, kanaberazkoak eginda)

jilgeru: jilgeroa, karnaba

"Ontxe arten auki doas nik, jilgeru eta pardillo an" - (Oraintxe arte eduki ditut nik, karnaba eta pardiloa han)

kastala soso, kastela soso: gaztela zozoa

"Onek, kastala sosok? onek kusi eta nauri eron ara atera barrure, suk nauri yaten emongo dostesu, nau pere aor dekosu txori" - (Hauek, gaztela zozoak? honek harrapatu eta neuri eroan hara atera barrura, zuk neuri jaten emango didazu, neuk ere haor daukazu txoria)

"Kastela soso, oin yonta daus, enei emen! emen ganaduk kanpon dabilztes batzuk esta? eta orrek bekorotzatara" - (Gaztela zozoa, orain joanda daude, enei hemen! hemen ganaduak kanpoan dabilza batzuk, ezta? eta horiek bekorotzetara)

kayole: kaiola

kiñe: hegabera

"Kiñek, a, orrek, a, seran, edurtzan oten dire, osten, estire oten orrek" - (Hegaberak, horiek, zerean, elurtzan egoten dira, ostean, ez dira egoten horiek)

"Emen batan baten bere badabil kiñe, badabil baya gitxi, osten, a, edurtzetan kiñe emen, eskandalu oten ixen da emen" - (Hemen baten baten ere badabil hegabera, badabil baina gutxi, ostean, elurtzetan hegabera hemen, asko egoten izan da hemen)

kuku: kukua

kurlinke: kurlinka, txurlinka

mike: mika

"Mike pai, orrek beti ibiltten dires pare bat, iru bet, mike bai, Jesus!" - (Mikak bai, horiek beti ibiltzen dira pare bat, hiru bat, mika bai, Jesus!)

mingorra: mingorra

"Onek mingorrek? bakixu, ollagorran antzekok, baya txikerraok? or lotxen dire" - (Hauek mingorrek? badakizu, oilagorren antzekoak, baina txikerragoak? hor lotzen dira)

"Emen bere yunkudin, lotxen dire orrek mingorrek" - (Hemen ere, zihitzan lotzen dira mingor horiek)

"Gaur bere ikus dot nik mingorra, gaur" - (Gaur ere ikusi dut nik mingorra, gaur)

miru: mirua

"Onek miru antzeko tire" - (Hauek miru antzekoak dira)

"Miru, atxiñe ori baso ixete sanen, or asko ote san ordun" - (Mirua, antzina hori basoa izaten zenean, hor asko egoten zen orduan)

okille: okila

"Okille bai, okille asko egote san emen" - (Okila bai, okila asko egoten zen hemen)

"Emen asko egoten ixen da, okillek asko egoten ixen dire, kantaten bere bai egoten dire orrek" - (Hemen asko egoten izan da, okilak asko egoten izan dira, kantatzen ere bai egoten dira horiek)

"Okille bai gizona! okille kantaten arbolan puntan" - (Okila bai gizona! okila kantatzen arbolaren puntan)

ollagorra: oilagorra

"Bai emen nik ollagorrek asko il doas, ta txakurre kasa txakurre auki dot" - (Bai hemen nik, oilagorrek asko hil ditut, eta txakurra ehiza txakurra eduki dut)

paloma andi: uso nagusia

paloma txikerra: uso txikerra

palome: usoa

"Ori andi, palome beño askos andiao" - (Hori handia, usoa baino askoz handiagoa)

BERANGOKO HIZTEGIA

pardillu: pardiloa

“Bai gizona, serakas intte, erreka eskiñetan egoten dires olauk, a, bai eta metxu tires, me metxuk, ta, an imintten da lige, lige imintten da an ta, kañubera txikitxukes, eiñ, a, olan satitxu et, e? aguanta diñ, arten imintte, baya orrek jilgeruk, pardilluk eta orrek” - (Bai gizona, zerekin eginda, erreka bazterretan egoten dira holakoak, bai eta mehetxoak dira, mehe-mehetxoak, eta, han ipintzen da miskela, miskela ipintzen da han eta, kanabera txikitxoekin, egin, holan zatitxo bat, e? iraun dezan, artean ipinita, baina horiek jilgeroak, pardiloak eta horiek)

pase: pasoa

pato: ahatea

pospoliñe: pospolina, galeperra

sasitxori: sasitxoria

“Sasitxori beti sasitten dabil baya txikitxuau da asko bere” - (Sasitxoria beti sasitan dabil baina txikitxoagoa da asko ere)

soso: zozoa

“Emeko bertako sosok piku gorri deko” - (Hemengo bertako zozoak moko gorria dauka)

“Onek kerexak yaten deus eskandalu sosok, estires kentxen oiñ, a, amen etzearten, emen ibiltten dies oiñ” - (Honek gereziak jaten ditu itzel zozoak, ez dira kentzen orain, hamen etxe artean, hemen ibiltzen dira orain)

“Ak, a, kosteun ta aitte difunturi gustate akon soso” - (Hark, harrapatzen zuen eta aita difuntuari gustatzen zitzaion zozoa)

torkasa: uso mota bat

txinbo: txinboa

“Emeko txinbo pinto da” - (Hemengo txinboa pintoa da)

“Txinbo, gauserik gosoena a ixete san frijute” - (Txinboa, gauzarik gozoena hura izaten zen frijituta)

txindorra: txindorra

“Onek txindorran antza deko” - (Honek txindorraren antza dauka)

“Guk esaten du, datorrenen, txindorra portalera, negu dator” - (Guk esaten dugu, datorrenean, txindorra atarira, negua dator)

“Enei! ori semest bider, kontus txindorra dau portalen, sue in ber da” - (Enei! hori zenbat bider, kontuz txindorra dago atarian, sua egin behar da)

“Txindorra esta il ber, ori sarri entzun dot, se txindorra portalera etorten da, ta ate sabali padekosu barrure, artatxori modun, ta artatxori beti, yo ori burun!” - (Txindorra ez da hil behar, hori sarri entzun dut, ze txindorra atarira etortzen da, eta atea zabalik badaukazu barrura, artatxoriaren moduan, eta artatxoria beti, jo hori buruan!)

txio: txioa

“Beste txio, yateko koste san tiragomeas” - (Bestea txioa, jateko harrapatzen zen tiragomarekin)

txirte: txirta

txonte: txonta

“Txontek eitten aun len emen abi” - (Txontak egiten zuen lehen hemen habia)

“Txontak, kosi, eta, estau deretxori paya, in itte san, kosi txonte, eta imiñi or, a, suben, olan, a, belorrotza edo, eta imiñi an gori gori, eta imin begiñ olan, ta itzutute, a reklamureko” - (Txontak, hartu, eta, ez dago eskubiderik baina, egin egiten zen, hartu txonta, eta ipini hor, suan, hola, belorrotza edo, eta ipini han gori-gori, eta ipini begian hola, eta itsututa, hura erreklamorako)

txori: txoria

“Txorik ekar ber daure ori asi nonondik” - (Txoriek ekarri behar dute hazi hori non edo nondik)

txori abi: txori habia

“Askotan gu karo, emen oten sirenen igual piñutera ta ien, txori abi kosten” - (Askotan gu jakina, hemen egoten zirenean beharbada pinuetara eta igan, txiri habia hartzen)

“Txori abik Jesus Maria! txori abik oin bere, nik estekot baya edaderik, baya txori abik Jesus Maria!” - (Txori habiak Jesus Maria! txori habiak orain ere, nik ez daukat baina edaderik, baina txori habiak Jesus Maria!)

txurlinke, txurlinkoya, txurlinkoi: kurlinka, txurlinka

“Lengo negutan, ona txori asko etorte san, asko, patok, txurlinkoyak, ori esan dune” - (Lehengo neguetan, hona txori asko)

BERANGOKO HIZTEGIA

etortzen zen, asko, ahateak, txurlinkak, hori esan duguna)

15.3. NARRASTIAK-ANFIBIOAK

beneno: pozoia

"Beneno botaten dau" - (Pozoia botatzen du)

bibore: larrasugea

muskerra: muskerra

"Au muskerra, ori, a, esaten daurena ganaduk yaten badaure ta ori, a, beneno dekona edo ori" - (Hau muskerra, hori, esaten dutena ganaduek jaten badute eta hori, pozoia daukana edo hori)

"Aor abaron, or egon san, kra-kra! kra-kra! eta diñoude, niri estat kuadrau, ikusi ondon bai, baya intxun arbolan aspin, intxun eta, iñok eser badiñotzu, edo gure badau eiñ, muskerrak, kra kra kra! abisau!" - (Haor abaroan, hor egon zen, kra-kra! kra-kra! eta dinote, niri ez zait suertatu, ikusi ondoan bai, baina etzan arbolaren azpian, etzan eta, inork ezer badinotsu, edo gura badu egin, muskerrak, kra-kra-kra! abisatu!)

sapaburu: zapaburua

sapo: zapoa

"Basoko sapo eta beatako, umedadetako sapok diferente tire" - (Basoko zapoa eta behetakoa, hezetasunetako zapoak desberdinak dira)

"Ori sapo, a, estai pa ser yateun, a, ba, letxuge edo, seoser itteun txarto, eta itte san olau palu bet, sorrostu, eta sapo, ra!" - (Zapo hori, ez dakit ba zer jaten zuen, ba, letxuga edo, zer edo zer egiten zuen txarto, eta egiten zen holako makila bat, zorroztu, eta zapoa, ra!)

siroya: zirauna

suge, sube: sugea

"Aittu bedarra, bakixu len eskus ba, eta or, a, mendiñ, ibil gaittesen, oniño ni, a, es eskondute ya egon gaittesen, baya yote nitten aitteri tte laguntzen se ni orko seran, a, eta yarritte gausela seran, ukus gendun sube, bero itteun, e? baya sube gaure alboti pasata urera, bekalden egon san, a, erreka bat eta urera yoten" - (Aditu belarra, badakizu

lehen eskuz ba, eta hor, mendian ibili ginen, oraindino ni, ez ezkondata ja egon ginen, baina joaten nintzen aitari eta laguntzen ze ni horko zerean, eta jarrita gaudela zerean, ikusi genuen sugea, bero egiten zuen, e? baina sugea geure albotik pasatuta urera, beheko aldean egon zen, erreka bat eta urera joaten)

surengille: sugelandara, sugandila

"Au surengille, au olau, a, orma sulotan ta, olau seratan eta eguskitten" - (Hau sugandila, hau holako, horma zuloetan eta, holako zeretan eta eguzkitan)

ugario: urgarixoa, igela

15.4. ARRAINAK-ITSASKIAK

amarratza: hamarratza, olagarroa

"Kañubera bateas eta an puntan, alanbre bateas, trapu suri beten, amarra, ta seran, baya ordun karo, gero, asikeran, gero bere bai, txiker bat kosten badosu amarratza txikerra amarra an, eta ara sebora etorte siren andiauk" - (Kanabera batekin eta han puntan, alanbre batekin, trapu zuri baten, lotu, eta zerean, baina orduan jakina, gero, hasieran, gero ere bai, txiker bat harrapatzen baduzu hamarratz txikerra lotu han, eta hara beitarra etortzen ziren handiagoak)

"Ba amarratza da, lelengo, bertan, bertan kosten danen, amarratzari golpe batzuk emon arri beteas, an biguntzen da apur bet, eta gero egosi, egositteko beti, gure ama difuntek egosteun beti, orretan urtetan, baya kortxo bat bota, egosten, kortxo bat eta olau berdura apur bet edo sentalle, baya denpora askotan, eta gero ondo bigun daunen, neutzako preparata, beran tintteas bere bai imintteuren, baya niretzako, etzeko tomateas, tomate iñ, pal pal pal! geldiro geldiro, geldiro geldiro in tomate, a tomate selan eintte daunen, kasik, siketu barik, sera, gero amarratza ondu daunen ara bota, tomateas nasta, eta auki an ordu erdi edo seran, asko giau biguntzen da ondiarren amarratza, eta neutzako obena" - (Ba hamarratza da, lehenengo, bertan, bertan harrapatzen denean, hamarratzari kolpe batzuk eman harri batekin, han biguntzen da apur bat,

BERANGOKO HIZTEGIA

eta gero egosi, egosteko beti, gure ama zenak egosten zuen beti, urte horietan, baina kortxo bat bota, egosten, kortxo bat eta holako berdura apur bat edo zentaila, baina denbora askotan, eta gero ondo bigun dagoenean, neuretzat prestatuta, beraren tintarekin ere bai ipintzen zuten, baina niretzat, etxeko tomatearekin, tomatea egin, pal-pal-pal! geldiro-geldiro, geldiro-geldiro egin tomatea, tomate hura zelan eginda dagoenean, kasik, sikatu barik, zera, gero hamarratza ondu duenean hara bota, tomatearekin nahastu, eta eduki han ordu erdi edo zerean, asko gehiago biguntzen da oraindikarren hamarratza, eta neuretzat onena)

"Ni takitt amarratza selan daun, se amarratza teko aurre dusti alan imintte" - (Nik dakit hamarratza zelan dagoen, ze hamarratzak dauka aurre guztia hala ipinita)

angile, angille, angire: aingira

"Angile esaten dana eta gero kangrejo bere bai" - (Aingira esaten dena eta gero karramarroa ere bai)

arrañe: arraina

durdo: durdoia

kangrejo: karramarroa

"Errekako kangrejo pere bai emen asko egoten ixen dire" - (Errekako karramarroak ere bai hemen asko egoten izan dira)

"Ango beko gure solotan, gure aittek botate yeusen tankek, eta an tanken barrure sartute siren, kangrejok olan kosten dire" - (Hango beheko gure soroetan, gure aitak botatzen zituen tankak, eta han tankaren barrura sartzen ziren, karramarroak hola harrapatzen dira)

langoste: otarraina

lape: lapa

"Orrek lapak, orrek geldi daus!" - (Lapa horiek, horiek geldi daude!)

"Gu yoten gintzen bakotxen, ori, egunen egunen lelengo errasiño ori lapak" - (Gu joaten ginen bakoitzean, hori, egunean-egunean lehenengo errazioa hori lapak)

magurio: magurioa, itsas barraskilo txikerra

mojojoya: mojoyoia

pertzebe: lanperna

"Orrek pertzebek eta orrek, nik naye kosi doas" - (Horiek lanpernak eta horiek, nik nahia hartu ditut)

15.5. INTSEKTUAK

akana: akaina

"Akana da alau, sera baten modun, alau, selan esango tzu pa? akana, akanak eiten dau, odolaas beteri taunen, sapalten badosu, plau iten dau" - (Akaina da halakoa, zer baten moduan, halakoa, zelan esango dizut bat? akaina, akainak egiten du, odolarekin beterik dagoenean, zapaltzen baduzu, plau egiten du)

arañe: aramua

arbaltza: har beltza

"Ba ta arlope ta beste ba tau arbaltza esaten dotzena, a pere yaten dau" - (Bat da har-lopea eta beste bat dago har beltza esaten diotena, hark ere jaten du)

ardi: ardia

arlope: har-lopea

"Batzu taus, a, esaten dotzena arlope" - (Batzuk daude, esaten diotena har-lopea)

"Arlopek yaten dotzo asko, serari, piperrari te" - (Har-lopeak jaten dio asko, zerari, piperrari eta)

armotro: har motroa

"Ar motro da baltza, ta lurren, a, badau emen bere! eintten dotze, a, letxugak, iminparriko letxugak? ba sikete andi daunen, atakaten dotzo" - (Ha motroa da beltza, eta lurrean, badago hemen ere! egiten diote, letxugak, ipini berriko letxugak? ba sikate handia dagoenean, erasotzen dio)

arra: harra

"Gastañak atxiñe eseuren eukitten oingo modun arra, oiñ arra deko asko" - (Gaztainek antzina ez zuten edukitzen oraingo moduan harra, orain harra dauka asko)

"Baya emen dana iste san labrante ordun ba, ta txorik, a, au berde ikusiskon non bajako da? non yango dau ba? labrante gure dau, esta? arra edo bat edo beste edo" - (Baina hemen dena izaten zen lanberatua orduan ba, eta txoriak, hau berde ikusiz gero non

BERANGOKO HIZTEGIA

baxako da? non jango du ba? lanberatu gura du, ezta? harra edo bat edo bestea edo)

arsuri: har zuria

artesi: artazia, maria-artazia, maria-urkulua

"Artesi bai, matzatan eta estaka sarratan egoten dire orrek" - (Artazia bai, mahatsetan eta taket zaharretan egoten dira horiek)

auli: eulia

auli mando: euli mandoa

"Auli mando da nagosi" - (Euli mandoa da nagusia)

barakille: barakila, barea

"Barakille narras antzera, karakolan antzeko baya kaskara barik" - (Barakila narrez antzera, karakolaren antzekoa baina oskol barik)

bare: barea

"Olau bare antzeko bat edo, eitten dake barrun" - (Holako bare antzeko bat edo, egiten zaie barruan)

bitxo: mamarroa

"Estot ikusi alau bitxorik" - (Ez dut ikusi halako mamarrorik)

epertargi: ipurtargia

erlauntze, erluntze: erlauntza

"Orre tekoe olau, erluntze" - (Horiek daukate holako, erlauntza)

"Erlauntze kanbia i yeuren eta desaparesidu" - (Erlauntza aldatu egin zuten eta desagertu)

erle: erlea

erregiñe: erregina

"A erregiñe iltten baosu, agur danak" - (Erregina hura hiltzen baduzu, agur denak)

eruge, oruge: erugea

eskarabajo, eskerabajo: eskarabajoa

"Urte askotan emen nauk esetu dot, a, eskarabajo barik, baya oiñ estait senbest ixengo diren igual ogei urte edo giau sartu dala ori" - (Urte askotan hemen neuk ezagutu dut, eskarabajo barik, baina orain ez dakit zenbat izango diren beharbada hogeia urte edo gehiago sartu dela hori)

espade: ezpata

gaune: aramu sarea, gauna

"Gaune da ona" - (Gauna ona da)

grillu: txirri-txirria

"Grillu ixate san! txikerretarik" - (Txirri-txirria izaten zen! txikerretatik)

ifernuko katu: infernuko katua

"Guk esaten dotzu ifernuko katue, oruga baltza bateri" - (Guk esaten diogu infernuko katua, oruga beltz bati)

iñurri: inurria

kakarraldo: kakarraldoa

"Kakarraldo esaten du, olau adarrakas" - (Kakarraldoa esaten dugu, holako adarrekin)

kaparra: kaparra

"Aittu neun t'ene! au kaparra da" - (Aittu nuen eta ene! hau kaparra da)

karakola: barraskiloa

"Asiske ori detano gero ber dosu, detano, orrek karakolak iltten dittusena, ese karakola pere desaparesidu intten dittus" - (Halandaze detano hori gero behar duzu, detanoa, horrek barraskiloak hiltzen dituen, eze barraskiloak ere desagertu egiten ditu)

"Ak yateusen, onek, a, karakolak eta onek, ein montoi bet pillo, olan, a, sasitxu bet igual, eta imin bedar siku, eta ara bota karakolak, eta karakolak bakixu, gora, gero sue emon, eta an yateusen" - (Hark jaten zituen, hauek, barraskiloak eta hauek, egin multzo bat piloa, hola, sasitxo bat beharbada, eta ipini belar sikua, eta hara bota barraskiloak, eta barraskiloak badakizu, gora, gero sua eman, eta han jaten zituen)

kotxo: kokoa, kotxoa

"Sortzi egunen kanpon badekosus ya kotxos beteri taus" - (Zortzi egunean kanpoan badauzkazu ja kotxoz betेरik daude)

lantze: eztena

lupu: lupua, eruge mota bat da

"Eta beste ba pere bai, gero, lupu geittute deutzen, lupu, ori, egote sana bedarrarten, ori sekule bedarrarten, eta yaten dauren alau bitxo bat ixete san, seran modun, eta beneno auki asko, eta baye sera itten san pustu" - (Eta beste bat ere bai, gero, lupura deitzen zioten, lupua, hori, egoten zena belar-artean, hori sekula belar artean, eta jaten zuten halako mamarro bat izaten zen, zeraren moduan, eta pozoia eduki asko, eta behia zera egiten zen puztu)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Lupu da, berde berde, berde berde da, seran antzeko, eruge antzeko, eruge baño andiau, eruge baño andiau eta berde berde" - (Lupua da, berde-berdea, berde-berdea da, zeraren antzekoa, eruge antzekoa, erugea baino handiagoa, erugea baino handiagoa eta berde-berdea)

"Gure ama defuntek esate yeun, es yon se or dau lupu! esate yeun beti" - (Gure ama zenak esaten zuen, ez joan ze hor dago lupua! esaten zuen beti)

lur txakurre: lur txakurra

"Lur txakurrek eiten dau, grillun modun, baya askos fuerteau gauetan" - (Lur txakurrak egiten du, txirri-txirriaren moduan, baina askoz indartsuago gauetan)

"Gas da kosten, baya gauen kantaten daunen, gauen kantaten dau, grillun modun baya askos fuerteau lur txakurrek" - (Gaitz da hartzen, baina gauean kantatzen duenean, gauean kantatzen du, txirri-txirriaren moduan baina askoz indartsuago lur txakurrak)

mamarro: mamarroa

marigorri: marigoringoa

maripose: txirpilota

moskito: eltxoa

paspi: bazpia, bartza

"Sorrin arrotza tire paspik, ta gero andik urteten dau sorrikumek" - (Zorriaren arrautzak dira bazpiak, eta gero handik irteten du zorrikumek)

saltamatxino: saltamatxinoa

"Saltamatxinon klaseko da, baya buru txikitxu te gorputze andi" - (Saltamatxinoaren erakoa da, baina burua txikitxoa eta gorputza handia)

saparre: saparra

"Saparre! an dau esti ba!" - (Saparra! han dago eztia ba!)

sape: har eta erugeen lumatxa

sitze: sitsa

sorri: zorria

sorri berde: zorri berdea

"Sorri berde intten dako baya ainbeste estotzo atakaten" - (Zorri berdea egin zaio baina hainbeste ez dio erasotzen)

sorrikume: zorrikumea

txirpillote: txirpilota, tximeleta

urubio: urubioa

usena: izaina

"Es iturriti edan ure, se etorten diren usenak" - (Ez iturritik edan ura, ze etortzen dira izainak)

16. BEHARRA

Atal honetan nekazaritza eta abelazkuntza ez diren garaiteko ogibideen gainerako berbak emango ditugu. Horretarako, ogibideen izenak eta erreminten izenak bereiziko ditugu.

16.1. OGIBIDEAK

abogadu: abokatua

afiladore: zorrotzailea

aguasille: aguazila, udaltzaina

"Egun beten aguasille on san an ta, estaitt batan batek, or errittan dabiltes ta errittan? kosu te etzera martxa, in diela gure dauena, ni bano etzera" - (Egun baten aguazila egon zen han eta, ez dakit baten batek, hor errietan dabilta eta errietan? hartu eta etxera alde, egin dezatela gura dutena, ni banoa etxera)

albañille, albañela: igeltseroa

"Nire nebe au diñotena albañela, eron nire semek ara dana itten" - (Nire neba hau dinodana igeltseroa, eroan nire semeak hara dena egiten)

"Es oneas, gasta denporarik, ese onek estau gure se diño berak albañela edo olan gure daule ixen" - (Ez honekin, galdu denborarik, eze honek ez du gura ze dino berak igeltseroa edo hola gura duela izan)

aldeane: baserritarra, nekazaria (f.)

aldeanu: baserritarra, nekazaria (m.)

aña: inudea

"Algortan egote siren len añaak eta" - (Algortan egoten ziren lehen inudeak eta)

argiñe: hargina

"Aitte difuntuk berak, a, argiñe ixen san bera bere eta berak eitteun" - (Aita defuntuak berak, hargina zen bera ere eta berak egiten zuen)

arotza: arotza

"Ori esan ixen arotza" - (Hori ez zen izan arotza)

barberu: bizargina

BERANGOKO HIZTEGIA

"Nik beti esetu dot barberu emen" - (Nik beti ezagutu dut bizargina hemen)

beargiñe: behargina

bear lagune: behar laguna, lankidea

beterinario, beterenario, betenario: albaiteroa

"Beterenario etorri barik, beterenario modun, enfermeru baten modun aukitteuren" - (Albaiteroa etorri barik, albaitero moduan, erizain baten moduan edukitzen zuten)

binoteru: ardauduna, arda saltzailea

"Algortako binoteruk ekarri eun sagi bet arda" - (Algortako ardaudunak ekarri zuen zahagi bat arda)

butaneru: butano saltzailea

diretore: zuzendaria

enfermeru: erizaina (m.)

erradore: perratzailea

"Erradore bat egon san emen" - (Perratzaile bat egon zen hemen)

errementari: errementaria

"Errementari ikisten etorri san Aspera" - (Errementari ikasten etorri zen Aspera)

"Ordun, a, errementariñ, a, untzak ixete siren" - (Orduan, errementariaren, iltzeak izaten ziren)

"Errementariñe eroten gendun, a, peseta bat kobrate yoskun a erreuede itteko" - (Errementariarena eroaten genuen, pezeta bat kobratzen zigun txirrinka hura egiteko)

errotari: errotaria

garde: basozaina

jardiñeru: lorazaina

jornala: behar saria, soldata

"Jornal bi irebasteusen" - (Soldata bi irabazten zituen)

jornalere: alogerekoa (f.)

jornaleru: alogerekoa

jubiledu: jubilatua

juesa: epailea

kamiñeru: kamineroa, bide konpontzailea

"Estosu ikusi, orrek atxurrek selan diresen sabalak? orrek kamiñerunek?" - (Ez duzu ikusi, aitzur horiek zelan diren zabalak? horiek kamineroenak?)

kanteru: hargina

kapadore: kapatzailea

kapittana: kapitaina

karnisere: harakina (f.)

karniseru, karneseru: harakina

"Ni mataderon ta gero, karneseru ixte nas" - (Ni hiltegiaren eta gero, harakina izan naiz)

karteru: postaria

kosiñere: sukaldaria (f.)

kosiñeru: sukaldaria (m.)

kriede, kriade: kriada, neskame (f.)

"Kriada etorri san ori neskato" - (Neskame etorri zen neskato hori)

kriedu: kriadua, morroia

"Kriedu bet egon san guren" - (Kriadu bat egon zen gurean)

labandere: ikuzlea

letxere: esneketaria (f.)

letxeru: esneketaria

makinista: makinista

mariñeru: marinela

mariñu, marinu: marinela

"Aitte marinu ixen san" - (Aita marinela izan zen)

matarife: matarifea, piztia hiltzailea

"Matarife bat txarri iltten etorte san" - (Matarife bat txerria hiltzen etortzen zen)

"Emen jente asko, on dire txarrik iltteko modun ta serak, orrek, a, matarife modun" - (Hemen jente asko, egon dira txerriak hiltzeko moduan eta zerak, horiek, matarife moduan)

"Ni matarifetzat ego nitzenen emen, asko iltte siren" - (Ni matarifetzat egon nintzenen hemen, asko hiltzen ziren)

"Eta ori ixate san, etorte san beterinario, ekarteun matarife, irigitte san ganadu, te txikertu itteren ba karneserin modun" - (Eta hori izaten zen, etortzen zen albaiteroa, ekartzen zuen hiltzailea, irekitzen zen ganadua, eta txikertu egiten zuten ba harategian moduan)

mediku: medikua

"Auki eun medikues konfiantza andi, esta?" - (Eduki zuen medikuarekin konfiantza handia, ezta?)

"Berangon on da mediku bet, amar urten eta oin bixi da Mungitti arantza" - (Berangon egon da mediku bat, hamar urtean eta orain bizi da Mungiatik harantz)

mineru: meatzaria

moldeadore: moldeatzailea

obreru: behargina, langilea

ofisio: ogibidea

pantalonere: praka egilea

panaderu: okina

BERANGOKO HIZTEGIA

"Urteixu bidera, estitten yon panaderu ogi itxi barik" - (Irten ezazu bidera, ez dadin joan okina ogia utzi barik)

partere: emagina

"Partere nire amama san, nire amama, partere a ixen san" - (Emagina nire amama zen, nire amama, emagina hura izan zen)

pastore: artzaina

"Pastorek, e, es ona, baya aor, aurrerau daun etze batera etorte siren" - (Artzainak, ez hona baina haor, aurrerago dagoen etxe batera etortzen ziren)

pelukere: ile apaintzailea

peskateru: arrain saltzailea

polisi: polizia

sapateru: zapataria

sardiñere: sardinera, arrain saltzailea

"Sardiñere etzera etorte akun" - (Sardinera etxera etortzen zitzaigun)

sekretario: idazkaria

sesteru: otzaragilea

"Aitte difuntu ixte san sesteru, eitteusen, a, sillak eta sesto pere bai, eta orretaringo gausek" - (Aita zena izan zen otzaragilea, egiten zituen, aulkiak eta otzarak ere bai, eta horietariko gauzak)

taberneru: tabernaria

teleru: ehun saltzailea

torneru: torneroa

traperu: arropa zaharren biltzailea

txarrisiñe: txerrizaina, txerri saltzailea eta hiltzailea

"Txarrisiñe ixete san txarrik kapaten etorten sana" - (Txerrizaina izaten zen txerriak irentzen etortzen zena)

txatarreru: txatarrerua

"Txatarreruri saldu neuzesen nauk" - (Txatarreruari saldu nizekion neuk)

yoskille: joskilea

"Yoskille ixen san au" - (Joskile izan zen hau)

16.2. ERREMINTAK

arandele: arandela

aste: asta, kirtena

asuele: azuela, zeioa

barreno: laratroa

birbiki: birbikina

"Birbiki eleitte sartu" - (Birbikina ez liteke sartu)

bufarde: bufarda, harria lantzeko erabiltzen den mailua; mailu honek haginak dauzka

"Bai, bai, bai, pikek, bufarda bat barru eitteko eta gero pikek, alan, a, kodañe pikateko mallue? antzeko, alau bat, baya aik ote sien sorrotz, norberan bixerra kentzeko modun, e?" - (Bai, bai, bai, pikak, bufarda bat barrua egiteko eta gero pikak, hala, kodaina pikatzeko mailua? antzekoa, halako bat, baina haiek egoten ziren zorrotz, norberaren bizarra kentzeko moduan, e?)

errementari untze: errementari iltzea

erremintte: erreminta

"Yusturi edo truboya ibiltte sanen, a, ensegida itxitte siren erremintte dustik" - (Justuria edo trumoa ibiltzen zenean, behingoan uzten ziren erreminta guztiak)

eskuadre: eskudra

formoya: formoia

garlope: garlopa

garlopiñe: garlopina

"Au garlopiñe da, garlope andiau ixete san au baño, ondiño or dekot" - (Hau garlopina da, garlopa handiagoa izaten zen hau baino, oraindino hor daukat)

gramille: gramila

lime: lima

makiñe: makina

"Ordureko etor san makiñeri, ya makiñekas eitte auren" - (Ordurako etorri zen makinaria, ja makinekin egiten zuten)

makiñeri: makinaria

mallu: mailua

"Gero mallues golpeka iten dere, lusetu" - (Gero mailuarekin kolpeka egiten dute, luzatu)

masete: mazeta

"Atarate sana gorantza, eta ueku aukitteuren erdiñ, sartu an, a, kortxo, eta gero ba maseteas yoteuren" - (Ateratzen zena gorantz, eta hutsunea edukitzen zuten erdian, sartu han, kortxoa, eta gero ba mazetarekin jotzen zuten)

motorra: motorra

palanke: palanka

"Ordun asikeran, palankatxu bet, dinamiten megidak, apur bet giatxuko, sartxe san arri bittarten, ta gero an sartute san kartutxo, gero lurreas tapateun a" -

BERANGOKO HIZTEGIA

(Orduan hasieran, palankatxo bat, dinamitaren neurriak, apur bat gehiagotxokoa, sartzen zen harri bitartean eta gero han sartzen zen kartutxoa, gero lurrarekin tapatzen zuen hura)

"Ondiño untxerarten egon dire aitte difuntun palankak or" - (Oraindino oraintxera arte egon dira aita defuntuaren palankak hor)

pikatzoya: pikatxoia

porre: porra

"Amen portalen esetu dot, a, olau, a, martillo andies, porreas yoten, txikertuteko" - (Hemen atarian ezagutu dut, holako, mailu handiarekin, porrarekin jotzen, txikertzeko)

"Baya olaseko bolak, e? bola andik, porreas eitteuen txikertu" - (Baina holaseko bolak, e? bola handiak, porrarekin egiten zuten txikertu)

serre: zerra

"Ondiño orretariko serrak bakoas neu pere ondiño batzuk, ya asko galdu dire, se batek eskatu bestek eskatu, apur bet yon dire" - (Oraindino horietariko zerrak badauzkat neuk ere oraindino batzuk, ja asko galdu dira, ze batek eskatu besteak eskatu, apur bat joan dira)

serrriñe: zerrautsa

"Txirlora aputxu bet bota nuntzen, serrin aputxu bet, dana garbi" - (Txirlora apurtxo bat bota nion, zerrauts apurtxo bat, dena garbi)

serrote, serrota: zerrota

sintzela, sinsela: zintzela

taladro: laratroa, daratulua

tornillu: torlojua

"Tornillu prentza itteko, oiñ, a, beste klase ba tau, or dekoas ondiño barrik" - (Torlojua prentsatu egiteko, orain, beste mota bat dago, hor dauzkat oraindino berriak)

txatarra: txatarra

txirlore: txirlora

"Txirlore botaten deure oraiñ, baya ordun ori itteuen, ota bedarra ta bedar siku, ganadu beti sikuten, e?" - (Txirlora botatzen dute orain, baina orduan hori egiten zuten, ote-belarra eta belar sikua, ganadua beti sikatzen, e?)

untze: iltzea

"Eitten dana da, ba bueno, narru kendu, eta grasa dusti ondo kendu, kendu ondo, eta aten, ate baten edo aten atzekalden, ondo estirata, untze batzukes imiñi, eta gero kare emon" - (Egiten dena da, ba beno, narrua kendu, eta koipe guztia ondo kendu, kendu ondo, eta atean, ate baten edo atearen atzeko aldean, ondo tinkatuta, iltze batzuekin ipini, eta gero karea eman)

"Untzek eyeun balio onetako au dusti eitteko" - (Iltzeak ez zuen balio honetarako hau guztia egiteko)

17. ABELAZKUNTZA

Abelazkuntzaren gaineko berbak aurkezteko, abere mota bakoitzaren arabera ondoko sailkapena egin dugu: ganadua, ardiak eta ahuntzak, ekinoak, txerria, oiloak, erleak, txakurra, katua eta gainerakoak; azken azpi-atal honetan arteragokoetan ezin sartu izan ditugun berbak agertuko dira.

17.1. GANADUA

adarkade: adarkada

"Adarra tekona da, batak besteri ba, adarkada emoten deutze" - (Adarrak daukana da, batak besteari ba, adarkada ematen diote)

adarra: adarra

"Ori segun adarra selan doan, serrotatxu beteas, a, apur bet, a, barruti ebai, eta, ara fallora sarratu itte akon" - (Hori segun adarra zelan doan, zerrotatxo batekin, apur bat, barrutik ebaki, eta, hara akatsera itxi egiten zitzaion)

"Apurtute yakosean ta orreaittik eitte otzesan puntak, a, espabere apurtu te gero, adarra galtxeuen, nik entzun dotzet askotan aitteri, adarrak konpondu ber dakos, e? onek adarrak estaus ondo" - (Apurtzen zitzaizkion eta horregatik egiten zizkion puntak, ezpabere apurtu eta gero, adarra galtzen zuen, nik entzun diot askotan aitari, adarrak konpondu behar zaizkio, e? adar hauek ez daude ondo)

agin txikerra: hagin txikerra, ganaduaren hasierako hagin izena

BERANGOKO HIZTEGIA

"Lelau agin txikerrak eitten dakes" -
(Lehenago hagin txikerrak egiten
zaizkie)

"Oniño orrek agin txikerrakas daus esteke
urte bete baño" - (Oraindino horiek
hagin txikerrekin daude ez daukate urte
bete baino)

albañe: albaina, ganaduaren arnasoska

anillo: paradako zekorrari sudurrean
ipintzen zaion eraztuna

apala: apala, armera beherantz adi daukan
ganadua

"Berantza dekonari edo olan apala
geittuten dako" - (Beherantz daukanari
edo hola apala deitzen zaio)

apatxa: apatxa

"Apatxak esate yeutzean, apatxak in
yakosan lusetu, ta koxo ibiltte siren
gero" - (Apatxak esaten zieten, apatxak
egin zitzaizkion luzatu, eta herren
ibiltzen ziren)

apatx bittarteko, apatx bitxarteko:
apatx-artekoa, ganaduaren gaixoa

"Apatx bittarteko itteun, asufre salako
dekot, erre itte otzen, eta gero mendau"
- (Apatx-artekoa egiten zuen, sufrea
zelakoa daukat, erre egiten zien, eta
gero bendatu)

aragi: haragia

"Erremate? ba imintteuen maye baten
ganen, a, aragik, pillok" - (Erremata?
ba ipintzen zuten mahai baten gainean,
haragiak, piloak)

arbi: arbia, apatxaren eta adarraren
barruko haragia

armere: armera

"Len bear giau itte san solon, gaur baño,
eta len gure guresok eta ba, ferire yoten
sirenen bei bet erosten ba, jo armere!" -
(Lehen behar gehiago egiten zen
soroan, gaur baino, eta lehen gure
gurasoak eta ba, azokara joaten
zirenean behi bat erosten ba, jo
armera!)

"Sei litro edo bost litro badekos edo sasp
badekos, etzerako naiko da baya armere
euki dilla busterrin ibiltteko" - (Sei litro
edo bost litro badauzka edo zazpi
badauzka, etxerako nahikoa da baina
armera eduki dezala buztarran
ibiltzeko)

arrana: arrana

"Arrana arrana da, andiau nei txikerrau" -
(Arrana arrana da, handiagoa nahi
txikerragoa)

aspi: azpia; kortan otearekin edo prestatzen
den azpia

"Emen, a, bueno, ori gausa askotarako, ori
emen, len, a, ba, bayeri aspittera botateko
bardiñ" - (Hemen, beno, hori gauza
askotarako, hori hemen, lehen, ba, behiei
azpitara botatzeko berdin)

aspigarri: azpigarria, azpia egiteko materiala

asturiane: asturiarra, ganadu enda bat

atze: atzea, ganaduaren gorputzaren atzeko
aldea

"Batzu tires atzes istuauk, beste batzuk
sabalauk eta, sarrauk, ikusi itten dires orre
pere ba" - (Batzuk dira atzez estuagoak,
beste batzuk zabalagoak eta, zaharragoak,
ikusi egiten dira horiek ere ba)

atze askoko: atze askokoa, atze handia
daukan ganadua

atze sabala: atze zabala

atzistu: atze estua, atze eskaseko ganadua

asufre: sufrea, apatx-artekoa osatzeko
erabiltzen zen; txakolin barrika garbitzeko
ere erabiltzen zen

aurreko beso: aurreko besoa

aurreko palak: aurreko palak, ganaduaren
aurreko haginak

aurrera!: aurrera, aida; aurrera egiteko esaten
den berba

ausnarra: hausnarra

baye, beye: behia

"Ilte sanen baye, bairen bat, lelengo tasa
intte siren, ta gero ilte sirenen ba dustiñ
arten paga a baye, eta yateko modun
egoten basan eintteuen ba, sesiñe" -
(Hiltzen zenean behia, behiren bat,
lehenengo tasatu egiten ziren, eta gero
hiltzen zirenean ba guztien artean
ordaindu behi hura, eta jateko moduan
egoten bazen egiten zuten ba, zezina)

"Se gero ixen san beye, seireun kiloko beye,
kanalen, danak estires, e!" - (Ze gero izan
zen behia, seiehun kiloko behia, kanalean,
denak ez dira, e!)

baye pinto: behi pintoa

"Emen, a, betiko bayek, pintok, nosonos
suisaren ba pai, baya emen baye pintok" -
(Hemen, betiko behiak, pintoak, noiz edo
noiz suitzarren bat bai, baina hemen behi
pintoak)

BERANGOKO HIZTEGIA

begai: bigai, bigantxa

bei arra: umerik egin ez duen behia

bei esnatze: behi esnatza, esne askoko behia

bekorotza: bekorotza

"Bekorotzas siketu itten da, eta siketukeran axe sartzen dako" - (Bekorotza sikatu egiten da, eta sikatzean haizea sartzen zaio)

"Ori, a, atxiñe len, ganadun bekorotzaas be eitteuren" - (Hori, antzina lehen, ganaduaren bekorotzarekin ere egiten zuten)

besaka: besaka; buztarrian barrurantz indarra egitea

beso: besoa, ganaduaren aurreko hanka

"Txala olan dator esta? besokas olan, eta batzuten, bakixu au pasten da, aona aspire, ta ordun estau emoten, a, serak, ordun kosu in ber dako, sartu esku, kosu te artestu, artestu bera" - (Txahala holan dator ezta? besoekin hola, eta batzuetan, badakizu hau pasatzen da, haona azpira, eta orduan ez du ematen, zerak, orduan hartu egin behar zaio, sartu eskua, hartu eta arteztu, arteztu bera)

birikitteko: birikietakoa, ganaduaren gaixoa

branke: ganaduaren bizkar hezurra

"Ganadu teko, branke, e? branke ganaduk auki ber dau, au maye modun" - (Ganaduak dauka, bizkar hezurra, e? bizkar hezurak eduki behar du, mahai hau moduan)

buelta!: buelta, jeurt, ganaduari esaten zaio buelta egin dezan

buru: burua

"Berrogetabi buru dekoas" - (Berrogeita bi buru dauzkat)

bustena: buztana

"Gau teku ganadu bet eta ferire eron ber du, ordun, a, ordun arreglate san ganadu, a, bustena ta au te beste" - (Geuk daukagu ganadu bat eta azokara eroan behar dugu, orduan, orduan konpontzen zen ganadua, buztana eta hau eta bestea)

"Selan eukiun usena orrek? ori eitte otzen belarri ebai, eta bustenan punte" - (Zelan eduki zuen izena horrek? hori

egiten zioten belarria ebaki, eta buztanaren punta)

"Feritten bere, tratante dustik txala pere, ogei eguneko txala pere ya bustenak arreglata dekes, auren artesikes ta" - (Azoketan ere, tratulari guztiak txahalak ere, hogeia eguneko txahalek ere ja buztanak konponduta dauzkate, eurek arteziekin eta)

busterri beye: buztarri behia

"Makiñetu, a, beyekas, e, beyek onak, busterri beyek, suisak eta, beyekas, a, labrate neusen, ta toka asten labrantze neuk ein bearra, gaste nasela, amabost urteas, bai gerran" - (Makinatu, behiekin, behiak onak, buztarri behiak, suitzarrak eta, behiekin, lantzen nituen, eta tokatu zitzaidan labrantza neuk egin beharra, gaztea naizela, hamabost urterekin, bai gerran)

dindirri: dindirria, txahal egin baino lehen naturatik eskegita edukitzen duen lohikeria
"Lelau dindirri markaten dere, ta gero ur boltze" - (Lehenago dindirria markatzen dute, eta gero ur poltsa)

enpajade: enpajada, ganaduentzat egiten den jatekoa

"Negun igual bai, otz andi oten sanen, enpajade in ber dake ganaduri" - (Neguan beharbada bai, hotz handia egoten zenean, enpajada egin behar zaie ganaduei)

enpatxu: enpatxua, ganaduaren gaixoa

"Mamukio ona da enpatxureko, eta kenpulle egosi oba" - (Mamukioa ona da enpatxurako, eta kipula egosia hobea)

ernari: ernari

erradure: perra

"Imin ber dako erradure edo seoser aspiñ" - (Ipini behar zaio perra edo zer edo zer azpian)

errape: errapea

"Su errapera basoas eskukes ataraten gorde itten dotzu" - (Zu errapera bazoaz eskuekin ateratzen gorde egiten dizu)

erri beye: herri behia

erridi: herri idia

erri ganadu: herri ganadua, okelarako ganadu gorria

"Erri ganadu suisu eta ori san" - (Herri ganadua suitzarra eta hori zen)

erro: erroa

"Pomadatxu erroti sartu, ak esnek esaun balioten, e? a esne balda batera edo

BERANGOKO HIZTEGIA

aparta itte san" - (Pomadatxoa errotik sartu, esne hark ez zuen balio izaten, e? esne hura balde batera edo kendu egiten zen)

erroko txala: erroko txahala

"Erron dabillena da, erroko txala da, ba, ondiño, ba errapen dabillena" - (Erroan dabillena da, erroko txahala da, ba, oraindino, ba errapean dabillena)

eske: eske, besatiraka; buztarrian kanporantz tira egitea.

"Eske esaten dotzu orreri kanporantza eitten daunek, olan eitten daunek eske, ta bestek eitten daune besaka" - (Eske esaten diogu horri kanporantz egiten duenak, hola egiten duenak eske, eta besteak egiten duena besaka)

esnatze: esnatza, esne askoko behia

esne askoko: esne askokoa, esnatza

esne golpe: esne kolpea

esne loye: esne lohia, txahala egin eta osteko lehen esnea

"Esne garbittu bari tau ondiño, esne loye deko" - (Esnea garbitu barik dago oraindino, esne lohia dauka)

espille: espila, bekokian edukitzen dute gehienetan

"Espille? bai emen, a, eukitten daune, a, ganaduk, bai eukitten dau, ba, igual gorri da edo baltza edo, eta igual suri, espil suri bet" - (Espila? bai hemen, edukitzen duena, ganaduak, bai edukitzen du, ba, beharbada gorria da edo beltza edo, eta beharbada zuria, espil zuri bat)

euert!: buelta, jeurt

euert atzera!: buelta, jeurt; ganaduari esaten zaiona buelta egiteko.

fregasiño: fregazioa, behiari txahala egin eta ostean ardaurekin egiten zitzaiona

"Len emote yakon, ardaur ber da ta fregasiño, ta sera, ta manta ta au te beste itte yakon" - (Lehen ematen zitzaion, ardaur behar da eta fregazioa, eta zera, eta mantatu eta hau eta bestea egiten zitzaion)

ganadu: ganadua

"Ori organisaten san, a, eitte yauren illen, itte yauren, aurok aukitte yauren, a sera bat, lista bat, eta andi listati eitte auren gero, ermendaden, a, seran, gero itte auren batzar bat, batzar bat, an, a,

seran, oiñ, a, frontoya daun lekun, erriko etze a ixen san, eta an olan plasuela bat, eta ara yoten sien, ganaduk eroten, eta an tasate yeuren, senbest balio dau edo au te beste, ara yote sien eta gero or, o, yausi itten basiren edo iltten basan ganadu bakotxa, baya gero aukitte yauren, a, sera bat, a, enfermeru bet edo ori dana, eta ak ikuste aun ia txarra badau, ganadu txarto badau edo au edo beste, eta gero tasasiñoti seran, balio daunun, ba sosio bakotxak pagate aun, ainbeste, a ganadu pagateko" - (Hori antolatzen zen, egiten zuten hilean, egiten zuten, eurok edukitzen zuten, hura zer bat zerrenda bat, eta handik zerrendatik egiten zuten gero, ermandadearen, zerean, gero egiten zuten batzar bat, batzar bat, han, zerean, orain, frontoia dagoen lekuan, herriko etxea hura izan zen, eta han hola plazatxo bat, eta hara joaten ziren, ganaduak eroaten, eta han tasatzen zuten, zenbat balio du edo hau eta beste, hara joaten ziren eta gero hor, jausi egiten baziren edo hiltzen bazen ganadu bakoitza, baina gero edukitzen zuten, zer bat, erizain bat edo hori dena, eta hark ikusten zuen ea txarra dagoen, ganadua txarto dagoen edo hau edo bestea, eta gero tasaziotik zerean, balio duenean, ba bazkide bakoitzak ordaintzen zuen, hainbeste, ganadu hura ordaintzeko)

"Emen eon sana, emen, a, len, a, olan frisione, olau baten batek aukitte aun olau ganadu sueltue baya osten frisione geyena" - (Hemen egon zena, hemen, lehen, hola frisoia, holako baten batek edukitzen zuen holako ganadu askea baina ostean frisoia gehiena)

"Bera bota ganadu, an bertan bean sangra, kordel bateas aurreko ankak imiñi, eta ondo sangretako mogidu" - (Behera bota ganadua, han bertan behean odolustu, kordel batekin aurreko hankak ipini, eta ondo odolusteko mugitu)

"Alik eta piñu iminten asi arten dana ixen san ganadu" - (Harik eta pinua ipintzen hasi arte dena izan zen ganadua)

idi: idia

"Emen idik eukitteusen, emen Berangon sortzik edo amarrek edo" - (Hemen idiak edukitzen zituen, hemen Berangon zortzik edo hamarrek edo)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Idik atzera eitteun, aurrera in berren atzera itteun" - (Idiak atzera egiten zuen, aurrera egin beharrean atzera egiten zuen)

idi eskerra: idi ezkerria

idi eskoya: idi eskoa

inseminasiño: intseminazioa

"Neu pere sekorra dekot, eta odola kanbiateko ta olan, ba, eitten dot neu pere, inseminasiñok eitten doas" - (Neuk ere zekorria daukat, eta odola aldatzeko eta hola, ba, egiten dut neuk ere, intseminazioak egiten ditut)

isterra: atzeko hanka

kable: kablea, adarra ebakitzeko erabiltzen dena

kabranku: ganaduaren gaixoa

kadera bitxarteko: hanka bitartekoa, apatx-artekoa; ganaduaren gaixoa

"Kaderatan ba, batzuk, a, au kadera bitxarteko geixo bat, geixo ba tau, eta ondiño badau se nauk auki dot beye ontxe iru urte emen, Loyuko feriñ artute, asturiana bat, elegante ser san gero!" - (Hanketan ba, batzuek, hanka bitarteko hau gaixo bat, gaixo bat dago, eta oraindino badago ze neuk eduki dut behia oraintxe hiru urte hemen, Loiuko azokan hartuta, asturiar bat, dotore zer zen gero!)

kadere: hanka

kakapirri: beherazkoa, beherantzekoa

kasku: apatxa

"Kaskuk, a, salle andi deko, esaten dana, ori kentxen deutzena" - (Apatxak, sail handia dauka, esaten dena, hori kentzen diotena)

kastañade: gaztainatua, ganadu enda bat

"Emen, ganadu pintte ixete san emen, pintte edo suise bere bai, gero ori kastañade aren" - (Hemen, ganadu pintoa izaten zen hemen, pintoa edo suitzarra ere bai, gero hori gaztainatua arean)

kastañu: gaztainatua, ganadu enda bat

katanarra: katanarra, ganaduaren kolorea

"Katanarra nik pentzaten dot errase estala" - (Katanarra nik pentsatzen dut erraza ez dela)

killibere: kilibera

"Killibere da beste gause bat" - (Kilibera da beste gauza bat)

"Orrek killiberak, orrek okerra tires" - (Kilibera horiek, horiek okerrak dira)

korrontzi: beherazkoa, beherantzekoa

mamitise: mamitisa, ganaduaren gaixoa

matrise: matrizea

"Kisteren bat eukitten dalakon matrisen" - (Kisteren bat edukitzen delako matrizean)

matuto: matutoa, ganadu enda bat

"Bai, bai, il bere in doas nik matutok" - (Bai, bai, hil ere egin ditut nik matutoak)

"Errase da, matutok, datos, e, Asturiasti" - (Erraza da, matutoak, datoz, Asturiasetik)

matxorra: umerik egin ez duen behia

murruke: murruka, adarka

"Gu gauk murruke esaten geuntzen beti" - (Guk geuk murruka esaten genion beti)

murruse: murrusa, ganaduaren zarata

musturre: musturra

"Musturre deko luse" - (Musturra dauka luzea)

nafarri: nafarria, ganaduaren gaixoa

"Gortarako ona da kare, se guren esnekas, saldies ama ibilte san Algortako mataderoti, ta bakixu nafarri tte olau jenerok, eta guk botaten gendun kare, entradan, gortako entradan" - (Kortarako ona da karea, ze gurean esneekin, zaldiarekin ama ibiltzen zen Algortako hiltegitik, eta badakizu nafarria eta holako gauzak, eta guk botatzen genuen karea, sarreran, kortako sarreran)

narru: narrua

"A narru lotxen da sulotute, sulo sulo intte" - (Narru hura lotzen da zulatuta, zulo-zulo eginda)

"Aprobetxaten ganadun narru estot ikusi" - (Aprobetxatzen ganaduaren narrua ez dut ikusi)

o! : o, lotzeko esaten zaie

okelarako ganadu: okelarako ganadua

opille: opila, txahala egin eta ostean errapean gaixo baten ondorioz ganaduari errapean egiten zaion gogorgunea

"Opillek eitten dakes eta gogortu, ta gero esnek, gogortu itten dices, ta satik atara ber dices ta barrabas!" - (Opilak egiten zaizkie eta gogortu, eta gero esneak, gogortu egiten dira, eta zatiak atera behar dira eta barrabas!)

osale: osala, ganaduaren jatekoa

"Emen imintte san, a, balde edo seoser emen imintte san ta, ara yauste sana gero,

BERANGOKO HIZTEGIA

ganaduri emoteko, osale emoteko ganaduri gero" - (Hemen ipintzen zen, baldea edo zer edo zer hemen ipintzen zen eta, hara jausten zena gero, ganaduari emateko, osala emateko ganaduari gero)

otzikere: errapeko gaixoa

"Esne askoko ganaduk otzikerak koste deittues" - (Esne askoko ganaduek hotzikarak hartzen dituzte)

palak: palak, ganaduaren aurreko haginak

"Segun palak selan dekosen, aonenbeste estaitt senbet iru pala direlako dekot" - (Segun palak zelan dauzkan, haonenbeste ez dakit zenbat hiru pala direlako daukat)

"Palak selan yausi alan, ta danak yausten badire ya sarratute dau" - (Palak zelan jausi hala, eta denak jausten badira ja itxita dago)

"Urte baterik bestera bestek ya datos, ya onek palak" - (Urte batetik bestera besteak ja datoz, ja pala hauek)

paradako sekorra: paradako zekorra

parade: parada, zekorra egoteko lekua

"Berangon on siren osabe, Satutxu emen bi, eta Estanis Sulutxuneko iru, iru ixen siren Berangon, eta gero, ba, Getxo Berangon Kandido Subietako, beste bat Mamerto, a, Getxoko, selan deko ak etzek usena? enas akortan etzen usena baya emen bost sei parada on siren, gero Sopelan bere bai, gero Barriken bere bai" - (Berangon egon ziren osaba, Satutxu hemen bi, eta Estanis Salutxuneko hiru, hiru izan ziren Berango, eta gero, ba, Getxo Berangon Kandido Zubietakoa, beste bat Mamerto, Getxoko, zelan dauka etxe hark izena? ez naiz gomutatzen etxearen izena baina hemen bost sei parada egon ziren, gero Sopelan ere bai, gero Barrikan ere bai)

"Etzen yayoten dan sekorra pere balio dau paradarako" - (Etxean jaiotzen den zekorrak ere balio du paradarako)

"Parade, nik estot esetuten, lengo modun estot esetuten" - (Parada, nik ez dut ezagutzen, lehengo moduan ez dut ezagutzen)

parto: erditzea

"Normalen, bakarrik ein ber dau, ondo badator, problemarik espadeko, parto, ixen ber dau naturela" - (Normalean, bakarrik egin behar du, ondo badator, arazorik ez badauka, erditzea, izan behar du naturala)

pentzu: pentsua

"Gero amen pentzu ya ondo sertxeuren" - (Gero hamen pentsua ja ondo zertzen zuten)

"Arto oten sanen arto, eta gero, a, sarritten artorik esan oten, ba ya pentzu ioten gendun guk, guk emen makiña at pentzu io du, eskandalu" - (Artoa egoten zenean artoa, eta gero, sarritan artorik ez zen egoten, ba ja pentsua ehotzen genuen guk, guk hemen makina bat pentsu eho dugu, asko)

pintte: pintadun ganadua

pulpe: pulpa, ganaduaren jatekoa

"Pulpe erremolatxana da, asukere itten danen, a, atzenen lotxen dana, sera, a da pulpe" - (Pulpa erremolatxarena da, azukrea egiten denean, atzenean lotzen dena, zera, hura da pulpa)

sankarroya: zankarroia

sekorra: zekorra

"Baye estaitten mogidu anke altzateko batera ta bestera, ba mogidu estaitten, a, sekorrana eroten dan modu antzen" - (Behia ez dadin mubitu hanka altxatzeko batera eta bestera, ba mubitu ez dadin, zekorragana eroaten den modu antzean)

"Nobera teko beren sekorra, beyekas, batek igual badeko, sortzi amar bei, ya beren sekorra deko" - (Norberak dauka bere zekorra, behiekin, batek beharbada badauka, zortzi hamar behi, ja beren zekorra badauka)

sillere: ganaduak kokotean daukan galtzaia edo galtzelia

silleru: galtzelia daukan ganadua

sorburu: sorburua

suisse: suitzarra, behi enda bat

suiso: suitzarra, idi enda bat

sulderra, suldarra: zuldarra

"Orrek esaten daure, esan eitten daure, au gitxi dekonak, edo lasto asko yan daunek, lasto esaten dako arton serari, esta? lasto asko yan edo goseas dauen ganaduri eitten dakola, ori estaitt nik, nik sulderra gitxi esetu dot etzen, batan bat on da, e?" - (Horiek esaten dute, esan egiten dute, hau

BERANGOKO HIZTEGIA

gutxi daukanak, edo lasto asko jan duenak, lastoa esaten zaio artoaren zerari, ezta? lasto asko jan edo gosearekin dagoen ganaduari egiten zaiola, hori ez dakit nik, nik zuldarra gutxi ezagutu dut etxean, baten bat egon da, e?)

"Orrek eitten deutze txupa ta gero ataraten deutzes suldarrak, suldarrak ataraten deutzes" - (Horiek egiten diote xurgatu eta gero ateratzen dizkiote zuldarrak, zuldarrak ateratzen dizkiote)

"Gero espalda dustin ataraten deutze alaseko suldarra, ba itzelak! nik aik atara eskus bere atara doas, olan sakatu, ta puf! sentalle lau suldarra atara kanpora" - (Gero bizkar osoan ateratzen diote halaseko zuldarra, ba itzelak! nik haiek atera eskuz ere atera ditut, hola sakatu, eta puf! zentaila lako zuldarra atera kanpora)

susera: susara

tira!: aurrera egiteko esaten zaie

torte: torta

txala: txahala

"Leleko edaten badau txalak, leleko txupadak, txala librata dau, artxen espadau txala il i litte, se esteko defentsarik" - (Lehenengo edaten badu txahalak, lehenengo mizkadak, txahala libratuta dago, hartzen ez badu hil egin liteke, ze ez dauka defentsarik)

"Txalak edaten dere ori, ori esne edan ber dere bisteko" - (Txahalek edaten dute hori, esne hori edan behar dute bizitzeko)

umetoki: umetokia

"Umetoki segun, batzuk botaten daue beste batzuk estaue botaten, ta gero botaten estauneri ba, normalmente beterinariori geittute, beterinariok igual ataten dotzo, edo espabere emoten dotzus pastilla batzuk" - (Umetokia segun, batzuek botatzen dute beste batzuek ez dute botatzen, eta gero botatzen ez duenari ba, gehienetan albaiteroari deituta, albaiteroak beharbada ateratzen dio, edo ezpabere ematen dizkiogu pastila batzuk)

"Umetoki bere, asi botaten ta, tarda itten da aputxu be ba, batzuk tarda itten dere ta antxe atzen yesarritte, sigarro fuma,

sarrak eta antxe, sardeas bere kosi ta saspillora, enterrau" - (Umetokia ere, hasi botatzen eta, berandutu egiten da apurtxo bat ba, batzuek berandutu egiten dute eta hantxe atzean jesarrita, zigarroa erre, zaharrak eta hantxe, sardarekin ere hartu eta sats-pilora, lurpetu)

umille: umeila, ume hila, hilda jaiotzen den umea

"Orrek emoten dotzu ba, umillek bota igual, emoten dotzo adarkada bat eta, ernari badau ba umille botaten dotzu edo" - (Horrek ematen dizu ba, umeilak bota beharbada, ematen dio adarkada bat eta, ernari badago ba umeila botatzen dizu edo)

untegi: ehuntegia, animaliak perratzeko erabiltzen den armadizoa

"Ori konpondute san, untegiere yon, ta erre itte otze, asufreas" - (Hori konpontzen zen, ehuntegira joan, eta erre egiten diote, sufreakin)

"Berangon bere bai, gau ixen garesen etzaurren, untegi gaure etze ondoan egon da" - (Berangon ere bai geu izan garen etxe aurrean, ehuntegia geure etxe ondoan egon da)

ur boltze: ur poltsa, selauna

17.2. ARDIAK-AHUNTZAK

akarra: akerra

ari, aritto: aharittoa

ardi: ardia

"Ardi dustik sei illebeten agertu beres etzera ta bapere, bapere esan falta" - (Ardi guztiak sei hilabeteen agertu ere ez etxera eta bat ere, bat ere ez zen falta)

"Ardi pere bai eukitten de arrana" - (Ardiek ere edukitzen dute arrana)

"Ak ardik auki eusen" - (Hark ardiak eduki zituen)

"Bueno ardik len eseun ordun emoten bear asko, se ardi itte san ordun, emeti basora etxate san, uda dustin, ta negun batxe san aputxu bet, baya kasik bere denpora dustin basora, gero umek aukitten deusen, orduntxe igual aukitten da bear aputxu bet giau, se eitten deus umek, a, gortan sartu, imintte des eskiñetxu beten, goxetan emon ber dotze esne, eta gauen bere bai" - (Beno

BERANGOKO HIZTEGIA

ardiak lehen ez zuen orduan ematen behar asko, ze ardia egiten zen orduan, hemendik basora botatzen zen, uda guztian, eta neguan batzen zen apurtxo bat, baina kasik bere denbora guztian basora, gero umeak edukitzen dituenean, orduantxe beharbada edukitzen da behar apurtxo bat gehiago, ze egiten ditu umeak, kortan sartu, ipintzen dituzte izkinatxo baten, goizetan eman behar diote esnea, eta gauean ere bai)

artegi: artegia, artaldea

artxo: artxoa

"Berak pastorek edo olan, lantzen beñen igual, ba baten bateri emoteutzen ba artxo bat" - (Berak artzainak edo hola, lantzean behin beharbada, ba baten bati ematen zion ba artxo bat)

aume, eume: aumea

"Nik ardiñe estot ein baya aumena bai" - (Nik ardiñe ez dut egin baina aumearena bai)

auntze: ahuntza

"Auntze bere badarot nik" - (Ahuntza ere badarot nik)

bebeka: bekokerreka

errebañu: artegia, artaldea

"Emen on siren, a, ni makartxu nasela, bat, bi, iru, lau, a, sera, on siren lau errebañu, bat Arrigunan, es Arrigunan bi, eta Sustetxan bi" - (Hemen egon ziren, ni makartxoa naizela, bat, bi, hiru, lau, zera, egon ziren lau artegi, bat Arrigunan, ez Arrigunan bi, eta Sustatxan bi)

"Ni gaste gaste nitzela ya, gure, nire osaba bat, yon san, San Salvador del Vallera, ortxe Arrigunagan biste siren, or dau etze bat geitxen dana Arrigunaga, ta ortxe biste siren, eta, klaro! gero, usabak esen auki giau, errentan auki gure, ta yon siren, San Salvador de Vallera, eroen errebañu, ondikarren emeko ardi taus San Salvador de Vallen, nire lengusu tekos" - (Ni gazte-gaztea nitzela ja, gure, nire osaba bat, joan zen, Trapagaranera, hortxe Arrigunagan bizitzen ziren, hor dago etxe bat deitzen dena Arrigunaga, eta hortxe bizitzen ziren, eta, jakina! gero, ugazabek ez zuten eduki gehiago,

errentan eduki gura, eta joan ziren, Trapagaranera, eroan zuten artegia, oraindikarren hemengo ardiak daude Trapagaranen, nire lehengusuak dauzka)

"Len emen errebañu asko egon dire" - (Lehen hemen artegi asko egon dira)

kordero: arkumea

"Korderonak ixete sien orrek, eta saldu itteuresan orrek" - (Artxoarenak izaten ziren horiek, eta saldu egiten zituzten horiek)

"Learra ixen berren, da learra, oin farmasiko etxaten da, baya len etxate san, korderori kentxe tzen barruti" - (Legarra izan beharrean, da legarra, orain botikakoa botatzen da, baina lehen botatzen zen, artxoari kentzen zioten barrutik)

17.3. EKINOAK

arrantzoa: arrantza

arre: arre, astoari aurrera joateko esaten zaiona

asto: astoa

"Astokas yon gara gu lorak imintte astori, a, belarritten ta dusti yo nas ni" - (Astoekin joan gara gu loreak ipinita astoari, belarrietan eta guzti joan naiz ni)

"Bedarra ebaitte neun ta ekarte neun astoas ona" - (Belarra ebakitzen nuen eta ekartzen nuen astoarekin hona)

astoarra: astarra

astoeme: astemea

astokume: astakumea

biorra: behorra

"Besteri esaten dotze kaparra, baya ori yoten dake en jeneral biorrari te saldiri" - (Besteari esaten diote kaparra, baina hori joaten zaie gehienetan behorrei eta zaldiei)

"Emen, or aurrekalden, a, biorrari belarriñ ei yotzesan, gaure aittek erosi yeun gero" - (Hemen, hor aurreko aldean, behorriari belarriari egin zizkioten, geure aitak erosi zuen gero)

burriño: burriñoa

"Burriño da, sera, asto saldies, biorra astoas mulo" - (Burriñoa da, zera, astoa zaldiarekin, behorra astoarekin mandoa)

grñe: girna

irrintzi: irrintzia

BERANGOKO HIZTEGIA

ixo: ixo, zaldiari eta astoari lotzeko esaten zaie

mulo: mandoa

saldi: zaldia

"*Saldi beten ganen etor giñen beiñ*" - (Zaldi baten gainean etorri ginen behin)

"*Sustitxako, a, sera saldi ganen yote san elixara*" - (Sustatxako, zera zaldi gainean joaten zen elizara)

saldikume: zaldikumea

17.4. TXERRIA

anabake: anabaka, osala, egosaria

apo: apoa, txerri arra

arkele: arkela, txerri emea

barasare: bare sarea

bare: barea

biriki: birikia

"*Birikiñ ondotan, seran, birikiri kentxe yotzean alan, a, sera bate les, a, este suritxu bet edo olan*" - (Birikien ondotan, zerean, birikiei kentzen zieten hala, zer baten legez, heste zuritxo bat edo hola)

egosari: egosaria, txerrientzako egiten den jatekoa

este: hestea

estegorri: heste gorria

este lodi: heste lodia

este mea: heste mehea

gantxo: gantxoa, txerria hiltzeko sasoian oratzeko erabiltzen dena

garrangille: garrangila

kantzagi: gantzagia

"*Gero albon dekosa, a, serak, koipek, kantzagik*" - (Gero alboan dauzka, zerak, koipeak, gantzagiak)

makere: makera

"*Makere da, umak eintte daune*" - (Makera da, umeak eginda dagoena)

mantille: mantila

"*Tripan deko serak, txarrik, mantille esaten geuntzen guk, mantille, a etxaten gendun, a, buskentzetara*" - (Tripan dauka zerak, txerriak, mantila esaten genion guk, mantila, hura botatzen genuen, buzkantzetara)

"*Mantille da lopen ganen dekona*" - (Mantila da lopearen gainean daukana)

odol aldikade: txerriaren gaixoa

ordotza: ordotza, aketza

pulmoya: birikia

sorburu: sorburua, kokot aldea

"*Sorburu kokote da*" - (Sorburua kokotea da)

suringe: zuringa, hestearen amaierako zatia

"*Akabuko da suringe*" - (Azkena da zuringa)

talle kasku: teila zatia, txerria erre eta ostean garbitzeko erabiltzen zena

"*Erre ta osten, gero ba garbittu ureas, ta talle kaskukes, garbittu ondo ondo, gero gora adi imiñi, eta ba, tripek atara*" - (Erre eta ostean, gero ba garbitu urarekin, eta teila kaskuekin, garbitu ondo-ondo, gero gora adi ipini, eta ba, tripek atera)

tripek: tripak, barrukiak

"*Gero ya tripek atara ta osten, ya andrak asten siren ya tripek libraten*" - (Gero ja tripek atera eta ostean, ja andreak hasten ziren ja tripek libratzen)

toki: txerriotokia

txarri: txerria

"*Txarri iltte sanen imintte san armosu makalloas*" - (Txerria hiltzen zenean ipintzen zen gosaria makailoarekin)

"*Txarri bere bai, txarri bere itzela eukitten gendun urten urten, itzela! txarri bere iltten gendun*" - (Txerria ere bai, txerria ere itzela edukitzen genuen urtean-urtean, itzela! txerria ere hiltzen genuen)

"*Emote otzun onentxu, baya txarrik esiren asten ber dan modun*" - (Ematen genion onentxoa, baina txerriak ez ziren hazten behar den moduan)

"*Nik txarri asko il doas, oiñ ya es*" - (Nik txerri asko hil ditut, orain ja ez)

txarri arra: txerri arra

txarri eme: txerri emea

"*Txarrieme kapateko peligroso da, arra edoseñek kapaten dau, baya eme es, eme kontus, eme txarto kapaten badosu ill i litte aton*" - (Txerri emea irentzeko arriskutsua da, arra edozeinek irentzen du, baina emea ez, emea kontuz, emea txarto irentzen baduzu hil egin liteke aton)

txarrikume: txerrikumea

txarri iltte: txerri hiltzea

txarritoki: txerriotokia

"*Iru on siren txarritokin, eta neba batek bota eutzen, ama on san talok eitten mase, emoistesu sati bet txakurreri emoteko*" - (Hiru egon ziren txerriotokian, eta neba batek bota zion, ama egon zen taloak

BERANGOKO HIZTEGIA

egiten masa, emadazu zati bat txakurrei emateko)

txispegi: bileria, apabarroa, txizpegia; botei lustretzat ematen zaien koipea, txerriaren zilaren ingurukoa da

"Txispegi bai, mutillek intteuren borsegik erosteusen ta non dau txispegi? igual katuk yan dau" - (Txizpegia bai, mutilek egiten zuten bortzegiak eroaten zituzten eta non dago txizpegia? beharbada katuak jan du)

urdille: urdaila

"Txarrik eitten dauena da yan, eta beran lope edo urdille esaten dakona da, ara pasaten da" - (Txerriak egiten duena da jan, eta beraren lopea edo urdaila esaten zaiona da, harra pasatzen da)

17.5. OILOAK

abi: habia

"Onek eitten dau, a, txori txikerran seran, eitten dau abi" - (Honek egiten du, txori txikerren zerean, egiten du habia)

"Abin ganen dau ollo" - (Habiaren gainean dago oiloa)

abixeri: abizari, usteldutako arrautza

"Ya daunen denpora asko ta usteldute sanen abixeri, bai, ori da abixeri bai" - (Ja dagoenean denbora luze eta usteltzen zenean abizaria, bai, hori da abizaria bai)

biro: biroa

ego: hegoa

errote: errota

gangarre: gangarra

kakaraka: kakaraka

kaporala: kaporala

kapoya: kapoia

kukurruku: kukurrukua

kurra: kurra, oiloei etortzeko esaten zaie

loka: loka, oiloen zela

lokere: lokera

"Bai, bai, abi itte akon, t'ademas ollok lokatu intte siren, lokatu eta sera baten aspin sartxe siren, sesto baten, a, aspiñ sartxe siren, arik eta kita arten, a, sera, beran lokere" - (Bai, bai, habia egiten zitzaion, eta gainera oiloak lokatu egiten ziren, lokatu eta zer baten azpian sartzen ziren, zaran baten, azpian

sartzen ziren, harik eta kendu arte, zera beraren lokera)

lume: luma

"Eta daus oiñ ollok, sera daukenak, a, txorte bere lume, olan burun ganen baya andi deukenak bere bai" - (Eta daude orain oiloak, zera daukatenak, txorta ere luma, hola buruaren gainean baina handia daukatenak ere bai)

ollande: oilanda

ollarra: oilarra

"Urte dustiko ollarra, egosi dosu? te ser egosi ber dot!" - (Urte osoko oilarra, egosi duzu? eta zer egosi behar dut!)

"Ontxe kosikot ori ollarra" - (Oraintxe harrapatuko dut oilar hori)

ollo: oiloa

"Ontxe bere ollo tekus guk an" - (Oraintxe ere oiloak dauzkagu guk han)

"Ori gure du emeko ollo akaba estaitten" - (Hori gura dugu hemengo oiloa amaitu ez dadin)

ollo baltza: oilo beltza, oilo mota bat

ollo gorri: oilo gorria, oilo mota bat

ollo loka: oilo loka

ollo lume: oilo luma

ollosko, ollasko, ullasko: oilaskoa

"Ama beti erresaten, eta sorgiñetarako estait ser, eta bakixu se akorda yakon baiñ? ie yeun talleture, ta ullasko at bota tximiñieti bera" - (Ama beti otoitz egiten, eta sorginetarako ez dakit zer, eta badakizu zer gomutatu zitzaion behin? igan zuen teilatura, eta oilasko bat bota tximiniatik behera)

ollo suri: oilo zuria, oilo mota bat

"Ollo suri bere bai, surik berrogetak egon siren emen baya ori esta emeko" - (Oilo zuria ere bai, zuriak berrogeitak egon ziren hemen baina hori ez da hemengo)

ollotoki: oilo-tokia

"Gure amama defuntek guri esate oskun, komadreje egon da seran, ollotokin, lau ollo daus iltte" - (Gure amama defuntuak guri esaten zigun, ogigaztaia egon da zerean, oilo-tokian, lau oilo daude hilda)

ote: ota, oiloek lo egiteko lekua oilo-tokian

piku: mokoia

pipite: pipita, oiloen gaixoa, mihiaren azpian egiten zaien mintza

txite: txitxa, txita

BERANGOKO HIZTEGIA

"Dekos lau ollo nire llobek, eta arrutze taus, egunen egunen egunen lau arrutze, ta len okitten gendusen guk dosena bat edo bi edo eta in dau arrutzerik? eta an estau eser, t'igual karo! igual intteusen kanpoti ibiltte sirenen, intteusen auren, a, serak, eta gero etorte san txitakas" - (Dauzka lau oilo nire lobak, eta arrautzak daude, egunean-egunean-egunean lau arrautza, eta lehen edukitzen genituen guk dozena bat edo bi edo eta egin du arrautzarik? eta han ez dago eze, eta beharbada jakina! beharbada egiten zituzten kanpotik ibiltzen zirenean, egiten zituzten euren, zerak, eta gero etortzen zen txitekin)

"Urtetako dausenean, e? osten es, igual bier urtetako edo olantxe, edo etzi edo, gaur trogoya badau, a! askotan entzun dot ori, esaten aittek eta amak, ene trugoya dabill! ta gure txitak, naye ordun ollok eta!" - (Irteteko daudenean, e? ostein ez, beharbada bihar irteteko edo holantxe, edo etzi edo, gaur trumoia badago, a! askotan entzun dut hori, esaten aitak eta amak, ene trumoia dabil! eta gure txitak, nahia orduan oiloak eta!)

17.6. TXAKURRA-KATUA

amorru, amurru: amorrua

"Gero txakurrek egon siren seraas, amurrues, iru nebarreba, iru nebak, nebak, iru, nire atzekok, eroteusen gure amak, tranbin, Olabeagan bajata ospittelera, berrogei egunen artxen indisiño" - (Gero txakurrak egon ziren zerarekin, amorruarekin, hiru nebarreba, hiru nebak, nebak, hiru, nire atzekoak, eroaten zituen gure amak, tranbian, Olabeagan baxatuta erietxera, berrogei egunean hartzen injekzioa)

ardi txakurre: ardi txakurra

atxale: otxa, txakurrari esaten zaio eraso egiteko

ausi: ahausia

eroste: erosta

erratoneru: arratoi txakurra

kasa txakurre: ehiza txakurra

katu: katua

"Ba nau pere katu tekoas, lau, katuk gustaten dastes, ta pentzu" - (Ba neuk ere katuak dauzkat, lau, katuak gustatzen zaizkit, eta pentsua)

katarra, katuarra: katarra

katueme: katemea

katukume: katakumea

kita: txakurra uxatzeko erabiltzen den berba

mitxino: katuari deitzeko erabiltzen den berba

toma: txakurrari deitzeko erabiltzen den berba

tomaki: txakurra uxatzeko erabiltzen den berba

txakur amurrutu: txakur amorratua

"Txakur amurrutu beti artes kamiño eskiñetik, eta iru txakur, eta bota eutzen eta ainke i eutzen, txakurrek eta bestealdeko mutilleri katuk, katuk ei eutzen" - (Txakur amorratua beti artez kamino bazterretik, eta hiru txakur, eta bota zien eta haginka egin zioten, txakurrek eta beste-aldeko mutilari katuak, katuak egin zion)

txakurkume: txakurkumea

txakurrarra: txakur arra

txakurre: txakurra

"Gaittu neuntzen ta seran ta, an etze ondon artebin seran, txakurre esiñ ibilli" - (Deitu nion eta zerean eta, han etxe ondoan artadiaren zerean, txakurra ezin ibili)

"Oiñ elitxikios emon ese lodittu inten ei dire txakurrek" - (Orain ez dakizkieke eman eze loditu egiten ei dira txakurrak)

txakurreme: txakur emea

xerpe, erpe: erpea, atzaparra

"Albora datosenen, a, danba! burun, a, segidun emoten deutze xerpeas ta bota" - (Albora datozenean, danba! buruan, segituan ematen die xerparekin eta bota)

xerpekade, txiperkade: txerpakada, erpakada

urrumede: urrumada

xapi: zapi, katua uxatzeko erabiltzen den berba

17.7. GAINERAKOAK

ame: piztien ama, era mugatuan erabiltzen da

BERANGOKO HIZTEGIA

"Oneri ame il yakon" - (Honi ama hil zitzaiion)

arra: arra

eme: emea

errase: arraza, enda

"Auren errase da, olau tire" - (Euren arraza da, holakoak dira)

konejere: untxi-lekua

koneju: untxia

pabo: indioilarra

palome: usoa

panala, panela: saparra

pato: ahatea

pisti: piztia

"Afesiño itzela okitteuen arik, afesiño itzela pistittera" - (Zaletasun itzela edukitzen zuten, haiek, zaletasun itzela piztietara)

"Txakurre pere estau yaten ori, estau pistirik ori yatekorik" - (Txakurrak ere ez du jaten hori, ez dago piztiarik hori jatekorik)

umaldi: umaldia

"Beye ba, ya bada igual, lau edo bost umaldiko, ba fasillau itten dotzo" - (Behia ba, ja bada beharbada, lau edo bost umaldikoa, ba errazago egiten dio)

18. NEKAZARITZA

Nekazaritza alorreko berbak banatzeko, jarduera bakoitzaren arabera sailkatzeko, ondoko azpi-atalak egin ditugu: lurra lantzeko tresnak, soro lanketa, basoa, egurra, belarra, otzarak, errota, labea, gurdia, asto garraioa eta gorta.

18.1. LURRA LANTZEKO TRESNAK

are: area

"Are esaten dana, are da, olau, a, ol bat eta pintxo batzukes daona, ak eintten daune, ausi, makiñetu in dana, makiñetu eintten da lelau, lelau, a, solo" - (Area esaten dena, area da, holako, ohol bat eta hortz batzuekin dagoena, hark egiten duena, hautsi makinatu egin dena, makinatu egiten da lehenago, lehenago, soroa)

"Eta asko dekona, arek, makiñetu te apurtuteko, garanduteko" - (Eta asko daukana, areak, makinatu eta apurtzeko, garantzeko)

armasoya: armazoaia

"Ak gayena itteun silla baten ganen lelengo armasoya itte auren, armasoya lau" - (Hark gehiena egiten zuen aulki baten gainean lehenengo armazoaia egiten zuten, armazoaia lakoa)

aste: astea, arearen eskulekua

"Asta bat, aste egurresko da" - (Aste bat, astea egurrezkoa da)

bidurre: bidurra, bihurra; estoa egiteko erabiltzen diren egur bihurtuak

bost ortzeko: bostortza

estoa: estoa, narra

"A pasten dun guk esto, alfafe ereitten dunen bardin bardin imintteko, esto" - (Hura psatzen genuen guk estoa, alfalfa ereitten genuenean berdin-berdin ipintzeko, estoa)

"Emeti eta ara daun solo sati, eraiñ, apurtu eta, olau, a, orreas areas ba nasta eta estoas aplasta" - (Hemendik eta hara dagoen soro zati, erein, apurtu eta, holako, are horrekin ba nahastu eta estoarekin zapatu)

exe: exea

"Exeas len artorako, eta artora botaten gendun, arto eta indabe, biek, baya goiko indabe, e?" - (Exearekin lehen artorako, eta artora botatzen genuen, artoa eta indaba, biak, baina goiko indaba, e?)

karramarro: karramarroa

laye: laia

"Guk eskendun pikaten, aitte defuntuk pikate aun, eta guk pikaten bagendun, igual ebaitten ordu lauren edo ordu erdi beraas ebaitte eta agur, esiñ, e, eta aitte defuntuk pikate aun, eta ordu bete igual edo giau guk eitten gendun layakas bere bai" - (Guk ez genuen pikatzen, aita zenak pikatzen zuen, eta guk pikatzen bagenuen, beharbada ebakitzen ordu lauren edo ordu erdi berarekin ebakitzen eta agur, ezin, eta aita zenak pikatzen zuen, eta ordu bete beharbada edo gehiago guk egiten genuen laiekin ere bai)

makiñe: makina

"Makiñeas markak eiñ, baya nik oiñ atxurreas eitten dot" - (Makinarekin markak egin, baina nik orain aitzurrarekin egiten dut)

BERANGOKO HIZTEGIA

narre: narra

"*Ta saretzaas eiten dire bere, narrak esaten dakenak*" - (*Eta sahatsarekin egiten dira ere, narrak esaten zaienak*)

ortza: hortza, erreminten burdinazko hortza

subille: subila, arearen armadizoa egiteko luzetara dauden makilak

tragesa: bostortza

tratora: traktorea

"*Eta labra trator barik idikes eta makiñeas*" - (*Eta landu traktore barik idiekin eta makinarekin*)

18.2. SORO LANKETA

abono: ongarria

"*Bedarra emeti, landan urteten dauna, segun, len abono botate san*" - (*Belarra hemendik, landan irteten duena, segun, lehen ongarria botatzen zen*)

"*Abono ona da ori*" - (*Ongarri ona da hori*)

"*Ta gero iten da ori, sabaldu lurren, ta ori abono baten modun da, aunke oin diñeude, obeau dala, e, plega, ta plastiku beteas tapa ta usteldu te dala, e, satza obeau, erreta baño*" - (*Eta gero egiten da hori, zabaldu lurrean, eta hori ongarri baten moduan da, orain dinoten arren, hobe del, tolestu, eta plastiko batekin tapatu eta usteldu eta dela. sats hobe, erreta baino*)

agiñe: hagina, erremintei ahoan egiten zaizkien akatsak

agoa: kodainaren ahoa

alanbre: alanbrea

"*Ori eon san alanbreas ta ondo ixitte*" - (*Hori egon zen alanbrearekin eta ondo itxita*)

amarre: lokarria

"*Mimenak aitte defuntuk, a, kosteusen, a, sillak eta sera itteko, ba amarra, ta, auron, a, lekure eroteko, eta orrek gausetarako, bai mimena asko, bai usate san, eta amarrek eitteko bere bai*" - (*Mimenak aita zenak, hartzen zituen, aulkiak eta zera egiteko, ba lotu, eta, euron, lekura eroateko, eta gauza horietarako, bai mimena asko, bai*

erabiltzen zen, eta lokarriak egiteko ere bai)

angarille: angarila; zamak garraiatzeko erabiltzen zen tresna; aldamenetan baranda luze bi edukitzen ditu eta trabesetara errail edo ohol batzuk josita; eskuz erabiltzen zen

"*Angarille esate akon emen, angarille bai esetu dot*" - (*Angarila esaten zitzaion hemen, angarila bai ezagutu dut*)

"*Ba kargateko, jenero kargateko, eiten da egur bi, luseas, asta bies ta gero iten da erdin olakas yoste, ta an kargaten da, karretillen moduko bearra iten dau apur bet gora beran, karretille esanen egoten ba, angarille esate akon emen*" - (*Ba kargatzeko, gauzak kargatzeko, egiten da egur bi, luzerekin, aste birekin eta gero egiten da erdian oholekin josita, eta han kargatzen da, karretilaren moduko beharra egiten du apur bat gora behera, karretila ez zenean egoten ba, angarila esaten zitzaion hemen*)

"*Ba esetu dot, bai esetu dot, satza eroteko edo, bedarra eroteko bere bai, kargak eroteko, baterik bestera, angarille esate akon emen*" - (*Ba ezagutu dut, bai ezagutu dut, satsa eroateko edo, belarra eroateko ere bai, kargak eroateko, batetik bestera, angarila esaten zitzaion hemen*)

anillo: kodainaren eraztuna

"*Or aukiteen anillo bat*" - (*Hor edukitzen zuten eraztun bat*)

artze: artza, zimitzezko galbahe modukoa, alderdi batetik irekia eta asta bikoa, indabak eta garbitzeko erabiltzen zen

"*Artze, artze, ori artze da baya es, beste makiñe san*" - (*Artza, artza, hori artza da baina ez, bestea makina zen*)

asala: lurraren azala

"*Asal ona, da, labra, lurre mogidu eta siketu, ein diela asala, siketu, a kolore siku, siku kosi deille, espabere, auri intten badau bere estotzo eser eintten, eta badau lurre fresko mogiduparri, aurik, lotxen da grasi txarra*" - (*Azal ona, da, landu, lurra mugitu eta sikatu, egin dezala azala, sikatu, kolore hura sikua, sikua hartu dezala, ezpabere, euri egiten badu ere ez dio ezer egiten, eta badago lurra fresko mugitu berri, euriak, lotzen da grazia txarra*)

BERANGOKO HIZTEGIA

asalara: azalera mendatu

"Asalara bere injertaten da, astillera bere bai, eta sartzen da, puntak, madarin puntak, eintten dosu kuñara, eta ebagi serroteas, eta eiñ kutxilloas gero, irigi, sabaldu apur bet eta an sartu" - (Azalera ere mentatzen da, arrakalera ere bai, eta sartzen da, puntak, madariaren puntak, egiten duzu talusera, eta ebaki zerrotarekin, eta egin kutxiloarekin gero, ireki, zabaldu apur bat eta han sartu)

"Eta gero itte aun milikote eta onek, asalara" - (Eta gero egiten zuen milikota eta hauek, azalera)

astillera: arrakalara mendatu

"Ak astillera ei eusen" - (Hark arrakalara egin zituen)

atxur mangu: aitzur kirtena

"Gorosti emen gitxi usa da, esaten de, atxur manguereko ta ona dala" - (Gorostia hemen gutxi erabili da, esaten dute, aitzur kintenerako eta ona dela)

atxurre: aitzurra

"Keba! pale ta atxurre, ta kodañe, kodañeas, a, bastarrak garbittu, eta gero eiñ sardeas atarau, eta gero beste paleas" - (Bai zera! para eta aitzurra, eta kodaina, kodainarekin, bazterrak garbitu, eta gero egin sardarekin atera, eta gero bestea pararekin)

"Orrek eitteun, a, atxurreas, sera, lurre altza" - (Horrek egiten zuen, aitzurrarekin, zera, lurra altxatu)

"Il bere bai, atara bere bai, atxurreas batzuk" - (Hil ere bai, atera ere bai, aitzurrarekin batzuek)

atxur sabala: aitzur zabala

"Pilloran bat eukittauren eta, sardea sabaldu, a, ganadun aspiñ eta gero, gero ba garbittuteko apur bet olau, a, atxur, atxur sabal bat, es atxur normala" - (Piloren bat edukitzen zuten eta, sarda zabaldu, ganaduaren azpian eta gero, gero ba garbitzeko apur bat holako, aitzur, aitzur zabal bat, ez aitzur normala)

baña palu: baina makila

bayestre: angarila

"Bayestre, arrik eroteko bien arten, edo igual lauen arten, segun selau tamañuko arri ser dan" - (Angarila,

harriak eroateko bien artean, edo beharbada lauren artean, segun zelako tamainako harria zer den)

bedar kodañe: belar kodaina

botike: botika, ongarri kimikoak

botxo: botxoa, sotoa, txorkoa

"Asi ba nik ereitten dot, ba, lurre ba lelau labrau, eta gero botxok eiñ atxurreas, eta gero ereiñ" - (Hazia ba nik ereiten dut, ba, lurra ba lehenago landu, eta gero botxoak egin aitzurrarekin, eta gero erein)

detano: detanoa, ddt

dollare: dolarea

errature, erreture: erratura

"Guk ein gendun an, a, baso bat erreturek, an eguno estu kosi eser bere guk, eguno beres, es patatarik, es naborik, ese beres" - (Guk egin genuen han, baso bat erraturak, han egundo ez dugu hartu ezer ere guk, egundo ere ez, ez patatarik, ez arbirik, ezer ere ez)

"Guk erreturekas, erreturek botata, eskendun kosi an eguno eser, ta makiña at bear ein gendun alperrik" - (Guk erraturekin, erraturak botata, ez genuen hartu han egundo ezer, eta makina bat behar egin genuen alperrik)

"Gero iten dere atara, aretxa tekos sustrai gogorak, ta iten da buelta dustin atxurrekas, sutrai danak imiñi agirin, ta askoreas ebai, ta batzuten eskus tiraten da ba, ta beste batzuten idikes, parejeas, atara, gero sospelak an lotxen direnak, atara, ta sasik eta danak, orrek iten dire, egurre iminten da aspin, aputxu bet imiñi, iminten dire orrek danak, eta porkerik imiñi, ta esaten dake, errature esaten dake, emoten dake sue" - (Gero egiten dute atera, haritzak dauzka sustrai gogorak, eta egiten dute buelta guztian aitzurrekin, sustrai denak ipini agirian, eta aizkorarekin ebaki, eta batzuetan eskuz tiratzen da ba, eta beste batzuetan idiekin, bikotearekin, atera, gero ezpalak han lotzen direnak, atera, eta sasiak eta denak, horiek egiten dira, egurra ipintzen da azpian, apurtxo bat ipini, ipintzen dira horiek denak, eta txerrikeriak ipini, eta esaten zaie, erratura esaten zaie, ematen zaie sua)

"Garbitxukeran danak ein montoyak eta erreturek" - (Garbitukeran denak egin piloak eta erraturak)

BERANGOKO HIZTEGIA

erreske: ilara

eskubere: eskuarea

"Eskubere bere bai, ori, ya segun, akabuko serak sertxeko, obeto sertxeko" - (Eskuarea ere bai, hori, ja segun, amaierako zerak zertzeko, hobeto zertzeko)

estake: taketa

"Ak estakak eta gero punte errete yeutzen, errete aguantateun giau" - (Hark taketak eta gero punta erretzen zien, errete irauten zuen gehiago)

exabarre: exabarra

"Intte siren exabarrak onen distantzin, esta? eta erdiñ ereitten dun txorkora indabe, indaberi botaten dako lur gitxiau ganera, artok apur bet karga arren bere urteten dau gora, eta indabe bitartetan kosten du" - (Egiten ziren exabarrak honen distantzian, ezta? eta erdian ereiten genuen txorkora indaba, indabari botatzen zaio lur gutxiago gainera, artoak apur bat kargatu arren ere irteten du gora, eta indaba bitarteetan hartzen dugu)

exari: ildo, exearekin egiten den ildo

"Beti itxosora adi emen itten dusen exarik" - (Beti itsasora adi hemen egiten genituen ildoak)

"Beti exarik itxosoko diresiñon axearren, axe sartu deitten bittarteti obeto" - (Beti ildoak itsasoko norabidean haizearren, haizea sar dadin bitartetik hobeto)

fardo: fardo

gari garbitteko makiñe: garia garbitzeko makina

giltze: giltza, kodainaren ahoa kirtenari estutzeko erabiltzen dena

illede: ilara

"Illeda bi edo iru ereitten dusen ollontzako san" - (Ilara bi edo hiru ereiten genituen oiloentzat zen)

injertu: mendua

itturreko: itaurrekoa

itturren, ittaurren: itaurrean

"Itturen ibil nas ni, eta konta intte neusen biajek, ene nos akabako da!" - (Itaurrean ibili naiz ni, eta kontatu egiten nituen bidaiak, ene noiz amaituko da!)

kako: kakoa

"Ori kako, neu pere ibil dot kako" - (Hori kakoa, neuk ere erabili dut kakoa)

kare: karea

"Kare bai, kare asko botate ixen dotze amen Berangon bere on san karabi" - (Karea bai, kare asko botatzen izan diote hemen Berangon ere egon zen karobia)

"An bai ikuste san, a, Morgan ta orti, lur asko, kare botata, suri suri imintte, ta kare ona da, e?" - (Han bai ikusten zen, Morgan eta hortik, lur asko, karea botata, zuri-zuri ipinita, eta karea ona da, e?)

kate, katea: katea

"Kateas amarrate san" - (Katearekin lotzen zen)

"Kate bat alan, a, ba, buru sartu, eta segun se mallatan gureosuen, baya guk euki gendun, plaka at ote san olan, a, arrin ganean, eta gero, pestillokas alan, a, sauk gurosune aiden imintteko, giau edo gitxiau, edo, noperak gure daun megiden imintteko" - (Katea bat hala, ba, burua sartu, eta segun ze mailatan gura duzuen, baina guk eduki genuen, eta gero, kisketekin hala, zuk gura duzuna airean ipintzeko, gehiago edo gutxiago, edo, norberak gura duen neurrian ipintzeko)

"Eta emen, kendu da katea, esta? katea bat egon da or eskeitte" - (Eta hemen, kendu da katea, ezta? katea bat egon da hor eskegita)

katea nagosi: lankatea, katea nagusia; ganadurekin behar egiteko erabiltzen den katea

"Ume ekarri, a, kate, sera, ganadune makiñeas ta ibiltte sana, ori katea nagosi, ekarri ori, eta estaitt selau soke" - (Ume ekarri, katea, zera, ganadurena makinarekin eta ibiltzen zena, kate nagusi hori, ekarri hori, eta ez dakit zelako soka)

kodaña mangu: kodaina kirtena

"Ori solon ibil san batek apurtu yeusten, manejaten yakiñ es, ganora barik yo, kodaña mangu pere apurtu yeustesen" - (Hori soroan ibili zen batek apurtu zidan, maneatzen jakin ez, ganora barik jo, kodaina kirtenak ere apurtu zizkidan)

kodañe: kodaina

"Esta labraten, bedarra ibiltteko, kodañeas" - (Ez da lantzen, belarra ibiltzeko, kodainarekin)

korde: korda

BERANGOKO HIZTEGIA

kosetxe: uzta

"Gatxau, da, labrateko bere gogorrau, baya kosetxe kosteko ona, e?" - (Gaitzago, da, lantzeko ere gogorragoa, baina uzta hartzeko ona, e?)

labrantze: laborantza

lankate: lankatea, soroa lantzeko makinak ganaduarekin erabiltzeko usatzen dena

"Gero deko, lankate teko olan puntan gantxo bat, sartxen da, buelta emon ta gantxoas engantxaten da" - (Gero dauka, lankateak dauka hola puntan gantxo bat, sartzen da, buelta eman eta gantxoarekin engantxatzen da)

larrene: larraina, etxe inguruan egiten zen zuloa, bertan otea eta zaborreriak botata, satsa egiteko

"Orrek ollok atara larrenara" - (Oilo horiek atara larrainera)

lepo: kodainaren ailaren lepoa

"Oneri esaten dako lepo, eta au agoa" - (Honi esaten zaio lepoa, eta hau ahoa)

lur satza: lur satsa, irola, larraineko satsa

"Eta bedarra kentxen danen, ostabere ba lotxen direles, a, agirin igual sustrayek edo serak, botaten dako ostabere satza apur bet ganeti, lur satza" - (Eta belarra kentzen denean, ostera ere ba lotzen dinez, agirian beharbada sustraiak edo zerak, botatzen zaio ostera ere satsa apur bat gainetik, lur satsa)

mallu: mailua

mango, mangu: kirtena

"Gero aukitten gendun besta bat, sera, mangu luseas, atarateko, atxurren moduko" - (Gero edukitzen genuen beste bat, zera, asta luzearekin, ateratzeko, aitzurraren modukoa)

masete: mazutoa, mokilak haustekoa eta artoa jotzekoa ere bai

"Erreminte dustik itxi eusen gure etzen, gasta gasta intte, eta masete bere itxi aun" - (Erreminta guztiak utzi zituen gure etxean, higatu-higatu eginda, eta mazutoa ere utzi zuen)

"Maseta bateas yote siren artaburuk" - (Mazuto batekin jotzen ziren artaburuak)

melena: zabortegietako satsaren izena, zabortegiaren beraren izena ere bai

"Orti itxosoti orra melenara, aundek eta aundek eta millek pasten direnen" - (Hortik itsasotik horra belenera, ehundak eta ehundak eta milak pasatzen direnean)

mete: meta

"Emen meta paño giau, a, serara sartxe san etzera barrure sartxe san" - (Hemen metak baino gehiago, zerera sartzen zen etxera barrura sartzen zen)

mokille: mokila

"Au, a, makiñetu, gero are pasa, a pintxodun, e, sera, eta gero arik, lurre txikerrak, lotxen sanen, maseteas ibil berren, maseteas asko ibiltte san ordun, banan banan ibil berren, ganaduk au imin, arri betzun ganen, ta norbera ganen, eta, sera, lurre, a, sera, seatuteko, mokillek eta onek apurtuteko" - (Hau, makinatu, gero area pasatu, hordun, zera, eta gero haiek, lurra txikerrak, lotzen zenean, mokilostearrekin ibili beharrean, mukilostea asko erabiltzen zen orduan, banan-banan ibili beharrean, ganaduak hau ipini, harri batzuen gainean, eta norbera gainean, eta, zera, lurra, zera, xehatzeko, mokilak eta hauek apurtzeko)

"Bueno atxiñe masetak eta ikusten siren, esta? masetakas, oiñ estau mokillik" - (Beno antzina mazutoak eta ikusten ziren, ezta? mazutoekin, orain ez dago mokilik)

montoya: piloa

"Ori udebarrin da, normalen da apur bet peligroso se udebarriko, bedarrak, e, beti deko ba, beroas, eta seraas, ba beti dator inder askoas, ta a ebaitten badosu berde berden dau, ta montoi baten itxitten badosu, fermentasiño, fermenta itten da" - (Hori udaberrian da, normalean da apur bat arriskutsua ze udaberriko, belarrak, beti dauka ba, beroarekin, eta zerarekin, ba beti dator indar askorekin, eta hura ebakitzen baduzu berde-berdean dago, eta pilo baten uzten baduzu, fermentazioa, fermentatu egiten da)

ollo satza: oilo satsa

"Fuerte da ollo satza" - (Indartsua da oilo satsa)

palanke: palanka

papu: ogana, akatsa; erremintei ahoan egiten zaizkienak

"Estakienak sorrostuten iten dau, sorrostu berren amostu, se in ber dotzos, eskiñe biek yan ber dotzos ondo, papurik estiten

BERANGOKO HIZTEGIA

lotu, egurrera ondo sartu diten" - (Ez dakienak zorrozten egiten du, zorroztu beharrean amoztu, ze egin behar dizkio, izkina biak jan behar dizkio ondo, oganik ez dadin lotu, egurrera ondo sartu dadin)

"Eiten badosu arin pika, papuk urteten dotzo, ein ber da astiro, eta ondo" - (Egiten baduzu arin pikatu, oganak irteten dio, egin behar da astiro, eta ondo)

parre: parra

"Guk parra bat auki gendun emen bere" - (Guk parra bat eduki genuen hemen ere)

"Emen parrak egon dires olau buelta dustitten, emen txakoliñ asko in da" - (Hemen parrak egon dira holako buelta guztietan, hemen txakolin asko egin da)

pike: pika, kodaina pikatzeko erabiltzen den mailua

pikemallu: pika mailuak kodaina pikatzeko erabiltzen diren mailu eta jungada

"Bai pikemalluk esatetzena, etzen daus ondikarren" - (Bai pika mailuak esaten dietena, etxean daude oraindikarren)

pillo: piloa

piper korde: piper korda

poda artesik: poda artaziak, inausteko erabiltzen diren artaziak

polea: polea

sarde: sarda

"Eneitzu esan, igual ya intten gendun, a, sardeas, sarde dales sabala" - (Ez niezazuke esan, beharbada ja egiten genuen, sardarekin, sarda denez zabala)

"Ordun sardarik esan usaten, bueno esan egon, geroau, sardak geroau urteuren" - (Orduan sardarik ez zen erabiltzen, beno ez zen egon, geroago, sardek geroago irten zuten)

"Es, es, ni enoa atxurreas, ese sardeas ego nas baya ni enoa" - (Ez, ez, ni ez noa aitzurrarekin, eze sardarekin egon naiz baina ni ez noa)

sas lodi: sats lodia

sas pillo, satza pillo: sats piloa

"Askok eitteun bai, satza pillo, larrenan, etzen aurren, larrenan" - (Askok egiten

zuen, sats piloa, larrainean, etxearen aurrean, larrainean)

sas sea: sats xehea

satza: satsa

"Ogetabi solo oki dus, ta satza ber ixete san" - (Hogeita bi soro eduki ditugu, eta satsa behar izaten zen)

"Satzarten sartu lelau ori, berdetan, ta an siketuten itxi" - (Sats artean sartu lehenago hori, berdetan, eta han sikatzen utzi)

"Ta gero atarate yeurenean ba karrokadak, satzak" - (Eta gero ateratzen zutenean ba karrokadak, satsak)

"Satza eskandalu kargate san" - (Sats asko kargatzen zen)

serre: zerra, igitaia

"Gure ama yote san koittede bedarrak ebaitten goixen goixeti, serreas, eta gero yote san billen bakixu ser itte neun? maistreri egurre txikertu oiñ onek yantzan ikisten dauden lekun, sestotxu beten eta eron gora" - (Gure ama joaten zen koitadua belarrak ebakitzen goizean goizetik, igitaiarekin, eta gero joaten zen bila badakizu zer egiten nuen? maistrari egurra txikertu orain hauek dantzan ikasten duten lekuan, zarantxo baten eta eroan gora)

simintere, siminttere: mintegia

"Ba oiñ, erein gure du piperra, oin sanblasatan, piperra, piper, a, simintere intte, piperra eta tomate" - (Ba orain, erein gura dugu piperra, orain sanblasatan, piperra, piper, mintegia eginda, piperra eta tomate)

soke: soka

"Ekarri ori, eta estaitt selau soke" - (Ekarri hori, eta ez dakit zelako soka)

sokille: mokila

"A imintten dun suete modun, bardin bardin, gero kodañas, a, indarra fasillau intteko, sokil barik" - (Hura ipintzen genuen suete moduan, berdin-berdin, gero kodainarekin, indarra errazago egiteko, mokil barik)

sorrotzarri: zorrotzarria, zorrotzarria

"Sorrotzarri, tipo bi egote siren, bueno bi edo iru baya, en jeneral, kodañas ondo dabillenak bi eroten ditu, bata, esaten dana garratza, eta beste da, suabe" - (Zorrotzarri, mota bi egoten ziren, beno bi edo hiru baina, gehienetan, kodainarekin

BERANGOKO HIZTEGIA

ondo dabilenak bi eroaten ditu, bata, esaten dena garratza, eta bestea da, suabea)

sorrotzarri fiñe: zorrotzarri fina

sorrotzarri garratza: zorrotzarri garratza; bestea baino latzagoa dena

"Garratza emon ber dako ya kodañe akaba antzen daunen" - (Garratza eman behar zaio ja kodaina amaitu antzean dagoenean)

soye: zohia

sulfato: sulfatoa

"Poda in ber dosu, gero bota sulfato, asufre, gaur beste gause batzuk ongo dire baya ordun, a, sulfato ta asufre ixete san dusti" - (Inausi egin behar duzu, gero bota sulfatoa, sufrea, gaur beste gauza batzuk egongo dira baina orduan, sulfatoa eta sufrea izaten zen guztia)

tenple: tenplea, lurraren egoera egokia ereiteko

torta saku: torta zakua

"Palu andi bet lodi, lodi palu, onen lodiere ingeruko palu, bera maneiateko inderra berko san, eta luse labara eltxeko moduko ta, saku bidoiru, sakuk, oingo sakuk es, e? atxiñeko sakuk, torta sakuk" - (Makila handi bat lodia, lodia makila, honen lodiera ingurukoa makila, bera maneiateko indarra beharko zen, eta luzea labera heltzeko modukoa eta, zaku bi edo hiru, zakuak, oraingo zakuak ez, e? antzinako zakuak, torta zakuak)

txori yabole: txori jagolea

txorko: txorkoa, botxoa, sotoa

txortade: txorta

"Ieten daunen, eintten danen, a, ya ikusten da selan daun eldute, se txori pere artes, artatxorik yaten, ordun, ta ebagi t'ei txortade, eta eskei kamaran" - (Igaten duenean, egiten denean, ja ikusten da zelan dagoen helduta, ze txoriak ere artez, artatxoriak jaten, orduan, eta ebaki eta egin txorta, eta eskegi kamaran)

urkullu: urkulua, sardaren orde erabiltzen zen, hotz biko egurrezkoa

"Ordun sarde gitxi usate san, ta urkullu usate san, otabarra ta olan ote ta botateko, orretariko urkullu" - (Orduan

sarda gutxi erabiltzen zen, eta urkulua erabiltzen zen, otabarra eta hola otea eta botatzeko, horietariko urkulua)

yorraye: jorraia

yorre: jorra

yungede: ingudea

18.3. BASOA

agoa: aizkoraren ahoa

"Agoa gasta iten da, se agoa iten da, en jenral, ibilkeran ebaiten, jenerok beti iten da, loditu aputxu bet, guk eiten gendun arries, eskiñe biek sorrostu, yakin ber da, sorrostuten" - (Ahoa higatu egiten da, ze ahoa egiten da, gehienetan, ibilkeran ebakitzen, gauzak beti egiten da, loditu aputxo bat, guk egiten genuen harriarekin, izkina biak zorrotzu, jakin behar da, zorrotzen)

arratxurre: aitzurrik handiena basoan behar egitekoa

"Arratxurre, ta batzuten ibilte yen olau palanka bat" - (Arraitzurra, eta batzuetan erabiltzen zuten holako palanka bat)

askore: aizkora

"Oneas eitteuren, matxeteas bota bera, sasi, gero askoreas ebaitteko" - (Honekin egiten zuten, matxetarekin bota behera, sasia, gero aizkorarekin ebakitzeko)

"Len esiren egoten olauk, len egote siren danak, olau, ser andi beteas, askora sarrak lengok" - (Lehen ez ziren egoten holakoak, lehen egoten ziren denak, holako, zer handi batekin, aizkora zaharrak lehengoak)

astille: 1. ezpala. 2. arrakala, zurari hausteko egiten zaiona

ayotza: aihotza

"Ayotzak en jeneral usateusen, ademas gayenatan, baña paluk, puntak atarateko" - (Aihotzak gehienetan erabiltzen zituen, gainera gehienetan, baina-makilak, puntak ateratzeko)

doru: dorua, aizkora buruaren atzeko alde; ahoaren kontrako aldekoa

egur karge: egur karga

"Guk, a, kargak bille, karga galantak orti, kargak atxiñe, kargak, egurre, egurreas, a, ein bear, txapan ta seran ta, ta egurre ensegida doa, iketzik eta dirurik es iketza

BERANGOKO HIZTEGIA

erosteko" - (*Guk, kargak bila, karga galantak hortik, kargak antzina, kargak, egurra, egurrarekin, egin behar, txapan eta zerean eta, eta egurra behingoan doa, ikatzik eta dirurik ez ikatza erosteko*)

egurre: egurra

"Egurre asko dekonak, edo paraje egurre dekonak, egurreas bere bai, tte egurreas garbiao oteas baño, ta ote gosoau dala esateuren" - (*Egurra asko daukanak, edo paraje egurra daukanak, egurrarekin ere bai, eta egurrarekin garbiagoa otearekin baino, eta otea gozoagoa dela esaten zuten*)

"Oñ egurreas eitten du, atxiñe oteas, baya oñ egurreas" - (*Orain egurrarekin egiten dugu, antzina otearekin, baina orain egurrarekin*)

egur tako: egur takoa, egur zati handia

egur txole: egur txola

garrote: egur kargak egitean, katea estutzeko erabiltzen zen makila luzea

korte: 1. ebakia. 2. erreminten ahoa

"Txapa ganen erretako da intten dana korte, egosteko bere bai baya, llobek esa yeusten, a, ixu, a, korte emon barik se kasik obeau da ta egi da, esta sartxen urerik" - (*Txapa gainean erretzeko da egiten dena ebakia, egosteko ere bai baina lobak esan zidan, egizu, ebakia eman barik ze kasik hobea da eta egi da, ez da sartzen urik*)

"Urte ona bada, auri asko badau, igual ixle leis lau korte bere" - (*Urte ona bada, euri asko badago, beharbada izan litezke lau ebaki ere*)

kuñe: ziria

"Bai kuña batzuk sartxe akosan esteñ urten" - (*Bai ziri batzuk sartzen zitzaizkion ez dezan irten*)

"Askoreas bere ei lei, e? baya en jeneral kuñeas obeto" - (*Aizkorarekin ere egin liteke, e? baina gehienetan ziriarekin hobeto*)

"Emen iminten dire bean, eta iminten da kuña bat, eskiñe baten, ta beste bat besten, yoten da kuñan, eta erdibitu iten da" - (*Hemen ipintzen dira behean, eta ipintzen da ziri bat, izkina baten, eta beste bat bestean, jotzen da zirian, eta erdibitu egiten da*)

mangu: asta, kirtena

"Askore bakt nik ondiño, ori mangu andiko, eta ondiño esta denpora andirik, solon ibil san batek apurtu yeusten" - (*Aizkora badaukat nik oraindino, hori kirten handikoa, eta oraindino ez da denbora handirik, soroan ibili zen batek apurtu zidan*)

"Ondiño, untxerarten, a, ordurik ona, gerrarik ona, or oki dot nik mangu au" - (*Oraindino, oraintxera arte, ordurik hona, gerrarik hona, hor eduki dut nik kirten hau*)

matxete: matxetea

"Ordun, a, oneas sasik ebaitteusen, gero askoreas ebaitteko egurre, oneas garbittu, matxete se altu egote san sasi" - (*Orduan, honekin sasiak ebakitzen zituen, gero aizkorarekin ebakitzekeo egurra, honekin garbitu, matxetea ze altu egoten zen sasia*)

ota kodañe: ote kodaina

"Bedar kodañe da bat, ta beste ota kodañe" - (*Belar kodaina da bat, eta bestea ote kodaina*)

"Ota kodañe bere egon san" - (*Ote kodaina ere egon zen*)

pikadora: taukia, egurra egiteko erabiltzen den enbor zatia

pikatxoya: pikotxa

pode: inausketa

sarame: egur mehea, erretzeko erabiltzen diren abar txikerrak

"Egur mea, punte, sarame da, egur mea" - (*Egur mehea, punta, zarama da, egur mehea*)

sasi matxeta: sasi matxetea

"Basorako aukiteun, askore, sasi matxeta, eta ayotza" - (*Basorako edukitzen zuen, aizkora, sasi matxetea, eta aihotza*)

sotza: zotza

sospela: zozpela, ezpala

sure: zura

tako: egur takoa

trongo mete: enbor meta, enbor piloa

"Yon andi solotati, eta mete, trongo mete, seran bastarren, yon andi eta axe ierra, karo otubre nobienbre, ba axe ierra" - (*Joan handik soroetatik, eta meta, enbor meta, zeraren bazterrean, joan handik eta haize igerra, jakina urria azarora, ba haize igerra*)

trontzaserre: trontza-zerra

BERANGOKO HIZTEGIA

txole: txola, egur karga

18.4. OTZARAK

lapotzare: lapotzara; otzara mota bat

"Lapotzara asko daus, tamañu askotakok, e?" - (Lapotzara asko daude, tamaina askotakoak, e?)

"Ekarristesu lapotzaratxu" - (Ekariezadazu lapotzaratxoa)

otzare: otzara

"Otzare bere imiñi, trapu garbikes, estek atarateko, asiske oingo buskentak estire eser" - (Otzara ere ipini, trapu garbiekin, hesteak ateratzeko, halandaze oraingo buzkantzak ez dira ezer)

"Bai tte oin bere onek botaten doas nik otzarakas, nik estot ori kostunbre kendu, e?" - (Bai eta orain ere hauek botatzen ditut nik otzarekin, nik ez dut ekandu hori kendu, e?)

perikitto, perekito: zaran mota bat

"Perikitto, sesto andiauk, bedarrak ekarteko eta orrek, baya orretarango es, baya sesto txikitxuk eta, sillak asko itteusen" - (Perikitoa, zaran handiagoak, belarrak ekartzeko eta horiek, baina horietariko ez, baina zaran txikitxoak eta, aulkiak asko egiten zituen)

sarana: zarana

sesto: zarana

"Gero matza batxe san eta botate siren, sestokas ekarten gendun txikon eta, jentek lagundu itte yoskun, ausok eta serak" - (Gero mahatsa batzen zen eta botatzen ziren, zaranarekin ekartzen genuen txikoan eta, jendeak lagundu egiten zigun, auzoek eta zerak)

18.5. ERROTA

ardatza: ardatza

argidun errete: argidun errota

arke: aska, irin aska

arri: harria, errotarria

"Gero ak ieten dau edo arries altza gorau edo berau, fiñau edo lodiau, selan gurosuen itten dau ak" - (Gero hark

igaten du edo harriarekin altxatu gorago edo beherago, finago edo lodiago, zelan gura duzun egiten du hark)

"Arri tire danak bardiñek, baya dire klase batzuk, batekok eta beste batzuk beste batekok, guk euki gendusen bat, Matxitxako, eta beste bat Yatan atako, osten, arri, io, dustireko ioten dau bardin, berak arriek eitten dau, gari, arto, garagarra nei pentzu nei gure dana, arri betek eitten dau dana, baya oiñ, a, daus arrik, batzuk eitten dauenak gosoau beste batzu paño, guren on san Yatakoa, arto ataten daun gosoau, beste paño" - (Harriak dira denak berdinak, baina dira mota batzuk, batekoak eta beste batzuk beste batekoak, guk eduki genituen bat, Matxitxako, eta beste bat Jatan aterakoa, ostean, harria, eho, guztirako ehotzen du berdin, berak harriak egiten du, garia, artoa, garagarra nahi pentsua nahi gura dena, harri batek egiten du dena, baina orain, daude harriak, batzuk egiten dutenak gozoago beste batzuk baino, gurean egon zen Jatakoa, artoa ateratzen zuen gozoago, besteak baino)

"Guk eskatu arriek, a, megidakoak eta ak eitte ausen megidako arrik" - (Guk eskatu harriak, neurrikoak eta hark egiten zituen neurriko harriak)

arto saku: arto zakua

"Gaur egun estau meresidu se, su errotak, arto saku et, ioteko urtean, estau meresidu" - (Gaur egun ez du merezi ze, su errotak, arto zaku bat, ehotzeko urtean, ez du merezi)

baye: bahea

"Bayati pasa ta osten, txarriri boatate tzun guk ori" - (Bahetik pasatu eta ostean, txerriei botatzen genien guk hori)

burnisko sepillo: burdinazko eskobila

debore: tolbera

eje: ardatza

"Orko mekanismo fasille da, orre tatos, segun selan diren, edo urekoak, edo argidunek, guren, a, egon san urekoa eta argidune bietako, eta orre tos, bean deuke errueda bat, pala batzukes, eta gero eje bat, ta goyen do, arri bet bean, firme eta gero beste bat bueltaka, eta gero ganen yero, arto edo pentzu, edo gure dana, apurke apurke yausten da sulo bateti, eta ak, a, an

BERANGOKO HIZTEGIA

ioten dau" - (Horko mekanismoa erraza da, horiek datoz, segun zelan diren, edo urekoak, edo argidunak, gurean, egon zen urekoa eta argiduna bietakoa, eta horiek doaz, behean daukate txirrinka bat, para batzuekin, eta gero ardatz bat, eta goian doa, harri bat behean, fixo eta gero beste bat bueltaka, eta gero gainean jeroa, artoa edo pentsua, edo gure dena, apurka-apurka jausten da zulo batetik, eta hark, han ehotzen du)

errotarri: errotarria

errote: errota

"Errotak emen daus saspi" - (Errotak hemen daude zazpi)

"An Goikoerrota ta Bekoerrota ta orti, errota bi on siren an, eta andi ur askok korritte aun Santana aldera" - (Han Goikoerrota eta Bekoerrota eta hortik, errota bi egon ziren han, eta handik ur askok korritzen zuen Santa Ana aldera)

"Gero, a, ya ogi etorten asi sanean, apur bet, ya errota pe ya galdu siren, e?" - (Gero, ja ogia etortzen hasi zenean, apur bat, ja errotak ere ja galdu ziren, e?)

erruede: txirrinka

"Au erruede bere amen aurren okitteun etzen es, baya ostantzen ikus dot leku askotan" - (Txirrinka hau ere hamen aurrean edukitzen zuen etxean ez, baina osterantzean ikusi dut leku askotan)

kanala: errotariaren zirrikitua, zirrikitu hauek erabileraren poderioz itxi egiten ziren eta orduan harria pikatu egin behar izaten zen

"Orre tos, kanal batzu tos alan, emen, a, dau, a, suloa, arto sartzen dana, kanala onarteko, beste ba to, emen onen ingeruti ona beste bat, eta gero beste txikerrau, au da, lelengo golpea, austeko, bestek finduau, eta bestek fiñau itten dau, eta orre tos bittarte bateas, alan selan esango tzu pa, emen, e, serau, sulo anditxuau eta gero ya fin fin fiñe atzera" - (Horiek doaz, kanal batzuk doaz hala, hemen, dago, zuloa, artoa sartzen dena, kanala honaino, beste bat doa, hemen honen ingurutik hona beste bat, eta gero bestea txikerragoa, hau da, lehenengo kolpea, hausteko, besteak finduago, eta besteak

finago egiten du, eta horiek doaz bitarte batekin, hala zelan esango dizut ba, hemen, zerago, zulo handitxoago eta gero ja fin-fin-fina atzera)

konporte: konporta

"Nosonos errekek garbittu ber direnen, konporte sarratxen da, eta ure tatos beste leku beteti, e, erreke lotxen da siketute garbittako" - (Noiz edo noiz errekek garbitu behar direnean, konporta ixten da, eta urak datoz beste leku batetik, erreka lotzen da sikatuta garbitzeko)

mende: menda, errotariak behar saritzat hartzen duen ehokoaren ehunekoa

"Orrek, a, bai! guk, e, mendak geittuten geuntzen ordun" - (Horiek, bai! guk, mendak deitzen genien orduan)

palanke: palanka

pika: pika

saku: zakua

"A saku gero desga andi beten ure ta an garbittu, e? a garbittu, ta a saku autze garbittu gero, ta gero ostabe pasa labati a, ta lotxe san labe garbi garbi garbi" - (Zaku hura gero desga handi baten ura eta han garbitu, e? hura garbitu, eta zaku hura hautsa garbitu gero, eta gero ostera ere pasatu labetik hura, eta lotzen zen labea garbi-garbi-garbi)

"Nire aitek esateun se, nik estot esetu baya, emen egote sala bentana txiki txikitxu et, eta negun, saku sati sartute tzean an, axek otzittu estain sute" - (Nire aitak esaten zuen, nik ez dut ezagutu baina, hemen egoten zela leiho txiki-txikitxo bat, eta neguan, zaku zatia sartzen zioten han, haizeak hoztu ez dezan suetea)

"Saku bete jeneroas dator" - (Zaku bete gauzarekin dator)

sorro: zorroa

su arri: su harria

"Pika guk es gendun itten, guk es, se, bueno guren garbi esanta, ure arrik estien berotuten baya, su arri berotu eitte san ta guk eitten gendun, altzau arri, buelte emon, goikori, eta beste firme an lotxe san, eta ur beroas, altza ta paste altza itte san, ulertuten dosu? eta gero, burnisko sepillo bateas arraspa, eta ostabere barriri imiñi, eta ya altzaten gendunen, oten basan, a, pika berren, pikau" - (Pikatu guk ez genuen egiten guk ez, ze, beno gurean

BERANGOKO HIZTEGIA

garbi esanda, ura harriak ez ziren berotzen baina, su-harria berotu egiten zen eta guk egiten genuen, altxatu harria, buelta eman, goikoari, eta bestea fixo han lotzen zen, eta ur beroarekin, altxatu eta oreka altxatu egiten zen, ulertzen duzu? eta gero, burdinazko eskobila batekin karrankatu, eta ostera ere berriro ipini, eta ja altxatzen genuenean, egoten bazen, pikatu beharrean, pikatu)

su errote: su errota, argi indarrez dabilen errota

trigeru: galbahea

"Bai amak, a, erre edo egosi, intteusen lapiko aten gero, imiñi arrin trigeru bet, eta ara urek eskapa dion trigeruri tte imintte otzon amantala, garbi bet lurrune konserba deiñ, ya otzittute sirenen, tenplen parate sienen ordun atarateusen yateko" - (Bai amak, erre edo egosi, egiten zituen lapiko baten gero, ipini harrian galbahe bat, eta hara urak eskapa diezaion galbaheari eta ipintzen zion amantala, garbi bat lurruna gorde dezan, ja hozten zirenean, epel paratzen zirenean orduan ateratzen zituen jateko)

"Guren trigeru trigeru ese, yo intten gendun guk, palu beteas, lelau yo" - (Gurean galbahea galbahea eze, jo egiten genuen guk, makila batekin, lehenago jo)

txangale: txangala

"Txangale sera, da, a, arto emoten daune ioteko" - (Txangala zera, da, artoa ematen duena ehotzeko)

txifloi: txifloia

"An dau ubetue, ta an, a, txifloik ixeten dire, txifloi da ure eroten daune, txifloi serratu, eta a betetu itten da" - (Han dago ugetua, eta han, txifloiak izaten dira, txifloia da ura eroaten duena, txifloia itxi, eta hura bete egiten da)

txori: txoria

"Baya txori, len ote san txori, gauk auki du gero radaminttues eintte, orre teko, a, alan palanka bat" - (Baina txoria, lehen egoten zen txoria, geuk eduki dugu gero errodamenduarekin eginda, horrek dauka, hala palanka bat)

txinbo sulo: txinbo zuloa

"Txinbo sulo da lelengo, ugetu da beste, emen dekune" - (Txinbo zuloa da lehenengoa, ugetua da bestea, hemen daukaguna)

"Txinbo sulo es, lelengo, eta ugetu da beste" - (Txinbo zuloa ez, lehenengoa, eta ugetua da bestea)

ubetu, ugetu, uetu: ugetua

"Or dau uetu andi bet" - (Hor dago ugetu handi bat)

"Ubetu da uren, a, deposittue, pantano at ixete les, bardin bardin bardiñ" - (Ugetua da uren, biltegia, antzira bat izatea legez, berdin berdin berdin)

"Ugetu da, emen etze, e? eta gero dau, ori, a, emoten dotzona, ure" - (Ugetua da, hemen etxea, e? eta gero dago, hori, ematen diona, ura)

"Betatute sanen, bajaten siren urekas, ordun aste siren artok ioten, ori da ugetu" - (Betetzen zenean, baxatzen ziren urekin, orduan hasten ziren artoak ehotzen, hori da ugetua)

ure arri: ur-harria

ureko errote: ureko errota

18.6. LABEA

basnere: basnera, labea garbitzeko trapuz edo ginarraz egiten zen erratza

benaki: belakia, labetik ogiak eta ateratzeko erabiltzen zen makila luzea

"Eta benaki da, sera, beste bat, palu iñ imiñi eta atxurre les" - (Eta belakia da, zera, beste bat, makila egin ipini eta aitzurra legez)

"Benaki da atarateko, brase, brase dana atarateko" - (Belakia da ateratzeko, txingarra, txingar dena ateratzeko)

bidoya: bidoia, labean gauzak erretzeko erabiltzen zena

"Es aparte imintte, olan, a, atxiñeko bidoyatan" - (Ez aparte ipinita, hola, antzinako bidoietan)

idorke: irurkea, urkulua, egurrezko sarda

"Idorke ixete san palu olan sartxeko" - (Urkulua izaten zen makila hola sartzeko)

labagarri: labagarria, laban sua egiteko erabiltzen den materiala

labaspi: labazpia

labasu: labasua

BERANGOKO HIZTEGIA

"Labasu intteko? ba labe da, erredondo eukitten dau, barruko sera, eta osten, a, retangulo, eta ladrillu, a, espesialas berorako ta san, eta an itten da sue, otakarrak eta, aspireko, ganaduntzeko balio estaun otakar lodik, eta egurreas ta, arik eta ierri itte san labe nos daun bero, arik ladrilluk suri parate sirenen, se asikeran sue emokeran, lotxen dires baltza keas, baltza, ta gero bero kosten daun suri lotxen da ta dau labe bero ta atara brase dusti, paluk itzelak ese, bero, bero emoten dau serak eta, botaten da arto, or, a, sei saspi sesto, saranak" - (Labasu egiteko? ba labea da, biribila edukitzen du, barruko zera, eta ostean, laukia, eta adreilu, bereziarekin berorako eta zen, eta han egiten da sua, otabarrak eta, azpirako, ganaduentzat balio ez duen otabar lodiak, eta egurrarekin eta, harik eta igarri egiten zen labea noiz dagoen bero, haiek adreiluak zuri paratzen zirenean, ze hasikeran sua emakeran, lotzen dira beltza kearekin, beltza, eta gero bero hartzen duenean zuri lotzen da eta dago labea bero eta atera txingar guztia, makilak itzelak eze, beroa, bero ematen du zerak eta, botatzen da artoa, hor, sei zazpi otzara, zaranak)

"Bai ortxe garaje dekun lekun or, nik esetu dot labe, arik eta amabost urte edo amasei auki dausen arten nebek eitteen labasu" - (Bai hortxe garaje daukagun lekuan hor, nik ezagutu dut labea, harik eta hamabost urte edo hamasei eduki dituen artean nebak egiten zuen labasua)

"Labasu, labasu iñ, eta gero labasun fasil fasil paraten dire, eta gero garandu" - (Labasua, labasua egin, eta gero labasuan erraz-erraz paratzen dira, eta gero garandu)

labaurre: labaurrea

"An labaurren imintten gendun, sue iñ, ta patata txikerrak egosi" - (Han labaurrean ipintzen genuen, sua egin, eta patata txikerrak egosi)

labe: labea

"Labe okitten gendun aurren, aurren okitten gendun labe" - (Labea edukitzen

genuen aurrean, aurrean edukitzen genuen labea)

"Berotasune ta surittu ba, labe, bea, surittu, bea surittu, eitte san bea" - (Berotasuna eta zuritu ba, labea, behea, zuritu, behea zuritu, egiten zen behea)

"Antxe dau bota barik ostantzen ya estau labarik" - (Hantxe dago bota barik osterantzean ja ez dago laberik)

pale: para

"Olao pala batzuk egoten sien, luse, mango andi aukitteurenak, puntan alao, ba, ogi sartxen dan antzeko, ser bat ixete san, eta aas, buelte emoteutzen ba egurreri tte barrun, eta gero bero paraten sanen gorritute labe, ba a dusti atara itteuren, ta garbittu eskoba bateas ta gero bota artaburuk ara eta sarratu" - (Holako para batzuk egoten ziren, luzea, kirten handia edukitzen zutenak, puntan halako, ba, ogia sartzen den antzeko, zer bat izaten zen, eta harekin, buelta ematen zion ba egurrari eta barruan, eta gero bero paratzen zenean gorrituta labea, ba hura guztia atera egiten zuten, eta garbitu erratz batekin eta gero bota artaburuak hara eta itxi)

"Paleas itteuen, nik ori esetu dot, e? aurrerau ba estaitt ser ixengo san, baya nik ori esetu dot, paleas" - (Pararekin egiten zuten, nik hori ezagutu dut, e? aurrerago ba ez dakit zer izango zen, baina nik hori ezagutu dut, pararekin)

18.7. GURDIAK

akulu: akuilua, ganadua kinatzeko erabiltzen den makila

aldamena: aldamena, gurkamaren alboetan dauden makilak

almoadille: burukotxoa, buztarrian ipintzen dena ardi narruaren azpian

ardi narru: ardi narrua

"Len, e, usate siren, e, ardi narru esate akon ba, idik busterrin ganen imintteko" - (Lehen, usatzen ziren, ardi narrua esaten zitzaion ba, idiak buztarriaren gainean ipintzeko)

aspiola: azpi-ohola, satsa garraiatzeko batez ere, gurkaman ipintzen ziren oholak

atzera karge: atzera karga

aurrera karge: aurrera karga

BERANGOKO HIZTEGIA

"Gero ixeten basan baso aldas bera andies, en jeneral kargaten osun pisu giau atzera, ganadu obeto etor ditten, espabere, ganadu penoso, aurrera karge ta atzera karge" - (Gero izaten bazen basoa aldats behera handiarekin, gehienetan kargatzen zenuen pisu gehiago atzera, ganadua hobeto etor dadin, ezpabere, ganadua penaz, aurrera karga eta atzera karga)

bolante gurdi: gurdi bolantea

borla gorri: piztina

busterri, busturri: buztarria

"Kanbiaten badosus este ondo tirituten, beti, eskerra eskerreko alderdiñ, eta eskoya eskoyako alderdin, beti imin berdosus busterrin auron lekuti" - (Aldatzen badituzu ez dute ondo tiratzen, beti, ezkerreko alderdian, eta eskoia eskoiko alderdian, beti ipini behar dituzu buztarrian euron lekutik)

"Emen, a, busterri itteko bere, ori etorte san, a, etzetati etorte san" - (Hemen, buztarri egiteko ere, hori etortzen zen, etxeetatik etortzen zen)

ede: hede

"Edek itten dire lusek, esta? eta imintten da frontere, bueno lelau busterri gero frontere, ta edekas aurreti, emoten dotzesu, ba emoten dotzet nik, lau buelta, eta gero adarratati, kosten deun adarra, sera, fronteratati, aurreti, adarratati, iru bueltana, ta gero an emote otzesun troñu" - (Hedeak egiten dira luzeak, ezta? eta ipintzen da frontera, beno lehenago buztarria gero frontera, eta hedeekin aurretik, ematen diozu, ba ematen diot nik, lau buelta, eta gero adarretatik, hartzen duen adarra, zera, fronteretatik, aurretik, adarretatik, hiru bueltana, eta gero han ematen zenion troinua)

erruede: gurpila, txirrinka

frontere: frontera, sapa; buztartzeko ganaduren kopetetan jartzen direnak

galge: galga, balazta

"Galge, galge, baya errueda biek kosten daula, bastante egurre, lodi, imiñi soka bateas, se an amarrate san eta frenateko, aldas beran bajateko" - (Galga, galga, baina txirrinka biak

hartzen duela, nahiko egurra, lodia, ipini soka batekin, ze han lotzen zen eta galgatzeko, aldats beheran baxatzeko)

gana: gaina, kina, akuiluak puntan daukan iltzea

"Akullu ganaas, sorrostu, a, limeas, untze bat sartxe san an" - (Akuilu gainarekin, zorroztu, limarekin, iltze bat sartzen zen han)

gurdi, burdi: gurdia

"Orrek ekar deure gurdi bete bedarra" - (Horiek ekarri dute gurdi bete belarra)

"Aittek eroteun, burdies, etzen eiñ, a, iketza eta Mungire, saltxen" - (Aitak eroaten zuen, gurdiaekin, etxean egin, iketza eta Mungira saltzen)

"Nik estot esetu baya, entzunte dekot, selan yote siren, a, gurdin sartu arreo ta" - (Nik ez dut ezagutu baina, entzunda daukat, zelan joaten ziren, gurdian sartu arreo eta)

"Orti gurdies eleitte pasa" - (Hortik gurdiaekin ez liteke pasa)

gursotza: gurzotza, larakoa. Buztatu eta ostean, partikoa mugi ez dadin puntan gurzotz bi sartzen dira buztarriari eusteko

"Gursotza, atzera botateko, bat atzeti eta beste aurreti, aurreko en jeneral ixete san, tubosko, burnisko, ede sati beteas amarrateko, estein korridu" - (Gurzotza, atzera botatzeko, bat atzetik eta bestea aurretik, aurrekoa gehienetan izaten zen, hodizkoa, burdinazkoa, hede zati batekin lotzeko, ez dezan korritu)

gurtakarra: gurtakarra, gurtakaren atzeko aldean tente jartzen den makila

"Gurtakarra sartzeko atzen, erdiko da lodiau, t'aurren irespate" - (Gurtakarra sartzeko atzean, erdikoa da lodiagua, eta aurrean ezpata)

gurtede: gurtede, buztarriak daukan uhalezko uztai modukoa partikoa sartzeko

"Gurtede, gurtede, sera, ganadun narrues intte" - (Gurtede, gurtede, zera, ganaduaren narruarekin eginda)

"Bai gurtede geitxen dotzu areri, gurtede" - (Bai gurtede deitzen diogu hari, gurtede)

gurtola: gurtola

"Gurtolak albokok eta aspiolak bekok" - (Gurtolak albokoak eta azpi-oholak behekoak)

BERANGOKO HIZTEGIA

irespate: gurdiaren aurrekaldean tente ipintzen den makila, ezpata

"Areri geitxen tzu guk dustiri, irespate, ta an sartxen deure surrune" - (Hari deitzen diogu guk guztiari, ezpata, eta han sartzen dute zurruna)

kame: gurrakama

"Bai kama geitxen tzu guk" - (Bai gurrakama deitzen diogu guk)

karge: karga, zama

nardai: nardaia

"Nardai, da, probatan ibiltten dan partike" - (Nardaia da, probetan ibiltzen den partika)

orrotza: orrazia, aldamenetatik goitik behera ardatzari eusten dioten egurrak

"Orrotza ejeti esteiñ urten arandelakas" - (Orrazia ardatzetik ez dezan irten arandelekin)

partike: partika

sarte: partika

sotza: gurzotza, larakoa

"Busterrik aukitten dau, ta gero puntan sulo bat aukitten dau, sartu andi, a, olango sotza bat, burnisko ixete san" - (Buztarriak edukitzen du, eta gero puntan zulo bat edukitzen du, sartu handik, holako zotz bat, burdinazkoa izaten zen)

surrune: zurruna

"Surrune yoten da gurdin ganeti amarrata" - (Zurruna joaten da gurdiaren gainetik lotuta)

uela: uhala, larakoak edo gurzotzak daukan uhaltxoari esaten zaio; uhala orokorrean ere bai

"Batzuk eiten de uelaas, beste batzuk kate sati beteas iminten de" - (Batzuek egiten dute uhalarekin, beste batzuek katea zati batekin ipintzen dute)

18.8. ASTO GARRAIOA

apareju: aparejua

asto karro: asto karroa

asto sesto: astotzara

bare: bara

baste: basta

eskuko karro: esku gurdia

"Trenen yoten gintzen, gero an karro bat aukitte yeun, lelau erote yoskun

karreteru betek, a, leku betera, eta an itxi, gero auron eskuko karrok in siren, ta eskuko karrokas, ta beste errepardora bat laguntzen, ondoan, ta yon saspirek ogei gitxitteko trenen, eta etorri, arrasteiko ordu biek, se oiñ trenak amar minutun amar minutun, baya ordun" - (Trenean joaten ginen, gero han gurdi bat edukitzen zuen, lehenago eroaten zigun karretero batek, leku batera, eta han utzi, gero euren esku-gurdiak egin ziren, eta esku gurdiekin, eta beste banatzaile bat laguntzen, ondoan, eta joan zazpiak hoge gutxitako trenean, eta etorri, arrastegiko ordu biak, ze orain trenak hamar minutuan hamar minutuan, baina orduan)

kabesere: kabezera

karro: karroa; gurdia eta karroa desberdinak dira, gurdia itxiari esaten zaio, karroa, berriz, astoakaz edo ibiltzen denari edo irekiari

kollaroya: koilarra

kollarra: koilarra

latigu: latigoa, zigorra

petrala: petrala, bastari eusteko astoaren buztanaren azpitik lotzen den uhala

petralere: petralera, bastari eusteko astoaren buztanaren azpitik lotzen den uhala

sillete: sileta

sintxe: zintxa

urke: urkea, txalma

"Guk asto euki du baya karro barik, guk eitten gendun, e, otzarakas edo espabere urkeas" - (Guk astoa eduki dugu baina karro barik, guk egiten genuen, otzarekin edo ezpabere urkearekin)

18.9. KORTA

albate: albatea

"Ori eintten dun gortan, albatetati, ateti sartukeran albate geittuten tzun" - (Hori egiten genuen kortan, albateetatik, atetik sartzean albatea deitzen genion)

aske: aska

"An askatan yateuden ganaduk" - (Han asketan jaten zuten ganaduek)

"Aske kanpon, a, emoteko pentzu apur bet edo gure dana emoteko" - (Aska kanpoan, emateko pentsu apur bat edo gura dena emateko)

BERANGOKO HIZTEGIA

eskobille: eskubila

estramiñe: estramina, aska

"Estramiñe da, bedarra ta botateko ara, an yateuren ganaduk" - (Estramina da, belarra eta botatzeko hara, han jaten zuten ganaduek)

galtzuserre: galtzu-zerra, lastoak ebakitzeko erabiltzen zen igitia; gehienetan gortako zutaberen baten egoten zen; han ebakitzen ziren lastoak ganaduari ematen zitzaizkion pentzutzat

gorte: korta

"Eroteun palues, se txixek atarateusen, gortati atarateusen serarako" - (Eroaten zuen makilarekin, ze txizak ateratzen zituen, kortatik ateratzen zituen zererako)

"A etze ondiño an dau, baya atzeko, a, gortako tellatu yausitte dau" - (Etxe hura oraindino han dago, baina atzekoa, kortako teilatua jausita dago)

karretille: karretila

"Neuk erote neusen, a, gure serak, dustik karretillan, eta an pisateuen" - (Neuk eroaten nituen, gure zerak, guztiak karretilan, eta han pisatzen zuen)

sardapale: sarda kakoa

sarrantxe: txarrantxa

sepillu: eskubila

19. GIZARTEA

Gizarte bizimoduari buruzko atal honetako lexikoa merkatu-azoka-dirua, neurriak, auzoen erlazioak, kortesia formulak, jabetza erlazioak, ezkontza, musika-dantza, kirola-aisia, ehiza-arrantza, jaiegunak, euskara, eta gerratea-soldaduska izeneko azpi-gaietan banatuta ematen dugu.

19.1. MERKATU-AZOKA-DIRUA

balantze: pisatzeko balantza

baskule: baskula

"Gero pisu, ori esta sera ba paño noperantzako, e? gero mataderon baskuleas" - (Gero pisu hori ez da zera bat baino norberarentzat, e? gero hiltegian baskularekin)

bendeje: bendeja, plazara saltzeko eroaten den jeneroa

"Guren bendejeas etorte siren orra, ta esneas ta dusties baya, aste dusti dustin, sera, indabe" - (Gurean bendejarekin etortzen ziren horra, eta esnearekin eta guztiarekin baina, aste guzti-guztian, zera, indaba)

bendejere: bendejera

"Koñata ba tekot nik bendejere" - (Koinata bat daukat nik bendejera)

besere: bezeroa (f.)

diru: dirua

"Eron in ber dot diru etzera" - (Eroan egin behar dut dirua etxera)

"Diru, baya esteutze emon gure dirurik" - (Dirua, baina ez diete eman gura dirurik)

erreal, errela: erreal

"Ekarri, txikertu t'eron Algortara saltxen, sei errel, e? saku, orrek erruedak eiñ, e, karrok eintte, se eskendun auki dirurik es eser" - (Ekarri, txikertu eta eroan Algortara saltzen, sei erreal, e? zakua, txirrinka horiek egin, karroak eginda, ze ez genuen eduki dirurik ez ezer)

"Nik an, a, Sustetxa ondon baso bat labra neun, kontu atara oiñ, a, otamar urte, otamar, otamar urte igual ixengo dire, mille errel kobrate neun orduko, a, lorak sartzeko" - (Nik han, Sustatxa ondoan baso bat landu nuen, kontu atera orain, hogeita hamar urte, hogeita hamar, hogeita hamar urte beharbada izango dira, mila erreak kobratzen nuen orduko, loreak sartzeko)

"Bai, ganaduk ikusten, ta tasa itteusen, se ordun errealakas itte san, errealakas, ni gaste nasela esatu doas orrek, e? gaste nasela" - (Bai, ganaduak ikusten, eta tasatu egiten zituen, ze orduan errealekin egiten zen, errealekin, ni gaztea naizela ezagutu ditut horiek, e? gaztea naizela)

erreal biko: erreal bikoa

errekadu: erosketa, mandatua

esne besere: esne bezeroa

"Esne beserak eta emoteusen erropak, erropakas, arreglata, yoskil bat on san or ta arregla, barri barrik, e? bestek, a, arteko urten beste, a, umek eiñekok, eleganteko erropak, eta arregla, eta aikes komuniño" - (Esne bezeroek eta ematen zituzten arropak, arrokekin, konponduta, joskil bat egon zen hor eta konpondu, berri-berriak, e? besteak, arteko urtean)

BERANGOKO HIZTEGIA

bestea, umEEK eginekoak, dotoreko arropak, eta konpondu, eta haiekin komunioa)

esne tanke: esne tankea

feri: azoka

"Bagos ferire" - (Bagoaz azokara)

"Emen esta iñ, feririk emen esta iñ, emen eroste san ganadu da, Marselino, ixer san tratante bat, difuntu dau oiñ, eta orrek ekarte aun, ba ganadu partide bat, eta ortxe, a, Eroskirantza don, a, a dau akabuko etzen, an, a, gortan aukitte yaun ainbeste ganadu, eta emeko errikok kasik danak orrek saltxeusen" - (Hemen ez da egin, azokarik hemen ez da egin, hemen erosten zen ganadua da, Marzelino, izan zen tratante bat, defuntu dago orain, eta horrek ekartzen zuen, ba ganadu partida bat, eta hortxe, Eroskirantz doan, hura dago azken etxean, han, kortan edukitzen zuen hainbeste ganadu, eta hemengo herrikoak kasik denak horrek saltzen zituen)

"Ostantzen ba yote siren, ba ori, a, Bilbora, serara, an, Basurtura" - (Osterantzean ba joaten ziren, ba hori, Bilbora, zerera, han, Basurtura)

"Feritten ukus doas, baya emen estot ukusi" - (Azoketan ikusi ditut, baina hemen ez dut ikusi)

"Orrek feriten eroste siren" - (Horiek azoketan erosten ziren)

gastu: gastua

konpre: erosketa

"Ni soltero nau eta nauk eitten doas konprak" - (Ni ezkondu barik nago eta neuk egiten ditut erosketak)

medide: esnea saltzeko tankea

oberleko, ogerleko: ogerlekoa

"Eta besino dustik yote siren ba, se ordun aragi, goso ixate san, gaur es ain goso baya ordun ba, goso, ta jente sakukes ta, barretan gu gastek, sakukes artu te, iru misto biste siren, bistu, iru misto, semest emoten da oneaittik loteaittik, bost ogerleko, sei ogerleko ta amata itte san a, misto, gero beste bistute san, bigarrena, bueno saspri ogerleko, saspri ogerleko ta erdi, or ibiltze san ta amata itte san beste bere ba, ta irugarren misto biste san, ta geyena aintxen

deunak, aiba!" - (Eta auzo guztiak joaten ziren ba, ze orduan haragia, gozoa izaten zen, gaur ez hain gozoa baina orduan ba, gozoa, eta jendea zakuekin eta, barretan gu gazteak, zakuekin hartu eta, hiru misto bizten ziren, biztu, hiru misto, zenbat ematen da lote honegatik, bost ogerleko, sei ogerleko eta amatatu egiten zen hura, mistoa, gero bestea bizten zen, bigarrena, beno zazpi ogerleko, zazpi ogerleko eta erdi, hor ibiltzen zen eta amatatu egiten zen bestea ere ba, hirugarren mistoa bizten zen, eta gehiena agintzen duenak, eutsi!)

page: ordaina

perre: txakurrandia

pesete: pezeta

"Mille ta bosteun peseta batxeko bear eskandalu eiñ, eskandalu bear ei euren, saldu txalak, eta esnek, eta bendejak eta mille ta bosteun peseta batxeko urten" - (Mila eta bostehun pezeta batzeko behar itzela egin, itzela behar egin zuten, saldu txahalak, eta esneaj, eta bendejak eta mila eta bostehun pezeta batzeko urtean)

plase: plaza, merkatua

"Gure aitte difuntuk, a, amari bendeje aston kusitte tapa tapa tapa! emeti Algortako plasara eroteutzon" - (Gure aita zenak, amari bendeja astoan hartuta tapa-tapa-tapa! hemendik Algortako plazara eroaten zion)

presio: prezioa

salgei: salgai

sentimo: zentimoa

tanke: esnea saltzeko tankea

"Tanke esaten tzun guk, es medide" - (Tankea esaten genion guk, ez neurria)

tratante: tratantea, tratularia

"An dau tratante bat eta emongo tzu beitzu bet emongo tzu te pagako tzesu nosikuandon, eta gure ama yote san, amabost peseta eroteusen, illen edo olan" - (Han dago tratante bat eta emango dizu behitxo bat emango dizu eta ordainduko diozu noizean behin, eta gure ama joaten zen, hamabost pezeta eroaten zituen, hilean edo hola)

tratu: tratua

"Eskontzeko onek emon ber ixeusen amabi mille peseta, ordun denporan diru ixen san, ta orrek amabi mille peseta emon ber ixer otzen besten aitteri, nobien aitteri, ori

BERANGOKO HIZTEGIA

tratu" - (Ezkontzeko honek eman behar izan zituen hamabi mila pezeta, orduan sasoian dirua izan zen, eta horrek hamabi mila pezeta eman behar izan zion bestearen aitari, andregaiaren aitari, *tratu hori*)

19.2. NEURRIAK

alture: altuera

"Segun, *noperak gure daun alturen eitteuren, se etzen etzen bere aukitten gendun bakotzak noperana*" - (Segun *norberak gura duen altueran egiten zuten, ze etxean etxean ere edukitzen genuen bakoitzak norberarena*)

"*A ixen san baltza, alaseko alture, eta sulokas intte kandelak imintteko an*" - (Hura izan zen *beltza, halaseko altuera, eta zuloekin eginda kandelak ipintzeko han*)

arradun kordela: arradun kordela, neurri kordela; ganaduaren pisua kalkulatzeko erabiltzen zena

arre: arra

"*Ori meidu itten dere ba, e? meidu itten dere ta, beti esateen, sortzi, sortzi sera badekos, sortzi arra badekos, berrogei erralde dekos, berreun kilo dekos ta orrek jenero pa*" - (Hori *neurtu egiten dute ba, e? neurtu egiten dute eta, beti esaten zuten, zortzi, zortzi zer badauzka, zortzi arra badauzka, berrogei erralde dauzka, berrehun kilo dauzka eta gauza horiek ba*)

"*Bai kordel bat, arradune, sortzi arra, amar bederatzi arra, amar arra, amaka arra ta amabi arrakok, kordelak*" - (Bai *kordel bat, arraduna, zortzi arra, hamar bederatzi arra, hamar arra, hamaika arra eta hamabi arrakoak, kordelak*)

arrobe: arropa

asunbra erdi: azunbre erdia

asunbre: azunbrea

auneko: ehuneko

"*Bueno, paga? batzuk paga itteuren, beste batzuk, kendu eitte daken, artoa, aonenbeste auneko*" - (Beno, *ordaindu? batzuek ordaindu egiten zuten, beste batzuek, kendu egiten zitzaien, artoa, haonenbeste ehuneko*)

bare: oihalak neurtzeko makila

dosena erdi: dozena erdia

"*Dosena erdi egoten gintzesen*" - (Dozena *erdi egoten ginen*)

dosene: dozena

"*Guk asitterako imintten du, porru pere bai, dosena bat igual*" - (Guk *hazitarako ipintzen dugu, porruak ere bai, dozena bat beharbada*)

erdi: erdia

"*Erdik emoteusen biden*" - (Erdiak *ematen zituen bidean*)

"*Emen oiñ estau, erdi utzi taus danak, baya len danak, etzek danak egon siren beterik*" - (Hemen *orain ez dago, erdi hutsik daude denak, baina lehen denak, etxeak denak egon ziren beterik*)

erralde: erraldea, bost kiloko pisua

"*Gerra denporan ortxe ill eusen, ordun okelarik es, ta or ill eusen, aun de piku, a, erraldekok*" - (Gerra *denboran hortxe hil zituen, orduan okelarik ez, eta hor hil zituen, ehundazak, erraldekoak*)

errase: maila

giselena: gizalana

"*Guk solo pere amar giselen, lau giselen, sei giselen, sortzi giselen ta olan yakiten dun se solora yon ber dun*" - (Guk *sozoak ere hamar gizalan, lau gizalan, sei gizalan, zortzi gizalan eta hola jakiten genuen ze sorotara joan behar genuen*)

giselen andi: gizalan handia

"*Emeti, a, Leyoan, a, arik, a, serak, onek, e, giselenak andiauk siren emekok Berangoko paño, an giselen andi akostunbrate san, ta emen txikerra*" - (Hemendik, *Leioan, haiek, zerak, hauek, gizalanak handiagoak ziren hemengoak Berangokoak baino, han gizalan handia erabiltzen zen, eta hemen txikerra*)

giselen txikerra: gizalan txikerra

kana erdi: kana erdia

kane: kana, ehuna neurtzeko neurria

"*Bai kana bat gero etor san metro*" - (Bai *kana bat gero etorri zen metroa*)

kantara erdi: kantara erdia

kantare: kantara

"*Anajeas ibil san ori, kantaran bearren*" - (Anaiarekin *ibili zen hori, harrobian beharrean*)

kilo: kilo

BERANGOKO HIZTEGIA

"Bai baya es isterra bere osorik, diñot nik, a, bost kilo ingiruko edo olan" - (Bai baina ez izterra ere osorik, dinot nik, bost kilo ingurukoa edo hola)

"Errotako bearra da por ejemplo, emen kobrateen berrogetamar kiloaiti bos kilo" - (Errotako beharra da esate baterako, hemen kobratzen zuten berrogeita hamar kiloko bost kilo)

kilo erdi: kilo erdia

kilo terdi: kilo eta erdia

kilometro: kilometroa

"Ba or bertan bixi nas ni ameti kilometroan" - (Ba hor bertan bizi naiz ni hamendik kilometroan)

kintela: kintala

"Gerra osten obliga intteuen gari kosten bere bai, onenbeste, a, kintel entrega ber diresela ayuntamintture" - (Gerra ostean behartu egiten zuten gari hartzen ere bai, honenbeste, kintal eman behar direla udaletxera)

kuarte: kuarta

"Orrek eitten dau, estaitt se megidetararten dan, eta, eneitzu esan, megidek eneitzus esan fijok, aukitten dau kordel bat, gero aukitten dau firu bet, gorri, ta beste bat, a, asule, eta gero andi gora segun se megide tekosen, ak markaten dau se megide dekon ganaduk, bederatzi kuarta edo sortzi kuarta, edo saspi kuarta, edo, esan doten modun" - (Horrek egiten du, ez dakit ze neurritaraino den, eta, ez niezazuke esan, neurriak ez niezazkizuke esan seguruak, edukitzen du kordel bat, gero edukitzen du firu bat, gorrie, eta beste bat, azula, eta gero handik gora segun ze neurri dauzkan, hark markatzen du ze neurri daukan ganaduak, bederatzi kuarta edo zortzi kuarta, edo zazpi kuarta, edo, esan dudan moduan)

kuartillo erdi: kuartilu erdia

kuartillu: kuartilua

"Ba intte yeun erraye meidek, eta arako kuartillu eta beste litro" - (Ba egiten zuen marra neurriak, eta harako kuartilua eta bestea litroa)

laurena: laurena, laurdena

liber laurena: libra laurena

liberdi: liberdia, libra erdia

libre: libra

litro: litroa

"Litro bat esne eron ber baya gauen" - (Litro bat esne eroan behar baijan gauetan)

"Emoten baosu litro bat ardau, beste bat, ia!" - (Ematen baduzu litro bat ardau, beste bat, ea!)

litro erdi: litro erdia

"Litro, eta batzuk aukitte yauen erdiñ erraye, litro erdi, se klaro ordun danak, aberatzak ixen esik jente pobre, gure antzeko bere egote san, eta arek ba, erdi" - (Litroa, eta batzuek edukitzen zuten erdian marra, litro erdia, ze jakina orduan denak, aberatsak izan ezik jende pobrea, gure antzekoa ere egoten zen, eta haiek ba erdia)

medide, megide: neurria

"Gero kosteun, medide, beste sar bateas, aren medide ta seran, eta gero ganaduk bustertu" - (Gero hartzen zuen, neurria, beste zahar batekin, haren neurria eta zerea, eta gero ganaduak buztartu)

metro: metroa

moltzo: multzoa

"Eta arbolan paraten diren olan, a, moltzo bat, eskaitte, yon, erluntzeas, ra! sartute, baya ondo tapaute yon ber da, e?" - (Eta arbolan paratzen diren hola, multzo bat, eskegita, joan, erlauntzarekin, ra! sartuta, baina ondo tapatuta joan behar da, e?)

neurri kordela: neurri kordela

ontze: ontza

"Txokolate pentza beres liberdiko txokolate edo erdi edo ontza bat" - (Txokolatea pentsatu ere ez libra erdiko txokolatea edo erdia edo ontza bat)

pare: pare

"Lengo sarrak gu baño serauk ixen dices, arik, a, beyek txala eiñ, tte txala ondo ikusi tte, ardau botilla pare bat emoteutzen bere ordun beyeri, oin bapestake emoten, oiñ, noperak artu" - (Lehengo zaharrak gu baino zeragoak izan dira, haiek, behiak txahala egin, eta txahala ondo ikusi eta, ardau botila pare bat ematen zioten ere orduan behiari, orain bat ere ez zaie ematen, orain, norberak hartu)

"Kosiostesu ollo pare bat" - (Har iezadazu oilo pare bat)

pareje: 1. pare. 2. bikotea

BERANGOKO HIZTEGIA

"Orren andren aitek, pareja bi okitteusen" - (Andre horren aitak, pare bi edukitzen zituen)

partida bat, partide bat: partida bat, pilo bat

"Es ostantzen es, yaten emon, ta batzuten esiren agertuten baya etorte siren gero igual txitakas agertute siren, txita partide bateas" - (Ez osterantzean ez, jaten eman, eta batzuetan ez ziren agertzen baina etortzen ziren gero beharbada txitekin agertzen ziren, txita partida batekin)

"Anaje partida bat ixen gintzesen" - (Anaia partida bat izan ginen)

partide: partida

pisu: pisua

"Egote siren, e, pisuk ogei kilokok, eta amar kilokok, eta bost kilokok" - (Egoten ziren, pisuak hogeik kilokoak eta hamar kilokoak, eta bost kilokoak)

sati: zatia

"Sati andi barik, se espabere sati andik esin eron, baya eitteuresan auron satik, erremesatan" - (Zati handi barik, ze ezpabere zati handiak ezin eroan, baina egiten zituzten euron zatiak, erremesetan)

"Guk ote botaten geuntzen, e? ote se baso deku Seierrri? gaure da, sati bet" - (Guk otea botatzen genien, e? otea ze basoa daukagu Seierrri? geurea da, zati bat)

"Ortxe egon da sati andi bet" - (Hortxe egon da zati handi bat)

selemiñe: zelemina

"Selemiñe usate san, a, indabe saltxe sanen selemiñe" - (Zelemina erabiltzen zen, indaba saltzen zenean zelemina)

"Baya selemiñe ixete san, igual, emen indabe, asko aukitte aunek eta sera, saltzeko" - (Baina zelemina izaten zen, beharbada, hemen indaba, asko edukitzen zutenek eta zera, saltzeko)

sentimetro: zentimetroa

"Guren on san lelengo arri egon san, aun de, metro eta amar sentimetro diametro, eta oin dausenak, gure basus ikusi nik erakutziko tzut oin bere, oin daus, bate tekola pentzaten dot aun, aun de berrogei, eta bestek aun de ogetabost, aun de otamar, diametroa" - (Gurean egon zen lehenengo harria egon zen,

ehun eta, metro eta hamar zentimetro diametroa, eta orain daudenak, gura badituzu ikusi nik erakutsiko dizut orain ere, orain daude, batek daukala pentsatzen dut ehun, ehun eta berrogei, eta besteak ehun eta hogeita bost, ehun eta hogeita hamar, diametroa)

"Sabalere aukitten dau, or, a, iru sentimetro ingiruko" - (Zabalera edukitzen du, hor, hiru zentimetro ingurukoa)

siento: ehunekoa, landareak saltzeko eta erosteko neurria

siento erdi: ehuneko erdia

"Ekasu siento erdi kinpulle" - (Ekar ezazu ehuneko erdi kipula)

tamañu: tamaina

"Noperak gure dau lau tamañukok" - (Norberak gura duen lako tamainakoak)

"Orrek etzek eitteko argiñentzako onenak, tamañu gero, noperak tamañu gero imiñi in ber dau" - (Horiek etxeak egiteko harginentzat onenak, tamaina gero, norberak tamaina gero ipini egin behar du)

19.3. AUZOEN ERLAZIOAK

alborke: albroka, ganadu tratua egin eta ostean egiten den kopaua

"Alborke, alborke ganadu bet artxe sanen" - (Albroka, Albroka ganadu bat hartzen zenean)

alboko: auzoa

andra kuadrille: andre taldea

"Emen, a, parke ingerun, or, or daun etzalde baten eitte auren seguru bere, yote siren andra kuadrille, arto yorran" - (Hemen, parke inguruan, hor, hor dagoen baserri baten egiten zuten seguru ere, joaten ziren andre taldea, arto jorran)

auso: auzoa, auzokidea

ausoko: auzokoa

"Bai baya alperrik san, gure ausoko bateri badakixu ser akorda yakon, bolanderak ekarriusen ak" - (Bai baina alperrik zen, gure auzoko bati badakizu zer gomutatu zitzaion, bolanderak ekarri zituen hark)

batzarra: batzarra

"Batzuk eitte auren batzarra olan eta beste batzuk etzetati bere bai nosikando tasateko" - (Batzuek egiten zuten batzarra

BERANGOKO HIZTEGIA

hola eta beste batzuk etxeetatik ere bai noizean behin tasatzeko)

besino: auzoa, auzokidea

"Besino dustik txarri iltten ta laguntxen ta" - (Auzo guztiak txerria hiltzen eta laguntzen eta)

bestalde, beste alde: auzoa

bestealdeko: beste aldekoa, etxe bereko auzoa

ermandade, ermendade: ermandadea

"Batzuten etze dustitten, se emen eon siren, iru ermandada on siren emen, iru, ni akordate nasenak iru" - (Batzuetan etxe guztietan, ze hemen egon ziren, hiru ermandade egon ziren hemen, hiru, ni gomutatzen naizenak hiru)

erregalu: oparia

"Oñ erregaluk eitten diren modun? alantxe presentateusean" - (Orain opariak egiten diren moduan? halantxe prestatzen zituzten)

erremate: erremata, enkantea

"Erremate da ori, saltxe sanen, baye yateko modun egoten sanen, batzuten erre in ber san, baya beste batzuten ote san yateko modun ta intteuen erremate" - (Erremata da hori, saltzen zenean, baina jateko moduan egoten zenean, batzuetan erre egin behar zen, baina beste batzuetan egoten zen jateko moduan eta egiten zuten erremata)

"Erremate? ba imintteuen maye baten ganen, a, aragik, pillok, segun se piesa ta ser, ta aste siren igual, ba, ordun peseta gitxi ba estaitt ser ixengo siren, ba ogetabost peseta igual, ba estaitt, edo gitxiu igual, eta bistute san misto, eta albokok esateun ba, ogetairu edo ogetalau, ta bestek, a, ogetabost, ta alantxe, arik eta misto erre arten, ta errete akonen esku aputxu bet edo, amatate san, ta gayena esan daune, ba arentzako ixete san" - (Erremata? ba ipintzen zuten mahai baten gainean, haragiak, piloak, segun ze zati eta zer, eta hasten ziren beharbada, ba, orduan pezeta gutxi ba ez dakit zer izango ziren, ba hogeita bost pezeta beharbada, ba ez dakit, edo gutxiago beharbada, eta bizten zen mistoa, eta albokoak esaten zuen ba, hogeita hiru

edo hogeita lau, eta besteak, hogeita bost, eta halantxe, harik eta mistoa erre arte, eta erretzen zitzaionean eskua aputxo bat edo, amatatzen zen, eta gehiena esan duena, ba harentzat izaten zen)

"Emen eitte san erremate" - (Hemen egiten zen erremata)

erritte: errieta

eskeko: eskekoa, eskalea

"Atxe etor san ordun eskeko" - (Huraxe etorri zen orduan eskeko)

jente: jentea

"Gero, Algortan eta olau lekuten, jente giau oten san lekun eta bai, oiñ, a, ogetabost edo otamar urte jente gitxi egon gintzen bere" - (Gero, Algortan eta holako lekuetan, jende gehiago egoten zen lekuan eta bai, orain, hogeita bost edo hogeita hamar urte jende gutxi egon ginen ere)

"Naure ama ill arten, emen, a, etze bete jente!" - (Neure ama hil arte, hemen, etxe bete jende!)

jere: jera, teila boda, etxearen teilatua egitean emoten den afaria, baita horren adierazgarritzat ipintzen den abarra ere

"Emen jere esate otzen, afari, afari, bano jerara" - (Hemen jera esaten zioten, afaria, afaria, banoa jerara)

"Emen, e, akaba du etze ta jere, ta olau sera bat imintte yakon, arbola bat imintte yakon goyen" - (Hemen, amaitu dugu etxea eta jera, eta holako zer bat ipintzen zitzaion, arbola bat ipintzen zitzaion goian)

jittanu, jitanu: ijitoa

"Gixonan baserrire etor san jitanu bet, ume dekola iltten ta, asto bat erosten, ta erosi otzen asto, ari umetxuri emoteko esne" - (Gizonaren baserrira etorri zen ijito bat, umea daukala hiltzen eta, asto bat erosten, eta erosi zion astoa, umetxo hari emateko esnea)

"Jitanuk asko ibiltte sien ta, asto asko eukitteuren ta, eta asko ibiltte san topaten" - (Ijitoak asko ibiltzen ziren eta, asto asko edukitzen zuten eta, eta asko ibiltzen zen topatzen)

kofradi: kofradia

"Emen dau kofradi bet Berangon, estu paga ber, sosio iltten danen baño, igual iltten dire, a, bost edo sei, sosio, baya iltten danen ensegida dakidu, sosio iltten danen" - (Hemen dago kofradia bat Berangon, ez

BERANGOKO HIZTEGIA

dugu ordaindu behar, bazkidea hiltzen denean baino, beharbada hiltzen dira, bost edo sei, bazkide, baina hiltzen denean behingoan dakigu, bazkidea hiltzen denean)

konbidedu: gonbidatua

"Emen es, emen esta iñ orrenbeste, baya, konbideduk, etze beterik!" - (Hemen ez, hemen ez da egin horrenbeste, baina, gonbidatuak, etxea beterik!)

"Butroire yo nas ni oñes, Kimeratara konbidedu, San Markotan urte gustittan" - (Butroera joan naiz ni oinez, Kimeratara gonbidatu, San Markoetan urte guztietan)

"Oin bere bai, oin bere badaus konbideduk, e?" - (Orain ere bai, orain ere badaude gonbidatuak, e?)

kuadrille: taldea, lagun taldea

"Ni tekot Portualten lengusiña bat, se a bere, aitte, e, Burgosen preso eroeuden ta gues, gu kuadrilla itzela baya gues ote san emen" - (Nik daukat Portualten lehengusina bat, ze hura ere, aita, Burgosen preso eroan zuten eta gurekin, gu talde itzela baina gurekin egoten zen hemen)

"Orrekas gauen yo nitzen ni beste baiñ, orreas kuadrilleas, gaues yo nitzen" - (Horiekin gauean joan nintzen ni beste behin, talde horrekin, gauez joan nintzen)

"Orrek etorte siren kuadrillak, emeti paste siren, basora" - (Horiek etortzen ziren taldeak, hemendik pasatzen ziren, basora)

lagune: 1. laguna. 2. pertsona

"Etorri da lagun bet" - (Etorri da lagun bat)

"Or bean dekot lagun bet naure edadeko eta espadoas asarratu eitten dire, eta emoten dotze, abellanak, arrutzek, txorisok, auren amamak eta amak ekus dauden modun emoten tze" - (Hor behean daukat lagun bat neure edadekoa eta ez badoaz haserretu egiten dira, eta ematen diete, hurritzak, arrautzak, txorizoak, euren amamak eta amak ikusi duten moduan ematen diete)

"Guren, a, txarri iltten saspi sortzi lagun etorte siren, ser pentzaten dosu ba? teatro ixete san ordun a" - (Gurean,

txerria hiltzen zazpi zortzi lagun etortzen ziren, zer pentsatzen duzu ba? antzerkia izaten zen orduan hura)

"Nire lagunek asko il dire, se ya neupere irurogeta amairu urte dekoas" - (Nire lagunak asko hil dira, ze ja neuk ere hirurogeita hamahiru urte dauzkat)

lapurre: lapurra

"Nau no gauen lapurre kosten, ta or dator lapurre goixeko lauretan, brin bron, brin bron, ta aren llobe ixen san" - (Neu noa gauean lapurra harrapatzen, eta hor dator lapurra goizeko lauretan, brin-bron, brin-bron, brin-bron, eta haren loba izan zen)

persone: pertsona

"Ara amarretako mese, atxiñekok, onen edadekok, a, personak, amarretako mesara yoten siren" - (Hara hamarretako meza, antzinakoak, honen edadekoak, pertsonak, hamarretako mezara joaten ziren)

sas toto: sats totoa

"Es, toto esaten dako, emen esate ixen dotzu beti, oiñ esta itten ori bere, e? etorte san gixon bat igual, erriko gixon bat, pobre antzera edo, ganadurik es etzen, ta solok, a, satza ber, ta sas toto, gure aitte defuntu, beste, bi biste siren or, iru, gero or bean bost edo sei, eta amar edo amabost, gurtada, sats erote akosen, orreri gixonari" - (Ez, totoa esaten zaio, hemen esaten izan diogu beti, orain ez da egiten hori ere, e? etortzen zen gizon bat beharbada, herriko gizon bat, pobre antzera edo, ganadurik ez etxean, eta soroak, satsa behar, eta sats totoa, gure aita defuntua, bestea, bi bizitzen ziren hor, hiru, gero hor behean bost edo sei, eta hamar edo hamabost, gurtada, sats eroaten zitzaizkion, gizon horri)

sosiedade: elkarte

"On san urte batzutan, eta gero, e, ixen bear deula bakixu ser dan sosiedade" - (Egon zen urte batzuetan, eta gero, izan behar duela badakizu zer den elkarte)

sosio: bazkidea

tasadore: tasadorea, ermandadearen izenean ganadua tasatzen joaten zena

"Tasadorek esate aun, bueno orrek balio dau, ainbeste balio dau" - (Tasadoreak esaten zuen, beno horrek balio du, hainbeste balio du)

BERANGOKO HIZTEGIA

"*Tasadore, bat eote san erote yune dusti*" -
(*Tasadorea, bat egoten zen eroaten zuena guztia*)

tasasiño: tasazioa

toto: jatorduaren truke elkarren artean egiten ziren beharrak, esate baterako sats totoa; satsak biltzeko edo ateratzeko elkartu lagunak eta gero ugazabak jatordu batekin ordaintzen zuen

"*Toto san, batek, ba igual, esaun aukitten ganadurik, eta ari erote akon gurtada sats eta afari bet emoteun ak*" - (*Totoa zen, batek, ba beharbada, ez zuen edukitzen ganadurik, eta hari eroaten zitzaion gurtada sats eta afari bat ematen zuen hark*)

"*Satzaas ei akon toto*" - (*Satsarekin egin zitzaion totoa*)

txarribode: txerri boda

"*Oin txarribodarik esta itten lengo moduen*" - (*Orain txerri bodarik ez da egiten lehengo moduan*)

"*Len txarribodak eitte siren ba, gaur ya galdute dau ori dana*" - (*Lehen txerri bodak egiten ziren ba, gaur ja galduta dago hori dena*)

txoko: txokoa

"*Nik estot olan eiñ, baya nik bai ein dot, a, Unbeko txaletan ein dot, txoko baten, listoitxuk, me meak, segidu segidu segidun, goye ikusi esteitten*" - (*Nik ez dut hola egin baina nik bai egin dut, Unbeko txaletean egin dut, txoko baten, listoitxoak, mehe-meheak, segitu-segitu-segituan, goia ikusi ez dadin*)

19.4. KORTESIA FORMULAK

agur: agur

"*Ezpabere ni juntako nas beraas ta agur*" -
(*Ezpabere ni elkartuko naiz berarekin eta agur*)

alan ekarri: hala ekarri

arrastion: arrasti on

aspaldiko: aspaldiko

aupa!: aupa, eup!

biar arte: bihar arte

egunon: egun on

eskerrik asko: eskerrik asko

gabon: gau on, gabon

gero arte: gero arte

gorantzik: gorantziak

jaune: jauna

"*Pentzaten badosu inportantziko dala, bai jaune*" - (*Pentsatzen baduzu garrantziko dala, bai jauna*)

mesedes: mesedez

ola: kaixo

"*Esaiozestu ba, ola esaiotzesue ba*" - (*Esaiezu ba, kaixo esaiezu ba*)

"*Basos orra bera, eta guri danak ola ola itten doskue, ta ola, ta estakit nortzu tiren*" - (*Bazoaz horra behera, eta guri denek kaixo-kaixo egiten digute, eta kaixo, eta ez dakit nortzuk diren*)

urrungorarte: hurrengora arte

urte askotan ixen daittela: urte askotan izan dadila

19.5. JABETZA ERLAZIOAK

erredittu: korritua

errente: errenta

"*Emon gure otzon ba errentan, se ordun gose ote san errasoñaminttu jenero ta, errentan, patateas pagateko*" - (*Eman gura zion ba errentan, ze orduan gosea egoten zen arrazonamendua jeneroa eta, errentan, patatarekin ordaintzeko*)

gosamena: gozamena

"*Gosamena da ba, bixi saren arten ba, sertzeko*" - (*Gozamena da ba, bizi zaren artean ba, zertzeko*)

"*Etzeti kanpora bota berren, ba emon, gosamena, bixi saren arten*" - (*Etxetik kanpora bota beharrean, ba eman, gozamena, bizi zaren artean*)

propiedade: propietatea

propietario: jaubea

talle sati: teila zatia; munarriaren azpian ipintzen den teila zatia seinale moduan

usaba: uzaba, ugazaba

"*Ori da usaba piper landare koisten*" - (*Hori da uzaba piper landarea hartzen*)

"*Bera da usaba ango etzeko*" - (*Bera da uzaba hango etxekoa*)

"*Ori da aministradore orren usabana*" - (*Ori da administratzailea horren ugazabarena*)

usandre: ugazabandrea

BERANGOKO HIZTEGIA

19.6. EZKONTZA

alargune: alarguna

"Alargun lotu san emen Berangon neskato bateas eskondute" - (Alargun lotu zen hemen Berangon neskato batekin ezkontuta)

"Jesus Maria! solon, txikerretarik gero bere bai, se gero bere alargun lotu nintzen, otamaka urte ixao dire, lotu nintzela alargun te gero bere, emen bere makiña at" - (Jesus Maria! soroan, txikerretatik gero ere bai, ze gero ere alargun lotu nintzen, hogeita hamaika urte izango dira, lotu nintzela alargun eta gero ere, hemen ere makina bat)

"Ama lotu san alargune, eta etor siren ona, beste aldera, se emen egote san beran anaje sarrena" - (Ama lotu zen alarguna, eta etorri ziren hona, beste aldera, ze hemen egoten zen beraren anaia zaharrena)

andragaye, andrageye: andregai

"Eskondu beño lelau, andragaye" - (Ezkondu baino lehenago, andregai)

arreo: arrea

"Orrek emon dosku guri emen Portualten bisimodu, diru danak gasta ittues amen arreotarako, sapaterik, danak" - (Horrek eman digu guri hemen Portualten bizimodua, diru danak gastatu dituzte hamen arreotarako, zapata dendak, danak)

"Eta mutillek, ba, igual neska bidoiru etzen edo lau, edo direnak, baya mutil bet egoten basan, etze mutillentzako, bear in deiñ, eta neskatori preparatetzan arreo ta listo! ta mutille lotute san gero igual, finke itzelaas, gero orti etorte siren asarrakuntzak, gero" - (Eta mutilak, ba, beharbada neska bi edo hiru etxean edo lau, edo direnak, baina mutil bat egoten bazen, etxea mutilarentzat, behar egin dezan, eta neskatoari prestatzen zioten arrea eta kittu! eta mutila lotzen zen gero beharbada, finka itzelarekin, gero hortik etortzen ziren haserrekuntzak, gero)

"Ba gause politte ixete san, e? arik ixerak eta dana ondo plantxata, seran, a, almueden, a, orrek sintak amarrateko iladillue, olan iñ, a, kutxilloas ta

tarraaa! oiñ erregaluk eitten diren modun? alantxe presentateusean, danak kuartu beten, oi ganen ta, dana an preparata, ta emoteuren, a, merienda bat edo ta, aan sartxen sintzen ta a ikusi, asko dekonak asko dekola eta gitxi dekonak, koittede, orrek esteu eron eser" - (Ba gauza polita izaten zen, e? izara haiek eta dena ondo lisatuta, zerean, burukoaren, zinta horiek lotzeko firutxoa, hola egin, kutxiloarekin eta tarraaa! orain opariak egiten diren moduan? halantxe prestatzen zituzten, denak gela baten, ohe gainean eta, dena han prestatuta, eta ematen zuten, askari bat edo eta, haan sartzen zinen eta hura ikusi, asko daukanak asko daukala eta gutxi daukanak, koitada, horrek ez du eroan ezer)

birrotxe: neska zaharra

"Orrek neskak on siren iru lau enbra, birrotxak on siren emen" - (Neska horiek egon ziren hiru lau andrazko, ezkongabeak egon ziren hemen)

birrotxo: mutil zaharra

bode: ezkontza

"Eskondu akon alabe Portualten, eta yon giñen bodara" - (Ezkondu zitzaion alaba Portualten, eta joan ginen ezkontzara)

"Aguelok gero txal bat asi eun, eskontzeko bodarako" - (Aitaitak gero txahal bat hazi zuen, ezkontzeko bodarako)

dote: dotea

errekadu: errekadua, neskari andregai izateko egiten zaion proposamena

eskontze: ezkontza

gayerak: deierak

"Eskontzeko gayerak eitten dire" - (Ezkontzeko deierak egiten dira)

gixongaye: gizongaia, senargaia

"Gixongaye da ya ba eskontzeko, eskontzeko da ori" - (Gizongaia da ja ba ezkontzeko, ezkontzeko da hori)

mutil sarra: mutil zaharra

"Tio bat auki gendun guk etzen, mutil sarra, artuko, abuelok eta artuko, ta gero aitten anajen modun ba" - (Osaba bat eduki genuen guk etxean, mutil zaharra, hartukoa, aitaitak eta hartukoa, eta gero aitaren anaiaren moduan ba)

neska sarra: neska zaharra

"Oñ, a, estau neska sarrik, atxiñe ba, neska sarrak edo serak, eta ogetasai urte,

BERANGOKO HIZTEGIA

ogetasortzi urteko ya, erretirateko, a, sera" - (Orain, ez dago neska zaharrik, antzina ba, neska zaharrak edo zerak, eta hogeita sei urte, hogeita zortzi urteko ja, erretiratzeko, zera)

nobie: emaztegaia

"Gero asi nobiakas ta pregunta norberari, se erregalako tzet neuk nobieri?" - (Gero hasi andregaiekin eta itaundu norberari, zer opalduko diot neuk andregaiari?)

nobio: senargaia

"Beste bat bere bai erreka eskiñen, nobietan, a, seran, neska batek guape ixen sala ta auki eule kriedu bet, eta nobio auki eun, baya krieduri esatetzela, beraas eskonduko dala kriedues, baya nobio auki eun ta gero nobioas eskondu san, ta nobioas eskondu sanen krieduk ser ei otzen? same ebai neskatori tte erre kara bota" - (Beste bat ere bai erreka izkinan, andregaietan, zerean, neska batek polita izan zela eta eduki zuela morroi bat, eta gizongaia eduki zuen, baina morroiari esaten ziola, berarekin ezkonduko dela morroiarekin, baina gizongaia eduki zuen eta gero gizongaiarekin ezkondu zen, eta gizongaiarekin ezkondu zenean morroiak zer egin zion? sama ebaki neskatoari eta erre kara bota)

soltere: ezkon bakoa (f.)

"An, a, aurreko dau alde a etze, bertan ondon dau alde a etze, ta an oten siren, a, bat, bi, iru, iru enbra, a, solterak oten siren an, ta arik aorretan solotan, ta ondo itteuren, e?" - (Han, aurrekoa dago baserria, bertan ondoan dago baserria, eta han egoten ziren, bat, bi, hiru, hiru andrazko, ezkon bakoak egoten ziren han, eta haiek haorretan soroetan, eta ondo egiten zuten, e?)

solteru: ezkonbakoa (m.)

"Gure aguelok artute auki eun ori etze solteruten, artute auki eun, da eskontzeko edo, nobiarik eseun auki baya" - (Gure aitaitak hartuta eduki zuen etxe hori ezkongetan, hartuta eduki zuen, eta ezkontzeko edo, andregairik ez zuen eduki baina)

19.7. MUSIKA-DANTZA

auresku: aureskua

"Baya es auresku oiñ itten dauren modun, len auresku itte san agarrata olau sinta bateas, olan agarrata, eta aurrekok eitte aun sera, solta barik" - (Baina ez aureskua orain egiten duten moduan, lehen aureskua egiten zen oratuta holako zinta batekin, holan oratuta, eta aurrekoak egiten zuen zera, askatu barik)

"Ondiño eitten dotze batzuri Berangon, eta eintten deure auresku ondo, baya espatayantzak lengo les, ya palukes eiñ yo eta akabun, a, ein kosu, a, seran, eta olan, kaderatati eta olan, a, lepoti eiñ agarra, eta yantzan bestek, a, kuadrillan, a, sueltun eitten daure" - (Oraindino egiten diete batzuei Berangon, eta egiten dute aureskua ondo, baina ezpatadantzak lehengo lez, ja makilekin egin jo eta azkenean, egin hartu, zerean, eta hola, oinetatik eta hola, lepotik egin oratu, eta dantzan besteak, taldean, soltean egiten dute)

erromeri: erromeria

"Batek esautzen su Juli! bruse in dostesu txarto, auren edadeko, ta txarto, se pasaten datzu ba? ba atzerantza itten deust, ta orrek boltzakas, eta yon ber dot, a, erromerire, ta ara yoteko, ba yantzan eta bai, danak burlako deuste, es! imiñi arri batzuk or, a, ta ingosu aurrerantza bruse, eta buelta emoteunen, jotan yantzan aikas arrikes diño, bueno, aberik" - (Batek esan zion zu Juli! brusa egin didazu txarto, euren edadekoa, eta txarto, zer pasatzen zaizu ba? ba atzerantz egiten dist, eta poltsa horiekin, eta joan behar dut, erromeriara, eta hara joateko, ba dantzan eta bai, denek burla egingo didate, ez! ipini harri batzuk, eta buelta ematen zuenean, jotan dantzan harri haiekin dino, beno, aberiak)

espata yantze: ezpatadantza

"Espatayantzak, a, lengok askos bere polittauk isten siren, islandera pere bai" - (Ezpatadantzak, lehengoak askoz ere politagoak izaten ziren, neska dantzariak ere bai)

gramole: gramola

BERANGOKO HIZTEGIA

islandere: neska dantzaria

jote: jota

"Buelta emoteunen, jotan yantzan aikas arrikes diño, bueno, aberik" - (Buelta ematen zuenean, jotan dantzan harri haiekin dino, beno, aberiak)

kantari: kantaria

"Kantari bere ixen da au, baya or, a, errotako, il san, Jesus, a bere politte kantari ixen san" - (Kantaria ere izan da hau, baina hor, errotakoa, hil zen, Jesus, hura ere polita kantaria izan zen)

kante: kanta

kantu: kanta

koru: korua

"Koru andi bet eta beti eitten da, ya diferente itten da, diferente, baya koruk onak daus eta berso pere polittek" - (Koru handi bat eta beti egiten da, ja desberdina egiten da, desberdina, baina koruak onak daude eta bertsoak ere politak)

musike: musika

pandereteru: pandero jolea

"Au tio Rufiñoas ibil san koñatu bet, pandereteru" - (Hau osaba Rufinorekin ibili zen koinatu bat, pandero jole)

pandero: panderoa

"Onek pandero yote aun" - (Honek panderoa jotzen zuen)

soñu: soinua

"Arrabek esautzen se, Rufiñotxu ekasu, soñutxu" - (Arrebak esan zion ze, Rufiñotxu ekar ezazu, soinutxo)

"Anaje biek yoteuren, a, soñu" - (Anaia biek jotzen zuten, soinua)

"Oñ ikusikosu selan yoten doten soñu" - (Orain ikusiko duzu zelan jotzen dudan soinua)

soñulari: soinularia

sueltu: soltea

"Lelau nire aittek, urtete jaun, a, sera askotara, urtete jaun, a, yantzan, sueltun esate sana, sera" - (Lehenago nire aitak, irteten zuen, zer askotara, irteten zuen, dantzan, soltean esaten zena, zera)

tanboliñe: danbolina

txistu: txistua

"Aittek eta seme biek yote auren txistu" - (Aitak eta seme biek jotzen zuten txistua)

txistulari: txistularia

yantzari: dantzaria

"Beste bat ixen san, a, Eguskisa, ori kanpoko bat, or, a, seran eskondute egon san, eta ak sertuteusen, baya ordun lau grupo" - (Beste bat izan zen, Eguzkiza, hori kanpoko bat, hor, zerean ezkondu eta egon zen, eta hark zertzen zituen, baina orduan lau talde)

yantze: dantza

"Au da fasil se gerre baño lelau, nau bere bai, eta amen beste ba tau, onek, a, difuntu tire oiñ, one pere ibil siren yantzan" - (Hau da erraza ze gerra baino lehenago, neu ere bai, eta hemen beste bat dago, hauek, defuntuak dira orain, hauek ere ibili ziren dantzan)

"Emeko yantze, a, sueltuko, sera, ori Gipuskoako, ariñau da" - (Hemengo dantza, soltekoa, zera, Gipuzkoako hori, arinago da)

yolasa: herriko plazan, frontoian edo kanpoan egiten zen dantzaldia

"Gero yolasa ote san emen frontoian" - (Gero jolasa egoten zen hemen frontoian)

"Berangon ote san yolasa emen" - (Berangon egoten zen jolasa hemen)

"Ori yon san yolasera ta yantzan" - (Hori joan zen jolasera eta dantzan)

"Eta gaueko amarratan yolasa akaba itte san, e?" - (Eta gaueko hamarretan jolasa amaitu egiten zen, e?)

19.8. KIROLA-AISIA

andi: handia mus jokoan

asto karrere: asto lasterketa

"Atxiñe eintte siren, astokas, ese emen ordun, a, ordun, esan on automobillik, klaro! eta astokas eta, a, asto karrerak eta, eta ganadu, erriko ganadues proba batzuk" - (Antzina egiten ziren, astoekin, eze hemen orduan, ordun, ez zen egon automobilik, jakina! eta astoekin eta, asto lasterketak eta, eta ganadua, herriko ganaduekin proba batzuk)

bateko: batekoa karta jokoan

bertzo, berso: bertsoa

"Bers eitten dires, polittek eitten dires ondiño baya" - (Bertsoak egiten dira, politak egiten dira oraindino baina)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Gero bertzok atara yeusen" - (Gero bertsoak atara zituen)

bertzolari, bersolari: bertsolaria

"Gero onek bersolarik egon siren" - (Gero bertsolari hauek egon ziren) [Ramon eta Manuel Ardeo bertsolariak izan ziren]

"Bertzolarik itzelak! anaje biek" - (Bertsolariak itzelak! anaia biak)

"Amen, a, bertzolarik bai baya atxiñekok, Manuel Ardeo" - (Hamen, bertsolariak bai baina antzinakoak, Manuel Ardeo)

biko: biko karta jokoan

bolandere: bolandera

"Asi san bolanderak botaten" - (Hasi zen bolanderan botatzen)

bole: bola

bosteko: bostekoa karta jokoan

botilleru: botileroa

briske: briska, karta joko baten izena

errege: erregea karta jokoan

idi pareje: idi pareja

"Ak beti dekos, a, idi parejatxu beti" - (Hark beti dauzka, idi paretxo beti)

idi probe: idi proba

iruko: hirukoa karta jokoan

karta yoko: karta jokoa

"Ori, a, trenan sartze sanen esnekas Bilbora, katxarrok plega danak, eta karte ensegida atarateun boltzati, karta yokon emeti Bilbora, eta Bilboti etzera ostabere" - (Hori, trenean sartzen zenean esneekin Bilbora, katxarroak atondu denak, eta karta behingoan ateratzen zuen poltsatik, karta jokoan hemendik Bilbora, eta Bilbotik etxera ostera ere)

"Ontxe no karta yokon" - (Oraintxe noa karta jokoa)

karrere: lasterketa

karreteru: karreteroa

karte: karta

"Ak seguru bere kartak eroteusen eskun, yokon in ber san" - (Hark seguru ere kartak eroaten zituen eskuan, jokoa egin behar zen)

korredore: korredorea

lauko: lau karta jokoan

muse: musa, karta joko bat

pare: pareja, mus jokoan

pelotari: pilotaria

"Bat pelotari san" - (Bat pilotaria zen)

pelote: pilota

posture: postura, apostua

"Gero karreteru pere tranpa andik, tranpa andik se, a, posturek segun selan egoten siren" - (Gero karreteroak tranpa handiak, tranpa handiak ze, posturak segun zelan egoten ziren)

premio: saria

"Lelengo bigarren premio beti atarate jaun" - (Lehenengo bigarren saria beti ateratzen zuen)

proba arri: proba harria

probadero: proba lekua

"Or ote san probadero, oin daun lekun" - (Hor egoten zen probalekua, orain dagoen lekuan)

proba idi: proba idia

"Orrek, serak, aukitten daue, onek proba idik" - (Horiek, zerek, edukitzen dute, hauek proba idiek)

probalaria: probalaria

"Emen Berangon esta egon probalaririk" - (Hemen Berangon ez da egon probalaririk)

probaleku: proba lekua

probe: idi proba

"Nik probak esetu doas, emeti, aor bean bere bai, baya, elixan atzen bere bai" - (Nik probak ezagutu ditut, hemendik, haor behean ere bai, baina, elizaren atzean ere bai)

"Ordun es gaurko les, a, ondo gobernata idik, orrek bearren ta ibillitte, ta eron gero probatan" - (Orduan ez gaurko legez, ondo gobernatuta idiak, horiek beharrean eta ibilita, eta eroan gero probetan)

"Ak proba dustitten, ak irebasteusen, idik itzelak!" - (Hark proba guztietan, hark irabazten zituen, idiak itzelak!)

"Idi tabiltzes oiñ, asko, probatan, alau sati itxitte antzen" - (Idiak dabilta orain, asko, probetan, halako zati utzita antzean)

saldi: zaldia karta jokoan

saspiko: zaspikoa karta jokoan

soka tire: soka-tira

tranpe: tranpa

tute: tutea, karta jokoa

txikerra: txikerra mus jokoan

txoko: txokoa

untze: iltzea, idi probetan eta egiten dena neurtzeko

yoko: jokoa

BERANGOKO HIZTEGIA

19.9. EHIZA-ARRANTZA

erratere: erratera, saguak eta harrapatzeko erabiltzen diren tranpak

eskopete: eskopeta

gantxo: gantxoa, hamarratzak harrapatzeko erabiltzen dena

"*Gantxo tekoas bi, amarratzak koitteko*" - (*Gantxoak dauzkat bi, hamarratzak harrapatzeko*)

"*Nik gantxo bi eroten doas, bateas sujeta, ese ba paño espadarosu, tirtuten dotzu te apurtu itten da*" - (*Nik gantxo bi eroaten ditut, batekin eutsi, eze bat baino ez badarozazu, tiratzen dizu eta apurtu egiten da*)

kasan: ehizan

kase: ehiza

kaseru: ehiztaria

"*Kaseru onak, berak yakin ber dau selau leku gustaten dakon ollagorrari, ollagorra erosein lekun esta lotxen, ollagorrari gusta goyen, kasu beteko piñu gaste ta bea garbi*" - (*Ehiztari onak, berak yakin behar du zelako lekua gustatzen zaion oilagorrari, oilagorra edozein lekutan ez da lotzen, oilagorrari gustatu goian, kasu baterako pinu gaztea eta behea garbia*)

meskle: lika

peskan: arrantzan

peske: arrantza

"*On itte san, a, peske, oin baño giau*" - (*Egon egiten zen, arrantza, orain baino gehiago*)

sare: sarea

tiro: tiroa

"*Beran bururi tiro bat emon dotzo*" - (*Beraren buruari tiro bat eman dio*)

tranpe: tranpa

txinbere: perdigoiak botatzen dituen eskopetaren izena

"*Batzuk txinbere, gero txinberek urte yaun baya tiragomeas lelau*" - (*Batzuek txinbera, gero txinberak irten zuen baina tiragomarekin lehenago*)

19.10. JAIEGUNAK

aste santu: aste santua

autz egune: hautsen eguna

bariku gurena, bariku santu: bariku guren eguna

basabatiste: basatoste, kanpora martxo

domu santu, domu santu egune: domu santu
"*Domusantu egunen iñ, a, seme, ariñ in ber ei da, ta mesara bere estos oiñ, isilik saus*" - (*Domu santu egunean egin, semea, arin egin behar ei da, eta mezarara ere ez doaz orain, isilik zaude*)

eguen guren egune, eguen santu: eguen guren eguna

erramu domeke: erramu domeka

erramu egune: erramu eguna

"*Erramu bai, erramu, bere bereinketuten da, eta erramu egunen, nik urte dustiñ aukitten dot*" - (*Erramua bai, erramua, bere bedekintzen da, eta erramu egunean, nik urte guztian edukitzen dut*)

erregeenak: erregeenak, erregeen eguna

"*Erregeetan mese itte san*" - (*Erregeetan meza egiten zen*)

erregeen egune: erramu eguna

gabonak: gabonak

"*Gabonak ingirun iste san ori*" - (*Gabonak inguruan izaten zen hori*)

gabon egune: gabon eguna

gabon sar egune: gabon zahar eguna

gabon sarra: gabon zahar eguna

garixume: garizuma

iñosentade: inozentada

"*Iñosentadak eitte siren emen baya ba, estot asko, umek garela bai baya gero*" - (*Inuzentadak egiten ziren hemen baina ba, ez dut asko, umeak garela bai baina gero*)

kandelario egune, kandela egune: kandelario eguna

"*Kandelario egunen beti amak eitteusen tostadak eta karnabal egunen*" - (*Kandelario egunean beti amak egiten zituen tostadak eta arastoste egunean*)

"*Gure amak imintteusen kandela egunen*" - (*Gure amak ipintzen zituen kandelario egunean*)

karatule, karete: karatula

"*Ein sube, eta lotxe san txingerraas baltzik, pinttateuren arpegi, karetarik es, e?*" - (*Egin sua, eta lotzen zen txingarrekin beltzik, pintatzen zuten aurpegia, karatularik ez, e?*)

karnabala: aratustea

karnabal egune: aratuste eguna

BERANGOKO HIZTEGIA

"Karnabal egunen, a, ba pintaten direz batzuk, bai eitten dire karnabal egunetan" - (Aratuste egunean, ba pintatzen dira batzuk, bai egiten dira aratuste egunetan)

konbidedu egune: gonbidatu eguna

maskarita: aratusteetako mozorroa

"Maskarita, maskarita karnabal egunen, disfrasa, maskarita esaten san" - (Maskarita, maskarita aratuste egunean, mozorratu, maskarita esaten zen)

maskarita egune: aratuste eguna

"Baya egotes, bueno orain karnabala tire, baya ordun maskarita egune esate yeuen" - (Baina egotez, beno orain aratusteak dira, baina orduan maskarita eguna esaten zuten)

natibitte: natibitatea

sanantonio egune: San Antonio eguna

"Nik estaitt, gure aittek urteteun orra kanpora ta igual, aitte ingo dau gaur auri? sanantonio egunen igual, Marture yon gure ta, urteteun orra ta, a! aputxu aputxu bet igual ingo dau baya sose trankilo, estau auririk" - (Nik ez dakit, gure aitak irteten zuen horra kanpora eta beharbada, aita egingo du gaur euria? San Antonio egunean beharbada, Martura joan gura eta, irteten zuen horra eta, a! apurtxo-apurtxo bat beharbada egingo du baina zoazte trankil, ez dago euririk)

san blas egune: san blas eguna

"Niri batek i osten, e? san blas egune san ademas, ta Plentziko Fanon lotu nitzen san blasera yoteko, ta andreri esa neuntzen eneitte yon san blasera, ba ser ba? beye dau mobidute, eta urrao egunerarte beyek umerik eiñ es" - (Niri batek egin zidan, e? san blas eguna zen gainera, eta Plentziako Fanon lotu nintzen san blasera joateko, eta andreari esan nion ez ninteke joan san blasera, ba zer ba? behia dago mugituta, eta hurrengo egunera arte behiak umerik egin ez)

san blas sintte: san blas zinta

sanjuanade: sanjuanada

sanjuanak: san juanak, san juan jaiak edo ospakizunak

san juan egune: san juan eguna

santageda: santa ageda, kantuari dagokio adiera hau

"Oñ, a, etorten dire santageda kantaten baya ori esta santageda" - (Orain, etortzen dira santa ageda kantatzen baina hori ez da santa ageda)

"Santageda lengo polittau iste san" - (Santa ageda lehengoa politagoa izaten zen)

santa ageda egune: santa ageda eguna

"Santa ageda egunen batxe san diru" - (Santa Ageda egunean batzen zen dirua)

txarribode: txerri boda

"Txarribode esaten da ta alan ixen san boda bat" - (Txerri boda esaten da eta hala izan zen boda bat)

txitxiburruntzi: txitxiburduntzi

urte barri: urte-berria

urte barri egune: urte-berri eguna

yaye: jaia

"Estaitt, seaittik kendu san, ni akordate nas txikitxu, a, ordun eintte san, a, eintte san ori yayori, baya oiñ Santo Domingo" - (Ez dakit, zergatik kendu zen, ni gomutatzen naiz txikitxo, orduan egiten zen, egiten zen jai hori, baina orain Santo Domingo)

"Gu bagos etzerantza se guk an dekus yayek" - (Gu bagoaz etxerantz ze guk han dauzkagu jaiak)

"Emen yayetan itte san erriko ganadues, bakarrik" - (Hemen jaietan egiten zen herriko ganaduekin bakarrik)

"Emen Berangon urteteko, Berangoko yayetan, esoskuen itxi, urteten areas seraas" - (Hemen Berangon irteteko, Berangoko jaietan, ez ziguten utzi, irteten zer harekin)

yayegune: jaieguna

19.11. EUSKARA

auskere, euskere: euskara

"Emen dusti itte san euskera" - (Hemen guztia egiten zen euskaraz)

"Layoako bai, Layoako, diferentzi andi ademas, se emen Layostarrak, a, solteruten ona etorte siren, Berangora etorte siren, yolasera" - (Leioakoa bai, Leioakoa, desberdintasun handia gainera, ze hemen Leioaztarrak, ezkongaietan hona etortzen ziren, Berangora etortzen ziren, jolasera)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Algortan bere, Getxoti Santa Marittik, a, Askorrire, euskera, baya Algortan erdera, Algortan erdera itteuren dusti ordun, Algorta ta Areata ta orrek erdera" - (Algortan ere, Getxotik Santa Mariatik, Azkorrira, euskaraz, baina Algortan erdaraz, Algortan erdaraz egiten zuten guztia orduan, Algorta eta Areata eta horiek erdaraz)

"Emen erdera inten du giau auskera baño, asko inten du erdera guk" - (Hemen erdaraz egiten dugu gehiago euskaraz baino, asko egiten dugu erdaraz guk)

"Es, estau diferentzirik, baya oiñ estudia itten derenak beste, auskera bat deke, ulertu bere estake itten, nik estotzet askori ulertu itten bere" - (Ez ez dago desberdintasunik, baina orain estudiatu egiten dutenak bestea, euskara bat daukate, ulertu ere ez zaie egiten, nik ez diet askori ulertu egiten ere)

"Gu ya baserritarrak, beti in du olan, gaure modure in du auskera ta" - (Gu ja baserritarrak, beti egin dugu hola, geure modura egin dugu euskara eta)

"Onek estau, a, torpe dabill euskera itten, esteure iñ onek eukera askorik, ta amak eseun yakitten erdera, amaas eitteun euskera eta gero, beti bearren kanpon eta" - (Honek ez du, dorpe dabil euskara egiten, ez dute egin hauek euskara askorik, eta amak ez zuen jakiten erdara, amarekin egiten zuen euskara eta gero, beti beharrean kanpoan eta)

"Kanpon esta itteixen euskerarik" - (Kanpoan ez da egiten izan euskerarik)

berori: berori, berorika; abadearekin oraindino zahar batzuek erabiltzen dute tratamendu hau; inoiz edo behin informatzailereren batek inkestatzaileari ere egin dio hola

erdere: erdara

"Gure ama koittedek, erdera eseun yakiñ, euskere baño eseun yakiñ" - (Gure ama koitaduak, erderaz ez zuen jakin, euskara baino ez zuen jakin)

"Gero Franco sartu sanen ordun fastidia san dusti, ordun ya asi san jente erdera ta erdera" - (Gero Franco sartu zenean orduan ondatu zen guztia, orduan ja hasi zen jendea erdara eta erdara)

estok eta badok: ez dok eta badok tratamenduaren izena; adizki ihartu batzuk baino ez dira gaur egun erabiltzen: *dok*, *yeudek*, *eyok*, *adi*, e.a.

"Estok ori" - (Ez duk hori)

estona ta badona: ez dona eta badona tratamenduaren izena; gaur egun tratamendu hau galdutzat jo dezakegu.

"Ser dona ori edo ser esan dona edo, ori asko entzun dot, emen es asko, lengo sarra pai, baya gero asko galdu da" - (Zer dun hori edo zer edan dun edo, hori asko entzun dut, hemen ez asko, lehengo zaharrek bai, baina gero asko galdu da)

19.12. GERRATEA-SOLDADUSKA

abiasio: abiazioa

abioya: abioia, hegazkina

bake: bakea

"Itxiostesu baken" - (Utzi iezadazu bakean)

"Itxiok baken" - (Utziok bakean)

batalloya: batailoia

bonbe: bonba

errefujiadu: errefuxiatua

"Kimerakok egon siren gure etzen errefujiadu danak" - (Kimerakoak egon ziren gure etxean errefuxiatu denak)

"Gu yoten giñen orra etzaurrera, orra beste etzera, lo eitten, se or leku on san, eta errefujiaduk gure etzen, etze beterik" - (Gu joaten ginen horra etzaurrera, horra beste etxera, lo egiten, ze hor lekua egon zen, eta errefuxiatuak gure etxean, etxea beterik)

gerra barku: gerra ontzia

"Or egote siren barkuk, gerra barku bi" - (Hor egoten ziren ontziak, gerra ontzi bi)

gerrate: gerratea

"Gerraten, ba, nire anaje sarrena gerran eo san, koñatu pere bai koñatu bi, bata arraba bat etzera eskondute, beste goyen biste san, eta amabost amasei urteas neuk ein ber nun, a, labrantza dusti" - (Gerratean, ba, nire anaia zaharrena gerran egon zen, koinatuak ere bai koinatu bi, bata arreba bat etxera ezkondata, bestea goian bizitzen zen, eta hamabost hamasei urterekin neuk egin behar nuen, nekazaritza osoa)

gerre: gerratea

BERANGOKO HIZTEGIA

"Ba jentek eskapa intteun, gerre etor sales, tropak etor sireles, ta emen lotu siren, guren lotu siren, ta emen dausela pasa siren onek italianuk eta alemanak" - (Ba jendeak ihes egiten zuen, gerra etorri zenez, tropak etorri zirenez, eta hemen lotu ziren, gurean lotu ziren, eta hemen daudela pasatu ziren hauek italiarrak eta alemaniarrak)

kañoia: kainoia

kartzela, karsela: kartzela

"Gaure aitte defuntu gero, a, onek sartu sirenen, kanpora urten auren, lelau karselera eta gero kanpora" - (Geure aita zena gero, hauek sartu zirenean, kanpora irten zuten eurek, lehenago kartzelara eta gero kanpora)

kinte: kinta

kinto: kintoa

preso: preso

prisionero: preso

"Gerran, ibilli nas ni gerran, ni prisionero kosi yeusten Santoñan" - (Gerran ibili naiz ni gerran, ni preso harrapatu ninduten Santoñan)

serbitzu, serbitzio: zerbitzua, soldaduska

"Nik serbitzio seran Sorrosan ei neun" - (Nik zerbitzua zerean Zorrotzan egin nuen)

"Nire nebak esaun yakiñ, a, serbitziora yon arte" - (Nire nebak ez zuen jakin, soldaduskara joan arte)

soldadiske: soldaduska

soldadu: soldadu

trintxere: lubana

20. OROKORRA

Atal honetako berbak ezin sartu izan ditugu arteragoko ataletan, izan ere, batekoak baino gehiagokoak izan daitezke; halandaze, hona hemen denak jarraian.

aberi: aberia, matxura

"Buelta emoteunen, jotan yantzan aikas arrikes diño, bueno, aberik" - (Buelta ematen zuenean, jotan dantzari harri haiekin dino, beno, aberiak)

"Se orrek solon kodañeas ta sosenen, orrek, enei! orrek eitten deittusen

aberi!" - (Ze horiek soroan kodainarekin eta zoazenean, horrek, enei! horrek egiten dituen aberiak!)

ademas: gainera

"Ademas goxen goxeti ilte aun, e?" - (Gainera goizean goizetik hiltzen zuen, e?)

"Urtek ademas estos alperrik" - (Urteak gainera ez doaz alperrik)

afana: gogoa, nahia, grina

akabu: 1. amaiera. 2. azkena

"Orre pere ya oiñ akabun aintzaldun kantaten daure" - (Horiek ere ja orain azkenean aintzaldun kantatzen dute)

akordu: gomuta, burutazioa

"Bertzon akordu estekot" - (Bertsoen gomutarik ez daukat)

"Ori baya, estaitt euren gureson akordu ixengo san" - (Hori baina, ez dakit euren gurasoen bururapena izango zen)

alkar: elkar

"Ori sarratu daunen esaten da, alkarren ganen daunen, a, landare" - (Hori zerratu dagoenean esaten da, elkarren gainean dagoenean, landarea)

antza: antza

"Ya oneas sar i nas ta ya, esta igual, antzi peres!" - (Ja honekin zahar egin naiz eta ja, ez da berdin, antzik ere ez!)

apellidu, apilledu: abizena

"Bai ba! apilledu enasena akordaten" - (Bai ba! abizena ez naizena gomutatzen)

apenas: ez dirudi, ez du ematen, antza

aprobe: aproba, proba

ardure: ardura

"Oiñ amari geittu tzet eta esan dotzet se, ni enas eongo señen ardureas" - (Orain amari deitu diot eta esan diot ze, ni ez naiz eongo seinaren ardurarekin)

"Len ardureri peres!" - (Lehen ardurarik ere ez!)

asuntu: gora behera

aurki: aurki, beharbada

"Etor da aurki" - (Etorri da aurki)

autobuse: autobusa

"Esin yon gara se ya deku autobuse imintte egunatan yoteko ta" - (Ezin joan gara ze ja daukagu autobusa ipinita egunetan joateko eta)

automobile: automobila

"Emeti ordun, a, automobillerik esan egon" - (Hemendik orduan, automobilik ez zen egon)

BERANGOKO HIZTEGIA

ayes: antza, dirudienez, aiaz

"Begiskoanas serak eitte yeun ayes, orren amak" - (Begizkoa zerak egiten zuen antza, horren amak)

"Txikerra ixen san ayes amama" - (Txikerra izan zen aiaz amama)

"Ba ies edo, oiñ urte bi edo iru bere pasa san or, a, seran, Santanan ayes" - (Ba iaz edo, orain urte bi edo hiru ere pasatu zen hor, zerean, Santa Anan aiaz)

"Ayes etorriko san" - (Aiaz etorriko zen)

bai: bai

bakotxa: bakoitza

"Bakotxa bixi da beran etzen" - (Bakoitza bizi da beraren etxean)

"Bakotxak itten deu gure dauna" - (Bakoitzak egiten du gura duena)

"Ekar du bakotxak iru" - (Ekarri dugu bakoitzak hiru)

"Bakotxari emongo dako bere" - (Bakoitzari emango zaio berea)

"Bakixu etze bakotxa tekku geure kostunbre" - (Badakizu etxe bakoitzak daukagu geure ekandua)

balio: balioa

balore: balorea

bandere: bandera

"Lelengo bandera bat erosi ber gendun" - (Lehenengo bandera bat erosi behar genuen)

bayetz: baietz

"Pentzaten dot bayetz" - (Pentsatzen dut baietz)

bearleku: beharlekua

bearra: 1. beharra, lana. 2. beharrizana

"Ordun esebes, ordun bearrerako erosteusen" - (Orduan ezer ere ez, orduan beharrerako erosten zituen)

"Jangoikoa nik ein doten beste bearra eta ori entzute ganera!" - (Jaungoikoa nik egin dudan beste beharra eta hori entzutea gainera!)

bentaje: abantaila

berbe: berba

"Ori berbe non ikis dosu suk?" - (Berba hori non ikasi duzu zuk?)

"Esta berba asko usaten dana emen, e?" - (Ez da berba asko erabiltzen dena hemen, e?)

beste: bestea

"An besterik esan egon, piñu" - (Han besterik ez zen egon, pinua)

bije, biaje: bidaia

"Indertzu ixte sales ba esa yeutzen, Bisente! ba au badarosu, au lote badarosu, a, seran, biaja baten, ba, seutzako, pentzaurik estaule erongo" - (Indartsua izan zenez ba esan zioten, Bizente! ba hau badaroazu, lote hau badaroazu, zerean, bidaia baten, ba, zeuretzat, pentsaturik ez duela eroango)

bildurre: bildurra

"Nik bildurre dekot orrena" - (Nik bildurra daukat horrena)

"Yon, e? bildur barik, yon! se bide itzela dau, bide baya oberik es, a, or bere" - (Joan, e? bildur barik, joan! ze bide itzela dago, bidea baina hoberik ez, hor ere)

bisiklete: bizikleta

"Bisiklete okitteun alau gausatxu gorri beteas, aren atzen yote san" - (Bizikleta edukitzen zuen halako gauzatxo gorri batekin, haren atzean joaten zen)

"Bisiklete gause andi aukitteunek" - (Bizikleta gauza handia edukitzen zuenak)

"Ni gortatan asko ibiltte nau, bisikletan" - (Ni kortetan asko ibilita nago, bizikletan)

bisimodu, biximodu: bizimodua

"Etzen bendeja apur bet intten dala ta olan, a, bisimodu atara t'aurrera" - (Etxean bendeja apur bat egiten dela eta hola, bizimodua atera eta aurrera)

"Alan san ba biximodu ba ordun" - (Hala zen ba bizimodua ba orduan)

bisite: bisita

brillu: distira

brome: broma, txantxa

buelte: buelta

"Buelte bere emoten dake, e?" - (Buelta ere ematen zaie, e?)

burle: trufa, burla

"Bakixu ademas eintte san burle giau, e? ese oiñ igual deko aputxu bet defeto giau edo ta esaten du danak antzekok, baya ordun, defeto bat bako, ume batek ademas, umen arten giau" - (Badakizu gainera egiten zen burla gehiago, e? eze orain beharbada dauka apurtxo bat akats gehiago edo eta esaten dugu denak antzekoak, baina orduan, akats bat badauka, ume batek gainera, umeen artean gehiago)

defeto: akatsa

BERANGOKO HIZTEGIA

deretxo: eskubidea

"Ba, sarrak esteke bisteko deretxorik" -
(Ba, zaharrek ez daukate bizetzeko eskubiderik)

"Ori ixete san segun trasatan, soltere lotxen basan bat edo bi edo direnak, arek aukitteuen deretxo etzen kuartu bet edo bi edo ixen direnak, soltera badaus, eskondute badaus es" - (Hori izaten zen antza, ezkondu barik lotzen bazen bat edo bi edo direnak, haiek edukitzen zuten eskubidea etxean gela bat edo bi edo izan direnak, ezkondu barik badaude, ezkondu badaude ez)

desgrasi: ezbeharra

despresio: mesprezioa

disgusto: disgustua

"Emen disgusto itzela deku" - (Hemen disgusto itzela daukagu)

dude: duda, ezbaia, zalantza

"Seoser ixao dana, dudari peres!" - (Zer edo zer izango dena, dudarik ere ez!)

edade: edadea, adina

"Orrek bie ties edade batekok" - (Horiek biak dira edade batekoak)

egi: egia

"Baya egi egi olan da" - (Baina egi-egia hola da)

"Ori egi da, gero, e? sapatuten eintte dau au" - (Hori egia da, gero, e? zapatuetan eginda dago)

ei: ei, omen

"Artute oki eun etze ori tte tapata on ei san seraas, sasikes eta" - (Hartuta eduki zuen etxe hori eta estalita egon ei zen zerekin, sasiakin eta)

"Nire amari sapatun egurdiñ ei otzon" - (Nire amari zapatuaren eguerdian egin zion)

enbarasu: enbarazua, traba, eragozpena

engantxe: engantxea

"Auki yauren engantxatxu bet, eta kosi euken, eta baja a" - (Eduki zuten engantxetxo bat, eta har zitekeen, eta baxatu hura)

engañu: engainua, amarrua

"Ori bere engaño bet ixete san" - (Hori ere engainu bat izaten zen)

ere: era

erexi: eritzia

errasoia: arrazoia

"Errasoi andi dekosu" - (Arrazoi handia daukazu)

errastu: arrastoa

"Martina erdu ona, suk esetu su au? te bai! ori Ameriketara yon san ta dana errastu dustik esaustesan" - (Martina erdu hona, zuk ezagutu duzu hau? eta bai! hori Ameriketara joan zen eta dena arrasto guztiak esan zizkidan)

erraye: marra

"Ba intte yeun erraye meidek, eta arako kuartillu eta beste litro" - (Ba egiten zuen marra neurriak, eta harako kuartiloa eta bestea litroa)

"Ta urteten bayeun kanpora errayati ba an itxi, beste bat badator, ak yo daiñ, tapaten bayeun" - (Eta irteten bazuen kanpora marratik ba han utzi, beste bat badator, hark jo dezan, tapatzen bazuen)

errege: erregea

erregiñe: erregina

errespeto: begirunea

erretiro: erretiroa, jubilazioa

erremese: erremesa

"Sati andi barik, se espabere sati andik esin eron, baya eitteuresan auron satik, erremesatan" - (Zati handi barik, ze ezpabere zati handiak ezin eroan, baina egiten zituzten euron zatiak, erremesatan)

erretratu: argazkia, erretratua

"Bodako erretratu dau" - (Ezkontzako argazkia dago)

"Lastime erretratu oki este!" - (Lastima erretratua ez edukitzea!)

erru: errua

"Sei illebete i eusen erru barik" - (Sei hilabete egin zituen erru barik)

"Esiñ errurik bota lio iñori, bertan eonta bere, se bertan bere onak on dire" - (Ezin errurik bota dakioket inori, bertan egonda ere, ze bertan ere onak egon dira)

"Naure umek igual auki daude erru, nik estiñot eser" - (Neure umeek beharbada eduki dute errua, nik ez dinot ezer)

es: ez

"Es ausokori errurik bota se, etzen daus orretaringok" - (Ez auzokoari errurik bota ze, etxean daude horietarikoak)

esetz: ezetz

"Nik askotan pentza dot se ori baltzittu ingo dala ta esetz" - (Nik askotan pentsatu dut ze hori belztu egingo dela eta ezetz)

BERANGOKO HIZTEGIA

eskarmentu: eskarmentua

estranjeri: estranjeria

ete: ete, ote

"Orrena ete da? edo landare txarra ia ixen bada" - (Horrena ete da? edo landarea txarra ea izan den)

"Esango ete dot?" - (Esango ete dut?)

falte: 1. falta, akatsa. 2. falta

"Ia ser daun ondo badau ganadu, edo txarto badau edo faltarik badeko" - (Ea zer dagoen ondo dagoen ganadua, edo txarto dagoen edo akatsik daukan)

"Kalsion falte da ori" - (Kaltzioren falta da hori)

"Orrek eseuren oki faltarik" - (Horiek ez zuten eduki faltarik)

fame: fama, ospea

"Buskantzak fame oki en, bai" - (Buzkantzek ospea eduki zuten, bai)

fetxe: data

file: ilara

"Bai gure dan modun, gero noperak gure daun modun, filan imiñi gure badau edo atrabesata imiñi gure badau, gure daun modun" - (Bai gura den moduan, gero norberak gura duen moduan, ilaran ipini gura badu edo zeharka ipini gura badu, gure duen moduan)

firme: sinadura

forme: irudia, itxura

"An urteteun edo txarra dan edo ona dan, arik eta biotzan formek urten arten" - (Han irteten zuen edo txarra den edo ona den, harik eta bihotzaren formak irten artean)

gane: gogo

"Neuk yateko gane dekot" - (Neuk jateko gogo daukat)

ganera: gainera

"Asten dire ta odola ukusten badaure ganera, txarrau!" - (Hasten dira eta odola ikusten badute gainera, txarrago!)

"Abiadoresn amak eitte yeun ori, baya nik a esetu dot ya, urte askoas, eta ni ume ganera" - (Abiadoresaren amak egiten zuen hori, baina nik hura ezagutu dut ja urte askorekin, eta ni umea gainera)

"Ganera etzeko seña da" - (Gainera etzeko seña da)

ganore: ganora, trentina

"Ori solon ibil san batek apurtu yeusten, maneiaten yakiñ es, ganora barik yo" - (Hori soroan ibili zen batek apurtu zidan, maneiatzen jakin ez, ganora barik jo)

gause: gauza

"Orrek diñoue edosein gause" - (Horiek dinote edozein gauza)

geye, gaye: deia

gorabere: gora behera

gorroto: gorrotoa

gosete: gosetea

grasi: grazia

"Ni nauk estot eiñ, baya anaje pai, grasi aukitteun ademas" - (Nik neuk ez dut egin, baina anaiak bai, grazia edukitzen zuen gainera)

grupo: taldea

"Beste bat ixen san, a, Eguskisa, ori kanpoko bat, or, a, seran eskondute egon san, eta ak sertuteusen, baya ordun lau grupo" - (Beste bat izan zen, Eguzkiza, hori kanpoko bat, hor, zerean ezkondu eta egon zen, eta hark zertzen zituen, baina orduan lau talde)

"Au kuadrille yon gintzenen, ixen san, ordun, sera aldeti, a, emeti Gernika aldeti tte orti beste grupo batek urte yaule" - (Taldea hau joan ginenean, izan zen, orduan, zer aldetik, hemendik Gernika aldetik eta hortik beste talde batek irten zuela)

guardi: guardia

gusurre: gezurra

"Gusurre da etor diena" - (Gezurra da etorri direna)

ia: ea

"Ori ixen san ba ia, oi! selan esango pa?" - (Hori izan zen ba ea, oi! zelan esango dut ba?)

idea: ideia

"Ideari pere estekot orrenik!" - (Ideiarik ere ez daukat horrenik!)

igual: beharbada, baliteke

"Igual ixa da, baya nik estot entzun bere eiñ, e?" - (Beharbada izango da, baina nik ez dut entzun ere egin, e?)

illeda, illade: ilara

"Guren laurogei lagun on dire illadan, a, arto koisteko gero, e!" - (Gurean laurogei lagun egon dira ilaran, artoa hartzeko gero, e!)

"Emen artori iteotzen kontate otzesan senbest illeda dekosan, estait bederatziko ala

BERANGOKO HIZTEGIA

amabiko gordeta san, a, ereiteko" - (Hemen artoari egiten zioten kontatzen zizkioten zenbat ilara dauzkan, ez dakit bederatzikoa ala hamabikoa gordetzen zen, ereiteko)

in bearra: egin beharra

inbidi: inbidia, bekaitza

"Gastañek esteko aretxan inbidirik" - (Gaztainak ez dauka haritzaren inbidiarik)

interesa: interesa

istori: istorioa, pasadizoa

"Ordun a takis istorik" - (Orduan hark dakizki istorioak)

itxure: itxura

"Selau itxure dekusun orrek sapakas!" - (Zelako itxura daukazun sapa horiekin!)

"Ori gure mutillek in dau, patiñen itxure i eun" - (Hori gure mutilak egin du, patinaren itxura egin zuen)

jenero: gauza

"Orrek jenerok intte gaus gu" - (Gauza horiek eginda gaude gu)

"Ganaduk, a, edosein jenero aukitte aun" - (Ganaduak, edozein gauza edukitzen zuen)

"Gu paño sarraok, gu paño sarraok dakis orrek jenerok obeto" - (Guk baino zaharragoek, guk baino zaharragoek dakizkete gauza horiek hobeto)

"Nik naure, a, jenero in in ber dot, bereinketu, a, etze, gero san juanerako, itxi, bereinketu ostabere solok" - (Nik neure, gauza egin egin behar dut, bedeinkatu, etxea, gero san juanerako, utzi, bedeinkatu ostera ere soroak)

juerge: parranda

"Gero ixete san juerge, danak erdi moskorrak" - (Gero izaten zen parranda, denak erdi mozkorrak)

kamioya: kamioia

"Gero artxeuren emeti etorte san, a, ta erote san ganadu, aurok, a, karo merkeau urten daiñ, itten dauren, a, kamio bat, eta a kamioya etorte san erritteran eta erritten itxedon, emen Berangon bat erosi de, ba ganadu bi, eta baja emen gero aurrera edo gero, bai olan eitteuren" - (Gero hartzen zuten hemendik etortzen zen, eta eroaten zen ganadua, eurok, jakina merkeago irten dezan, egiten zuten,

kamioi bat eta kamioi hura etortzen zen herrietatik eta herrietan itxaron, hemen Berangon bat erosi dute, ba ganadu bi, eta baxatu hemen gero aurrera edo gero, bai hola egiten zuten)

"Gero mataderora bere ganaduk eroteko, len esan oten kamioirik" - (Gero hiltegiara ere ganaduak eroateko, lehen ez zen egoten kamioirik)

kanbio: aldaketa

"Kanbio da ona, urte askotan badosu, a, asi beteas, ba kanbiateen da, ba kasu beteko Mugire edo Gernikera yonta, berataringo klase, ba ereitteko bai" - (Aldaketa da ona, urte askotan baduzu, hazi batekin, ba aldatzen da, ba kasu baterako Mungiara edo Gernikara joanda, beratariko mota, ba ereiteko bai)

karneta: karneta

karte: gutuna, eskutitza

kategori: kategoria

keje: kexa

klase: mota

"Bai, bai, klase asko daus" - (Bai, bai, mota asko daude)

"Gustubako, kusi aun ebai eutzesan erramak, eta errama bakotxan, a, imiñi otzon klase bat" - (Gustubakoa, hartu zuen ebaki zizkion abarrak, eta abar bakoitzean, ipini zion mota bat)

kolore: kolorea

"Esan berren kolore txarra auki dau, urdin eon da" - (Esan beharrean kolore txarra eduki du, urdin egon da)

komedi: komedia, kontua

kontre: kontra

kontu: 1. kontua, istorioa. 2. kontua

"Orreaitti dakides kontuk" - (Horregatik dakizkit kontuak)

"Oñ atxiñeko kontuk yakin gure ittu gastek" - (Orain antzinako kontuak jakin gura ditu gazteak)

"Atxiñeko kontuk asko gure aguela defuntek kontate oskun guri, ta ago sabalik gu" - (Antzinako kontuak asko gure amama defuntuak kontatzen zigun guri, eta aho zabalik gu)

"Esangot ixen san modun, kontu" - (Esango dut izan zen moduan, kontua)

kontzeju: aholkua

"Kontzejuk onak emon dostesus, baya, estaitt ak beyek estaun eingo Katikaldera ba" -

BERANGOKO HIZTEGIA

(Aholkuak onak eman dizkidazu, baina, ez dakit behi hark ez duen egingo Gatika aldera ba)

kontzuelu: kontsolamendua

kostunbre: ekandua

"Kostunbre bai, ollarra, ollarra, gogorra ixete san se urte dustiko ixen san" - (Ekandua bai, oilarra, oilarra, gogorra izaten zen ze urte guztikoa izan zen)

"Badakixu ser pasaten dan, ba, dau kanpoko jente asko, eta esteke kostunbrerik eta ordun esaten daude setan satose? ta" - (Badakizu zer pasatzen den, ba, dago kanpoko jende asko, eta ez daukate ekandurik eta orduan esaten dute zertan zatozte? eta)

"Ama defunte pere aukitteun ori kostunbre" - (Ama defuntuak ere edukitzen zuen ekandu hori)

"Aitxe besan ixeten kostunbre yote" - (Aita ere ez zen izaten ekandua joatea)

kotxe: autoa

"Nire kotxe ekar dot" - (Nire autoa ekarri dut)

"Eskara yongo errire espadeku kotxerik" - (Ez gara joango herrira ez badaukagu autorik)

kuadru: kuadrua, laukia

"Onetaringo kuadru bet neuk ei neun, a kuadru bera teko, se berari emo neuntzen, berak an deko kuadru" - (Hauetariko kuadru bat neuk egin nuen, kuadru hura berak dauka, ze berari eman nion, berak han dauka kuadrua)

lastime: lastima

"Emon daust lastime" - (Eman didate lastima)

lebe: leba, ardura, garrantzia

"Oñ esteko orrek lebarik" - (Orain ez dauka horrek lebarik)

loteri: loteria

"Orren seme bateri loteri toka akon" - (Horren seme bati loteria tokatu zitzaion)

lotze: lotsa

"Lotza emoten deust" - (Lotsa ematen dit)

malete: maleta

marke: marka

"Makiñeas markak eiñ, baya nik oiñ atxurreas eitten dot" - (Makinarekin markak egin, baina nik orain aitzurrarekin egiten dut)

martxe: martxa

merittu: meritua

modu: modua, era

"Emen onetan itxosotan estau olan bajateko modurik" - (Hemen itsaso hauetan ez dago hola baxatzeko modurik)

multe: isuna

"Premio emon berren multe, peseta bi, peseta bi paga berraun" - (Saria eman beharrean isuna, pezeta bi, pezeta bi ordaindu behar zuen)

mundu: mundua

"Esate yen ullek estirela ustelduten eta estala itxi ber mundun norberan ullerik, batu, eta erre" - (Esaten zuen ileak ez direla usteltzen eta ez dela utzi behar munduan norberaren ilerik, batu, eta erre)

naste: nahastea

norbera, nopera: norbera

"Noperak itten deu" - (Norberak egiten du)

"Segun, noperak gure daun alturen eitteuren" - (Segun norberak gura duen altueran egiten zuten)

"Seoser kosten estaurenen kosi ber, noperak esan, etetet" - (Zer edo zer hartzen ez dutenean hartu behar, norberak esan, etetet)

orde: ordea

"Buskantzak orde deko" - (Buzkantzak ordea dauka)

ostabere, ostabe: ostera ere

"Iru lau egunen bota en piñudi, berrogei giselen, eta gero aittek erosi otzon ostabere orreri aberatzari" - (Hiru lau egunean bota zuten pinudia, berrogei gizalan, eta gero aitak erosi zion ostera ere aberats horri)

"Etzera eldu barik andrek ekarri bokadillu, e, tabernara, eta ostabe Nabalera bearren" - (Etxera heldu barik andreak ekarri bokadilloa, tabernara, eta ostera ere Nabalera beharrean)

palise: jipoia

"Aitte defuntuk osti lau palise emote yoskun" - (Aita zenak ostia lako jipoia ematen zigun)

parkeske: parkeskea, barkamena

"Niri parkeske eskatu ber dostesu" - (Niri parkeske eskatu behar didazu)

paseo: paseoa

peligro, peligru: arriskua

pene: pena, samina, mina

BERANGOKO HIZTEGIA

"Selau pena emoten deusten!" - (Zelako pena ematen didan!)

"Emoten doste pena derdixedu" - (Ematen didate pena handia)

"Nik estot ebaiten, pena emoten deuste" - (Nik ez dut ebakitzen, pena ematen dit)

periodiku: egunkaria

plante: planta, itxura

pleittu: auzia

plomo: beruna

"Baiñ, a, yo nitzen, a, eta pika yosten, a, angila batek eta, emo notzen golpeas yon san, a, kañubere ta kordela ta sera, plomo ta dusti yon siren, solo erdire" - (Behin, joan nintzen, eta haginka egin zidan, aingira batek eta, eman nion kolpearekin joan zen, kanabera eta kordela eta zera, beruna eta guztia joan ziren, soro erdira)

porejemplo: esate baterako, kasu baterako
"Señe porejemplo berantza esaosten pediatrek, oiñ es, oiñ, e, diñoure peligroso dala" - (Seina esate baterako beherantz esan zidan pediatrak, orain ez, orain, dinote arriskutsua dela)

posa: poza

pregunte: itauna

prise: presa

probe: proba

sendalle: seinale, marka, aztarna

"Sendalle ona da, osatuko da, ta osatu i san, denporatxues, e?" - (Seinale ona da, osatuko da, eta osatu egin zen, denboratxoarekin, e?)

sera: zera

"Sustitxako, a, sera saldi ganen yote san elixara" - (Sustatxako, zera zaldi gainean joaten zen elizara)

serikusi: zer ikusia

"Kortiñek esteko serikusirik" - (Gortinak ez dauka zer ikusirik)

seriñe: zeregina

sigarro: zigarroa

"Oiñ esangotzut beste jenero bat sigarrona" - (Orain esango dizut beste gauza bat zigarroarena)

suerte: zortea

"Gero suerte oki neun" - (Gero zortea eduki nuen)

tabako: tabakoa

"Nebentzako ixete san tabako" - (Nebarentzat izaten zen tabakoa)

"Emen emoten san, e, errasoñaminttu tabakona" - (Hemen ematen zen, errazonamendu tabakoarena)

telefono: telefonoa

tertuli: elkarrizketa, berbetaldia

"Bakixu arik tertulik guk labasu intten gendunen" - (Badakizu berbetaldi haiek guk labasua egiten genuenean)

tire: tira, zati luzea; gehienetan uhalarena edo oihalarena

tranbi: tranbia

"Esaun okitten tranbireko dirurik, ta negarres" - (Ez zuen edukitzen tranbiarako dirurik, eta negarrez)

"Tranbi egon san len, Bilboti Algortara, tranbi, esan egon autobuserik" - (Tranbia egon zen lehen, Bilbotik Algortara, tranbia, ez zen egon autobusik)

trena: trena

"Trenako billetekas, ordun, a, Berangora iñor esan yoten trenara, Algortara dustik yote siren" - (Treneko txartelekin, orduan, Berangora inor ez zen joaten trenera, Algortara guztiak joaten ziren)

trete: treta, maina

"Trete artu dau" - (Treta hartu du)

tristes: tristezia

ueku: hutsunea

"Atarate sana gorantza, eta ueku aukitteuren erdiñ" - (Ateratzen zena gorantz, eta hutsunea edukitzen zuten erdian)

urren: hurrean, aurki, beharbada

"Eskondu da urren" - (Ezkondu da hurrean)

usena: izena

"Bai usena maskarita esaten gendun guk" - (Bai izena maskarita esaten genuen guk)

"Klase asko ote siren baya danan usenik estaitt" - (Mota asko egoten ziren baina denen izenik ez dakit)

"Estaitt auki bayeun usena" - (Ez dakit eduki bazuen izena)

21. ADJEKTIBOAK

Atal honetan adjektibo bakunak biltzen ditugu, noizean behin eratorriren bat ager daitekeen arren, hauetariko gehienak berba eratorrien atalean agertuko dira. Bestalde, adjektibo konposatuak eta adjektibotzat erabiltzen direnak esakuneen atalean agertuko dira. Azkenik, koloreei buruzko

BERANGOKO HIZTEGIA

berbak eta adjektiboen graduatzaileak azpi-atal berezietan agertuko dira amaieran.

21.1. ADJEKTIBO BAKUNAK

aberatza: aberatsa

"Oñ es, oin dusti gare aberatzak" - (Orain ez, orain guztiak gara aberatsak)

afesiñedu: zalea

"Ni afesiñedu ixte nas, eta nik, a, berro asko kosi dot" - (Ni zalea izan naiz, eta nik, berro asko hartu dut)

akabuko: amaierakoa, azkena

"Eskubere bere bai, ori, ya segun, akabuko serak sertxeko, obeto sertxeko" - (Eskuarea ere bai, hori, ja segun, amaierako zerak zertzeko, hobeto zertzeko)

"Akabuko erote san errementarire" - (Azkena eroaten zen errementarira)

alegre: alai

"Etze alegreaorik! bat yoten beste musike eta bera yantzan, auntze diño yantzan" - (Etxe alaiagorik! bat jotzen bestea musika eta bera dantzan, ahuntza dino dantzan)

alperra: alperra

alperriko: alperrekoa

alte: altua (f)

altu: altua

"Altu da oin bere" - (Altua da orain ere)

amasulo: amazuloa

"Amasulo? neuri esate osten" - (Amazuloa? neuri esaten zidaten)

andi: handia

"Ganadu aukitteurenak, a, gorta andi aukitteuren gaure modun" - (Ganadu edukitzen zutenek, korta handia edukitzen zuten geure moduan)

antzeko, antzerako: antzekoa

"Ori piñutxu antzeko da, piñun, erramen antzeko eta esta iertuten iños, baya umedade andi daun lekun dau ori" - (Hori pinutxo antzekoa da, pinuaren, abarren antzekoa eta ez da ihartzen inoiz, baina hezetasun handia dagoen lekuan dago hori)

"Olauk gorri antzerako orrek oki eusen" - (Holakoak gorri antzekoak horrek eduki zituen)

antzu: antzua

aparteko: apartekoa

apatza: apatza

"Egosi esneas eta gero paraten da apatz apatz" - (Egosi esnearekin eta gero paratzen da apatz-apatz)

aproposa: aproposa

arbiñe: arbina

argala: argala

"Orrek beti ixen dies alan argalak, e?" - (Horiek beti izan dira hala argalak, e?)

argi: argia

"Gau argi badau, sarri urteten dot ona" - (Gau argi badago, sarri irteten dut hona)

ariñe: arina

arraro: arraroa

arro: harroa

"Estaitt, igual jente arroau emen baño" - (Ez dakit, beharbada jende harroagoa hemen baino)

arteko, arterako: arteragokoa

"Ta igual emoten dotzue asi sarra ta esta ernetan, ese estosules, a, konosten sarra ala dan, ala arteko urteko ba, engaña" - (Eta beharbada ematen dizute hazi zaharra eta ez da ernetzen, eze ez duzun lez, ezagutzen zaharra ala den, ala arteragoko urtekoa ba, engainatu)

"Arterako kontu da ori" - (Arteragoko kontua da hori)

artesa: arteza

"Au mimenaas eitten da, au, onek artesak ein lelau, ta gero onek mimenaas" - (Hau mimenarekin egiten da, hau, hauek artezak egin lehenago, eta gero hauek mimenarekin)

astune: astuna

"Bai emoten geuntzen baya anditxuauk, anditxuauk, aputxu bet anditxuauk eitten sienen, se drungulu astune da" - (Bai ematen genien baina handitxoagoak, handitxoagoak, apurtxo bat handitxoagoak egiten zirenean, ze drungulua astuna da)

atrebide: ausarta (f.)

atrebidu: ausarta

"Atrebidu ixen san ori bere!" - (Ausarta izan zen hori ere!)

atxiñeko: antzinakoa

"Ara amarretako mese, atxiñekok, onen edaderekok, a, personak, amarretako mesara yoten siren" - (Hara hamarretako meza, zituen)

BERANGOKO HIZTEGIA

antzinakoak, honen edadekoak, pertsonak, hamarretako mezara joaten ziren)
"Atxiñeko gause da ori, e? atxiñe atxiñeko"
- (Antzinako gauza da hori, e? antzina-antzinakoa)

atzena: atzena, azkena

babalasto: babalastoa, irain modura erabiltzen da

babasalde: baba salda; irain modura erabiltzen da

bakarra: bakarra
"Andi basoas, alan, a, larrosa koloreko txalet bat bakar bakarra dau" - (Handik bazoaz, hala, arrosa koloreko txalet bat bakar-bakarra dago)

"Aori aorti etor sarenen etze bakarra daune, an bakarra daune? An bixi da" - (Haori haortik etorri zaretenean etxe bakarra dagoena, han bakarra dagoena? Han bizi da)

baliente: ausarta, trebea
"Emen balientena egon sana, Manuel Ardeo" - (Hemen ausartena egon zena, Manuel Ardeo)

bardingo: berdingoa, ertaina

bardiñe: berdina
"Au, aren estiloko, bardiñ antzeko da au" - (Hau haren modukoa, berdina antzekoa da hau)

barrabasa: barrabasa
"Ogi baltza, txarrau barrabasa baño!" - (Ogi beltza, txarragoa barrabasa baino!)

barri: berria
"Oin barri dau eintte, baya gero an arri beti ote san an" - (Orain berria dago eginda, baina gero han harria beti egoten zen han)

"Gero ei auren barri, a sartu barrure eta kanpoko barri ei auren" - (Gero egin zuten berria, hura sartu barrura eta kanpoko berria egin zuten)

beargiñe: behargina

bero: beroa
"Atxiñe uden bere etorte san denpore bero igual, denpora ona, esta?" - (Antzina udan ere etortzen zen eguraldi beroa beharbada, eguraldi ona, ezta?)

betiko: betikoa
"Emen, a, betiko bayek, pintok, nosonos suisaren ba pai, baya emen baye

pintok" - (Hemen, betiko behiak, pintoak, noiz edo noiz suitzarren bat bai, baina hemen behi pintoak)
"Betiko arto ereitte ixen du guk emen, eta gero ori ganaduntzako? ori ganaduntzako etor san ori" - (Betiko artoa ereiten izan dugu guk hemen, eta gero ganaduentzako hori? ganaduentzako hori etorri zen gero)

bigune: biguna
"Millikote bigune da" - (Milikota biguna da)

biorra: bihurra

biribille, berebille: biribila
"Ider baltza, ori da, ori san, ori asi da yero yeron iguala, berebille" - (Ilar beltza, hori da, hori zen, hori hazia da jero jeroaren berdina, biribila)

defunte, difunte: defuntua (f)
"Atxiñeko kontuk asko gure aguela defuntek kontate oskun guri, ta ago sabalik gu" - (Antzinako kontuak asko gure amama defuntuak kontatzen zigun guri, eta aho zabalik gu)

defuntu, difuntu: defuntua
"Or Agerre mendiñ, a, gerra denporan, erosi eun, aitte difuntuk erosi eun sati bet" - (Hor Agerre mendian, gerra denboran, erosi zuen, aita defuntuak erosi zuen zati bat)

delikade: ahula, makala
"Ak esan gure yeun, delikadeao bearren" - (Hark esan gura zuen, delikatuagoa beharrean)

derditxedu: ugaria, handia
"Portaltek oki dau inportantzi derditxedu" - (Portaltek eduki du garrantzi handia)

"Gero mantille derditxedu bet baltza ganeti" - (Gero mantila handi bat beltza gainetik)

desesune: dezezaguna, ezezaguna

deskonfiadu: mesfidatia

diferente: desberdina
"Gure alden diferente itte yeuden" - (Gure aldean desberdina egiten zuten)

dobleko: bikoitza

dotore: dotorea

dultze: gozoa, ezitia

edadeko: edadekoa
"Nongo ixen san a? enbre ya, edadeko, e? es amasortzi urte, e?" - (Nongoa izan zen hura? andrazkoa ja, edadekoa, e? ez hamasortzi urte, e?)

ederra: ederra
"Leku ederra dau" - (Leku ederra dago)

BERANGOKO HIZTEGIA

egoki: egokia, aproposa

"Espadeke etzen denpora egoki artesi beti boltzan, ta an ibiltzen diren, txaka, txaka, txaka!" - (Ez badaukate etxean denbora egokia artazia beti poltsikoan, eta han ibiltzen dira, txaka, txaka, txaka!)

elegante: dotorea

"Elegante yo nintzen ni, iñok ierri beres, a, barrik badire edo es" - (Dotore joan nintzen ni, inork igarri ere ez, berriak diren edo ez)

"Esaten daure elegantena dala sera, ollagorra" - (Esaten dute dotoreena dela zera, oilagorra)

eletriku: elektrikoa

epela: 1. epela. 2. makalik, endekatuta egon. 3. izaera epela, motela

"Orio epela iñeskon pasa itten dala esaten dau" - (Olio epela eginez gero pasatu egiten dela esaten du)

"Ori bere esta bapere epela, e?" - (Hori ere ez da bat ere epela, e?)

"Au señe epel dau" - (Sein hau epel dago)

epertikere: pertsona bizia, ipurdi zirina

erredondo: biribila

"Labasu intteko? ba labe da, erredondo eukitten dau" - (Labasu egiteko? ba labea da, biribila edukitzen du)

errubie: ilegorria (f.)

errubio: ilegorria

esaune, eseune, esune: ezaguna

"Beti emoteotzu guk, e, eta pozik etorten dire, ese esune tire danak" - (Beti ematen diegu guk, eta pozik etortzen dira, eze ezagunak dira denak)

ese: hezea; irinaren gainean esaten da bereziki

eskasa: eskasa

"Lope baño eskasau dau beste bat" - (Lopea baino eskasagoa dago beste bat)

"Gerra osten dana on san eskas" - (Gerra ostean dena egon zen eskas)

eskutu: ezkutua, gordea

"Leku eskutun badau, igual dau aputxu beti ona adi, ona adi, aputxu beti olan, baya ostantzen eperdi emonta" - (Leku ezkutuan badago, beharbada dago apurtxo bat hona adi, hona adi, apurtxo bat hola, baina osterantzean ipurdia emanda)

estimedu: preziatua

estu, istu: estua

"A estu ixete sales, gero lurre, lurre alboi tapa eitteun, eta orreaittik imintte otzon, errama batzuk, a lurre, a lurre aputxu beti sabalao, a, lotxeko" - (Hura estua izaten zenez, gero lurra, lurra alboi tapatu egiten zuen, eta horregatik ipintzen zion, abar batzuk, lur hura, lur hura apurtxo bat zabalago, lotzeko)

faltzu, faltzo: faltsua

famade: ospetsua

famadu: ospetsua

"Eta orrek tratantek, Andrakako famadu eta esautzen, es etorri estekosunen, e?" - (Eta tratante horrek, Andrakakoa ospetsua eta esan zion, ez etorri ez daukazunean, e?)

fasille: erraza

"Ori de fasille norberantzako" - (Hori da erraza norberarentzat)

"Ori itten fasille da" - (Hori egiten erraza da)

fijo: 1. finkoa, tinkoa. 2. ziur

"Nau tiñotzut fijo" - (Neuk dinotsut ziur)

"Fijo estait" - (Ziur ez dakit)

fiñe: fina

"Arto fiñe aukitten gendun guk, arto txikitxu, bestek asko, eta igual artaburu bi edo iru, es gurek es, artaburu beti eta bi gayenak, garau bere txikitxuau" - (Arto fina edukitzen genuen guk, arto txikitxo, besteek asko, eta beharbada artaburu bi edo hiru, ez gurek ez, artaburu bat eta bi gehienek, garaua ere txikitxoagoa)

formala: zintzoa

fresko: freskoa

"Atxiñeko potijo, ta andi, traguk eiñ, se aguanta itten dau giau fresko, potijo aukitten gendun guk" - (Antzinako potixea, eta handik, zurrutadak egin, ze iraun egiten du gehiago fresko, potixea edukitzen genuen guk)

fuerte: indartsua

"Fuerte da ollo satza" - (Indartsua da oilo satza)

galanta: galanta

"Guk, a, kargak bille, karga galantak orti, kargak atxiñe" - (Guk, kargak bila, karga galantak hortik, kargak antzina)

garbi: garbia

"Garbi egoneskero igual dost" - (Garbi egonez gero berdin dit)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Niri gustaten dat oritxe, jenero daula garbi, e!" - (Niri gustatzen zait horixe, gauza dagoela garbi, e!)

garratza: 1. garratza. 2. latza

"Suabe emoten dako, pikabarri daunen se, pasa bedarra eiten eta emoten badotzesu garratza yan iten dosu" - (Suabea ematen zaio, pika berri dagoenean ze, pasatu belarra egiten eta ematen badiozu garratza jan egiten duzu)

gasa: gaza, geza

gasi: gazia

"Gero a gasi egote san espabere" - (Gero hura gazi egoten zen ezpabere)

gaste: gaztea

"Gaste asko oten da an" - (Gazte asko egoten da han)

"Amasortzi urtekok, esayeutzen, aitte nau bere bano, ba su setan? es, su gaste sara ta" - (Hamazortzi urtekoak, esan zion, aita neu ere banoa, ba zu zertan? ez, zu gaztea zara eta)

gatxa: gaitza, zaila

"Gatxau, da, labrateko bere gogorra, baya kosetxe kosteko ona, e?" - (Gaitzago, da, lantzeko ere gogorragoa, baina uzta hartzeko ona, e?)

giputze, kiputze: giputza

"Bai kiputze esateutzen beste aldeko, osaberi bere" - (Bai giputza esaten zioten beste aldeko osabari ere)

"Giputzek eiten de gu paño sarratuau berba" - (Giputzek egiten dute guk baino zerratuago berba)

gixajo: gizajoa

"Abade ona ixen san, il san a bere gixajo" - (Abade ona izan zen, hil zen hura ere gizajoa)

"Nire koñatuk makiña at sapaldu dau, gixajok" - (Nire koinatuak makina bat zapaldu du, gizajoak)

gogorra: gogorra

"Il in ber da, lelango eitten da beti maya olau txiker bat sertu, eta kosi, a, serati, aurretik, ba burun aurretik, beti, eta, eron eta gero lau edo bosten arten kosi, ta mayen ganera, eta gero an prepara ta kutxillo ta odola batu, eta odola estitten lotu gogor, mogidu, mogidu, mogidu eta olan esta lotxen, a, gogor" - (Hil egin behar da, lehenengo egiten da beti

mahaia holako txiker bat zertu, eta hartu, zeretik, aurretik, ba buruaren aurretik, beti, eta, eroan eta gero lau edo bosten artean hartu, eta mahaiaren gainera, eta gero han prestatu eta aiztoa eta odola batu, eta odola ez dadin lotu gogor, mugitu, mugitu, mugitu eta hola ez da lotzen, gogor)

"Etzen eiten bada gogor aguanta iten da" - (Etxean egiten bada gogor eutsi egiten zaio)

gordiñe: gordina

gori: gorria

gorra: gorra

goso: gozoa

"Urtzuk goso tires gordiñik yateko baya pasa intten dires ariñ" - (Urtsuak gozoak dira gordiñik jateko baina pasatu egiten dira arin)

"Makallo goso da, piperrakas" - (Makailoa gozoa da, piperrekin)

"Gosoau da labati pasako beste baño" - (Gozoagoa da labetik pasatukoa bestea baino)

"Ya estat akordaten ori asko, se ori, ardiñe da gosoa, baya beyena estu olan yan" - (Ja ez zait gomutatzen hori asko, ze hori, ardiñe da gozoa, baina behiena ez dugu hola jan)

goxetiko: goizetikoa

"Iñurri goixetiko da" - (Inurria goizetikoa da)

guape: polita (f.)

"Jose, neu tekot arreba bat guape suretzako, guape, eskondu, neure arrebeas eskondu sitted, atxiñe bakixu, olan itte san ta, arrebe guape, eron ingo sittut ikusten" - (Jose, neuk daukat arreba bat polita zuretzat, polita, ezkondu, neure arrebarekin ezkon zaitetz, antzina badakizu, hola egiten zen eta, arreba polita, eroan egingo zaitut ikusten)

guapo: polita (m.)

"Layostarrak berangostarrakas beti txarto, mutillek, a, guapo, alkondara surikes etorte siren ta, odolas beterik, edo belarri arrankata edo, surrondon golpe" - (Leioztarrak berangoztarrekin beti txarto, mutilak, polito, alkondara zuriekin etortzen ziren eta, odolez beterik, edo belarria erautsita edo, sudur ondoan kolpea)

gustuko: gustukoa

ierra: igerra, labetik pasatukoa

BERANGOKO HIZTEGIA

iguala: berdina

"Ider baltza, ori da, ori san, ori asi da yero yeron iguala, berebille" - (Ilar beltza, hori da, hori zen, hori hazia da jero jeroaren berdina, biribila)

illune: iluna

"Es olan suri, aputxu bet illuntxuau urtete aun, emeko gari paya, bueno, aurrera" - (Ez hola zuria, apurtxo bat iluntxoago irteten zuen, hemengo gariak baina, beno, aurrera)

iñusente: inuzentea, leloa, ergela

"Ollagorra atara dot eta eskapa dau, eta egon da an, a, gixon bat, esetuten dot eta esan dost ese nora yon da ba? altxa in dat eta nora yon da? ta or ostu da, a bueno! or ostu bada, oiñ yon etzera ta gero arrastegin etorri, eta onek, a, ai iñusente! espabilako sara!" - (Ollagorra atara dut eta ihes egin du, eta egon da han, gizon bat, ezagutzen dut eta esan dit eze nora joan da ba? altxatu egin zait eta nora joan da? eta hor ostu da, a beno! hor ostu bada, orain joan etxera eta gero arrastegian etorri, eta honek, ai inuzentea! azkartuko zara!)

"Yote siren gero esnekas Algortara eta Algortako jente ixen da iñusente" - (Joaten ziren gero esneekin Algortara eta Algortako jendea izan da inuzentea)

istu: estua

"Onek, egon sien emen, solok, a, ortuk, ortuk, solok istuk eta lusek, esta?" - (Hauek egon ziren hemen, soroak, hortik, ortuak, soroak estuak eta luzeak, ezta?)

itzela: itzela

"Afesiño itzela auki dot, e? amen portalen bere auki du iños" - (Zaletasun itzela eduki dut, e? hamen atarian ere eduki dugu inoiz)

"Grasi itzela oki aun onek gixonak" - (Grazia itzela eduki zuen gizon honek)

"Ori kostunbre auki du itzela" - (Ekandu hori eduki dugu itzela)

"Gero niri, itzelak pasa dastes, nik eneis konta niri pasa dastesen jenerok" - (Gero niri, itzelak pasatu zaizkit, nik ez nitzake konta niri pasatu zaizkidan gauzak)

itzu: itsua

"Gure aitte difuntu estudiaten egon san, pilotorako, baya itzu lotu san ta itxi ber ixleun" - (Gure aita defuntua ikasten egon zen, piloturako, baina itsu lotu zen eta utzi behar izan zuen)

"Itzu lotu san, nire anajen, a, kanteran" - (Itsu lotu zen, nire anaiaren, harrobian)

kalbo: burusoila

karu: garestia

"Ori san aputxu bet karuau beste baño" - (Hori zen apurtxo bat garestiagoa bestea baino)

kiskorra: kizkorra

"Ba imintten dires iguskitten ta egon ber daure kiskor kiskor yoteko, eta golpera, solta itten dires, bai, ta gero pasa trigeruti, eta sakure" - (Ba ipintzen dira eguzkitan eta egon behar dute kizkor-kizkor jotzeko, eta kolpera, askatu egiten dira, bai, eta gero pasatu galbahetik, eta zakura)

klaru: argia

"Olan deko, ikusten da klaru klaru, ikusten da selan dekosen" - (Hola dauka, ikusten da argi-argi, ikusten da zelan dauzkan)

koittede: koitadua (f.)

"Andre koittedek esateutzen se tabernatxu auki euden, ta yoixu, alan jentek edan eingo dau giau" - (Andre koitaduak esaten zion ze tabernatxoa eduki zuten, eta jo ezazu, hala jendeak edan egingo du gehiago)

koittedu: koitadua (m.)

koxo: koxoa, herrena

"Apatxak in yakosan lusetu, ta koxo ibiltte siren gero" - (Apatxak egin zitzaizkion luzatu, eta herren ibiltzen ziren)

"Beye koxo paraten da gortan" - (Behia herrenka paratzen da kortan)

kuadradu: karratua

"Beste bat on san, alan kuadradu bet, a san ona, ak, a, urtu, eta fin fin fin lotxe san a" - (Beste bat egon zen, hala karratu bat, hura zen ona, hark, urtu, eta fin-fin-fin lotzen zen hura)

labana: labaina

"Auri itte aun, ordun labanau, ta besteri igual siku, tranpak asko egon dire!" - (Euri egiten zuen, orduan labanago, eta besteari beharbada siku, tranpak asko egin dira!)

laburre: laburra

"Nik esetu doasena tire beti, ondiño or dekoas nik amanak gordeta urreskok, sera bi, bi,

BERANGOKO HIZTEGIA

onen estilokok baya aputxu bet laburrauk" - (Nik ezagutu ditudanak dira beti, oraindino hor dauzkat nik amamak gordeta urrezkoak, zera bi, bi, honen erakoak baina apurtxo bat laburragoak)

larreko: larregikoa

"Ni enas txori afisiñedu ixen, anaje bai, anaje larreko" - (Ni ez naiz txori zalea izan, anaia bai, anaia larregikoa)

larri: larria

latza: latza

libre: askea

liste: argia, azkarra

listo: argia, azkarra

"Nik auki dot emen txakurre, listo, ona erbitten baya aginke itteun" - (Nik eduki dut hemen txakurra, bizkorra, ona erbitan baina haginka egiten zuen)

lisu: laua

lodi: lodia

"Erdikok daus oiñ, lodik eta gogorak" - (Erdikoak daude orain, lodiak eta gogorak)

"Oin lodi nau baya ni, naure alaben moduko ixen nas, alau muskutxatxu" - (Orain lodi nago baina ni, neure alabaren modukoa izan naiz, halako muskutxatxoa)

loye: lohia, zikina

"Erreke loi dau" - (Erreka lohi dago)

"Ori sera okitteuren, asikerako loyek sera, atara arten, okitteuren an, gero aste san ya sabaltxen, botillatan imintten ta" - (Zer hori edukitzen zuten, hasierako lohiak zera, atera arte, edukitzen zuten han, gero hasten zen ja zabaltzen, botiletan ipintzen eta)

luse: luzea

"Orrek lusek iste siren serak eintteko, koltxoyak eintteko" - (Luze horiek izaten ziren zerak egiteko, koltxoiak egiteko)

madariketu: madarikatua

mamala: mamala, inuzentea

maje: polita, izaera onekoa, begikoa (f.)

majo: polita, izaera onekoa, begikoa (m.)

makala: makala, gaixoa

makarra: makarra, txikerra, eskasa

maketo: erdalduna, kanpotarra

mantzo: mantso

"Batzu tire illunek, eta illunek mantzoao tire"
- (Batzuk dira ilunak, eta ilunak mantsoagoak dira)

mardo: mardoa

mea: mehea

"Bai, urune, uruneas eintte ba, seratxu, me metxu eitten geuntzen" - (Bai, irina, irinarekin eginda ba, zertxo, mehe-mehetxo egiten genien)

merke: merkea

"Ta erote san ganadu, aurok, a, karo merkeau urten daiñ, itten dauren, a, kamio bat, eta a kamioya etorte san erritteran" - (Eta eroaten zen ganadua, eurok, jakina merkeago irten dezan, egiten zuten, kamioi bat eta kamioi hura etortzen zen herrietatik)

"Amar edo amabi urte dekotela ordun asi siren ya, gari erein esten se, karo ya esan ixeten produtibo se, kanpoti etorte san gari merkeau" - (Hamar edo hamabi urte daukadala orduan hasi ziren ja, garia ez ereiten ze, jakina ja ez zen izaten onuragarria ze, kanpotik etortzen zen garia merkeago)

mimose: mimotia (f.)

"Mimosatxu iste sala ta negarres ta beti" - (Mimotitxoa izaten zela eta negarrez eta beti)

mimoso: mimotia

mingorra: mingorra, mingarria

"Mingorra ixeten da batzuten" - (Mingorra izaten da batzuetan)

mingotza: mingotsa

"Len, a, mingotzau iste san, a, len eitte san txakoliñe asko bere" - (Lehen, mingotsagoa izaten zen, lehen egiten zen txakolina asko ere)

morene: beltzarana (f.)

moreno: beltzarana (m.)

morrosko: morroskoa

motza: motza

mutu: mutua

"Mutu lotu dako" - (Mutu lotu zaio)

nagosi: nagusia

"Freskure ba, illundetan, a, errusio nagosi daunen, selau freskure dau!" - (Freskura ba, ilundetan, ihintz nagusia dagoenean, zelako freskura dago!)

naturala: naturala

normala: normala

BERANGOKO HIZTEGIA

"Nik badakitt normala dana ori" - (Nik badakit normala dena hori)

obe, oba: hobe

"Ori da obe" - (Hori da hobe)

okerra: okerra

"Okerra basara ba, Txarmiñeko sorgiñek urtengo tzu" - (Okerra bazara ba, Txarmineko sorginak irtengo dizu)

ona: ona

"Orrek ixen siren Berangon onentxuk" - (Horiek izan ziren Berangon onentxoak)

"Eseixus kendu se orrek ona tire beyentzako" - (Ez itzazu kendu ze horiek onak dira behientzat)

"Bai pentzateun bera takille onen" - (Bai pentsatzen zuen barak dakiela onen)

oso: osoa

"Gabon egunen, imintte san ogi sati bet mantelan aspiñ, eta urte oson ote san" - (Gabon egunean, ipintzen zen ogi zati bat zamauaren azpian, eta urte osoan egoten zen)

otza: hotza

"Eiñ eitte san esne, eta katxarro baten, eta botate san arto otza" - (Egin egiten zen esnea, eta tresna baten, eta botatzen zen arto hotza)

pinto: espilduna

"Emeko txinbo pinto da" - (Hemengo txinboa pintoa da)

pobre: txiroa, pobrea

"Jente pobre, gure antzeko bere egote san" - (Jende pobrea, gure antzekoa ere egoten zen)

politte: polita

"Ango politte da" - (Hangoa polita da)

potole: potolo (f.)

potolo: potolo (m.)

printzipala: nagusia, gorengoa

sabala: zabala

"Bestek onen sabalere eukiko deure, eta orrek bestek eintten dau sabal sabal" - (Besteek honen zabalera eduki dute, eta beste horrek egiten du zabal-zabal)

sagradu: sakratua

"Ori bai! ori labe, ori sagradu da, labeti ondo pasaueskeroan errotek asko fasillau itten dau, eta gitxiau pasaueskeroan, orrek eitten dau pastea ba, gitxi pasten danak, eta bapes pasten danak giau" - (Hori bai! labe hori, hori sakratua da, labetik ondo pasatuz gero

errotak asko errazago egiten du, eta gutxiago pasatuz gero, horrek egiten du ore

sakona: sakona

"Andi, esku biekas ein ber dana bueltaka bueltaka, sakon ein ber sana" - (Handia, esku biekin egin behar dena bueltaka-bueltaka, sakon egin behar zena)

"Or esetu doas nik, oin berrogetamar urte, ta oin bere igual daus, sakon ataten direseles" - (Hor ezagutu ditut nik, orain berrogeita hamar urte, eta orain ere berdin daude, sakon ateratzen direnez)

samurre: samurra

santarra: zantarra

"Orre tires santarrak" - (Horiek dira zantarrak)

santu: saindua

"Ori egi egi santu da!" - (Hori egi-egi santua da!)

sarra: zaharra

"Ori etze sarra da" - (Etxe hori zaharra da)

sarratu: zerratua

"Ori sarratu daunen esaten da, alkarren ganen daunen, a, landare" - (Hori zerratu dagoenean esaten da, elkarren gainean dagoenean, landarea)

"A bere eleitte sarratu, gaur beres!" - (Hura ere ez liteke itxi, gaur ere ez!)

sea: xehea

"Eta gero botaten gendun satza, lodi, satza andi, andiau seran, eta gero botate san, lodi sapaldu, atxiñe ba sapaldu dana, eta sapaldute sanen, botaten gendun, seau, eta gero botaten gendun asi, eta seaas ostabere tapa" - (Eta gero botatzen genuen satsa, lodia, sats handia, handiagoa zerean, eta gero botatzen zen, lodia zapaldu, antzina ba zapaldu dena, eta zapaltzen zenean, botatzen genuen, xeheagoa, eta gero botatzen genuen hazia, eta xehearekin ostera ere tapatu)

searra: zeharra, leuna

"Emen solo searra tekosena posi tau" - (Hemen soro zeharrak dauzkana pozik dago)

selebre: xelebrea

siku: sikua

"Aste sintzen egunetati, idak ekarten basoti, siku, gero erretako" - (Hasten zinen

BERANGOKO HIZTEGIA

egunetarik, irak ekartzen basotik, siku, gero erretzeko)

soro: zoroa

"*Beti on da alan erdi soro antzeko bat*" - (*Beti egon da hala erdi zoro antzeko bat*)

sorrotza: zorrotza

"*Aik ote sien sorrotz, norberan bixerra kentzeko modun, e?*" - (*Haiek egoten ziren zorrotz, norberaren bizarra kentzeko moduan, e?*)

suabe: suabea, leuna

"*Suabe emoten dako, pikabarri daunen se, pasa bedarra eiten eta emoten badotzesu garratza yan iten dosu*" - (*Suabea ematen zaio, pika berri dagoenean ze, pasatu belarra egiten eta ematen badiozu garratza jan egiten duzu*)

sueltu: solte, soltua

"*Emen eon sana, emen, a, len, a, olan frisone, olau baten batek aukitte aun olau ganadu sueltue baya osten frisone geyena*" - (*Hemen egon zena, hemen, lehen, hola frisoia, holako baten batek edukitzen zuen holako ganadu askea baina ostan frisoia gehiena*)

surre: zuhurra

"*Ama da surrau, a, eta eskapa itten dotze oiñ, oiñ esteittus ikusi bere in gure*" - (*Ama da zuhurragoa, eta ihes egiten die orain, orain ez ditu ikusi ere egin gura*)
"Ori surre da gero, estot ikusi aspaldin" - (*Hori zuhurra da gero, ez dut ikusi aspaldian*)

surtze: zurtza

terko: tematia

terrible: itzela

torpe: dorpea

"*Edoi montorra ba, itxoso aldeti urteten daunen, a, edoyatu da ta andi torpe*" - (*Hedoi montorra ba, itsaso aldetik irteten duenean, hedoitu da eta handia dorpea*)

trankille: lasaia, barea

triste: hitsa, tristeia

"*Begi ondo triste dekosu*" - (*Begi ondoa tristeia daukazu*)

"*Bai triste triste lotxen dire, olan orri yausten*" - (*Bai triste lotzen dira, hola orria jausten*)

trope: dorpea, astuna

tunante: tunantea

txarra: txarra

"*Elgorri bere txarra da, bero, berotan auki*" - (*Elgorria ere txarra da, beroa, berotan eduki*)

txato: sudurmotza

txikerra: txikerra

"*Len kantate san etzeko txikerrenari beti, pregunta lelau*" - (*Lehen kantatzen zen etzeko txikerrenari beti, itaundu lehenago*)

"*Gu txikerrak ixen garenen eskolati etorten gintzesenen bai meriende*" - (*Gu txikerrak izan garenean eskolatik etortzen ginenean bai askaria*)

"*Ganadu teko andiau, txarri teko txikerrau*" - (*Ganaduak dauka handiagoa, txerriak dauka txikerragoa*)

ugeri: ugaria

umedu: hezea

urrengo, urreo, urrao: hurrengoa

"*Ori goixen eitten basan gero gauen txikertu edo urreo egunen*" - (*Hori goizean egiten bazen gero gauean txikertu edo hurrengo egunean*)

"*Sekule bedarra ebai, eta eron etzera eta urrengo egunen mogidu eta seran, ia sertxen badau*" - (*Sekula belarra ebaki, eta eroan etxera eta hurrengo egunean mugitu eta zerean, ea zertzen den*)

"*Urreo egunen, txarri il gaur, ta bier imiñi, piperras eta gatzaas*" - (*Hurrengo egunean, txerria hil gaur, eta bihar ipini, piperrarekin eta gatzarekin*)

ustela: ustela

utze: hutsa

yakana: jakana, txarto eta gutxi jaten duena

21.2. KOLOREAK

asule: urdina

"*Ori esta berde, ori da asule*" - (*Hori ez da berdea, hori da urdina*)

baltza: beltza

"*Baltzaran bat yayoten basan pentzateun berana estala ta ill intteun*" - (*Beltzen bat jaiotzen bazen pentsatzen zuen berarena ez dela eta hil egiten zuen*)

bellegi: beilegia, horia

"*Ori, bellegi antzeko da ori*" - (*Hori, beilegi antzekoa da hori*)

bellegiske: beilegixka

BERANGOKO HIZTEGIA

berde: berdea

"Gane, a, sera, tape baleko modun goyen, ta oya, ta lorasko berde ta gorri tte eukitteusen" - (Gaina, zera, tapa baleuka moduan goian, eta ohea eta lorezko berde eta gorri eta edukitzen zituen)

gorri: gorria

"Eta gero gorris pinta ta itteuresen batzuk" - (Eta gero gorriz pintatu eta egiten zuten batzuek)

gorriske, gorriste: gorrixka

grise: grisa

larrose: arrosa

marroya: marroia

"Bellegi esate san, oiñ esaten du marroya edo sera, len esate san bellegi" - (Beilegia esaten zen, orain esaten dugu marroia edo zera, lehen esaten zen beilegia)

nabarra: nabarra

pardu, pardo: nabarra

urdiñe: zuria, kolorgea; azalaren kolorgetasunaren gainean esaten da

"Bueno urdiñ urdin persona suriri esate yakon, eguski artu estaunari, itxure txarra dekonari, orrek ixete siren urdiñek" - (Beno urdin-uridin pertsona zuriari esaten zitzaion, eguzkia hartu ez duenari, itxura txarra daukanari, horiek izaten ziren urdinak)

suri: zuria

"Gurera etorte siren arto suriau, gorritxuau te illunau bere bai" - (Gurera etortzen ziren arto zuriagoa, gorritxoagoa eta ilunagoa ere bai)

"Baltza edo suri, oiñ, a, lobek eitten dau, ak suri eitten dau" - (Beltza edo zuria, orain, lobak egiten du, hark zuria egiten du)

"Orrek surik, portzelanaskok ixete siren" - (Zuri horiek, portzelanazkoak izaten ziren)

suriske: zurixka

21.3. GRADUATZAILEAK

Adjektiboaren graduatzaileak "ao, au", "egi", "en" eta "txu" dira; jarraian bakoitzaren erabileraren adibide batzuk ikusiko ditugu:

-ao/-au:

"Ori txarrau dau" - (Hori txarrago dago)

"Pastorek, e, es ona, baya aor, aurrerau daun etze batera etorte siren" - (Artzainak, ez hona baina haor, aurrerago dagoen etxe batera etortzen ziren)

"Emeko yantze, a, sueltuko, sera, ori Gipuskoako, ariñau da" - (Hemengo dantza, soltekoa, zera, Gipuzkoako hori, arinago da)

"Santageda lengo polittau iste san" - (Santa ageda lehengoa politagoa izaten zen)

"Bai emoten geuntzen baya anditxuauk, anditxuauk, aputxu bet anditxuauk eitten sienen, se drungulu astune da" - (Bai ematen genien baina handitxoagoak, handitxoagoak, apurtxo bat handitxoagoak egiten zirenean, ze drungulua astuna da)

baño/beño ... -ao/-au

"Au da andiau su baño" - (Hau da handiagooa zu baino)

"Lope baño eskasau dau beste bat" - (Lopea baino eskasagoa dago beste bat)

"Gosoau da labati pasako beste baño" - (Gozoagoa da labetik pasatukoa bestea baino)

"Ni txikerra ixte nitzten ta ero negin narras, ero negin ni baño sarrau danak" - (Ni txikerra izan nintzen eta eroan ninduen narrez, eroan ninduen ni baino zaharragoa denak)

"Ni beño aren gasteau da" - (Ni baino arean gazteagoa da)

askos/askosas ... -ao/-au

"Au da askosas andiau" - (Hau da askozaz handiagooa)

"Askos ariñau urteten dau" - (Askoz arinago irteten du)

"Aliminttu dekon lekuen, ariñau dator gora, askos ariñau!" - (Alimentua daukan lekuan, arinago dator gora, askoz arinago!)

"Len, a, mingotzau iste san, a, len eitte san txakoliñe asko bere" - (Lehen, mingotsagoa izaten zen, lehen egiten zen txakolina asko ere)

"Ori andi, palome beño askos andiao" - (Hori handia, usoa baino askoz handiagooa)

gero ... -ago

"Ari pere ya gero ta gitxiau" - (Haiek ere ja gero eta gutxiago)

BERANGOKO HIZTEGIA

zenbat ... -ago

"Senbest eta elixarau ba jente giau, sera" -
(Zenbat eta elizarago ba jende gehiago,
zera)

"Senbeste eta bedar giau, obeauk
labarako" - (Zenbat eta belar gehiago,
hobeak laberako)

-egi:

"Au da andiegi" - (Hau da handiegia)

"Beroegi dau" - (Beroegi dago)

lar...-egi:

"Ori da lar andiegi" - (Hori da lar
handiegia)

-en:

"Au da andiena" - (Hau da handiena)

"Ori da onena" - (Hori da onena)

"Ardau da txarrena" - (Ardaua da
txarrena)

"Bai, bai, kantza itte san asko, balientena
orretan egon sana ementxe, Oker
geittute otzena" - (Bai, bai, nekatu
egiten zen asko, ausartena horretan
egon zena hementxe, Oker deitzen
ziotena)

"Lurre labra ber da, eta oiñ, ba aprillen
akaburantz eta mayetzan asikera, da
onena erieteko indabak" - (Lurra laiatu
behar da, eta orain, ba apirilaren
amaierarantz eta maiatzaren hasieran,
da onena erieteko indabak)

"Ama lotu san alargune, eta etor siren ona,
beste aldera, se emen egote san beran
anaje sarrena" - (Ama lotu zen alargun,
eta etorri ziren hona, beste aldera, ze
hemen egoten zen beraren anaia
zaharrena)

alík... -en

"Eta botaten dun, sera, ote, eta, an, a,
garnues ta satza intten san, satza alík
geyen intte san se solo asko okitten
gendun, esta?" - (Eta botatzen genuen,
zera, otea, eta, han, gernuarekin eta
satsa egiten zen, satsa ahalík gehien
egiten zen ze soro asko edukitzen
genuen, ezta?)

txu:

"Ene otzatxu dekosu aurpegi" - (Ene
hoztxu daukazu aurpegia)

22. ADITZONDOAK

Batu ditugun aditzondoak sailkatzeko euron
esangura hartu dugu oinarritzat. Era
honetara, atal honetako azpi-atalak denbora
aditzondoak, leku eta kokaguneak, modu
aditzondoak, maila aditzondoak,
zenbatekoak eta aditzondo konposatuak
izango dira.

22.1. DENBORA ADITZONDOAK

ariñ: laster

"Askos ariñau urteten dau" - (Askoz arinago
irteten du)

"Aliminttu dekon lekuen, ariñau dator gora,
askos ariñau!" - (Alimentua daukan
lekuan, arinago dator gora, askoz
arinago!)

arten: artean, lehenago

"Arten igual eingo euren baya nik estot esetu
ori" - (Artean beharbada egingo zuten
baina nik ez dut ezagutu hori)

"Ori bide in dana da, amabos bat urte ingeru,
arten esta egon biderik" - (Bide hori egin
dena da, hamabost bat urte inguru, artean
ez da egon biderik)

aspaldi, aspaldiñ: aspaldi

"Oiñ, a, guren aspaldiko urtetan esta etorri
baya bai, bai, a emeti asko ibiltte san" -
(Orain, gurean aspaldiko urteetan ez da
etorri baina bai, bai, hura hemendik asko
ibiltzen zen)

aton, atoan: atoan, behingoan, berehala

"Bai, bai, bai, aton ganadu, deskuidaten
basara aton" - (Bai, bai, bai, atoan
ganadua, deskuidatzen bazara atoan)

"Es, estake pasa, eyaken pasa eser, se gero
aton yon serara ta, baya in ber da ayes,
ebai, korte bat kutxilloas, odola atarateko"
- (Ez, ez zaie pasatu, ez zitzaien pasatu
ezer, ze gero atoan joan zerera eta, baina
egin behar da aiaz, ebaki, ebaki bat
aiztoarekin, odola ateratzeko)

atxiñe: antzina

"Atxiñe afesiño ixete san" - (Antzina
zaletasuna izaten zen)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Atxiñe ingo siren baya nire sasoyan es" -
(Antzina egingo ziren baina nire sasoiaren ez)

aurten: aurten

"An aldeatzen, ondikarren aurten bere pentzaten dot in dala txakoliñe" - (Han baserrian oraindikarren aurten ere pentzatu du egin dela txakolina)

"Aurten irakas ein du" - (Aurten irakin egin dugu)

barris: berriz, berritri

"Karo kentzen dake oiñ, gero negun entradarako barris asi te ardi egon diton, ba fuerte, ondo tapata" - (Jakina kentzen zaie orain, gero neguan hasierarako berriz hasi eta ardi egon dadin, ba indartsu, ondo tapatuta)

baten: baten

"Baten, nire osabek esausten, gaur yon ber du Mungire, ni posik" - (Baten, nire osabak esan zidan, gaur joan behar dugu Mungiara, ni pozik)

beñ, baiñ: behin

"Orrekas gauen yo nitzen ni beste baiñ, orreas kuadrilleas, gaues yo nitzen" - (Horiekin gauean joan nintzen ni beste behin, talde horrekin, gauez joan nintzen)

"Nik kosi nun beñ ure" - (Nik hartu nuen behin ura)

belu: belu, berandu

"Yon siñen belu etzera" - (Joan zinen belu etxera)

berandu: belu, berandu

"Karo egote sirelakon berandutxu ereintte" - (Jakina egoten zirelako berandutxo ereinda)

beti: beti

"Gero samarkotan ta beti yoten giñen, a, konbidedu" - (Gero San Markoetan eta beti joaten ginen, gonbidatu)

"Len beti ixete san ganadu gortatan" - (Lehen beti izaten zen ganadua kortetan)

"Nire amak beti ite ixen deu" - (Nire amak beti egiten izan du)

bider: bider

"Iru bider eta gero eitteun orrotza pasa andi serati" - (Hiru bider eta gero egiten zuen orratza pasatu handik zeretik)

"Senbe pider pentza dot! ia no takixen aren bertzok" - (Zenbat bider pentzatu du! ea nork dakizkien haren bertsoak)

"Nik makiña bat bider esan dotzet oneri, bat yan ingo neuke giau es ikustearren" - (Nik makina bat bider esan diot honi, bat jan egingo nuke gehiago ez ikustearren)

bien bittarten: bien bitartean

birriten: birritan

"Alan ule lusekas ta etorten ixen da, etor da ona birriten gixon bat" - (Hala ile luzeekin eta etortzen izan da, etorri da hona birritan gizon bat)

egunaro: egunero

"Nik etzen sekule estot esatu ori, baya or auki du guk besino bat il sana, a, egunaro egunaro, artu besartakade bedarra, eta beti ibiltte san erreka eskiñetati, ta ak eitteusen botikak" - (Nik etxean sekula ez dut ezagutu hori, baina hor eduki dugu guk auzo bat hil zena, egunero-egunero, hartu besartakada belarra, eta beti ibiltzen zen erreka bazterretan, eta hark egiten zituen botikak)

egundo, eguno: egundo

"Egundo estot ikusi" - (Egundo ez dut ikusi)

"Olaurik estot eguno entzun nik" - (Holakorik ez dut egundo entzun nik)

"Ori esta fasil fasil, ni nauk estot eguno eiñ" - (Hori ez da erraz-erraza, nik neuk ez dut egundo egin)

eguno beti: beti

"Nik gabonatan esetu dot besegu, turroya esetu dot eguno beti" - (Nik gabonetan ezagutu dut bisigua, turroia ezagutu dut egundo beti)

en jeneral: gehienetan

"Emen deko punte bat, burnisko ixeten da, eta onek eitte sittusen en jeneral ikoas" - (Hemen dauka punta bat, burdinazkoa izaten da, eta honek egiten zituen gehienetan ikoarekin)

ensegida: behingoan

"Ordun auri saparrade itte aunen ensegida orra yote siren" - (Orduan euri zaparrada egiten zuenean behingoan horra joaten ziren)

"Ensegida dau Getxo" - (Behingoan dago Getxo)

"Ure ensegida deku" - (Ura behingoan daukagu)

ensegidakon: behingoan

BERANGOKO HIZTEGIA

gayenen: gehiengan

gayenetan: gehienetan

"Gayenetan gauk yakitten gendun" -
(Gehienetan geuk jakiten genuen)

gero: gero

"Gero errin urten gendun, lelengo estaitt ixen basan Sopelan eta gero Berangon bai" - (Gero herrian irten genuen, lehenengo ez dakit izan zen Sopelan eta gero Berangon bai)

goxeti: goizetik

"Aittek gure deu etzera etor deitten goxeti" - (Aitak gura du etxera etor dadin goizetik)

"Goxeti espadator estu ikusten" - (Goizetik ez badator ez dugu ikusten)

ies: iaz, igaz

"Gero ies yausi in san" - (Gero iaz jausi egin zen)

lantzen beñen, lantzen biñen, lantzemiñen: lantzean behin

"Berak pastorek edo olan, lantzen beñen igual, ba baten bateri emoteutzen ba artxo bat" - (Berak artzainak edo hola, lantzean behin beharbada, ba baten bati ematen zion ba artxo bat)

"Lantzemiñen ikusten dire, aurten estoas ikusi" - (Lantzean behin ikusten dira, aurten ez ditut ikusi)

laster: laster

"Apur bet gora bera bai se ya ganadu, ya desosega itten da, ya asten da mobiminttues batera bestera, batera bestera, ta koño ya laster ein ber dau" - (Apur bat gora behera bai ze ja ganadua ja artega egiten da, ja hasten da mugimenduarekin batera bestera, batera bestera, eta ño ja laster egin behar du)

len: lehen

"Etzen es, etzen len bai, len, a, atxiñe aittek esate auneti bai" - (Etxean ez, etxean lehen bai, lehen, antzina aitak esaten zuenez bai)

lengo aldiñ: lehengo aldian

"Onek etor dire lengo aldin belu" - (Hauek etorri dira lehengo aldian belu)

lengon: lehengoan

lengunen: lehengo egunean

nos: noiz

"Pasa dan asten edo, nos in dau gure mutillek?" - (Pasatu den astean edo, noiz egin du gure mutilak?)

nosepeiñ, nosipiñ: noizean behin

"Ondiñokarren solo taus or, urteten daude sepak sarrak, nosepeiñ urten eitten daude" - (Oraindikarren soroak daude hor, irteten dute ondoek zaharrek, noizean behin irten egiten dute)

nosikuandon, nosikandon: noizean behin

"Bai nosikuandon urten daiñ, e, ia badau esbadau, urteten bayaun urek" - (Bai noizean behin irten dezan, ea dagoen ez dagoen, irteten bazuen urak)

ointzu: oraintsu

"Orrek auki daure, arraba bat pere eskondute, ointzu il da" - (Horiek eduki dute, arreba bat ere ezkondata, oraintsu hil da)

oiñ, oraiñ: orain

"Oiñ, e, errote dau" - (Orain, errota dago)

"Ori ixengo da kasik, a, oiñ, a, sarrenataringo" - (Hori izango da kasik, orain, zaharrenetarikoa)

"Ondo pasaten gendun baya, esta ixen orain dan modun" - (Ondo pasatzen genuen baina, ez da izan orain den moduan)

ondikarren, ondiñokarren, oniñokarren: oraindikarren

"Ondikarren badator bataren bat" - (Oraindikarren badator baten bat)

"Ondikarren aor bere badaus" - (Oraindikarren haor ere badaude)

"Nik ondiñokarren, jangoikori grasik, ondiñokarren badekot" - (Nik oraindikarren, Jaungoikoari eskerrak, oraindikarren badaukat)

ondiño, oniño: oraindino

"Baya diño amak ese, yon sirela ba ondiño eskontzeko, solteru dausela" - (Baina dino amak eze, joan zirela ba oraindino ezkontzeko, ezkongaietan daudela!)

oraintzu, ontzu: oraintsu

"Aurten estaitt etor badire baya ontzurarten on dire etorten orrek" - (Aurten ez dakit etorri diren baina oraintsura arte egon dira etortzen horiek)

ordun: orduan

"Ordun bere etorte sanen gogor itte siren or" - (Orduan ere etortzen zenean gogor egiten ziren hor)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Okelatzu beye, ordun bere bosteun kilo okiusen ganen beyek" - (Okelatsua behia, orduan ere bostehun kilo eduki zituen gainean behiak)

"Esta ni tiñotena ordun" - (Ez da nik dinodana orduan)

sarri: sarri

"Orrek kuadrillak, ba sarri etorte dire ona" - (Lagun talde horiek, sarri etortzen dira hona)

sarritten: sarritan

"Gauk txorik kusteko ta ibiltten gendusen guk, a, sarritten, gu gastek isten gintzesenen, a, tejabanan olan, a, ganadun bekorotza edo olan, a, botate sanen negun, edurre edo itteunen garbittu, eta imiñi olau batzuk eta an serak kusten" - (Geuk txoriak harrapatzeko eta erabiltzen genituen guk, sarritan, gu gazteak izaten ginenean, tejabanan hola, ganaduaren bekorotza edo hola, botatzen zenean neguan, elurra edo egiten zuenean garbitu, eta ipini holako batzuk eta han zerak harrapatzen)

"Sarritten ote nas adi" - (Sarritan egoten naiz adi)

segidun: segituan

"Iru egunen edo olan artu segidun, bi edo iru egunen, eta ostabe itxi se espabe artxen badosu aste baten segidun igual esin sara ibilli bere" - (Hiru egunean edo hola hartu segituan, bi edo hiru egunean, eta ostera ere utzi ze ezpabere hartzen baduzu aste baten segituan beharbada ezin zara ibili ere)

sekule: sekula

"Estot entzun sekule" - (Ez dut entzun sekula)

"Ni enas yon sekule bere, baya badakitt ori" - (Ni ez naiz joan sekula ere, baina badakit hori)

22.2. LEKUA-KOKAGUNEAK

akabun: amaieran, azkenean

"Irakas eta gero oiñ akabun amarraten gendun saku bet, eta sakues, baya saku busti ber da sarri" - (Irekin eta gero orain azkenean lotzen genuen zaku bat,

eta zakuarekin, baina zaku busti behar da sarri)

albo: alboa

"Albora datosenen, a, danba! burun, a, segidun emoten deutze txerpeas ta bota" - (Albora datozenean, danba! buruan, segituan ematen die txerparekin eta bota)

"Emen ertzan, erdiñ, albotan dustitten deko, are arri deko dusti" - (Hemen ertzean, erdian, alboetan guztietan dauka, hare-harria dauka guztia)

"Etze barri deke ondon eintte, eta etze sar bat, sarra deke albon, atzekalden" - (Etxe berria daukate ondoan eginda, eta etxe zahar bat, zaharra daukate alboan, atzeko aldean)

alde: aldea

alderdi, alderri: alderdia

"Bera beste alderdire do" - (Bera beste alderdira doa)

"Ni orko nas, eta emeti alden, gu biste gintzen gu, eta bayek, lau edo bost bai beti egon dire, beste alderdiñ, ixeko biste san, eta bai bet aukitte yeun" - (Ni horkoa naiz, eta hemendik aldean, gu bizitzen ginen gu, eta behiak, lau edo bost behi beti egon dira, beste alderdian, izekoa bizitzen zen, eta behi bat edukitzen zuen)

"Baya es noperan alderrirantza buru, e? buru arantza daula" - (Baina ez norberaren alderdirantz burua, e? burua harantz dagoela)

aparte: aparte

"Katxarrerri pere euki eudesen aparte, orrek gausek eitteko, e?" - (Tresneriak ere eduki zituzten aparte, gauza horiek egiteko, e?)

asao, asau: asago

"Sarri yote nitzen, an asau dekus serak eta, ia ote asi bada aspitterako ebaitteko ta seran" - (Sarri joaten nintzen, han asago dauzkagu zerak eta, ea otea hasi den azpitarako ebakitzeko eta zerean)

"Emen, a, seran, ote eroteko asao yoten gintzen" - (Hemen, zerean, otea eroateko asago joaten ginen)

aspi: azpia

"Almasenan aspiñ, bertan egon san errementari bean" - (Biltegiaren azpian, bertan egon zen errementari behean)

"Seran aspiñ, aukiun alau bultu bet" - (Zeraren azpian, eduki zuen halako handitu bat)

BERANGOKO HIZTEGIA

atze: atzea

"Segidu eintten de norberan atzen" -
(Segitu egiten dute norberaren atzean)

aurre: aurrea

"Gure aurren estaude esaten, es" - (Gure aurrean ez dute esaten, ez)

barrena: barrena

barru: barrua

"Pasa sittese barrure, se gero, etze sarra bai, baya barri i euden" - (Pasa zaitezte barrura, ze gero, etxe zaharra bai, baina berria egin zuten)

bea: behea

"Imintte san bea, garbi garbi bea" -
(Ipintzen zen behea, garbi-garbi behea)

"Ba andi eta gero Goyerrire, yonta arantza an bean deko alau tabernatxu bet edo" -
(Ba handik eta gero Goierrira, joanda harantz han behean halako tabernatxo bat edo)

bitarte, bittarte: bitartea

"Egun beten, barrioko mutil gaste batek, ba belu i yakon basora egurre bille yoteko, ta se i eun? artu alanbre bittarteti tte piñudi bota" - (Egun baten, auzoko mutil gazte batek, ba belu egin zitzaion basora egurra bila joateko, eta zer egin zuen? hartu alanbre bitartetik eta pinudia bota)

erdi: erdia

"Kasu eterako au da arri, esta? baya onen pare ingerurarten, surittu ber dau, es kanporarten baya bai erdi ingerurarten" - (Kasu baterako hau da harria, ezta? baina honen pare ingururaino, zuritu behar du, ez kanporaino baina bai erdi ingururaino)

gane: gaina

"Gero errotara eroten gendun aston ganen, edo sentalle! eta esaten gendun, bueno esteku aren bere etzen eta emoixus bost kilo gero deskontako sus andi" - (Gero errotara eroaten genuen astoaren gainean, edo zentaila! eta esaten genuen, beno ez daukagu arean ere etxean eta eman itzazu bost kilo gero deskontatuko dituzu handik)

goye: goia

"Or goyen, aor dau" - (Hor goian, haor dago)

ingeru, ingiru: ingurua

"Fonso biste san ingiruti eote san ori, olau makiña bat" - (Fonso bizitzen zen ingurutik egoten zen hori, holako makina bat)

"Se edade aukiko dau ba? or, a, otamar urte ingiru?" - (Ze edade edukiko du ba? hor, hogeita hamar urte inguru?)

"Oin bost urte ingiru il dako ama" - (Orain bost urte inguru hil zaio ama)

kanpo: kanpoa

"Kanpoti ikusten dire" - (Kanpotik ikusten dira)

musturre: punta

"Gure aspire ixen san, ganeko ixen san diferente ola, olan gogorra, ta an musturtxu beten a ogi ote san" - (Gure azpira izan zen, gainekoa izan zen desberdina ohola, hola gogorragoa, eta han musturtxo baten ogi hura egoten zen)

ondo: ondoa

"An, a, aurreko dau aldea etze, bertan ondon dau aldea etze" - (Han, aurrekoa dago baserria, bertan ondoan dago baserria)

paraje: paraje, hurbil.

"Gure etze dau paraje" - (Gure etxea dago paraje)

"Guk parajeau deku Berango emen" - (Guk parajeago daukagu Berango hemen)

pare: pare

"Gasolinere bakixu non daun, esta? ba orren paren dau" - (Gasolindegia badakizu non dagoen, ezta? ba horren parean dago)

punte: punta, muturra

"Oñaspin bere para litte ta, osten bere, atzamarran puntan bere igual ba inkonaten badatzu odolbatu" - (Oinazpian ere para liteke eta, ostean ere, atzamarren puntan ere beharbada ba zoltzen bazaizu odol batua)

tarte: tartea, bitartea

"Au, a, arto ta indabe, ta orrek, a, eraitteko eiñ, a, oneas eiñ, a, sulo, baterik bestera, baterik bestera, ta gero, onek itxitteun an, a, tarten eraitte san, a, arto ta indabe eraitte siren, a, onen tarten" - (Hau, artoa eta indaba, eta horiek, ereiteko egin, honekin egin, zuloa, batetik bestera, batetik bestera, eta gero, honek uzten zuen han, tartean ereiten zen, artoa eta indaba ereiten ziren, honen tartean)

Erakusleetatik erakartzen diren leku aditzondoetan arruntak, indartuak,

BERANGOKO HIZTEGIA

berrindartuak eta "a-" gehitzen dutenak bereiz emango ditugu.

| HEMEN | HOR | HAN |
|---------|----------|---------|
| emen | or | an |
| ona | orra | ara |
| emeti | orti | andi |
| emeko | orko | ango |
| onantza | orrantza | arantza |
| onaño | orraño | araño |

Adlatibo bukatuzkoan *onarte(n)*, *orrate(n)* eta *ararte(n)* ere bai.

| HEMENTXE | HORTXE | HANTXE |
|----------|---------|---------|
| ementxe | ortxe | antxe |
| onatxe | orratxe | aratxe |
| emetitxe | ortitxe | anditxe |
| emekotxe | orkotxe | angotxe |

| BERTAN |
|-----------|
| bertan |
| bertara |
| bertati |
| bertako |
| bertaraño |

| HAMEN | HAOR | HAAN |
|-------|-------|-------|
| amen | aor | aan |
| aona | aorra | aara |
| ameti | aorti | aandi |
| ameko | aorko | aango |

Galdetzaileak

| |
|-----------------|
| non |
| nora |
| nondi |
| nongo |
| norantza |
| noraño/norarten |

23.3. MODU ADITZONDOAK

adi: adi, begira

agarradan: borrokan

"Urte gustittan, Bermiokok eta emekok agarradan beti" - (Urte guztietan, Bermeokoak eta hemengoak borrokan beti)

agirin: agirian

"Eta bedarra kentzen danen, ostabere ba lotxen direles, a, agirin igual sustrayek edo serak" - (Eta belarra kentzen denean, osterara ere ba lotzen dinez, agirian beharbada sustraiak edo zerak)

aiden, airen: airean

"Gero aldatzati olan, aiden yoten da andi bera" - (Gero aldatsetik hola, airean joaten da handik behera)

albos: alboz

"Oin bera adi tte imintten dire, atxiñe albos" - (Orain behera adi eta ipintzen dira, antzina alboz)

alrebes: aldrebes

antzen: antzean

"Apur bet, justu antzen ibilli nitzen" - (Apur bat, justu antzean ibili nintzen)

apropos: apropos

"Atarigo bat apropos eiñ, ta puntak amarra ondo soka sera bateas, ta aas garbittu labe, autze ta, sera, txingerrak eta kendu" - (Haietariko bat apropos egin, eta puntak lotu ondo soka zer batekin, eta harekin garbitu labea, hautsa eta, zera, txingarrak eta kendu)

artesen: artezean

arto yorran: artajorran

"Or daun etzalde baten eitte auren seguru bere, yote siren andra kuadrille, arto yorran" - (Hor dagoen baserri baten egiten zuten seguru ere, joaten ziren andre taldea, arto jorran)

asarre: haserre

"Gure aitte difuntu, a, beti ibiltte san asarre" - (Gure aita defuntua, beti ibiltzen zen haserre)

astrapala: karraka, arineketan

"Karraderan sabiltzesenen ta, yausi edo torpetu edo, astrapala dabil ta" - (Karraderan zabiltzanean eta, jausi edo dorpetu edo, astrapala dabil eta)

atzenen: atzenean

"Pulpe erremolatxana da, asukere itten danen, a, atzenen lotxen dana, sera, a da pulpe" - (Pulpa erremolatxarena da, azukrea egiten denean, atzenean lotzen dena, zera, hura da pulpa)

atzera: atzera, berriz

"Aitte etor sanen batu eusen ardi dustik atzera" - (Aita etorri zenean batu zituen ardi guztiak atzera)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Nik esaten dot ese, atzera bixiko, yayoko banitzeke atzera yongo nitzeteke" - (Nik esaten dut eze, atzera biziko, jaioko banintz atzera joango nintzateke)

atzes: atzez

auskera: euskeraz

"Emen erdera inten du giau auskera baño, asko inten du erdera guk" - (Hemen erdaraz egiten dugu gehiago euskaraz baino, asko egiten dugu erdaraz guk)

barauten: baraurik

bearren: beharrea

"Ni gasterik, a, kanpon ibil nas bearren" - (Ni gazterik, kanpoan ibili naiz beharrea)

"Orrek dabiltes bearren" - (Horiek dabilza beharrea)

"Oneri asko gustaten dako au, eta igual sartuko da emen bearren, edo gustaten badako edo a edo ori edo" - (Honi asko gustatzen zaio hau, eta beharbada sartuko da hemen beharrea, edo gustatzen bazaio edo hura edo hori edo)

belaunbiko, beluneko: belauniko

"Eta yote giñen trapu sar bateas belaunbiko parateko" - (Eta joaten ginen trapu zahar batekin belauniko paratzeko)

berbas: berbaz

"Panaderun begire egon gare ba, berbas an" - (Okinaren begira egon gara ba, berbaz han)

berbetan: berbetan

beres: berez

"Badeke beres" - (Badaukate berez)

burus: buruz

"Nik burus eitteko kontuk ensegida ataraten doas, e?" - (Nik buruz egiteko kontuak behingoan ateratzen ditut, e?)

dandarres: dandarrez

"Altza in ber da, se karo! edoselau kadere ekarri guixeneskero ba, noperak ikusitte ba, igual imintten dosu amen sillan ganen, baya atzeko kadere san, eta bitxo sati itzela ta, ekarraun sartu san ta, alaseko sulo ta materi dandarres" - (Altxatu egin behar da, ze jakina! edozelako hanka ekarri gura izanez gero ba, norberak ikusira ba, beharbada ipintzen duzu hamen aulkiaren gainean, baina atzeko hanka zen, eta pizti zati itzela eta, ekarri zuen

sartu zen eta, halaseko zuloa eta materia dandarrez)

derrepente: bat-batean

derrigor: derrigor

"Bai esetu derrigor ein ber dosu" - (Bai ezagutu derrigor egin behar duzu)

egas: hegaz

egunes: egunez

"Gautxori orreri imiñi eutzen, imiñi eutzen usena, bakixu seittearrik? orrek egunes lo itteun, ta gaues ibiltte san leku dustitteti" - (Gautxori horri ipini zioten, ipini zioten izena, badakizu zergatik? horrek egunez lo egiten zuen, eta gauez ibiltzen zen leku guztietatik)

"Au egunes yoten ixen da" - (Hau egunez joaten izan da)

erdera: erdaraz

eskapan: eskapan

euskera: euskaraz

"Emen itten da berba euskera" - (Hemen egiten da berba euskeraz)

"Euskera esan egoten maldesiño ba pere" - (Euskaraz ez zen egoten madarikazio bat ere)

gedarres: gedarrez

geldi: geldi

"Orrek lapak, orrek geldi daus!" - (Lapa horiek, horiek geldi daude!)

geldiñ: geldian

geyes, gayes: deiez

"Eta urteteun orra ganera, eta karo yakitteun, emeti edo orti edo, paraje egongo dala ta, gayes" - (Eta irteten zuen horra gainera, eta jakina jakiten zuen, hemendik edo hortik edo, paraje egongo dela eta deiez)

gusture: gustura

itzelen: itzelean

iruntzittara: iruntzitarra, azpikoz gainera

justo: justu

"Apur bet, justo antzen ibilli nitzen" - (Apur bat, justo antzean ibili nintzen)

"Esta justo, e?" - (Ez da justua, e?)

karra: karra, karradera, korrika

karraderan: karraderan, korrika

"Asi san txakurre karraderan" - (Hasi zen txakurra karraderan)

"Ak eron, artu saku te etzera, karraderan" - (Hark eroan, hartu zakua eta etxera karraderan)

kasan: ehizan

konforme: konforme, ados

BERANGOKO HIZTEGIA

kontentu: pozik

"Eta kontentu osasuneas oiñ arten on garelakon" - (Eta pozik osasunarekin orain arte egon garelako)

kontus: kontuz

"Kontus e! aittu ser daun goyen" - (Kontuz e! aditu zer dagoen goian)

"Idikes bere kontus ibili ber da se batzuten, kateak apurtuten dires" - (Idiekin ere kontuz ibili behar da ze batzuetan, kateak apurtzen dira)

libre: libre, aske

"Ordun gure yeunek estudia, libre oki yeun" - (Orduan gura zuenak ikasi, libre eduki zuen)

"Kamare beti auki du libre dana" - (Kamara beti eduki dugu libre dena)

lo: lo

"Au seña dau lo oiñ or" - (Sein hau dago lo orain hor)

"Nire ama esta yon iños lo, esan barik" - (Nire ama ez da joan inoiz lo, esan barik)

lotan: lotan**makal:** makal, gaixorik

"Il san bat, e? on san makal eta, lagune berana" - (Hil zen bat, e? egon zen makal eta, laguna berarena)

martxan: martxan

"Beste deke martxan, rapa-ropa! ta urun asko iten dau, asko!" - (Bestea daukate, rapa-ropa! eta irin asko egiten du, asko!)

narras: narras

"Ni txikerra ixte nitzten ta ero negin narras, ero negin ni baño sarrau danak" - (Ni txikerra izan nintzen eta eroan ninduen narrez, eroan ninduen ni baino zaharragoa denak)

nasten: nahastean

"Gero parrilla bat imintteuren ta ara botateuren, sera, arri, kapa bat, gero egurre, edo sera nasten, ta gero ostabere beste kapa bat, ta aspitti, a, labaspitti sartzeko, egurre" - (Gero parrilla bat ipintzen zuten eta hara botatzen zuten, zera, harria, geruza bat, gero egurra, edo zera nahastean, eta gero ostera ere beste geruza bat, eta azpitik, labe azpitik sartzeko, egurra)

negarres: negarrez

"Esaun okitten tranbireko dirurik, ta negarres" - (Ez zuen edukitzen tranbireko dirurik, eta negarrez)

"Ensegida etorko da negarres, ainke in dotzola ta, agiñe tekos orrek fiñek eta, sorrotzak" - (Behingoan etorriko da negarrez, haginaka egin diola eta, haginak dauzka horrek finak eta, zorrotzak)

nekes: nekez**normalen:** normalean

"Normalen kanpoko ganaduk, geyenak yaten deittue" - (Normalean kanpoko ganaduak, gehienek jaten dituzte)

"Normalen ganaduk txarra bada, estau yaten, e?" - (Normalean ganaduak txarra bada, ez du jaten, e?)

normalmente: normalean**oñes:** oinez

"Atatan oñes asten direnen" - (Atatan oinez hasten direnean)

"Len oñes yoten gintzesen emeti gu" - (Lehen oinez joaten ginen hemendik gu)

otabaten. otea ebakitzen

"Eta etor san menditti, otabaten egonta" - (Eta etorri zen menditik, otea ebakitzen egonda)

peskan: arrantzan

"Andi aurrera baja gintzen, a, olan itxosora peskan" - (Handik aurrera baxatu ginen, hola itsasora arrantzan)

sabalen: zabalean

"Berotan bertan, ta imintten daure maya baten alan sabal sabal sabalen ta an otzittuten da" - (Berotan bertan, eta ipintzen dute mahai baten hala zabal-zabal-zabalean eta han hozten da)

searren: zeharrean, leununean**segidun:** segituan

"Segidu segidu segidun len, goxen asi eta arik eta gauerarten" - (Segitu segitu segituan lehen, goizean hasi eta harik eta gauera arte)

segun: segun

"Umetoki segun, batzuk botaten daue beste batzuk estaue botaten" - (Umetokia segun, batzuek botatzen dute beste batzuek ez dute botatzen)

seguru: 1. ziur. 2. antza denez

"Orren ama san seguru solon, a, karta yokon ibiltte sana" - (Horren ama zen seguru soroan, karta jokoan ibiltzen zena)

seguru bere: antza denez

BERANGOKO HIZTEGIA

"Ak seguru bere kartak eroteusen eskun, yokon in ber san" - (Hark seguru ere kartak eroaten zituen eskuan, jokoan egin behar zen)

selau: zelakoa

selan: zelan

soltu: solte

trankil: trankil

txikon: txikoan, lepoan, andan

"Gero matza batxe san eta botate siren, sestokas ekarten gendun txikon eta, jentek lagundu itte yoskun, ausok eta serak" - (Gero mahatsa batzen zen eta botatzen ziren, zaranarekin ekartzen genuen txikoan eta, jendeak lagundu egiten zigun, auzoek eta zerak)

yantzan: dantzan

"One pere yon dire yantzan ta olan" - (Hauek ere joan dira dantzan eta hola)

"Emen esales frontoiñ, a, oten, talleturik, ba emen denpora ona inteunen, ta ordun auri asko inteun ta Sopelara yantzan" - (Hemen ez zenez frontoian, egoten, teilaturik, ba hemen eguraldi ona egiten zuenean, eta orduan euri asko egiten zuen eta Sopelara dantzan)

yorran: jorran

Ondoko taulan erakusleetatik erakartzen diren modu aditzondo arruntak eta indartuak ikus daitezke:

| 1 | 2 |
|---------|---------|
| olan | alan |
| olantxe | alantxe |

| 1 | 2 |
|-------|-------|
| olau | alau |
| aolau | aalau |

22.4. MAILA ADITZONDOAK

alaseko: haren handia, haren tamainakoa

"Gero espalda dustin ataraten deutze alaseko suldarra" - (Gero bizkar osoan ateratzen diote halaseko zuldarra)

"Belorrotza, alaseko sera iste san" - (Belorrotza, halaseko zera izaten zen)

apur bet: apur bat

"Normalen da apur bet peligroso" - (Normalean da apur bat arriskutsua)

aputxu bet: apurtxo bat

"Bai emoten geuntzen baya anditxuauk, anditxuauk, aputxu bet anditxuauk eitten sienen" - (Bai ematen genien baina handitxoagoak, handitxoagoak, apurtxo bat handitxoagoak egiten zirenean)

atañoko: hatainokoa, hainbesterainokoa

"Esta urte asko, asko, asko, atañoko ori, errogatibana, e?" - (Ez da urte asko, asko, asko hainbesterainoko hori, errogatibena, e?)

bastante: nahikoa

"Aitte difuntuk bastante amistade andi okitteun te, kamioya okitteun, ta ak eitteun kare" - (Aita defuntuak nahiko adiskidetasun handia edukitzen zuen eta, kamioia edukitzen zuen, eta hark egiten zuen karea)

dustis: guztiz

"Ori, dustis galdu da" - (Hori guztiz galdu da)

itzel: itzel

"Niri itzel gustaten yasten" - (Niri itzel gustatzen zitzaidan)

kompleto: guztiz

lar: lar

"Ori da lar andiegi" - (Hori da lar handiegia)

"Erreta, eitte aun sue ta es lar erre, e?" - (Erreta, egiten zuen eta ez lar erre, e?)

"Dekon edaden lar dau ondo!" - (Daukan edadean lar dago ondo!)

naiko: nahikoa

"Etzerako naiko da" - (Etzerako nahikoa da)

olaseko: honen handia, honen tamainakoa

"Bengotzen eukitten gendun parre, itzela! eta olaseko mardok!" - (Bengoetxen edukitzen genuen parra, itzela! eta holaseko mardak!)

ondo: sano

"Niri amama il yasten ondo gaste" - (Niri amama hil zitzaidan ondo gaztea)

orren: horren

"Au etze esta orren andi" - (Etxe hau ez da horren handia)

"Iños enas egon orren ondo" - (Inoiz ez naiz egon horren ondo)

sano: sano

"Sano gustaten dat" - (Sano gustatzen zait)

selaseko: zelasekoa

"Aittu selaseko gixona daun an!" - (Aittu han dago iretargia, aditu zelaseko gizona dagoen han!)

BERANGOKO HIZTEGIA

23.5. ZENBATEKOAK

ainbest: hainbat

"Bai errotak ainbest!" - (Bai errotak hainbat)

"Emen, a, errotak, a, au sera daun lekun oiñ, selan geittuten da ori?, Itze, Errotatxu aor bean, gero arantza errirantza, Pose, errotak ainbest esatu doas emen" - (Hemen, errotak, hau zera dagoen lekuan orain, zelan deitzen da hori? Itza, Errotatxu haor behean, gero harantz herrirantz, Poze, errotak hainbat ezagutu ditut hemen)

"Emen ainbest ganadu egon da beti" - (Hemen hainbat ganadu egon da beti)

ainbeste: hainbeste

"Ori ya ainbeste esta itten" - (Hori ja hainbeste ez da egiten)

"Sorri berde intten dako baya ainbeste estotzo atakaten" - (Zorri berdea egin zaio baina hainbeste ez dio erasotzen)

amaka: hamaika

aonenbeste: haonenbeste

"Ori ote san auneko aonenbeste, bost edo sei edo lau edo dana, auneko" - (Hori egoten zen ehuneko haonenbeste, bost edo sei edo lau edo dena, ehunekoa)

apur bet: apur bat

"Itxi ori or apur beten" - (Utzi hori hor apur baten)

aputxu bet: apurtxo bat

"Leku eskutun badau, igual dau aputxu bet ona adi" - (Leku ezkutuan badago, beharbada dago apurtxo bat hona adi)

aren: arean, zertxobait, apur bat

"Oin bere ikusten da aren baya gitxi" - (Orain ere ikusten da arean baina gutxi)

"Emen itten da aren eukera" - (Hemen egiten da arean euskara)

asko: asko

"Asko dau jente dakiña" - (Asko dago jendea dakiña)

"Ganaduntzeko, guren tonelada asko io da pentzue, asko" - (Ganaduentzat, gurean tona asko eho da pentsua, asko)

"Au erreke, emeti dona, or asko ote san" - (Erreka hau, hemendik doana, hor asko egoten zen)

bastante: nahikoa

"Kasu beteko aselge, ereintten da bastante" - (Kasu baterako azelga, ereiten da nahiko)

batzuk: batzuk

"Atxiñe alan ixen siren batzuk" - (Antzina hala izan ziren batzuk)

dana: dena

"Iñor bere esta danantzako ona, esta? baya guretzako ona ixen san" - (Inor ez da denetzako ona, ezta? baina guretzat ona izan zen)

derditxe: ugari, asko

dusti, gusti: guztia

"Au dusti sabalik itxi" - (Hau guztia zabalik utzi)

eskandalu: asko

"An Algorta paren Berangora eldu barik ein dires eskandalu, a, etzek" - (Han Algorta parean Berangora heldu barik egin dira asko, etxeak)

"Guk amarratza buf! eskandalu yaten ixen du" - (Guk hamarratza buf! asko jaten izan dugu)

garikok: garaikoak, gainerakoak

"Sopelan ya estekot lagunik, lotxen direnak nire edadekok, bi lotxen dire, garikok il dire" - (Sopelan ja ez daukat lagunik, lotzen direnak nire edadekoak, bi lotzen dira, garaikoak hil dira)

"Ser ingo su ba, garikori bere seoser etorriko dasku te" - (Zer egingo duzu ba, garaikoei ere zer edo zer etorriko zaigu eta)

garitteko: garaitekoa, gainerakoa

"Ademas imiñi esta bere lelengo kapatxu galtxe san, a, bedarra, osten garitteko esta galtxen" - (Gainera ipini ezta ere lehenengo geruzatxoa galtzen zen, belarra, ostean garaitekoa ez da galtzen)

geyena, gayena: gehiena

"Toneliko, emen dekusena tires, toneliko tire, geyen gustaten datenak" - (Tonelikoa hemen dauzkagunak dira, tonelikoak dira, gehien gustatzen zaizkidanak)

"Are arri ixete san gayena" - (Hare-harria izaten zen gehiena)

"Emen geyenak urten dere, aurok bakarrik" - (Hemen gehienek irten dute, eurek bakarrik)

giäu: gehiago

"Orrek ieten deu metro baño giäu" - (Horrek igaten du metro baino gehiago)

gitxi: gutxi

BERANGOKO HIZTEGIA

"Atxiñe ba jente gitxi egote san emen, se len Berangon nik esetu dotena, nik gerre aurrerarten, mille ta bosteun ingeru abitante oki eusen Berangok" - (Antzina ba jende gutxi egoten zen hemen, ze lehen Berangon nik ezagutu dudana, nik gerra aurrera arte mila eta bostehun inguru lagun eduki zuen Berangok)

gitxienez: gutxienez

inguru, ingeru: inguru

"Ak eitteun berantzako, aun de amabost, aun de ogei litro ingeru" - (Hark egiten zuen berarentzat, ehun eta hamabost, ehun eta hogeit hamar litro inguru)

lar, larregi: lar

"Emen dau jente lar" - (Hemen dago jende lar)

"Orrek gurek, saspi urtekok dana daki, lar daki" - (Horrek gureak, zazpi urtekoak dena daki, lar daki)

"Ba seoser deko barrun, edo larregi yan dau edo estabill ondo estomaguti" - (Ba zer edo zer dauka barruan, edo larregi jan du edo ez dabil ondo estomagoatik)

"Udebarrin bero lar emoten dotzo, ta orreaittik kentxen dake" - (Udaberrian bero lar ematen dio, eta horregatik kentzen zaie)

"Emen, a, makiñe bere, sartxen badosu apurtxu bet lar, ya ruuu! arri" - (Hemen, makina ere, sartzen baduzu apurtxo bat lar, ja ruuu! harria)

makiñe bat, makiña bat: makina bat

"Bai, makiña bat bider negar in dot nik errekan" - (Bai, makina bat bider negar egin dut nik errekan)

naiko: nahikoa

"Naiko da" - (Nahikoa da)

"Oneas naiko dot" - (Honekin nahikoa dut)

"Naiko diru dekot" - (Nahikoa dirua daukat)

naye: nahia, zenbanahi

"Ori bere emen ote ixen da naye ta estau ya" - (Hori ere hemen egoten izan da nahia eta ez dago ja)

"Oñes, a, soñu bies Katiketi jente naye, Poso Sabaleti oñes etor siela eskondu siren egunen esateun, orra, eta iru egunen on sirela ayes jenteas yaten" - (Oinez, soinu birekin Gatikatik jende

nahia, Pozo Zabaletik oinez etor zirela ezkondu ziren egunean esaten zuen, horra, eta hiru egunean egon zirela jende harekin jaten)

"Bai, eron doas naye" - (Bai, eroan ditut nahia)

onenbeste: honenbeste

"Gerra osten obliga intteuen gari kosten bere bai, onenbeste, a, kintel entrega ber diresela ayuntamintture" - (Gerra ostean behartu egiten zuten gari hartzen ere bai, honenbeste, kintal eman behar direla udaletxera)

orrenbeste: horrenbeste

"Emen es, emen esta iñ orrenbeste, baya, konbideduk, etze beterik!" - (Hemen ez, hemen ez da egin horrenbeste, baina, gonbidatuak, etxea beterik!)

pillo bat: pilo bat

"Ainbeste urtetan in dot ni pere, aunke gitxitxu, baya pillotxu bet, eiñ, ta erre" - (Hainbeste urtetan egin dut nik ere, gutxitxo izan arren, baina pilotxo bat, egin eta erre)

"Aittu, nauk ikus dot, e? amen ondon egon san, pillo bat arri, arri onek, a, olau andik" - (Aditu, neuk ikusi dut, e? hemen ondoan egon zen, pilo bat harri, harri hauek, holako handiak)

senbest, semest, senbet: zenbat, galdetzailea

"Semes tomate gurosu?" - (Zenbat tomate gura duzu?)

"Semes piper ber dosus?" - (Zenbat piper behar dituzu?)

senbeste: hainbeste

"Andabidek senbeste! senbeste andabide!" - (Andabideak hainbeste! hainbeste andabide!)

ugeri: ugarria

23.6. ADITZONDO KONPOSATUAK

bata batera: baten batera

"Orrek bados bata batera" - (Horiek badoaz baten batera)

eselan: ezelan

"Ori estosu ondo eingo eselan beres" - (Hori ez duzu ondo egingo ezelan ere ez)

iñon: inon

"Estot topa lekurik iñon beres" - (Ez dut topatu lekurik inon ere)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Esteue ikusi iñon beres" - (Ez dute ikusi inon ere)

"Ikusi dosu ori iñon?" - (Ikusi duzu hori inon?)

iños: inoiz

"Esaten deure txistu traga, entzun dosu iños? txistu traga, txistu traga" - (Esaten dute txistua irentsi, entzun duzu inoiz? txistua irentsi, txistua irentsi)

"Saltze niri estast gusta iños saltze, sera, txorison ixen esik" - (Saltsa niri ez zait gustatu inoiz saltsa, zera, txorizoan izan ezik)

"Iños entzun tzet nik amamari" - (Inoiz entzun diot nik amamari)

"Enas egon iños Donostiñ" - (Ez naiz inoiz Donostian)

"Olau gausarik estot iños ikusi" - (Holako gauzarik ez dut inoiz ikusi)

"Ori estator iños goxeti" - (Hori ez dator inoiz goizetik)

"Egon sara iños Durangon?" - (Egon zara inoiz Durangon?)

"Guren pasa da iños" - (Gurean pasatu da inoiz)

nonon: non edo non

"Ori nonon dau baya esin dot atrapa" - (Hori non edo non dago baina ezin dut harrapatu)

nonondik: non edo nondik

"Txorik ekar ber daure ori asi nonondik" - (Txoriek ekarri behar dute hazi hori non edo nondik)

nosgure: noizgura

"Nosgure etorri leitte" - (Noizgura etor liteke)

nosonos: noiz edo noiz

"Nosonos errekak garbitu ber direnen, konporte sarratxen da" - (Noiz edo noiz errekak garbitu behar direnean, konporta ixten da)

"Nosonos yon gare" - (Noiz edo noiz joan gara)

"Nosonos etorten da" - (Noiz edo noiz etortzen da)

"Nosonos ekar doste bai, baya ni neuk estot esetu, bai" - (Noiz edo noiz ekarri didate bai, baina nik neuk ez dut ezagutu, bai)

"Ori neu pere entzun dot nosonos" - (Hori neuk ere entzun dut noiz edo noiz)

selan edo alan: zelan edo hala

"Selan edo alan eingo du ondo" - (Zelan edo hala egingo dugu ondo)

selangure: zelangura

"Ori itten dot nik selangure" - (Hori egiten dut nik zelangura)

semesgure: zenbagura

"Ordun asi gintzesan ya kentxen se, ogi etorte san semesgure erosteko" - (Orduan hasi ginen ja kentzen ze, ogia etortzen zen zenbagura erosteko)

"Len esan egoten semesgure, ba gauk ereiten dun te etzen eiteun gure amak" - (Lehen ez zen egoten zenbagura, ba geuk ereiten genuen eta etxean egiten zuen gure amak)

24. ERAKUSLEAK

Azpi-atal honetan erakusleen gainean jaso ditugun informazioez osaturiko taulak emateko bereizi egingo ditugu arruntak, indartuak eta berrindartuak.

"A-" gehitzen duten erakusle guztiak jaso ez ditugun arren; hona hemen euron erabileraren gaineko adibide batzuk:

"Tronkok ebaitteko aor esetu neun, il san atxiñe, il san a, aonek tronkok ebaitten, bata goyen ta beste bean" - (Enborrak ebakitzeke haor ezagutu nuen, hil zen antzina, hil zen hura, enbor hauek ebakitzen, bata goian eta bestea behean)

"Ori teme sarritten ibiltten du ba, sarritten ibiltten du, se emen esaten dere, aone pere bai, one pere bai, oneri bere pasaten dako, arantza dosenen, estai ser, ta onantza datosenen estait nor" - (Gai hori sarritan erabiltzen dugu ba, sarritan erabiltzen dugu, ze hemen esaten dute, haonek ere bai, honek ere bai, honi ere pasatzen zaio, harantz doazenean, ez dakit zer, eta honantz datozenean ez dakit nor)

"Aunke eraiñ itteko, eta bai, aonek kusteko bere bai, askok estotzo itten, e?" - (Erein egiteko izan arren, eta bai, hauek harrapatzeke ere bai, askok ez dio egiten, e?)

"An, a, aurreko dau aldea etze, bertan ondondau aldea etze, ta an oten siren, a, bat, bi, iru, iru enbra, a, solterak oten siren an, ta arik aorretan solotan, ta ondo itteuren, e?" - (Han, aurrekoa dago baserria,

BERANGOKO HIZTEGIA

bertan ondoan dago baserria, eta han egoten ziren, bat, bi, hiru, hiru andrazko, ezkonbakoak egoten ziren han, eta haiek haorretan soroetan, eta ondo egiten zuten, e?)

“Amamak ak senbeste! Juana eĩn ein ber dostesu ba, eta aak, bereinketu eitteusen, a, sera dustik, eta botateun kas! botateun ara, eta kra! saltateun serak, eta an urteteun edo txarra dan edo ona dan, arik eta biotzan formek urten arten” - (Amamak hark hainbeste! Juana egin egin behar didazu ba, eta hark, bedeinkatu egiten zituen, zer guztiak, eta botatzen zuen kas! botatzen zuen hara, eta kra! saltatzen zuen zerak, eta han irteten zuen edo txarra den edo ona den, harik eta bihotzaren formak irten artean)

Erakusle arrunten taulak

| HAU | HORI | HA |
|-----------|------------|------------|
| au | ori | a |
| onek | orrek | ak/arek |
| oneri | orreri | areri/ari |
| onena | orrena | arena/aĩne |
| oneas | orreas | areas/aas |
| onentzako | orrentzako | arentzako |
| oneaittik | orreaittik | aittik |

| HONEEK | HORREEK | HAREEK |
|-----------|------------|---------------|
| onek | orrek | arik/aik/arek |
| onek | orrek | arik/aik/arek |
| oneri | orreri | airi |
| onena | orrena | aĩne |
| onekas | orrekas | aikes/aikas |
| onentzako | orrentzako | arentzako |

Erakusle indartuen taulak

| HAUXE | HORIXE | HAXE |
|----------|-----------|-----------------|
| autxe | oritxe | atxe |
| onetek | orrettek | aretek |
| onetxeri | orretxeri | aretxeri |
| onetxena | orretxena | aretxena |
| onetxeas | orretxeas | aretxeas/atxeas |
| onetzako | orretzako | aretzako |

| HONEEXEK | HORREEEXEK | HAREEXEK |
|-----------|------------|-----------|
| onetek | orrettek | aretek |
| onetek | orrettek | aretek |
| onetxeri | orretxeri | aretxeri |
| onetxena | orretxena | aretxena |
| onetxekas | orretxekas | aretxekas |
| onetzako | orretzako | aretzako |

Erakusle berrindartuen taulak

| BERA | EUROK | EURAK |
|-------------|------------|------------|
| bera* | aurok | aurek |
| berak | aurok | aurek |
| berari | aurori | aureri |
| berana/bere | aurona | aurena |
| beraas | aurokas | aurekas |
| berantzako | aurontzako | aurentzako |
| beraana | aurokana | aurekana |

* gutxiagotan bada ere, berau, berori/beori eta euron era deklinatuak ere erabiltzen dira.

25. IZENORDAINAK

Ataltxo hau osatzeko, pertsona izenordainei dagozkien taulak, galdetzaileak eta izenordain konposatuak baino ez ditugu emango.

25.1. PERTSONA IZENORDAINAK

Pertsona izenordainen tauletan bereiz aurkeztuko ditugu izenordain arruntak eta izenordain indartuak.

Arruntak

| NI | GU |
|----------|-------------------|
| ni | gu |
| nik | guk |
| niri | guri |
| nire | gure |
| nies | gues |
| nirezako | gutzako/guretzako |

| ZU | ZUEK |
|------|------------|
| su | surok/suok |
| suk | surok/suok |
| suri | surori |

BERANGOKO HIZTEGIA

| | |
|---------|------------|
| sure | surona |
| sues | surokas |
| sutzako | surontzako |

Indartuak

| NEU | GEU |
|-------------------|-------------------|
| neu/nau | geu/gau |
| neuk/nauk | geuk/gauk |
| neuri/nauri | geuri/gauri |
| neure/naure | geure/gaure |
| neues/naues | geues/gaues |
| neutzako/nautzako | geutzako/gautzako |

| ZEU | ZEUEK |
|-------------------|---------------|
| seu/sau | saurok/seurok |
| seuk/sauk | saurok/seurok |
| seuri/sauri | saurori |
| seure/saure | saurona |
| seues/saues | saurokas |
| seutzako/sautzako | saurontzako |

25.2. GALDETZAILEAK

| ZER | NOR |
|------|-----------|
| ser | nor |
| sek | nok |
| seri | nori |
| sena | noñe |
| seas | noas |
| - | nointzako |

Gainerako galdetzaile batzuk: *setan, setako, seaittik/seittearrik, seiñ.*
Pluralean *sertzuk, nortzuk,* e.a. erabiltzen dira.

25.3. KONPOSATUAK

bata bat, bataren bat: baten bat

"Bata bat sartu da etzen" - (Baten bat sartu da etxean)

"Diñoure bataren bat badaula, baya nik ikusi estot eiñ emen" - (Dinote baten bat badagoela, baina nik ikusi ez dut egin hemen)

"Bataren batek topaten beyeun kosite yeun gaixo" - (Baten batek topatzen bazuen hartzzen zuen gaixoa)

edoseiñ: edozein

"Etor leitte edoseiñ" - (Etor liteke edozein)

"Ori erosiko su edosein lekun" - (Hori erosiko duzu edozein lekutan)

"Orrek diñoue edosein gause" - (Horiek dinote edozein gauza)

"Orrek dos edosein lekure" - (Horiek doaz edozein lekutara)

edoseñek: edozeinek

"Edoseñek eingo leuke" - (Edozeinek egingo luke)

eser: ezer

"Ekar dosue eser?" - (Ekarri duzue ezer?)

"Orrek ekar deue eser?" - (Horiek ekarri dute ezer?)

iñoas: inogaz, inorekin

"Estu itten kanpon iñoas bere, noas ingo dosu ba?" - (Ez dugu egiten kanpoan inorekin ere, norekin egingo duzu ba?)

iñor: inor

"Ikusi dosu iñor?" - (Ikusi duzu inor?)

"Estot ikusi iñor" - (Ez dut ikusi inor)

"Iñor yoten basan mendire edo, ekarte yeun" - (Inor joaten bazen mendira edo, ekartzen zuen)

nonok: nor edo nork

"Nono tekos orrek" - (Nor edo nork dauzka horiek)

"Garriko edo gorbetaren bat nonok itxi deuna edo" - (Gerrikoa edo korbataren bat nor edo nork utzi duena edo)

noonor: nor edo nor

"Noonor etzen sartu da" - (Nor edo nor etxean sartu da)

segoser, seoser: zer edo zer

"Erosi dosu segoser?" - (Erosi duzu zer edo zer?)

"Orrek ekar deue segoser" - (Horiek ekarri dute zer edo zer)

seoseas: zer edo zerekin

"Baya trabe da, amarrate les seoseas" - (Baina traba-orratza, lotzea legez zer edo zerekin)

"Seoseas eitte otzon baya" - (Zer edo zerekin egiten zion baina)

BERANGOKO HIZTEGIA

26. DEKLINABIDEA

Deklinabidearen kasu markak eta euron ezaugarriak kasurik kasu aurkeztuko ditugu atal honetan. Kasu bakoitzeko singular eta pluralen taula eta dagozkien oharrak ipiniko ditugu.

Absolutua

Kasu honen marka hutsa da; edozelan ere, artikulua erabilera identifikatzen da eskuarki kasu honekin. Artikulua oinarriari eranstea, erroaren bokal guztien arabera singularrean eta pluralean gertatzen diren aldaketak ondoko taulan ikusten dira:

| | Singularra | Plurala |
|------------|----------------|------------------|
| -A | alabe | alabak |
| -E | seme | semek |
| -I | idi | idik |
| -O | asto | astok |
| -U | esku | eskuk |
| -K | gixona, lagune | gixonak, lagunak |
| -AI | yaye | yayek |
| -OI | faldoya | faldoyak |

Ergatiboa

| Singularra | Plurala |
|------------|---------|
| alabek | alabak |
| semek | semek |
| idik | idik |
| astok | astok |
| katuk | katuk |
| gixonak | gixonak |

Datiboa

| Singularra | Plurala |
|------------|----------|
| alaberi | alabari |
| semeri | semeri |
| idiri | idiri |
| astori | astori |
| katuri | katuri |
| gixonari | gixonari |

Genitibo edutezkoa

| Singularra | Plurala |
|------------|----------|
| alabena | alabana |
| semena | semena |
| idiñe | idiñe |
| astona | astona |
| katune | katune |
| gixonana | gixonana |

Soziatiboa

| Singularra | Plurala |
|------------|-----------|
| alabeas | alabakas |
| semeas | semekas |
| idies | idikes |
| astoas | astokas |
| katues | katukes |
| gixonaas | gixonakas |

"Pistakas altza da" - (Piztekin altxatu da)

"Ordun oñekas sapaltxe san dusti, gaur estau olaurik, baya atxiñe, oñekas sapaldu dusti" - (Ordun oinekin zapaltzen zen guztia, gaur ez dago holakorik, baina antzina, oinekin zapaldu guztia)

"Eta kontentu osasuneas oiñ arten on garelakon" - (Eta pozik osasunarekin orain arte egon garelako)

Destinatiboa

| Singularra | Plurala |
|--------------|--------------|
| alabentzako | alabantzako |
| sementzako | sementzako |
| idintzeko | idintzeko |
| astontzako | astontzako |
| katuntzeko | katuntzeko |
| gixonantzako | gixonantzako |

"Illeda bi edo iru ereitten dusen ollontzako san" - (Ilara bi edo hiru ereiten genituen oiloentzat zen)

"Gero pisu, ori esta sera ba paño noperantzako, e? gero mataderon baskuleas" - (Gero pisu hori ez da zera bat baino norberantzat, e? gero hiltegian baskularekin)

"Orrek etzek eitteko argiñentzako onenak, tamañu gero, noperak tamañu gero imiñi in ber dau" - (Horiek etxeak egiteko)

BERANGOKO HIZTEGIA

harginentzat onenak, tamaina gero, norberak tamaina gero ipini egin behar du)

gixonik

Motibatiboa

Kasu hau marka batekin baino gehiagorekin agertzen zaigu; batetik <aittik> erabiltzen da: *orreaittik, aittik, oneaittik, loteaittik*, e.a. Era berean - <ittearrik> ere erabiltzen da: *seittearrik, sorgiñekaittearrik*. <Arrik> kasu marka izenari zuzenean erantsi dakioko:

"Artori botaten tzo askok, alegrearrik nik estot bota iños" - (*Artoari botatzen dio askok, alaiarren nik ez dut bota inoiz*)

Beronen ordeztu <arren> ere erabil daiteke:

"Oin erosi inten dot kapritxoarren baya ordu, yan, yan in ber" - (*Orain erosi egiten dut kapritxoarren baina orduan, jan, jan egin behar*)

Adlatiboa

| Singularra | Plurala |
|------------|------------|
| alabena | alabakana |
| semena | semekana |
| idiena | idikana |
| astona | astokana |
| katune | katukana |
| gixonana | gixonakana |

"Baye estaitten mogidu anke altzateko batera ta bestera, ba mogidu estaitten, a, sekorrana eroten dan modu antzen" - (*Behia ez dadin mubitu hanka altxatzeko batera eta bestera, ba mubitu ez dadin, zekorragana eroaten den modu antzean*)

Partitiboa

| Mugagabea |
|-------------|
| enbrarik |
| semerik |
| andirik |
| askorik |
| artabururik |

"Ideari pere estekot orrenik!" - (*Idearik ere ez daukat horrenik!*)

"Onek esetu bes koittedek, es astorik, es saldirik eta es beirik" - (*Honek ezagutu ere ez koitaduak, ez astorik, ez zaldirik eta ez behirik*)

"Aitte do gauen etzera se estau leku giaurik eta" - (*Aita doa gauean etxera ze ez dago leku gehiagorik eta*)

"Yantzi tte pentza beres eta, ullerik ebai tte beres, ori buruko pañuelu" - (*Jantzia eta pentsatu ere ez eta, ilerik ebaki eta ere ez, hori buruko zapia*)

"Goserik eskendun pasaten" - (*Goserik ez genuen pasatzen*)

Aurreko erabilera honezaz ostera partitibo kasu markak ondoko erabilera ere badauka:

"A solori solo ibiltte san, Katiken auki auren olau makiña bat" - (*Hura sororik soro ibiltzen zen, Gatikan eduki zuten holako makina bat*)

"A ibiltte san etzerik etze" - (*Hura ibiltzen zen etxerik etxe*)

Prolatiboa

"Ni matarifetzat ego nitzenen emen, asko iltte siren" - (*Ni matarifetzat egon nintzenen hemen, asko hiltzen ziren*)

Instrumentala

Kasu hau gutxitan eta oso funtzio zehatzetan erabiltzen da, jarraian erabileraren adibide batzuk ikus daitezke:

"Oin bisios erreta gaus, ta len danan falte" - (*Orain bizioz erreta gaude, eta lehen denen falta*)

"Layostarrak berangostarrakas beti txarto, mutillek, a, guapo, alkondara surikes etorte siren ta, odolas beterik, edo belarri arrankata edo, surrondon golpe" - (*Leioztarrak berangoztarrekin beti txarto, mutilak, polito, alkondara zuriekin etortzen ziren eta, odolez beterik, edo belarria erautzita edo, sudur ondoan kolpea*)

"Sulos beterik, bai, nafarrerikes, ill atxiñe! tifusen antzeko ori bere, nafarreri" - (*Zuloz beterik, bai, nafarreriekin, hil antzina! tifusaren antzekoa hori ere, nafarrera*)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Gangallena da, garos beterik paraten direnen, a, au ingeru dusti" - (Gangailena da, garauz beterik paratzen direnean, inguru hau guztia)

"Boltzak! dirus beterik atara gendusen guk" - (Boltsak! diruz beterik atera genituen guk)

"Enterru oñes ixete san" - (Enterrua oinez izaten zen)

"Aittu bedarra, bakixu len eskus ba, eta or, a, mendiñ, ibil gaittesen" - (Aitu belarra, badakizu lehen eskuz ba, eta hor, mendian ibili ginen)

"Nik burus eitteko kontuk ensegida ataraten doas, e?" - (Nik buruz egiteko kontuak behingoan ateratzen ditut, e?)

Leku-denborazko inesiboa

| Singularra | Plurala |
|------------|----------|
| gortan | gortatan |
| etzen | etzetan |
| erriñ | erritten |
| bason | basotan |

Informatzaile guztiek ez dute morfemaren a-ren asimilazio araua aplikatzen pluraletan: *begittan, itturritan, errittan*.

Leku-denborazko adlatiboa

| Singularra | Plurala |
|------------|-----------|
| gortara | gortatara |
| etzera | etzetara |
| errire | errittera |
| basora | basotara |

Ablatiboa

| Singularra | Plurala |
|------------|-----------|
| gortati | gortatati |
| etzeti | etzetati |
| erritti | erritteti |
| basoti | basotati |

Ablatiboaren kasu marka <ti> da; hala ere, informatzaile batzuek noizean behin

<tik> ere erabiltzen dute. Ablatiboa denbora alorrean erabiltzen denean, kasu markatzat <rik> erabiltzen da:

"Ondiño, untxerarten, a, ordurik ona, gerrarik ona, or oki dot nik mangu au" - (Oraindino, oraintxera arte, ordurik hona, gerrarik hona, hor eduki dut nik kirten hau)

"Bai orbistaten dire, baya ixen ber dau, onik aurrera" - (Bai orbiztatzen dira, baina izan behar du, honik aurrera)

"Jesus Maria! solon, txikerretarik gero bere bai, se gero bere alargun lotu nintzen, otamaka urte ixao dire, lotu nintzela alargun te gero bere, emen bere makiña at" - (Jesus Maria! soroan, txikerretatik gero ere bai, ze gero ere alargun lotu nintzen, hogeita hamaika urte izango dira, lotu nintzela alargun eta gero ere, hemen ere makina bat)

"Gaste gastetarik sartute dekosules barrun, nik beti, gure estala" - (Gazte gaztetarik sartuta daukazunez barruan, nik beti, gura ez dela)

"Or dekot nik bidagarro bat, a, umetarik kosite kantaten dau udabariñ, a, elegante" - (Hor daukat nik birigarro bat, umetatik hartuta kantatzen du udaberrian, dotore)

"Enas yon, ba gabonatarik ona" - (Ez naiz joan, ba gabonetatik hona)

Batzuetan leku alorrean ere erabiltzen da kasu marka hau:

"Urte baterik bestera bestek ya datos, ya onek palak" - (Urte batetik bestera besteak ja datoz, ja pala hauek)

Adlatibo bukatuzkoa

| Singularra | Plurala |
|-------------|---------------|
| gortarañoko | gortatarañoko |
| etzerañoko | etzetarañoko |
| errirañoko | erritterañoko |
| basorañoko | basotarañoko |

<raño> soila ere erabiltzen da: *aurreraño, etzeraño, goraño*. Ondoko adibideetan ikusten den moduan <arte> ere erabiltzen da:

BERANGOKO HIZTEGIA

"Len esan biderik on orrarte bere" -
(Lehen ez zen biderik egon horraino ere)

"Ararte egote san bide, andi gora ona lur bide egote san" - (Haraino egoten zen bidea, handik gora hona lur bidea egoten zen)

Hurbiltze adlatiboa

| Singularra | Plurala |
|-------------|---------------|
| gortarantza | gortatarantza |
| etzerantza | etzetarantza |
| errirantza | erritterantza |
| basorantza | basotarantza |

Leku-denborazko genitiboa

| Singularra | Plurala |
|------------|-----------|
| gortako | gortatako |
| etzeko | etzetako |
| erriko | erritteko |
| basoko | basotako |

27. ADITZAK

Atal honetan aditz partizipio bakunak eta konposatuak aurkeztu eta ostean, partizipio eta aditz izenen erabileraz jardungo dugu, horretarako partizipio soilen erabilera, partizipioei eranstean zaizkienak, aditz izenen eta aspektuen erabileren gainerako adibideak emango ditugu.

27.1. ADITZ BAKUNAK

abandona: abandonatu, utzi

"Esta ebaitten otarik, abandonata dau dana" - (Ez da ebakitzen oterik, abandonatuta dago dena)

abanta: 1. iraun. 2. eutsi

"Sikete badator, ogeto abantaten dau" - (Sikatea badator, hobeto irauten du)

aberastu: aberastu

aberia: aberiatu, hondatu, matxuratu

"Oñ aberiata dau" - (Orain aberiatuta dago)

abia: abiatu, hasi, ekin

abisa: abisatu

"Arek abisateuen" - (Hark abisatzen zuen)

"Abisa nun ta etor san" - (Abisatu nuen eta etorri zen)

"Emen esta abisa ber, ese emen beti dau beskari" - (Hemen ez da abisatu behar, eze hemen beti dago bazkaria)

abixerittu: arraultzak usteldu, abizaritu

"Abixerittu da, txite formaten asi tte abixerittu" - (Abizaritu da, txita egiten hasi eta abizaritu)

abona: 1. satsitu, ongarritu. 2. ondu

"Orrek abona itten dotzu asko" - (Horrek ondu egiten dizu asko)

abrosidu: abrozidu, gogaitu, aspertu

aburridu: abrozidu, gogaitu, aspertu

adittu, aittu: aditu, begiratu

"Aittu nor datorren or!" - (Aditu nor datorren hor!)

"Aittu in dotzet" - (Aditu egin diot)

"Au esta mogidu itten au etze, ta aittu onek, olasko da ori" - (Hau ez da mugitu egiten etxe hau, eta aditu hauek, oholezkoa da hori)

"Nik estaitt, eneitzu esan oritxe, ni akordate nas nebe, oñ iru urte il dasku nebe, esta? bat auki dot eta, a pere, adittute yeun ensegida esate yeun, an dator truboya" - (Nik ez dakit, ez niezazuke esan horixe, ni gomutatzen naiz neba, orain hiru urte hil zaigu neba, ezta? bat eduki dut eta, hark ere, aditzen zuen behingoan esaten zuen, han dator trumoia)

agarra: oratu

"Len aurreku itte san agarrata" - (Lehen aurrekua egiten zen)

agartu, agertu: agertu

"Agertu gintzesen gu biok etzera yaten beskari" - (Agertu ginen gu biok etxera jaten bazkaria)

"Beñ, a, agartu siren etzen koñatu biek" - (Behin, agertu ziren etxean koinatu biak)

agindu: agindu

"Nik umek bautisa doas, illegarrenen, elixek agindu daun modun, baya gu gaus bautisata otalau ordues" - (Nik umeak bataiatu ditut, hilabetegarrenean, elizak agindu duen moduan, baina gu gaude bataiatuta hogeita lau ordurekin)

aguanta: 1. iraun. 2. eutsi

BERANGOKO HIZTEGIA

"Sikuk giau aguantaten dau, ta erreta dires gosok sikuk" - (Sikuak gehiago irauten du, eta erreta dira gozoak sikuak)

"Enei aguanta an" - (Ez nezake iraun han)
"Orrek igual, a, illebeta edo bi aguanta lais, baya gaurik es" - (Horrek beharbada, hilabetea edo bi iraun litzake, baina gehiagorik ez)

aittetu: aiatu, aipatu

akaba: amaitu

"Lagundu dotzut akabaten" - (Lagundu dizut amaitzen)

"Au emen akabaten da bide" - (Hau hemen amaitzen da bidea)

akapara: akaparatu

aklara: aklaratu, xaboa kendu

akorda: gomutatu, gogoratu

"Neu akordate nas, e, neuk kanpon eitte neun bear" - (Neu gomutatzen naiz, neuk kanpoan egiten nuen bear)

"Bilbon eskondute daules, au gitxiu akorda emeko" - (Bilbon ezkondata dagoenez, hau gutxiago gomutatu hemengoa)

"Orrena enas akodaten, ori nire nebek yakingo dau baya nik, a" - (Horrena ez naiz gomutatzen, hori nire nebak jakingo du baina nik)

akostunbra: ohitu, usatu

"An giselen andi akostunbrate san, ta emen txikerra" - (Han gizalan handia erabiltzen zen, eta hemen txikerra)

"Bueno lelau akostunbrate san, emeti es orrenbeste, baya orti Laukis aldetik, eta orti nik entzunte dekotzet aitteri tte oneri" - (Beno lehenago erabiltzen zen, hemendik ez horrenbeste, baina hortik Laukiz aldetik, eta hortik nik entzunda daukakiet aitari eta honi)

"Bere bai! emen es, baya Layoan, akostunbrate ixen da, ba erote otzare ogies" - (Bere bai! hemen ez, baina Leioan, usatzen izan da, ba eroatea otzara ogiarekin)

alargundu: alargundu

"Gure ama alargundu in san, sortzi ume, sarrenak amalau urte, eta txikerrenak urte t'erdi" - (Gure ama alargundu egin zen, zortzi ume, zaharrenak hamalau urte, eta txikerrenak urte eta erdi)

alegindu: ahalegindu, saiatu

allega: ailegatu

"Jubilasiñora nor allegate san ba?" - (Jubilaziora nor ailegutzen zen ba?)

altza: altxatu

"Bueno, se i nun? ogi, a, seraas, imiñi masa masa bat eta begittan imiñi, eta gogortu in san, pestaña dusti pere altzata" - (Beno, zer egin nuen? ogi, zerarekin, ipini amasa-amasa bat eta begietan ipini, eta gogortu egin zen, betile guztiak ere altxatuta)

amarra: amarratu, lotu

"Pañelu amarra, pañueltxu amarraten sala, ori bai entzunte nau, amari" - (Zapia lotu, zapitxoa lotzen zela, hori bai entzunda nago, amari)

"Idikes amarrate yeun, se ya tireta kantza ite yeun, ta idikes amarrate yeun" - (Idiekin lotzen zuen, ze ja tiratuta nekatu egiten zuen, eta idiekin lotzen zuen)

amasa: amasatu, oreka egin

"Or egote san aspiren, ta an aspiren kontra obeto amasate san urune" - (Hor egoten zen azpiran, eta han azpiraren kontra hobeto amasatzen zen irina)

amata: amatatu

"Guk amata dotzu argi oneri" - (Guk amatatu diogu argia honi)

"Au da nire gizona, amata gure badosu" - (Hau da nire gizona, amatatu gura baduzu)

amenasa: zemaitu, mehatxatu

amiotu: amiotu, urdindu

"Gogor bai, siku siku baya esta amiotuten" - (Gogor bai, siku-siku baina ez da amiotzen)

amostu: amoztu, moztu

"Estakienak sorrostuten iten dau, sorrostu berren amostu" - (Ez dakienak zorrozten egiten du, zorroztu beharrean amoztu)

amurrutu: amorratu

andittu: handitu

"Beneno andi deko, e? andittu itten da ta kontus!" - (Pozoi handia dauka, e? handitu egiten da eta kontuz!)

anima: animatu, alaitu

"Plentzin esaten deude, jo! orrek animateuden!" - (Plentzian esaten dute, jo! horiek animatzen zuten!)

antoja: antojatu, nazkatu

antzittu: antzutu

"Anzittu esaten dako siketen danen" - (Antzutu esaten zaio siketzen denean)

BERANGOKO HIZTEGIA

aparta: 1 apartatu, aukeratu, banatu. 2 bizi alargundu, dibortziatu

"Berango egon da apartata eta, gerorau giau" - (Berango egon da banatuta eta, gerorago gehiago)

"Kanpon dausenak bere, seme pider aparta ber ixen dusen!" - (Kanpoan daudenak ere, zenbat bider banatu behar izan ditugun!)

"Nik, a, pasentzies, illundetan aparta itten dotzet dana" - (Nik, pazentziarekin, ilundeetan apartatu egiten diet dena)

apastu: apaztu, apatz egin

"Bueno asaro, guk esaten dotzu emen asaro, naiko in daunen ya, e? esaten da ya terreno daunen apastute uraas" - (Beno azaroa, guk esaten diogu hemen azaroa, nahikoa egin duenean ja, e? esaten da ja terrenoa dagoenean apaztuta urarekin)

aplasta: zanpatu

"Ba lapiko saldatxu, patatatxu aplastata, leleko yaten asten sirenen" - (Ba lapiko saldatxoa, patatatxo zanpatuta, lehenengo jaten hasten zirenenean)

apresia: apreziatu, preziatu

aproba: gaudituz

aprobetxa: aprobetxatu

"Gero ya sar intte sanean eta apurtu, ordun ya, ordun aprobetxate sirenen" - (Gero ja zahar egiten zenean eta apurtu, orduan ja, orduan aprobetxatzen ziren)

"Estales iños aprobetxa eneitzu esan" - (Ez denez inoiz aprobetxatu ez niezazuke esan)

apunta: apuntatu

"Enterru egote sanen mese punta" - (Enterrua egoten zenean meza apuntatu)

apurtu: apurtu

"Eta gero pasate san ori are ori pintxo batzukes emen, orrek apurtuteun" - (Eta gero pasatzen zen hori are hori pintxo batzuekin hemen, horrek apurtzen zuen)

arena: hareatu

aretu: 1. aretu. 2. hareatu

"Are lurre bai, dana aretu, ori baso dusti da are lurre" - (Harea-lurra bai, dena hareatu, baso hori guztia da harea-lurra)

argaldu: argaldu

argittu: argitu

arindu: arindu

arranka: 1. arrankatu, martxan paratu. 2. erauzi

"Firutxu beteas engantxa, firutxu beteas, a, sera iñ, eta arranka bere atxiñe itteuren" - (Firutxo batekin engantxatu, firutxo batekin, zera egin, eta erauzi ere antzina egiten zuten)

arrapa: harrapatu

arraska: 1. hazka egin. 2. karrankatu

arraspa: karrankatu

"Burnisko sepillo bateas arraspa, eta ostabere barriro imiñi" - (Burdinazko eskubila batekin karrankatu, eta osterera ere berriro ipini)

arregla: konpondu

"Gero erdi arregla daude" - (Gero erdi konpondu dute)

"Oñ arreglata daus" - (Orain konponduta daude)

"Arek arreglate siren, aurok eintte yeuren" - (Haiek konpontzen ziren, eurok egiten zuten)

arrima: hurbildu, parajetu, ondoratu

"Estotzu itxitten arrimaten beres" - (Ez dizu uzten hurbiltzen ere ez)

"Suete bakixu, suete, a, beko, ta an, negun, an dustik arrimata an, seran" - (Suetea badakizu, suetea, behekoa, eta han, neguan, han guztiak hurbilduta han, zerean)

arroto: harrotu

artesa: artezatu, zuzendu, konpondu

"Orrek artesaten, orrek bear dere satza naye, orrek, orrek!" - (Horiek artezatzen, horiek behar dute satsa nahaia, horiek, horiek!)

artestu: arteztu, zuzendu

"Ordun kosu in ber dako, sartu esku, kosu te artestu, artestu bera" - (Orduan hartu egin behar zaio, sartu eskua, hartu eta arteztu, arteztu bera)

artu: hartu

"Ori baraurik artxen da" - (Hori baraurik hartzen da)

"Gauk estu artxen ela? nik artxen dot" - (Guk ez dugu hartzen ala? nik hartzen dut)

asarratu: haserretu

"Lengo aldin asarratu giñen" - (Lehenengo aldian haserretu ginen)

aserta: asmatu

asi: 1. hasi. 2. hazi

BERANGOKO HIZTEGIA

"Asi dire, amabirjiñe! ser asi dire!" -
(Hasi dira, amabirjina! zer hazi dira!)

asma: sentitu, asmatu

"Eta gustate akon sano eta soñu guk
asmaten dunen eta arten sirenen,
suelton yantzan eitteko, nauk estakittela
aste nitzen" - (Eta gustatzen zitzaion
sano eta soinua guk asmatzen
genuenean eta artean zirenean, solte
dantzan egiteko, neuk ez dakidala
hasten nintzen)

"Mutille dau kanpon, asma itten dau" -
(Mutila dago kanpoan, asmatu egiten
du)

astilletu: arrakalatu, printzatu

"Piñu esin da astilletu" - (Pinua ezin da
arrakalatu)

astu, aistu: ahaztu

"Gure ama tiño berari estakola astuten a"
- (Gure amak dino berari ez zaiola
ahazten hura)

"Ikusi ingo nun baya astute dekot oiñ au
ba" - (Ikusi egingo nuen baina ahaztuta
daukat orain hau ba)

"Ori gabarrak eta botate aurenen, baya ori
gero astu da ya" - (Hori gabarrek eta
botatzen zutenean, baina hori gero
ahaztu da ja)

"Badoa pasten baya ondiño, ondiño naure
dekot, aistu gausak" - (Badoa pasatzen
baina oraindino, oraindino neurea
daukat, ahaztu gauzak)

astraka: aztrakatu, azterkatu

ataka: eraso

"Kanpon es, kanpon libren letxugeri
estotzo atakaten" - (Kanpoan ez,
kanpoan libre letxugari ez dio
erasotzen)

atara: atera

"Iru egunen aste beten, egurre saltxen
baño giau atara gendun arrastin" -
(Hiru egunen asten baten, egurra
saltzen baino gehiago atera genuen
arrastegian)

atendidu: atenditu

atertu: atertu

"Atertu dau denpore" - (Atertu du
eguraldia)

atrabesa: zeharkatu

"Filan imiñi gure badau edo atrabesata
imiñi gure badau, gure daun modun" -

(Ilaran ipini gura badu edo zeharka ipini
gura badu, gure duen moduan)

atrapa: harrapatu

"Ori nonon dau baya esin dot atrapa" - (Hori
non edo non dago baina ezin dut
harrapatu)

"Eta gero estait selan atrapa yaun olau
sagutxu bet, olan, a, bustenati" - (Eta gero
ez dakit zelan harrapatu zuen holako
sagutxo bat, hola, buztanetik)

atrebidu: ausartu

"Atrebidu in da artxen" - (Ausartu da
hartzen)

atxurtu: aitzurtu

atzeratu: atzeratu

auki, euki, oki, okin: eduki; aditz trinkoa

"Bai auki dus, auki dus, bei bi, ta txala pere
bai, oin danak itxi dus" - (Bai eduki ditugu,
eduki ditugu, behi bi, eta txahalak ere bai,
orain denak utzi ditugu)

"Gure dibertziño ori ixen da arik eta
amasortzi urte auki arte" - (Gure
dibertsioa hori izan da harik eta
hamazortzi urte eduki arte)

"Agarrek auki aun artebi" - (Agarrek eduki
zuen artadia)

"Ai! ori ixete san, sayetzak estaiñ oki odola,
egun beten oki gatzas, gatz askoas uretan
sartu, ta gero atara eta piper gorri emon"
- (Ai! hori izaten zen, saiheitsak ez dezan
eduki odola, egun baten eduki gatzarekin,
gatz askorekin uretan sartu, eta gero atera
eta piper gorria eman)

| | |
|---------|----------|
| dekot | dekoas |
| deko | dekos |
| deku | dekus |
| dekosu | dekosus |
| dekosue | dekosues |
| deuke* | deukes* |

***deuke:** dauke, deko, deke. **deukes:** dekoes
Aditz honek datiboa onartzen du: **dekotzet.**
baleko, basenkos, baldintzak ere
erabiltzen dira.

aumenta: gehitu

"Emen ointxe estu ikusten baya eskandalu
dabill ori, se aumenta dau orrek" - (Hemen
oraintxe ez dugu ikusten baina asko dabil
hori, ze gehitu du horrek)

aurreratu: aurreratu

BERANGOKO HIZTEGIA

ausi: hautsi

"Eron au ausi barik" - (Eroan hau hautsi barik)

"One tires kayuelak, autxe, ori ausi itten da dustis" - (Hauek dira kaiuelak, hauxe, hori hautsi egiten da guztiz)

austu: haustu

autzi: eutsi

"Talle sujetateko da ori, talleri autzitateko" - (Teilari eusteko da hori, teilari eusteko)

axatu: haizatu, puztu; ganadua haizatu egiten da kaltegarria den zer edo zer jan ondoren

baja, bajatu: jaitsi, baxatu

"Andi aurrera baja gintzen, a, olan itxosora peskan" - (Handik aurrera baxatu ginen, hola itsasora arrantzan)

"Orra yoten basara esin da kosi bera bajata" - (Horra joaten bazara ezin da hartu behera baxatuta)

"Algortan bajatuten dire yoteko, serara, etzera" - (Algortan baxatzen dira joateko zerera, etxera)

balora: baloratu

baltzitu: belztu, baltzitu

"Odolbatu, a, odola baltzitu, baltzittute para" - (Odol batua, odola belztu, belztuta paratu)

"Arik aparta in ber dire espabere illun urteten dau artok, ese gitxies dau ya arto baltzittute" - (Haiek apartatu egin behar dira ezpabere ilun irteten du artoak, eze gutxirekin dago ja artoa belztuta)

banandu: banandu

barandu: oihalak aldatu

"Barandu dosu ume?" - (Aldatu duzu umea?)

bardindu: berdindu

"Eta gero agoa dusti egoten da, imintten dere bardindute ya, bost urterako, beti esan doskuena, e?" - (Eta gero aho guztia egoten da, ipintzen dute berdinduta ja, bost urterako, beti esan digutena, e?)

barrista: berriztatu

barrunta: barruntatu, sentitu

batu: batu

"Beste egun bet ote san gero batzeko diru" - (Beste egun bat egoten zen gero batzeko dirua)

bautisa: bataiatu

"Ori angerutxu be ta, baya es, bautisa nai bautisa barik, e?" - (Hori aingerutxo ere eta, baina ez, bataiatu nahi bataiatu barik, e?)

"Len eitte siren, oiñ, a, seran bere itten deure, a, elixen eskoyatara baya atzekalden bautisateko su tiñosun arrisko, a, sera ta an dau ondiño, baya orain bautisaten deittue, seran aurren" - (Lehen egiten ziren, orain, zerean ere egiten dute, elizaren eskoatara baina atzeko aldean bataiatzeko zuk dinozun harrizko, zera eta han dago oraindino, baina orain bataiatzen dituzte, zeraren aurrean)

baxa: jaitsi, baxatu

"Len baserri danak ote siren baxata" - (Lehen baserri denak egoten ziren baxatuta)

bellegitu: beilegitu, horitu

beratu: 1. beheratu. 2. beratu

"Abe bai, io itten gendun ori bere guk, bueno askok emote otzen beratute, beste batzuk gordiñik, ta beste batzuk iota" - (Oloa bai, eho egiten genuen hori ere guk, beno askok ematen zioten beratuta, beste batzuek gordinik, eta beste batzuek ehota)

bereinketu: bedeinkatu

"Bereinketu beti ein da, e? gabon egunen bere beti itte san" - (Bedeinkatu beti egin da, e? gabon egunean ere beti egiten zen)

berotu: berotu

"Orio epeltxu or berotu, eta otzittu, erretan estosu ingo baya epeltxu? eta ba, ona dala esaten daure" - (Olio epeltxo hor berotu, eta hoztu, erretzen ez duzu egingo baina epeltxo? eta ba, ona dela esaten dute)

betatu, betetu: bete

"Solo dustik betatute auki eusen millikoteas ta seraas" - (Soro guztiak beteta eduki zituen milikotekin eta zerekin)

"Ori dana betatu gendun guk eskus" - (Hori dena bete genuen guk eskuz)

bigundu: bigundu

"Busti itten da gero otzare itteko, se bigundu in ber da espabere salta itten deu" - (Busti egiten da gero otzara egiteko, ze bigundu egin behar da ezpabere saltatu egiten du)

bijila: sorotsi

"Orrek bijilaten ibiltten gintzen gauetan, gastek" - (Horiek sorosten ibiltzen ginen gauetan, gazteak)

BERANGOKO HIZTEGIA

bildurtu: bildurtu

biortu: bihurtu

bistu: 1. biztu. 2. orbizta, landareak biztu
"Señek bistu dosku argi guri" - (Seinak biztu digu argia guri)

bonbardea: bonbardatu

"Sollube bonbardeaten egon sirenen yayo san nire nebe" - (Solluben bonbardatzen egon zirenean jaio zen nire neba)

"Orrek abandona i yeusen ta pasa siren beste alderdire, gero andi Seranteseti bonbardeateun" - (Horiek abandonatu egin zituzten eta pasatu ziren beste alderdira, gero handik Serantesetik bonbardatzen zuen)

borda: bordatu

"Bordaten ta yoten gintzesen gero gora, arratzaldetan, bordaten yoten gintzen" - (Bordatzen eta joaten ginen gero gora, arratsaldeetan, bordatzen joaten ginen)

borra: ezabatu

bota: 1. bota. 2. bidali

"Umek arrik bota deittues" - (Umek harriak bota dituzte)

"Barri ekarten dosunen, ango bota" - (Berria ekartzen duzunean, hangoa bota)

brota: erne

buelta: bueltatu, itzuli

bustertu: buztartu, uztartu

"Urten, a, amar bider bustertu itten basiren!" - (Urtean, hamar bider buztartu egiten baziren!)

"Bustertu doas nik bayek, e?" - (Buztartu ditut nik behiak, e?)

busti: busti

"Busti itten da gero otzare itteko, se bigundu in ber da espabere salta itten deu" - (Busti egiten da gero otzara egiteko, ze bigundu egin behar da ezpabere saltatu egiten du)

damutu: damutu

dedika: dedikatu

"Agarren egote siren, a, barrun igual berrogei ganadu, an bertan emen esne saltxen, a, dedikate san jente" - (Agarren egoten ziren, barruan beharbada berrogei ganadu, han bertan hemen esnea saltzen, dedikatzen zen jendea)

defendu: defenditu

"Sapok eta animal dustik, a, ser dustik, eskapa itten deure, baya eser eitten badosu, ak, a, defendu in ber dau" - (Zapoak eta animala guztiek, zer guztiek, ihes egiten dute, baina ezer egiten baduzu, hark, defenditu egin behar du)

deklara: deklaratu

desaparesidu: desagertu

"Asko ya desaparesidu da gayena" - (Asko ja desagertu da gehiena)

"Otza datorrenen desaparesidu intten da ori, ta bero, lurre borotuten danen dator ostabere" - (Hotza datorrenean desagertu egiten da hori, eta bero, lurra berotzen denean dator ostera ere)

desiñ: desegin

"Ya desiñ eitte san dusti, usteldu edo nik estaitt ser eitte akon ori" - (Ja desegin egiten zen guztia, usteldu edo nik ez dakit zer egiten zitzaion hori)

deskantza: deskantsatu

"Igual ganadues ibiltten gintzesen ta apur bet ganadu, a, beroas eta bear inkeran, a, sofoka, esta? eta deskantzaten dun axe, a, itxosorantza adi imintte" - (Beharbada ganaduekin ibiltzen ginen eta apur bat ganadua, beroarekin eta behar egikeran, arbindu, ezta? eta deskantsatzen genuen haize, itsasorantz adi ipinita)

deskarga: deskargatu

"Or deskargateun, eta gero marea seratan, kosi" - (Hor deskargatzen zuen, eta gero marea zeretan, hartu)

deskonfia: deskonfiatu

deskonta: deskontatu

"Emoixus bost kilo gero deskontako sus andi" - (Eman itzazu bost kilo gero deskontatuko dituzu handik)

deskuida: deskuidatu

"Bai, bai, bai, aton ganadu, deskuidaten basara aton" - (Bai, bai, bai, atoan ganadua, deskuidatzen bazara atoan)

desosega: artegatu, arbindu

"Apur bet gora bera bai se ya ganadu, ya desosega itten da" - (Apur bat gora behera bai ze ja ganadua ja artegatu egiten da)

despedidu: agurtu

desterra: erbesteratu

"Gero desterra i yeuren Berangoti" - (Gero erbesteratu egin zuten Berangotik)

dibididu: banatu, zatitu

BERANGOKO HIZTEGIA

"Or goyen dau ba Urdulise, ta Berango dibididuten, onau Sopela ta Berango" - (Hor goian dago ba Urduliz, eta Berango zatitzen, honago Sopela eta Berango)

disfrasa: mozorrotu, jantzi

"Maskarita, maskarita karnabal egunen, disfrasa, maskarita esaten san" - (Maskarita, maskarita aratuste egunean, mozorrotu, maskarita esaten zen)

disfruta: disfrutatu

diskutidu: eztabaidatu

dobla: tolestu

"Askok aukitten dau doblata" - (Askok edukitzen du tolestuta)

domina: menperatu

droga: drogatatu

dutxa: dutxatu, dutxa hartu

"Ni altzate nas intten doas bearrak eta igual dutxate nas amakatan edo amabitten" - (Ni altxatzen naiz egiten ditut beharrak eta beharbada dutxa hartzen dut hamaiketan edo hamabietan)

ebagi, ebai: ebaki

"Labarako ota andi, paraje ote san emen, baya ekarri ber san etzera, ebai lelau, ta gero siketan itxi" - (Laberako ote handia, paraje egoten zen hemen, baina ekarri behar zen etxera, ebaki lehenago, eta gero sikatzen utzi)

edan: edan

"Suk edan sendun ure" - (Zuk edan zenuen ura)

"Ure edango yeuen" - (Ura edango zuten)

edoyatu: hedoitu, hodeitu

egarrittu: egarritu

egon, on: egon; aditz trinkoa

"Surok emen egon sare" - (Zuek hemen egon zarete)

"Esetu es, egon ein da guren!" - (Ezagutu ez, egon egin da gurean!)

"Orretara ego natzu esaten" - (Horretara egon natzaizu esaten)

| |
|-------|
| nau |
| dau |
| gaus |
| saus |
| sause |
| daus |

egosi: egosi

"Berasko itteurenen, arrosatxun ure ta, arrosatxu egosi tte aiñ ure emon" - (Beherazko egiten zutenean, arroztxoaren ura eta, arroztxoa egosi eta haren ura eman)

"Erretako baya oiñ egosteko korte barik kasik obeto egosten dire" - (Erretzeko baina orain egosteko ebaki barik kasik hobeto egosten dira)

ekarri: ekarri; aditz trinkoa

"Aurok, a, indibidual ekarri berrik, ba atera, kamioi beten koste auren eta kamioi beten, a, dana" - (Eurok, bakarka ekarri beharrean, ba atera, kamioi baten hartzen zuten eta kamioi baten, dena)

"A kendu yaurenen, geure aitte difuntuk ona ekarri eun" - (Hura kendu zuten, geure aita defuntuak hona ekarri zuen)

| | |
|---------|-----------|
| dakart | dakardeas |
| dakar | dakas |
| dakargu | dakargus |
| dakasu | dakasus |
| dakasue | dakassues |
| dakarde | dakardes |

ekin: ekin

"Bai olan ekitten da askotan baya enas akordaten ya" - (Bai hola ekiten da askotan baina ez naiz gomutatzen ja)

ekusi: ikusi

"Auren amamak eta amak ekus dauden modun emoten tze" - (Euren amamak eta amak ikusi duten moduan ematen diete)

eldu: 1. heldu, ondu. 2. heldu, ailegatu

"Etzera eldu barik, e? etzera eldu barik andrek ekarri bokadillu" - (Etxera heldu barik, e? etxera heldu barik andrek ekarri bokadilola)

"Nire, ya, gasteteen esta eldu ori, ya pasata egon da" - (Nire, ja, gaztaroan ez da heldu hori, ja pasatuta egon da)

"Eta eldu eldu, in ditela erraman, e?" - (Eta heldu-heldu, egin dadila abarrean, e?)

emon: eman

"Emon deuste yaten" - (Eman didate jaten)

"Niri bere bat emoeusten an dekotena" - (Niri ere bat eman zidaten han daukadana)

enamora: maitemindu

engantxa: engantxatu

BERANGOKO HIZTEGIA

"Firutxu beteas engantxa, firutxu beteas, a, sera iñ, eta arranka bere atxiñe itteuren" - (Firutxo batekin engantxatu, firutxo batekin, zera egin, eta erauzi ere antzina egiten zuten)

engaña: engainatu

"Nok engaña a?" - (Nork engainatu hura?)

"Ollarrak estau engaña ondo" - (Ollarrak ez du engainatu ondo)

enkarga: enkargatu

"Guk abi tte txikitxuten ekarri, eta a enkargate san, a, yaten emoten eta seran, eta ataraten gendusen" - (Guk habia eta txikitxotan ekarri, eta hura enkargatzen zen, jaten ematen eta zerean, eta ateratzen genituen)

enpalma: erantsi

enpata: hainbanatu, parra egin

enpatxa: enpatxatu

"Enpatxata badaus bere mamukion ure" - (Enpatxatuta badaude ere mamukioaren ura)

enreda: endredatu

entera: enteratu

entendidu: ulertu

enterra: ehortzi, lurpetu

"Errosario erresate san besperan baya gero enterrate sanen gero beskaritten" - (Errosarioa errezatzen zen bezperan baina gero lurpetzen zenean gero bazkaltzen)

entrega: eman

"Gerra osten obliga intteuen gari kosten bere bai, onenbeste, a, kintel entrega ber diresela ayuntaminture" - (Gerra ostean behartu egiten zuten gari hartzen ere bai, honenbeste, kintal eman behar direla udaletxera)

entrena: entrenatu

entzun, intzun: entzun

"Entzun dotzet orreri kantaten" - (Entzun diot horri kantatzen)

"Bai ba orrek estau intzuten eser bere" - (Bai ba horrek ez du entzuten ezer ere)

epeldu: 1. epeldu. 2. beroaren beroaz landareak endekatu

"Ba esne, sikanan bere guk olan intteun, eneitzu esan, esne aputxu bet epeldu" - (Ba esnea, guk hola egiten genuen behintzat, ez niezazuke esan, esne aputxo bat epeldu)

eraiñ, edaiñ: 1. eragin. 2. erein

"Irakas itte san, irak, a, kosi, eta ori seran kosi, palun, an amarra ondo sera baten modun, eskoba baten modun ixen daitten, eta areas, a, arrasta edaiñ, eta nosikandon uretan busti" - (Irekin egiten zen, irak, hartu, eta hori zerean hartu, makilan, han lotu ondo zer baten moduan, erratz baten moduan izan dadin, eta harekin, narrastu eragin, eta noizean behin uretan busti)

erakutzi: erakutsi

"Erakutzi itteko moduko auki dot nik or erropatxu" - (Erakutsi egiteko modukoa eduki dut nik hor arropatxoa)

"Gure etzen estosku erakutzi olau jenerori pa" - (Gure etxean ez digute erakutsi holako gauzarik ba)

eratz: eraitsi

erdibittu: erdibitu

erdu, erduse: erdu, erduze; etortzeko agintera moduan erabiltzen dira

"Erdi aputxu beten" - (Erdi apurtxo baten)

"Erduse Santiagotan, eta yon gintzesen" - (Erduse Santiagotan, eta joan ginen)

ereiñ: 1. eragin. 2. erein

"Señeri erein dotze negar" - (Seinari eragin diote negar)

"Oñ emen selan soasen, a, or atzen deko, ango baserri betek ereitte yaun" - (Orain hemen zelan zoazen, hor atzean dauka, hango baserri batek ereiten zuen)

"Baya, au, a, itxen badako bakarrik solori, eta satzik bota es, eta ereiñ" - (Baina, hau, egiten bazaio bakarrik soroari, eta satsik bota ez, eta erein)

eretxi: eritzi, iritzi; aditz trinkoa da.

| |
|------------|
| deritxet |
| deritxo |
| deritxu |
| deritxesu |
| deritxesue |
| deritxe |

erne: erne

"Patate ondo erne da" - (Patata ondo erne da)

ernega: ernegatu

eron: eroan

"Sille eron du arreglaten" - (Aulkia eroan dugu konpontzen)

BERANGOKO HIZTEGIA

| | |
|---------|----------|
| darot | darotas |
| daró | daros |
| daru | darus |
| darosu | darosus |
| darosue | darosues |
| darude | darudes |

Datibodun adizkiak ere onartzen ditu aditz honek: **darotzu**

erosi: erosi

"Orrek etze bat erosi deure" - (Horiek etxe bat erosi dute)

erre: erre

"Guk emen estu usaten irarik, emen usate siren irak, a, emen, txarri erretako" - (Guk hemen ez dugu erabiltzen irarik, hemen erabiltzen ziren irak, hemen, txerria erretzeko)

errega: ura egin

erregala: erregalatu, opaldu

"Gero asi nobiakas ta pregunta norberari, se erregalako tzet neuk nobieri?" - (Gero hasi andregaiekin eta itaundu norberari, zer opalduko diot neuk andregaiari?)

erreklama: erreklamatu

errementa: lehertu

"A aputxu bet kendu asala espabere errementa eingo eun gastañek beroas" - (Hura aputxo bat kendu azala ezpabere lehertu egingo zuen gaztainak beroarekin)

errepertidu, errepertu, erreperti: banatu, banandu

"Gu urte batzuten, ordun baño lelau, yoten geintzesen, a, bost edo sei matrimonio, ta ganadu bere asko baya etorte askusen lagunak, a, laguntzen, batzuk esnek emoten, errepertuten Neguritti eta Algorta ta Berango ta dana, eta gero eñ, a, seran, eta beste batzuk, a, emen ganadu preparaten" - (Gu urte batzuetan, orduan baino lehenago, joaten ginen, bost edo sei andre-gizon, eta ganadua ere asko baina etortzen zitzaizkigun lagunak, laguntzen, batzuk esneak ematen, banatzen Neguritik eta Algorta eta Berango eta dena, eta gero egin, zerean, eta beste batzuk, hemen ganadua prestatzen)

erresa: otoitz egin

"Amak eintteun erresa indabak garantzen eta" - (Amak egiten zuen otoitz indabak garantzen eta)

"Esan gudot, erresa barik, nire ama sekule esta yon oira, lo" - (Esan gura dut, otoitz egin barik, nire ama sekula ez da joan ohera, lo)

"Beraas erresaten gendun" - (Berarekin otoitz egiten genuen)

erresibu: 1. hartu. 2. harrera egin

errespeta: errespetatu

"Eta gero urrengo egunen astoas edo, seraas, yon bille ta etzera ekarri, baya errespeta itte auren, a, noperana" - (Eta gero hurrengo egunean astoarekin edo, zerarekin, joan bila eta etxera ekarri, baina errespetatu egiten zuten, norberarena)

erresulta: erresultatu

erretira: erretiratu, aldendu, jubilat

"Oin erretirate nasenen, badekot gordetako idea" - (Orain erretiratzan naizenean, badaukat gordetzeko ideia)

errima: parajetu, hurbildu

esan: esan

"Ordurik ona, esaten daure beti errin" - (Ordutik hona, esaten dute beti herrian)

"Nire es emon ñori esausten asauti" - (Nirea ez eman inori esan zidan asagotik)

"Bai, esa lei ori bere bai" - (Bai, esan liteke hori ere bai)

"Orreaittik lelengo yon gintzen Sopelara, an esauren esan eser" - (Horregatik lehenengo joan ginen Sopelara, han ez zuten esan ezer)

Aditz trinkoa ondoko era honetara egiten da:

| |
|-----------------------|
| diñot |
| diño |
| diñu |
| doñosu |
| diñosue |
| diñoue/diñeue/diñoure |

Pluralegilea <-s> da: **diñosus**. Datibodun adizkiak oso erabiliak dira: **diñost, diñostesu, diñotzet, diñotzu, diñotzut, diñotzesu**, e.a.

esarri: ezarri, oiloa habian txitak ateratzeko jesartzen denean esaten da

BERANGOKO HIZTEGIA

"Ollo esarri dau, an daula arrotzakas" -
(Oiloa ezarrita dago, han dagoela
arrautzekin)

esetu, esatu: ezagutu

"Esetuten dot ori" - (Ezagutzen dut hori)

"Esaittut esetuten, esan deustelakon" - (Ez
zaitut ezagutzen, esan didatelako)

"Suk esetuko su onen fameli? onen gixonan
fameli?" - (Zuk ezagutuko duzu honen
familia? honen gizonaren familia)

esijidu: exijitu

eskapa: eskapatu, ihes egin

"Asko etzera etorten gintzen eskapata ta
sentalle!" - (Asko etxera etortzen ginen
eskatututa eta zentaila!)

"Bai, eta errete siren sapata sarrak,
abarketa sarrak, eta orren usiñeas
eskapa daiñ" - (Bai, eta erretzen ziren
zapata zaharrak, abarketa zaharrak, eta
horien usainarekin ihes egin dezan)

eskastu: eskastu

"Unekada baten, a, eskastu in san" -
(Unekada baten, eskastu egin zen)

eskatu: eskatu

"Guk eskatu arriek, a, megidakoak eta ak
eitte ausen megidako arrik" - (Guk
eskatu harriak, neurrikoak eta hark
egiten zituen neurriko harriak)

eskegi, eskei, eskai, eskeri: eskegi

"Esta eintten, e, gause andirik oiñ, se ba,
umekas edo eiñ olau, eiñ eskegi, ba,
lapiko batzuk, batzuk ureas beste
batzuk, a, serriñeas, eta beste
karameloas eta" - (Ez da egiten, gauza
handirik orain, ze, ba, umeein edo egin
holako, egin eskegi ba, lapiko batzuk,
batzuk urarekin beste batzuk,
zerrautsarekin, eta bestea
karameluarekin eta)

"An eskeitteuren ganadu, ni txikerra ix
nitzenen, gaste gaste" - (Han eskegitzen
zuten ganadua, ni txikerra izan
nintzenez, gazte-gaztea)

eskojidu: aukeratu

"Ta gero noperak gure daune eskojidu" -
(Eta gero norberak gura duena
aukeratu)

eskondu: ezkondu

"Iru anaje taus emen eskondute
euskaldunekas" - (Hiru anaiak daude
hemen ezkondu euskaldunekin)

"Bai yonas ni eskondu baño lelau" - (Bai joan
naiz ni ezkondu baino lehenago)

"Arantxi eskondu san urten amalau urte ixao
dire" - (Arantxi ezkondu zen urtean
hamalau urte izango dira)

"Bai nire ama, goxeko sortziretan eskondu
san" - (Bai nire ama, goizeko zortzietan
ezkondu zen)

"Baltzik esta eskondu ber" - (Beltzik ez da
ezkondu behar)

eskribidu, eskribu: idatzi

esplika: azaldu

"Fin paraten badire elie io, ta ber deure ba,
ser esango tzut, selan esplikako tzut ori?" -
(Fin paratzen badira ez liteke eho, eta
behar dute ba, zer esango dizut, zelan
azalduko dizut hori?)

estaldu: estali

estima: preziatu

estreña, estrena: estrenatu

"Ni akordate nas, yon giñenen au grupo,
estrena gintzenen, yon gintzen San Pedro
egunen" - (Ni gomutatzen naiz, joan
ginenean talde hau, estrenatu ginenean,
joan ginen San Pedro egunean)

estropesa: estropeztatu

estudia: estudiatu

"Ordun gure yeunek estudia, libre oki yeun" -
(Orduan gura zuenak ikasi, libre eduki
zuen)

"Nire alabek estudia ber ixen dau ondo
yakittek" - (Nire alabak estudiatu behar
izan du ondo jakittek)

estutu: estutu

etorri: etorri; aditz trinkoa

"Atxiñe etorri aten lagun bet" - (Antzina
etorri zitzaidan lagun bat)

| |
|--------|
| nator |
| dator |
| gatos |
| satos |
| satose |
| datos |

etxa: bota

"Gero eskobeas batu, eta gero trigeruti pasa
eta serara etxa" - (Gero erratzarekin batu,
eta gero galbahetik pasatu eta zerera bota)

euki: eduki

"Guk emen euki gendusen mugiostrak" -
(Guk hemen eduki genituen mungiarak)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Ekarri esiñik etzera euki doas, or dekoas nik gantxo bi" - (Ekarri ezinik etxera eduki ditut, hor dauzkat nik gantxo bi)

falla: huts egin

"Areas betatu a ta or esteu fallaten kasik iños bere" - (Harearekin bete hura eta hor ez du huts egiten kasik inoiz ere)

falta: faltatu

"Ardi dustik sei illebeten agertu beres etzera ta bapere, bapere esan falta" - (Ardi guztiak sei hilabetean agertu ere ez etxera eta bat ere, bat ere ez zen falta)

fasildu: erraztu

fastidia: hondatu

"Baya edateunen ordun fastidiate san, baya edan barik egote sanen, gixona ona ostantzen" - (Baina edaten zuenean orduan hondatzen zen, baina edan barik egoten zenean, gizona ona osterantzean)

fermenta: garrastu

"Ta montoi baten itxitten badosu, fermentasiño, fermenta itten da" - (Eta pilo baten uzten baduzu, fermentazioa, fermentatu egiten da)

fia: fida izan, fidatu

fija: fijatu

"Fija sittes, orti orti eskegi eintten deures artok" - (Fija zaitetz, hortik hortik eskegi egiten dituzte artoak)

"Fijastes nire seme be albañela da" - (Fija zaitetz nire semea ere igeltseroa da)

filtra: iragazi

findu: findu

firma: sinatu

forma: egin, osatu

freskatu: freskatu

"Freskureas itten dau beti, a, sera, freskatu, orri bere ba sertu, eta beroas, orri bere batu itten da" - (Ihintzarekin egiten du beti, zera, freskatu, orria ere ba zertu, eta beroarekin, orria bere batu egiten da)

frijidu, friju, priju: frijitu

"Ta gero bota, orio eta berakatza ondo frijidute" - (Eta gero bota, olio eta berakatza ondo frijituta)

fruntzidu, frunsidu: fruntzitu

"Gone olan frunsidute, eta ganeti beste frunsidute bat, eta gero mantille derdixedu bet baltza ganeti" - (Gona

hola izurtsua, eta gainetik beste izurtsu bat, eta gero mantila handi bat beltza gainetik)

fuma: erre

"Sigarrok fumateusen atxiñe txisparries, txisparries sigarro bistu" - (Zigarroak erretzen zituzten antzina txisparriarekin, txisparriarekin zigarroa biztu)

fusila: fusilatu

galdu: galdu

"Enauke gure, a, galdu ori arri nik, gure aittek eiñeko ollok edateko ure" - (Ez nuke gura, galdu harri hori nik, gure aitak eginekoa oiloek edateko ura)

"Gero geldiro geldiro yon san galtxen" - (Gero geldiro-geldiro joan zen galtzen)

"Guk auki gendun bat, igual on gintzen yaten ogetamar urten ta gero, galdu i yaskun" - (Guk eduki genuen bat, beharbada egon ginen jaten hogeita hamar urtean eta gero, galdu egin zitzaigun)

garandu: garandu

"Eta gero sarratu ondo, ta urreo egunen gero, otzittute ote siren eta atara, ta garandu gero" - (Eta gero itxi ondo, eta hurrengo egunean gero, hotzittuta egoten ziren eta atera, eta garandu gero)

garbittu: 1. garbitu. 2. hil

"Gero trigeru auki gendun, ta trigerure bota, eta pasa, eta alan garbittute siren" - (Gero galbahea eduki genuen, eta galbahera bota, eta pasatu, eta hala garbitzen ziren)

gardostu: galdaraztatu

garrastu: garrastu

"Frute edo edosein beskari, itxi badosu igual gauerako ta bero in dau eta pika badatzu te, bai, garrastu" - (Fruta edo edozein bazkari, utzi baduzu beharbada gauerako eta bero egin du eta pikatu bazaizu eta, bai, garrastu)

gasittu: gazitu

gasta: 1. gastatu. 2. higatu

"Erreminte dustik itxi eusen gure etzen, gasta gasta intte, eta masete bere itxi aun" - (Erreminta guztiak utzi zituen gure etxean, higatu higatu eginda, eta mazutoa ere utzi zuen)

"Aittu, indabak, patatak eta arto orrek ote siren baya orti urtenta, esan oten, e, gasta bere esan intten, e?" - (Aditu, indabak, patatak eta artoa horiek egoten ziren baina

BERANGOKO HIZTEGIA

hortik irtenda, ez zen egoten, gastatu ere ez zen egiten, e?)

"Ya oki lis sasaki sein amar sein amabost, ya agiñek gasta arten, se batzuk gasta eitten deittus agiñe pere, urtekas klaro, noperan modun" - (Ja eduki litzake zazpi zein hamar zein hamabost, ja haginak higatu arte, ze batzuek higatu egiten dituzte haginak ere, urteekin jakina, norberaren moduan)

geittu, gaittu: deitu

"Geittu in dotzet" - (Deitu egin diot)

"Gaittu neuntzen ta seran ta, an etze ondon artebin seran, txakurre esiñ ibilli" - (Deitu nion eta zerean eta, han etxe ondoan artadiaren zerean, txakurra ezin ibili)

gisa: gisatu

"Ba sesiñe, ba gisata edo, ostantzen eleitte yan" - (Ba zezina, ba gisatuta edo, osterantzean ez liteke jan)

gixondu: gizondu

goberna: gobernatu, jagon

"Amak gobernateusen" - (Amak gobernatzen zituen)

"Beiñ, a, olan, a, ekarri eun, selan dakasu señe orreas? ser ein dau ba? enei goberna" - (Behin, hola, ekarri zuen, zelan dakarzu seina horrekin? zer egin du ba? ez nezake goberna)

"Gero neskato bat auki neun umek gobernateko" - (Gero neskato bat eduki nuen umeak gobernatzeko)

gogortu: gogortu

"Bigun bigun lotxen da eta a gogortu eitten da gero" - (bigun-bigun lotzen da eta hura gogortu egiten da gero)

gomitta: bota, errebesatu

"Ganera, mediku koittadu pere, ordun inorantzi nire antzekok ixen siren, ba nik gomitta intte neun, ese esnek, eta nau esnekas ibillitte, enei esne proba, nik tea artxen dot eta grasik!" - (Gainera, mediku koitaduak ere, orduan jakineza nire antzekoak izan ziren, ba nik bota egiten nuen, eze esneak, eta neu esneekin ibilita, ez nezake esnea probatu, nik tea hartzen dut eta eskerrak!)

gorde: gorde

"Su errapera basoas eskukes ataraten gorde itten dotzu" - (Zu errapera

bazoaz eskuekin ateratzen gorde egiten dizu)

"Neu tekoas gordeta or" - (Neuk dauzkat gordeta hor)

gorittu: goritu

gorrittu: gorritu

"Eta gero bero paraten sanen gorrittute labe, ba a dusti atara itteuren" - (Eta gero bero paratzen zenean gorrituta labea, ba hura guztia atera egiten zuten)

gortu: gortu

gosa: gozatu

gosetu: gosetu

gosotu: gozotu

graba: grabatu

gusta: gustatu

"Beti gusta dast ibiltte" - (Beti gustatu zait ibiltzea)

ibilli, ibil: 1. ibili. 2. erabili

"Ni gasterik, a, kanpon urtenta bearren ibilli nas beti" - (Ni gazterik, kanpoan irtenda beharrean ibili naiz beti)

"Ogi tiratxu, eskiñetxu kendute, agoan ibil deyen" - (Ogi tiratxoa, izkinatxoa kenduta, ahoan erabil dezaten)

"Ori teme sarritten ibiltten du ba, sarritten ibiltten du, se emen esaten dere, aone pere bai, one pere bai, oneri bere pasaten dako, arantza dosenen, estai ser, ta onantza datosenen estait nor" - (Gai hori sarritan erabiltzen dugu ba, sarritan erabiltzen dugu, ze hemen esaten dute, haonek ere bai, honek ere bai, honi ere pasatzen zaio, harantz doazenean, ez dakit zer, eta honantz datozenean ez dakit nor)

"Es baya ni, enas ibil amar urte baño" - (Ez baina ni, ez naiz ibili hamar urte baino)

| |
|------------|
| nabil |
| dabil |
| gabiltzes |
| sabiltzes |
| sabiltzese |
| dabiltzes |

Erabili adierazteko denean honela jotatzen da:

| | |
|----------|-----------|
| dabilt | dabiltes |
| dabill | dabiltzes |
| dabilgu | dabilgus |
| dabiltzu | dabiltzus |

BERANGOKO HIZTEGIA

| | |
|----------------|------------|
| dabiltzue | dabiltzues |
| dabilde/dabile | dabildes |

ibittu: ibitu, handituren kontrakoa

ien: igan

"Orrek ien dau basora" - (Horrek igan du basora)

iertu: ihartu

"Ori piñutxu antzeko da, piñun, erramen antzeko eta esta iertuten iños" - (Hori pinutxo antzekoa da, pinuaren, abarren antzekoa eta ez da ihartzen inoiz)

igerri, ierri, iarri: igarri

"Kanpon igerri ordureko, etzekok igerten du itzel, baya aurokas bixi ber da, e? osten estosu igerriten, suk ikusten dosu orti eta estotzesu igerriten" - (Kanpoan igarri ordurako, etzekoak igartzen dugu itzel, baina eurokin bizi behar da, e? ostean ez duzu igartzen, zuk ikusten duzu hortik eta ez diozu igartzen)

"Nik estot iarri asko, igual berban baten ego leittike sera, baya ostantzen estot, a" - (Nik ez dut igarri asko, beharbada berbaren baten egon liteke zera, baina osterantzean ez dut)

igertu: ihartu

ikeratu: ikaratu

"Onek ikeratute daus" - (Hauek ikaratuta daude)

"Ba, askok imintteuen ixera andi bet, buruti sartu, ta olan sera bateas gero, farola bateas, jente ikeratuten" - (Ba, askok ipintzen zuten izara handi bat, burutik sartu, eta hola zer batekin gero, farol batekin, jendea ikaratzen)

ikesi, ikisi: ikasi

"Seuek ikis ber dosue, seuo tekosues umek" - (Zeuek ikasi behar duzue, zeuok dauzkazue umeak)

"Euskera ikisten dabill" - (euskara ikasten dabil)

"Gero guk ikisi gendun beranatik" - (Gero guk ikasi genuen berarenetik)

ikoldu: ihartu, ikoldu

ikusi: ikusi

"Ikus dot seña liburu bet leitten" - (Ikusi dut seina liburu bat irakurtzen)

"Etor nasenen ikusi saittut" - (Etorri naizenean ikusi zaitut)

ikutu: ikutu

"Se ikutu igual belarritten ta negarres igual, ene! belarriko miñe deko onek" - (Ze ikutu beharbada belarrietan eta negarrez beharbada, ene! belarriko mina dauka honek)

ill: hil

"Amairu urte da nire ama il dana, oiñ eingo eusen aun de sei" - (Hamahiru urte da nire ama hil dena, orain egingo zituen ehun eta sei)

"A gobernaten yon ta bera ill, ta a salba" - (Hura gobernatzan joan eta bera hil, eta hura salbatu)

"A gasterik il san" - (Hura gazterik hil zen)

illundu: ilundu

imiñi, imiñ: ipini; informatzaile batzuek infinitiboan "imiñ" erabili dute.

"A estu ixete sales, gero lurre, lurre alboti tapa eitteun, eta orreaittik imintte otzon, errama batzuk, a lurre, a lurre aputxu bet sabalao, a, lotxeko" - (Hura estua izaten zenez, gero lurra, lurra albotik tapatu egiten zuen, eta horregatik ipintzen zion, abar batzuk, lur hura, lur hura apurtxo bat zabalago, lotzeko)

"Erreten bada beste bat imiñi" - (Erretzen bada beste bat ipini)

inbertidu: inbertitu

injerta: mendatu

"Ies injerta neun berde, ta gero negukok gorrik eta berdek injerta doas" - (Iaz mendatu nuen berdea, eta gero negukoak gorriak eta berdeak mendatu ditut)

inka: inkatu, itsatsi

interesa: interesatu

intxun: etzan

"Ikusten badosu intxunte atzerantza, ori jodu da" - (Ikusten baduzu etzanda atzerantz, hori joditu da)

iñ: egin

"Aurten emen patatak imin badoas, ba datorren urten emen, ta lurre kanbia iñ apur bet" - (Aurten hemen patatak ipini baditut, ba datorren urtean hemen, eta lurra aldatu egin apur bat)

iñusentetu: inuzentetu

"Ango gixona, ondikarren bixi da, iñusentetute dau baya bixi da" - (Hango gizona, oraindikarren bizi da, inuzentetuta dago baina bizi da)

io: eho

BERANGOKO HIZTEGIA

"A da, ondo iota daun urune san" - (Hura da, ondo ehotu dagoen irina zen)

"Errekak len bere bai se, Itzeko errotak, a, ak ureas beti io dau" - (Errekak lehen ere bai ze, Itzako errotak, hark urarekin beti eho du)

"Baya gero ure yauste dana, bera yauste san, a, iote yeun lekuti bere, eta gero beste errotara" - (Baina gero ura jausten dena, behera jausten zen, ehotzen zuen lekutik ere, eta gero beste errotara)

irebasi: irabazi

"Jornal bi irebasteusen" - (Soldata bi irabazten zituen)

iregarri: iragarri

"Bai! baya iregarritten dako bai pasata" - (Bai! baina iragartzen zaio bai pasatuta)

irekatzi: irakatsi

"Amak irekatzi yeutzean orreri baya selan kanta!" - (Amak irakatsi zion horri baina zelan kantatu!)

irigi, iregi, igiri, iri: ireki

"Eta gero apur bet irigitte itxi lurrunek urten deñ, barruko laurrnek, tapaten baosun dusti, ba lurrune an lotxen dan, bustitte lotxe siren" - (Eta gero apur bat irekita utzi lurrunak irten dezan, barruko lurrunak, tapatzen bazenuen guztia, ba lurruna han lotzen zen, bustita lotzen ziren)

"Ate iritten yonassenen ba giltze apurtu dat" - (Atea irekitzen joan naizenean ba giltza apurtu zait)

"Sartu bentanati, ordun bentanak igeritte ba!" - (Sartu leihotik, orduan leihoak irekita ba!)

"Ori kendu barik garbittu ber dire, baya onek irigitteuren, a, sera" - (Hori kendu barik garbitu behar dira, baina hauek irekitzen zuten, zera)

irikiñ: irakin

"Irikiñ erain tte otzittuten itxi, eta gero a oriotxu bota" - (Irakin eragin eta hozten utzi, eta gero oliotxo hura bota)

iruldi: irauli

"Bueno iruldi esteko, yote san, bat edo bi gurdin atzen" - (Beno ez iraultzeko, joaten zen bat edo bi gurdiaren atzean)

iruntzi: irentsi

istutu: estutu

"Gero botate san serara, pasadora batera, eta an, istutu te istutu te istutu, eta botaten dau ure dana, ure dana botaten dau" - (Gero botatzen zen zerera, iragaztontzi batera, eta han, estutu eta estutu eta estutu, eta botatzen du ur dena, ur dena botatzen du)

itto, ito: ito

"Urteun orrek itto barik" - (Irten zuen horrek ito barik)

"Pasentzi andies se, txarto ineskero gero, basos bedarra ebaiten ta ito iten da nopera, se bear doble iten dau" - (Eroapen handiarekin ze, txarto eginez gero gero, bazoaz belarra ebakitzen eta ito egiten da norbera, ze behar bikoitza egiten du)

itxeron, itxedon: itxaron

"Itxeron in dotzet" - (Itxaron egin diot)

"Itxedon in ber, a, urune eroteko etzera, arik eta gaueko amaketararten igual" - (Itxaron egin behar, irina eroateko etxera, harik eta gaueko hamaiketara arte beharbada)

itxi: utzi

"Dana dau itxitte" - (Dena dago utzita)

"Nik itxi in ber sittut, e? enterrure yon ber dot" - (Nik utzi egin behar zaitut, e? enterrura joan behar dut)

"Txarto ittekotan obeto itxi" - (Txarto egitekotan hobeto utzi)

"Karo urte asko da ta ya itxitte dekot, a, sera" - (Jakina urte asko da eta ja utzita daukat, zera)

itzutu: itsutu

"Gure ama itzutute lotu san" - (Gure ama itsututa lotu zen)

ixartu: itzartu

ixen: 1. izan. 2. izan, aginean. 3. joan

"Nire aitte ta ni ixen gara Berangokok" - (Nire aita eta ni izan gara Berangokoak)

"Atxiñeko berbetabakok ixen dire, estere yakin besterik, eleixara yon ber da, eta ara yon ta etorri etzera, ta beti sarataka" - (Antzinako berbeta bakoak izan dira, ez dute jakin besterik, elizara joan behar da, eta hara joan eta etorri etxera, eta beti sarataka)

"Gomek urte ixen dotzo" - (Gomak irten izan dio)

"Berangora ixen da" - (Berangora izan da)

ixerditu: izerditu

"Iixerditu nas" - (Izerditu naiz)

ixi: itxi

BERANGOKO HIZTEGIA

"Arrastitten ixitten daude se estau iñor" -
(Arrastegietan ixten dute ze ez dago inor)

ixildu, ixeldu: isildu

"Nik gure dot ixildu saittesela" - (Nik gura dut isildu zaitzezela)

"Eitten dau berba onek, a, esta ixeldu bere itten" - (Egiten du berba honek, ez da isildu ere egiten)

iyosi: igurtzi

"Iyosi tte iyosi tte errape bigun, errape bigun, errape gogortu in ber dau esne datorrenen, ordun or dator txorrotade" - (Igurtzi eta igurtzi errapea bigun, errapea bigun, errapea gogortu egin behar du esnea datorrenean, orduan hor dator txorrotada)

jodu: joditu

"Ikusten badosu intxunte atzerantza, ori jodu da" - (Ikusten baduzu etzanda atzerantz, hori joditu da)

jubila: jubilatatu, erretiratu

junta: elkartu

"Enbrak junta gintzen" - (Andrazkoak elkartu ginen)

"Oñ es, oñ aurok juntaten dire" - (Orain ez, orain eurok elkartzen dira)

kalkula: kalkulatu

kalma: baretu, lasaitu

"Aik txupa eta kalma itte otzen" - (Haiek miazkatu eta baretu egiten zion)

kanbia: aldatu, trukatu

"Urte dustitten kanbiate gendun" - (Urte guztietan aldatzen genuen)

"Aurten emen patatak imin badoas, ba datorren urten emen, ta lurre kanbia iñ apur bet" - (Aurten hemen patatak ipini baditut, ba datorren urtean hemen, eta lurra aldatu egin apur bat)

"Kanbiateko, iste san egun argi, denpora ona dauela" - (Aldatzeko, izaten zen egun argia, eguraldi ona dagoela)

kanta: kantatu

"Ori ibiltte ixen da len kantaten" - (Hori ibiltzen izan da lehen kantatzen)

"Biragarrok eta sosok, kanta selan eitteuden aik!" - (Birigarroek eta zozoek, kantatu zelan egiten zuten haiek!)

"Kanta? bai ori asko baya ya umek garela, e? ya amar urterik gora edo" -

(Kantatu? bai hori asko baina ja umek garela, e? ja hamar urterik gora edo)

"Bera kanta ta kanta dabil egun dustiñ" -
(Bera kanta eta kanta dabil egun guztian)

kantza: nekatu

"Oin kantzata nau" - (Orain nekatuta nago)

"Bai, bai, kantza itte san asko, balientena orretan egon sana ementxe, Oker geittute otzena" - (Bai, bai, nekatu egiten zen asko, ausartena horretan egon zena hementxe, Oker deitzen ziotena)

kapa: irendu, kapatu

"Emeti, a, sera, Bediako bat etorte san kapaten ona" - (Hemendik, zera, Bediako bat etortzen zen kapatzen hona)

karga: kargatu

"Goxeran, goxeti, urtete dan igual, goxeko bostatan, ebaitten bi aurreti, eta gero igual aitte difuntu etorte san, bayekas ta, eta karga eta etzera" - (Goizetik, goizetik, irteten zen beharbada, goizeko bostetan, ebakitzen bi aurretik, eta gero beharbada aita zena etortzen zen, behiekin eta, eta kargatu eta etxera)

karutu: garestitu

kastiga: zigortu

keja: kexatu

"Emen on san, se keja in gintzen gu, sikeran bere etzeko konsumorako, txarri etzen iltteko" - (Hemen egon zen, ze kexatu egin ginen gu, gutxienez ere etzeko konsumorako, txerria etxean hiltzeko)

kendu: kendu

"Gero kentxen dire, ba, sayetzak" - (Gero kentzen dira, ba, saihetsak)

"Ainbeste kilo eroten basendun berrotamar kilo, berrotamar kiloko estait senbest kilo kentxe aun berak, berataringo" - (Hainbeste kilo eroaten bazenuen berrogeita hamar kilo, berrogeita hamar kiloko ez dakit zenbat kilo kentzen zuen berak, beratatik)

"Kentxen dake dana, kapa baten kentxen dako osorik" - (Kentzen zaie dena, geruza baten kentzen zaio osorik)

ketu: ketu

kiña: kinatu

"Eta yo nitten orra palu beteas, kiña ta kiña ta kiña, ta urte osten" - (Eta joan nintzen horra makila batekin, kinatu eta kinatu eta kinatu, eta irten zidan)

kiskortu: kixkortu

BERANGOKO HIZTEGIA

kita: kendu

"Orrek odola dauke, eta odola kitate akonan" - (Horiek odola daukate, eta odola kentzen zitzaion han)

kobra: kobratu

"Ainbet gurdi dekoas, a, kobra barik" - (Hainbat gurdi dauzkat, kobratu barik)

komenta: komentatu

komulga: komulgatu

konbida: gonbidatu

konfundidu: okertu

konosi: ezagutu

"Ese estosules, a, konosten sarra ala dan, ala arteko urteko ba, engaña" - (Eze ez duzun lez, ezagutzen zaharra ala den, ala arteragoko urtekoa ba, engainatu)

konpondu. konpondu

"Ori konpondute san, untegire yon, ta erre itte otze, asufreas" - (Hori konpontzen zen, ehuntegira joan, eta erre egiten diote, sufrearekin)

konta: kontatu

"Iturren ibil nas ni, eta konta intte neusen biajek, ene nos akabako da!" - (Itaurrean ibili naiz ni, eta kontatu egiten nituen bidaiak, ene noiz amaituko da!)

kontesta: erantzun

"Onek eitte otzunen berba kontesta" - (Honek egiten dizunean berba erantzun)

kontrola: kontrolatu

"Oñ ondo kontrolata dau dusti" - (Orain ondo kontrolatuta dago guztia)

konturetu, konturotu: konturatu

"Konturetu nas etorri diresela" - (Konturatu naiz etorri direla)

"Enas konturetuten orreas" - (Ez naiz konturatzen horrekin)

kontzerba, konserba: kontserbatu

"Oñ esin dire kontzerba" - (Orain ezin dira kontserbatu)

korridu, korru: korritu

"Ori norberan modun da, asko korritten baosu, arnasa artu esiñik saus" - (Hori norberaren moduan da, asko korritzen baduzu, arnasa hartu ezinik zaude)

"Gero nik solo dustik, a, korrite neusen" - (Gero nik soro guztiak, korritzen nituen)

kosi, kosu, kusi: koiu, hartu, harrapatu

"Gari gitxi emen koste san" - (Gari gutxi hemen hartzen zen)

"Kosixu ori ume yausi ingo datzu te" - (Hartu ezazu ume hori jausi egingo zaizu eta)

"Estu kosi baperes" - (Ez dugu hartu bat ere ez)

"Yon san ara kusi aun gantxo, ta an ibil siren batzuk, a, kusten, a ba, serak, amarratzak kusten" - (Joan zen hara hartu zuen gantxoa, eta han ibili ziren batzuk, harrapatzen, ba, zerak, hamarratzak harrapatzen)

"Baya selaseko kusi auren ba!" - (Baina zelasekoa harrapatu zuten ba!)

kosta: kostatu

"Eta kosta itten da, e? kurate, e? oin badaus pomadak, pomada taus oiñ" - (Eta kostatu egiten da, e? osatzea, e? orain badaude pomadak, pomadak daude orain)

kostunbra: usatu, ekandu

kuaja: gatzatu

kunplidu: bete, egin

kura: 1. ondu, heldu. 2. osatu

"Eta kosta itten da, e? kurate, e? oin badaus pomadak, pomada taus oiñ" - (Eta kostatu egiten da, e? osatzea, e? orain badaude pomadak, pomadak daude orain)

kurtidu: ondu

"Kurdituk ixen ber deu, espabere gogortu itten dires orrek, siku lotxen dires an" - (Onduak izan behar du, ezpabere gogortu egiten dira horiek, siku lotzen dira han)

kurtza: kurtzeatu, gurutzatu

"Olan kurtza eskerokonen, amen lotxen da, erdin lotxen da" - (Holan kurtzeatuz gero, hamen lotzen da, erdian lotzen da)

labra: 1. laiatu. 2. landu

"One pere ona da labrate lelau ese, gaur labrata bier ereinte esta ona, e?" - (Hauek ere ona da lantzea lehenago eze, gaur landuta bihar ereinda ez da ona, e?)

"Lurre labra ber da, eta oiñ, ba aprillen akaburantz eta mayetzan asikeran, da onena ereitete indabak" - (Lurra laiatu behar da, eta orain, ba apirilaren amairarantz eta maiatzaren hasieran, da onena ereitete indabak)

laburtu: laburtu

lagundu: lagundu

"Lagundu dotzet etzera orreri" - (Lagundu diot etxera horri)

"Lagundu dotzut akabaten" - (Lagundu dizut amaitzen)

BERANGOKO HIZTEGIA

"*Problemarik badator ba, lagundu in ber tzesu*" - (Arazorik badator ba, lagundu egin behar diozu)

lamiska: lamiskatu, miazkatu

"*Beye pere esaten dere batzuten, lamiska eta txupaskeron beye pere txarto paraten direla se beneno dekola andi*" - (Behiak ere esaten dute batzuetan, lamiskatu eta txupatuz gero behiak ere txarto paratzen direla ze pozoia daukala handia)

larga: larga, laga, utzi

larritu: larritu

"*Ori sera da, lloben gixona, etzeko da ori, es larritu*" - (Hori zera da, ilobaren gizona, etxekoa da hori, ez larritu)

layatu: laiatu

"*Layetan, a, ba segun, baya anaje bien arten, se karo gure beste aldekok ganadu asko aukitteuren, eta idi pere bai etzen, eta orrek eitteuren auron labranse ariñau, baya guk, a, anajek kanpon eitten gendun bear, eta sapatuten ta domekatan asikera ori itten gendun, a kosi onetara ta sartu, ta poun! ta ganen para, eta gero ba, ta buelte emon, ara sartu ostabere emeti, ta tapa! buelta emoteko*" - (Laietan, ba segun, baina anaia bien artean, ze jakina gure beste-aldekoek ganadu asko edukitzen zuten, eta idiak ere bai etxean, eta horiek egiten zuten euren lanketa arinago, baina guk, anaiek kanpoan egiten genuen behar, eta zapatuetan eta domeketan, hasieran hori egiten genuen, hura hartu honetara eta sartu, eta poun! eta gainean paratu, eta gero ba, eta buelta eman, hara sartu ostera ere hemendik, eta tapa! buelta emateko)

"*Onek lur gogorak, goikok? bai, layatu intte san*" - (Hauek lur gogorak, goikoak, bai, laiatu egiten zen)

leidu: irakurri

libra: 1. libratu. 2. umea egin

"*Bera etorte san, a, librateko baye*" - (Bera etortzen zen, libratzeko behia)

"*Aik libra ta osten yote siren ba errekarra, se len ure bere esan eoten etzetan*" - (Haiek libratu eta ostean joaten ziren ba errekarra, ze lehen ura ere ez zen egoten etxeetan)

lisatu: lisatu

"*Lisatusu errope lastana, ba?*" - (Lisatu duzu arropa lastana, ba?)

lodittu: loditu

"*Olan asieskeron gero ba lodittu te kendu itte san*" - (Hola hasiz gero ba loditu eta kendu egiten zen)

loguretu: loguratu

loittu: lohitu

"*Loittu eintten da arto*" - (Lohitu egiten da artoa)

lokatu: lokatu

"*Bai, bai, abi itte akon, t'ademas ollok lokatu intte siren*" - (Bai, bai, habia egiten zitzaion, eta gainera oiloak lokatu egiten ziren)

lotu: lotu

"*Bole modun lotu ber deu*" - (Bola moduan lotu behar du)

lotzatu: lotsatu

lumetu: lumatu

lusetu: luzatu

"*Gero mallues golpeka iten dere, lusetu*" - (Gero mailuarekin kolpeka egiten dute, luzatu)

makiñetu: makinatu, goldatu

"*Bason ibil gara alan makiñetan ta basok labraten ibil gara iños baya, baso gitxi*" - (Basoan ibili gara hala makinatzen eta basoak lantzen ibili gara inoiz baina, baso gutxi)

"*Bein erreskeron, bein garbituskeron, ya sabalten dosu ori dusti, te gero makiñetu, gero ya areakas apurtu ta yasta, solo inte dau*" - (Behin errez gero, behin garbituz gero, ja zabaltzen duzu hori guztia, eta gero makinatu, gero ja areekin apurtu eta badago, soroa eginda dago)

makurtu: makurtu

"*Su para makurtute ta bestek salta*" - (Zu paratu makurtuta eta besteak saltatu)

mamurtu: mamurtu

maneja: maneiatu, erabili

"*Ori solon ibil san batek apurtu yeusten, manejaten yakiñ es*" - (Hori soroan ibili zen batek apurtu zidan, maneiatzen jakin ez)

"*Orrek manejateko dires okerrak*" - (Horiek erabiltzeko dira okerrak)

manta: mantatu

mantenidu: mantendu

BERANGOKO HIZTEGIA

"Asiske txarrik ote siren mantenidute, es oingo modun" - (Halandaze txerriak egoten ziren mantenduta, ez oraingo moduan)

marea: zorabiatu

marka: markatu

"Talleas markateuren" - (Teilarekin markatzen zuten)

"Egurrek berak markaten dau en jeneral" - (Egurak berak markatzen du gehienetan)

martxa: joan, alde egin

"Nik martxa i neun, e?" - (Nik alde egin nuen, e?)

"Beste anaje biek esaturen estudia gure ixen, ta batek Amerikara martxa yeun, bueno biek yon siren Amerikara" - (Beste anaia biek ez zuten estudiatu gura izan, eta batek Ameriketara alde egin zuen, beno biak joan ziren Ameriketara)

matxaka: txikitu, zanpatu

meastu: mehaztu

"Emoten tzun, ba, bakixu botaten daun garo, a, seran ta, igual batzuk sarratutxuau besta batzu paño eta gero meastu, emon distantzitzu bet or, a, ba amasortzi ogei sentimetroko distantzi, esta? eta yorratu, eta gero apur bet ya asten danen betatu, axek esteñ, a, bota bera" - (Ematen genion, ba, badakizu botatzen duen garaua, zerean eta, beharbada batzuk zerratutxoago beste batzuk baino eta gero mehaztu, eman distantziatxo bat hor, ba hamazortzi hogeituzentimetroko distantzia, ezta? eta jorratu, eta gero apur bat ja hazten denean bete, haizeak ez dezan, bota behera)

medu, meidu: neurtu

"Estot medu litro gitxi nik orrekas! Jangoikoa!" - (Ez dut neurtu litro gutxi nik horiekin! Jaungoikoa!)

mejora: hobetu

"Botate nuntzen eta beye mejoraten asi san" - (Botatzen nion eta behia hobetzen hasi zen)

mendau, menda: bendatu

"Apatx bittarteko itteun, asufre salako dekot, erre itte otzen, eta gero mendau" - (Apatx-artekoa egiten zuen, sufrea

zelakoa daukat, erre egiten zien, eta gero bendatu)

meresidu: merezitu, merezi izan

"Gaur egun estau meresidu se, su errotak, arto saku et, ioteko urtean, estau meresidu" - (Gaur egun ez du merezi ze, su errotak, arto zaku bat, ehotzeko urtean, ez du merezi)

metu: mehatu

mikatu: mikatu, oiloak zaharraren gaixotu

"Ill ixeo da mikatu, se lotxen dire alan" - (Hil izango da mikatu, ze lotzen dira hala)

mindu: mindu

mingostu: mingostu

miska: miazkatu

misketu: 1. gaztainak altzikitu. 2. miazkatu

"Oin misketute gaus, oritxe da egi" - (Orain miazkatuta gaude, horixe da egia)

mogidu, mugidu, mobidu, mogu: mugitu

"Sekule bedarra ebai, eta eron etzera eta urrango egunen mogidu eta seran, ia sertxen badau" - (Sekula belarra ebaki, eta eroan etxera eta hurrango egunean mugitu eta zerean, ea zertzen den)

"Eta egunen lau edo bost bider ba, mogu ber da, e?" - (Eta egunean lau edo bost bider ba, mugitu behar da, e?)

"Gu eskintzesen mogidu emeti" - (Gu ez ginen mugitu hemendik)

moskortu: mozkortu

nabega: nabigatu

nasta: nahastu

"Beti nastaten dosu apur bet" - (Beti nahasten duzu apur bat)

"Kayuele aukiko dau nastata" - (Kaiuela edukiko du nahastuta)

obetu: hobetu

obliga: behartu

"Gerra osten obliga intteuen gari kosten bere bai" - (Gerra ostean behartu egiten zuten gari hartzen ere bai)

okertu: 1 okertu. 2 okertu, gaiztotu

"Okertu daitten busti in ber da, espabere tak! salta itten deu, siku badau" - (Oker dadin busti egin behar da, ezpabere tak! saltatu egiten du, siku badago)

ogatu, obatu: oratu

"Ori kosu ollo, obatu, e? igeri agoa, eta miñen aspin deko, olau suritxu bet, a berakatzaas" - (Hori hartu oiloa, oratu, e? ireki ahoa, eta mihiaren azpian dauka, holako zuritxo bat, hura berakatzarekin)

BERANGOKO HIZTEGIA

oki: eduki

"Solo asko okitten gendun, esta?" - (Soro asko edukitzen genuen, ezta?)

olga: olgatu

"Umeri gustaten dake asko olgete" - (Umeei gustatzen zaie asko olgatea)

"Onek olgateun, one pai olgateun" - (Honek olgatzen zuen, honek bai olgatzen zuen)

on: egon

"Baya lasto danak on siren yanta" - (Baina lasto denak egon ziren janda)

ondu: ondu

"Gero amarratza ondu daunen ara bota" - (Gero hamarratza ondu duenean hara bota)

opera: operatu

opetzi: opetsi, eskaini

oratu, oatu: 1. oratu. 2. oreka egin errotarrian

"Goyen egote siren orrek sagusarrak, oatu goyen ta, eskeitte" - (Goian egoten ziren horiek saguzarrak, oratu goian eta, eskegita)

ordena: taxutu

orbista: orbiztatu

"Bai orbistaten dire, baya ixen ber dau, onik aurrera" - (Bai orbizatzen dira, baina izan behar du, honik aurrera)

"Auri iten daunen, ba ukusten da landare selan bistu dan, esta? orbista" - (Euri egiten duenean, ba ikusten da landarea zelan biztu den, ezta? orbizta)

organisa: antolatu

"Ori organisaten san, a, eitte yauren illen, itte yauren, aurok aukitte yauren" - (Hori antolatzen zen, egiten zuten hilean, egiten zuten, eurok edukitzen zuten)

orrastu: orraztu

"Ni altzate nas intten doas bearrak eta igual dutxate nas amakatan edo amabitten, baya ordun lelengo lelengo intte siren aurok prepara eta beti ukus doas orrastute" - (Ni altxatzen naiz egiten ditut beharrak eta beharbada dutxa hartzen dut hamaietan edo hamabietan, baina orduan lehenengo-lehenengo egiten ziren eurok prestatu eta beti ikusi ditut orraztuta)

osatu: osatu, sendatu

"Ori osatu itten da" - (Hori osatu egiten da)

ostu: 1. ostu. 2. ezkutatu

"Coruñan ego nitzen, amabost egun an, gero atzera Ebrorantza, ta ser eineun, Lutxanako batek, Karrantzako ta neu, irurok, emekok gintzen, ta ak buru berotu yoskun eskapa in ber dule ta eskapa in ber dule, ta eskapa gendun, saspi urte t'erdi ei neusen ostute emen" - (Coruñan egon nintzen, hamabost egun han, gero atzera Ebrorantz, eta zer egin nuen, Lutxanako batek, Karrantzakoa eta neu, hirurok, hemengoak ginen, eta hark burua berotu zigun ihes egin behar dugula eta ihes egin behar dugula, eta ihes egin genuen, zazpi urte eta erdi egin nituen ostuta hemen)

"Ori egon san ostute kamaran" - (Hori egon zen ostuta kamaran)

otzittu: hotzitu, hoztu

"Berotan bertan, ta imintten daure maya baten alan sabal sabal sabalen ta an otzittuten da" - (Berotan bertan, eta ipintzen dute mahai baten hala zabal-zabal-zabalean eta han hozten da)

"Espabere otzittu ingo sara ta katarrotxu etorko datzu, ta gero ongo sara astulke" - (Eztabere hoztu egingo zara eta katarrotxo etorriko zaizu, eta gero egongo zara ez tulka)

oyeratu: oheratu

"Elei oyeratu" - (Ez liteke oheratu)

padesidu: jasan, pairatu

paga: ordaindu

"Bat gitxiao paga ber dosu ni enau ukusten iñok, beran yastekoas tapata" - (Bat gutxiago ordaindu behar duzu ni ez nau ikusten inork, beraren jantziarekin tapatuta)

para: paratu

"Posik parako sara, e?" - (Pozik paratuko zara, e?)

"Arik, a, parate siren, e, iru, a, irurek, olan, a, illedan, sartu orrek, ra, ra, ra, ra, kusi, ra! emoteutzen buelte" - (Haiek, paratzen ziren, hiru, hirurak, hola, ilaran, sartu horiek, ra-ra! ra-ra! hartu ra! ematen zioten buelta)

parkatu: parkatu

"Nik estotzet parkatuko iños" - (Nik ez diet parkatuko inoiz)

pasa: pasatu

BERANGOKO HIZTEGIA

"Andran alderdiñ andrak elixan, ta gixonan alderdiñ, estittela pasa bat beste alderdire!" - (Andreen alderdian andreak elizan, eta gizonen alderdian, ez dadila pasa bat beste alderdira!)

"Andi andi andi bari bere pasa leitte au, andies eitteuren amak eta onek" - (Handi-handi-handi barik ere pasa liteke hau, handiarekin egiten zuten amak eta hauek)

"Ba egosi, eta sartu, pasa, ta gero sartu botilletan" - (Ba egosi, eta sartu, pasatu, eta gero sartu botiletan)

pastea: pasteatu, ganaduak landan bazkatu

pega: erantsi, atxiki

"Pegata lotu deittela or" - (Itsatsita lotu dadila hor)

pentza: pentsatu

"Estaitt il bada, e? estot pentzaten" - (Ez dakit hil den, e? ez dut pentsatzen)

"Pentza lei se gusurre dala baya" - (Pentsa liteke ze gezurra dela baina)

"Pentzaten yauren fiñau dala, edo estaitt ser, baya gitxi eieuren, urte baten edo bitten baño eyeuren iñ" - (Pentsatzen zuten finagoa dela, edo ez dakit zer, baina gutxi egin zuten, urte baten edo bitan baino ez zuten egin)

peska: arrantzan egin

pika: 1. xehatu, txikitu. 2. kodaina pikatu. 3. zulatu.

"Bai, bai pika itten dire orrek" - (Bai, bai pikatu egiten dira horiek)

"Bai nosikuandon urten daiñ, e, ia badau esbadau, urteten bayaun urek, a, surik, gorantza urteten bayaun urek, a, surik, buskantzak egositte, eta, orreas orrotzaas pika, eta urteten bayaun, a, odolak, ondiño, a, buskantzak ein barik" - (Bai noizean behin irten dezan, ea dagoen ez dagoen, irteten bazuen urak, zuriak, gorantz irteten bazuen urak, zuriak, buzkantzak egosita, eta, orratz horrekin zulatu, eta irteten bazuen, odolak, oraindino, buzkantzak egin barik)

"Ba ataixu kontu asunek ikutu ordureko pikaten dotzue" - (Ba atera ezazu kontua asunak ikutu ordurako pikatzen dizute)

"Kodaña bere pika eta barrabasa intten dau ayes" - (Kodaina ere pikatu eta barrabasa egiten du aiaz)

pinta, pintta: pintatu

"Pinta ta itteusen batzuk" - (Pintatu eta egiten zituen batzuk)

"Arpegi pintta itteuren" - (Aurpegia pintatu egiten zuten)

"Aittu selan daon pintata, ikastolati etor dire olantxe pintata" - (Aditu zelan dagoen pintatuta, ikastolatik etorri dira holantxe pintatuta)

pintxa: ziztatu

pisa: pisatu

"Neuk erote neusen, a, gure serak, dustik karretillan, eta an pisateuen" - (Neuk eroaten nituen, gure zerak, guztiak karretilan, eta han pisatzen zuten)

planta: 1 plantatu, paratu. 2 landatu

plantxa: lisatu, plantxatu

"Eta ondo plantxata eta ondo preparata, es pentza, amental baltza erote yeuen" - (Eta ondo lisatuta eta ondo prestatuta, ez pentsa, amantal beltza eroaten zuten)

plega: tolestu

"Ori, a, trenan sartze sanen esnekas Bilbora, katxarrok plega danak, eta karte ensegida atarateun boltzati" - (Hori, trenean sartzen zenean esneekin Bilbora, katxarroak atondu denak, eta karta behingoan ateratzen zuen poltsatik)

poda: inausi

"Len poda intte neusen baya oiñ eneis poda" - (Lehen inausi egiten nituen baina orain ez nitzake inausi)

postu: poztu

pregunta: itaundu

"Gero asi nobiakas ta pregunta norberari, se erregalako tzet neuk nobieri?" - (Gero hasi andregaiekin eta itaundu norberari, zer opalduko diot neuk andregaiari?)

"Ia, ia, ser preguntako dostesun, e?" - (Ia, ia, zer galdetzen didazun, e?)

prentza: prentsatu

"Tornillu prentza itteko, oiñ, a, beste klase ba tau, or dekoas ondiño barrik" - (Torloju prentsatu egiteko, orain, beste mota bat dago, hor dauzkat oraindino berriak)

prepara: prestatu

"Labrau itxi apur bet ustelduten, ta gero are pasau te preparau te ereiñ" - (Landu utzi

BERANGOKO HIZTEGIA

apur bat usteltzen, eta gero area pasatu eta prestatu eta erein)

"Atxe, erakutzitako ganadu ondo imintte daula ta, an bustena ondo preparata" - (Huraxe, erakusteko ganadua ondo ipinita dagoela eta, han buztana ondo prestatuta)

"Auron paleteas, e? kentxen deutze, erreten dere eta preparaten dere ostabere" - (Euron paletarekin, e? kentzen diote, erretzen dute eta prestatzen dute ostera ere)

presenta: aurkeztu

presta: prestatu

prijidu: prijitu, frijitu

"Ondugarri bai, bai, urdi, txoriso edo urdi bai, prijidute ta gero an ganeti bota" - (Ondugarria bai, bai, urdaia, txorizoa edo urdaia bai, frijituta eta gero haren gainetik bota)

proba: 1. probatu, dastatu. 2 hazi

"Estakitt selan urteten daun beres, estot proba" - (Ez dakit zelan irteten duen ere, ez dut probatu)

"Iru anaje dire orrek, Julian da probaten deittune idik" - (Hiru anaia dira horiek, Julian da probatzen dituen idiak)

proibidu: galarazo, debekatu

"Oin proibidute dau" - (Orain galarazota dago)

puja: puxatu

"Ba ori itte san, ori itte san segun aste sana, segun sati bet, imintte san satikes, se ganadu asko esin aprobetxate san, baya ganadu batzuk iltten basiren, aprobetxateko modun, ori beterenariok edo serak emote aun, beran sera, gero imintte siren satitten, eta gero pujate san, eta gero sera bat imintte san, misto bat bistute" - (Ba hori egiten zen, hori egiten zen segun hasten zena, segun zati bat, ipintzen zen zatiekin, ze ganadu asko ezin aprobetxatzen zen, baina ganadu batzuk hiltzen baziren, aprobetxatzeko moduan, hori albaiteoak edo zerak ematen zuen, beraren zera, gero ipintzen ziren zatitan, eta gero puxatzen zen, eta gero zer bat ipintzen zen, misto bat biztuta)

pustu: puztu

"Orre pere gatx itte otzon ganaduri, pustu itte san ganadu" - (Horrek ere gaitz

egiten zion ganaduari, puztu egiten zen ganadua)

sabaldu: zabaldu, hedatu

"Gero trapotxu beten sabaldu, trapotxu beten sabaldu te gero imiñi bularran, bularran imiñi gero soldu dekion a" - (Gero trapotxu baten zabaldu, trapotxu baten zabaldu eta gero ipini bularrean, bularrean ipini gero zoldu dakion hura)

safa: zafatu

sakatu: sakatu

"Sakatu in dotzet" - (Sakatu egin diot)

sakondu: sakondu

salba: salbatu

"Denporeas kosi itten baeuren ganadu, salbateuren" - (Denborarekin hartu egiten bazuten ganadua, salbatzen zuten)

saldu: saldu

"Eta esa neutzen nire laguneri nik, eta nire neberi tte, negar baten, esin saldu, etor dakus beste batzuk eta estu saldu" - (Eta esan nion nire lagunari, nik, eta nire nebari eta, negar baten, ezin saldu, etorri zaizkigu beste batzuk eta ez dugu saldu)

salta: saltatu

"Okertu daitten busti in ber da, espabere tak! salta itten deu, siku badau" - (Oker dadin busti egin behar da, ezpabere tak! saltatu egiten du, siku badago)

"Bai, ta emeti yoten sintzen saltaten ona" - (Bai, eta hemendik joaten zinen saltatzen hona)

saluda: agurtu

sangra: odolustu

"An sangra itte san, oin moderno taus, oin mataderok ya beste klase baterako daus" - (Han odolustu egiten zen, orain modernoak daude, orain hiltegiak ja beste mota baterako daude)

sapaldu: zapaldu

"Karo! gixonak se itteutzean egur puntak segun trasa sapaldu" - (Jakina! gizonak zer egiten zioten egur puntak antza zapaldu)

"Orrek yausten direnen erdi sabalik oten dire ta en jeneral sapaldu iten dus" - (Horiek jausten direnean erdi zabalik egoten dira eta gehienetan zapaldu egiten ditugu)

sarratu: zarratu, itxi

"Sarratute daus agiñe pai, ta ya lau urteti gora dekos ak" - (Zarratuta daude haginak bai, eta ja lau urtetik gora dauzka hark)

BERANGOKO HIZTEGIA

sartu: 1. sartu. 2. zahartu

"Umek sartu dire etzen" - (Umeak sartu dira etxean)

"Berrogei giselen, piñudi sartu euen eta, bai aitek saldu otzon Ikasari" - (Berrogei gizalan, pinudi sartu zuen eta, bai aitak saldu zion Ikatzari)

sastu: satsitu

"Bueno ori landaran asuntu or, a, ori jenero ba ta, segun solo selan preparaten dan, se solo ona imintten badosu, solo ondo imintte, esaten dana, ondo imintte ondo makiñetu, sastu ondo, eta an urteten dau jenerok!" - (Beno landaren gorabehera hori hor, gauza hori ba eta, segun soroa zelan prestatzen den, ze soro ona ipintzen baduzu, soroa ondo ipinita, esaten dena, ondo ipinita ondo makinatuta, satsitu ondo, eta han irteten du gauzak!)

satittu: zatitu

"A itxi, atara, sera, ta imiñi palu beten ta lotxe san gogor gogor ta gero satittute san" - (Hura utzi, atera, zera, eta ipini makila baten eta lotzen zen gogor-gogor eta gero zatitzen zen)

"Onek, a, kita, kasu beterako, a, orrik, erremolatxe edo, orrik kita, eta, andi iste basan erremolatxe satittu, eta orra bota, eta orrek gero, onek sera okiko dau, mangu aukiko dau onek" - (Hauek, kendu, kasu baterako, orriak, erremolatxa edo, orriak kendu, eta, handia izaten bazen erremolatxa zatitu, eta horra bota, eta horrek gero, honek zera edukiko du, asta edukiko du honek)

seatu: xehatu

segidu, segu: segitu

"Orrek segidu itten deu estudianten" - (Horrek segitu egiten du estudianten)

"Noperari bere ba segidu eta seran, eitten daure" - (Norberari ere ba jarraitu eta zerean, egiten dute)

"Segu dot" - (Segitu dut)

sekortu: zekortu, zekorra eman behiari

"Gero ya ame dau, ya sekortute" - (Gero ja amea dago, ja zekortuta)

selebra: ospatu

sentidu, sentu: 1. sentitu. 2. txahala egiteko dagoenean behia sentitu egiten da

"Sentidute dau beye ta iñ ingo dau" - (Sentituta dago behia eta egin egingo du)

"Nik aitte defuntu te orrek ukus doas orduten egoten, baye sentidute eskos iñora, ta oiñ, a, emen semek, baye sentidute ba, ingo dau ume gure badau" - (Nik aita defuntua eta horiek ikusi ditut orduetan egoten, behia sentituta ez goaz inora, eta orain, hemen semeak, behia sentituta ba, egingo du umea gura badu)

"Sentuten dot" - (Sentitzen dut)

separa: banandu

sepilla: zepilatu

serbidu: zerbitzatu

"Nire arrabe serbitten egon san Algortan" - (Nire arreba zerbitzatzan egon zen Algortan)

sertu: zertu

"Batzuk igual bai, a, auren arten, familiñ arten igual anaje bi edo sertute olan" - (Batzuk beharbada bai, euren artean, familiaren artean beharbada anaia bi edo zertuta hola)

siketu: sikatu

"Irigitte atara tripak eta gero imiñi olan albo bietan, palu et siketako ta eskai" - (Irekita atera tripak eta gero ipini hola albo bietan, makila bat sikatzeko eta eskegi)

"Selan? ba kosi olau bat eta, kosi, tte tira tirak eiñ, eta gero, siketuten itxi" - (Zelan? ba hartu holako bat eta, hartu, eta tirak-tirak egin, eta gero, sikatzen utzi)

"Arik eta siketu arte, gane asaltzu in diola" - (Harik eta sikatu arte, gaina azaltsu egin diezaiola)

"Or siketute san" - (Hor sikatzen zen)

simeldu: zimeldu

siñestu: sinestu

"Siñestu eleitte iñ oiñ" - (Sinestu ez liteke egin orain)

"Nik orretan estot siñestuten" - (Nik horretan ez dut sinesten)

sobra: sobratu

"Arto eta batzuten ba, justo eta beste batzuten sobra, eta sobraten sana, eiñ eitte san esne, eta katxarro baten, eta botate san arto otza" - (Artoa eta batzuetan ba, justo eta beste batzuetan sobratu, eta sobratzen zena, egin egiten zen esnea, eta tresna baten, eta botatzen zen arto hotza)

sofru: sufritu

BERANGOKO HIZTEGIA

"Orrek estau sofruten" - (Horrek ez du sufritzen)

soldu: 1. zoldu, zornatu. 2. heldu

"Eixu probade, se espadosu eser eitten batzuten soldu igual" - (Egizu proba, ze ez baduzu ezer egiten batzuetan zoldu beharbada)

"Piperrak soldu akaba, soldu asko ordun piperrak, eta arto bere bai, ya belutxu erein badosu arto bere oniño soltxeko" - (Piperrak zoldu amaitu, zoldu asko orduan piperrak, eta artoa ere bai, ja belutxo erein baduzu artoa ere oraindino zoltzeko)

solta: soltatu, askatu

"Ikusten dosu selan ya siketan asten danen, lantzen beñen tiretu in ber tzesu lumatati, ia soltaten bada edo espada, bertan lotxen bada ordun dau ondo" - (Ikusten duzu zelan ja sikatzen hasten danean, lantzean behin tiratu egin behar diozu lumetatik, ia soltatzen den edo ez den, bertan lotzen bada orduan dago ondo)

sorotu: zoratu

sorrostu: zorroztu

"Ebai puntatxu, a, sera, sorrostu, sartxe aun an, eta gero imiñi" - (Ebaki puntatxoa, zera, zorroztu, sartzen zuen han, eta gero ipini)

sosega: baretu, lasaitu

sotasaldu: zotazaldu, baso egon dena soro bihurtzea

subasta: subastatu, errematan eman

"Ta bueno il in ber da, ta gero itteren subasta itteresan, an erriko tabernan bere bai, ta amen Santanako serbeseran bere bai" - (Eta beno hil egin behar da, eta gero egiten zuten subastatu egiten zituzten, han herriko tabernan ere bai, eta hamen Santa Anako garagardotegian ere bai)

suerta: suertatu

sufridu: sufritu, jasan

"Orreas pentzaten dot gitxitxuau sufritten dauela, alan da gusti ba, odola botaten dau, e?" - (Horrekin pentsatzen dut gutxitxoago sufritzen duela, hala eta guztiz ba, odola botatzen du, e?)

sujeta: eutsi

"Nik gantxo bi eroten doas, bateas sujeta, ese ba paño espadarosu, tirtututen dotzu

te apurtu itten da" - (Nik gantxo bi eroaten ditut, batekin eutsi, eze bat baino ez badaroazu, tiratzen dizu eta apurtu egiten da)

"Gero atzeti, atzeko, a, kordel bies intte san, albotati seran, amarrateko, sujetateko ote ta bedarra" - (Gero atzetik, atzekoa, kordel birekin egiten zen, alboetatik zerean, lotzeko, eusteko otea eta belarra)

sulfata: sulfatatu

sulotu: zulatu

"A narru lotxen da sulotute, sulo sulo intte" - (Narru hura lotzen da zulatuta, zulo-zulo eginda)

surittu: 1. zuritu, azala kendu. 2. zuritu, zuri egin

"Senbest bider yesarri, eta atara andi, a, katxarroti, serak, patatak eta surittu te yan intten gendun bai" - (Zenbat bider jesarri, eta atera handik, katxarrotik, zerak, patatak eta zuritu eta jan egiten genuen bai)

"Ontxe bere or basok, dana taus surittute" - (Oraintxe ere hor basoak, denak daude zurituta)

suseratu: susaratu

sutundu: zutundu

tapa: tapatu

"Artute oki eun etze ori tte tapata on ei san seraas, sasikes eta" - (Hartuta eduki zuen etxe hori eta estalita egon ei zen zerekin, sasiekin eta)

tarda: belutu, berandutu

"Tarda itten bayaun ba, deskuidaten basan beste batek, a, kusteusen" - (Belutu egiten bazen, deskuidatzen bazen beste batek, hartzen zituen)

tasa: tasatu

"Lelengo tasa intte siren, ta gero iltte sirenen ba dustiñ arten paga a baye" - (Lehenengo tasatu egiten ziren, eta gero hiltzen zirenean ba guztien artean ordaindu behi hura)

tenpla: 1. epeldu. 2. galdatu

tiretu: 1. tiratu. 2. tiro egin

"Ori kordelakas tiretu te orti bera ibiltten dire" - (Hori kordelekin tiratu eta hortik behera ibiltzen dira)

"Nik estotzet emen tirtututen, lastime emoten doste!" - (Nik ez diet hemen tiro egiten, lastima ematen didate!)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Esteue ona tiretu sekule, orrek Algortara yon dire" - (Ez dute hona tiratu sekula, horiek Algortara joan dira)

toka: tokatu

"Orren seme bateri loteri toka akon" - (Horren seme bati loteria tokatu zitzaion)

"Segun selan tokate yakon" - (Segun zelan tokatzen zitzaion)

"Bueno neuri bere toka asten" - (Beno neuri ere tokatu zitzaidan)

topa: topatu

"Topaten ibilte siren emoteko" - (Topatzen ibiltzen ziren emateko)

torpetu: dorpetu

"Karraderan sabiltzesenen ta, yausi edo torpetu edo, astrapala dabil ta" - (Karraderan zabiltzanean eta, jausi edo dorpetu edo, astrapala dabil eta)

tosta: igertu

traga: 1. irentsi. 2. tragatu, piztiak hil, tragatu, akabatu

"Esaten deure txistu traga, entzun dosu iños? txistu traga, txistu traga" - (Esaten dute txistua irentsi, entzun duzu inoiz? txistua irentsi, txistua irentsi)

trata: tratatu

"Guk trata du giau Algortas, es Berangoas" - (Guk tratatu dugu gehiago Algortarekin, ez Berangorekin)

"Gero be trataten gendun guk orrekas" - (Gero ere tratatzen genuen guk horiekin)

"Bai se dekoas nik, abadek, lengusiñen, a, semek, baya trataten du, asko, aurokas, seran, beti" - (Bai ze dauzkat nik, abadeak, lehengusinarekin, semeak, baina tratatzen dugu, asko, eurekin, zerean, beti)

trentza: trentzatu

tristetu: txikertu, birrindu

txikertu: txikertu

"Batzuk aton txikerten daure" - (Batzuek atoan txikertzen dute)

"Ori goixen eitten basan gero gauen txikertu edo urreo egunen" - (Hori goizean egiten bazen gero gauean txikertu edo hurrengo egunean)

"Eta ordun eitte san ori, aspirine txikertu, eta satitxu bet emon umeri, nik besterik estot esetu" - (Eta orduan egiten zen hori, aspirina txikertu, eta zatitxo bat

eman umeri, nik besterik ez dut ezagutu)

tximurtu: tximurtu

txorkea: txorkatu

"Eintten du, ein txorkea, siku badau lurre" - (Egiten dugu, egin txorkatu, siku badago lurra)

txupa: lamizkatu, xurgatu

"Aik txupa eta kalma itte otzen" - (Haiek miazkatu eta baretu egiten zion)

"Apurke apurke bai, apurke apurke giau itten dotzo, serari, txupa itten dau sera, sagarran errame" - (Apurka-apurka bai, apurka-apurka gehiago egiten dio, zerari, txupa egiten du zera, sagarraren abarra)

"Orrek arbola modun intten dire ta txupa intten de lurre, orrek kendu in ber dire" - (Horiek arbola moduan egiten dira eta xurgatu egiten dute lurra, horiek kendu egin behar dira)

ugertu: ugertu

ukusi: ikusi

"Beti ukus doas orrastute" - (Beti ikusi ditut orrazten)

"Gaure etzen es, baya ukusi dot, askotan emen, emen askok" - (Geure etxean ez, baina ikusi dut, askotan hemen, hemen askok)

ukutu: ikutu

ulertu: ulertu

"Altza ta paste altza itte san, ulertuten dosu?" - (Altxatu eta oreka altxatu egiten zen, ulertzen duzu?)

umedatu: umeldu

unidu: batu, elkartu

unta: gantzutu, koipea eman, bazitan egin

urdindu: urdindu

urketu: urkatu

urrutu: urratu

urten: irten

"Eguskitza da kamiño doana, ya urteten, beste kamiñora, Unbera" - (Eguskitza da kaminoa doana, ja irteten, beste kaminora)

"Urteten dosunen ixi ate" - (Irteten duzunean itxi atea)

urtu: urtu

"Eitteun, sera, plomo urtu, eta geixorik edo sera egote sanen imiñi" - (Egiten zuen, zera, beruna urtu, eta gaixorik edo zera egoten zenean ipini)

usa: 1. erabili, usatu. 2. ekandu

"Estu usa guk ori, baya, ikus dot" - (Ez dugu erabili guk hori, baina, ikusi dut)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Eta txarrik iltteko atxiñe, itte san usa ori"
- (Eta txerriak hiltzeko antzina, egiten zen erabili hori)

"Eneitte usa ni" - (Ez naiteke usa ni)

usindu: 1. usaindu. 2. okela likindu

usteldu: usteldu

"Arik usteldu arten abantateun" - (Haiek usteldu arte irauten zuen)

"Lurren imiñi eskerokonen, usteldu itten da lelau" - (Lurrean ipiniz gero, usteldu egiten da lehenago)

utzittu: hustu

"Gero utzittute sirenen, ostabere garbittu botella" - (Gero husten zirenean, ostera ere garbitu botila)

uxetu: uxatu

yagi: jagi, jaiki

yagon: jagon, zaindu

"Onek elittes yon se bayek yagon bear deittue" - (Hauek ez litezke joan ze behiak jagon behar dituzte)

yagona, yabona: xaboiztatu

"An yagona ta ur ederra egote san" - (Han xaboiztatu eta ur ederra egoten zen)

"Ba, nik estot esetu baya entzunte dekot, a, amari, gure amamak eta onek, surteko autzeas eitteurela errope yabona" - (Ba, nik ez dut ezagutu baina entzunda daukat, amari, gure amamak eta hauek, surteko hautsarekin egiten zutela arropa xaboiztatu)

yakiñ: jakin; aditz trinkoa

"Arri be yoten yakiñ in ber dako" - (Harria ere jotzen jakin egin behar zaio)

"Orre pere itteuren baekien selan ein ber dan" - (Horiek ere egiten zuten bazekiten zelan egin behar den)

"Orrek yaki lei igual" - (Horrek jakin lezake aurki)

| | |
|---------|----------|
| dakitt | dakies |
| daki | dakis |
| dakiu | dakius |
| dakixu | dakixus |
| dakixue | dakixues |
| dakie | dakies |

Iraganean **ekiñ** eta **ekien** ere batu ditugu.

yan: jan

"Batera yan du" - (Batera jan dugu)

"Yaten bere eskendun jakin, e?" - (Jaten ere ez genuen jakin, e?)

"Ixen san moskorti itzela, baya esin ixleun yan" - (Izan zen moskorti itzela, baina ezin izan zuen jan)

yantzi: jantzi

"Nire ama ni baño obeto yantzitte beti, gure ama esan egongo ni etzen naun modun, a, etzen, a, es, a, diru emonta bere, gure ama olau baño eleganteau ixen da" - (Nire ama ni baino hobeto jantzita beti, gure ama ez zen egongo ni etxean nagoen moduan, etxean, ez, dirua emanda ere, gure ama holakoa baino dotoreagoa izan da)

yarri: jarri, jesarri

"Ara yote gintzen negun, a, edurre ta olan eitteurenen, se ordun edurre bere asko eitteun, ta an yarritte, an egoten gintzen, lau edo bost an" - (Hara joaten ginen neguan, elurra eta hola egiten zuenean, ze orduan elurra ere asko egiten zuen, eta han jarrita, han egoten ginen, lau edo bost han)

yatzi: eratsi, jatsi

yaurta: jaurti, jaurtiki

"Tanke yaurta eta bat lotxe san" - (Tanka jaurti eta bat lotzen zen)

yausi: jausi

"Ori uretara yausi da" - (Hori uretara jausi da)

"Arbole botateko itten da, lelau, onetariko, eta emen yo, eta gero, kordel sati bet, ta kordel bateas emeti tiretu onantza, arantza yausi seditten, tiretu aputxu bet" - (Arbola botatzeko egiten da, lehenago, hauetarikoa, eta hemen jo, eta gero, kordel zati bat, eta kordel batekin hemendik tiratu honantz, harantz jausi ze dadin, tiratu apurtxo bat)

yayo: jaio

"Basordatan yayota daus" - (Basordetan jaiota daude)

"A yayo san ta, errapera yote san ta ostikeka asitte yakon" - (Hura jaio zen eta, errapera joaten zen eta ostikoka hasten zitzaion)

"Ni otamaseyen yayota nau" - (Ni hogeita hamaseian jaiota nago)

yesarri: jesarri

"Au yesarri leitte" - (Hau jesarri liteke)

yo: jo

BERANGOKO HIZTEGIA

"Butroyen yo eun lelako egunen" - (Botoen jo zuen lehenengo egunean)

"Areri ikusi otzon, edo sertu san, eta berak olau afesiño auki eun, eta gero ondo yoteun" - (Hari ikusi zion, edo zertu zen, eta berak holako zaletasuna eduki zuen, eta gero ondo jotzen zuen)

yokatu: 1. postura egin. 2. karta jokoan ibili

yon: joan; aditz trinkoa

"Eta yo nas ara, eron dot, yan dau beskari, ta lo dau" - (Eta joan naiz hara, eroan dut, jan du bazkaria, eta lo dago)

"Nosonos yon gare" - (Noiz edo noiz joan gara)

"Ya yon dat, a, baya senbes baya yon daten" - (Ja joan zait, baina zenbat baina joan zaidan)

"Esittes yon orti! orti sorgiñek etorten dire" - (Ez zaitetz joan hortik! hortik sorginak etortzen dira)

"Yon gaitten ta Pepe esan egon" - (Joan ginen eta Pepe ez zen egon)

| |
|------|
| no |
| do |
| gos |
| sos |
| sose |
| dos |

Ingurune batzuetan, batez ere eten baten aurrean eta galderetan, <oa> erroa osorik ager daiteke: *noa, doa, goas, soas, soase* eta *doas*

yorratu: jorratu

"Au, a, iste san, kasu beterako aor, oin daun modun, e? altza, altza, yorratu, yorratu bakixu ser dan atxurreas, ba, yorratu" - (Hau, izaten zen, kasu baterako haor, orain dagoen moduan, e? altxatu, altxatu, jorratu, jorratu badakizu zer den aitzurrarekin, ba, jorratu)

yosi: josi

"Suk yosi dosu alkondare" - (Zuk josi duzu alkondara)

27.2. ADITZ KONPOSATUAK

Azpi-atal honetan jaso ditugun aditz konposatuak emango ditugu hiru multzotan banatuta; batetik <egin> eta <izan> aditzen bidez egiten direnak eta, bestetik, gainerakoak

EGIN

agarradan iñ: borrokan egin, errietan egin

ainke iñ, aginke iñ: haginka egin

"Txakur amurrutu beti artes kamiño eskiñetik, eta iru txakur, eta bota eutzen eta ainke i eutzen" - (Txakur amorratua beti artez kamino bazterretik, eta hiru txakur, eta bota zien eta haginka egin zioten)

aittearen eiñ: aitearen egin

"Etzen ba errosario, ta beskari yateko bere bai aittearen eitte san" - (Etxean ba errosarioa, eta bazkaria jateko ere bai aitearen egiten zen)

"Ure aukitteuren eta sartxe san eta aittearen eitte san" - (Ura edukitzen zuten eta sartzen zen eta aitearen egiten zen)

amesetan eiñ: amesetan egin

apatxe iñ: apatxe egin, jesarri

aprobe iñ: aproba egin, proba egin

"Ein ber dot aprobe" - (Egin behar dut proba)

arriko iñ: harrikoa egin, tresnak garbitu

"Errope or asko estaure itten, kosi ure, arriko intteko, ganaduri emoteko ure, edo alantxe, se nik esetu dot, etzen, ure barik" - (Arropa hor asko ez dute egiten, hartu ura, harrikoa egiteko, ganaduari emateko ura, edo halantxe, ze nik ezagutu dut, etxean, ur barik)

asala iñ: azala egin

"Ba gaur makiñetu badosu solo, ba auri intten espadau, asala in dako solori" - (Ba gaur makinatu baduzu soroa, ba euria egiten ez badu, azala egin zaio soroari)

asaro eskasa iñ: azaro eskasa egin, euri eskasa egin

"Asaro ona in dau, kasu beterako, ointxe egun batzuten in dau auri baya estau asarorik eiñ, asaro eskasa in dau esaten du guk, e?" - (Azaro ona egin du, kasu baterako, oraintxe egun batzuetan egin du euri baina ez du azarorik egin, azaro eskasa egin du esaten dugu guk, e?)

asaro iñ: azaro egin, euri egin

asaro ona iñ: azaro ona egin, euri ona egin

BERANGOKO HIZTEGIA

"Ondo itten daunen asaro ona in dau, ta gitxi itten daunen asaro eskasa in dau" - (Ondo egiten duenean azaro ona egin du, eta gutxi egiten duenean azaro eskasa egin du)

astule iñ: eztula egin

"Berorrek eitten dau astule" - (Berorrek egiten du eztula)

aume iñ: urdindu

"Aume in da" - (Urdindu egin da)

auri iñ: euria egin

"Goxen auri in deu" - (Goizean euri egin du)

"Ene! auri itten deu" - (Ene! euri egiten du)

"Pentza lei auri ingo daula" - (Pentsa liteke euri egingo duela)

"Ori itten daunen, esaten du guk, esaten du auri asko in ber daule ba, esan itten da" - (Hori egiten duenean, esaten dugu guk, esaten dugu euri asko egin behar duela ba, esan egiten da)

ausi iñ: ahausi egin

"Nik estot, a, entzun, a, sera, surok eldukeran baya txakurrek inkeran ausi, nonor da, eta aittik urten dot kanpora" - (Nik ez dut, entzun, zera, zuek heldukeran baina txakurrek egikeran ahausi, nor edo nor da, eta hagatik irten dut kanpora)

ausnar iñ: hausnar egin

"Ak esate aun ia, ikusten egote sien, ia senbest, selan ausnar, selan eitten daun" - (Har esaten zuek ea, ikusten egoten zen, ea zenbat, zelan hausnar, zelan egiten duen)

barre iñ: barre egin

"Barre itte yosten" - (Barre egiten zidan)

barretan iñ: barretan egin, barre asko egin

bear eiñ: behar egin

"Oneas bear eitten bere bai, ikus doas" - (Honekin behar egiten ere bai, ikusi ditut)

begiskiñe iñ: begizkoa egin

"Onek begiskiñe in deust niri" - (Honek begizkoa egin dit niri)

begiskones eiñ: begizkoa egin

begi txarra iñ: begi txarra egin, begizkoa egin

belu iñ: belu egin, belutu

berba iñ: berba egin

"Aurokas berba in dot" - (Eurokin berba egin dut)

berde iñ: berde egin, berdatu

bueltan iñ: bueltan egin

burle iñ: burla egin, txitxekar egin

bururik eiñ: bururik egin, txoratu

edurre iñ: elurra egin

"Edurre itten dau" - (Elurra egiten du)

egas iñ: hegaz egin

egune iñ: eguna egin

enbarasu iñ: enbarazu egin, traba egin

errekadu iñ: ezkontza traturako neskatoari harremanetan hasteko gaztigua ematea

errittan eiñ: errietan egin

ganes eiñ: gainez egin

gatx iñ: gaitz egin, kalte egin

"Orre pere gatx itte otzon ganaduri, pustu itte san ganadu" - (Horrek ere gaitz egiten zion ganaduari, puztu egiten zen ganadua)

gedar eiñ: gedar egin, deitu

gortakok eiñ: kortakoak egin, kortako lanak egin

"Lelau gortako in ber da gixona! lelengo gortako iñ" - (Lehenago kortakoa egin behar da gizona! lehenengo kortakoa egin)

guardi iñ: guardia egin, behia sentitzen zenean kortan egiten zena, esate baterako

inder eiñ: indar egin

kargu iñ: kargu egin

"Anajeri esautzen onek, eixu kargu nire alabe ta nire andrena" - (Anaiari esan zion honek, egizu kargu nire alaba eta nire andrearena)

karra iñ: karra egin, karraderan egin, korrika egin

kasu eiñ: kasu egin, jaramon egin

"Eseutzen eitten ainbeste kasu ba erraperi edo olan, esta?" - (Ez zioten egiten hainbeste jaramon ba errapeari edo hola, ezta?)

"Estotzet sekule kasu asko in, e?" - (Ez diot sekula kasu asko egin, e?)

kea iñ: kea egin, ketu

"Ori ukus dot kea iten Naparran, baya emen es, nik estot ukusi emen iten kea" - (Hori ikusi dut kea egiten Nafarroan, baina hemen ez, nik ez dut ikusi hemen egiten kea)

kili kili iñ: kili-kili egin

kirrist iñ: intziri egin

kok eiñ: kok egin

BERANGOKO HIZTEGIA

"Gero negu datorrenen kok eintten dau" -

(Gero negua datorrenean kok egiten du)

kristela iñ: kristala egin, ur potxingoetako ura izoztu

"Kristela intte dau posotan" - (Kristala eginda dago putzuetan)

laban iñ: laban egin

lo iñ: lo egin

"Nik lo ondo eitte nauen, sarateas nei sarata bari pere bai" - (Nik lo ondo egiten nuen, zaratarekin nahi zarata barik ere bai)

miñ eiñ: min egin

"Asalan atzeti eitte otzen miñ" - (Azalaren atzetik egiten zien min)

negar eiñ: negar egin

"Bai, makiña bat bider negar in dot nik errekan" - (Bai, makina bat bider negar egin dut nik errekan)

ondo iñ: ondo egin

paste iñ: oratu errotarran oreka egin; oratu egiten denean ezin eho daiteke

probade iñ: proba egin

"Nik, a, ein dot probade" - (Nik, egin dut proba)

putz iñ: putz egin

sarata iñ: zarata egin

"Saus geldi ba, saus geldi sarata itten da ta" - (Zaude geldi ba, zaude geldi zarata egite da eta)

sar eiñ: zahar egin

"Sarrak in direnean, gero, arek lurrek asko balio ixen deue" - (Zaharrak egin direnean, gero, lur haiek asko balio izan dute)

señe iñ: seinak egin, umeak egin

"Egun beten ieun ixekok, eta nik seña auki, a pere mutille eta ni pere mutille" - (Egun baten egin zuen izekoak, eta nik seinak eduki, hark ere mutila eta nik ere mutila)

sintz iñ: zintz egin

sokorru iñ: sokorru egin, aldarri egin

"An iteutesen sokorru betzuk" - (Hau egiten zizkieten sokorru batzuk)

solo in: soro egin

txantximerka iñ: piltzikada egin, zimikoa egin

txarra iñ: txarra egin, kalte egin

txiperka iñ: erpaka egin, txerpaka egin

txixe iñ: txiza egin

"Ganaduk eitten dau txixe, ara yoten da, eta

andik errekarra" - (Ganaduak egiten du

txiza, hara joaten da, eta handik errekarra)

uger eiñ: igeri egin

ume iñ: ume egin

yamon eiñ: jaramon egin

yantzan eiñ: dantzan egin

"Etzen asko eitte san yantzan olan" - (Etxean asko egiten zen dantzan hola)

IZAN

agiri ixen: ageri izan

al ixen: ahal izan

"Etzen al bada pasa arrotza bateas bi gasta berren, bateas pasa" - (Etxean ahal bada pasatu arrautza batekin bi gastatu beharrean, batekin pasatu)

ardure ixen: ardura izan

"Niri esteust ardure" - (Niri ez dit ardura)

atzoko ixen: atzokoa izan, norbera edadekoa dela adierazteko erabiltzen da; gehienetan ezezkoa egiten da

auri ixen: euria izan

aurrerako ixen: aurrerako izan, piztiaren baten umeren bat bizirik uzteko denean esaten da

balio ixen: balio izan

"Onek esteust balio" - (Honek ez dit balio)

"Soltaten bada, ya estau balio" - (Askatzen bada, ja ez du balio)

bardiñ ixen: berdin izan

"Niri bardin deust" - (Niri berdin dit)

bat ixen: bat izan

ber ixen: behar izan

"Asauti bota ber ixete san" - (Asagotik bota behar izaten zen)

bixi ixen: bizi izan

"Oñ esta bixi iñor" - (Orain ez da bizi inor)

esiñ ixen: ezin izan

"Esin dot iñ ori bearra" - (Ezin dut egin behar hori)

"Esin dot kosi ori" - (Ezin dut hartu hori)

"Ser itte osu or? esin etor sara etzera?" - (Zer egiten duzu hor? ezin etorri zara etxera?)

"Nik lepon esiñ ibil dot" - (Nik lepoan ezin erabili dut)

falta ixen: falta izan

gose ixen: gose izan

gure ixen: gura izan

BERANGOKO HIZTEGIA

"Ensegida igerten gendun noas etorri gure ixen deun bataren batek" - (Behingoan igartzen genuen norekin etorri gura izan duen baten batek)

"Aurek gure daude yon" - (Eurek gura dute joan)

gurau ixen: gurago izan, nahiago izan

"Nik gurau dot basora, nik sarri esan dot, a, atxiñe urtete yeunak, iketza, sera eta emeti asko, enbrak eskonduk eta, eta es, nik ez, ni mukurre ataraten bai basora, askoreas eta atxurreas igual mukurrek ein ber ixete siren, baya itxosora iños beres" - (Nik gurago dut basora, nik sarri esan dut, antzina irteten zuenak, ikatza, zera eta hemendik asko, andrazkoak ezkonduak eta, eta ez, nik ez, ni mukurra ateratzen bai basora, aizkorarekin eta aitzurrarekin beharbada mukurrak egin behar izaten ziren, baina itsasora inoiz ere ez)

igual ixen: berdin izan

inporta ixen: inporta izan

lebe ixen: leba izan, inporta izan

lotza ixen: lotsa izan

GAINERAKOAK

afari yan: afaria jan, afaldu

"Afari yaten gaus" - (Afaria jaten gaude)

agiñek bardindu: haginak berdindu

agiñek sarratu: haginak zarratu, haginak berdindu, ganaduari hagin guztiek irtetea

agoa betatu: haginak zarratu

"Bost urterako ya eitten dau, noperan modun ya, agoa dusti betatu" - (Bost urterako ja egiten du, norberaren moduan ja aho guztia zarratu)

akordun auki: gomutan eduki

alboka aittu: albotik aditu, alboz aditu

"Orrek alboka aittu dau orrek" - (Horrek alboka aditu du horrek)

alboti aittu: albotik aditu, alboz aditu

armosu yan: armozua jan, gosaldu

arnasa artu: arnasa hartu

"Ori norberan modun da, asko korriten baosu, arnasa artu esiñik saus, ba ganadu bardin bardin bardiñ" - (Hori norberaren moduan da, asko korritzen baduzu, arnasa hartu ezinik zaude, ba ganadua berdin-berdin-berdin)

arto pikatu: artoa pikatu, artoa eraitsi

atze emon: atzea eman

aurrerako itxi: aurrerako utzi, umetan hiltzen ez den piztia aurrerako uzten da

baye mogidu: behia sentitu, txahala egin baino lehen, egiten hasteko seinalea izaten da

begire erosi: begira erosi

"Eroste yeren ganadu, se ganadu ba begire erosten da ba, ta, kasu beterako mataderotara ta, begire" - (Erosten zuten ganadua, ze ganadua ba begira erosten da ba, eta, kasu baterako hiltegiatara eta, begira)

bertzok atara: bertsoak atara

"An kartzelan atara yeusen bertzok, eta orrek bertzok eneis topa non dausen, baya badaus" - (Han kartzelan atara zituen bertsoak, eta bertso horiek ez nitzake topatu non dauden, baina badaude)

beskari yan: bazkaria jan, bazkaldu

bide emon: aukera eman

bide imiñi: aukera ipini

biosganen lotu: jatekoa bihozganean lotu, larritu

"Biosganen lotu dast" - (Bihozganean lotu zait)

bisios erreta egon: bizioz erreta egon, mizkatuta egon

"Oin bisios erreta gaus, ta len danan falte" - (Orain bizioz erreta gaude, eta lehen denen falta)

bixerra kendu: bizarra kendu

buelte emon, buelta emon: buelta eman

"Buelte bere emoten dake, e?" - (Buelta ere ematen zaie, e?)

"Gas da buelta emote, segun selau kargamentu dan" - (Gaitz da buelta ematea, segun zelako kargamendua den)

burlesar artu: burlezar hartu, txitxekar hartu

burlasarrretan on: barregarri egon

buru beratu: menperatu

buru berotu: burua berotu

buru borra: burua lausotu, zorabiatu

"Dekot aputxu bet buru borrata" - (Daukat apurtxo bat burua lausotuta)

burutera etorri: burutara etorri

"Aittu, ber danen, a, esta etorten burutera" - (Aditu, behar denean, ez da etortzen burutara)

burutera sartu: burutara sartu

BERANGOKO HIZTEGIA

"A berbe, lelangon, lelango golpen estatzu sartzen burutera" - (Berba hura, lehenengoan, lehenengo kolpean ez zaizu sartzen burutara)

burutik egon: burutik egon

"Au gixona buruti dau" - (Gizon hau burutik dago)

edari txarreko ixen: edari txarrekoa izan, mozkor txarrekoa izan

egarri auki: egarria eduki

"Egarri dekot, ekasu serbesa bat edo ekasu botille bat ur edo" - (Egarria dauka, ekar ezazu garagardo bat edo ekar ezazu botila bat ur edo)

egune sabaldu: eguna zabaldu, eguna egin

errapen auki: errapean eduki, oraindino amaren esnea hartzen eduki

"Gu pere aukitten dus errapen ba, bost, sei illerarten" - (Guk ere edukitzen ditugu errapean ba, bost, sei hileraren artean)

errapen ibilli, errapera ibilli: errapean ibili, txahala gaztea denean errapean dabil

"Txala badabilko aspire, errapera, ta nopera yon baldeas eratzitten bere, ordun bere gorde itten dere, batzuk" - (Txahala badabilkio azpira, errapera, eta norbera joan baldearekin erasten ere, orduan ere gorde egiten dute, batzuek)

errentan auki: errentan eduki

"Orrek errentan auki dusen" - (Horiek errentan eduki genituen)

errentan egon: errentan egon

"Emen gu errentan gaus" - (Hemen gu errentan gaude)

errentan emon: errentan eman

errespeto emon: errespetua eman

"Itxosok beti emon doste errespeto" - (Itsasoak beti eman dit errespetua)

erro galdu: erroa galdu

"Bei askori galdu dake erro" - (Behi askori galdu zaie erroa)

esne garbitxu: esnea garbitu, txahala egin eta ostean behiaren lehen esnea garbitzea

esne gorde: esnea gorde, eraitsikeran behiak bat-batean esnea ez ematean esaten da

esnek sabaldu: esneak zabaldu, txahala eduki eta ostean behiak eduki dezakeen

gaixo baten ondorioz esneak zabaltzen bazaizkio hil ere egin ei daiteke

famili oki: familia eduki, umea egin

frakak solta: kaka egin

"Frakak soltata o nitzen eskiña baten" - (Prakak soltatuta egon nintzen izkina baten)

garrote emon: 1. egur kargari garrotea eman, katea estutzeko egur sendo luze bat erabiltzen da, egur hori garrotea da. 2. garrotea eman, jo, astindu

gatzatan sartu: gatzetan sartu

globok atara: puspiloak atera, euria egikeran potxingoetan txiztilek ateratzen dutena

golpe bajatu: behiak jaistean esnea kolpea baxatu

gose auki: gosea eduki

"Emen esaten du gose deku" - (Hemen esaten dugu gosea daukagu)

"Beskari yan ber du gose deku te" - (Bazkaria jan behar dugu gosea daukagu eta)

ikeratan egon: ikaratan egon, lau dardan egon

ikeratan para: ikaratan paratu

jaleo imiñi: istiluak sortu, borroka eragin

karra yon: karra joan, karraderan joan

komuniño emon: komunioa eman

"Makal egote sanen, komuniño emoten etzera etorte san" - (Makal egoten zenean, komunioa ematen etxera etortzen zen)

kontu atara: kontu atera

"Kontu atara ser diñoten emen" - (Kontu atera zer dinodan hemen)

"Ataixu kontu eta dekot bat imintte" - (Atera ezazu kontua eta daukat bat ipinita)

lantzar itxi: lantzar utzi, soroak landu barik utzi

"Solo, ba, lantzar itxi du" - (Soroa, ba, lantzar utzi dugu)

lebe auki: leba eduki, garrantzia eduki

libre oki: libre eduki

loak artu: loak hartu

logure auki: logura eduki

"Bano oira logure dekot eta" - (Banoa ohera logura daukat eta)

lorara etorri: lorera etorri, lorea bota

lotza emon: lotsa eman

mamurren ibilli: ahopean berbetan ibili

memori auki: oroitzapena eduki

"Bai orretan memori ona dekot" - (Bai horretan oroitzapena ona daukat)

memoriñ auki: gogoan eduki

BERANGOKO HIZTEGIA

merittu emon: garrantzia eman

mesak atara: mezak atera

mese agindu: meza agindu

mosu emon: musu eman

"Entzun, ta ogi txakurreri emoteko mosu bet emon" - (Entzun, eta ogia txakurrei emateko musu bat eman)

"Nik ikusi dot, yon abade, eta etorri, eta mosu emon eskun, a, abaderi" - (Nik ikusi dut, joan abadea, eta etorri, eta musua eman eskuan, abadeari)

nagik atara: nagiak atera

odola baja: odola baxatu

odola loditu: odola loditu

"Odolak loditu dakos eta odola burutera allega akon" - (Odolak loditu zaizkio eta odola burutara ailegatu zitzaion)

odola metu: odola mehatu

"Ordun dana ixete san odola, e? medikure yon barik baya noperan sera, odola metu dako edo odola loditu dako" - (Orduan dena izaten zen odola, e? medikura joan barik baina norberaren zera, odola mehatu zaio edo odola loditu zaio)

odola mogidu: odola mugitu

odolatan yon: odoletan joan, odolustu

otzak kosi: hotzak hartu

palak bota: aurreko hagin handiak bota

"Urte bi pasten deitxuesenen, ya asten dires palak botaten" - (Urte bi pasatzen dituztenean, ja hasten dira palak botatzen)

palure erein: makilara erein

parkeske eskatu: parkeske eskatu, barkamena eskatu

pena emon: pena eman

sarratute egon: itxita egon, ganaduaren haginak berdinduta egon

"Ontxe dau sarratute, esaten dako" - (Oraintxe dago sarratuta, esaten zaio)

"Ontxe dau sarratute, ontxe dekos bost urte, gora bera, esta? egun batzuk gora bera" - (Oraintxe dago sarratuta, oraintxe dauzka bost urte, gora-behera, ezta? egun batzuk gora-behera)

satorrak yo: satorrak jo

sekorra emon: zekorra eman

"Segun selau sekorra emon dotzesun, ba asurtzu bada edo, gero selan datorren" - (Segun zelako zekorra eman diozun,

ba hezurtsua bada edo, gero zelan datorren)

soñu yo: soinu jo

"Olan etzaldetan gauk eitten gendun, orrek, a, soñu yote oskun, eta an, a, eitten gendun, a, neskak eta mutille pere, barriokok, yantzan" - (Hola baserrietan geuk egiten genuen, horrek, soinu jotzen zigun, eta han, egiten genuen, neskek eta mutilek ere, auzotegikoek, dantzan)

sue artu: sua hartu

sue emon: sua eman

"Gero sue emoteutzen ta eskapateuren" - (Gero sua ematen zioten eta ihes egiten zuten)

suerte kosi: zortea hartu, zortea norberetu

"Alau suerterik gitxi kosten da" - (Halako zorterik gutxi hartzen da)

sur ibili: zuhur ibili

"Baya lotxen basan batan bat kanpon sur ibili! espabere galdute saus" - (Baina lotzen bazen baten bat kanpoan zuhur ibili! ezpabere galduta zaude)

trete artu: treta hartu

trugoya yo: trumoia jo

txakurre bota: txakurra bota, errietan egin, aurpegiratu

txistu yo: txistua jo

"Ori bakarrik jeneral antzen eta txistuk itzelak yo" - (Hori bakarrik gehien antzean eta txistuak itzelak jo)

txorkora erein: txorkora erein

uritti ekarri: hiritik ekarri

urtek kosi: urteak hartu

yorra emon: jorra eman

27.3. PARTIZIPIOAK

Partizipio soilen erabilera aztertzeke, jaso ditugun adibideak deklinabidearen kasu marken arabera aurkeztuko ditugu.

absolutua:

"Mamukio ona da enpatxureko, eta kenpulle egosi oba" - (Mamukioa ona da enpatxurako, eta kipula egosia hobea)

"Yateuen, e, patatak saltza berden, makallon seraas, bustenaas, ta sagar erre" - (Jaten zuten, patatak saltsa berdean, makailoaren zerarekin, buztanarekin, eta sagar erre)

BERANGOKO HIZTEGIA

partitiboa:

"Iru egun edo bi intten badu giau ya estau emen ser sarturik estetan" - (Hiru egun edo bi egiten badugu gehiago ja ez dago hemen zer sarturik hesteetan)

motibatiboa:

"Ak es, tripe betatuaittik, a, ia ser adi, estau emen sagurik, es erratorik, es suberik, eser beres, ak kusten doittus danak" - (Hark ez, tripa beteagatik, ea zer adi, ez dago hemen sagurik, ez arratoirik, ez sugerik, ezer ere ez, hark ikusten ditu denak)

instrumentala + gero

eskeron

"Olan asieskeron gero ba lodittu te kendu itte san" - (Hola hasiz gero ba loditu eta kendu egiten zen)

"Dire lurrek gogorak baya onak, goxeti ibili eskeron" - (Dira lurak gogorak baina onak, goizetik ibiliz gero)

eskeroan

"Ori bai! ori labe, ori sagradu da, labeti ondo pasaueskeroan errotek asko fasillau itten dau, eta gitxiau pasaueskeroan, orrek eitten dau pastea ba, gitxi pasten danak, eta bapes pasten danak giau" - (Hori bai! labe hori, hori sakratua da, labetik ondo pasatuz gero errotak asko errazago egiten du, eta gutxiago pasatuz gero, horrek egiten du orea ba, gutxi pasatzen denak, eta bat ere ez pasatzen denak gehiago)

eskeronen

"Ba olau jenerok imiñieskeronen erramuk eta olau jenerok, sorgiñek eta estirela sartxen etzen" - (Ba holako gauzak ipiniz gero erramuak eta holako gauzak, sorginak eta ez direla sartzen etxean)

"Orrek tripe betatu eskeronen, a, eguski suri artxen daure" - (Horiek tripa betez gero, eguzki zuria hartzen dute)

eskonen

"Orretarango palakadatxu bet bota eskonen asko giau aguantateun eta bero giau emon" - (Horietariko parakadatxo bat botaz gero asko gehiago irauten zuen eta bero gehiago eman)

eskon

"Baya geldi dau, begitxindorra orio epela iñeskon sera itten da" - (Baina geldi dago, begi txindorra olio epela eginez gero zera egiten da)

leku genitiboa:

"Berangon yayoko da" - (Berangon jaiokoa da)

"Onek an yayoko tire" - (Hauek han jaiokoak dira)

"Orrek gero etorriko tire" - (Horiek gero etorrikoak dira)

"Nire gixona Santa Mariñan egoneko da" - (Nire gizona Santa Marinan egonekoa da)

"Enauke gure, a, galdu ori arri nik, gure aittek eiñeko ollok edateko ure" - (Ez nuke gura, galdu harri hori nik, gure aitak eginekoa oiloek edateko ura)

"Asala lotxen da askosik gosoao, erreko" - (Azala lotzen da askozaz gozoago, errekoa)

27.4. PARTIZIPIOEN GEHIGARRIAK

Izenburu honen azpian partizipioari erans dakizkiokeen posposizioak eta gainerako gehigarriak aurkeztuko ditugu; era berean erabilera agerrarazteko esaldi eredu batzuk emango ditugu.

selan...alan:

"Lelau, asikeran sube bistuten danen, ba labe egoten da illun illun, kasik baltz, eta selan sube iñ alan, selan berotu alan, doa ba surittuten surittuten surittuten, kanpoko arrik" - (Lehenago, hasieran sua bizten denean, ba labea egoten da ilun-ilun, kasik beltz, eta zelan egin hala, zelan berotu hala, doa ba zuritzen-zuritzen-zuritzen, kanpoko harriak)

"Selan sartu alan, eta urtete jaun, barrika bat aukitte dun olan, sulo batek urteteko" -

BERANGOKO HIZTEGIA

(Sartu ahala, eta irteten zuen barrika bat eduki genuen hola, zulo batek irteteko)

"Palak selan yausi alan, ta danak yausten badire ya sarratute dau" - (Palak zelan jausi hala, eta denak jausten badira ja itxita dago)

arren:

"Artok apur bet karga arren bere urteten dau gora" - (Artoak apur bat kargatu arren ere irteten du gora)

arte/arten:

"Seu etorri arten emen egongo nas" - (Zeu etorri artean hemen egongo naiz)

"Bota arten danak estire lotu" - (Bota arte ez dira lotu)

"Ori sera okitteuren, asikerako loyek sera, atara arten, okitteuren an, gero aste san ya sablatxen, botillatan imintten ta" - (Zer hori edukitzen zuten, hasierako lohiak zera, atera arte, edukitzen zuten han, gero hasten zen ja zabaltzen, botiletan ipintzen eta)

"Gero geldi geldi yote san andi inten, eta gero ba, soldu arte, eta solduten danen atara ber dotzesu sera" - (Gero geldi-geldi joaten zen handi egiten, eta gero ba, zoldu arte, eta zoltzen denean atera behar diozu zera)

arik... arte(n):

"Arik usteldu arten abantateun" - (Haiek usteldu arte irauten zuen)

"Espadeko umedaderik, arik eta agarra arten aputxu bet" - (Ez badauka hezetasunik, harik eta oratu artean apurtxo bat)

"Ordun, kanpon, eleixako aten, itxeroten, arik eta abade etorri arten ote siren" - (Orduan, kanpoan, elizako atean, itxaroten, harik eta abadea etorri artean egoten ziren)

"Ordun ba karkabatan ta, edo errefujiok intte ta, ostuten gintzesen abiasio, a, arik eta martxa arten" - (Orduan ba karkabetan eta, edo aterpeak eginda

eta, ezkututzen ginen abiazioa, harik eta alde egin arte)

baño lelau, beño lelau:

"Bai yonas ni eskondu baño lelau" - (Bai joan naiz ni ezkondu baino lehenago)

"Nik, a, ori sera, ori dormitorio dusti intte dekot, neuk eintte eskondu baño lelau" - (Nik, zer hori, gela hori guztia eginda daukat, neuk eginda ezkondu baino lehenago)

"Gitxi, len gari ereitte san baya ganaduri emote akon, soldu baño lelau" - (Gutxi, lehen garia ereiten zen baina ganaduari ematen zitzaion, zoldu baino lehenago)

"Semet bider! bai solteratan, eskondu baño lelau eta bai eskondu te osten, emen bere" - (Zenbat bider! bai ezkonbakotan, ezkondu baino lehenago eta bai ezkondu eta ostean, hemen ere)

"Ni yayo baño lelau imiñi aun gure aittek" - (Ni jaiio baino lehenago ipini zuen gure aitak)

"Eskondu beño lelau, andragaye" - (Ezkondu baino lehenago, andregaita)

barik:

"Eron au ausi barik" - (Eroan hau hautsi barik)

"Etzera eldu barik, e? etzera eldu barik andrek ekarri bokadillu, e, tabernara, eta ostabe Nabalera bearren" - (Etxera heldu barik, e? etxera heldu barik andrek ekarri bokadilloa, tabernara, eta ostera ere Nabalera beharrean)

"Baya es auresku oiñ itten dauren modun, len auresku itte san agarrata olau sinta bateas, olan agarrata, eta aurrekok eitte aun sera, solta barik" - (Baina ez aureskua orain egiten duten moduan, lehen aureskua egiten zen oratuta holako zinta batekin, hola oratuta, eta aurrekoak egiten zuen zera, askatu barik)

berrik:

"Aurok, a, indibidual ekarri berrik, ba atera, kamioi beten koste auren eta kamioi beten, a, dana" - (Eurok, bakarka ekarri

BERANGOKO HIZTEGIA

beharrean, ba atera, kamioi baten hartzen zuten eta kamioi baten, dena)

berren:

"Ori dekotan andre neu bera bille yon berren, bera etorte san neu bille" - (Hori daukadan andrea neu bera bila joan beharrean, bera etortzen zen neu bila)

"Gero arik, lurre txikerrak, lotxen sanen, maseteas ibil berren, maseteas asko ibilte san ordun, banan banan ibil berren, ganaduk au imin, arri betzun ganen, ta norbera ganen" - (Gero haiek, lurra txikerrak, lotzen zenean, mokilostearekin ibili beharrean, mokilostea asko erabiltzen zen orduan, banan-banan ibili beharrean, ganaduak hau ipini, harri batzuen gainean, eta norbera gainean)

"Orrek eitteuren kakaas, abono ta, lantzerrerako, abono bota berren, orreas" - (Horiek egiten zuten kakarekin, ongarria eta, lantzarrerako, ongarria bota beharrean, horrekin)

esik:

"Goxeti etorri esik estu ikusten" - (Goizetik etorri ezik ez dugu ikusten)

"Jente yote san Sopolara, baya auri iñ esik, emen Berangon" - (Jendea joaten zen Sopolara, baina euria egin ezik, hemen Berangon)

"Esetu esik obe da an dausen lekun itxi" - (Ezagutu ezik hobe da han dauden lekuan utzi)

"Orrek kolore berde imintten dakoena? usa esik? bai estot esatuko ba!" - (Horiek kolore berdea ipintzen zaiena? erabili ezik? bai ez dut ezagutuko ba!)

ordureko:

"Sartu ordureko esaten dau aittek, an oten da, semeri esaten dotzo, orrek orrek sapatak ber dittu" - (Sartu ordurako esaten du aitak, han egoten da, semeari esaten dio, horrek horrek zapatak behar ditu)

"Ba ataixu kontu asunek ikutu ordureko pikaten dotzue" - (Ba atera ezazu kontua asunak ikutu ordurako pikatzen dizute)

"Kanpon igerri ordureko, etzekok igeriten du itzel, baya aurokas bixi ber da, e? osten estosu igerriten, suk ikusten dosu orti eta estotzesu igerriten" - (Kanpoan igarri ordurako, etxeakoak igeritzen dugu itzel, baina eurokin bizi behar da, e? ostean ez duzu igeritzen, zuk ikusten duzu hortik eta ez diozu igeritzen)

ta:

"Ori esanta dau" - (Hori esanda dago)

"Ori emonta dau" - (Hori emanda dago)

"Ori intte dau" - (Hori eginda dago)

"Goso dires orrek erreta" - (Gozoak dira horiek erreta)

"A narru lotxen da sulotute, sulo sulo intte" - (Narru hura lotzen da zulatuta, zulo-zulo eginda)

ta bere:

"Ademas imiñi esta bere lelengo kapatxu galtxe san, a, bedarra, osten garitteko esta galtxen" - (Gainera ipini ezta ere lehenengo geruzatxoa galtzen zen, belarra, ostean garaitekoa ez da galtzen)

"Garbittute bere, gordeta, ba intte yakoen, a, autze edo" - (Garbituta ere, gordeta, ba egiten zitzaien, hautsa edo)

"Es, es, aukitte bere igual da se enei esan" - (Ez, ez, edukita ere berdin da ze ez nezake esan)

ta osten:

"Berangon biste siren onek eskondute, ta senbet urte, otamar urte ingeru, aitte il tte osten" - (Berangon bizitzen ziren hauek ezkonduta, eta zenbat urte, hogeita hamar urte inguru, aita hil eta ostean)

"Besta bat garbittuteko gero brase atara ta osten ba, idakas eintten dun eskobe moduko, esta?" - (Beste bat garbitzeko gero txingarra atera eta ostean ba, irakin egiten genuen erratza modukoa, ezta?)

"Erre ta osten, gero ba garbittu ureas" - (Erre eta ostean, gero ba garbitu urarekin)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Gero ya tripek atara ta osten, ya andrak asten siren ya tripek libraten" - (Gero ja tripak atera eta ostean, ja andreak hasten ziren ja tripak libratzen)

"Bayati pasa ta osten, txarriri botate tzun guk ori" - (Bahetik pasatu eta ostean, txerriei botatzen genien guk hori)

aunke:

"Aunke eraiñ itteko, eta bai, aonek kusteko bere bai, askok estotzo itten, e?" - (Erein egiteko izan arren, eta bai, hauek harrapatzeko ere bai, askok ez dio egiten, e?)

"Igual faltaten da, aunke oiñ linterna taus bere ba, baya emen aukittekera sera imintten dot, kandele imintten dot" - (Beharbada faltatzen da, orain linternak dauden arren ere ba, baina hemen edukitzeko zera ipintzen dut, kandela ipintzen dut)

"Artok kantza iten dau, aunke gustaten dast niri asko" - (Artoak nekatu egiten du, gustatzen zaidan arren niri asko)

"Lei baltza yausten danen, eiten ditu, orrek lurrek eiten dire erre, aunke ixeten dire gogorak" - (Lei beltza jausten denean, egiten ditu, lur horiek egiten dira erre, nahi eta izaten diren gogorak)

"Aunke oin diñeude, obeau dala, e, plega, ta plastikua beteas tapa ta usteldu te dala, e, satza obeau, erreta baño" - (Orain dinoten arren, hobea dela, tolestu, eta plastikoa batekin tapatu eta usteldu eta dela. sats hobea, erreta baino)

27.5. ADITZ IZENAK

-keran:

"Etorkeran ikus dot" - (Etorkeran ikusi dut)

"Bekorotzas siketu itten da, eta siketukeran axe sartzen dako" - (Bekorotza sikatu egiten da, eta sikatzean haizea sartzen zaio)

"Ori eintten dun gortan, albatetati, ateti sartukeran albate geittuten tzun" - (Hori egiten genuen kortan,

albateetatik, atetik sartzean albatea deitzen genion)

"Sue emokeran, lotxen diren baltza keas, baltza, ta gero bero kosten daunen suri lotxen da" - (Sua emakeran, lotzen dira beltza kearekin, beltza, eta gero bero hartzen duenean zuri lotzen da)

"Ibilikeran eitten ya dakixus gausak, e? pratikek balio dau, eta alantxe gastaik eitte siren" - (Ibilikeran egiten ja dakizkizu gauzak, e? praktikak balio du, eta halantxe gaztak egiten ziren)

"Sartukeran baya an egote san" - (Sartukeran baina han egoten zen)

-tea:

"Onek itxi euden itte" - (Hauek utzi zuten egitea)

"Ori esate esta ona" - (Hori esatea ez da ona)

"Mendin ibiltte ona da" - (Mendian ibiltzea ona da)

"Umeri gustaten dake asko olgate" - (Umeei gustatzen zaie asko olgatzea)

"Oin bere gustaten dake umeri tiritak imintte" - (Orain ere gustatzen zaie umeei tiritak ipintzea)

-tiari:

"Usenati esan ta ra! buelta erdi emon ta, bai itxi yateri" - (Izenetatik esan eta ra! buelta erdi eman eta, bai utzi jateari)

-terik:

"Estekosu entzuterik?" - (Ez daukazu entzuterik?)

"Ostantzen oiñ untzekas pentza beres sartxerik or, untzarik estau sartxerik or" - (Osterantzean orain iltzeekin pentsatu ere ez sartzerik hor, iltzerik ez dago sartzerik hor)

-teas:

"Ori nauk esateas bakarrik estau" - (Hori neuk esatearekin bakarrik ez dago)

-tearren

BERANGOKO HIZTEGIA

"*Afari yan esittearren yon dires*" - (Afarria ez jatearren joan dira)

"*Estait nik baya, nik, a, pentzaten dot, esate yeurela yon estearren, a, arantza, eskaittesan yon, sorgiñe tausela edo sera*" - (Ez dakit nik baina nik, pentsatzen dut, esaten zutela ez joatearren, harantz, ez gaitzen joan, sorginak daudela edo zera)

"*Ordun igual esate san esatearren*" - (Orduan beharbada esaten zen esatearren)

-ten:

"*Orrek daki kantaten*" - (Horrek daki kantatzen)

"*Orreri, entzun doztet orreri kantaten*" - (Horri, entzun diot horri kantatzen)

"*Gaus afari yaten*" - (Gaude afari jaten)

"*Itxi deuste pasaten*" - (Utzi didate pasatzen)

"*Emon deuste yaten*" - (Eman didate jaten)

-teko:

"*Ori dau etorteko*" - (Hori dago etortzeko)

"*Esan dot yoteko*" - (Esan dut joateko)

"*Emoistesu sati bet txakurreri emoteko*" - (Emadazu zati bat txakurrei emateko)

"*Katxarrerri pere euki eudesen aparte, orrek gausek eitteko, e?*" - (Tresneriak ere eduki zituzten aparte, gauza horiek egiteko, e?)

-teko lekun:

"*Talo itteko lekun, uruntxu bota ara, aputxu eta loditxu aputxu et, ta gero aliminttu itzela, aliminttu andi*" - (Taloa egiteko lekuan, irintxo bota hara, apurtxo eta loditxo apurtxo bat, eta gero alimentu itzela, alimentu handia)

-teko modun

"*Emen jente asko, on dire txarrik iltteko modun ta serak, orrek, a, matarife modun*" - (Hemen jende asko, egon dira txerriak hiltzeko moduan eta zerak, horiek, matarife moduan)

"*Erremate da ori, saltxe sanen, baye yateko modun egoten sanen, batzuten erre in ber san*" - (Erremata da hori, saltzen zenean, baina jateko moduan egoten zenean, batzuetan erre egin behar zen)

"*Erakutzi itteko moduko auki dot nik or erropatxu*" - (Erakutsi egiteko modukoa eduki dut nik hor arropatxoa)

"*Etzen dau oniño ikusteko modun, makiña at ekarri gendun ori apartateko*" - (Etxean dago oraindik ikusteko moduan, makina bat ekarri genuen hori banatzeko)

-tekotan:

"*Txarto ittekotan obeto itxi*" - (Txarto egitekotan hobeto utzi)

-tekorik

"*Txakurre pere estau yaten ori, estau pistirik ori yatekorik*" - (Txakurrak ere ez du jaten hori, ez dago piztiarik hori jatekorik)

-tes:

"*Baya egotes, bueno orain karnabala tire, baya ordun maskarita egune esate yeuen*" - (Baina egotez, beno orain aratusteak dira, baina orduan maskarita eguna esaten zuten)

27.6. ASPEKTUAK

Ataltxo honetan aspektu burutua, ez-burutua eta geroa egiteko erabiltzen diren baliabideak aurkeztuko ditugu

Burutua:

Aspektu burutuan aditz partizipioen amaierekin gertatzen diren aldaketak baino ez ditugu kontutan hartuko. Maileguetan erdarazko aditza <ar> amaierakoa denean euskaraz <a> amaiera hartzen da: *gusta, akorda, abisa, topa*, e.a. Erdarazko <er> eta <ir> amaieradunak <idu>, <u> eta <i> amaieren bidez egiten dira. Lehen biak arruntenak dira adb: *segidu, mugidu, dibididu*, e.a. <u> amaieradunak Getxon ere sarritan entzuten dira, adibidez: *mogu, sentu, defendu, erresibu, friju, medu, korru, jodu, errepartu*, e.a. Azkenik, <i> amaieradunak, Sopelan eta Barrikan

BERANGOKO HIZTEGIA

arruntak direnak, noizean behin erabiltzen dira: *konosi, kosi, erreparti*, e.a.

Partizipioa aditz laguntzailearekin batzean haren "i" galtzen da sarritan: *etor da, ekar dot, ukus dot, imin da, ibil da*, e.a. "imiñi" eta "ibilli" partizipioen kasuan bakartuta erabiltzean ere "i" barik agertzen da: *imiñ, ibil*.

Ez-burutua:

Aspektu ez-burutuaren alomorfoak **TEN**, **TTEN** eta **TXEN** dira. Alomorfo bakoitza aditz partizipioaren amaieraren arabera aukeratu da. Jarraian bakoitzaren erabileraren adibide batzuk emango ditugu:

-TEN

-N: *esaten, yoten, egoten, eroten, emoten, urteten, e.a.*

-I: *ikusten, erosten, etorten, ekarten, kosten, konosten, egosten, e.a.*

-A: *gustaten, akabaten, pagaten, topaten, tapaten, bajaten, paraten, pasaten, e.a.*

-O: *yoten*

-TTEN

Hau aurrekoaren aldaki palatalizatutzat jo dezakegu:

eintten, eitten, aukitten, eukitten, errepartitten, imintten, eskeitten, eskaitten, ibiltten, ereitten, e.a.

-TXEN

Alomorfo hau "tu" edo "du" amaieradun partizipioekin erabiltzen da:

saltxen, artxen, lotxen, sartxen, batxen, galtxen, kentxen, sertxen, apurtxen, garantxen, biguntxen, eskontxen, e.a.

Geroaldia:

Geroaldiaren aspektua egiteko "ko" erabiltzen da. Partizipioa "n" amaieraduna denean, orduan "go" erabiltzen da: *esango, emongo, erongo, egongo, yongo, e.a.*

28. POSPOSIZIOAK

Atal honetan, daukaten garratzia gogoan erabilita, jaso ditugun posposizioak eta euron erabileren esaldi eredu batzuk ematen ditugu.

adi: adi

"*Puntak gora adi dala, eta gero mimenaas*" - (*Puntak gora adi dela, eta gero mimenarekin*)

"*Leku eskutun badau, igual dau aputxu bet ona adi, ona adi*" - (*Leku ezkutuan badago, beharbada dago apurtxo bat hona adi, hona adi*)

alden: aldean

"*Sarra da orren ama nire alden*" - (*Zaharra da horren ama nire aldean*)

"*Au gure alden gaste da, au seña da, au gure alden seña da*" - (*Hau gure aldean gaztea da, hau seina da, hau gure aldean seina da*)

"*Amabik alden oin bere yoten daure emen*" - (*Hamabiak aldean orain ere jotzen dute hemen*)

albon: alboan

antzen: antzean

"*Onek daki nire antzen, esta?*" - (*Honek daki nire antzean, ezta?*)

antzeko: antzekoa

"*Bixion antzeko da beste*" - (*Bizioen antzekoa da bestea*)

antzera: antzera

"*Palu bet kutxillo antzera kosi neun eta kendu neutzen*" - (*Makila bat kutxilo antzera hartu nuen eta kendu nion*)

"*Ausoko lurretan, or urteten dau olau antzera*" - (*Auzoko lurretan, hor irteten du holako antzera*)

"*Bueno antzera iten du, e? emeti eta Erandiora estau ainbeste diferentzi*" - (*Beno antzera egiten dugu, e? hemendik eta Erandiora ez dago hainbeste desberdintasun*)

arte: arte

"*Gure dibertziño ori ixen da arik eta amasortzi urte auki arte*" - (*Gure dibertsioa hori izan da harik eta hamasortzi urte eduki arte*)

arten: 1. arte. 2. artean

"*Batan batzun arten, iru lau edo bosten arten edo auki auren, batzun arten auki auren makiña ori gari garbittako*" - (*Baten*

BERANGOKO HIZTEGIA

batzuen artean, hiru lau edo bosten artean edo eduki zuten, batzuen artean eduki zuten makina hori garia garbitzekoa)

"Amak eitten dau Bilbon bear eta iruretararten estau urteten" - (Amak egiten du Bilbon behar eta hiruretara artean ez du irteten)

aspi: azpia

"Ordun ote san, oliñerak, oyan aspiñ" - (Orduan egoten zen, orinalak, ohearen azpian)

atze: atzea

"Gurtakarra sartzeko atzen, erdiko da lodiau, t'aurren irespate" - (Gurtakarra sartzeko atzean, erdikoa da lodiagoa, eta aurrean ezpata)

baño, beño: 1. konparatiboetan berdintasuna adierazteko erabiltzen da.
2. baizik, baino

"Estot ekarri bi baño" - (Ez dut ekarri bi baino)

"An bere ya gaste paño estaus" - (Han ere ja gazteak baino ez daude)

"Bai bueno ote siren batzuk, buru baltza, aurpegi baltza, buru baño aurpegi baltza" - (Bai beno egoten ziren batzuk, buru beltza, aurpegi beltza, burua baino aurpegi beltza)

barik: barik

"Diru barik yon dies" - (Diru barik joan dira)

"Eron ori apurtu barik" - (Eroan hori apurtu barik)

barik bere: barik ere

"Andi andi andi bari bere pasa leitte au, andies eitteuren amak eta onek" - (Handi-handi-handi barik ere pasa liteke hau, handiarekin egiten zuten amak eta hauek)

barru: barru

"Aste bete barru etorriko nas" - (Aste bete barru etorriko naiz)

"Gero amabost egun barru, dana prepara, kinpulle egosi, arrosak eta danak, eta gero eiñ, a, txorisok" - (Gero hamabost egun barri, dena prestatu, kipula egosi, arrozak eta denak, eta gero egin, txorizoak)

"Banoa se a ordu bete barru emen dau" - (Banoa ze hura ordu bete barru hemen dago)

"Etorko nas beste amabost egun barru" - (Etorriko naiz beste hamabost egun barru)

begire: begira

"Autobuseri begire ego nas" - (Autobusari begira egon naiz)

"Ordu bete egonas suri begire" - (Ordu bete egon naiz begira)

"Es begire nau se aitte alaba taus andi beti" - (Ez begira nago ze aita alabak daude handik behetik)

"Emen nau goxerik begire, ia nos datosen" - (Hemen nago goizetik begira, ea noiz datozen)

beste: beste

"Gaur esta orduko beste ganadu iltxen" - (Gaur ez da orduko beste ganadu hiltzen)

"Orrek esteko ollo peste pisu" - (Horrek ez dauka oiloak beste pisu)

bille, billen: bila

"Orrek ogi bille yon dies" - (Horiek ogi bila joan dira)

"Diru bille yon dies" - (Diru bila joan dira)

"Etorten da bera billen, eta yote nas igual, esta?" - (Etortzen da bera bila, eta joaten naiz beharbada, ezta?)

"An ego nitzen ainbet denporan, ta aitte difuntu yon san bille, ta ondiño amasortzi urte oki barik, ekarri yosten etzera" - (Han egon nintzen hainbat denboran, eta aita defuntu joan zen bila, eta oraindino hamazortzi urte eduki barik, ekarri ninduen etxera)

"Esaneutzen, yo nas bedarra bille ara, eta bertan lotu dire" - (Esan nion, joan naiz belarra bila hara, eta bertan lotu dira)

esken: eskean

"Ni esken no" - (Ni eskean noa)

estiloko: erako, moduko

"Nik esetu doasena tire beti, ondiño or dekoas nik amanak gordeta urreskok, sera bi, bi, onen estilokok baya aputxu bet laburrauk" - (Nik ezagutu ditudanak dira beti, oraindino hor dauzkat nik amamak gordeta urrezkoak, zera bi, bi, honen erakoak baina apurtxo bat laburragoak)

fabor: fabore

faltan: faltan

"Aman esnen faltan, aiñ esnetxu emon ta, txarto dauna bere bixi itte sala esateuren" - (Amaren esnearen faltan, haren esnetxoa eman eta, txarto dagoena ere bizi egiten zela esaten zuten)

BERANGOKO HIZTEGIA

ganen: gainean

"Saldi beten ganen etor giñen beiñ" -

(Zaldi baten gainean etorri ginen behin)

"Ogin ganen imiñi, ta asukere bota, goso!"

- (Ogiaren gainean ipini, eta azukrea bota, gozoa!)

gañe: gaina, beste

gera: bezain

"Su sara ori gera andi" - (Zu zara hori bezain handia)

"Au etze da orren gera politte" - (Etxe hau da hori bezain polita)

grasik: eskerrak

"Grasik ola on sana!" - (Eskerrak ohola egon zena!)

iñen: aginean

"Suri ardik il iñen ixen datzus" - (Zuri ardiak hil aginean izan zaizkizu)

ixen esik: izan ezik

"Saltze niri estast gusta iños saltze, sera, txorison ixen esik" - (Saltsa niri ez zait gustatu inoiz saltsa, zera, txorizoan izan ezik)

kontra, kontran: kontra

"Nik estekot auron kontra eser, e?" - (Nik ez daukat euron kontra ezer, e?)

"Orain ayuntaminttu daun lekun, or egon san eskole, eta, ori eleixen kontran daun etze, sine ta egon san gero" - (Orain udaletxea dagoen lekuan, hor egon zen eskola, eta, elizaren kontra dagoen etxe hori, zinema eta egon zen gero)

konture: kontura

lau: lako, lango

"Ni nas seu lau" - (Ni naiz zu lako)

"Orre laurik esta egon emen ingerun, bertzolari ona" - (Horren lakorik ez da egon hemen inguruan, bertzolari ona)

"Aukitteuren alan, a, sera bat, listoi bete lau, platera sartzeko ara eta, platera sujetateko seran, antxe egote san" - (Edukitzen zuten hala, zer bat, listoi baten lako, platera sartzeko hara eta, platerari eusteko zerean, hantxe egoten zen)

"Ordun esiren oingo lauk txakoliñek" - (Orduan ez ziren oraingo lakoak txakolinak)

les: legez, lez

"Ori da seña esate les" - (Hori da seina esatea legez)

"Ordun es gaurko les, a, ondo gobernata idik, orrek bearren ta ibillitte, ta eron gero probatan" - (Orduan ez gaurko legez, ondo gobernatuta idiak, horiek beharrean eta ibilita, eta eroan gero probetan)

moduko: modukoa

"Gero aukitten gendun besta bat, sera, mangu luseas, atarateko, atxurren moduko" - (Gero edukitzen genuen beste bat, zera, asta luzearekin, ateratzeko, aitzurraren modukoa)

"Loye klaro dana loye! se a materi moduko da" - (Lohia jakina dena lohia! ze hura materia modukoa da)

modun: moduan

"Tio bat auki gendun guk etzen, mutil sarra, artuko, abuelok eta artuko, ta gero aitten anajen modun ba" - (Osaba bat eduki genuen guk etxean, mutil zaharra, hartukoa, aitaitak eta hartukoa, eta gero aitaren anaiaren moduan ba)

"Etorri isterren ganera saldi modun ingo tzut eta" - (Etorri izterraren gainera zaldi moduan egingo dizut eta)

modure: modura

"A pentzu modure ixete san ona" - (Hura pentsu modura izaten zen ona)

ondo: ondo

"Bai, a, ospitalan ondon an goyen, itte san sera, neu bere txikerretan ego nas an" - (Bai, erietxearen ondoan han goian, egiten zen zera, neu ere txikerretan egon naiz han)

"Su para saittes nire ondon" - (Zu para zaitez niri ondoan)

ordes: ordez

"Komode? bai, kuartuko, mesillen ordes, selan dan andi bet? a da komode" - (Komoda? bai, gelakoa, mesanotxearen ordez, zelan den handi bat? hura da komoda)

osten: ostean

"Urdulis da gero Sopelan osten" - (Urduliz da gero Sopelaren ostean)

paren: parean

"Ori Santana barrio ori, a, dau paren" - (Hori Santa Ana auzune hori, dago parean)

"Ori istituto paren eta, istituto da Getxo" - (Hori institutu parean eta, institutua da Getxo)

BERANGOKO HIZTEGIA

29. HOTS BERBAK

Atal honetan jaso ditugun hots berbak biltzen dira. Berbok sarri askotan agertzen izan zaizkigu zarata edo hots zehatz batzuk irudikatu guran; egoerarik egoera eta hiztunik hiztun desberdinak izan daitezkeen arren, interesgarri eritzi diogu agertu direnak hemen ipintzeari, har bedi kontutan gehienetan esklamazio modura jaso ditugula.

bu!: bu!

"Lelau seraas, solta, a, eta gero txorron garbittu, eta gero binagreas ta bu!" - (Lehenago zerarekin, askatu, eta gero txorroan garbitu, eta gero ozpinarekin eta bu!)

broun-broun: eztularen zarata

danba: kolpearen zarata

"Albora datosenen, a, danba! burun, a, segidun emoten deutze txerpeas ta bota" - (Albora datozenean, danba! buruan, segituan ematen die txerparekin eta bota)

danpa!: kolpearen zarata

daunba: kolpearen zarata

din-dan: din-dan

glaun-glaun: irentsieraren zarata

grak!: lastoaren zarata ebakitzean

kas: begizkoa kentzeko beruna zartaginera botatzean egiten den zarata

kra: berun urtuak uretan salto egikeran egiten duen zarata

"Bereinketu eitteusen, a, sera dustik, eta botateun kas! botateun ara, eta kra! saltateun serak, eta an urteteun edo txarra dan edo ona dan, arik eta biotzan formek urten arten" - (Bedeinkatu egiten zituen, zer guztiak, eta botatzen zuen kas! botatzen zuen hara, eta kra! saltatzen zuen zerak, eta han irteten zuen edo txarra den edo ona den, harik eta bihotzaren formak irten artean)

kra-kra: kra-kra

"Iñok eser badiñotzu, edo gure badau eiñ, muskerrak, kra kra! abisau!" - (Inork ezer badinotsu, edo gura badu egin, muskerrak, kra-kra-kra! abisatu!)

pal-pal: pal-pal, irakinaren zarata

"Beran tintteas bere bai imintteuren, baya niretzako, etzeko tomateas, tomate iñ, pal pal pal! geldiro geldiro, geldiro geldiro in tomate" - (Beraren tintarekin ere bai ipintzen zuten, baina niretzat, etzeko tomatearekin, tomatea egin, pal-pal-pal! geldiro-geldiro, geldiro-geldiro egin tomatea)

plast: plast

"An imintteun tranpe, eta yoten sanen soso edo bidagarro, plast! yo, ak koste yeun" - (Han ipintzen zuen tranpa, eta joaten zenean zozoa edo birigarroa, plast! jo, hark harrapatzen zuen)

plasta-plasta: harria jotzearen zarata

plausta: jausi

pli-pla: pli-pla

pospolin-pospolin: galeperraren zarata

poun!: poun!

"Kosi arri bet eta ra! para san aolau arbola bastante txikitxu beten, eta kosi neun arri bota neun, eta yo olau tronko antzera errama baten ta poun! eta dosena ba paño giau yausi san bera" - (Hartu harri bat eta ra! paratu zen haolako arbola nahiko txikitxo baten, eta hartu nuen harria bota nuen, eta jo holako enbor antzera errama baten eta poun! eta dozena bat baino gehiago jausi zen behera)

puf: puf

"Gero espalda dustin ataraten deutze alaseko suldarra, ba itzelak! nik aik atara eskus bere atara doas, olan sakatu, ta puf! sentalle lau suldarra atara kanpora" - (Gero bizkar osoan ateratzen diote halaseko zuldarra, ba itzelak! nik haiek atera eskuz ere atera ditut, hola sakatu, eta puf! zentaila lako zuldarra atera kanpora)

ra!: ra!

"Pikaten daunen, es ibil, alkolas ta orreas, artu bedarra, or kanpon, ra! ra! artu olan, emon, eta a esta andittuten" - (Pikatzen duenean, ez ibili, alkoholarekin eta horrekin, hartu belarra, hor kanpoan, ra! ra! hartu hola, eman, eta hura ez da handitzen)

rapa!: rapa!

"Beste deke martxan, rapa-rapa! ta urun asko iten dau, asko!" - (Bestea daukate, rapa-rapa! eta irin asko egiten du, asko!)

ras!: ras!

BERANGOKO HIZTEGIA

"Ori beste es, ori beste atzoko ixen da, emeko axe egon san, egun dustin atzo, eta bero, ta ras! kanbia yun illunderantza ona itxosora" - (Beste hori ez, beste hori atzokoa izan da, hemengo haizea egon zen, egun osoan atzo, eta bero, eta ras! aldatu zuen illunderantz hona itsasora)

ripi-rapa: oinez arin ibiltzea

ruuu: ruuu

"Emen, a, makiñe bere, sartxen badosu apurtxu bet lar, ya ruuu! arri" - (Hemen, makina ere, sartzen baduzu apurtxo bat lar, ja ruuu! harria)

tak!: tak!

"Gordosola imiñi, seran, erreka eskiñen, igiritte, ta pikate aunen, txak! tak! gordosolara angile" - (Guardasola ipini, zerean, erreka bazterrean, irekita, eta irensten zuenean, txak! tak! guardasolera aingira)

taka-taka: taka-taka

tan-tan: meza lagunak erabiltzen zuen txilinaren hotsa

tapa-tapa: tapa-tapa; oinez astiro joatea adierazteko erabiltzen da

"Gure aitte difuntuk, a, amari bendeje aston kusitte tapa tapa tapa! emeti Algortako plasara eroteutzon" - (Gure aita zenak, amari bendeja astoan hartuta tapa-tapa-tapa! hemendik Algortako plazara eroaten zion)

tarraaa!: tarraaa!

"Orrek sintak amarrateko iladillue, olan iñ, a, kutxilloas ta tarraaa! oiñ erregaluk eitten diren modun?" - (Zinta horiek lotzeko firutxoa, hola egin, kutxiloarekin eta tarraaa! orain opariak egiten diren moduan?)

tas: tas

"Sulo bat eiñ, eta bota guito, sulon ondora, ta gero atzamarras tas! eta ara barrure sartute sirenak, ba sauretzako" - (Zulo bat egin, eta bota guitoa, zuloaren ondora, eta gero atzamarrarekin tas! eta hara barrura sartzen zirenak, ba zeuretzat)

toum: toum

"Errope eskeitten naula orrek atek toum! ieun, ene!" - (Arropa eskegitzen nagoela ate horrek toum! egin zuen, ene!)

tra-tra: tra-tra

"Gero tape imin ber dako espabere asten direnen, a, tratadaka eta lotxen danen, ya tra tra tra! ba ya daus eintte" - (Gero tapa ipini behar zaio ezpabere hasten direnean, tratadaka eta lotzen denan, ja tra-tra-tra! ba ja daude eginda)

trapa-trapa: trapa-trapa

trin-tran: kumaren zarata kulunkatzean

txak: txak!

"Auri golpe itteunen, ure loittu ber, ure loittu, ure argies es, ure loitxen sanen, yon ta imiñi gordosola an, a, erreka eskiñen, txak!" - (Euri kolpea egiten zuenean, ura lohitu behar, ura lohitu, ur argiarekin ez, ura lohitzen zenean, joan eta ipini guardasola han, erreka bazterrean, txak!)

txaka-txaka: txaka-txaka

"Espadeke etzen denpora egoki artesi beti boltzan, ta an ibiltten dires, txaka, txaka, txaka!" - (Ez badaukate etxean denbora egokia artazia beti poltsikoan, eta han ibiltzen dira, txaka, txaka, txaka!)

txas: txas

"Ori txingerra koisteko? txingerra sartuteuen olau, artesi moduko alikatek edo orrek, tenasak, artu txingerra, suk estosu esetu ori? kafe itten sanean? ta txas! sartu txurruuu! eitteun" - (Txingar hori hartzeko? txingarra sartzen zuten holako, artazi moduko aliketak edo horiek, tenazak, hartu txingarra, zuk ez duzu ezagutu hori? kafea egiten zenean? eta txas! sartu txurruuu! egiten zuen)

uf: uf

"Eta antxoak eta kinpulleas imiñi tte talo beroas, uf!" - (Eta antxoak eta kipularekin ipini eta talo beroarekin, uf!)

30. ESKLAMAZIOAK

Gure korpusean jaso ditugun esklamazioak eta, hainbat kasutan, euren erabileraren testuinguruak ere batzen ditugu atal honetan.

aiko!: aiko, hara hor

"Ta aiko! orretan aukitteun, orretan grasi itzela aukitteun" - (Eta aiko! horretan edukitzen zuen, horretan grazia itzela edukitzen zuen)

BERANGOKO HIZTEGIA

aiko erromeri!: aiko erromeria

aiko erromerittan: aiko erromerietan

"Oingok estus ikisi, ta aiko erromerittan, lengok astu" - (Oraingoak ez ditugu ikasi, eta aiko erromerietan, lehengoak ahaztu)

ala ba!: tira ba

ara!: hara!

ene, enei: ene

"Erope eskeitten naula orrek atek toum! ieun, ene!" - (Arropa eskegitzen nagoela ate horrek toum! egin zuen, ene!)

"Bustiñe, ori gogorra, uf! enei! orrek artesaten, orrek bear dere satza naye, orrek, orrek!" - (Buztina, hori gogorra, uf! enei! horiek artezatzen, horiek behar dute satsa nahia, horiek, horiek!)

ene Jangoikoa!: ene Jaungoikoa!

esato: horixe bera

fijo!: ziur

garrote!: garrote, egurra!

gero: gero

"Orrek, a, estaitt seaittik ixen dan, baya mundu dustik errespeta, entzun dot nik emen, komadreje dau gero! errespeta!" - (Horrek, ez dakit zergatik izan den, baina mundu guztiak errespetatu, entzun dut nik hemen, ogigaztaia dago gero! errespetatu!)

grasik: eskerrak

"Enei esne proba, nik tea artxen dot eta grasik!" - (Ez nezake esnea probatu, nik tea hartzen dut eta eskerrak!)

ia ba!: ea ba!

jainkon ume!: Jainkoaren umea!

Jainko taki!: Jainkoak daki

Jesus Maria!: Jesus Maria

"Jesus Maria! solon, txikerretarik gero bere bai, se gero bere alargun lotu nintzen" - (Jesus Maria! soroan, txikerretatik gero ere bai, ze gero ere alargun lotu nintzen)

Jesus Maria ta Jose: Jesus Maria eta Jose

"Nik kamaran ikus dot frute, Jesus Maria ta Jose!" - (Nik kamaran ikusi dut fruta, Jesus Maria eta Jose!)

kaka sarra: kaka zaharra

"Gure euskera ta kaka sarra bat" - (Gure euskara eta kaka zaharra bat)

klaro, karo!: jakina

"Baserriko klaro nasena!" - (Baserrikoa jakina naizena!)

"Klaro, bai baya ori esta orrek txorintzako, e?" - (Jakina, bai baina hori ez da txori horientzat, e?)

keba, kea, ka: bai zera

kontxo: kontxo

latigu!: latigu! jo eta ke!

listo!: listo!

madre!: itzela, ikaragarria

"Txakoliñe madre! oiñ estau olaurik" - (Txakolina itzela! orain ez dago holakorik)

"Satsa bada a teko pisu madre!" - (Satsa bada hark dauka pisua madre!)

majo!: ederto, polito

ño: ño

"Ño! paraje gabiltzes" - (Ño! paraje gabiltza)

oba: hobe

oba es: hobe ez

ojala: hobe

"Ojala basenkos suk orrek urtek!" - (Hobe bazenezka zuk urte horiek!)

sentalle: zentaila

"Oiñ estakie dana kimike edo sentalle!" - (Orain ez dakite dena kimika edo zentaila!)

"Ixilik o adi sentallori!" - (Isilik egon hadi zentail hori!)

ta kittu: eta kito

uxela: hobe

"Uxela etor baleitte ori" - (Hobe etor baledi hori!)

31. ESAKUNAK

Atal honetan adjektibo eta aditzondo esakuntzat erabiltzen direnak eta esaldi egin batzuk aurkezten ditugu.

a edo ori: hura edo hori

alau baten: halako baten

apur bet gora bera: apur bat gora behera

apurke-apurke: apurka-apurka

asur baltzak: hezur beltzak; kanpotarren gainean erabiltzen den mespretxuzko esakunea

badaespadan: badaezpadan

banan banan: banan-banan

berba utze ixen: berba hutsa izan

bildurrek ilik egon: bildurrak hilik egon, ikaratuta egon

BERANGOKO HIZTEGIA

"Beti egote siren bildurrek ilik gixajok eta, alkarren ondon parate siren" - (Beti egoten ziren bildurrak hilik gizajoak eta, elkarren ondoan paratzen ziren)

burus aurrera: buruz aurrera

burus bera: buruz behera

"Or erreke paste san eta erre kara yote siren, serakas, botellakas, eta an garbittu, imiñi burus bera" - (Hor erreka pasatzen zen eta erre kara joaten ziren, zerekin, botilekin, eta han garbitu, ipini buruz behera)

buskantzak orde auki: buzkantzak ordea eduki; txerria hiltzen zenean, auzoen artean buzkantzak banatzeko egon zen ekandua adierazteko esaten da

"Buskantzak orde deko" - (Buzkantzak ordea dauka)

diru satza les oki: dirua satsa legez eduki, diru asko eduki

domekan domekan: domekan-domekan

"Gero iltte sanen bat, domekan domekan mesara, eta erote siren mantela, eta kandeleru bi" - (Gero hiltzen zenean bat, domekan-domekan mezatarra, eta eroaten ziren zamaua, eta kandeleru bi)

dusti berreko: guzti beharrekoa

"Selan daus nire buskantzak? ba! dusti berrekok! dusti berrekok, ese guk aiñ onak yan dus" - (Zelan daude nire buzkantzak? ba! guzti beharrekoak! guzti beharrekoak, eze guk hain onak jan ditugu)

egunen egunen: egunean-egunean

"Nik txape egunen egunen bistuten dot, brase bakot ona an brasako berotasuneas erre, eta lotxen da gosoao" - (Nik txapa egunean-egunean bizten dut, txingarra badaukat ona han txingarreko berotasunarekin erre, eta lotzen da gozoago)

erdi bana: erdi bana

erdis-erdis: erdiz-erdiz

"Erdis erdis daunen berantza, ordun ur illek" - (Erdiz-erdiz dagoenean beherantz, orduan ur hilak)

erreska-erreska: erreska-erreska, ilaran

errespeto andiko: errespetu handikoa

geldi geldi, geldi geldin: geldi-geldi

gois gorri, axe edo auri: goiz gorri, haizea edo euri

"Atxiñeko sarrak selan esateren? axe edo auri" - (Antzinako zaharrek zelan esaten zuten? haizea edo euria)

gora-bera: gora-behera, apur bat gora behera
"Es, ointxe ikusten dosusenak, gora bera" - (Ez, oraintxe ikusten dituzunak, gora-behera)

gora-beran: gorabeheran

"Nebarebak biek il dires, iru illebeten, e, goraberan, esta?" - (Neba-arrebak biak hil dira, hiru hilabetea, gorabeheran, ezta?)

illen illen: hilean-hilean

justo-justo: ozta-ozta

"Orrek ixete siren justo justo gurdin sabalerako bidek" - (Horiek izaten ziren justu-justu gurdiaren zabalerako bideak)

kasu beterako, kasu beteko: kasu baterako

kasu da se: kasua da ze

kasureko: kasurako, kasu baterako

"Nik ikusi dotes nire begikes kasureko" - (Nik ikusi ditut nire begiekin kasurako)

kustiño da se: kuestioa da ze

lupu baño txarrau ixen: lupua baino txarragoa izan

"Lupu baño txarrau sara" - (Lupua baino txarragoa zara)

mustur fiñe: mustur fina

mustur fiñeko: mustur finekoa

"Ak esate yeun, Tere, begi surik dekusenak garela mustur fiñekok, debillek esan gure yeun, es mustur fiñe yaten, e? ak esan gure yeun, delikadeao bearren" - (Hark esaten zuen, Tere, begi zuriak dauzkagunak garela mustur finekoak, ahulak esan gura zuen, ez mustur fina jaten, e? hark esan gura zuen, delikatuagoa beharrea)

naste borraste: nahaste-borraste

segun trase, segun trasa, segun trasatan: antza denez, dirudienez

"Eta asarratu i yakon, a, ese neskatok, matza segun trase auki eun eta, yateko matza, sera, onena edo ederrena gure aitteri emon" - (Eta haserretu egin zitzaion, eze neskatok, mahatsa antza eduki zuen eta, jateko mahatsa, zera, onena edo ederrena gure aitari eman)

seguru antzen: seguru antzean, ziur asko

"Yunkudi ote san lekun seguru antzen" - (Zihitza egoten zen lekuan seguru antzean)

suguru bere: antza denez, dirudienez

sikeran bere: behintzat

BERANGOKO HIZTEGIA

"Sangri esate san ori, emen sikan bere" -
(Sangria esaten zen hori, hemen behintzat)

"Oñ estau Berango dustin emeti sikan bere, batere bairik" - (Orain ez dago Berango guztian hemendik behintzat, bat ere behirik)

urten urten: urtean-urtean

"Len errotatakok, a, urten urten eitteuren" - (Lehen errotetakoek, urtean-urtean egiten zuten)

"Txarri bere bai, txarri bere itzela eukitten gendun urten urten, itzela! txarri bere iltten gendun" - (Txerria ere bai, txerria ere itzela edukitzen genuen urtean-urtean, itzela! txerria ere hiltzen genuen)

32. BERBA ERATORRIAK

Atal honetan eratorpen atzizkirik garrantzitsuenak aurkezten ditugu. Era berean, bakoitzeko jaso ditugun adibideak ere emango ditugu.

ADA/KADA

adarkade: adarkada

albokade: bultzakada

aldekade: aldekada, zama

aldikade: aldikada

agarrade: burrukaldia, pelika

begade: ibarra

besarkade: besarkada

besartakade: basartakada

botakade: bultzakada

dardakade: dardakada

egaskade: hegazkada

enpajade: enpajada

eskutade: eskutada

garrotade: garrotada

gurtade: gurtada

iñosentade: inuzentada

karkasade: algara, zantzoa

karrokade: korrokada, gorakoa

ostikede: ostikada

otzarakade: otzarakada

palakade: parakada

plastade: zaplada

probade: proba

saplastade: zaplada

sestokade: otzarakada

takade: taupada

tratade: gaztainek lehertzean egiten duten zarata

trubunade: trumonada, ekaitza

txerpekade, txiperkade: txerpakada

txorrotade: txorrotada

txortade: txorta

unekade, unikade: unekada

urrumede: urrumada

yaurtakade: jaurtakada

ALDE

andikalde: handiko aldea

atzalde: arratsaldea

atzekalde: atzealdea

aurrekalde: aurrealdea

barrukalde: barrualdea

bekalde: behealdea

elixalde: elizaldea

goikalde: goialdea

goxalde: goizaldea

kanpokalde: kanpoaldea

ALDI

gorputzaldi: gorputzaldia, gorputzaren egoera

olgataldi: olgataldia

umaldi: umaldia

BAKO

akabubako: amaierabakoa

asalbako: azalbakoa

berbetabako: berbetabakoa

bixerbako: bizarbakoa

formabako: itxurabakoa

ganorabako: ganorabakoa

garobako: garaubakoa

gustubako: gustubakoa

kaskarabako: azalbakoa

lotzabako: lotsabakoa

lumabako: lumabakoa

pasabako: pasatubakoa

BERANGOKO HIZTEGIA

BARRI

eskonduparri: ezkonberria
inparri: eginbarria
iminparri: ipinbarria
mogiduparri: mugitubarria
pikabarri: pikatubarria
ume inparri: ume eginbarria

DADE/ADE

amistade: adiskidantza
edade: edadea, adina
eletresidade: elektraindarra
ermandade, ermendade: ermandadea
faltzedade: faltzedadea
fasillidade: erraztasuna
kuriosidade: kuriositatea
nobedade: nobedade, berria
propiedade: propietatea
sosiedade: elkarte
umedade: hezetasuna
unibersidade: unibertsitatea

DI/TI

arosti: hariztia
artebi: artadia
gastañadi: gaztainadia
masti: mahastia
piñudi: pinudia
yungudi, yunkudi: zihitza, zintudia

DUN

argidune: argiduna
arradune: arraduna
arrayadune: marraduna
arridune: harriduna
berbaldune: berbalduna
erdaldune, erdeldune: erdalduna
eskopetadune: eskopetaduna
euskeldune, auskeldune: euskalduna
loradune: loreduna
muelledune: malguduna
pintxodune: arantxaduna
sekordune: zekorduna
sonbrerudune: kapeladuna
yakittune: jakituna
yatune: jatuna

ERIA

arotzeri: arotzeria
barberi: bizartegia
drogeri: drogeria
karneseri, karniseri: harategia
marmoleri: marmoleria
muebleri: altzari denda eta altzariak egiteko lekua
panaderi: okindegia
pasteleri: pasteleria
pelukeri: ile apaindegia
peskaderi: arrandegia
sapateri: zapata denda
txoriseri: txorizeria

Atzizki honen bidez multzoa ere adierazten da:

katxarrerri: tresneria
makiñeri: makinaria
saskilleri: saskeleria
saborreri: zaborreria

ERA

Atzizki honen erabileretako bat neurria adierazteko da:

lodiere: lodiera
sabalere: zabalera

Egilea adierazteko erabiltzen da, baina andrezkoa denean:

bendejere: bendejera
jornalere: alogerekoa
karnisere: harakina
kosiñere: sukaldaria
labandere: ikuzlea
letxere: esneketaria
pantalonere: praka egilea
partere: emagina
pelukere: ile apaintzailea
sardiñere: sardinera, arrain saltzailea

Azkenik lekua edo tresna adierazteko ere erabiltzen da:

bañere: bainuontzia

BERANGOKO HIZTEGIA

gotere: itogina, itesurea
kabesere: kabezera
kafetere: kafegailua
kantere: harrobia
kartere: kartera
konejere: untxi-lekua
mariñere: marinera
partikere, fartikere: patrika
serbesere: garagardotegia
simintere: mintegia
tartere: tartera

ERU/ERO

Atziki hau egile funtzioa adierazteko erabiltzen da:

barberu: bizargina
botijeru: potixa saltzailea
butaneru: butano saltzailea
enfermeru: erizaina (m.)
kafeteru: kafezalea
jardiñeru: lorazaina
jornalero: alogerekoa
kamiñeru: kamineroa, bide konpontzailea
karteru: postaria
kaseru: ehiztaria
kosiñeru: sukaldaria (m.)
letxeru: esneketaria
mariñeru: marinela
mineru: meatzaria
obreru: behargina, langilea
pandereteru: pandero jolea
sapateru: zapataria
sesteru: otzaragilea
solteru: ezkonbakoa (m.)
taberneru: tabernaria
torneru: torneroa
traperu: arropa zaharren biltzailea
triperu: jatuna

Egilea ez eze, lekua edo tresna ere adieraz dezake, adibidez:

kandeleru: kandelerua
labadero: garbitokia, ikuztokia
matadero: hiltegia
morteru: mortairua
probadero: proba lekua
sonbreru: kapela
txiskeru: txiskeroa
txurreru: txurro saltzailea

ETA

amesete: ameseta, ametsa
berbitte, berbitxe, berbete: berbeta
gastete: gaztaroa
olgete: olgeta

GARRI

antojagarri: antojagarria, higuingarria
lotzagarri: lotsagarri
penagarri: penagarria

Zer edo zeren materiala adierazteko ere erabiltzen da:

aspigarri: azpigarria
labagarri: labegarria
ondugarri: ondugarria
saltzagarri: saltsagarria, buzkantzak egiteko prestatzen den orea
sugarri: sugarria

GEI/GAI

andragaye, andrageye: andregai
gixongaye: gizonaia, senargaia
salgei: salgai

GIN

argiñe: hargina
beargiñe: behargina
sorgiñe: sorgina

IK

alperrik: alperrik
bakarrik: bakarrik
baltzik: beltzik
baraurik, barorik, barurik: baraurik
beterik: betarik
billusik: biluzik
bixirik: bizirik
esiñik: ezinik
gasterik: gazterik
geixorik: gaixorik

BERANGOKO HIZTEGIA

gordiñik: gordinik
ixilik: isilik
kasik: kasik
oñutzik: oinutsik
osorik: osorik
pentzaurik: pentsaurik
posik: pozik
sabalik: zabalik
utzik: hutsik

KA

ainke: haginka
alboka: alboka
arrike: harrika
astulke: eztulka
barreka: barreka
botaka: botaka
bueltaka: bueltaka
egaska: hegazka
erostaka: erostaka
golpeka: kolpeka
kantaka: kantaka
karkasadaka: zantzoka, algaraka
karraka: karraka, korrika
murruseka: murrusaka
ostikeka: ostikoka
pikeka: pikaka
poperreka: poperreka
saltuke: saltoka
sarataka: zarataka
satike: zatika
takadaka: taupadaka
tratadaka: gaztainak lehertzen
txiperka: txerpaka
txirinbueltaka: txirinbueltaka
txistuke: txistuka

KERIA

arrokeri: harrokeria
astokeri: astakeria
iñusentekeri: inuzentekeria, lelokeria
pestekeri: ugerkeria
sorakeri: zorakeria
trastakeri: trastakeria, okerreria

KERA

asikere: hasiera
bisikere: biziera
esakere: esaera
illundukere: ilunkera
lokere: lokera

KI

sayeski: saiheskia
txarriki: txerrikia

KUNE

adikune: adikunea, begirakunea
berbakune: berbakunea

KUNTZA

asarrakuntze: haserrakuntza
larrikuntze: larrikuntza

LARI

bertzolari, bersolari: bertsolaria
errementari: errementaria
errotari: errotaria
kantari: kantaria
probalari: probalaria
santzolari: zantzolaria
soñulari: soinularia
tronpalari: mozkortia
txistulari: txistularia
yantzari: dantzaria

MENDU

alimentu: elikagaia
entretaniminttu: entretanimendua
errasoñaminttu: arrazonamendua
erresibimintxu: harrera
juramentu: biraoa
kargamentu: kargamendua
mogiminttu, mobiminttu: mugimendua
pentzaminttu: pentsamendua
saneaminttu: saneamendua

BERANGOKO HIZTEGIA

segiminttu: segimendua
sufrimintxu: sufrimendua
trataminttu: tratamendua

NGO

bardingo: berdingoa
gorringo: gorringoa
suringo: zuringoa

NTZA

konfiantze: konfiantza
labrantze: nekazaritza

NTZIA

diferentzi: desberdintasuna
erresidentzi: erresidentzia
esijentzi: exijentzia
inorantzi: jakineza
inportantzi: garrantzia
komenentzi: aukera
lisentzi: lizentzia
pasentzi: pazientzia, eroapena
sustentzi: sustantzia, ganora

ORE

abiadore: abiadore
afiladore: zorrotzailea
aministradore: administradorea
diretore: zuzendaria
enkortxadore: enkortxadorea
erradore: perratzailea
erreparditore: banatzailea
kantinplore: tankina, kantina
kapadore: kapatzailea
koladore: iraztontzi
korredore: korredorea
labadore: ikuzkailua
moldeadore: moldeatzailea
pastore: artzaina
probadore: probalaria
tasadore: tasadorea

OI

balkoya: balkoia
bastoya: makulua
botoya: botoia
kartoya: kartoia
koltxoya: koltxoia
kordoya: kordioa
ormigoya: hormigoia
pulmoya: biria, birikia
sinturoya: garriko uhala
yagoya: xaboia

OR

siñestorra: sineskorra

OSO

benenoso: pozoitsua
gustoso: gustosoa
kurioso: 1. nontzebarria. 2. ondo jagonda, ganoraz
peligroso: arriskutsua
penoso: penosoa
txeposo: konkorduna

PE

besape: besapea
errape: errapea
gerispe, gerespe: gerizpea
okospe: okozpea, okotz-azpia
surpe: surpea, sudurpea, sudur-azpia

RENGO

akaburengo: amaierakoa, azkena
atzerengo: atzerengoa
goirengo: goirengoa

RO

astiro: astiro
barriro: berriro
geldiro: geldiro
lusero: luzaro

BERANGOKO HIZTEGIA

ondo: ondo
politto: polito
txarto: txarto

TAR

barrikostarra: barrikarra
baserritarra: baserritarra
berangostarra: berangoztarra
bilbotarra: bilbotarra
butroyarra: butroiarra
erandiostrarra: erandioztarra
gatikostarra: gatikarra
gernikestrarra: gernikarra
getxotarra: getxotarra
kanpotarra: kanpotarra
layostarra: leioarra
laukistarra: laukiztarra
sopelostarra: sopeloztarra
udulistarra: urduliztarra

TASUN

berotasune: berotasuna
illuntasune: iluntasuna
larrittasune: larrittasuna
osasune: osasuna

TE

negute: negutea
sikete: sikatea

TEGI

artegi: artegia, artaldea
lastotegi, lastegi: lastategia
untegi: ehuntegia

TI

bildurti: bildurtia
eskerti: ezkertia
moskorti: mozkortia
negarti: negartia

TO/DO

ederto: ederto
obeto, ogeto: hobeto

TOKI

ollotoki: oilotokia
txarritoki: txerritokia
umetoki: umetokia

TZA

1.

albañiltze: igeltserotza
kontzejalatze: zinegotzigoa
pastoretze: artzaintza

2.

eskontze: ezkontza
edurtze: elurtza
esnatze: esnatza

TZU

asaltzu: azaltsua
asurtzu: hezurtsua
baketzu: baketsua
errapetzu: errapetsua
indertzu: indartsua
okelatzu: okelatsua
urtzu: urtsua

UNE

aterrune: aterrunea
baltzune: beltzunea
gorriune: gorriunea
searrune: zeharrunea, leuna den lur saila,
aldats bakoa

ZINO/INO

afesiño: zaletasuna
atentziño: adimena
deklarasiño: deklarazioa
depresiño: depresioa
dibertziño: dibertsioa

BERANGOKO HIZTEGIA

diputasiño: aldundia
diskusiño: eztabaida
errasiño: errazioa, zatia
erreparsiño: banaketa
esplikasiño: azalpena
fermentasiño: fermentazioa
formasiño: osaketa
fregasiño: plegazioa
ilusiño: ilusioa
jenerasiño: belaunaldia
jubilasiño: jubilazioa
konbertzasiño: elkarrizketa
kondesiño: baldintza
maldesiño: madarikazioa
pentziño: pentsioa
preparasiño: prestakuntza
produksiño: ekoizpena
separasiño: banaketa

ZKO

alanbresko: alanbrezkoa
arrisko: harrizkoa
basasko: basazkoa
burnisko: burdinazkoa
egurreko: egurrezkoa
fatxadasko: fatxadazkoa
firusko: firuzkoa, harizkoa
gastañasko: gaztainazkoa
gomasko: gomazkoa
kañaberasko: kanaberazkoa
kapasasko: kapaxazkoa
kartoisko: kartoizkoa
kristelesko: kristalezkoa
lanasko: artilezkoa
lorasko: lorezkoa
lurreko: lurrezkoa
mimenesko: mimenazkoa
narrusko: narruzkoa
ojalatasko: latorrizkoa
olasko: oholezkoa
portzelanasko: portzelanazkoa
siñesko: zinezkoa
urresko: urrezkoa

ZTO/DO

alperdo: alperdoa
bixerdo: bizardoa
ugerdo: ugerdoa

sorrisko: zorriztoa

33. JUNTAGAILUAK

Atal honetan jaso ditugun juntagailuen zerrendagaz batera, euron erabileraren adibidetzat agertzen izan zaizkigun esaldi eredu batzuk ere emango ditugu.

alandase

"Edo makallo tire txarrak edo kosiñera tire txarrak, alandase no taki ori ser dan?" - (Edo makailoak dira txarrak edo sukaldariak dira txarrak, halandaze nork daki hori zer den?)

"Orre pere dekos lagunak, euskeldune tire, eta justo justo dakie aputxu bet, alandase orre pere estau itten orrekas auskerarik, nies beti itten dau, e? eta gixona pere bai" - (Horrek ere dauzka lagunak, euskaldunak dira, eta justu-justu dakite apurtxo bat, halandaze horrek ere ez du egiten horiekin euskararik, nirekin beti egiten du, e? eta gizonak ere bai)

asiske

"Asiske ori detano gero ber dosu, detano, orrek karakolak illten dittusena, ese karakola pere desaparecido intten dittus" - (Halandaze detano hori gero behar duzu, detanoa, horrek barraskiloak hiltzen dituena, eze barraskiloak ere desagertu egiten ditu)

"Asiske txarrak ote siren mantenidute, es oingo modun" - (Halandaze txerriak egoten ziren mantenduta, ez oraingo moduan)

bata... beste...:

"Bate tekos saspri urte ta bestek sortzi" - (Batek dauzka zazpi urte eta besteak zortzi)

"Biek etzen lotu, bata aurokas ta beste albora" - (Biak etxean lotu, bata eurokin eta bestea albora)

"Sarrak il sirenen, alaba biek lotu siren, bata batera ta beste bestera" - (Zaharrak hil zirenean, alaba biak lotu ziren, bata batera eta bestea bestera)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Tronkok ebaitteko aor esetu neun, il san atxiñe, il san a, aonek tronkok ebaitten, bata goyen ta beste bean" - (Enborrak ebakitzeko haor ezagutu nuen, hil zen antzina, hil zen hura, enbor hauek ebakitzen, bata goian eta bestea behean)

"Sorrotzarri, tipo bi egote siren, bueno bi edo iru baya, en jeneral, kodañeas ondo dabillenak bi eroten ditu, bata, esaten dana garratza, eta beste da, suabe" - (Zorrotzarri, mota bi egoten ziren, beno bi edo hiru baina, gehienetan, kodainarekin ondo dabilenak bi eroaten ditu, bata, esaten dena garratza, eta bestea da, suabea)

baya:

"Bai olan ekitten da askotan baya enas akordaten ya" - (Bai hola ekiten da askotan baina ez naiz gomutatzen ja)

"Ango gizona, ondikarren bixi da, iñusentetute dau baya bixi da" - (Hango gizona, oraindikarren bizi da, inuzentetuta dago baina bizi da)

"Urtzuk goso tires gordiñik yateko baya pasa intten dires ariñ" - (Urtsuak gozoak dira gordinik jateko baina pasatu egiten dira arin)

"Arten igual eingo euren baya nik estot esetu ori" - (Artean beharbada egingo zuten baina nik ez dut ezagutu hori)

"Txikerra ixen san ayes amama, aittitte es, aittitte sera, andi ixen san, nik estot esetu baya, esaneko" - (Txikerra izan zen antza amama, aitaita ez, aitaita zera, handia izan zen, nik ez dut ezagutu baina, esanekoa)

alan ta gusti:

"Orreas pentzaten dot gitxitxuau sufritten dauela, alan da gusti ba, odola botaten dau, e?" - (Horrekin pentsatzen dut gutxitxoago sufritzen duela, hala eta guztiz ba, odola botatzen du, e?)

"Alan ta dusti, bera yon baño lelau altzate nas" - (Hala eta guzti, behera joan baino lehenago altxatzen naiz)

bere:

"Bai baya es isterra bere osorik, diñot nik, a, bost kilo ingiruko edo olan" - (Bai baina ez izterra ere osorik, dinot nik, bost kilo ingurukoa edo hola)

"An aldeatzen, ondikarren aurten bere pentzaten dot in dala txakoliñe" - (Han baserrian oraindikarren aurten ere pentsatzen dut egin dela txakolina)

"Abe bai, io itten gendun ori bere guk" - (Oloa bai, eho egiten genuen hori ere guk)

"Bai tte oin bere onek botaten doas nik otzarakas, nik estot ori kostumbre kendu, e?" - (Bai eta orain ere hauek botatzen ditut nik otzarekin, nik ez dut ekandu hori kendu, e?)

"An yayoko nas ni, aitte bere an yayoko da" - (Han jaiokoa naiz ni, aita ere han jaiokoa da)

"bere" esklamazioetan indargile modura erabiltzen da:

"Gisedu piper askoas t'ori, goso bere goso!" - (Gisatua piper askorekin, eta hori gozoa ere gozoa!)

bere bai:

"Bai auki dus, auki dus, bei bi, ta txala pere bai, oin danak itxi dus" - (Bai eduki ditugu, eduki ditugu, behi bi, eta txahalak ere bai, orain denak utzi ditugu)

"Aitte difuntu ixen san sesteru, eitteusen, a, sillak eta sesto pere bai, eta orretarango gausek" - (Aita zena izan zen otzaragilea, egiten zituen, aulkiak eta otzarak ere bai, eta horietariko gauzak)

"Aor dau kenpule, baso porru bere bai" - (Haor dago kipula, baso porrua ere bai)

"Ardi pere bai eukitten de arrana" - (Ardiek ere edukitzen dute arrana)

bere bai... bere bai...

"Olan esate san auskera bere bai tte erdera bere bai" - (Hala esaten zen euskara ere bai eta erdara ere bai)

"Il bere bai, atara bere bai, atxurreas batzuk" - (Hil ere bai, atera ere bai, aitzurrarekin batzuek)

BERANGOKO HIZTEGIA

bere es:

"Ardi dustik sei illebeten agertu beres etzera ta bapere, bapere esan falta" - (Ardi guztiak sei hilabetean agertu ere ez etxera eta bat ere, bat ere ez zen falta)

"Ideari pere estekot orrenik!" - (Ideiarik ere ez daukat horrenik!)

"Domusantu egunen iñ, a, seme, ariñ in ber ei da, ta mesara bere estos oiñ, isilik saus" - (Domu santu egunean egin, semea, arin egin behar ei da, eta mezatarara ere ez doaz orain, isilik zaude)

...bere es ...bere es

"Yantzi tte pentza beres eta, ullerik ebai tte beres, ori buruko pañuelu" - (Jantzia eta pentsatu ere ez eta, ilerik ebaki eta ere ez, hori buruko zapia)

edo:

"Bai amak, a, erre edo egosi, intteusen lapiko aten gero" - (Bai amak, erre edo egosi, egiten zituen lapiko baten gero)

"Emen idik eukitteusen, emen Berangon sortzik edo amarrek edo" - (Hemen idiak edukitzen zituen, hemen Berangon zortzik edo hamarrek edo)

"Garriko edo gorbetaren bat nonok itxi deuna edo" - (Gerrikoa edo gorbataren bat nor edo nork utzi duena edo)

"Gorpu etzekok, etzekok, familik edo bestealdekok, eroteuen" - (Gorpua etxeok, etxeok, familiak edo bestealdekok, eroaten zuten)

edo... edo...

"Emen fabrike batzuk para siren, asi san jente etortzen kanpoti eta etorte san bat eta gero bearra eukitteun, a, fabriken eta ain lagune edo lengusu edo beran anaje edo beste edo beste edo" - (Hemen fabrika batzuk paratu ziren, hasi zen jendea etortzen kanpotik eta etortzen zen bat eta gero beharra edukitzen zuen, fabrika eta haren laguna edo lehengusua edo beraren anaia edo bestea edo bestea edo)

"An urteteun edo txarra dan edo ona dan, arik eta biotzan formek urten arten" - (Han irteten zuen edo txarra den edo ona den, harik eta bihotzaren formak irten artean)

"Ba seoser deko barrun, edo larregi yan dau edo estabill ondo estomaguti" - (Ba zer edo zer dauka barruan, edo larregi jan du edo ez dabil ondo estomagotik)

ela/ala:

"Gauk estu artxen ela? nik artxen dot" - (Guk ez dugu hartzen ala? nik hartzen dut)

"Txarri iltten dunen txorisok saltxen dus, eta, aurten lau dosena artu ittu, lau ela bost edo" - (Txerria hiltzen dugunean txorizoak saltzen ditugu, eta, aurten lau dozena hartu ditu, lau ala bost edo)

"Batxi sopak estait eiten diren orreas ala arto otzaas diren" - (Batxi zopak ez dakit egiten diren horrekin ala arto hotzarekin diren)

es... es...:

"Guk ein gendun an, a, baso bat erreturek, an eguno estu kosi eser bere guk, eguno beres, es patatarik, es naborik, ese beres" - (Guk egin genuen han, baso bat erraturak, han egundo ez dugu hartu ezer ere guk, egundo ere ez, ez patatarik, ez arbirik, ezer ere ez)

"Onek esetu bes koittedek, es astorik, es saldirik eta es beirik" - (Honek ezagutu ere ez koitaduak, ez astorik, ez zaldirik eta ez behirik)

"Larri da emen dekosunen seoser, nik naure diñot beste batzuk estaitt, eta es bota es esebere" - (Larria da hemen daukazunean zer edo zer, nik neurea dinot beste batzuek ez dakit, eta ez bota ez ezer ere)

barres

"Es, emen, nik esatu dotena da, batzuk, batzuk, gasoil botateutzen, eta satorrak yoteunen, palu sartu, alau, e, palu bet sartu an, an estau yoten, albon, bakixu satorra ser dan, satz asko badau barres, bueno!" - (Ez, hemen, nik ezagutu dudana da, batzuek, batzuek, gasoila botatzen zioten, eta satorrak jotzen zuenean, makila sartu, halako, makila bat sartu han, han ez

BERANGOKO HIZTEGIA

du jotzen, alboan, badakizu satorra zer den, sats asko badago berriz, beno!

osten

"Badabil baya gitxi, osten, a, edurtzetan kiñe emen, eskandalu oten ixen da emen" - (Badabil baina gutxi, ostean, elurtzetan hegabera hemen, asko egoten izan da hemen)

"Olau baten batek aukitte aun olau ganadu sueltue baya osten frisione geyena" - (Holako baten batek edukitzen zuen holako ganadu askea baina ostean frisoia gehiena)

"Ba osten gastaña pai egosi eta erre ta ori bai, eitten dusen" - (Ba ostean gaztainak bai egosi eta erre eta hori bai, egiten genituen)

"Bisdek apur bet fallaten dost baya osten osasun itzela dekot" - (Ikusmenak apur bat huts egiten dit baina ostean osasun itzela daukat)

eta:

1. kopulatiboa

"Yon siren eta topauden gixontxu bet alan, a, bastoitxu beteas" - (Joan ziren eta topatu zuten gizontxo bat hala, makulutxo batekin)

"Bai emen nik ollagorrek asko il doas, ta txakurre kasa txakurre auki dot" - (Bai hemen nik, oilagorrek asko hil ditut, eta txakurra ehiza txakurra eduki dut)

"Amak eitten dau Bilbon bear eta iruretararten estau urteten" - (Amak egiten du Bilbon behar eta hiruretara artean ez du irteten)

2. kausala

"Belu nator trena galdu dot eta" - (Belu nator trena galdu dut eta)

"Onek, a, goiko andrek, neuk esetu ot eta" - (Honek, goiko andreak, neuk ezagutu dut eta)

"Saldu bai itte san bai nau pere batu dot eta" - (Saldu bai egiten zen bai neuk ere batu dut eta)

"Amasortzi urtekok, esayutzen, aitte nau bere bano, ba su setan? es, su gaste sara ta" - (Hamazortzi urtekoak, esan zion, aita neu ere banoa, ba zu zertan? ez, zu gaztea zara eta)

"Ixi ate, kanpoko ate, otza dator ta" - (Itxi atea, kanpoko atea, hotza dator eta)

"Lagun andik dire aurok, lagun andik, gixonak bere lagun andik ixen siren eta" - (Lagun handiak dira eurok, lagun handiak, gizonak bere lagun handiak izan ziren eta)

nei, nai:

"Nik lo ondo eitte nauen, sarateas nei sarata bari pere bai" - (Nik lo ondo egiten nuen, zaratarekin nahi zarata barik ere bai)

"Arrana arrana da, andiau nei txikerrau" - (Arrana arrana da, handiagoa nahi txikerragoa)

"Arto garau, au nei au nei au lurre daune, lurrek estaki se garau botaten dan ara, ona bada ona ta txarra bada txarra" - (Arto garaua, hau nahi hau nahi hau lurra dagoena, lurrak ez daki ze garau botatzen den hara, ona bada ona eta txarra bada txarra)

"Ori angerutxu be ta, baya es, bautisa nai bautisa barik, e?" - (Hori aingerutxoa ere eta, baina ez, bataiatu nahi bataiatu barik, e?)

sein:

"Ya oki lis saspri sein amar sein amabost, ya agiñek gasta arten" - (Ja eduki litzake zazpi zein hamar zein hamabost, ja haginak higatu arte)

"Gorpu imintte san portalen, portalen, bardin da batena sein bestena, erdiñ erdiñ" - (Gorpua ipintzen zen atarian, atarian, berdin da batena zein bestearena, erdian-erdian)

ostantzen:

"Iru illebeterako edo olan aguantaten dotzu, auri asko itten badau edo olan, birriten in ber tzesu, esta? baya ostantzen bateas" - (Hiru hilabeterako edo hola irauten dizu, euri asko egiten badu edo hola, birritan)

BERANGOKO HIZTEGIA

egin behar diozu, ezta? baina osterantzean batekin)

"Es ostantzen es, yaten emon, ta batzuten esiren agertuten baya etorte siren gero igual txitakas agertute siren, txita partide bateas" - (Ez osterantzean ez, jaten eman, eta batzuetan ez ziren agertzen baina etortzen ziren gero beharbada txitekin agertzen ziren, txita partida batekin)

"Au erruede bere amen aurren okitteun etzen es, baya ostantzen ikus dot leku askotan" - (Txirrinka hau ere hamen aurrean edukitzen zuen etxean ez, baina osterantzean ikusi dut leku askotan)

"Emen estau, ortxe goyen dau laba bat, ostantzen ya estau labarik, ortxe goyen dau bat" - (Hemen ez dago, hortxe goian dago labe bat, osterantzean ja ez dago laberik, hortxe goian dago bat)

"Leku eskutun badau, igual dau aputxu bet ona adi, ona adi, aputxu bet olan, baya ostantzen eperdi emonta" - (Leku ezkutuan badago, beharbada dago apurtxo bat hona adi, hona adi, apurtxo bat hola, baina osterantzean ipurdia emanda)

espabere:

"Imiñi bere urreo egunen, illundin, a, nabarran, ya iguskik inderrik estekonen, espabere sentidu intten dau" - (Ipini ere hurrengo egunean, ilundean, nabarrean, ja eguzkiak indarrik ez daukanean, ezpabere sentitu egiten du)

"Auri itte aunen, emen talleturik auki esaules, jente yote san Sopolara, baya auri iñ esik, emen Berangon, baya espabere Areatan, espabere Portalten" - (Eurria egiten zuenean, hemen teilaturik eduki ez zuenez, jendea joaten zen Sopolara, baina eurria egin ezik, hemen Berangon, baina ezpabere Areetan, ezpabere Portalten)

"Busti itten da gero otzare itteko, se bigundu in ber da espabere salta itten deu" - (Busti egiten da gero otzara egiteko, ze bigundu egin behar da ezpabere saltatu egiten du)

"Okertu daitten busti in ber da, espabere tak! salta itten deu, siku badau" - (Oker

dadin busti egin behar da, ezpabere tak! saltatu egiten du, siku badago)

"Gure dosu ori gaste espabere bapes" - (Gura duzu gazte hori ezpabere bat ere ez)

"Es astu au imintten, e? espabere galdu sara!" - (Ez ahaztu hau ipintzen, e? ezpabere galdu zara!)

se:

1. Kausala:

"Iru klase daus tolosanak, guk andi ereitten dun palure, bai se andik palure ieten dau" - (Hiru mota daude tolosarrak, guk handia ereiten genuen makilara, bai ze handik makilara igaten du)

"Arrastitten ixitten daude se estau iñor" - (Arrastegietan ixten dute ze ez dago inor)

"Ardau da txarrena, se, arda, ganadu ordun daunen kalenture deko, eta arda, giau emoten tzo oniño" - (Ardaua da txarrena, ze, arda, ganada orduan dagoenean kalentura dauka, eta arda, gehiago ematen dio oraindino)

"Es yon se garo dau" - (Ez joan ze garaua dago)

"Esin yon gara se ya deku autobuse imintte egunatan yoteko ta" - (Ezin joan gara ze ja daukagu autobusa ipinita egunetan joateko eta)

2. Lokailua:

Erabilera honetan hurrengo berbak literalki errepikatuko direla adierazteko da:

"Arrabek esautzen se, Rufiñotxu ekasu, soñutxu" - (Arrebak esan zion ze, Rufiñotxu ekar ezazu, soñutxo)

"Oñ amari geittu tzet eta esan dotzet se, ni enas eongo señen ardureas" - (Orain amari deitu diot eta esan diot ze, ni ez naiz egongo seinaren ardurarekin)

se ... eta

"Aitte do gauen etzera se estau leku gaurik eta" - (Aita doa gauean etxera ze ez dago leku gehiagorik eta)

"Baya oin, ure bereinketu bere, imin daure orio baño karuau, se esteue imintten, a, entradan bere urerik eta" - (Baina orain,

BERANGOKO HIZTEGIA

*ur bedeinkatua ere, ipini dute olio
baino garestiago, ze ez dute ipintzen,
sarreran ere urik eta)*

se espabere/espabe

*"Sati andi barik, se espabere sati andik
esin eron, baya eitteuresan auron satik,
erremesatan" - (Zati handi barik, ze
ezpabere zati handiak ezin eroan, baina
egiten zituzten euron zatiak,
erremesetan)*

*"Eta ostabe itxi se espabe artxen badosu
aste baten segidun igual esin sara ibilli
bere" - (Eta osteran ere utzi ze ezpabere
hartzen baduzu aste baten segituan
beharbada ezin zara ibili ere)*

ese

*"One pere ona da labrate lelau ese, gaur
labrata bier ereintte esta ona, e?" -
(Hauek ere ona da lantzea lehenago
eze, gaur landuta bihar ereinda ez da
ona, e?)*

*"Bakixu onek, a, seaittik? ese gusta
dakolakon beti" - (Badakizu honek,
zergatik? eze gustatu zaiolako beti)*

*"Ollagorra atara dot eta eskapa dau, eta
egon da an, a, gixon bat, esetuten dot
eta esan dost ese nora yon da ba?" -
(Ollagorra atera dut eta ihes egin du,
eta egon da han, gizon bat, ezagutzen
dut eta esan dit eze nora joan da ba?)*

34. MENPERAGAILUAK

Atal honetan erabiltzen diren
menperagailuak batzen ditugu.
Menpeko esaldi guztiak BA, LA eta N
menperagailuetan oinarritzen direnez
gero, menperagailu hauen arabera,
sailkatu eta bakoitzaren erabileraren
esaldi ereduak emango ditugu.

30.1. BA-

baldintza erreala oraina

*"Eskara yongo errire espadeku kotxerik" -
(Ez gara joango herrira ez badaukagu
kotxerik)*

*"Goxeti espadator estu ikusten" - (Goizetik ez
badator ez dugu ikusten)*

*"Asi badire akabako daure" - (Hasi badira
amaituko dute)*

*"Andi basoas, alan, a, larrosa koloreko txalet
bat bakar bakarra dau" - (Handik bazoaz,
hala, arrosa koloreko txalet bat bakar-
bakarra dago)*

baldintza erreala iragana

*"Denporeas kosi itten baeuren ganadu,
salbateuren" - (Denborarekin hartu egiten
bazuten ganadua, salbatzen zuten)*

*"Baltzaran bat yayoten basan pentzateun
berana estala ta ill intteun" - (Beltzen bat
jaiotzen bazen pentsatzen zuen berarena ez
dela eta hil egiten zuen)*

*"Yateko modun egoten basan eintteuen ba,
sesiñe" - (Jateko moduan egoten bazen
egiten zuten ba, zezina)*

baldintza irrealak

*"Ni emen bixiko banistike egongo nistike
posik" - (Ni hemen biziko banintz egongo
nintzateke pozik)*

*"Umek belu etorko balistikes guresok ingo
listikes asarratu" - (Umeak belu etorriko
balira gurasoak egingo lirake haserretu)*

*"Baneuke diru bixiko nistike ondo" -
(Baneuka dirua biziko nintzateke ondo)*

zehir galdera

*"Ia ser daun ondo badau ganadu, edo txarto
badau edo faltarik badeko" - (Ea zer
dagoen ondo dagoen ganadua, edo txarto
dagoen edo akatsik daukan)*

*"Artaburu bille, ia artabururik bota badau
axek" - (Artaburu bila, ea artabururik bota
duen haizeak)*

*"Bai nosikuandon urten daiñ, e, ia badau
esbadau" - (Bai noizean behin irten dezan,
ea dagoen ez dagoen)*

*"Estaitt or espadau imintte, es kendu deure" -
(Ez dakit hor ez dagoen ipinita, ez kendu
dute)*

BERANGOKO HIZTEGIA

ba...bere:

- "Andreas basoas bere arantza soas" -
(Andrearekin bazoaz ere harantz zoaz)
"Ixitte egoten basan bere soñu yoten an,
etзера etorte san beste, a, il sana bere
gixajo" - (Itxita egoten bazen ere soinu
jotzen han, etxera etortzen zen bestea,
hil zena ere gizajoa)
"Proibidute badau bere in doas" -
(Galazota badago ere egin ditut)

ba...les

- "Orrek itten dau berba balekilles" -
(Horrek egiten du berba baleki lez)
"Eta lotxen da brase, iketza balittike les" -
(Eta lotzen da txingarra, ikatza balitz
legez)
"Ya eskondute baleko les, antzen" - (Ja
ezkonduta balego lez, antzean)

ba...modun

- "Saku sarra dustik eta arik danak gorde,
an gorde, sera balitxike modun" - (Zaku
zaharrak guztiak eta haiek denak gorde,
han gorde, zera balitz moduan)

30.2. -LA

konpletiboa

- "Orrek esan dau estala etorriko" - (Horrek
esan du ez dela etorriko)
"Yonek esan dau ori dala beran arrabe" -
(Jonek esan du hori dela beraren
arreba)
"Pentzaten badosu inportantziko dala, bai
jaune" - (Pentsatzen baduzu
garrantziko dala, bai jauna)
"Len gose kentxe yeun, ese estostesu
esango, indabak oingo les inte sirela" -
(Lehen gosea kentzen zuen, eze ez
didazu esango, indabak oraingo legez
egiten zirela)

ese... -la

- "Andabidek, baya esate yeuren ese, gorpu
eta pasa eskeronen eleittela sarratu" -

(Andabideak, baina esaten zuten eze,
gorpu eta pasatuz gero ez litekeela itxi)

- "Baya diño amak ese, yon sirela ba ondiño
eskontzeko, solteru dausela" - (Baina dino
amak eze, joan zirela ba oraindino
ezkontzeko, ezkongaietan daudela!)

subjuntiboagaz batera

- "Aittek gure deu emen lotu gaittesela" -
(Aitak gura du hemen geratu gaitzezela)
"Nik gure dot ixildu saittesela" - (Nik gura
dut isildu zaitezela)
"Ona ixen daittela!" - (Ona izan dadila!)

gerundiala

- "Gure estala itten dako ori" - (Gura ez dela
egiten zaio hori)
"Ni gaste nasela piñudi gitxi bota da" - (Ni
gaztea naizela pinudi gutxi bota da)
"Errope eskeitten naula orrek atek toum!
ieun, ene!" - (Arropa eskegitzen nagoela
ate horrek toum! egin zuen, ene!)
"Larri da parate sau, nerbioso edo sauk gure
estosule" - (Larria da paratzea zeu, urduri
edo zeuk gura ez duzula)

-lako

- "Taberne Gatiken dalako dekot" - (Taberna
Gatikan dalakoa daukat)
"Apatx bittarteko itteun, asufre salako dekot,
erre itte otzen, eta gero mendau" - (Apatx-
artekoa egiten zuen, sufrea zelakoa daukat,
erre egiten zien, eta gero bendatu)
"Saye ixen salako dekot" - (Zahia izan
zelakoa daukat)
"Ikus dotelako dot emen au, baten bat, gitxi
baya, ikus dotelako dekot" - (Ikusi
dudalakoa dut hemen hau, baten bat, gutxi
baina, ikusi dudalakoa daukat)

-lakon

- "Esaittut esetuten, esan deustelakon" - (Ez
zaitut ezagutzen, esan didatelako)
"Kisteren bat eukitten dalakon matrisen" -
(Kisteren bat edukitzen delako matrizean)
"Larri da emen dekosunen seoser, nik naure
diñot beste batzuk estaitt, eta es bota es
esebere, sause larri larri sauselakon baya"

BERANGOKO HIZTEGIA

- (*Larria da hemen daukazunean zer edo zer, nik neurea dinot beste batzuek ez dakit, eta ez bota ez ezer ere, zaudete larri larri zaudetelako baina*)

"Bakixu onek, a, seaittik? ese gusta dakolakon beti" - (*Badakizu honek, zergatik? eze gustatu zaiolako beti*)

"Gure umek auskera badakie etzen in dakelakon" - (*Gure umeek euskara badakite etxean egin zaielako*)

"Es, estakitt, eta nau iñusente naselakoan" - (*Ez, ez dakit, eta neu inuzentea naizelako*)

-la ta

"A il sala ta, gure ama yon san beskari intten eta yon gintzesen ara yaten bai" - (*Hura hil zela eta, gure ama joan zen bazkaria egiten eta joan ginen hara jaten bai*)

"Mimosatxu iste sala ta negarres ta beti" - (*Mimotitxoa izaten zela eta negarrez eta beti*)

"Entzun te, naure aurren esaten ori begiskiñe in dotzola ta" - (*Entzun eta, neure aurrean esaten hori begizkoa egin diola eta*)

"Ensegida etorko da negarres, ainke in dotzola ta, agiñe tekos orrek fiñek eta, sorrotzak" - (*Behingoan etorriko da negarrez, haginka egin diola eta, haginak dauzka horrek finak eta, zorrotzak*)

30.3. -N

erlatibozkoa

"Urte ties edurrik estauna" - (*Urteak dira elurrik ez dagoena*)

"Makere da, umak eintte daune" - (*Makera da, umeak eginda dagoena*)

"Batzuten etze dustitten, se emen eon siren, iru ermandada on siren emen, iru, ni akordate nasenak iru" - (*Batzuetan etxe guztietan, ze hemen egon ziren, hiru ermandade egon ziren hemen, hiru, ni gomutatzen naizenak hiru*)

"Sure amak imintteun makallo eta oiñ imintte deittuesenak, gusturi pere

estauke oingok" - (*Zure amak ipintzen zuen makailoa eta orain ipintzen dituztenak, gusturik ere ez daukate oraingoek*)

"Nardai, da, probatan ibiltten dan partike" - (*Nardaia da, probetan ibiltzen den partika*)

subjuntiboagaz batera

"Nik gure dot su etorri saittesen ona" - (*Nik gura dut zu etorri zaitezen hona*)

"Gure dot seña yon daitten eskolara" - (*Gura dut seina joan dadin eskolara*)

"Kosi seña yausi esteitten" - (*Hartu seina jausi ez dadin*)

"ze" subjuntiboagaz batera:

"Kosi seña yausi sedeitten" - (*Hartu seina jausi ze dadin*)

"Arbole botateko itten da, lelau, onetariko, eta emen yo, eta gero, kordel sati bet, ta kordel bateas emeti tiretu onantza, arantza yausi seditten, tiretu aputxu bet" - (*Arbola botatzeko egiten da, lehenago, hauetarikoa, eta hemen jo, eta gero, kordel zati bat, eta kordel batekin hemendik tiratu honantz, harantz jausi ze dadin, tiratu apurtxo bat*)

zehar galdera

"Nik badakitt selan ibiltte siren" - (*Nik badakit zelan ibiltzen ziren*)

"Bakitt, bakitt ser diñosun" - (*Badakit, badakit zer dinozun*)

"Len ganadu emen mendiñ ibiltte san, eta yakiteteo nondi dabillen" - (*Lehen ganadua hemen mendian ibiltzen zen, eta jakiteteo nondik dabilen*)

"Aittu selau abi daun goyen" - (*Aditu zelako habia dagoen goian*)

Esklamazioetan

"Selau pena emoten deusten!" - (*Zelako pena ematen didan!*)

"Seme pider aparta ber ixen dusen!" - (*Zenbat bider banatu behar izan ditugun!*)

"Selau surruspedak eintten dosusen!" - (*Zelako zurrunak egiten dituzun!*)

BERANGOKO HIZTEGIA

"Nire lagunak esaten dau, ai selau larrikuntze sartu dasten" - (Nire lagunak esaten du, ai zelako larrikuntza sartu zaidan)

-na

"Badakit dana astelena" - (Badakit dena astelehena)

"Badakitt etorri dana" - (Badakit etorri dena)

"Gusurre da etor diena" - (Gezurra da etorri direna)

"Estakixu estotena etzen esetu" - (Ez dakizu ez dudana etxean ezagutu)

Esklamazioetan:

"Grasik ola on sana!" - (Eskerrak ohola egon zena!)

"Klaro yongo sirena!" - (Jakina joango zirena!)

"Loye klaro dana loye! se a materi moduko da" - (Lohia jakina dena lohia! ze hura materia modukoa da)

-n arten

"Orrek yaten deuren arten akabakot" - (Horiek jaten duten artean amaituko dut)

"Eta esa neutzen ba aitte ni bixi nasen arten or ongo da" - (Eta esan nion ba aita ni bizi naizen artean hor egongo da)

"Etzeti kanpora bota berren, ba emon, gosamena, bixi saren arten" - (Etzetik kanpora bota beharrean, ba eman, gozamena, bizi zaren artean)

"Sube daun arten a yaten dot" - (Sua dagoen artean jaten dut)

-n bakotxen

"Gu yoten gintzen bakotxen, ori, egunen egunen lelengo errasiño ori lapak" - (Gu joaten ginen bakoitzean, hori, egunean-egunean lehenengo errazioa hori lapak)

-nen

"Urteten dosunen ixu ate" - (Irteten duzunean itxi atea)

"Etor nasenen ikusi saittut" - (Etorri naizenean ikusi zaitut)

"Natorrenen egongo nas seues" - (Natorrenean egongo naiz zeurekin)

"Bakixu arik tertulik guk labasu intten gendunen" - (Badakizu berbetaldi haiek guk labasua egiten genuenean)

"Arbigare geittuten tzu lorara datorrenen" - (Arbigara deitzen diogu lorera datorrenean)

-neti

"Etzen es, etzen len bai, len, a, atxiñe aittek esate auneti bai" - (Etxean ez, etxean lehen bai, lehen, antzina aitak esaten zuenez bai)

-nik ona

"Etor nasenik ona esaittut ikusi" - (Etorri naizenik hona ez zaitut ikusi)

"Gure etze isen da eskandalu bet, t'ama il danik ona, estator iñor" - (Gure etxea izan da eskandalu bat, eta ama hil denik hona, ez dator inor)

-n modun

"Amairu urten governa dot, governa ber dan modun, yon, egunen egunen egunen ta lo, igual gauetan lotu" - (Hamahiru urtean gobernatu dut, gobernatu behar den moduan, joan, egunean egunean-egunean eta lo, beharbada gauetan lotu)

"Auren amamak eta amak ekus dauden modun emoten tze" - (Euren amamak eta amak ikusi duten moduan ematen diete)

"Baya es auresku oiñ itten dauren modun, len auresku itte san agarrata olau sinta bateas" - (Baina ez aureskua orain egiten duten moduan, lehen aureskua egiten zen oratuta holako zinta batekin)

"Au, a, iste san, kasu beterako aor, oin daun modun, e?" - (Hau, izaten zen, kasu baterako haor, orain dagoen moduan, e?)

"Nik dakitten modun diñotzet" - (Nik dakidan moduan dinotsat)

BERANGOKO HIZTEGIA

-n lau

"Noperak gure dau lau itten dire" -
(Norberak gura duen lakoa egiten dira)
"Alau bat, aor dause lau bat" - (Halako
bat, haor dauden lako bat)

-n les/leas

"Egunetan sera itten sales, ganeko bada,
asalan ganeko bada beres yauste san" -
(Egunetan zera egiten zenez, gainekoa
bada, azalaren gainekoa bada berez
jausten zen)
"Ori olan dales estosu aukitten
kurioidaderi pere" - (Hori hola den
legez ez duzu edukitzen kurioidaderik
ere)
"Gaste gastetarik sartute dekosules
barrun, nik beti, gure estala" - (Gaste
gastetarik sartuta daukazunez barruan,
nik beti, gura ez dela)
"Baya diñoteles iru neska, bi edo iru" -
(Baina dinodan legez hiru neska, bi edo
hiru)
"Or esetu doas nik, oin berrogetamar urte,
ta oin bere igual daus, sakon ataten
diseles" - (Hor ezagutu ditut nik,
orain berrogeita hamar urte, eta orain
ere berdin daude, sakon ateratzen
direnez)
"Estaitxeles ba, enei esan" - (Ez dakidan
lez, ez nezake esan)

segun (selan/selau) ...-n

"Ori segun adarra selan doan, serrotatxu
beteas, a, apur bet, a, barruti ebai, eta,
ara fallora sarratu itte akon" - (Hori
segun adarra zelan doan, zerrotatxo
batekin, apur bat, barrutik ebaki, eta,
hara akatsera itxi egiten zitzaion)
"Megidek eneitzus esan fijok, aukitten dau
kordel bat, gero aukitten dau firu bet,
gorri, ta beste bat, a, asule, eta gero
andi gora segun se megide tekosen" -
(Neurriak ez niezazkizuke esan
seguruak, edukitzen du kordel bat, gero
edukitzen du firu bat, gorria, eta beste
bat, azula, eta gero handik gora segun
ze neurri dauzkan)
"Segun bearra selan oten san, baya guren
uden, a, biek ibilte siren se, gero uden

sarritten igual, a, argi be kendu itteuren" -
(Segun beharra zelan egoten zen, baina
gurean udan, biak ibiltzen ziren ze, gero
udan sarritan beharbada, argia ere kendu
egiten zuten)

"Segun palak selan dekosen, aonenbeste
estaitt senbet iru pala direlako dekot" -
(Segun palak zelan dauzkan, haonenbeste
ez dakit zenbat hiru pala direlako daukat)
"Segun selau sekorra emon dotzesun, ba
asurtzu bada edo, gero selan datorren" -
(Segun zelako zekorra eman diozun, ba
hezurtsua bada edo, gero zelan datorren)

ya ke ta... -n

"Ya ke ebaitte daun, karretillaas yo nitten eta
sardeas kargateko" - (Ebakita dagoenez
gero, karretilarekin joan nintzen eta
sardarekin kargatzeko)